

ETXEBERRI BILDUMA (EHS)

ZUZENDARIA: JOSEBA INTXAUSTI, *ohorezko euskaltzaina*.

1. *Euskararen Historia Soziala (EHS)*.
Argibide bibliografikoak (Leben emanaldia)
Joseba Intxausti. 2011
2. *Euskara eta hizkuntzak, gizartean (EHS)*.
I. Aitorpenak. Ekinbideak.
Joseba Intxausti. 2014

ETXEBERRI BILDUMA (EHS)

La colección *Etxeberri Bilduma (EHS)*
atiende a la historia sociolingüística del euskera,
publicando documentos históricos y trabajos de investigación,
tanto estudios actuales como escritos dispersos precedentes.
Tendrá en cuenta también investigaciones de otros países y lenguas.

La collection *Etxeberri Bilduma (EHS)*
traite de l'histoire sociolinguistique de la langue basque,
en publiant des documents historiques et des travaux de recherche,
aussi bien des études actuelles que des écrits dispersés déjà publiés.
Elle tiendra compte des recherches des autres pays et des autres langues.

The *Etxeberri Bilduma (EHS)* collection presents
a sociolinguistic perspective on the history of the Basque Language
which is based on the review of varied and widely sourced material
encompassing historical documents
and more recent research papers and publications.
It will also take note of relevant research from other countries and languages.

2

ETXEBERRI
BILDUMA
(EHS)

EUSKARA ETA HIZKUNTZAK,
GIZARTEAN (I)

JOSEBA INTXAUSTI



JOSEBA INTXAUSTI

EUSKARA ETA HIZKUNTZAK, GIZARTEAN

I. Aitorpenak. Ekinbideak

Etxeberri Bilduma (EHS)
euskararen historia soziolinguistikoari eskainitako liburu-sorta da;
agiriak eta ikerlanak biltzen ditu,
idazlan berriak eta lehendik sakabanatuta daudenak.
Erbestetik edo beste hizkuntzetatik
argigarri izan daitezkeenak ere gogoan izango ditu.



JOSEBA INTXAUSTI REKONDO (Segura, 1936) historialaria da eta Ohorezko Euskaltzaina. Azken hamarkadetan bereziki landu du euskararen eta hizkuntzen historia soziala, hainbat aldizkari eta liburutan eman ditu ikerlan horiek (*Euskera, Riev, Sancho el Sabio, Jakin, Bat* eta abarretan). UZEI-ren sortzaileetakoa izan zen (1977), eta erakunde horren lehen zuzendaria. Euskaltzaindiak eskatuta Euskararen Historia Sozialerako (EHS) Etxeberri Egitasmoa prestatu zuen, eta bi urtez zuzendu. "Etxeberri Bilduma" honen zuzendaria da gaur egun, eta 2011n *Argibide bibliografikoak* eman zuen argitara bertan.

www.euskaltzaindia.net



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



ETXEBERRI BILDUMA (EHS)

JOSEBA INTXAUSTI

EUSKARA ETA HIZKUNTZAK, GIZARTEAN

I. Aitorpenak. Ekinbideak.

JOSEBA INTXAUSTI

EUSKARA ETA HIZKUNTZAK,
GIZARTEAN
I. Aitorpenak. Ekinbideak.

ARGITALPEN HONETARAKO EUSKALTZAINDIKO TEKNIKARIAK:

Izaskun Etxebeste
Koro Segurola

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2014

ETXEBERRI BILDUMA
Zuzendaria: Joseba Intxausti

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.net/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.net/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

© Joseba Intxausti Rekondo
© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Diseinua: Ikeder, S.L.
Maketatzea: Zirrimarra Estudio Grafikoa
Inprimatzea: Leitzaran Grafikak

ISBN: 978-84-940717-3-7
Lege-gordailua: SS-333-2014

*HELENEri,
bizi-lankide bibotzekoari,
esker onez.*

EGILEAK

AURKIBIDE SOILDUA

<i>Hitzaurrea</i>	II
-------------------------	----

EUSKARA, IALGI HADI PLAZARA

• Talde euskaltzaleen garapen historikoaz (XVI-XX. mendeak) [1998] ..	19
• Euskararen kontzientzia eta eskea, XVI-XIX. mendeetan [1985]	71
• Un siglo de historia socio-literaria vasca. A propósito de <i>Orixte eta bere garaia</i> (c. 1860-1960) [1993]	137
• Euskararen ofizialtasuna. Aurrekari historikoak [2007]	153
• Euskal almanaka eta egutegiak (1815-2007) [2008]	173
• Herrietako euskararen bizibideez: Segurako kasua [2003]	213

1950.ETATIK URTEEN HARIAN

• <i>Euzko-Gogoa</i> eta Zaitegi [1979-1980]	269
• 1956: Urte mugarri bat [1981]	315
• <i>Jakinen</i> historiaurrea: abertzaletasuna eta euskara [1981]	331
• <i>Jakin</i> (1956), aurreko eta berehalako testuinguruan [2007]	351

MODERNITATEAREN HALABEHARRAZ

• Terminologiaz [1981]	375
• Joxe Anjel Iribar edo kirol euskararen lehen pasadizo eta ibilerak [2005]	399

* Kako zuzenen arteko urteak lehen argitaraldiarena adierazten du.

HITZAURREA

Euskara eta hizkuntzak, gizartean izenburuarekin dator argitalpen hau. Euskara eta beronen hiztungoari begira egindako lanak biltzen dira orrialde hauetan, eta, halakorik komeni izan denean, inguruko hizkuntzen albisteak ere bai.

Idazlanak hiru liburukitan banatu ditut, bakoitzari azpтитulu bana emanda:

“I. Aitorpenak. Ekinbideak”.

“II. Jarrerak. Politikak. Pedagogiak”.

“III. Erljioak. Eliza kristauak”.

1963tik 2010erako tartean argitaratutako lanak dira guztiak, eta horietako batzuk irakurleko orokorren bati begira idatzi ziren, baina beste hainbatek aldeztu aurretik begiz jotako irakurle jakina zuen helmuga (irakasleak, adibidez).

Horrekin esanda dago heldutasun ezberdineko idazlanak biltzen direla hemen, eta inguruabar, itaun eta premia desberdinen oihartzun dira orrialdeok. Inguru horren argitan irakurri beharko lirateke, hau da, denborak eman ohi dituen luzitu eta desluzituak gogoan hartuta. Horregatik, ez da gaizki etorriko guztiaren irakurketa lan bakoitzaren kokapen kronologikoa aintzakotzat hartuta egitea.

Iragan mende-erdia abiadura bizkorrean aldatu zaigu, hagitx bizkor. Batzuetan, aspaldidanik genituen pentsamoldeak kasik bat-batean zokoratuz; bestetan, ostera, gure luzaroko kultur zabarkeriaz albora lagata eduki ditugun balioak berreskuratu eta biziberritzen saiatuta. Hauxe da, hain zuzen, euskararekin gertatu zaiguna, inoiz tamaina eta kalitate berean eskaini gabeko arreta jarri dute azken bi belaunek hizkuntzari dagokion honetan, eta hizkuntzaren normalizaziorako garaietan bizi gara orain.

Abagune horren isla dira orrialde hauek ere. Euskaltzaindiak deituta (1976-1978), ikertzaile-multzo batek euskararen kanpo-historia begiratzeko parada izan genuen *Euskararen liburu zurian*. Orduan, ikusitako hizkuntzen egokiera eder eta aldarte txarren patuaz ongi ohartuta utzi ninduen egin behar izan nuen lanak (“Ikuspegi politikoa” zeritzanak). Euskal mintzatzaileok lehendik ere su-

matzen genuenaren gain, Historiatik jasotako ikuskizun politikoa biziki zentzagarri gertatu zen niretzat: jakin nuen, azkenean, hizkuntzen iragana, oraina eta geroa ez direla halabehar itsu eta hutsez jazo, eta giza indar-borondateek beren lekua izaten dutela hor.

Hori argiago birjakinez joateko erabakia hartu nuen, eta jakin ahala, esateko. Handik hona esku artean izan ditudan euskararekiko aztergai historiko-sozialek, beste gabe, balio indarberritua izan dute niretzat, are gehiago euskararen aldeko zaleen gogo-egarriek akuilatu nautela. Orain Euskaltzaindiak abiarazita du “Etxeberri Egitasmoa”, hain zuzen, euskararen iragan sozialari begiratu nahi dion iker-egitasmoa.

Hori dena horrela, hizkuntzen eta euskararen historia sozialari eskaintzea egokitu zaizkidan idazlanak ez dira etorri plangintza egitarautu baten barruan; aitzitik, euskalgintzako inguruak aurkeztu dizkidan behar premiatsuei erantzun nahirik landu behar izan ditut orain argitalpen honetan biltzen ditudanak, eta gerora bil daitekeen besterik.

Saio eta ikerlanok sakabanatuak ibili dira, itxuraz batasun bilatu handirik gabe. Hala ere, beti egon da, propio, hizkuntzaren *gizartea*, honek harekin izan duen zerikusia eta elkar-eragina argitara ekartzeko asmoa, hau da, 1950. haietatik hona soziolinguistek iradokitzen dizkiguten bilabideak historiatik ere urratzeko xedea.

Liburuki hauetan bildu ditudan lanak, eta oraingoz albora utzitakoak arrunt sakabanatuak plazaratu ziren, jaiotegun eta agertoki ezberdinak izan zituztelako, tokiko historietan, omenaldi liburuetan, elkarlaneko bildumetan, etab. Ez gutxi, aldizkarietan emana izan da: besteak beste, Euskaltzaindiaren *Euskeran*, Eusko Ikaskuntzaren *RIEV* eta kaieretan, *BEHSS* donostiar eta *Sancho el Sabio* gasteiztarrean, *Hermes* bilbotarrean, *Karmel* markinarrean, *Jakin Arantzazu-Tolosa-Donostiakoan* eta abarretan. Ziurki, barreatuegia dena, probetxu hoberik ateratzeko.

Salbuespen batzuk tarteko, nire ikerlanak ez dira Unibertsitatetik eginak, baina bai –multzo bat, bederen– Unibertsitatera begira, hau da, euskarazko goi-kultura eta irakaskuntza eguneratuari euskaraz bideak urratu nahian. Karmele Artetxek bere doktore-tesian deskribatu digun ahaleginean ulertzen ditut liburu honetako idazlanak. Izan ere, horretarako balio izan digu gure belaunekoei ego-kitu zaigun une mugatu eta pribilegiatuak¹.

¹ Artetxe Sánchez, K., 2011, *Euskara Unibertsitatera bidean: Eragileak eta proiektuak (1939-1999)*, Bilbo: UEU. Orain Sarean *Ingumak* erakusten digu, bere lorpen eta eskasiekin, denon artean metatu dugun euskarazko datu-base zientifikoa: <<http://www.inguma.org/>>.

1955-1975etan plazara atera ginenok, sarritan, lan-bokazio eta irtenbide premiatsuenak hizkuntzaren aldeko gizarte-eginbeharrean izan ditugu, horrek zituen alde on eta eskasagoekin. Norberaren gogoak eta eskakizun sozialek pisu nabaria izan dute lanbidezko erabaki pertsonaletan, eta hori ispilatzen dute idazlan hauek ere. Ugari bil daitezke antzeko eta kideko adibideak.

Ikus daitekeenez, euskarari buruz eta euskal gizarteaz ari da argitalpena; baina, ikusiko denez, maiteak izan ditut beti nazioartean eta kulturaren historia orokorrean hizkuntzek ezagutu dituzten aldarte on eta txarrak begiratzea: kolonialismoen hizkuntza politikak, erakunde erlijioso unibertsalen jokabideak, *A* hizkuntzen nonahiko apologiak eta *B* hizkuntza apalagoek pairatu dituzten erasoak, edo oro har baita hizkuntzen arteko ukipen-historiak ere. Geureaz jakiteko komeni da, uste dut, besteenaz ere zerbait jakitea.

Idazlan hauek saio eta ikerlan soziohistorikoa izan nahi dute, soziolinguistikaren hainbat iradokizun ere jasotzen dituztela; baina ez dira, inondik ere, beren zehaztasunean eta azter-kontzeptuetan osorik soziolinguistikoak. Espero dut horrelakorik ere izango dugula *Etxeberri Egitasmoari* esker, baina oraingoz asmo berritzaile honen atarian geratu dira orrialde hauetako eta bestetako nire lanak. Hala ere, poztuko nintzateke euskal historialarientzat iradokigarri praktikoa eta tresna baliagarri suertatuko balira, izan ere historialarioi eman zaigun informazioan hizkuntzen biziera soziala urrunxko geratzen baita oraindik ere. Eta zergatik ez: euskal soziolinguistek ere ez daukate zergatik historia erabat ahantzi, nahiz eta Soziologiak eta Historiak beren arteko ika-mikak ere izan dituzten (gogora, adibidez, Braudel edo Certeau, bi sinadura biziak).

Ohar hauek bukatu baino lehen, komeni da argitalpen honekiko zertzeladaren bat edo beste ematea. Testua hemen ageri den moduan finkatzeak bere lanak eman ditu, hain zuzen azken mende-erdiko idazlan hauek euskararen arautze-bilakaera bizkorreko ur-jauzi aski nahasian baitatoz. Ibilian goazela, Euskaltzaindiarekiko esanekotasunaren mende egon da arautzea, eta horrek eman digu premiazkoa dugun batasuna, baina era berean berorrek garamatza gure idatzohiturak behin eta berriz zuzendu eta era berrietara moldatzera. Hemen-go hauek eta etor daitezkeen lanak 1960 ingurutik 2011ra doazenak dira, eta nahitaezkoa izan da hamarkada horietan metatuz eta ofizialtasuna irabaziz joan diren arauak orain denak batera aintzakotzat hartzea.

Hortaz, orain arteko gramatikazko erabaki, arau ortografiko eta hiztegi akademikoetara ekarri dira hemen ageri diren testuak. Egiteko hau Izaskun Etxebeste eta Koro Seguiolaren ardurapean egon da, eta Euskaltzaindiko teknikarion lan horrek arindu du argitalpenerako nire zeregina. Berauek landu eta

hiruron artean begiratu dugun arauen estilo-orria idazlan guztietan ezarri dute, gainera. Bestalde, aipuetan jasotako inoren testuak bere hartan utzita, neurei ukitu horiek mesede baizik ez diete egin, hizkuntzari eman nahi diogun batasun-normalizazioa eginez joan gaitezen.

Argitasunaren izenean edo, lizentzia hartu dut —oso gutxitan— testua zer-txobait ukitzeko, eta betiere saiatu naiz jatorriz idatzitakoa ez saltzen, horrek ere bere balio txo historikoa izan dezakeelakoan. Gainerakoan, idazkiak lehen-dik argitara bezala ematen dira, denboran zehar tarteka dauden errepikapen eta guzti, bere lekuan adierazten den mozketak jakinen bat izan ezik.

Inoiz ausartu naiz, hala ere, testu osagarriren bat ematen, edo albiste bibliografiko lagungarriren batzuk gehitzen. Horrelako gehikuntza guztiak adierazita daude, ordea, kako zuzenen bidez eta *Nota Bene* batekin: [N. B.].

Idazlanek idazlan eman ditugun bibliografiak, oro har, kasu bakoitzean erabili diren liburu eta artikuluetara mugatu dira, inoiz edo beste N. B. batekin eman dugun zenbait erreferentzia berri gehituz; baina urrunago pasatu gabe. Behin baino gehiagotan, egon naiz *Argibide bibliografikoak*¹ liburutik emendio osoagoak eskainiko ote nituen; baina, irakurleak berak argitalpen horretan erraz aurki ditzakeenez, ez dut aitzina pasatu nahi izan.

Aipamen bibliografikoak eta jasotako testu-iturrien berriemateak Etxeberri Bildumako estilo-orriaren arabera berrituta eman dira oraingo argitaraldi honetan: dena gisa berean bateratuta, eta idazlan bakoitzaren bukaerako bibliografiara bidaltzen dugula, testua bera oin-oharretan arinago eta azken garaiko aurkezpen-molde estandarrekin adosturik, nahiz eta horrek ere baduen bere desabantailarik (bibliografiaren xehetasunak atzerago begiratu osatu beharra, adibidez).

Euskararen bizitza soziala da argitalpen honetako aztergaia, esan dugu. Hori hautaturik, orrialde hauetan maiz gertatzen da gertakari historiko bera behin eta berriz begiratu beharra, betiere ikuspuntu ezberdinetatik so egiten dugula. Horrelako adibiderik franko dago burutu ditudan idazlanetan, eta Leizarragarena azpimarratuko dut adibide egoki bezala: Leizarragak bere ondoan lankide-taldea izan zuen, eta talde euskaltzaleei buruzko kapituluan nahitaez egon behar du, eta hizkuntzen erabilpenaz bere ideologia zuenez, hizkuntza kontzientziaz jardutean Leizarragarengana itzuli behar izan dut, eta, osterera ere,

² Intxausti, J.; (Euskaltzaindiko teknikari lankideak:) Etxebeste, I., Segurola, K., 2011, *Euskararen Historia Soziala (EHS)*. *Argibide bibliografikoak*, Bilbo: Euskaltzaindia, Etxeberri bilduma (EHS) I. <www.euskaltzaindia.net/ehsbib>.

beste batean, euskal Erreforma protestanteaz dihardugula, Beskoitzekoarekin topo eginen dugu.

Guztien artean, badago orrialde hauetan hutsune nabari bat: Poza, Etxabe, Larramendi, Astarloa, Erro eta beste zenbait apologistaren erdarazko lanen berriematea, baina hemen apenas agertuko den halakorik, hain zuzen gure euskal idazleen iritziak jasotzean, euskarazko testuen aurkezpenetara mugatu behar izan nuelako. J. Madariagak maisuki erakutsi digu euskararen erdal apologista eta gaitzesleen historia, eta argitalpen horretara jo beharko luke irakurleak, hemen aurkeztutakoa erdarazko apologia testuenekin osatu nahi balu.

Lehenengo liburuki honetan, *Aitorpenak. Ekinbideak* deritzadanean alegia, hiru ataletan banatu da gaia: “Euskara, ialgi hadi plazara” lelopean bildu ditut talde euskaltzale historikoei dagokien lana, hizkuntzaren kontzientzia eta ofizialtasunaz diharduten oharrak, euskara idatziak izan dituen ekinbide orokor batzuen iraganeko ibilerak (literatur historia, egutegiak) eta, tokiko historiari helduz, Segura udalerriko euskal albisteak.

Liburuki honetako bigarren atalak 1950eko hamarkadari begiratzen dio, eta garaiko euskara idatziaren bi aldizkari nagusi aztertzen ditu, *Euzko-Gogoa* eta *Jakin*, biak ere, bakoitza bere gisara, jakite humanistikoei euskaraz heltzen saiatu zirenak.

Hirugarren atalak, ahalegin horretan gaurko “Euskalterm” banku terminologikoaren sorrera urteak gogorarazten dizkigu, dagoeneko korrika batean aski urrunak (1981).

Idazlan hauen argitaraldi honetan zorretan geratzen naiz, laguntzak eman eta erabakiak hartu dituztenekin: aipatu berri ditudan lankideekin, K. A. Euskal Fundazioko lehendakari Juan Zelaia Letamendi jaunarekin eta Euskaltzaindiko Argitalpen Batzordearekin, guztion laguntzarik gabe ez baitzen liburu hau ka-lean izango eta egindako lana erdi galdurik geratuko zen. Esker anitz, beraz.

J. I.

1

EUSKARA, IALGI HADI PLAZARA

Kultur berrikuntza-uneetarako gaitasun aparta erakutsi izan du euskal hiztunagoak: Erromaren latinaren aurrean, erromantzeei maileguak jasotzean, itzulpen biblikoetan hainbat hizkuntzari aurrea hartzean edo XX. mendean normalizazio soziopolitikoari heltzean, adibidez.

Baina, Erdi Aro eta Aro Modernoko egokiera historikoe-tan, moldiztegia ere geure eskuetan izan genuenean, euskal mintzatzaileok ez genuen asmatu, hizkuntza nagusien ondoan, gure kultur berrikuntzak euskara idatziz ere bideratzen, eta Monarkia handiek beren hizkuntza politikak eratzen ari ziren bitartean, gure Erakundeen hizkuntza ofizialtasunak euskararentzat irabazi eta segurtatzen.

Gertatutako horien azpian galderak samaldan datoz: Nor da utzikeria edo ezin horien erantzule? Zergatik, unean uneko, hiztunek ez zuten beharbada deus esan ezartzen ari ziren hizkuntza erabaki berrien aurrean? Eta abar.

Honelako arazoak argituz joateko albiste zenbait biltzen dugu liburuko lehen parte honetan, talde euskaltzaleei, euskal idazleen kontzientzia linguistikoari, ofizialtasunaren historiari, etxeko sukaldeetako irakur-ohiturei (egutegi) eta tokiko politika herritarrei (Segura) begiratzean.

TALDE EUSKALTZALEEN GARAPEN HISTORIKOAZ (XVI-XX. MENDEAK)*

Hizkuntzen aldeko *mugimendu* edo *talde* deituei buruz elkarrekin hitz egiteko aukera eman zaigu hiru egun hauetako ikastaro honetan. Hautaturiko gai hau, soziolinguistek aztertuko digute batez ere, eta, segur aski, halakoei dagokien gaurkotasun biziz betetako ikuspuntu batetik begiratuz hitz egingo digute. Hala ere, eta horregatik, lehenengo hitzaldi hau Euskal Herriko talde euskaltzale historikoak gogoratzeko izango da.

Hizkuntza bat, sistema arautua ez ezik tradizioa eta segida ere bada, eta orainalditik bezala iraganetik ere ezagutu beharreko zerbait. Horregatik, soziolinguistikako maisuek maiz eskaini ohi dituzte, beren lanen atarian, halako sarrera historiko argigarriak. Beraz, ongi etor liteke hemen ere gaurkoak ezagutu aurretik eta ezagutzeko, egungo talde euskaltzaleak zein tradizio eta ondare historikotatik bizi diren jakitea.

Bego, bada, horrela eta beste gabe, zuzenetsita gure historiari emango diogun begiratu hau.

0. Sarrera-oharra

Pentsa daitekeenez, euskaldungoaren historian hizkuntzaren aldeko hainbat talde euskaltzale egon da, teoriiaz baliatuz edo ekinean jardunez hizkuntzari biziera hoberik sortu nahi izan diona. Mota askotakoak izan ditugu taldeok, eta testuinguru historiko ezberdinei erantzun nahirik ahalegindu dira lanean.

Hiztunen hizkuntz bizitzari iraupena eta segida emateko beti izan diren *berezko* taldeak albora utziz (sendia, haur-lagunartea edo auzunea, adibidez), hizkuntzaren aldeko bestelako taldeak ere ezagunak ditugu euskaldungoaren

* 1998, in Intxausti, J. (ed.), *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak. Donostiako Udako XII. Ikastaroak (1993)*, [Bilbo]: UPV-EHU, 17-56.

historian, nahiz eta euskal gizartea aski berantiarra izan den une historiko larri sobera bizi izan dituen hizkuntza honen defentsarako taldeak sortzen.

Bestalde, historiatik kontzeptuetara etorriz, esan beharra dago taldeak aipatzean zertaz ari garen jakin-premia daukagula¹. Hala ere –barka bekit ausartzia–, ez ikusiarena egingo dut hemen: *talde* hitza molderik zabalenean hartuko dut, aldez aurretik gogoeta hau hitzaren adiera jakin bati lotu gabe, eta gerora beharko diren zehaztasunetan sartzeko. Talde euskaltzale historikoen tipologia egin gabe dugu eta azterketa monografikorik ez izanik, hobe da –hala uste dut– talde ezberdinen lehen deskribapenari beste gabe bide ematea. Beraz, hemengo oharpen hauek muga horien barruan doaz, gehiago gabe.

I. Lantalde euskaltzaleak

Arestian esandakoa errepikatuz, talde mintzatzaile baten kodea da hizkuntza, hiztunak erabili, sustatu eta segida eman ohi diona. Giza komunitate baten baitan bizi den komunikazio-tresna da, beraz, eta ondorioz, ez da harriztekoa inoiz hizkuntzaren erabilera batzuk *taldetasun* zentzu nabariagoa hartzea (zenbait azalpen folklorikotan, elizan, bertsolaritzan eta abarretan); alabaina, ez da hori guk hemen azaldu nahi duguna, beste zerbait baizik.

Krisialdi nahiz hazkunde-garaietan batik bat hiztunen baitan hizkuntzaren aldeko berezko nahiz antolatutako talde bereziak sor litezke, eta sortu, sortzen dira. Gurean ere izan da, noski, horrelakorik. Gertatutakoaren berri emateko, mugaren bat jarri behar eta, azalpena puntu hauetara bildu dugu bere edukian:

- I.1. Lantaldeen iratzartze berantiarra.
- I.2. Lantaldeen historiaurreaz oharra (XIV-XV. mendeetakoaz).
- I.3. Etxepareren historia *isolatua* (1545).
- I.4. Leizarraga eta leizarragatarrak (1563-1571).
- I.5. Donibane-Sarako Eskola (1617-1643).
- I.6. Euskal Herriaren Adiskideak (1764-1794).
- I.7. Eusko Pizkundeko taldeak (1876-1936).

¹ Ikus *Diccionario de Ciencias Sociales, Diccionario de Sociología, Enciclopedia de las instituciones políticas*. Boudon; Bourricaud: *Dictionnaire critique de la sociologie*. s. v. “Grupo” / “Groupes” eta “Movimiento(s) social(es)” / “Mouvements sociaux”.

Azken kapitulu hau –Eusko Pizkundeari dagokiona– ikuspegi orokor bat iradokitzen zuzendu da, aipatu beharreko talde bakoitzarena luzatzerik ez zegoenez, eta hain zuzen ahalik gehienak aipatzea nahiago izan denez; halere, egunen batean aztertu beharko dira taldeok ere behar eta merezi duten xehetasunekin.

I. I. Lantaldeen iratzartze berantiarra

Euskal gizartea, berandu iratzarri zen –taldeetan edo lankidetzan eratuta– hizkuntzari etorkizuna segurtatzeko: Aro Moderno-Garaikideetan, ez lehenago, esango genuke. Erran gabe doa, gure artean ez genuela ezagutu Erdi Aroan Toledoko Itzultzaileak bezalako talderik, adibidez (hura taldea izan zen neurrian ere) (Jacquart 1991: 177-191), edo Alfontso X.a Jakitunaren inguruko lanaren antzekorik². Gure Erdi Aroko erakundeek ez zuten euskararen alde horrelako talderik sustatu.

Egia da, botere politikoen aterpeetatik kanpo, agian itxaropen hobez espero zitekeela beste nonbait Erdi Aro hartan hizkuntzaren aldeko talde edo ekimen elkarturik: Elizan, edo beraren inguruan, esan nahi dut, hain zuzen halaxe gertatu baitzen zenbait tradizio kristautan. Hasteko, Kristok berak erabilitako arameera-sirierarekin³, baina baita –zabalkiago eta guretzat argigarriago–, Ekialdeko beste Eliza kristauen hizkuntza batzuetan, lehenengo mendeetatik ekinda⁴.

Zoritxarrez, Ekialdea ez zegoen, ordea, Mendebaldean, eta, geroago –hain zuzen Euskal Herriaren kristautzea burutu zen mendeetan gutxi gorabehera berriro (Villasante 1961: 36-37)– Europako herri eslaviarren Ebanjelio-predikariak suertatu ziren hizkuntzen bidegurutzean, eta hizkuntz politika birdefinitu premian. Etsenplu historiko gogoangarria da paleoeslavierari Ziril eta

² Alfontso X.aren lan normalizatzailea Niederehe-k aztertu du: 1987, *Alfonso X el Sabio y la lingüística de su tiempo*. Iradoki nahi dena ulertzeko, kapitulu bereziki interesgarria, hirugarrena: “El uso de la lengua”, 107-128. Arazoa testuinguru zabal laburtu batean begiraturaz, ikus Marcos Marín 1979: 85. Hainbat horrelako ezaguna da beste herri eta hizkuntzatan, Bulgariako Simeon Handiarena (893-927) edo Kiev-eko Errusian Jaroslav Jakitunarena (1036-1054).

³ Ikus, adibidez, arameera-sirieraren historiaz, Selis 1988: 17-21.

⁴ Legendak ere edertutako Mesrop Maxtotz-en (c. 361 - c. 441) kasu bikoitza (georgierari eta armenierari, biei, eman omen zien alfabetoa berorrek), eta Mesrop-ekin batera haren jarraitzaileena mirestekoa da zinez. Alfabetoaren ondotik, berehala etorri ziren testuen itzulpen, egokitzapen eta sorkuntza lanak. Armenierarena ondoko autoreotan ikus daiteke: Nichanian 1989: 74-109. Historia berezituago baterako, ikus Feydit 1982.

Metodio-k eman zioten kultur irtenbide hizkuntz herritarra (IX. mendearen erdialdera, kasu honetan)⁵. Berriz ere Mendebaldeko hizkuntzek ez zuten izan –ezta euskarak ere– beste hainbesteko aukerarik.

Elizen hizkuntz hautapen ezberdin kontrajarri horiek –latina nahiz grekoa hizkuntza ofizial bakartzat aitortzeak ala herri-hizkuntzak eliz ofizialtasun osorako hautatzeak, alegia– munta soziokultural nabaria izan dute geroztik herri ezberdinen historian, eta ez txikiena beraien kultura eskolatu idatzietan⁶.

Hortaz, Euskal Herriari Eliza erromatarraren tradizio latindar elebakarrean edo⁷ suertatu zitzaion kristautzea. Ondorioz, Erdi Aroan ez genuen izan euskara, egokiera kultural berrirako prestatu zuen eliz lantalderik (ezagutu dugunik bederen). Eta, bestalde, gure XV. mendeko heretikoek (Olaizola 1993: 81-87) ez zuten –ez dugu ezagutzen behintzat– mende berean hustar txekiarrek erakutsitako herri-hizkuntzaren aldeko politika erabaki hura erabili⁸.

⁵ Greko bizantziarraren eta latin erromatarraren aurrean paleoeslavieraren arrakasta eta porrot historikoak ulertzeko “Eslavia ortodoxoan” (Serbia, Bulgaria, Kiev) eta Moravia Handian (830-906: Bohemia, Eslovakia, Polonia) bizi izandako historia erlijioso-linguistiko kontrajarriak ezagutzea interesgarria da: Eslavia ortodoxoan garbiak izan ziren eslavieraren aldeko hautapena eta ondoko politika, garaipeneraino, baina Erromak berreskuratu ahal izan zituen lurralde mugatietan, Moravia Handian alegia, azken buruan paleoeslaviera hura galtzaile atera zen, eliz eta kultur bizitza osoa latintzean. Gaur egungo testu katoliko mendebaldar batek, Erromatik, honela aitortu ditu aldakuntza horiek: “Mas es digno de atención el hecho de que aún a mediados del siglo X, en tiempos de San Wenceslao [Bohemian, kristautzearen ondoko gizaldian alegia], existía una compenetración recíproca de elementos de ambos ritos con una avanzada simbiosis de las dos lenguas usadas en la liturgia: la lengua eslava y la lengua latina. Por lo demás, no era posible la cristianización del pueblo sin servirse de la lengua nativa. Solamente sobre esta base pudo desarrollarse la terminología cristiana en Bohemia y de aquí, sucesivamente, desarrollarse y consolidarse la terminología eclesiástica en Polonia” (Joan Paulo II.a 1985: 43). Argibide historiko landuak, in Vodopivec 1986. Hizkuntzen hautapen-gatazka noraino iritsi zen jakiteko, ikus 92-93 orrialdeak. Betiere gogoan har bedi, gainera, Hamant (ed.) 1989: 19-32, 33-39 (hurrenez hurren N. Chivarov eta D. Anglekov-en lanak).

⁶ Horrek guztiak literatura errusiarrarekin izan zuen eragina: Picchio 1972, bereziki 13-21 eta 31-43 orrialdeak. Aipatutako beste kasuaz, hizkuntzan zein literaturan izandako ondorioez: Feydit 1967; Chahinian 1988, bereziki lehen partea: “La Littérature Arménienne classique”, 19-110 orrialdeak. Eta hizkuntza bereko argitalpenen historiaz: Kévorkian; Mahé 1985.

⁷ Ez, noski, erabateko elebakartasun itxian, kristautzea bera ez baitzen bestela egingarria gertatuko, baina bai nonahi hizkuntz ofizialtasun eta eliz kultura jasoan (Liturgian eta eliz kultura eskolatu ofizialenean), horietan latinak definitu baitzuen hizkuntz politika.

⁸ “La révolution hussite entraîne d’importantes transformations dans le domaine des nationalités. [...]. La langue devint le thème principal du mouvement patriotique, et on se mit à souligner davantage les différences entre le tchèque et l’allemand. [...]. L’accession des prédicateurs, érudits et chefs politiques tchèques aux postes clés du pays contribua à un grand essor de la langue tchèque, langue officielle du pays

Beraz, gure Errenazimentuak ezin izan zuen jaso Erdi Aroko euskal Erakundeetatik edo orduko Elizatik geroko euskalgintzarako lantaldeen tradizioarik. Eta, gure ahulean, bakarlanak ere jaio gabe geratu zitzaizkigun, kontrako gure hizkuntz hautapen instituzionalen eraginez⁹.

Duen esanahi historikoagatik, hutsune ezagun hauek azpimarratuta utzi nahi nituen hemen, idazlan honen hastapenean, geroko pauso batzuen argigarri ere badirelako.

I.2. Lantaldeen historiaurreaz oharra

Izan ere izan diren taldeen historiaurre hurbilagora etorritz, ez da agian leku kanpo egongo hemen, lehen euskal testu literarioak euskaldunok ohiko izan dugun *taldekako sorkuntza-teknikaz jaiok* ditugula gogoratzea.

XIV-XV. mendeetatik datozkigun testu haietaz ari naiz, noski. Garibai, Zaldibia eta abarren bidez iritsi zitzaizkigun (Villasante 1961: 356-357; Mitxelena; Sarasola 1990: 66 eta hurr.), eta J. K. Gerrak eskaini liburu batean bilduta (Gerra 1924; Gorostiaga Bilbao 1952; Villasante 1961: 38-39). Garaiko “eresiek” batez ere sorkuntza literario haien lagunartekotasuna berekin dute. Mitxelenak esan zigunez, “según diversos testimonios fueron improvisados por mujeres a quienes respondían otras, dando lugar a debates en verso semejantes a los de los bersolaris modernos” (Mitxelena 1960: 42).

Lehen orduko sortzaile literario haien talde-testuinguru hori berrikitan zabalago azpimarratu izan da, gaurko bertsolaritzarekiko kidetasunak nabarmentzean (Azurmendi 1980: 147-149; Aulestia 1990: 87-93), baina bistan da

depuis le règne de Venceslas IV [1363-1419], qui acquit ainsi une position privilégiée dans les affaires traitées par les magistratures municipales (les livres municipaux étaient écrits en tchèque, de même que la correspondance officielle). De nouveaux ouvrages de théologie (Jacques de Stribro, Jean Rokycana) virent le jour; on s'adonnait en tchèque à des discussions savantes sur le saint-sacrement de l'autel ou sur l'office de la messe (Prague, Tábor). Jean Hus [1369-1415] avait déjà entrepris de retirer de la langue tchèque les mots étrangers, et surtout allemands, et il réforma également l'orthographe” (Macek; Mandrou 1984: 119). Gogora bedi hemen Moravia Handiko lurraldeetan bostehun urte lehenago galdutako lehiaketa alderantzikatu nahi zutela txekieraren alde hugarrek.

⁹ Giro lagungarri baten barnean, bakarlanean ere egin zitekeenaren gure galeraren handia barrundatzeko, ikus zein bide ederra bete zuen gaztelaniak Elizan bertan, baina betiere Monarkiaren babespean, latinak libre uzten zituen esparruetan behintzat. Ikustekoa da, adibidez, Berceo-ren obraren tamaina harrigarria, bere azken edizio kritikoan (zinez harrituta utzi nauelako aipatzen dut euskal lurrez eta hizkuntzaz inguratuta zegoen idazle honen kasua): Berceo, G. de, 1992.

haiek ez zirela zinezko lantaldeak, unean uneko egokierari erantzuteko bilduriko bertsozaleak baizik. Behe Erdi Aroko mendeetan Euskal Herrian ezagutu genuen literatura herritarrean lekutzen dira azalpenok, jendartean eta jendarterako sortutako lanak bai, baina bestelako *taldetasunik* gabe.

1.3. Etxepareren historia *isolatua* (1545)

Eta gatozen euskal literatura inprimatuaren jaiotza-urtera (1545). Lehen liburu inprimatuaren inguruan ez dugu aurkitzen azken Erdi Aroko erostari eta koplari haien antzeko gizarte-ingurunerik: itxura guztiz, idazle bakar batek bere gisara burututako obra dugu Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* poema-liburua (1545).

Etxeparerena, bakarlan bezala agertu izan digute historialariek –bakarrik egina, esan nahi da–, ez baitirudi autorea beste inorekin elkartuta egin zuenik. Lagunarte literariorik gabea da, hortaz, gure lehenengo liburua.

Hala ere, azpimarragarriak dira Etxeparerengan honen alde soziohistoriokoak. Ez zen bizi izan mundutik urrunduta eta gizarteko gorabeheretatik at (Reicher 1957), eta aitzitik, bai garaiko aldarte politikoen sasietan trabaturik (Urkixo 1933). Sozialki, izan zituen lagunak, eta etsaiak ere; historikoki, agian urrundik, baina ezagutu zituen garaiko beste kulturen aitzinamenduak (inprimategiaren balioa, adibidez, ongi ulertu zuen), eta bazekien zerbait gure kultur historiaren eskastasunaz. Bi alde hauek –soziala eta historikoa– nabariak dira idazlearen hitzetan.

Gorabehera pertsonalak aparte, bere burua aitzindari literariorik gabe ikusi zuen: gogoratzen digunez, aurreko antzekorik gabe landu zuen bere liburua¹⁰. Bakardade historiko horretaz jabeturik, obraren balioekiko harrotasun guztiz pertsonala erakusten digu, zinezko mugarri historiko bat jarri zuenaren harrotasuna: *Primitiaek*, aurreko kultur zabarkeriei hesi-muga bat ezarri nahi zien, eta berori ondoko eginkizunen abiapuntutzat har zitekeela uste zuen¹¹. Hizkuntza-

¹⁰ “Miraz nago, Iauna, nola batere ezten asayatu bere lengoaje propriaren faboretan heuskaraz zerbait obra egitera eta skributan imeitera” (Etxepare 1968: 20). Obraren lehentasun-balioa Bordeleko adiskide eta babeslearekin banatzen zuen idazleak, izan ere, “lehen inprimitzalia heuskararena hura da” (Etxepare 1968: 30).

¹¹ Irakur “Kontrapas”ean errepikatzen duen *orai* nahiz *oraindano* haiek: “*Orai* dute forogatu / enganatu zirela [...]. *Orai* aldiz hik behar duk / Ohoria orotan [...]. *Orai* hura iganen da / Bertze ororen gainera [...]. Orok ikasiren dute / *Orai* zer den heuskara [...]. *Oraindano* egon bahiz / Inprimitu gaberik, / *Hi engoitik* ebiliren / Mundu guzietarik [...]. *Orai* ezta erideiten / Heuskararen parerik” (Etxepare 1968: 126-128). [Azpimarra gurea].

ren ibilbide historikoaz ere bazuen kontzientziarik (Intxausti 1985: 367-368): hain zuzen, obraren inprimaketa gertakari historiko aberasgarritzat definitu baitzuen autoreak berak¹².

Hizkuntz hautapenean, euskal hiztungoarekiko atxikimendu hurbila erakutsi zuen Etxeparek¹³, eta, halaber, autore-interesak mezenasgo batez zainduz, argitalpen-unean kalera ateratzen lagunduko zion aterperik ere bilatu ahal izan zuen, euskaldunen artean¹⁴. Hortaz, izan zuen Etxeparek alde soziohistorikoaren (diakronia eta sinkronia esango genuke) kontzientzia pertsonala.

Hau dena gogoratu ondoren, ordea, ezin liteke esan Etxepareren lana, talde-lana izan zenik, ez sorkuntzan eta ez izan zitzakeen inguru sozial nahiz segida literariotan ere. Eta, zoritxarrez, euskaldunei lanera deitu bazien ere, bakarrik egindako lana, bakarrik geratu zitzaion, eta Bernat Etxepare ez zen heldu Frantzia eta frantsesaren alde Ronsard-ek izandako antzeko *rol* sozialik betetzera: hau da, euskarak ez zuen izan *Pléiade* gisako talde aurreraturik¹⁵.

¹² “Eta zeren orai zuk, Iaun noble eta naturazkoak bezala, baituzu estimatzen, goratzen eta ohoratzen heuskara; zuri, neure iaun eta iabia bezala, igortzen darauritzut heuskarazko koplak batzu, ene ignorantziaren araura eginak. Zeren, iauna, haiek ikhusirik eta korrejiturik plazer duzun bezala, irudi bazautzu, inprimi erazi ditzatzun eta zure eskutik orok dugun ioya ederra, *inprimiturik heuskara, oraino izan eztena, eta zure batse honetik dadin aitzinerat augmenta, kontinua eta publika mundu guzietara*” (Etxepare 1968: 20). [Azpimarra gurea].

¹³ “Zeren baskoak baitira abil, animos eta jentil eta hetan izan baita eta baita zientzia guzietan letratu handirik [...]. Eta baskoek bertzek bezala duten bere lengoajian skribuz zerbait doktrina, eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora igaraiteko materia [...]”. “Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden, / Bana haien lengoajiaz bertze oro burlatzen, / Zeren ezein skripturan erideiten ezpaitzen; / Orai dute ikasiren nola gauza ona den. / Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruya” (Etxepare 1968: 20, 130).

¹⁴ “Erregeren adokatu bidezko eta nobleari, birthute eta on guziez konplutuyari, bere iaun eta iabe Bernard Leheteri, Bernard Etxeparekoak, haren zerbitzari txipiak, gogo honez goraintzi, bake eta osagarri” (Etxepare 1968: 20).

¹⁵ Ronsard (1524-1585) poetaren inguruan eraturiko talde literarioa zen “*Pléiade*” (1554), Du Bellay, Belleau, Jodelle, Baif, Pontus de Tyard eta Dorat tartean zirela osatua. Ikus Weber 1971, I: 491-494: “Ce programme n’est pas celui d’un seul individu qui signe le manifeste, il est l’expression de la volonté d’un groupe, de ceux qui se sont mis à étudier le grec sous la direction de Jean Dorat et ont découvert avec enthousiasme la richesse de la poésie grecque”.

I.4. Leizarraga eta leizarragatarrak (1563-1571)

Euskal literaturaren hurrengo pausoa, ordea, taldean emango da: *Testamentu Berriaren* itzulpena (1571)¹⁶ talde leizarragatarra deituko genukeena Leizarragak eta berorren taldeak burututako lana izan zen. Garrantzizko lanbide berria dakarren gertakari sozioliterario baten aurrean gaude kasu honetan, zinezko lantalde baten aitzinean alegia. Xehetasun handiagotan sartzea beste baterako utziko badut ere, pausaldi lasaiagoa eskatzen du leizarragatarren honek¹⁷.

Joanes Leizarraga ageri da, hitzaurreetan, lanaren sinatzaile bakar bezala, baina gure bigarren euskal idazleak badu bere testuan, ondoan izandako taldeari buruzko aipurik; izan ere, Sinodoaren lankide-bilaketak eta berauen ahalginak eta lan-borondatea gogoratzen baitzikigu: “hunetan [itzulpen-lanean, alegia] «enplegatu izan direnek» bihotz harturen dute, oraindik gogo ere duten bezala, egin denaren berriz ikusteko eta korrejitzeko” (Leizarraga 1990: 254)¹⁸.

Leizarragaren saihets-aipu hauetatik hasita, saiatu dira ikertzaileak haren lankideen nortasunak argitzen: Vinson-ek bildutako xehetasunak osatuz (1891, 1898, 1908), Jaurgain-ek (1907) eta batez ere Lacombe-k (1931) eman dizkigute Leizarragaren lankideen albiste-apurrak (Vinson 1983, I: 5-46; II: 521-529; Jaurgain 1907: 288; Lacombe 1931: 363-366)¹⁹, berrikitan Olaizolak gaztelaniara itzulita aurkeztu dizkigunak (Olaizola 1993: 177-183), eta geroztik Urbistondo-Pikabeak aztertu ahal izan dituenak²⁰. Guztien iturriak Sinodo kalbindarretako agiriak eta *Rolle des offices* deitu bat dira²¹. 1563tik aurrera, 1601

¹⁶ *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*, Rochellan: Pierre Hautin, Imprimiçale, 1571. Ondoren egingo diren testu-aipuak (Leizarraga 1990, alegia) Euskaltzaindiaren edizioaren arabera jasoko dira.

¹⁷ Argitaratu emango den “Leizarraga eta leizarragatarrak (1563-1571)” idazlanerako geratzen da zenbait albiste osagarri (Ikus, orain, *RIEV* 40, 1995, 119-160. Izan ere, lan hau, “Talde euskaltzaleen...”, 1998an argitaratu bazen ere, 1993an prestatu zen EHUko *Donostiako Udako XII. Ikastaroetarako*).

¹⁸ Eta begira zenbait esaldi: 247 eta 252. orrialdeetan.

¹⁹ Gogoan har, bestalde, 1972ko *Euskera* 17. alean, Leizarragaz bildutako lanak: 128-154, 283-285 orrialdeetan.

²⁰ “Les Basques et le protestantisme en Basse-Navarre et en Soule entre 1563 et 1623 à travers l'étude comparative et l'analyse des Manuscrits Ms IJ1387/4 et Ms 433/4 des Synodes du Béarn” ikerlana, A. Arkotxaren zuzendaritzapean burutua.

²¹ *Synodes du Béarn de 1563 à 1579 et de 1594 à 1623*, eta *Rolle des offices et mandementz de finances expédiés par commandement de Monsieur de Gramont* (1564ko apirilaren 27tik 1565eko azaroaren 28ra): azken honek itzul-tzaile-zuzentzaileei egiten zitzaizkien ordainketen berri ematen du. Jaurgainek eta Lacombe aipatuak.

arte agertzen dira Leizarraga eta beronen ingurukoak (1580-1593 urtean artean hutsarte bat dela).

Leizarragarren talde hau ez zen sortu, taldekide izango zirenen kabuz eta ekimen hutsez. Lehenengo eta behin, Leizarraga bera Paueko Sinodo kalbindararren erabakiz bildu zen Bibliaren itzulpen-lanera: “Lapurdin dagoen Leizarragari hona (Pauera) etortzeko aginduko zaio, Testamentu Berriaren, otoitzen eta katiximaren itzulpena egin dezan”. Eta aginduak berarekin izan zuen mantenu-
-eskaintza ere: “Eliz Kontseiluari eskatzen zaio bera manten dezala, etorri nahi badeza bederen”. Une berean, Sinodoarena ez ezik Erreginaren borondatea ere badela hori, dio Sinodoaren testuak: “La volonté de la Royne est quil Vienne” (Lacombe 1931: 363-364; ikus Olaizola 1993: 177-178). Taldeburua izendaturik geratu zen, hortaz.

Lafitte eta Olaizolarekin batera, itzulpen-mandatu honen data, 1563an eman behar dela uste dut. Hurrengo urtean ez dugu albisterik, baina bai Oloroen ospaturiko Sinodoan (1565), han erabaki baitzen Leizarragaren lana berrikusteko lantaldea sortzea. Begira zer zioen testuak:

Testamentu Berria lau Ministrari euskaldunek berrikus eta zuzen deza-tela agindu da, eta beren familietatik at denbora luzez egon beharrean izango direnez, Bonnefont Jaunak agindu du haien gastuak ordaintzeko, egiteko horretan beren etxeetatik urrun izanen diren bitartean, eta bestalde –igandeetakoetatik salbu– beroriek beren prediku-lanetatik aske izanen dira (Lacombe 1931: 364). [Itzulpena gurea].

Zinezko lantaldea izan zen, bada, beren etxeak utzi eta elkarrengana lanerako bildua. Bakoitzari eguneroko soldata izendatu zitzaion, baina azpimarratu behar da aurrekontu ireki baten gain zihoala lana, hau da, behar izango zen denbora hartzeko eragozpenik gabe. Eguneko hainbesteko batekin ordainduko zen jarduera, horretarako Sinodoak agindu eta eskatuta zeuzkan diru-laguntzak elizetan bilduta ordainduko zena (Olaizola 1993: 179-180)²².

Lau talde-lagunen izenak ezagunak ditugu: Tardetz, Sanz Tartas, Piarres Landetxeberri eta Joanes Etxeberri (De la Rive ere deitua)²³. Lantalde honen

²² Pentsa liteke erbesteko eliza zaharragoetan ikusitako burubidea segi zela kasu honetan ere.

²³ “Tardetz”, horrelaxe agertu ohi da (“z”rekin). Joanes Etxeberri hau lapurtarra zen, donibandarra: Euskal literaturan beste bi “Joanes Etxeberri” ere baditugunez (Ziburukoa, Sarakoa), honi “Etxeberri Donibanekoa” deitu beharko genioke.

eraketa kalbinisten lankidetzatza-moldeen tradizioaren barnean ulertu behar da. Genevan bertan ezaguna zen Artzainen arteko itzulpen- eta berrikuspen-lankidetzatza²⁴. Hortaz, talde-sorrerak ez zuen esan nahi Sinodoak Leizarragarengan zuen konfiantza ona zalantzan jarri edo galdu zenik.

Itzulpen-programa oso bat eman zitzairen Leizarraga eta taldeari, eta ez *Testamentu Berriaren* itzulpen-eginkizuna bakarrik: kalbinistek elkarte-bizitzan behar zituzten oinarrizko argitalpen guztiak prestatu behar zituzten (otoitzak, sakramentuak, katixima, irakurgaiak, etab.). 1571ko argitalpenaren arabera badakigu, gainera, hamabiren bat liburu-liburuxka atera zirela kalera, eta itxura denez, hauetako batzuek bederen aparteko edizio bereziak ere izan zituztela (Olaizola 1993: 181). Honetan ere Europako eta Frantziako hedapen-tradizio kalbinistari jarraitu zitzaion (Léonard 1967, I: 278-280).

Berehala –soldatak noiz etorriko zitzaizkien begiratu gabe– jarri ziren lanean talde-lagunak (Leizarraga lehenengo, zuzentzaileak gero), zeren *Rollek* dioskunez, 1565eko uztailearen 10ean egin zitzaizkion hari ordainketa batzuk (Olaizola 1993: 179); hilabete batzuk geroago, urte bereko udazken aurretik, eginda zeukan taldeak kontu emateko bere txostena, Salbaterako Sinodoarentzat (1565-iraila-5) (Lacombe 1931: 364). Irailaren hondarrean lanean ari ziren eta, antza, artean puska batean segitzeko asmotan (Jaurgain 1907: 288).

Taldeak bi motatako itzulpen-zailtasunak aurkitu zituen bere zereginen: Bibliaren itzulpen orori zegozkionak, eta euskara hezigaitz batekin moldatu beharrak zekartzanak. Lehenengo arazoaz asko zekiten itzulpen-talde erreformatuek, eta Leizarragak gertutik begiratu behar izan zuen aurreko hamarkada haietako protestanteen lana²⁵, berean erabil zitzakeen irizpideak alde aurretik ezagututa jardun ahal izateko (Leizarraga 1990: 246, 252).

Bigarren oztopoaz, berriz (euskararen gaitasunaz, alegia), Leizarragaren testuetan bertan eta Sinodoetakoren batean ikus daiteke, nola arduratu ziren lankideak. Bere “Heuskalduney” atarikoan, ulergarri gertatzeko testu itzuliaren gain

²⁴ Ikus Mangelot 1912, s. v. “Françaises (Versions) de la Bible”, 2363-2364 zutabeak: “Les pasteurs et les professeurs de Genève publièrent, en 1588, une revision de la Bible d’Olivet, qu’ils avaient préparée en corps et à laquelle ils donnèrent une approbation officielle. Le principal reviseur était Bertram, [...]; ses collaborateurs se nommaient Th. de Bèze, Antoine de la Faye, Jacquemot, Rotan et Simon Goulart. [...] L’oeuvre de la «Vénérable Compagnie» de Genève eut une grande vogue parmi les protestants français”.

²⁵ Frantziako higanoten artean, Olivetan-en itzulpen frantsesa (1535) izan zen ofiziala, baina behin eta berriz zuzenduta, Calvin bera ere tarteko (1545. 1560), 1588an *azken* onarpen osoa izan zuen arte. Agian, Olivetan-en hartatik, Calvinen oharrez aberastuta egindako 1561eko nahiz 1563ko edizioa izan zen Leizarragak begiratuena.

jarri behar zen arreta gogoratzen zuen Leizarragak, eta badakigu hain zuzen lantaldea ere horretaz kezkatu ari zela, “ahalic guehiena guciey adi eraciteari iarrei qui içan gaitzaitza” baitio berak gainerako lagunak ere gogoan zituela (Leizarraga 1990: 254). Horrela azpimarratzen du itzultzaile nagusiak, talde-lagun guztiek euskaldun ororen alde hautaturiko hizkuntz ulergarritasunaren jarrera. Urte batzuk lehenago, 1565eko Sinodoari taldeak zuzendutako txostenean ageri zen hizkuntz batasun eta ulergarritasunaren kezka bera da (Olaizola 1993: 179).

Itzulpen-lankidetzaren hark sortutako hurbiltasun pertsonal-instituzionala ondoko hamarkadan ere luzatu zena badakigu, izan ere Leizarraga bere lankide izandakoen haurren irakasle bilakatu baitzen hurrengo urteetan, Sinodoaren testu batek dioenaren arabera (1574) (Lacombe 1931: 365). Horregatik Piarres Lafittek zera idatzi zuen inoiz: “Bagaude ez ote zen izan eskual ikastoletan lehen-lehena!” (Lafitte 1972: 147).

Garbi dagoena zera da: euskal kalbinismoak ez zituela galdu nahi hemengo hizkuntz erroak eta premiazkoa ikusten zuela, “Seminario Ttipi” edo “Lehen Seminario” bat sortzea, gerora Leskarren, Orthezen nahiz Pauen hezi zitezkeen artzaingai gazteentzat, Erreginaren borondatez eta Sinodoaren erabakiz eta diruz²⁶.

Leizarragarren taldeaz eta inguruaz esatekoak bukatu aurretik, komeni da talde hura babestu eta sustatu zuen gizarte-sektoreaz ere oharren bat egitea, izan ere Erregina eta Sinodoaz aparte, beste babeslerik ere egon zen, Joanes Leizarragak bere hitzaurreetan gogoratzen digunaren arabera. Izendatuki eman zituen babesle haien izenak (Leizarraga 1990: 251-252).

Interesgarria da hemen azpimarratzea, urte haietan Erreinuko nobleziaren parte on bat kalbinista bilakatu zela, eta zeregin kultural berri hauen sustatzaile gainera, eta noblezia horrek tradizio protestante euskaldun hori luzatuko zuen ondoko belaunaldirik ere izan zela (Olaizola 1993: 188-190).

Babes hauei guztiei esker, Leizarraga eta beronen taldearen lana ez zen gaztelu-zoko batean galdu: Sinodoak agindu bezala, “kolokioetan” (hau da, eliza kalbinistak ezarri zituen barruti geografikoetan) banatu ziren TBren edizioa (edo edizioak) eta liburu ezberdinak (Olaizola 1993: 181, 183-184).

Protestantismoak erlijio-gerrak galdu eta buruzagia bera –Nafarroako En-drike III.a (Frantziako IV.a), hain zuzen— katoliko erromatar bihurtu zenean,

²⁶ Politika haren arrazoi historiko hurbila, baina orokorra, berrikitan aztertu izan da. Hainbat albiste eguneratzeko bi obra aipatuko ditut, balio eta asmo ezberdinekoak: Colloque International d’Orthez, 1984, *Actes du... (16, 17 et 18 février 1983)*: Arnaud de Sallete et son temps. *Le Béarn sous Jeanne d’Albret*, eta lehen-dik aipatua dudana Olaizola 1993.

ordea, Hexagonoko Protestantismoa mugimendu galtzaile bilakatu zen, hots, proiektu kultural-linguistiko oso bat sostengatu eta berorri gizartean jarraibidea segurtatzeko mugimendu ahulegia.

Bukatzeko, euskararen alde lan egin duten taldeen artean, leizarragarrena nola defini litekeen galdetuko balitzait, puntu hauetara bilduko nuke bere talde-tipologia:

- Proiektu sozioerlijioso baten zerbitzuan jaiotako taldea izan zen, eta errege-politika erlijioso jakin baten mesedetan. Agian, asmo *nazional* nafar orokorrago baten katebegi politiko bezala ere ikus liteke hizkuntz hautapen hau²⁷.
- Hortaz, talde-mugimendu sozial batetik jaio zen, eta erabaki instituzional eta eliztar baten fruitu gertatu.
- Sinodoak eta Koroak ofizialki babestu eta finantzatutako taldea izan zen.
- Egiteko eta lan-egitarau zehatza eman zitzaion taldeari, eta batez ere lan-epe jakin baten barnean egon zen indarrean talde hau (1565-1571).
- Eman zitzaion eginkizuna burutu ahal izan zuen, eta guztiok ezagutzen dugu emaitza (1571ko argitalpenak).
- Lan-prozeduraz ezer gutxi baldin badakigu ere, buruzagitza eta lanik astunena –lehen eta azkena– Leizarragari zor zaizkio.
- Lankideek itzulpenaren tarteko zuzenketa- nahiz hobekuntza-lan osagarria egin zuten, baina elkarren arteko egiteko horri aski erantzukizun ikusi zitzaion, denbora batez bederen soldata eta guzti horretarakoxe, beste lanetatik ofizialki aske, utzi baitzituzten lankideak.
- Taldeak ez zuen bigarren edo hurrengo lanetarako segidarik izan; ez dakigu zergatik, egindakoa nahikotzat jo zelako ala, batez ere, Frantziako Protestantismoaren hondamendiaren ondorioz.
- Taldearen eta Leizarragaren hizkuntz ideologia, XVI. mendeko gainerrako Protestantismo europarrarena bera da: euskara maite dute, lehenik bederen Jainkoaren Hitzaren hedapen-tresnatzat, baina baita euskaldunen eskubide gisa ere²⁸.
- Oro har, taldea ez zen izan guztiz beregaina, bere kabuz bakarrik bildu, jarraitu eta lana burutu zuena; baina garaikotasun nabaria izan zuen:

²⁷ Orthezeko *Colloquean* (1984) behin eta berriz iradokitako ideia (G. Kremnitz, 264; R. Lafont, 381).

²⁸ “Alabaina segur izanez ezen Heuskaldunak bertze nazione guzien artean ez garela hain basa, non gure lengoiez ezin ezagut eta lauda dezagun gure Iainko Iauna...” (Leizarraga 1990: 252). [Ortografia egokitua].

garaikideen beharretara makurtuta egin zuten lan.

- Kasik gure egunak arte ez dugu honelako beste talderik ezagutu euskararen aldeko lanetan eta gure historian, eta gaur egun ere eredu imitagarria dugu berau.

Horrela eratu zen talde instituzional hark ez zuen izan funtsezko segida erabakigarriarik, baina bai, etenaren ondoren, bi belaunaldi geroago eman zitzaion erreleborik, bestelako testuinguru batean, noski, xede berriekin zetoarren Kontrarreformaren barruan eta literatur tradizio bat sortzeko lain indarra rekin, gainera.

I.5. Donibane-Sarako Eskola (1617-1643)

J. Urkixok azpimarratu zuen mende honen hasieran (1907) *Donibane-Sarako idazle-taldearen elkarlana*, Materre eta Axularren, urdazubiar honen eta Etcheberri Ziburukoaren, Haranburu eta Harizmendiren arteko elkarren ezaupideak edo harremanak nabarmentzean²⁹.

Bestalde, batez ere Villasante izan da gure artean Donibane-Sarako talde hartaz literatur eskolatasunaren ideia zabaldu duena. Argi dago, ordea, *Eskolak* ez duela nahitaez *talde* esan nahi, izan ere elkarri jarraikiz talde izan gabe ere egin liteke literatur eskola bat. Villasante berak, ordea, literatur korronte edo tradizio batena baino zerbait gehiago erakutsi nahi izan digu, Axularren inguruko giroa nolakoa izan zen azaltzean (Villasante 1972: 90-91)³⁰:

Saran ikasi duela euskeraz, aitortzen digu, gainera, Materrek (bere *Dotrina Christiana*-n, 1617). Eta hori gutxi balitz, Elizaren aldetik libururen ikertzaile bezala Axular agertzen da. Ziburuko Etcheberriren bi liburutan ere Axular azaltzen da ikertzaile edo iritzi emale bezala. Eta Axularrek berak salatzen digu bere liburua egiteko lehen ideia *laguntalde*

²⁹ “Sin que parezca, por otra parte, aventurado suponer, que Materre fuera amigo y acaso discípulo de Axular y que Harizmendi tuviera presente el *Gvero* al hacer la traducción de «l’Office de la Vierge». Nos consta, además, que el famoso párroco de Sara conoció los escritos de Etcheberri de *Ciboure*, puesto que encontramos la firma «P. de Axular» al pie de las *aprobaciones* del «Manval Devotionezcoa», y del «Eliçara erabilceco liburua»; y no cabe duda de que Haramboure y Harizmendi se conocían, ya que éste dedicó a aquél unos versos, con motivo de la publicación del *Debocino Escvarra Mirailla eta Oracinoteguiá*” (Urkixo 1907: LI).

³⁰ Lagunartearen *taldetasuna* bereziki lehendik ere azpimarratuta zuen autore berak: Villasante 1961: 67-72.

batean erne zela, eta konpainia bartan egotzi ziotela berari liburu hori egiteko kargua (n° 6). –Garai hartako euskal liburuak ikertuz, laster ohartzen gara gauza batez: Sarako erretorearen inguruan bazela adiskide multzo bat: apaiz, praile, midiku eta abar, eta zorionez hoiek, elkarri gogoia berotuz eta elkar bultzatuz, sortu zuten euskal literaturaren mobimendua, Euskal Herriko beste eskualdeetan lo zeuden bitartean. – Euskaltzale talde bura nork osatzen zuen oker egiteko peril handirik gabe asma dezakegu, garai hartako euskal liburuetan ageri diren izenak ikusiz: Klaberia, Hirigoiti, Materre, Gillentena, Axular, Etxeberri Ziburukoa, Haranburu, Argaingarats, t.a.

Hor dago oso ongi laburtuta, lagun-andana hari buruz dakiguna, betiere idatzi zituzten liburuetatik jaso litezkeen datuekin. Materrek Saran euskara ikasi zuenerako Axular han zegoen erretore (apaiz egin eta urte berean edo joana: 1596), eta XVII. mendeko euskal bibliografiaren kronologia begiratzen badugu, laster ohartuko gara taldean zaharretakoa berak izan behar zuela (1556an jaioa, hain zuzen)³¹; ez da harritzekoa, bada, haren izena lehenengo argitalpenean bertan agertzea (1617).

Garaiko liburuen datak begiratzen baditugu, ongi ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik, taldearen buruzagi literariotzat jo dezakegunak –Axularrek alegia– ez zuen deus argitara eman oso berandu arte (laurogei eta gehiago urte bete arte), luma eskasagoak zituzten ingurukoek aurrea hartzen zioten bitartean. Hona, sintesian, argitalpenen kronologia:

DONIBANE-SARAKO IDAZLEEN ARGITALPENAK (1617-1643)

Urtea	Idazlea	Liburua	Argitalpen-lekua
1617	Materre	<i>Dotrina Christiana</i>	Bordele
1627	Etxeberri Ziburukoa	<i>Manual Devotionezcoa</i>	Bordele
1631	Etxeberri Ziburukoa	<i>Noelac</i>	Bordele
1635	Haranburu	<i>Debocino escuarra</i>	Bordele
1636	Etxeberri Ziburukoa	<i>Eliçara erabiltceco liburua</i>	Bordele
1641	Argaingarats	<i>Avisu edo Exortatione</i>	Bordele
1642	Voltoire	<i>Tresora birour lenguaietaqua</i>	Baiona
1643	Axular	<i>Gero</i>	Bordele

³¹ Talde honetako lagun gehien jaiotza-urteak ezin eman izan ditu Villasantek, baina Etxeberri Ziburukoaz, adibidez, badakigu xehetasun ohargarri bat: bere senideekin batera sendotzako sakramentua Etxauz Baionako Apezpikuaren eskuetatik hartu zuen Ziburun (1599-1614.eko urteetan, beraz), eta pentsa liteke hamar-hamabost bat urte lehenago jaio zela bera (ikus Villasante 1961: 71).

Axular hil eta gero ere XVII. mendeak emango zuen fruitu onik Harizmen-di, Aranbillaga, Pouvreau eta abarren eskutik, baina horrek urrutixko eramango gintuzke (Villasante 1972: 94-95).

I.5.I. *Axular, “konpainia onean”*

Argitalpen-atzerapen hau gorabehera, pentsa liteke Axular ez zela izan idazle berantiarra, zahartzaroko argitaratzailea baizik. Apaiz-egitekoetan ondu ondoren, lana mandatuz burutzea suertatu zitzaion Axularri, lagunek eskatuta eta hauek bortxaturik izkiriatu baitzuen bere *Gero* liburua, “Irakurtzaileari” idazten dizkion lehen lerro hauek diotenez:

Egun batez, *konpainia on batean, euskaldunik baizen etzen lekhuuan nengoela*, ekharri zuen solhasak, izan zen perpausa, etzuela deusek ere hanbat kalte egiten arimako, eta ez gorputzeko ere, nola egitekoen geroko utzteak, egunetik egunera, biharretik biharrera luzatzeak. Eta on zatekeiela, gauza honetzaz liburu baten, euskaraz, guztiz ere euskararik baizen etziakitenentzat, egitea: eta hartan *gero* dioenak *bego* dioela erakustea. *Konpainia berean galdegin zen berehala, ea nori emanen zeikan liburuaren egiteko kargua*. Eta bertze guztien artetik, *hasi zeizkidan niri neroni aditzera emaiten, lehenbizian kheinuz eta aieruz, eta gero azkenean, klarki eta agerriz, nik behar nituela, egiteko hartan eskuak sarthu*. Ordea nola ezpainintzen neure buruaz fida, desenkusatu nintzen ahal bezanbat. Baiña alferrik, zeren *bain zinez eta batetan lothu zeizkidan, non ezetz erraiteko bide guztiak bertsu baitzerauzkidaten*. Eta hala deliberatu nuen, buru-eragotzkarri³² bezala, liburutto baten, bi partetan partiturik, *gero* hunen gainean egitera (Axular in Villasante 1976: 13). [Azpimarra gurea].

Garbi dago, hortaz, talde euskaltzale honek elkar berotu eta eztenkatuz egin zuela bere lana, elkarren lankide zuzen zenbateraino izan ziren ez badakigu ere. Leizarragatar kalbinisten hartan bezala, berriz ere eliz gizonen artean gauda (oraingoan apaiz katolikoaren artean), baina donibandar-saratar hauen kasu honetan ez dira, itxuraz, eliz agintariak Axularri kargu edo egiteko ofizial bat eman ziotenak: Erreforma katolikoaren barruan (Mitxelena 1960: 59-60) eta eguneroko apaiz-lagunartean sumatutako premiei erantzun beharrak eta bilere-tan bildutakoen adiskide-bultzadak jarri zuten idazle-lanetan Axular. Ez zen, segur aski, han horrelako lehenengoa eta bakarra izan.

³² *Buru-eragotzkarri bezala* hori “a modo de descargo” itzuli du Villasantek (1976: 12).

Non egiten ziren bilera formal edo informal haiek? Lagun-talde honen ustezko biltokia Villasantek iradoki du: Etxauz apezpikuak Donibanen irekitako frantziskotarren komentuan (1612) (Villasante 1972: 54-55; 1976: 12. oharra)³³. Maiz joaten zen hara Etxauz, eta han bizi izan ziren Materre, ziur, eta Haranburu ere agian, biak frantziskotarrak (Villasante 1972: 55)³⁴; taldekoentzat ere biltoki eroso eta erakargarria izan zitekeen inguruetako apaizgoaren zerbitzuan irekita zegoen etxe hura, batez ere ondoko herritik lotsa oneko gidari preziatu Joanes Etxeberri (“Ziburukoa” guretzat) bezalakoak hara inguratzen zirenean.

1.5.2. *Gidari eta ereduak*

Taldean, guztien gainetik, bi izan ziren gidari eta eredu miretsiak: Etxeberri hauxe, *doktore* bezala izendatu ohi zutena, eta Axular, Sarako erretorea (Villasante 1961: 75). Beste gisa batean, mezenas sustatzaile bezala alegia, hirugarren bat ere gogoan hartu behar da: Bertrand Etxauz.

Etxauzen mezenasgo literarioarekiko zertzeladak ez ditugu ongi ezagutzen. Hala ere, Axularrek bere gomendioan erakusten duen bihotza ezagututa pentsa liteke, Etxauzek Baionan zegoela, eta gero ere, zerikusirik franko izan zuela taldearen lanetan (Villasante 1972: 52-56)³⁵. Baigorriko seme hau, Baionako (1599) eta Luçon-eko Apezpiku (1614) izan zen, Tours-eko Artzapezpiku (1618), eta 1606tik aurrera Frantziako bi erregeren kapilau “erremusinari” edo kapilau limosnari (Hendrike VI. eta Luis XIII.aren).

Sara-Donibaneko idazleok gizon maitea izan zuten Etxauz, maitea eta hurbila. Etxeberri eta Axularrek liburu banatan eskaintza bihozkorrak egin zitioten eta azken honek, gainera, hilondoko eskaintza, inondik ere autorearen eta taldearen eliz eta euskal proiektu batekin harremanean begiratuta hobeki uler daitekeena³⁶.

³³ Veyrin-ek argitzen du Etxauzek zergatik ireki zuen komentu-etxe hau: “C’est également sous l’épiscopat de Bertrand d’Echaux que se déroulèrent les lamentables procès de sorcellerie en Labourd. On sait comment sur le conseil du prélat ému par les excès de la commission criminelle, Henri IV fit rappeler le cruel conseiller de Lancre qu’on avait imprudemment doté de pouvoirs trop étendus. La fondation en 1611, sur un îlot à l’embouchure de la Nivelle, d’un couvent de Récollets dédié à Notre-Dame de la Paix, eut pour principal but de calmer l’effervescence des ensorcelés par des moyens spirituels plus efficaces que la torture et le bâcher” (Veyrin 1975⁵: 143). Ematen diren bi data ezberdinak, eraikuntza kanonikoaren eta etxearen irekierarenak izan litezke.

³⁴ Haranbururen frantziskotartasunaz ikus Villasante 1961: 72.

³⁵ Ikus Etxauz-en gutun bat: *Egan*, 1956, 3/4, 11-12.

³⁶ *Eliçara erabiltceco liburuan* bataik, eta *Geroren* “Gomendiozko kartan” bestek.

Axularren hitzetan, euskal kultur munduaren eta idazlearen beraren babeslea izan zen Etxauz, fede katolikoaren defendatzailea, hau da, *Gerok* ispilatu eta zerbitzatu nahi zuen Euskal Herri katoliko berrituaren aterpe:

Neure iaun maitea, ioan zatzaizkit lurretik, baiña ez gogotik, eta ez bihotzetik. Heldu nintzen. Ezterautazu iguriki. Ordea eneak dira faltak, enea da hobena. Gerotik gerora ibili naiz, eta hala dabillanari gerthatzen ohi zaikana egin zait niri ere.

Baiña guztiarekin ere, neure obligazino handiek, ontasun errezibituek, eta bethiere, ene alderakotzat, obrekin batean, erakutsi duzun borondate borondatetsuak, ezterautate utzten, ondotik bedere, zutzaz orhoitzapen egin gabe, liburutto hunen, kanporat ateratzeko, ausartziaren hartzera.

Zeren iduritzen zait ezen oraiño bizi zarela, begien aitzinean zaitudala: eta halatan, hala baitzinitut bezala, mintzatu nahi natzaizu.

[...]. Nor da euskal-herrian alde edo moldez, zordun eta obligatu etzaitzunik? [...]. *Zure etxea, egon eta ibili zaren lekhu guztietan, bethiere izatu da, euskaldunen etxea, pausalekbua eta portua. [...]. Zu izan zara, eta izanen zara, euskaldunen oborea, habea, iabea, sostengua eta kantabres fina, naturala eta egiazkoa.*

Zu izan zara Echaus, mendi Pirinioetan, Alduideko hegaletan, bethiere zentinela, eta begiraille bezala, iratzarririk dagoen iauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme. [...]. Eta [etxauztarrak izan dira] bai *egiazko fedearen eta legearen defendatzaile, eta aitzinatzaile buruzagiak ere.*

Nafarroa beheko parte betan, bertze anbitz lekbutan bezala, lege katolika saildua, iduriz flakatzera, kordokatzer eta erortzera ziboanean, badaki munduak nola zure aita Iauna, bere etxeaz, onez eta biziaz ere kontu guti eginik, ioan zen Donapalaira, non baitzen orduan Nafarroako Parlamenta. [...]. Eta gero handik hartako herraz eta mendekuz bere iauregi ederra erre zioten. Hunelakoak ziren zure aita Iauna eta bai bertze zure aitzinekoak ere. [...]. Zer ere eskiribatuko baita euskaraz, hura guztia, euskaldunen buruzagi bezala, zuri dagotzula, zuri zor zaitzula, eta arrazoinez orai ere, zuri presentatu behar zaitzula (Axular in Villasante 1976: 3-9). [Azpimarra gurea].

Euskal proiektuan (euskaraz egin nahi zen hartan), Leizarraga, Axular, Etxeberri Ziburukoa eta Etxauz sentiera berekoak ageri zaizkigu, baita proiektu hura fedez jantzia egin nahian ere, baina lehenengoak, Leizarragak, Erreformaren bidea lagundu zuen, eta besteok, oster, mende-erdi bat geroago hasita, Kontrarreforma trentotarrarena. Honetan, Sinodo kalbinisten, Leizarraga eta honen lankideen kontrasinbolo dira Etxauz bezala Axular eta Donibane-Sarako talde osoa.

Apezpikuaren babes hori jasotako taldeak bere buruzagiak izan zituen. Adinez, urdazubiar-saratarra zen zaharrena; lumaz ere bera trebeena. 1643an haren izkribuak moldiztegira iritsi zirenerako, bazuen itzalik lagunen artean; haietako batzuen zentsore izan arren (edo hori ere izan zelako agian?), ez zitzaion falta izan inguruko idazle-lagunen mirespenik.

Eta garaiko mundu ofizialean hartaz zer esaten zen ere badakigu. *Geroren* onarpen ofizialetan zentsoreek hitz hauekin goraiatzen dute: “izen handiko gizona Euskal Herrian, eta orain gutxi arte Sarako erretore ospetsua” dela dio batak, eta besteak zera gehitzen du: “merezimenduz beteriko behinolako Sarako erretorea [da Axular] [...]: ez naiz behin bakarrik txunditu jakintasun handiarekin eta aparteko jaierekin batera autoreak erakusten duen etorri aberatsaz”³⁷. Haren kultura zabala eta hiztunaren trebezia dira aipatuenak.

1.5.3. *Talde-lagunen ideia eta jarrera linguistikoak*

Axular liburu bakarreko idazlea dugu, eta bertan utzi zigun hizkuntzari buruz izan zituen ardura eta buruhausteen berri, segur aski idazle-lagunen artean, taldean erabilitako kezkak. Hamaikatxo aldiz lagunartean solasgai izandako hauetaz ari da: euskarak bere baitan zituen balioaz, eta beraz hizkuntzarekiko estimuaz; beste hizkuntzen parean beronek zuen duintasunaz; baina baita alde eskasagoez ere (batasunik ezaz eta kulturarako gehiago landu beharraz):

[*Euskaraz zein gutxi idatzi den:*] Baiña ikhusirik zein gauza guti edireiten den euskaraz eskiribaturik, gogan behartu naiz eta beldurtu, etziren bi-deak asko segur eta garbi, baden bitartean zenbait trabu edo behaztopa-harri. [...].

Orai badirudi euskarak ahalke dela, arrotz dela, eztela iendartean ausart, entregu, bithore eta ez trebe. Zeren are bere herrikoen artean ere, ezpaitakite batzuek, nola eskiriba, eta ez nola irakur. / Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, franzeses, edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berèk dute falta eta ez euskarak (Axular in Villasante 1976: 13, 17).

³⁷ Latinez hitzez hitz: “[...] viro magni nominis in nostra Cantabria, ac celebri nuper Rectore de Sara” eta “Petro de Axular meritissimo olim Rectore de Sara [...] atque uberem authoris facundiam magna cum eruditione ac singulari pietate conjunctam non semel admiratus sum” (Villasante 1976: 11).

[*Euskararen batasunik eza:*] Badakit halaber ezin heda naitekeiela euskarako minzatze molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki minzaten baitira euskal herrian. Nafarroa garaian, Nafarroa behean, Zuberoan, Laphurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Alaba-herrian, eta bertze anhitz lekhutan. [...]. Finean bat bederak, bere gisara, anzura eta moldera. Eztituzte euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko minzatzea ere, zeren erresumak baitituzte diferent.

Bada eskiribatzeaz denaz bezan batean ere ez naiz egiteko gabe [...]. Eta hunela [aipatutako hitz-idazkerez gain] bada, bertzerik ere zenbait hitz, batak eta bertzeak, nork bere herriko edo erresumako arauaz diferentki eskiribatzen baitituzte (ibid.: 14-15).

[*Euskararen identitatea eta hizkuntz autonomiaz, eta izen onaz:*] Ez eta, eztitut bethiere, eskitura saildua eta doktoren erranak ere, hitzez hitz euskarara bihurtzen. Zeren euskara eta bertze hitzkuntzak diferent baitira. Ordea ezta ez handik segitzen gaixtoagoa dela euskara. Aitzitik badirudi ezen bertze hitzkuntza eta lengoaia komun guztiak bata bertzearekin nahasiak direla. Baiña euskara bere lehenbiziko hastean eta garbitasunean dagoela.

Baiña euskara eta euskararen minzatzeko eta eskiribatzeako moldeak eta diferentziak utzirik: zeren hek azala eta lorea bezala baitira: har ezazu liburutto hunen fruitua, barreneko mamia (Axular in Villasante 1976: 17).

Axularren ondoan, baina aurretik, Etxeberri izan zen taldeko emankorrena argitalpenetan; eta jakitatez ere, itzal luzeko gizona³⁸. 1627-1636. urteetan hiru liburu eman zituen argitara Joanes Etxeberri Ziburukoak. Hauetatik bi gogoratuko ditugu hemen, berezikiago: *Manual Debozinezkoa* (1627) eta *Elizara erabiltzeko liburua* (1636)³⁹.

³⁸ “Personaje de alta calidad, culto y humanista [...]. En sus libros se le llama doctor teólogo, y por ellos se echa de ver que sabía también componer elegantes hexámetros latinos” (Villasante 1961: 70). Hona *Manual devotioezcoa* Etxeberriren obra eta pertsonaz zerbait esan zutenak: Axular eta P. Gillentena-ren onarpen ofizialak, Oiharard bikario jeneralaren baimena, P. Gillentena autoreari euskarazko laudorioa, I. Hegi-k latinez, eta *louange* bat latinez Et. Hirigoiti-k (ikus Vinson 1983, I: 67).

³⁹ *Manval devotioezcoa, edo ezperen, oren oro escvetan erabiltceco liburutchoa, escarazco versutan eguiña, eta guztia bi partetan berecia. / Eliçara erabiltceco liburua Ioannes Etxeberri Dotor Theologoac eguiña eta iaun Noble Bertrano de Etchaus Tursee, Archiphizpicu dignea-ri dedicatua.* [N. B.: Lan hauei buruzko xehetasunak I. Atutxak eskaintzen dizkigu, prestatzen ari den doktore-tesiaren barnean (Joanes Etxeberri. *Obraren berrirakurketa bibliografikoa eta testu kritika*): 2001, “Joannes Etxeberriren *Eliçara erabiltceco liburua*”, *Lapurdum* VI, 2001, 21-61; 2002, “Joannes Etxeberriren *Manual devotioezcoa*”, *Lapurdum* VII, 2002, 57-91].

Euskal Herriaren hizkuntz dimentsioa taldeak zenbateraino begiratu zuen jakiteko, testu jakingarri batzuk ekarri nahi ditut hona. Nagusienetan, bata Etxeberriri zor diogu, bestea J. Klaberiak ziburutarraren *Elizara erabiltzeko liburuan* eta liburu-autorearen ohoretan emana izan zen. Etxauzen ondorengo Baionako apezpiku ez euskaldun bati eskainia da.

Lehenengo obra hartan, agintedunen eta berauen mendekoen hizkuntzekiko harreman-moldeak aipatzen ditu, bidenabar, Etxeberrik. Jean-Claude Rueil Baionako apezpikuari zuzentzen dion “dedikazionean” topatzen ditugu puntu honetaz lehenengo hitzak. Apezpikuak badaki hainbat mintzaira, baina, tamalez, euskararik ez dakielako zera dio:

“Tongoicoac nahi luen, Iaun Prelata, Escara
Ciñaquien, nola Hebreu, Greca, Latin Erdara

Presentatçen darotçudan obraren aditçeco,
On liçela, bailitçacu halaber laudatçeco.

Allabaiñan, guztietara eçin heda burua,
Inongoicoak berac baiçen, eta adimendua”
(Etxeberri I627: 49-54 bertsoak).

Etxeberrik, azken finean —arazoa horrela aipatu gabe noski—, eliz arduradunek Kontrarreformatan herriarekiko zituzten artzain-betebeharrak eta irizpideak ukitzen zituen, zeharbidez; baina, apezpikua apezpiku zenez, aitzakia zurigarria ere luzatuz (Jainkoak bakarrik jakin zezakeela dena, alegia).

Euskararen aldeko arrazoiak indartzeko, erregeak ere aipatzen ditu ziburutarrak, bide batez edo: apezpikuak euskara onberatasunez begira dezan ari da, noski. Herritarren hizkuntza ikas dezala eskatzen ez bazaio ere, halako hizkuntza “arrotzaz” diharduena entzutea ere “ondra baizen ez dukezu” eransten dio idazleak, anitz hizkuntzatako mendekoak izatea Erregerentzat ohore den bezala (Etxeberri I627: 69-72 bertsoak). “Dedikazionea” bi bertset hauekin bukatzen du Etxeberrik: “Erregeak behar ditu defendatu jendeak, / hizkuntza batekoak hain ungi nola berzeak”. Horra, bada, nola ematen duen hiritarraren berdintasun-legea testuinguru osoak, hitz estaliz bada ere, iradokitzen duen hizkuntz berdintasun-gogoarekin batera⁴⁰. Liburu-eskaintza batean apenas zegoen deus

⁴⁰ Hau honela, gero ikusiko ditugun Klaberiaren bertsoek talde-buruzagi honen ideia ezagunotan oinarrituta zeudela pentsa liteke.

nabarmenago esaterik. Jakin ere ez dakigu, Etxeberri bezalako burujantzi baten neurrikoak —beharbada bere lanak aitzindari sentituz gainera— euskarari zein leku eman nahiko ziokeen garaiko kulturen eta Elizan.

Hamar urte geroago (1636), ordea, autorearen eta apezpikuarekiko mendeko -lotsarik gabe, bestek hitz egin zuen Etxeberriren partez beronen liburu berrian: J. Klaberiak, alegia. Talde osoaren hizkuntz proiektu kultural baten baitatik jaio zela kritika esango litzateke. Taldearen jokabide praktikoak bere funts teorikoa zuen, nonbait, eta izen errespetatuen aurka ere mintzatzeko prest zegoen Klaberria, Etxeberrirekin sintonia onean ari zela jakinik segur aski, gainera:

“Burlatcen naiz Garibaiez,
Bai halaber Etchabez,
Cenac mintçatu baitire
Erdaraz Escaldunez.

Ecen cirenaz guerostic,
Escaldunac hec biac,
Escaraz behar cituzten
Eguin bere historiac.

Escaraz eguin ditutçu
Etcheberri ceure obrac,
Ohoratu nahiz ceure
Ahalaz herritarrac.

Cer errefau eder baita
Hitzcuntça arrotcetan,
Hura aditcera ematen
Daroeçu beretan.

Esquer bada eta aithor
duçula bereçia
Ceren ohoratu duçun
Herritaren mihia” (Etxeberri 1665: XVIII)⁴¹.

⁴¹ 1665eko edizioa erabili dugu.

Berehalako batean, bizpahiru alde nabarmendu behar dira testu honetan: lan literarioak euskal herritarren ondarea zaindu eta duintasunez janzteko balio du, eta horretarakoxe idazten da euskaraz: “Ceren ohoratu duçun / Herritarren mihia” eta idatzi ere “Escaraz eguin ditutçu / Etcheberri ceure obrac, / Ohoratu nahiz ceure / Ahalaz herritarrac”. Klaberiak Etcheberriren lana herriaren euskaltasunari begira egindakoa zela, bada, aitortu zuen.

Eta donibandarrar-artean ikusten zen euskalgintza hori, *bestelako* kulturegintza bati kontrajarrita definitu zen bertso horietan: Hegoaldean euskararen alde erdaraz zihardutenen langintzari kontrajarria, alegia. Eta erdaltzaletasunaren salakuntza izendatuki egiten da: Garibai eta Etxabe sonatuen lanaz “bur-latzen naiz” dio Klaberiak, bi arrazoi elkarren osagarri emanez: euskaldunak zirenez eta berauei buruz ari, “Escaraz behar cituzten / Eguin bere historiac”. Ezingo da ukatu garai haietarako proposamen ausarta zela hori: goi-kultur lanak ere eman zitezela —eta halaxe egin behar zelako, gainera— euskaraz.

Garibai erraldoiaren bizkar barre egitera iritsi zen bertso-jartzailea, hau da, garaiko euskal mito maitatuenean (tubalismo, kantabrismo, eusko-iberismoaren) gurasoetako bati erasoz. Gogoan har Garibai (1533-1599) zela artean Euskal Herriaren *ohorearen* eta jatorri garbiaren predikaria, eta hortik ekinda, Espainiako noblezia onena iturburuetatik garbitzen zituen historialaria. Esan gabe doa, arrasatearra dela, Mariana-ren aurretik, Espainiako historia orokorra lehenengoz idatzi zuena (*Compendio Historial*, 1571), eta halako obra itzelean euskarari ere laudoriozko pasarte luzeak eskaini zizkion idazlea (Garibai 1571: 89-93)⁴². Etxabe zumaiararren lanak, euskaldun guztien hizkuntzaren defentsa izan nahi zuen: euskara zen honentzat gure garbitasun paregabe guztien azken frogarik ederrena (*Discursos de la Antigüedad de la Lengua Cántabra*, México, 1607). Hala ere, Etxaberen lanak ere jatorrizko tatxa bat zuen Klaberiaren begietan: erdaraz egina izatea.

Horrela, mementoko arrazoi pragmatiko guztien kontra (zabalkundea, talde-interes sozialak, zailtasuna, etab.), printzipio bat nagusitu zen donibandarrar-artean: hiztunek gorde beharko luketen hizkuntz jokabide kulturala ororen aurretik komunitate linguistikoarekiko leialtasunean definitzen da. Bistan dagoenez, apologiaren antzutasun linguistiko-kulturaletik urrun dago hau. Iparraldean eta Hegoaldean, hizkuntzarekiko bi dinamika ezberdin ageri zaizkigu, bada, XVII. mendearen erdialde hartan.

⁴² Ikus ondoko lanak ere: Caro Baroja 1972, pass., baina hainbat orrialdetan berezikiago: 181-189, 344-348, 325-344, eta Zubiaur 1990.

Nola azalduko genituzke Donibane-Sarako taldearen ezaugarriak nagusienak? Berau leizarragatarrenarekin alderatuz begiratzen badugu, ondoko alde hauek hartuko nituzke gogoan batik bat:

- Esan dezagun lehenik, axulartarren elkarren arteko talde-lankidetzaren esanahi zabalagoan ulertu behar dela hemen, leizarragatarren artekoa baino: bakoitzak du bere lana, bakoitzak bere argitalpena, eta ez dago denen artean zuzenki landutako testurik.
- Segur aski talde euskaltzale honetan ez ziren denak idazleak izan, eta bai elkarren ondoan eskolatu nahirik bildutako lagunak.
- Berritoki ere eliz lankidetzaren beharrak eraginda elkarganatu ziren talde-lagunak, baina oraingoan Kontrarreformaren zerbitzuan gertatu zen hori.
- Donibandar-saratarrek ez zuten izan dei edo mandatu ofizialik, eta ez dakigu diru-laguntzarik jaso zutenik, lanerako bederen; baina Etxauzengandik izan zuten nolabaiteko babesik.
- Leizarragatarren pareko gidaritzarik ez zen behar izan hemen, baina Axularren maisutasun literarioa aitortua da taldekoen artean.
- Leizarragak azaldutako euskararen aldeko sentimendu lausoago hura, beste talde honetan behin eta berriz eta espresuki emana dago, argiago: euskaraz idatzi behar da euskaldunentzat.
- Idazlan originalak sortzeari ere leku eman zioten, batez ere prediku, katekesi eta eliz pastoraltzarako, edo eginkizun horietatik jaiotako lanak kaleratu zituzten: ez ziren itzultzaile hutsak izan.
- Euskarak hizkuntza erretorika autonomo bat lortu zuen idazle hauen lumenetan, jakite eskolatuak iturri herritar jatorrari zerion hizkeran emanez. Leizarragatarrek jatorri-hizkuntzari hain lotuta eman zuten itzulpenaren ondoan, beste hauek mintzo libre batean emateko gai izan ziren.
- Pentsa liteke prosa idatziari ez ezik, hizkuntza mintzatu jasoari ere eskola bat sortu ziotela: Axularren kasua da alde honetan nabariena. Hala ere, taldea, batez ere idazle-talde gisa ikusten dugu.
- Utzitako lanak, zorionez, kasu honetan segida izan zuen eta Iparraldean bederen hizkuntza eta literatur tradizio bat sorrarazi, Axularri maisutza aitortzeraino, talde-lagunen artean ez ezik ondoko belaunaldietan ere⁴³.

⁴³ Ikus, adibidez, Etxeberri Sarakoaren hitzak “P. Axular Saraco errotoza escuarazco autoretarik hautuena eta famatuena” kapituluan, in Urkixo 1907: 141-154.

Agerian dago aurreko mendetik pauso berria eman zela, baldintza soziohistorikoez ere lagundu zutelako, noski: lanak oihartzun kultural iraunkorra izan zuen, nahiz eta artean beren kabuz jardundako lagunok ez zuten aurkitu Erakundeetan behar eta merezi adinako babes eta laguntzarik. Gaitza, ordea, ez zen Iparraldekoa bakarrik: Hegoaldea atzeratuago eta eskasago zebilen, XVIII. mendean larramenditarren lanak agertu ziren arte ez baikenuen hemen ezer parekorik izan.

Larramendiren inguru hura (*taldea* ez bazen ere) berriz ere aztertu berria izan da, bere heriotzaren hirugarren mendeurrena tarteko zela (1690-1990)⁴⁴. Hori dela eta, eta ur handiagoetan sartzeko modurik ez dugulako oraingoz jauzi egingo dugu Larramendiren ondoko beste testuinguru eta belaunaldi batera.

1.6. Euskal Herriaren Adiskideak (1764-1794)

Gure XVIII. mendeko historia eta beronen protagonistak aipatzean, betiere *Euskal Herriaren Adiskideak* datozkigu burura, Euskal Herriaren aitzinamendu soziokulturalari eman zioten bultzada gogoratuz. Adiskideak *talde* zirela ziurra da, lagunarte ongi eratua hain zuzen ere; bestalde, badirudi Elkartea euskaltzale ere izan zela berori, eta prest agertu zela hizkuntzaren aldeko zenbait ekintzatan esku izateko. Hala ere, euskaltzaletasun hura nolakoa eta zenbaterainokoa izan zen jakiteko hainbat argibide zehatz falta zaigu. Beraz, horregatik eta Elkartea izan zuen pisu historikoagatik, komeni da Elkartearen hizkuntz politikaz zer-bait esatea.

Zoritxarrez, Adiskideen euskaltzaletasunaren alderdi hau ezer gutxi aztertu da⁴⁵, nahiz eta berrikitan P. Altunak, M. T. Etxenikek, X. Altzibarrek, R. Basurtok edo K. Larrañagak aztergaiak baliozko lanak eman dizkiguten⁴⁶.

Gure artean, kultur talde eraturik eta historiografiak horrelakotzat, talde bezala, aitorturik inor izan bada, Zalduntxoan hau izan da. Erregek berak ere

⁴⁴ Ikus bi argitalpen bereziki: Lakarra (ed.) 1992 eta Lasa Bergara 1991. Larramendiren obren argitalpena J. I. Telletxearen eskuetan dago: 1969-1990, *Obras del padre Manuel de Larramendi*, 4 liburuki kaleratuta. Jesulagunen mundua ezagutzeko ikus Altunaren *Mendibururen idazlan argitaragabeak* liburukiak ere (1982). [N. B.: Ikus Intxausti 2012, "Euskal Herriko jesulagunen peskizan. Estatistikak zertaz ari zaizkigun. [1534-1767]", *Karmel* aldizkarian argitaratzeaz].

⁴⁵ Ikus Telletxea 1985: 203-247, 257-258.

⁴⁶ Ikus Altuna 1985; Altzibar 1985, 1991; Altzibar, Basurto Larrañaga 1991; Basurto Larrañaga 1986; Etxenike Elizondo 1985; Larrañaga Elorza 1991.

onartutako Lagunarte-Arautegia eta guzti izan zuen Adiskideen Elkarteak. Eta horren arabera, bere biltzar, bilera, barne-hauteskunde eta lantalde berezituak ere izan zituen.

Adibidez, Jerónimo Grimaldik, Karlos III.aren Ministroak, Probintzieta-ko Koroa-ordezkariei honela deskribatu zien Adiskideen asmoa Arautegiaren onarpen-gutunean:

Los Cavalleros de las tres Provincias Bascongadas han determinado unirse en una Sociedad, bajo el nombre de los Amigos de el Pais, con el fin de cultivar las Ciencias y las Artes. Para èsto han hecho entre sí algunos Reglamèntos conviniendose en el numero de los que han de componer sus Juntas, y mètodo de trabajar los asuntos que se proponen. Como por las leyes està prohibido el celebrar èsta, ni otra especie de Juntas sin permiso de el Soberano, lo(s) autores de èste Proyecto han recurrido al Rey para que les conceda la licencia de tener sus Asambleas con formalidad; y haviendo su Magestad examinado las Reglas [...] concede S.M. à dichos caballeros la licencia de celebrár sus Juntas de el modo que mejor les parezca⁴⁷.

Azpimarratu behar da, gainera, “Azkoitiko Zalduntxo” edo euskal “ilustratuen” Elkartearen eredia Penintsula osora hedagarria gertatu zela, Koroak ere nahi izan zuenaren bidetik⁴⁸. Elkartearen helburu nagusiak bi izan ziren: Europako Zientziak eta baliabide tekniko berriak Euskal Herrian ezagutzera ematea, alde batetik, eta haiek bertako gizarte eta ekonomiaren mesedetan sozialki erabilgarri bihurtzea, bestetik. Euskal bizitzaren berriztapena zen, bada, xederik behinena. Horretarako erbestearrekiko harremanak bizkortu egin ziren, eta lehenik, noski, Europako ilustratuekin. Gazteek ikasketak atzerrian ere egin zituzten —Frantziatik Suediaraino— diru-laguntzak eman zitzaizkien.

⁴⁷ *Estatutos de la Sociedad Bascongada de los Amigos del Pais, según el Acuerdo de sus Juntas de Vitoria. Por Abril de 1765*, San Sebastián: L.J. de Riesgo. “Carta de el Excmo Señor Marqués de Grimaldi, escrita á los Señores Caballeros Corregidores de Vizcaya, Guipuzcoa, y Diputado General de Alaba”.

⁴⁸ Grimaldiren gutunean: “(Su Magestad) halla que (las Constituciones de la Sociedad) son arregladas al loable fin de su instituto, muy conformes a la maximas que su Magestad procura introducir en sus Reynos para el adelantamiento de las Ciencias, y las Artes, cuyo exemplo quisiera su Magestad, que imitaran los Cavalleros de las demàs Provincias, fomentando, como lo hace la Nobleza Bascongada, unos establecimientos tan útiles para la gloria de el Estado” (*Aipatu Estatutos*, 1765).

Hezkuntzari arretarik handienarekin begiratu zitzaion⁴⁹, eta egitarauetan “letra” deituek parte on bat izan zuten, hizkuntzei ere leku egiten zitzaie. Euskara ez zen ahantzi, aipatuko ditugun zereginetan eta mugen barruan. Arautegi orokor baten barnean, lehen artikulua oinarritzko burubide bezala aipatzen zuen hiru Probintzien batasuna sustatu beharra aitortu ondoren⁵⁰, bederatzigarren artikuluan zetorren ikasgaiak taldeka nola banatuko ziren adierazten zuen araua, eta hortik bertatik gogoan hartzen zen Euskal Herriko hizkuntza propioa ere:

IX. [...]. Unos (Socios) se dedicarán à las Mathematicas, otros a la Phisica experimental, otros á la Historia Sagrada, y profana, otros à la Elocuencia, otros á la Poesia Castellana en general, yá sea componiendo sobre asuntos determinados, yá haciendo alguna version de algun celebre Poëma escrito en otro Idioma, ó yá reproduciendo las obras de algun famoso Poëta Español, que sean poco conocidas; *otros se aplicarán à pulir, y cultivar la lengua Bascongada, ò recopilar lo mas raro, y escogido que haya escrito en ella, assi en prosa, como en verso, y à perfeccionar la Poesia Bascongada [...]* (Estatutos 1765: 7-8). [Azpimarra gurea].

Halako erabaki batek —arauetan emanda, gainera— bere balio historiko nabaria zuen. Ondoren, ikasleentzat egindako arautegiak berretsi eta zehaztu egin zituen Elkartearen hizkuntzekiko irizpide pedagogikoak eta hezkuntza-balioespena. Honela dio testuak hizkuntza bakoitzari bere lekua aitortuz:

IX. El estudio de las lenguas ès el mas proprio para la juventud, asi por la mayor flexibilidad que se encuentra en ella para su articulacion, como por la facilidad con que se imprimen las bozes en su tierna memoria. Por esta razon, uno de los primeros encargos que se ha de darles, ès éste estudio: *Deberán empezar por el de las Nacionales, como son el Bascuence, y el Castellano*, luego se seguirán el Latín, necesario para los que han de seguir la carrera de la Iglesia, y de la Magistratùra, el Francès, el Inglès,

⁴⁹ Ikus, adibidez, arazoaz berrikitan argitaratutako ikerlan hauek: Recarte Barriola 1990, Areta Armentia 1990 eta Benito Pascual 1990.

⁵⁰ “El objeto de èsta Sociedad es el de cultivar la inclinacion, y el gusto de la Nacion Bascongada ácia las Ciencias, bellas letras, y Artes [...]; y estrechar mas la union de las tres Provincias Bascongadas de Alaba, Vizcaya, y Guipuzcoa” (Estatutos 1765: I).

y el Italiano. Despues de esto entrarán la Geografía, la Cronología y la Historia (*Reglamento* 1985: 9-10)⁵¹. [Azpimarra gurea].

Agiri hauetan ikus dezakegunez, agian lehenengo aldiz gertatu zen euskararen aldeko asmo egituratu bat Hegoaldeko Elkarte zibil batean honela erabaki eta onartzea, hain zuzen Larramendik (Loiola) eta Etxeberri Sarakoak (Azkoitia) aurreraturiko euskaltzaletasun abertzale-aurrekoari jarraiki⁵² eta Europan agertuko ziren pre-abertzaletasunek (Bowles 1775; Herder 1784, etab.) euskarari buruz berehala erakutsiko zuten interesari zer bait aurrea hartuz⁵³.

Adiskideen Elkarteak ez zuen definitu bere burua batez ere talde euskaltzale bezala, bestelako zeregin kultural zabalagoetatik baizik; ez dago, beraz, leizarragarren edo donibandar-satararren parean jartzetik: egia da, haiek ere lehenik beren xede eliztarrak izan zituztela, baina euren barruan euskalgintzarako bildu ohi ziren, zuzenki eta espresuki. Adiskideen artean, oro har, ez dirudi horrelakorik izan genuenik, Adiskideen lagunarte mugatuagoren batean bilduta eta une jakinen batean izan ezik, baina apenas dugun horren berririk.

Era bertsuan, beti gogora liteke Adiskide honek edo hark bakarka eta bere kabuz egindako euskal lanik (Munibek berak, Mogekek, Ubillosek eta abarrek), baina ez da hori, noski, hemen berezikiago interesatzen zaiguna. Eta bai, aldiz, halako Elkarte batek, lagunarte gisa, hizkuntzaren ardura ere aitortu eta hartuta izatea, hori benetan datu berria baitzen gurean, mota hartako erakunde batean behintzat⁵⁴.

Hala ere, elkarte osoaren bizitzan, hizkuntz politika ofizial onartua eta zinez burutu zena bereizi beharra dago, batzuetan, nahi izanda ere, ez baitziren Adiskide euskaltzaleen programa eta asmoak onartuak izatera iritsi Elkartean. Eta, onetsiak izan zirenetan ere (arau eta erabakietan onartuak), begiratu beharra dago gero, praktikan, bete zena, ezinak, ahuldadeak nahiz borondate eska-sek asmo hobe haiei hegoak moztu baitzizkieten inoiz.

⁵¹ Erregek, Grimaldiren gutunaren arabera (ikus liburukiaren azken orrialdeak), 1765eko abuztuaren 12ko datarekin onartutako arautegia.

⁵² Ikus Altzibar 1985: 1122. Larramendiren obra politikoetatik bat azpimarratuko dut hemen: 1983, *Sobre los Fueros de Guipúzcoa*. Ikus Elorza 1992, Lakarra (ed.) 1992 eta Lasa Bergara 1991.

⁵³ Aintzakotzat hartzekoak dira Basurto eta Altzibarren lanak, eta K. Larrañagak argitaratzeke duenen bat.

⁵⁴ Euskal elizbarrutietako hizkuntz politika (XVI-XVII. mendeetan), Kalagurrikoan bezala Iruñekoan, ezingo da baztertu. Ikus Intxausti, J., 1990, *Euskara, euskaldunon hizkuntza*, 79-83.

Adiskideen arteko barne-bereizketa soziopolitikoak izan zuen hor pisurik. Iritzi ezberdinek ez ezik, denboren aldarteek ere hizkuntz arloan badirudi politika eta sentierak jarrera-aldaketak ekarri zituztela: 1776ra arte, honetan, Azpeitia-Azkoitia-Bergarako talde euskaltzaleak pisu handiagoa izan zuen Adiskideen artean, betiere Espainiako sistema borboitarrek ametitu zien esparru-mugen barruan, noski⁵⁵.

Eskolagintzak Elkartearen egitarau kulturalen izan zuen pisuagatik eta hezkuntza-sistema modernoago eta eguneratu hartan hizkuntz politikari eman zekioken zereginagatik⁵⁶, euskarari Adiskideek eskolan eman zioten lekua nolakoa izan zen jakiteak interes berezia du historialariarentzat. K. Larrañagak ikertu du Bergarako Mintegiaren hezkuntza-egitarauan euskarari aitortu zitzaion tokia; berriz ere gauzak euskararen kontra aldatuz nola joan ziren gogoratzen digu:

Ordea (erakutsi zuten hizkuntz kontzientzia eta ardura tarteko, alegia), jakin, badakigu, bestalde, denboraren harian eta hainbat gorabehera izanik medio, (euskararen aldeko) hezkuntz egitarau hori berregokitu beharrean aurkitu zirela, eta horren ondorioz, hasiera bateko asmo eder horiek neurri handi batetan behintzat behera utzi behar izan zituztela (Larrañaga 1991: 66).

Arautegietako asmoak asmo eta Ilustrazio borboitarrek izan zituen barne-kontraesan eta zalantzetan sasi-trabatuta, Adiskideek ez zuten sartu euskara ikasketen plangintzan, baina badakigu Adiskide *eraikitzaileen* seme zenbaitek (Peñaflorida, Narros eta abarrenek) jendaurrean eskaini zituela euskarazko emanaldi batzuk.

Aldeko ahaleginetan, ordea, ez ziren denak hain epel eta uzkurak izan. Adiskideetako euskaltzaleenek agertu zuten hezkuntzan egiten zen hizkuntz politikarekiko ezinegona ere. Arabatik sortu zen, gainera, ahotsik bortitze-na, gutunaren eduki eta bidaltze-prozeduragatik haserrea piztu zuena (1772,

⁵⁵ Goian aipatutako Larrañagaren lana (1991) eta Altzibarren "Euskara Adiskideen Batzarrean" (1985) dira Adiskideen euskaltzaleenaz diharduten oinarritzkoenak. Azken honek jasoa da data mugarri honen hipotesia (1985: 1121).

⁵⁶ Urte gutxi lehenago hitz egina zen Aita Kardaberaz (1761: 17-18) haur euskaldunei eskolatan egiten zitzaizkien hizkuntz bidegabekeriez.

1775)⁵⁷. 1772ko *Extractos* deituetan, suma liteke une batzuetan Adiskideen artean hizkuntz arazoa noraino ozpindu zen, izan ere “el Amigo Alabés” izengoitiaz sinatutako gutunari erantzunez zera idatzi baitzen:

Al mismo tiempo han prevenido las Comisiones haber recibido una carta con fecha de 24. de Julio ultimo en Armiñón firmada *el Amigo Alabés*, y escrita en letra contrahecha, y un estilo que tiene más de sátira que de verdadera critica; y aunque por estas circunstancias debiera ser comprendida en la ley general que la Sociedad se ha impuesto de no contextar à esta especie de escritos, creen las Comisiones que acaso convendría el hacer excepción con esta carta en la parte que tiene relación con este asunto de Escuelas públicas, por quanto la erudicion y autoridades que vierte en impugnarlo pudieran preocupar à algunos, que no se hiciesen cargo de la equivocacion en que se funda (*Extractos* 1772: 97-98).

Halako sumina sortu zuen gutun hau ez zetorren ezjakin batzuen lumatik: horregatik eman zuen min, eta horregatixe erantzun nahi izan zitzaion. Nor zen eta zertaz ari zen, bada, *adiskide arabarra?* Gutunaren gurasoen artean Landazuri, Egin, etab. zeuden, eta Euskal Herriko erdal eskolagintzari buruz mintzatzen ziren gutunean, *Extractosen* laburpenaren arabera:

Dos puntos son los que intenta ridiculizar el Anonimo en su carta. El 1°. la idea de introducir el uso de la Gramatica Castellana en Escuelas Bascongadas. Y el 2°. el pensamiento de formar *Extractos* para este fin. Para el primero cita las autoridades de Mayans, el Barbadiño, Rolando Marsio, el Abate Fleuri, Lami y Lancelot, para establecer que la primera gramatica que debe enseñarse à los niños es la de la lengua nativa: concluyendo de aqui, que siendolo para estas Provincias la Bascongada y no la Castellana, el intento de la Sociedad es diametralmente opuesto à la doctrina de estos Sabios, y à lo que estilaban los Griegos y Romanos (*Extractos* 1772: 98)⁵⁸.

⁵⁷ Adiskide arabarren zenbait berri ezagutzeko: Areta Armentia 1983: 182-183. Ez da gaizki etorriko beste lan hauek ere begiratzea: Ruiz de Larrinaga 1924 eta Apraiz 1948. Ikus Telletxearen “Bibliografía”n (in *Extractos* XII, 203-247, izartxoaz emanak euskara eta Arabarekikoak) beste hainbat argitalpen, bereziki Areta, González de Echávarri, Vidal Abarca-renak.

⁵⁸ Ikus Altzibar 1985: 1120.

Bi arrazoiketa-maila ezberdinetatik erantzun zien Elkarteak *arabarrak* emandako arazoiei: batetik, Elkarteak ere haurraren jatorrizko hizkuntzari begiramen bera ziola eta irizpide berarekin jokatzen zuela esanez eta, ondoren, gaztelaniari Erreinu osoan zegokion lekua argitan jarritz. P. S. Abril-en autoritatea (*Apuntamientos*)⁵⁹ eta Baltzola maisuak⁶⁰ Bergaran egina aipatuz zuzitzen du Elkarteak bere burua:

Asi lo verifica [la Sociedad] tambien en la idea de introducir el uso de la Gramatica Castellana en las Escuelas pùblicas tomada de esta misma preciosa obrita; *porque el primer error en el enseñar la Gramatica es no enseñar primero à los niños la Gramatica de su propia lengua en las escuelas donde les enseñan leer y escribir en ella, como se sabe que lo hacian los Latinos y Griegos en las suyas.* (b.) De aquí se infiere quan distante está la Sociedad de incurrir en el error que se le imputa. — Luego (replificará el Anonimo) *se contradice asimismo en aplicar la Gramatica Castellana à las Escuelas Bascongadas.* Aquí está la equivocación. 1°. Porque aunque la lengua peculiar del Pais es la Bascongada, la de la Nación es la Castellana, y consiguientemente la *nativa* de todos los Españoles. 2°. Porque por disposición del Gobierno no puede en las Escuelas del Pais usarse de otra lengua que de la Castellana; por lo qual todas las cartillas, libros, manuscritos y materias que se dán a los muchachos son en Castellano, prohibiendose al mismo tiempo el Bascuence en tanto grado, que hay establecido un anillo, que pasa de mano en mano entre los que se descuidan en este punto: de modo que aquel en

⁵⁹ “Ha tenido presentes [la Sociedad] las autoridades mas clasicas sobre esta materia, y con particularidad la del cèlebre Español Pedro Simon de Abril, cuyo dictamen debe dár la ley en la Nacion, sin necesidad de mendigar otros en las estrangeras” (*Extractos* 1772: 99). Ikus ondoko oharra ere.

⁶⁰ Irakaslea zen Ignacio de Balzola, eta Bergaran (1773-1774), Azpeitian (1778), Elgoibarren (1779-1788) eta Madrilen (1789-1793) egin zuen lan. *Extractos*etan aipatua dago (1773: 98; 1774: 78 eta 1775: 108). “Don Ignacio Xavier de Balzola, Profesor de latinidad en el Real Colegio de Vergara, y Don Martin de Herro, Profesor igualmente de la villa de Andoain, han presentado unos rudimentos de latinidad, precedidos de un discurso dirigido à reivindicar á la Nación Española del poco decoro con que la tratan las Estrangeras en punto á literatura: y á demostrar que los métodos mas decantados de ellas, determinadamente en lo respectivo á la latinidad, no son mas que una reproduccion de los que publicaron antiguamente los célebres Españoles Pedro Simon de Abril, y Francisco Sanchez de Brozas” (*Extractos* 1773: 98). Abril-en obra, *Apuntamientos*, 1589an argitara emana zen. Francisco Sánchez de las Brozas “el Brocense”ren *Minerva, seu de causis linguae latinae*, hainbat bider berrargitaratua, lehenengoz 1587an inprimatu zen Salamancan. Biak ere, beraz, XVI. mendekoak ditugu. (Azken autore honen historia ezagutzeko begira: Sánchez de las Brozas, F., 1976, *Minerva o De la propiedad de la lengua latina*, Madrid: Cátedra; eta Michelena, L., 1985 [1975], “El Brocense hoy” in *Lengua e Historia*, Madrid: Paraninfo, 113-125).

cuyo poder se encuentra al fin de la semana, tiene su castigo determinado. 3°. Porque haciendose por estos medios familiar la inteligencia de la lengua Castellana en las Escuelas Bascongadas, y reduciendose el fin de la doctrina, de que aqui se trata, à enseñar la Gramatica en lengua que se sabe de ante mano, se logra perfectamente èsto con el medio dispuesto por la Sociedad (*Extractos* 1772: 100-101). [Azpimarra gurea].

Elkartek bere baitan zuen barne-gatazka kulturala –hizkuntzarekikoa, be-deren– oso zaila izango litzateke hain laburki eta hobeki adieraztea, eta merezi du pasarte horrek ohar batzuk gehitzea:

1. Elkartearen erantzun ofiziala da hau, eta bazkide batzuen iritziaren eta idazkiaren kontra zuzendu zen.
2. Hala ere, ados datoz solaskide denak Euskal Herriko eskoletan jaioterriko hizkuntzaren (“nativa”) gramatikari lehenengo lekua eman behar zaiola esatean.
3. Elkartek uste du gaztelania Erreinuko hizkuntza ofizial bakarra izatean, bera “nativa” dela Euskal Herrian ere eta erdal gramatika erakutsi beharra dagoela, *nazio* osokoa zelako eta legeek halaxe eskatzen zutelako.
4. Argudio horrek, halere, berez esan nahi zuena baino gehiago esateko balio izango dio Elkartearen erantzunari, Koroaren debekuek (erantzunean espresuki aipatuek) azken buruan euskara irakats ezina bihurtzen baitzuten.
5. Praktikarako, Elkartearen erantzunak osorik hartzen du Monarkiaren hizkuntz politika (hartu, itxuraz, onartutzat emateraino), bide posible bakartzat ikusten zuelako, noski.
6. Kontraesan larri horretan (euskara onartzen da, baina ezingo da irakatsi eskolan), erantzunak ez du erreparorik zigor-eraztunarena bera ere egi-ten den hautapen politikoaren aldeko argudiotzat erabiltzeko⁶¹.
7. Bestelakorik eskatzeko arrazoirik ez falta arren, borboitarren hizkuntz politikaren barnean jardutea erabaki zuenez, sistema ezarriaren joko -arauak onartu zituen Elkartek⁶².

⁶¹ Urte batzuk lehenago, 1761ean, Kardaberazek egindako salakuntza ez zegoen urruti –ez denboraz, eta ez lekuz, Arabaz ari baitzen– hemen esku artean zebilen eztabaidatik (ikus Kardaberaz 1761: 17-18).

⁶² Urte ber-berekoa da (1772) Lorenzana Mexikoko Artzapezpikuak eskatuta Amerikako hizkuntz politika gidatu eta arautzeko emandako errege-dekretu ezaguna. Testuinguru orokor hura ezagutzeko, ikus Intxausti 1978: 116-119.

Formalki, lehenasuna zein gramatikari emango zitzaion eztabaidatzen zen bitartean, egiaz eta benetan euskal gramatikak, erdarazkoaren ondoan, inolako lekuren bat izan zezakeen erabaki zen, beraz. Azken buruan, Monarkiaren politika ofizialaren aterpera biltzen da Elkartearena ere 1770eko hamarkadan, baina, segur aski, ez derrigorrean erreparorik gabe, bazkide askoren ustean hala-beharrez eta ahal zena salbatzarren baizik. Izan ere, bortxaz edo gogoz aldatuz joan zen Elkarte-espirtuaren aldarteak gorabehera, eta praxi eskasak ahortzi gabe, Adiskide zenbait (fundatzaileetakoak batzuk) euskararen alde ahalegindu ziren, bide horretan eskura zituzten ahalbide mugatuak erabiliz. 1775ean Eginon arabarrak (berriz ere Arabatik) aurkeztutako euskal apologia eta gramatika baterako lehen zirriborroa dira kezka horien lekuko on bat (Altzibar 1985: 1124-1126).

Peñaflorida kondea euskal literaturako autoretzat daukagu Azkoitiko bileretarako egin zituen lantxoengatik eta *El Borracho burlado* antzerki elebiduna tartean dela⁶³. Bestalde, Elkartearen mandatuzko euskal lanik ere izan zen: J. M. Aizpitarte elgoibartarraren *Hiztegia*, adibidez (1773-1785), kasu honetan Campomanesek iradokitakoari jarraikiz⁶⁴.

Adiskideen hizkuntz politikaz asko dago aztertzeko eta argitzeko, eta ez da oraindik iritsi arazoaz epaia emateko unea, baina X. Altzibarren sintesi honek balio lezake ikuspegi orokorren bat izateko:

Aiton-eme ilustratuok euskalzale ditugu. Ilustrazioak nobleteriaren pentsamoldea aldaerazi du, gurean euskararen onerako. Literaturgintza hezkuntzari eta herriaren —Euskal Herriaren— aurrerakuntzari lotzen zaio, [euskarazko edo euskararen aldeko] lanotan ikus daitekeenez. Ez naiz hemen ideia estetikoetz ariko. Peñaflorida euskal idazle, antzezlarri, musikalarri etab. izateaz gain, gidari da alor honetan ere. Bokantzak —Larramendi eta J. Etxeberriek esango luketenez— aparteko garrantzia du garai honetan. Retorika Peñafloridarentzat «el Arte más maravilloso de todos» da. Besteak beste, hizkuntza bat garbitzeko, finkatzeko, aberasteko, jasotzeko bide bat izan da, eta gurean ere bai. Egia da Batzarreak gaztelera bultzatu, trebatu eta garatu zuela. Bestalde Batzarreak bileretan

⁶³ Ikus bestelakorik ere: Altzibar 1985: 1126-1131.

⁶⁴ Ikus Altuna 1985: 1107-1108, Altzibar 1985: 1122-1123, Garate eta Ruij de Arbulu 1971: 257-267, Mitxelena 1965 (Aizpitarte eta Elkartearen arteko harremanen dokumentazioa biltzen du). Interresgarri izan liteke gainerakoan Mitxelenarena: adibidez, 1988, I: 374-375, eta 1970; orobat, 1961.

hitzaldi, arenga, laudorio bidez elkarri zuzentzeko ohitura berria ekarri zuen. Euskarak ordura arte pulpitora baizik ez zuen beste inorako sarrrerarik. Zalduntxo gazte hauen eskutik, jendeaurreko forora ere, areago, goi mailako kulturadunen fororako ere ukan zuen sarbide. Hitzaldiak, laudorioak eta arengak ditugu gazteleraz. Azkenak bakarrik, oraingoz behintzat, euskaraz (Altzibar 1985: II32).

Irakaskuntzaz edo argitara emandako lanez iritsi zaigunaz aparte, gaur egun Adiskideen hizkuntz politika orokorragoaz dakiguna gehiago ikasi dugu haien arau, egitarau edo harremanen albisteetatik, izan zituzten ideia, jarrera eta jokabide praktikoek historiatik baino: izan zuten praxi soziolinguistikoa orokorrean historiatu beharra dugu, aipatutako ikerlanekin kontatu eta aurrera eginez.

Ilungune anitz dugu oraindik Adiskideen hizkuntz jokabideari buruz dakizkigunetan, eta, hasteko, ez txikienak bi hauetan: 1) Adiskideen Elkarte-barneko hizkuntz joera ezberdinei buruzkoetan, eta 2) beraien hizkuntz hautapen kulturalak Koroaren hizkuntz politika orokorrarekin izandako loturetan.

Taldeari egin diogun lehen hurbilketa honen ondoren, azken begiratu bat emanaz zera esan dezakegu:

- Adiskideen *taldea* zinez molde berri batekoa gertatu zen Euskal Herrian: gure aitoren semeek sortua, beste hainbat herritarri irekia, errege-onarpen ofiziala zuena. Ofizialtasun horren barruan euskararen defentsa eta sustapenari ere leku egin zitzaion.
- Hastapen orokorrenetatik arau zehaztuagoetara iritsiz, euskalgintzari aitoren garbi bat egin zitzaion arautegian, gainerako hizkuntzen artean, eta teorian ez berau, gainera, atzerriko hizkuntzen atzean utziz. Iparralde-Hegoaldeetan ez zen ordu arte horrelakorik ezagutu ez-eliztarren artean.
- Hala ere, Elkarateak ez zuen izan bazkide guztiena izan zitekeen euskararen aldeko politika orokor eta iraunkor praktikorik.
- Nolanahi ere ezagutzen ditugu: a) zenbait bazkideren beren kabuzko eta Adiskideen lagunartean burututako euskal lanak, eta b) baita Elkarateari egindako irakaskuntzarekiko hizkuntz proposamen ausartik ere.
- Oro har, Elkarateak ez zuen: a) Koroaren hizkuntz politika hertsia gainditzeko ahalmen, adore edo borondaterik izan, b) ezta defentsa teoriko ongi landu eta propiorik ere, eta c) irakaskuntzaren munduan (hain maitea zuena, bestalde) ez zuen lortu euskararen aldeko politika garbi bat bideratzea. Agian, une historikoak ez zuen hainbesterako ematen.

- Aurrerazale eta aitzindari zen Elkarte honek zenbait ideia berri eta ekin-tza osagarri izan zuen, baina hizkuntzaren prozesuari bultzada erabaki-garririk eman gabe.
- Euskararen aldeko lan-egitarau orokorrik ez zuenez, emaitzak ere unean unekoak izan ziren.
- Besteak beste, euskalgintzaren asmoari antolamendu sozial egokia falta izan zitzaion, eta aitzitik, sobran aurreko mendeetako euskaldunon utzi-keriaren inertzia eta Koroaren garaiko politika ofizialaren kontrakarga.
- Euskararen aldeko lanak (bestelako gehienak bezalatsu, edo areago) bazkideen borondate onaren gain egin ziren, salbu mandatuzko lanen bat edo beste.
- Elkarte edo talde bezala egindako lanak guztiz bakanak izan ziren, eta horrelako jardueretarako gogoia urteen buruan epelduz joan zitzaion El-karteari.

Honelatsu deskriba liteke *talde* honen historia: ederra izan zitekeena, lorpen berriak ekarri zituena, baina beste alor soziokulturaletan eredu bera lortu ahal izan ez zuena. Eusko Pizkundea ez zen XVIII. mendearen hondarrean jaio, mende oso bat geroago baizik.

1.7. Eusko Pizkundeko taldeak (1876-1936)

Mendez mende gatozenez, heldu gara XIX.era, eta beronekin *Eusko Pizkundea* deitu izan den horretara (1876-1936). Hirurogei urteko epealdi honek hizkuntzaren kontzientzia eta haren aldeko lanetan gogo arduratsua erakutsi zuen, eta ondorioz, euskal gizartean euskararen aldeko hainbat eta hainbat lantalde edo talde eragile sortu zen gure artean. Ditugun orrialdeetan ezinezkoa da guztien historia xehea hona biltzea, esan dugu. Zilegi izan bekigu, besterik ezinean, begiratu orokor bat ematea.

Lehenik, Pizkundeaurrea ere gogoan izan beharko genuke: Urruñan Abba-diak hasitako jaietatik (1853) azken karlistaldiaren bukaerara doana (1876)⁶⁵.

⁶⁵ [N. B.: A. Abbadiari buruzko argibideak, eguneratuta: *Antoine d'Abbadie (1897-1997). Congrès International. Eusko Ikaskuntza. Ezobiko Kongresua. Euskaltzaindia. XIV. Biltzarra (1997, Hendaia eta Sara)*, 1998, Donostia / Bilbo: Eusko Ikaskuntza / Euskaltzaindia. Urkizu, P., 2002, *Anton Abbadia 1810-1897. Biografia saioa*, Bilbao: Udala]. Iparraldean Abadia aipatzen baldin badugu ere, ondoko *Eskualdunaren* ingurukoak eta beste euskaltzaleenak ez ditugu hemen jaso (Eskualzaleen Biltzarra izan ezik), baina Charritton 1985 eta Intxausti 1972, bi liburuetan ikus litezke.

Hamarkada horietan euskararen aldeko jaialdi edo bilketa-lanetan talde gutxi-asko elkartuak baditugu. Abadia beraren ingurukoak kasik ez ditugu batere ezagunak, eta berehala Bonaparte Printzearen lankidegoa⁶⁶. Hark bere jaien lanak eramateko bildu zuen jendea, betiere festa-giroan; hau, ostera, herriz herri eta lankidez lankide euskalkien ezaugarriak jasotzen ahalegindu zen, hainbat euskaltzaleren lankidetza eskatuz, sustatuz eta finantzatuz.

Euskararen aldeko taldeak mota guztietakoak izan genituen Eusko Pizkundean. Lehen aurkezpen baterako bost multzotan banatuko nituzke, nahiz eta sailkapen hauek arriskutsuak eta mugatzailegiak diren:

1. Hizkuntzaren alde espresuki antolatutako Elkarteak, eta Elkarte beza-la jaiok, agian gerora taldearen bozeramailetarako aldizkariren bat ere eskuetan zutela: “Asociación Eúskara de Navarra” izan liteke adibiderik aipatuena.
2. Aldizkari euskaltzaleren baten inguruan bildu eta zabaldutako talde edo lankideak: anitz dira honelakoak, eta beharbada nabarmenena Donostiako *Euskal-Erria*.
3. Bestelako elkarte edo talderen batean (kultural, erlijioso nahiz politikotan) babestutako talde euskaltzaleak: “Jaungoiko-Zale” lagunarte eliztarrak, esate baterako.
4. Euskaltzale gidariren baten inguruan lan zehatzetarako elkarretaraturiko lankide euskaltzaleak: Azkueren lankideak, adibidez.
5. Azkenik, talde-talde izan gabe, euskara lantzeko eta berari buruzko eza-gutzak bildu eta hedatzeko eraturiko harreman-sareak: J. Urkixok gidaturiko *RIEVEN* ingurua izan liteke adibiderik egokiena.

Sailkapen horrekin batera, taldeak denbora-lekutzeko, premiazkoa gertatzen da Eusko Pizkundea epetan banatzea ere, urtealdi oso ezberdinak izan baitzituzten hirurogei urte haiek. Hemen hiru alditan bana liteke Pizkundea:

- Lehen aldia 1876tik 1906ra: karlistaldia bukatu eta berehala hasi zen Euskal Herriaz gogoeta berri bat, pentsalari eta gidari ezagunekin (Camió, Manterola, etab.). Azkueren hiztegi handia (1905-1906) eta *RIEVEN* jaiotza (1907) eman litezke mugatzat.

⁶⁶ Bonaparte Printzeari eta beraren lankideei buruzko xehetasunak azken mendeurrenaren ospakizunetan (1991) eskainitako albiste gaurkotuetan ikus litezke.

- Iraganbidezko bigarren aldi bat, 1906tik 1918rainokoa: euskalgintza-
ren kontzientziatze berri baten gain hizkuntzaren defentsarako erakun-
detze-proposamen herritar eta instituzionalak landu zituzten talde eus-
kaltzaleen garaia (*Euskal-Esnalea*, Gasteizko Kardaberaz Mintegia, etab.).
- Oñatiko Biltzarretik Gerra Zibilera doan epea, 1919tik 1936rainokoa.
Lehenengo ekinaldi instituzional bizi baten ondoren, Diktadurarekin
ahalegin-mota hori epeldu egin zen, baina 20ko hamarkadaren honda-
rrean (1926-1930) prestatu zen Errepublikako loraldia (1931-1936).

Kronologia hori argigarri dugula, aipatutako multzo ezberdin haiei helduko diegu, talde bakoitzaren historia beste baterako utzita ere, aipu gisa bederen irakurlearen aurrean aurkeztuta uzteko.

1.7.1. *Hizkuntzaren aldeko elkarteak*

Hizkuntzaren aldeko Elkarteak Iruñean izan zutela hasiera nagusia esan beharko genuke: Iturralde-Suit (Estornés Zubizarreta 1990: 56) eta Campi3n-en eskutik antolatutako “Asociaci3n E3skara de Navarra”ri eman behar zaio lehenengo lekua, kronologiagatik ez ezik (1877-1897), izan zuen pisu sozioideologikoagatik ere⁶⁷. Elkarte honek aldizkaria ere izan zuen: *Revista E3skara* deitua (1878-1883), baina lagunarte haren oroitzapena batik bat Campi3n3n lanari lotuta iritsi izan zaigu. Euskarari eta euskal historiari eskaini zizkien Elkarte hark bere ardura eta ahaleginak⁶⁸. Elkarte honen ekintza nagusietan daude ondoko hauek: zenbait euskal pertsonaiari egindako omenaldiak (Iparragirreri horien artean), Lore-Jokoen antolakuntza (1878, 1885), euskarari babes ofiziala eman zekion eskariak (1885-1887: katedra eskatu eta lortuz, Erreginari euskaltzaletasuna eskertuz, erdal maisuen arazoa astinduz). Diputazioak euskararen aldeko elkarte zabal bat sortzea erabaki zuenean (1897), deliberatu zuen Elkarteak lagunartea desegitea, xedeak betetzat emanik.

Urte bertsuetan, Donostian ere lortu zen erakunde euskaltzale bat ofizialki sortzea. Agirre Miramon, Manterola eta beste euskaltzale donostiarren aurreko urteetako ahaleginen fruitua izan zen: “Consistorio de las Fiestas Florales E3skaras” deitu zitzaion (1882). Donostiako Udalaren eta Gipuzkoako Aldun-

⁶⁷ Bazkideen izenak lan honetan ikus daitezke: Beltza 1976: 68-69. Elkartearen Aktetako albisteak eza-
gutzeko: Intxausti 1990: 17-25; S3nchez Granjel 1986; Estorn3s Zubizarreta 1990: 60-61, 132.

⁶⁸ Lehenengo bileran Elkarte berriaren xedeak honela mugatu ziren: “con el objeto de fundar una socie-
dad que velase por la conservaci3n de la lengua 3 historia vasco-navarras” sortzen zela adierazi zen.

diaren elkarlanean eratu eta bizi izan zen, eta betiere hiriko euskaltzaleen lan-kidetzaren bizkar. Erakunde ofizial eta beregain honi esker, mende hondarretik aurrera (1896) Donostian ez ezik Probintziako herrietan ere ospatu izan ziren Euskal Festak (dakigunez, Arrasaten, Zestoan, Zumarragan, Zumaian, Azpeitian eta Oñatin bederen, 1902 arte). Jai hauen inguruan hainbat talde herritar euskaltzale ibili ohi zen, antolatzaile-lanetan ez ezik, baita ospakizun ezberdinetan parte hartuz ere (bertsolariak, antzerkizaleak, etab.). Zoritxarrez, *mugida* honetako talde eta talde-lagunen historia egiteke dago, baina badago argitalpenik Donostia eta Gipuzkoako Euskal Festa hauen balioespena egiteko⁶⁹.

Bizkaian, Bilbo (1882), Markina (1883) eta Durangaldean ospatu ziren lehenengo Euskal-Jaiak (Durango 1886 eta Iurreta 1891), eta gero Gernika (1888), Bilbo (1896), Areatza (1897) eta Bilbon (1905) berriz ere izen berearekin⁷⁰. Bilbok 1901ean antolatu zituen bere lehenengo Lore-Jokoak, Unamunoren partaidetzarekin⁷¹.

Hizkuntzaren aldeko ospakuntza hauek atzetik hainbat lagun eta talde, gutxi-asko formalak, zituzten. Jakina denez, Abadiaren eraginez sortu zen Hegoaldean jai hauetarako grina (Elizondon lehenengo, 1879), euskarazko kulturaren eta Euskal Herriaren aldeko antsia kulturala nolabait ere azaltzeko.

Aurrera baino lehen esan beharra dago, urteroko jai handi haiek bestelako talde txiki berezituak ere sortzen lagundu zutela. Adibidez, Donostian eta herrietan eratutako antzerti-taldeak: P. Artolaren Donostiako “Euskaldun Fedea” izan zen horietako bat (1896)⁷².

Urteroko ekinaldietarako talde edo elkarteek zuten egonkortasuna baino zerbait iraunkorrago eta eraginkorragorik ere ezagutu zen Eusko Pizkundean. Aspalditxotik zegoen euskal Akademia baten asmoa eta eskea, eta Iparraldean ere, Hegoaldekoekin izandako harremanak tarteko zirela (Hendaiako bileran erabakitakoari jarraiki) (Villasante 1961: 386-387), 1902an sortu zen “Euskaltzaleen Biltzarra” (1902), gure egunak arte iraun duena⁷³.

⁶⁹ Liburu koadernatu batean bilduta dauden argitalpen sakabanatuak, adibidez (Donostiako Udal Liburutegian: R-3-24).

⁷⁰ Euskal Jaiak bezala izendatutakoen zerrenda, ikus: Lasuen Solozabal 1986. Bizkaian ospatutakoen kronika laburra ere bertan ageri da.

⁷¹ Ikus: 1901, “Primeros Juegos Florales en Agosto de 1901. Programa”, *Euskal Erria* XLIV, 1901, 524-530; Unamuno 1958 [1901]; Ugalde 1979.

⁷² Ikus Labayen 1965, I: 40, 43, 52.

⁷³ Xarritton eta Goienetxe arduratu dira berai ikertzeaz.

Hegoaldean, berriz, leku nagusia aitortu behar zaio Gregorio Mujikaren inguruko “Euskal-Esnalea” Elkarteari (1907)⁷⁴. Eusko Ikaskuntzak euskalgintzari eman zion bultzada⁷⁵, ikerlanetan ez ezik bere baitan sortutako lantalde euskaltzaleetan ere begiratu behar da (Estornés Zubizarreta 1983: 146-155, 173-188, 189-214): “Euskeraren Adiskideak” (1925, Iruñea) (Onaindia 1977: 413-414), “Baraibar” (1928, Gasteiz) eta “Euskal Elkarte Bazpatza” (1928)⁷⁶.

Taldeon historian Errepublikarekin jite berria hartu zuen jardunak: Aitzolek sustatu eta gidatutako “Euskeltzaleak” (1926) edo “Eusko Pizkunde” taldeek alde herritarra eta alde intelektuala, biak zaindu nahi izan zituzten, aldizkari bozeramailea ere ahantzi gabe (*Yakintza* tartean zela)⁷⁷.

Guztion artean ez dira ahantzi behar, noski, Euskaltzaindia (1918-1919), euskararen aldeko lantalde ofizial instituzionala, eta beronek eraturako ospakizun, sariketa eta bestelako lanak, euskal Akademiak ikerlana ez ezik bere baitan izan baitu beti babes- eta sustalana ere.

I.7.2. Aldizkari-inguruko taldeak

Beste molde libreago batean, baina aldiari aldiko egitekoari lotuta Eusko Pizkundeko euskaltzaleentzat erakarmen handiko bilguneak suertatu ziren garaiko aldizkari batzuk, gehienetan bertako gidariek ere halakoxe erakarmena zutelako noski: abilak izan ziren horretan Jose Manterola edo Gregorio Mujika, hura bere *Euskal-Erriarekin*, eta hau *Euskal-Esnalean*. Nortasun handiko zuzendari

⁷⁴ Onaindia 1977, V: 335-344. Elkarteaz, aldizkari eta argitalpenez ari da. Ikus elkarte eta aldizkariaren lanen albiste zehatza *Euskalerrriaren Alde XXI*, 1931, 335-336. zenbakietan. Estornés Zubizarreta 1990: 122, eta bereziki interesgarria: 157-159 (Gernikako Biltzarraz, 1922).

⁷⁵ EI/SEVren inguruetan edo barnean babestu ziren taldeen lanaren historiaz, ikus Estornés Zubizarreta 1990: 203, 68. oharra. Eiren babespean bildutako elkarte euskaltzaleen historia egin aurretik, beharrezkoa da Erakundearen beraren hizkuntz politika ezagutzea: Estornés Zubizarreta 1983: 173-213, eta 1990: 179, 196, 197-198, 201-203. Udalen mugimendua eta euskara: Estornés Zubizarreta 1990: 381-386 eta 590-686. 1930ean EIk egindako inkestaren erantzunak eta analisisa: Estornés Zubizarreta 1990: 212-239, 252-254, 257. Bergarako Biltzarreko (1930) euskal kronika: Estornés Zubizarreta 1990: 250-252.

⁷⁶ Direktorioaren azken urteetan (1927-1930) sortu zen belaunaldi gaztearen mugimendu euskaltzaleaz, ikus Estornés Zubizarreta 1990: 197-203.

⁷⁷ Ugalde 1988: 49-66; Iztueta 1991: 497-499. Gogoan har dezagun “Euskeltzaleak”en barnean “Euskal-Idazle-Batza” ere eratu zela, zenbait sariketaz ardura zedin: Iztueta 1991: 498. Estornés Zubizarreta 1990: 202, 251 (Bergarako Euskeraren Eguna, 1930: Aitzol).

haiek, elkarteak edo lantaldeak —iraunkorrek edo unean unekoak— sortzeko gaitasun bizia erakutsi zuten.

Donostiako *Euskal-Erria* (1880-1918) izan zen, hasieran, molde hauetako aldizkaririk hedatuena eta pisurik handikoena Manterolarekin (1880-1884), eta gero Artzak (1884-1904), López Alen (1904-1910) eta Loyarteren zuzendaritzarekin (1910-1918). Aldizkariaren kroniketan ikus liteke garaiko euskaltzaleen nondik norakoa. Gisa berean, *Euskalerrriaren Alde* (1911-1931) aldizkariak ere odol berri eta gogo pizgarria ekarri zuen euskal lanetara, batez ere euskalgintzaren sustatzaile eta gidari suharra izan zen G. Mujikaren eskutik.

Baina Errepublikaren aurreko mende-laurdenean eta betiere euskalgintzari gagozkiola, *Euskal-Esnalea* (kasu honetan aldizkariaren ari gara, 1908-1931) da hizkuntza leialtasun berri bat erakutsi zuena, euskarari berari kazetaritzan leku emanaz. Neurri batean bederen, Erakunde Publikoen babespean-edo zebiltzan Eusko Pizkundeko euskaltzale askoren ohitura makurra hautsi egin zuen *Euskal-Esnaleak*: euskal kulturaz eta euskarari buruz erdaraz eta erdara hutsez ere jarduteko ohitura, alegia. Izen bereko aldizkari eta elkarteko lankidegoa talde gisa interesgarrietakotzat ageri da bi hamarkadetan behintzat (1911-1931).

Aldizkariak, dakigunez, ugariak izan ziren urte haietan⁷⁸, eta behin baino gehiagotan talderen baten emaitza ziren. “Taldea/aldizkaria” bikote hori batera dator ondoren aipatuko dugun kasuan.

1.7.3. *Elkarte erlijioso, kultural eta politikoetakoak*

Beren xede zuzena euskalgintza ez, baina bestelakorik izan arren, euskara ere bultzatu nahi izan zuten taldeak eta haien aldizkariak edo argitalpenak gogoratu behar ditugu, hurrengo. Honelakoak —esanda dugu— kultur, erlijio- edo politika-erakundeetan agertu ziren.

Aipatu da Eusko Ikaskuntzak, Euskaltzaindia sortu eta gero ere, bere baitan izan zituela talde euskaltzale eratuak, baina erlijioso-etxe eta Seminarioetan agerturiko taldeak dira garai haietako lantalde iraunkorrenak, nahiz eta etxe-barnekoak izan gehienbat.

Talde hauek, beren lan-egitarauen aurretik, oinarri teorikoak ere landuta izan zituzten, Kardaberazzen ideiak jasoz, *misionologia* katolikoak eta herrien eskubideen eliz doktrinak esandakoak gogoan izanik. Inoiz, gainera, espresuki

⁷⁸ Hogeigarren mendeko lexikoa aztertzeko UZEIK Euskaltzaindiarentzat egindako katalogoan asko dira gerraurreko urte haietakoak, eta hainbat kasutan hemen aintzakotzat hartu beharrekoak, gainera. Bego ohar hau hemengo argibide mugatuen argi-osagarritzat.

eman nahi izan zitzaion pentsamendu horri formulazio idatzia⁷⁹. Pentsamendua landu beharra zegoen, hain zuzen pentsamolde aldagaitz baten kontra ekin behar zelako ere.

Jesuiten *Jesús'en Biotzaren Deyaren* inguruan (1917) (Onaindia 1977: 145-152) edo kaputxinoen *Zeruko Argiaren* lankidetzan (1919) (Onaindia 1977: 412-413; Villasante 1961: 397) biltzen ziren luma gazteak eta irakasle-gidari euskaltzale eliztarrak. Honelako lankidetzak eliz ikas-barnetegietan euskal mintegiak ere sortu ohi zituen, aldiari aldiko lankidetzak segurtatzeaz gain gazteen trebakuntzarako ere lagungarri zirenak⁸⁰. Horregatik, eredu euskaltzale hauek izan zuten beste Ordena erlijiosoetan ere jarraitzaileak, gerraondotik gure egunak arte luzatu dena, gainera, inoiz⁸¹.

Bide bertsutik jaiotzen zen Gasteizko Seminarioan ere euskal mintegi-taldea (euskal idazle-eskola bezala), “Kardaberaz” Akademia (1924), ikasleriaren beraren ekimenez eta irakasle euskaltzaleen laguntza eta babesarekin (Iztueta 1991: 484-488)⁸².

Apaizgaitzegietan emandako pausoek eta lekuan lekuko pastoralgintzaren premiek izan zezaketen herrietan talde-segidaririk, eliz euskalgintzan. Horixe gertatu zen “Jaungoiko-Zale” elkarte bizkaitarrarekin (Villasante 1961: 393-395; Onaindia 1977, V: 154-160)⁸³: 1912tik aurrera, gerra lehertu arte, lan gaitza

⁷⁹ 1922an Urrutiak Gernikan “Euzko Jaupari-Bazkuna” ren bileran (Jaungoiko-Zale taldea) emandako hitzaldian aurreratu zuen zenbait ideia. Ikus Urrutia 1931.

⁸⁰ Gerraondorako eginda dago honelako taldeen azterketa: [Iztueta, P.] 1981. Gerraurreko beste haiena, berriz, laburrago begiratu da; hala ere, ikus Iztueta 1991: 490-493. Ohar labur bat: Lekuona 1984, VIII: 525-526.

⁸¹ Adibide ona da Karmeldarra: ikus Akesolo et al. 1994. Historia hori 1931n hasi zen *Karmen'go Argiarekin*, eta L. Akesolo eta S. Onaindia bezalako izen historikoekin gudanaino iritsi da, belaunaldi gazteagoan segida-biderik ere segurtatuta duela (Uribarren, Baraiazarra, Urkiza, etab.).

⁸² Ez da ahantzi behar Lekuona eta Barandiaran hango Seminarioan ari zirela lanean, mende honetako bigarren hamarkadatik aurrera. Ikus Lekuona 1984, VIII: 355-357; Onaindia 1977: 233. [N. B.: Ibáñez Arana 2005, I: 265-270; Aulestia 2004: 875-883].

⁸³ “Euzko Jaupari-Bazkuna” zuen izena elkarteak, bere Arautegiak zioenez: 1914, *Kistar-Irakaskintzia Zabalkundia. Euzko Jaupari-Bazkunaren Arautegija*, Bilbao: Imprenta de Jesús Alvarez. Eta *Asociación de Sacerdotes Vascos para el Apostolado Popular. Reglamento* da erdal edizioaren izenburua (Gobernadoreak 1912an ofizialki sinatua). Elkartearen estatistika jakingarriak: Jaungoiko-Zale Bazkuna, 1931, *Bazkide-ixendegia*, s. I. Herriz herri ematen du bazkideen zerrenda. Derioko alean, azken orrialdean honela daude laburtuta datuak: “Jaupariak 384 + Kistar lauak 553 = 937”. Arautegiaren arabera, urteroko bilerak egiten ziren: ikus, adibidez, *Jaungoiko-Zale*, 34. zk. 1915eko Bagila eta 35. zk. 1915eko Garagarri, urte hartako Durangoko bileraz. Azpimarratzekoak dira aldizkako argitalpenetako eliz kazetaritza: *Jaungoiko-Zale* aldizkaria

burutu zuen, sariketa eta euskarazko katekesi-jaiak eratuz, aldizkako (*Jaungoiko -Zale* aldizkaria; *Ekin* astekaria) eta banakako argitalpenak argitara emanez (*Egutegia*), Zirilo Artzubiaga eragile zuela⁸⁴ eta Eguzkitza, Manterola edo Ibargutxi bezalako idazleak lantaldean zituela. Eguneroko euskalgintza herritarrean ez ezik hizkuntzaren kulturgintza jasoagoan ere egin zuten lan (orri, aldizkari eta asteroko herritarretatik teologi argitalpen jantziagoetaraino iritsiz). Epe laburreko ekintzetatik luzaroagoko lanetaraino luzatu zuen begirada talde honek, eta mereziko luke azterketa historiko pausatuagoa.

Eliz testuinguru bertsuan koka liteke *Argia* astekaria ere (Donostia, 1921-1936) (Onaindia 1977: 348-349, 350-352; Villasante 1961: 396-397), baina aurreko talde/aldizkarien artean honek hartu zien aurrea gainerakoei lortutako hedapen zabalagatik, urtero banatu izan zen “Egutegia” rekin batera. Bizitza aski luzea izan zuen, aldikotasun zintzoa eta irakurleenganako hurbiltasun erraza lortu zituen A. Zatarainek, B. Garitaonandiak eta bultzatu eta gidatu zuten talde honek, betiere eliz bizitzari hertsiki lotuta.

Eliz eremutik at, elkarte politikoetan adibidez, euskalgintzan jardundako taldeak ere gogoratu behar dira hemen, abertzaletasunak bere pentsamendua mamitu eta bide soziokulturala urratu ahala, euskararen arazoari ere heldu baitzitzaion.

Talde bakoitzak bere helburu eta ideia politikoak zabaltzeko egin zezakeen hizkuntz erabileraz gain, alderdiek zuzenean euskararen azterketarako edo haren aldeko kanpainerako zituzten taldeak gogora litezke batez ere. Bestek beste, “Euzkeltzale-Bazkuna”k, gerora PNV-Aberriren ildo hurbiletik joango zenak, aintzakotzat hartzea merezi du, Bilbon abertzaleen artean euskararen alde gidatu zuen ahaleginagatik ez ezik (1918ko ikas-metodoa, eta eskolak), bere aldizkaria ere kaleratu zuelako (*Euzkerea*, 1929-1936) (Onaindia 1977: 152-154; Iztueta 1991: 496).

1.7.4. *Ikertzaileen lantaldeak*

Taldetasun murriztagoa zuten lankideak ere izan zituen euskarak Eusko Pizkundean: zinezko talde izan gabe, gidari on baten inguruan lan bererako ba-

(1912-1931: 1912-1915. urteetan, hilabetekaria, eta 1916-1931. urteetan, hamaboskaria), eta 1932tik aurrera *Ekin* astekaria. Azken honen asmoak aurreko aldizkarian ikus litezke (421. zk., 1932-urtarrila-I, 381-383 eta 393. orrialdeak). *Egutegia* ere atera izan zen zenbait urtetan (1926an, adibidez). Mami zabal eta jasoko argitalpenak zituen bere argitalpen-katalogoan (*Kristiñau-Ikasbidea*, 1921; *Edesti Deuna*, 1936, etab.) eliz lan apalagoen artean. *Ekin* astekariari buruz, ikus Onaindia 1977: 157-160.

⁸⁴ Ikus Amuxalde [Akesolo, L.] 1989: 1080-1082.

koitzak bere ekarria eginez, jardunean zihardutenak. Honelako lanak batez ere bilketa-lanak izan dira (folklorean, dialektologian, etab.).

Aipatu da Bonaparterekin ibili zirenen taldea, baina Pizkundean beharbada R. M. Azkue izan zen lankide-multzo euskaltzale emankorrena bildu zuena, eta bere hiztegi handia da horren lekuko: inork ordura arte izan ez zuen lankide-go zabala egokitu zuen hori burutzeko. Lankide nagusien zerrenda zehazki eman zuen Azkuek obraren hitzaurrean (Azkue 1905, I: X-XIII). Euskalari lekeitiarrak halako miraz gogoratu zituen non eta nola egin izan zituzten lankide informatzaileen bilerak⁸⁵.

1.7.5. *Iker-barreman sareak*

Azkenik, ikerkuntza edo ezagueren trukea eta zabalkunderako gune baten inguruan antolaturiko harreman-sareak ere gogora litezke. Euskarari buruz bakarrik ari zena ez izan arren, bere esanahi historiko berezi eta bakarragatik hona ekartzekoa da, Julio Urkixok *RIEV* aldizkariaren inguruan sortutako mundu irekia, nazioartekoa gainera.

Hogeita hamar urteko bizialdia izan zuen argitalpenak, 1907tik 1936ra. Lankide-multzoa ez zen, honelako kasu gehienetan bezala, benetako taldea, baina hainbaten artean harreman hertsia goak sortu ziren, eta maiz euskalaritzaren barruan elkarren arteko hurbiltasunak estutzeko balio izan zuen. Aldizkariaren bulegoetan eta beronen idazkaritzarako joan-etorrian, edo Zuzendaritzaren inguruan egindako bilera eta proiektuek ez dute oraindik historialarien arreta onik izan⁸⁶.

Gizarte-testuinguru bertsutik, eta euskararen ezaguera hobea bultzatzeko gogoz jaiotako jakitunen talde formalagorik ere izan da gure artean, geroko Euskaltzaindiari aurrea hartuz eta agian gerora “akademia” bat sortzen lagun zezakeela pentsatuta eratu zen lagunarterik: *Cercle d'Etudes Euskariennes* taldeaz ari naiz (Baiona, 1911-1914). Jakitun gutxi batzuek eratu zuten (Gavel, Urkixo, etab.), beren arteko jakite-trukeak egiteko eta denen ikerlanak ere sustatzeko.

⁸⁵ “Al efecto [de recoger el mayor número de sinónimos y variantes] promoví reuniones dominicales de honrados artesanos, bizkainos y guipuzkoanos en su mayoría, con algún nabarro que otro [...] en la casa núm. 10 de la calle de Jardines, en Bilbao, donde casi a un tiempo se fundaron una escuela para niños, un teatrillo que llamamos EUSKALDUN BILTOKIA, la revista *EUSKALZALE*, y esta rústica academia, que duró dos años y medio” (Azkue 1905, I: X).

⁸⁶ Hala ere, ikus *RIEV* aldizkarian (1976, 28: 407-473) V. García de Diego, J. R. de Urquijo, M. Lekuona eta J. Bilbao-ren lanak.

Bizitza laburra izan zuen, berehala iritsi baitzen Gerrate Handia (Charritton 1985: III-III2, 248-253. Gavel 1912; 1914: 238-244; I61-I68).

2. Oharrak lan honen mugez

Hasieratik esan dugunez, ez dugu izan talde guztiak hona ekartzeko asmorik. Eta, aipatu ditugunetan, bi molde ezberdinetara egin dugu: Aro Modernoak patxada hobean aurkeztu dira, nahiz eta kasu hauetan ere azalpena beti motz geratu. XIX-XX. mendeetakoak ugariago aipatu ditugu, baina ez dugu modurik izan beraien azterketan harago iristeko: hor ere ez ditugu begiratu batean interesgarrienen aipuak baizik eman. Izango ahal da hurrengo batean zerbait biribilagorik egiteko egokierarik. Beude, oraingoz, horrela.

2.1. Aro Modernoaz

Hiru talde ukitu ditugu arreta handiagoz: leizarragatarrak, Axularren ingurukoa eta Euskal Herriaren Adiskideak⁸⁷. Hala ere, hirurek beharko dute azterlan zainduagorik.

Leizarraga kasu paradigmaticoa da garaiko Europan. Horregatik ez zen batiere originala gertatu testuinguru europarrean, baina, segun noiz, originaltasuna ez da izaten derrigorrean lanaren baliorik premiazkoena. Hori gorabehera, gure historian euskal prosaren sortzaile handia bera izan genuen. Talde honen esangura ulertzeko historiografia protestante modernoaren baitatik behatuz ere lan egin beharko dela gogoratu nahiko nuke, berriz ere. Oraingoz, hemen, iradokita bakarrik geratu da hori.

Axularren lanak zorte hobea izan du ikertzaileen artean azken 30 urteetan, lehenagoko Urkixorenak ahantzi gabe. Ez da harritzekoa: hobeki ezagutu izan da gure artean Kontrarreforma, Erreforma protestantea baino. Eta gero, Axularren idazle-maisutza gureganaino iritsi zaigu tradizio baten harian, Leizarragarena ez bezala. Hala ere, taldea zinez ezagutzeko Axularren talde-lagunak dira ezagutu beharko genituzkeenak. Haietako hainbati buruz, ordea, deus gutxi dakigu oraindik ere.

⁸⁷ Ez gara iritsi Larramendi eta ondoko beste jesulagunei buruz deus esatera, nahiz eta argibide bibliografikoren bat eman dugun (Lakarra 1992). Larramendi, Kardaberaz eta Mendibururi buruzko azterlan berrietara jo beharko du irakurleak hutsunea osatzeko.

Euskal Herriaren Adiskideen historia ezagutzeari, egia esan, beste horienari baino lehentasun premiatsuagoa iritziko nioke nik. Hauei buruz galderak bata bestearen atzetik datoz: Adiskideen hizkuntz ideia, jarrera, proiektu eta jokabideak aztertzeak ez ote luke lagunduko Euskal Herriko hizkuntzarekiko geroko burubide orokorrak argitzen? Arlo honetan, ezagutu ote zituzten haiek atzerriko ideiak? Zertan aurreratu ote ziren, zertan atzeratuta geratu?⁸⁸. Nola ezkondu zuten beren euskaltzaletasuna borboitarren hizkuntz politikarekin?

2.2. Eusko Pizkundez

Eusko Pizkundeko taldeena bestelako kasua da: Pizkundera gure orainaldiaren bezpera baizik ez da, eta bizitza labur nahiz luzeko talde aski izan dugu. Hauen banakako azterketari heltzeko hobespen batzuk nahitaezkoak dira. Guztien artean lehena, Gregorio Mujikaren “Euskal-Esnalea” delakoan nago, eta beronen inguruko argibideak dira bilatu behar direnak.

Berri-iturriak bilatuz, Pizkundeko aldizkariak albistegi aberatsak dira, Estornés Lasak bere *Literatura Vascan* erakutsi digunez (*Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*), baina sintesi landuago baten beharrean gaude, eta nolana ere, gure asmoetarako, *talde* kontzeptuaren ikuspegitik egin beharreko lana eginkizun geratzen da. Ostera, artxiboek zer eman dezaketen ikusteko dago oraindik. Zoritxarrez, garai hau aztertzeko artxiboak ez daude beti eskura eta erabilgarri, publikoak ordenatu gabe ditugulako, edota pribatuak familiartekoen etxeetan galdurik daudelako.

Dena den, Eusko Pizkundeko taldeek oso egingarri den historia gaia eskaintzen diote ikertzaileari, dagoeneko tartean dugun denbora-aldea lagungarri izan litekeelako ere.

Bukatzeko, aipa dezadan frankismoaren epea. Sintesi bide-erakusle batzuk (Iztueta 1985) eta gehiago ere (Iztueta 1991: 787-1020)⁸⁹ baditugu, eta bana-banako lanei heldu beharko zaie lehenbailehen⁹⁰, lehenbailehen diot, zeren oraindik bizirik ditugun lekukoekin kontatu beharko bailitzateke, beroriengandik *Abozko Historiaren* emaitzak ere jaso nahi baldin badira bederen.

⁸⁸ Hasi dira, jada, Elkartea horren euskaltzaletasunaz lanak argitara ematen. Ikus, adibidez, Larrañaga 1991.

⁸⁹ Lan honi azken aldian han-hemen alfabetatzeaz argitara emandakoak erantsi behar zaizkio.

⁹⁰ *Jakin* aldizkariak sarritan eskaini ditu euskal kultur taldeei buruzko lan monografikoak. Lehen pausoztat balio lezakete.

BIBLIOGRAFIA

- Abraham, P.; Desné, R. (ed.), 1971, *Manuel d'histoire littéraire de la France, Tome I: Dès origines à 1600*, Paris: Editions Sociales.
- Akesolo, L.: ikus Amuxalde, 1989.
- Akesolo, L. et al., 1994, "Karmel aldizkariaren historia", *Karmel* 210, 1994-4, 6-42.
- Altuna, P. (ed.), 1982, *Mendibururen idazlan argitaragabeak* (2 libk.), Bilbo: Euskaltzaindia, Euskararen lekukoak 4.
- Altuna, P., 1985, "Aizpitarteren hiztegi argitaragabea Loiolan" in Melena, J. L. (ed.), *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*, Gasteiz: UPV-EHU, II, 1097-1111.
- Altzibar, X., 1985, "Euskara Adiskideen Batzarrean" in Melena, J. L. (ed.), *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*, Gasteiz: UPV-EHU, II, 1119-1136.
- Altzibar, X., 1991, *Juan Antonio Mogel (1745-1804)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Altzibar, X.; Basurto Larrañaga, R., 1991, *Joan Antonio Zamakola (1758-1819)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Amuxalde [Akesolo, L.], 1989 [1966], "Zirilo Arzubiaga Jaungoiko-Zale ta Ekinen biotz izan zana" in Urkitza, J. (ed.), *Idazlan guztiak*, Zornotza (Larrea): Ediciones El Carmen (Karmel), II, 1080-1082. [Jat. ed., 1966, *Zeruko Argia* 179, 1966, 202].
- Apraiz, R. de, 1948, "El ilustre alavés D. Eugenio de Llaguno y Amirola. Su vida, su obra, sus relaciones con la Real Academia de la Historia y con la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País", *BAP* IV, 1948-I, 53-95.
- Areta Armentia, L. M., 1983, "El período del racionalismo. Siglo XVIII" in Llanos Ortiz de Landaluze, A. (ed.), *Álava en sus manos*, [Gasteiz]: Caja Provincial de Álava-Arabako Kutxa, III, 182-183.
- Areta Armentia, L. M., 1990, "Las ideas pedagógicas en el País Vasco bajo el reinado ilustrado de Carlos III" in *Las ideas pedagógicas de los Ilustrados vascos*, Vitoria -Gasteiz: Servicio de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Askoren artean, 1993, "Antoine Abbadia. XIX. mendeko zientzilari eta euskaltzalea", *Elbnyar* 73-74.
- Aulestia, G., 1990, *Bertsolarismo*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- Aulestia, G., 2004, "Gasteizko Apaiztegia eta euskara gerra aurretik / El Seminario de Vitoria y el euskera antes de la guerra civil", *Euskera* 49, 2004-2, 875-883. [Errakuntzaz, Andrés Ibáñez deituraz izenpetua]. [N. B.]

- Axular, P., 1643: ikus Villasante 1976.
- Azkue, R. M., 1905-1906, *Diccionario vasco-español-francés / Dictionnaire basque-espagnol-français* (2 libk.), Bilbao: Dirección del Autor.
- Azurmendi, J., 1980, “Bertsolaritzaren estudiorako”, *Jakin* 14/15, 1980, 139-164.
- Basurto Larrañaga, R., 1986, “Elementos neoclásicos y prerrománticos en la historiografía vasca de principios del siglo XIX: J.A. de Zamacola”, *RIEV* 31, 1986, 661-675.
- Beltza, 1976 [1974], *El nacionalismo vasco : 1876-1936*, San Sebastián: Txertoa.
- Benito Pascual, J. de, 1990, “La Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País y las escuelas de primeras letras (1771-1793)” in *Las ideas pedagógicas de los Ilustrados vascos*, Vitoria-Gasteiz: Servicio de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Berceo, G. de, 1992, *Obras completas*, Madrid: Espasa-Calpe.
- Boudon, R.; Bourricaud, F., 1982, *Dictionnaire critique de la sociologie*, Paris: PUF.
- Cardaillac, L. (ed.), 1991, *Tolède XII^e-XIII^e. Musulmans, chrétiens et juifs: le savoir et la tolérance*, Paris: Autrement.
- Caro Baroja, J., 1972², *Los vascos y la historia a través de Garibay. (Ensayo de biografía antropológica)*, San Sebastián: Txertoa.
- Carriazo, J. de la M., 1925, “Precursores españoles de la Reforma. Los herejes de Durango (1442-1445)” in *Actas y Memorias de la Sociedad Española de Antropología, Etnografía y Prehistoria*, Madrid, I: 35-69. (Memoria 35, sesión 18).
- Chahinian, K., 1988, *OEuvres vives de la Littérature Arménienne*, Antélias (Liban): Catholicosats Arménien de Cilicie.
- Charritton, P., 1985, *Pierre Broussain. Sa contribution aux études basques (1895-1920)*, Paris: CNRS. [Berrarg., 2007, Euskaltzaindia].
- Colloque International d'Orthez, 1984, *Actes du Colloque International d'Orthez (16, 17 et 18 février 1983): Arnaud de Sallete et son temps. Le Béarn sous Jeanne d'Albret*, Orthez: Per Noste.
- Davant, J. L., 1993, “Abbadia eta Euskara”,
<http://www.zientzia.net/artikulu.asp?Artik_kod=6329>
- Diccionario de Ciencias Sociales*, 1975, Madrid: Instituto de Estudios Políticos.
- Diccionario de Sociología*, 1986, Madrid: Ediciones Paulinas.
- Elorza, A., 1992, “El protonacionalismo de Larramendi” in Lakarra, J. A. (ed.), 137-149.
- Enciclopedia de las instituciones políticas*, 1987, Madrid: Alianza.
- Estatutos de la Sociedad Bascongada de los Amigos del País, según el Acuerdo de sus Juntas de Vitoria. Por Abril de 1765*, San Sebastián: L.J. de Riesgo.
- Estornés Lasa, B., 1978-1979, *Literatura vasca* (4 libk.), Donostia: Auñamendi.

- Estornés Zubizarreta, I., 1983, *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko-Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Donostia: Eusko-Ikaskuntza.
- Estornés Zubizarreta, I., 1990, *La construcción de una nacionalidad vasca. El autonomismo de Eusko-Ikaskuntza (1918-1931)*, San Sebastián: Eusko Ikaskuntza.
- Etxeberri, J., 1627, *Manual devotionezcoa, edo ezperen, oren oro escuetan erabiltceco liburutchoa, escarazco versutan eguiña, eta guztia bi partetan berecia*, Bordelen: Guillen Millanges, Erreguearen imprimatçaillearenean.
- Etxeberri, J., 1665 [1636], *Elicara erabiltceco liburua Ioannes Etcheberri Dotor Theologoac eguiña eta iaun Noble Bertrano de Etchhaus Tursce, Archipbizpicu dignea-ri dedicatua*, Bordelen: I. Mongiron Milanges, Erregueren imprimatçaillebaithan.
- Etxenike Elizondo, M. T., 1985, "Campomanes y el proyecto de un Gran Diccionario Vasco" in Melena, J. L. (ed.), *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*, Gasteiz: UPV-EHU, II, 1089-1096.
- Etxepare, B., 1968 [1545], *Olerkiak*, San Sebastián: Edili.
- Euskaltzaindia. Biltzarra (14. 1997. Hendaia eta Sara), 1998, *Antoine d'Abbadie (1897-1997)*, Donostia / Bilbo: Eusko Ikaskuntza / Euskaltzaindia.
- Extractos de las Juntas Generales celebradas por la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País en la villa de Bilbao, por setiembre de 1772*, Vitoria: por Tomás de Robles, Impresor de la misma Real Sociedad.
- Extractos de las Juntas Generales celebradas por la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País en la villa de Vergara, por setiembre de 1773*, Vitoria: por Tomás de Robles.
- Feydit, F., 1967, "L'État de la langue Arménienne au Ve siècle" (Extrait de la Revue *Pazmavep*), Venise: Saint Lazare.
- Feydit, F., 1982, *Considérations sur l'alphabet de Saint Mesrop et recherches sur la phonétique de l'arménien*, Wien: Mechitharisten-Buchdruckerei.
- Garate, J.; Ruiz de Arbulo, F., 1971, "El lexicógrafo José María de Aizpitarte, vecino de Vitoria", *Boletín de la Institución Sancho el Sabio* 15, 1971, 257-267.
- Garibai, E., 1571, *Los XL Libros del Compendio Historial de las Chronicas y vniuersal Historia de todos los reynos de España*, Impresso en Anueres por Christophoro Plantino.
- Gavel, H., 1912; 1914, "Cercle d'Etudes Euskariennes", *RIEV* 6, 1912, 238-244; 8, 1914, 161-168.
- Gerra, J. K., 1924, *Los cantares antiguos del euskera : viejos textos del idioma*, San Sebastián: Martín y Mena.
- Gorostiaga Bilbao, J., 1952, *Epica y lírica vizcaína antigua* (Vol. I), [Bilbo]: Centro de Estudios Vascos de F.E.T y de las J.O.N.S.
- Hamant, Y. (ed.), 1989, 988-1988: *un millénaire. La christianisation de la Russie ancienne*, Paris: UNESCO.
- Ibáñez Arana, A.: *ikus Aulestia*, 2004.

- Ibáñez Arana, A., 2005, *Historia del Seminario Diocesano de Vitoria* (2 libk.), Vitoria-Gasteiz: ESET. [N. B.].
- Intxausti, J., 1972, *Iraultzaren bildotik*, Oñati (Arantzazu): Editorial Franciscana Aranzazu.
- Intxausti, J., 1978, “Ikuspegi politikoa” in *Euskararen liburu zuria*, Bilbo: Euskaltzaindia, 79-142.
- Intxausti, J., 1985, “El Euskara: de su mito a la conciencia nacional / Hizkuntzaren kontzientzia eta eskea, historian” in Intxausti, J. (ed.), *Euskal Herria. II. Errealitate eta egitismo / Realidad y proyecto*, [Oñati] / Arrasate: Jakin / Lankide Aurrezki Kutxa, 361-386.
- Intxausti, J., 1990, “Nafarroako euskararen historiaz”, *Jakin* 56, 1990, 7-33.
- Intxausti, J., 1990-1992, *Euskara, euskaldunon bizkuntza / Euskera, la lengua de los vascos / Euskara, la langue des basques*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. [Hizkuntza bakoitzak edizio beregaina du].
- Intxausti, J., 1995, “Leizarraga eta Leizarragatarrak (1563-1571), erreforma-kontrarreformetako ilun-argitan”, *RIEV* 40, 1995, 119-160.
- Intxausti, J., 2012, “Euskal Herriko jesulagunen peskizan. Estatistikak zertaz ari zaizkigun. [1534-1767]”, *Karmel*, 2012 [argitaratzeaz]. [N. B.].
- [Iztueta, P.], 1981, “Eliz ikastetxeetako aldizkariak”, *Jakin* 21, 1981, 49-71.
- Iztueta, P., 1985, “Euskararen adierazpen soziala gerraondoan (1937-1984)” in Intxausti, J. (ed.), *Euskal Herria. II. Errealitate eta egitismo / Realidad y proyecto*, [Oñati] / Arrasate: Jakin / Lankide Aurrezki Kutxa, 392-403.
- Iztueta, P., 1991, *Nikolas Ormaetxea “Orixe”*. *Idazlan Guztiak V: Orixe eta bere garaia*, Donostia: Etor / Eusko Jaurlaritza.
- Jacquart, D., 1991, “L'École des traducteurs” in Cardaillac, L. (ed.), 177-191.
- Jaurgain, J., 1907, “Le Nouveau Testament de Liçarrague”, *RIEV* I, 1907, 288.
- Joan Paulo II.a, Aita Santua, 1985, *Slavorum apostoli / Apóstoles de los eslavos*. (Carta Encíclica), Madrid: Ediciones Paulinas.
- Kardaberaz, A., 1761, *Eusqueraren berri onac eta ondo escripteeco, ondo iracurteco, ta ondo itzeguiteco erreglac: Cura jaun, ta escola maisu celosoai Jesus-en Compañiaco Aita Agustin Cardaberazec esqueñtzen, ta dedicatzen dieztenac*, Iruñean: Libruguille Antonio Castilla-ren echean.
- Kévorkian, R. H.; Mahé, J.-P., 1985, *Le livre Arménien à travers les âges*, Marseille: Maison Arménienne de la Jeunesse et de la Culture.
- Labayen, A. M., 1965, *Teatro Eúskaro* (2 libk.), San Sebastián: Auñamendi. [*I. Notas para una historia del arte dramático vasco*].
- Lacombe, G., 1931, “Du nouveau sur Liçarrague et ses collaborateurs”, *RIEV* 22, 1931, 363-366.

- Lafitte, P., 1972, "Zer dakigu Leizarragaz?", *Euskera* 17, 1972, 143-148.
- Lakarra, J. A. (ed.), 1992, *Manuel Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*, Andoain: Udala [etab.].
- Larramendi, M., 1983, *Sobre los Fueros de Guipúzcoa*, Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. (Telletxea Idigoras, J. I. ed.).
- Larramendi, M.: ikus Telletxea Idigoras, 1969-1990.
- Larrañaga Elorza, K., 1991, "Euskal egitate bereizgarriaren ardura eta euskararena bereziki Bergarako Erret Mintegi abertzalearen hezkuntz egitarauan", *Tantak (Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntz Aldizkaria)* 6, 1991, 65-85.
- Lasa Bergara, X., 1991, *Aita Manuel Larramendi: bizitza eta obra*, Andoain: Udala.
- Lasuen Solozabal, V. de, 1986, *Crónica de las Fiestas Eúscaras*, [Bilbo]: Caja de Ahorros Vizcaína, Temas vizcaínos 133.
- Leizarraga, J., 1990 [1571], *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria. Othoitza ecclesiasticoen forma. Catechisme. Kalendrea. ABC edo Christinoen instructionea*, Bilbo: Euskaltzaindia. [Jat. ed., 1571, *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*, Rochellan: Pierre Hautin].
- Lekuona, M., 1984, "Kardaberaztarrak (Histori-begiratu labor bat)" in *Idazlan guztiak VIII*, Tolosa: Librería Técnica de Difusión.
- Léonard, E. G., 1967, *Historia general del protestantismo* (4 libk.), Madrid: Península.
- Macek, J.; Mandrou, R., 1984, *Histoire de la Bohême. Des origines à 1918*, Paris: Fayard.
- Mangenot, E., 1912, *Dictionnaire de la Bible*, Paris: Letouzey et Ané.
- Marcos Marín, F., 1979, *Reforma y modernización del español*, Madrid: Cátedra.
- Mitxelena, K., 1960, *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid: Minotauro.
- Mitxelena, K., 1961, "Euskal-iztegigilleak XVII-XVIIIgarren mendeetan", *Euskera* 6, 1961, 7-22 [= *SHLV* I, 361-372].
- Mitxelena, K., 1965, "El diccionario vasco proyectado por la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País y la obra de José María Aizpitarte «Instrucción para la formación de un diccionario de la lengua bascongada»" in *Colección de documentos inéditos para la Historia de Guipúzcoa. VI. Fascículo especial dedicado a las conmemoraciones centenarias de la fundación de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, San Sebastián: Diputación de Guipúzcoa, 99-126.
- Mitxelena, K., 1970, *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, Bilbao: Centro de Estudios Históricos de Vizcaya, Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País.
- Mitxelena, K., 1988, *Sobre Historia de la Lengua Vasca [SHLV]* (2 libk.), Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, ASJU Gehigarriak 10. (Lakarra, J. A. ed.).
- Mitxelena, K.; Sarasola, I., 1990 [1964], *Textos arcaicos vascos*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia / EHU, ASJU Gehigarriak 11.

- Nichanian, M., 1989, *Âges et usages de la langue arménienne*, Paris: Entente.
- Niederehe, H.-J., 1987, *Alfonso X el Sabio y la lingüística de su tiempo*, Madrid: Sociedad General Española de Librería.
- Olaizola, J. M., 1993, *Historia del Protestantismo en el País Vasco*, Pamplona: Pamiela.
- Onaindia, S., 1977, *Euskal Literatura. V. 1915-1940*, Bilbao: Etor.
- Picchio, R., 1972, *La literatura rusa antigua*, Buenos Aires: Losada.
- Recarte Barriola, M. T., 1990, *Ilustración vasca y renovación educativa: la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, Salamanca / [Donostia]: Universidad Pontificia / Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.
- Reglamento para los alumnos de la Sociedad Bascongada de los Amigos del País* (II. liburukia), 1985, San Sebastián-Donostia: Sociedad Gipuzcoana de Ediciones y Publicaciones-Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea.
- Reicher, G., 1957, “Que sait-on de la vie de Bernard Dechepare”, *Gure Herria* 29, 1957, 33-49.
- Ruiz de Larrinaga, J., 1924, “Samaniego, vasco y vascófilo”, *Euskalerraren Alde* 14, 1924, 245-255.
- Sánchez Granjel, L., 1986, “Revista *Eúskara* (Una aportación a la historia vasca ochocentista)”, *Ernaroa* 3, Nov. 1986, 199-222.
- Selis, Cl., 1988, *Les Syriens orthodoxes et catholiques*, Belgique: Brepols.
- Telletxea Idigoras, J. I. (ed.), 1969-1990, *Obras del padre Manuel de Larramendi* (4 libk.), San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- Telletxea Idigoras, J. I., 1985, “Bibliografía sobre la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País” in *Extractos de las Juntas Generales celebradas por la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, T. XII, San Sebastián-Donostia: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.
- Ugalde, M., 1979² [1966], *Unamuno y el vasucence*, San Sebastián: Ediciones Vascas.
- Ugalde, M., 1988, “Biografía de Aitzol” in Ariztimuño, J. (Aitzol), *Idazlan guztiak*, Donostia: Erein.
- Unamuno, M., 1958 [1901], “Discurso en los Juegos Florales celebrados en Bilbao el día 26 de agosto de 1901” in García Blanco, M. (ed.), *Obras completas VI: La raza y la lengua*, Madrid: Afrodisio Aguado, 290-307.
- Urbistondo-Picavea, M. C., 2002, “Les Basques et le protestantisme en Basse-Navarre et en Soule entre 1563 et 1623 à travers l'étude comparative et l'analyse des Manuscrits Ms IJI387/4 et Ms 433/4 des Synodes du Béarn”, *Lapurdum* VII, 2002, 356-360. [N. B.: Ikerketa aurkezpena. Ikertzaile berak jasota ditu gaiari buruzko agiriak].
- Urkixo, J., 1907, “Introducción” in *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712)*, Paris: Paul Geuthner.

- Urkixo, J., 1933, "Introducción a nuestra edición del *Linguae Vasconum Primitiae*, de Bernard Dechepare", *RIEV* 24, 1933, 660-684.
- Urrutia, Angel de, 1931, *Jauparija ta egija : txonitza / El Sacerdote y la verdad : oración sagrada*, Zornotzan: Jaungoiko-Zaleren Irarkolan.
- Veyrin, Ph., 1975⁵, *Les Basques de Labourd, de Soule et de Basse Navarre. Leur histoire et leurs traditions*, [Paris]: Arthaud.
- Villasante, L., 1961, *Historia de la Literatura Vasca*, Bilbao: Sendoa.
- Villasante, L., 1972, *Axular: mendea, gizona, liburua*, Oñati: Ed. Franciscana Aranzazu, Jakin liburu sorta, 7. Historia.
- Villasante, L. (ed.), 1976, *Gero*, Oñati: Ed. Franciscana Aranzazu, Jakin bide 3. [Jat. ed., Axular, 1643, *Guero*, Bordelen: G. Milanges].
- Vinson, J., 1983 [1891-1898], *Essai d'une bibliographie de la langue basque* (2 libk.), Bilbao: Caja de Ahorros Vizcaína.
- Vodopivec, J., 1986, *Saints Cyrille et Méthode, patrons de l'Europe*, Paris / Fribourg: Editions Saint-Paul.
- Weber, H., 1971, "«La Défense et Illustration de la langue française» et la formation de la Pléiade" in Abraham, P.; Desné, R. (ed.), I, 491-494. Xarritton: ikus Charritton.
- Zubiaur Bilbao, J. R., 1990, *Las ideas lingüísticas vascas en el siglo XVI (Zaldibia, Garibay, Poza)*, San Sebastián: Universidad de Deusto.

EUSKARAREN KONTZIENTZIA ETA ESKEA, XVI-XIX. MENDEETAN*

I. Errenazimentuko egokiera

Euskal idazleak —euskaraz nahiz erdaraz jardun zutenak— garaiko testuiguru historikoan kokatu behar ditugu lehenik, haien lanaren eta pentsamoldeen zentzua hobeki uler dezagun. Ezinbestekoa da hori.

I.I. Latina ala herri-hizkuntzak?

Errenazimentuaz argibide kulturalak ematean, berehala suertatu ohi dira tartean orduko Humanismoa eta humanistak, eta latina zaharberritzeko haien ahaleginak gogorarazi ohi zaizkigu. Ezin ukatua: ahalegin haiei esker, latinak loraldi berria ezagutu zuen Pizkundeko argitalpenetan. Kultura idatzi berriaren (berria, Erdi Aroarekin eten eta mundu klasikoraino jauzi egin zuen neurrian) kultur hizkuntza bilakatu zen berriro ere latina. Baina mugimendu latinazale hau ez zen gizartean, ezta humanisten artean ere, ahobatekoa izan. Eztabaida bat izan zen tartean, eta latza, gainera: azkenik, korronte hau ito eta hiltzerainokoa.

Hizkuntza herritarrei, edo hobeki esateko, batez ere monarkia handiek berentzat hartutako mintzaira herritarrei kultur zereginetan eman behar zitzairen lekua zen eztabaidatua.

Pizkundeko literatura latinoak garrantzizko lana egin zuen, lehenengo goragotik zetorren tradizio klasiko indarberritu baten ildotik, noski, baina gero

* Izenburua zerbait aldatu diogun idazlan hau, Lankide Aurrezkiak kaleratuta, irakurlego zabalarentzako argitalpen entziklopediko batean eman zen lehenengo: "Hizkuntzaren kontzientzia eta eskea, historian" in Intxausti, J. (ed.), 1985, *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo*. Arrasate/Arantzazu: Lankide Aurrezkiak/Jakin. 365-386. Testuak bere jatorrian zituen aipu-erreferentziak ezin izan dira jaso hemen, lehen argitaraldian ematerik ez zegoelako eta geroztik teknologia berrien sare zaharkituetan galdu direlako. Bego horretan, beraz.

baiza Europan zehar sumatzen zen eskeari erantzunez ere. Garaiko latinezko literaturak bazuen bere irakurleko seguru bat. Latinaren itzala eta baliagarritasuna handiak ziren, artean. Printze eta hiriek beharrezkoak zituzten latinazale onak. Herri-hizkuntzen ondoan bestelako gaitasunak zituen, gainera, latinak. Bestalde, tokian tokiko intelektualak gutxi baziren ere, Europa osoan, muga guztien gainetik, lagunarte nahiko zabala osatzen zuten; horrela literatura latino berrituak nazioarteko irakurleko leiala zuen herrietan zehar. XVI. mendearen hasieran askorentzat ez zegoen batere garbi hizkuntza herritarrek zein abantaila hoberik ekar zezaketen.

Latina utziz, hizkuntza herritarrentzat betekizun berriak irabaztea ez zen bat-bateko aldakuntza izan, arian-arian eta apurka-apurka mendeetan zehar egin zen aldakuntza baizik. Italiak hartu zien aurrea, Erdi Aro Berantiarretik hasita, gainerako nazioei, Dante, Boccaccio eta Petrarbarekin. Hirietako burgesia goiztiar batek zerikusi nabaria izan zuen prozesuan. Baina Aro Modernoaren atarian, Monarkia *nazional* handiek hartu zuten gidaritzza eta, horregatik 1500-1520. urteetan egingarri eta modernotzat jo zitezkeen literatura nazionalak eraikitzeke asmoa. Hurrengo pausoa, zera izan zen: literatura latinoaren eta nazionalen artean nagusitasuna zeini zegokion eztabaidatzea.

Humanisten latinak, Europa modernoaren ideiak eta sentimenduak adierazteko hizkuntz tresna onartua izatera iristeko inoiz ahalbide hurbilik izan baldin bazuen, 1520-1560ko hamarkadetan galdu zen latinazaleen itxaropen hori, eztabaida teoriko garratzen, erabaki kultural praktikoko askoren eta egitasmo politiko zenbaiten ondoren.

1.2. Gramatikari eta apologistak

Garaipen honi oinarriak bi aldetatik eraiki zitzaizkion: alde batetik, hizkuntzalarien lana egin zen, eta bestetik –beti ez bada ere–, aginte politikoaren onarpena eta laguntza eskaini ziren.

Gramatikarien lana gaitza izan zen. Aipa ditzagun, beren datak ere aintzakitatzat hartuz, batzuetan aldi berean latinazale ere baziren Pizkundeko hizkuntza arautzaile haiek.

Guztien aurretik Antonio de Nebrija dator, beronek eman baitzuen hizkuntza erromantze baten lehenengo gramatika: *Gramática Castellana* (1492). Obra honek Erregina Katolikoari zuzendutako hitzaurrea du, funtsezko zenbait ideia politiko ere azalduz. Koroaren interesei hurbiletik jarraituz zitzaien Nebrija (H. Del Pulgar-en *Crónica de los Reyes Católicos* latinez ematen ere saiatu zen, adibidez).

Italieraren gramatika eman dezakegu, Nebrijarenaren ondoren: Pietro Bembo-k eratu zuen beste erromantze honen gramatika (*Prose della volgar lingua*, 1525), argitaratu baino zenbait urte lehenago idatzia. Garaiko Gorte eta Aita Santuekin harreman oneko gizona zen Bembo. Veneziaak, bere historia idazteko mandatu eman zion (1487-1513). Nebrijarengan bezala honengan ere, Historia, Hizkuntzalaritza eta Politika elkartuta ageri zaizkigu, beraz. Frantsesak ere laster izan zituen, idatzita, bere arauak: 1530ean eman zen argitara Palsgrave-ren *L'Esclaircissement de la Langue Française*, eta sei urte geroago eskaini zion Oliveira-k portugesarari bere gramatika (*Grammatica da lingoagem portuguesa*, 1536).

Gramatikak premiazkoak ziren orduan ez *corpusari* erabilpen praktikoa segurtatzeko bakarrik, baita hizkuntzari bere *noblezia* oinarritzen zion arautasuna eratzeke ere. Nobletasun arautuaren ikuspegi hori Villalón-ek honela azaldu zuen:

Pensando muchas vezes en el valor, elegancia y perfeçion de la lengua castellana: y andando buscar su inuentor por le tener en aquella estima y veneraçion que merece el autor de tanto bien. Todos cuantos hazen cuenta de las lenguas y de su auctoridad dicen, que la perfeçion y el valor dela lengua se deve tomar y deducir de poder ser reducida a arte. Y por esto dicen todos, que las lenguas Hebrea, Griega y Latina son de mas perfeçion.

Baina ez zen gramatiketan agortu Pizkundeko herri-hizkuntzazaleen lana: *apologista* deituak ere saiatu ziren jendearen eta agintarien iritziak alde jartzen. Gaztelaniak, frantsesak edo italierak beren defendatzaile teoriko suharrak dituzte, eta berauen testu-antologiak ere bildu izan dira. Gaztelania, adibidez, XIII. mendetik Alfontso Jakitunarekin hasita, zenbait eginkizun kulturaletan sartuta zegoen baina Pizkundeko lurralde-monarkia handiak eraikitzean (Espainia, Frantzia, Ingalaterra), arrunt premiazko sumatu zen, nonbait, Koroaren hizkuntzari babes teoriko landuago bat eman beharra, bai latinari nagusi zekion, baita gainerako Monarkien hizkuntza *nazionalen* artean norberak berea gailentzen lagundu eta Monarkia barneko beste hizkuntza (edo dialekto) herri-tarretatik *jauntasun* hobez bereizteko ere.

Gure inguruko erdara nagusien aldeko apologista baten edo besteren izenak gogora genitzake hemen, besterik ezean, euskarak izandakoak ere ez zirela, nonbait, hain *rara avis* izan, jakin dezagun. Juan de Valdés-ek *Dialogo de la Lengua* (1536) idatzi zuen, eta 1558koa da C. de Villalón-ek *Gramática Castellana* deitua. Ambrosio de Morales-ek (1513-1591) *Discurso de la Lengua Castellana* utzi zigun gaztelaniaren defentsan.

Frantsesari ere ez zitzaizkion falta izan bere defendatzaileak: Joachim du Bellay-k (1535-1560) *Deffence et Illustration de la Langue François* atera zuen kalera 1549ko apirilean, frantsesaren aldeko benetako manifestua. Gure Etxepareren antzera, Du Bellayk ere arazoa bertsotan emango du: “D’escribe en sa langue”, idatzi zuen, antzinatea imitatu nahirik, grekoz eta latinez ari zirenen kontra. E. Pasquier-ek (1529-1615) Erromaren historia linguistikoa gogoratu zuen frantsesaren historia argitzeko (1560) (gure artean geroago Oihernartek erabiliko dituen ideia eta aipuekin).

H. Estienne-k (1531-1598) zuzenkiago helduko dio hizkuntzaren etorkizun-arazoari, italiarren kontra frantsesa goraiapatuz (*Précidence du langage français* eta *Deuz Dialoges du nouveau langage français italianise*), grekoaren bikaintasunak dituelako (*Traité de la conformité du langage français avec le grec*).

Apologia hauek guztiek, literatura nazionalak lantzeko mentalitate-aldakuntza biziki lagundu zuten.

Ikusten du irakurleak; guztietan hoberena, nobleena, garbiena eta aberatsena norbere hizkuntza dela (batentzat gaztelania izango da, bestearentzat frantsesa) eta latinarenak ez ezik (denak baitira latinkumeak), grekoaren dohain eta abantaila guztiak ere badituela frogatzea da kontua. Hau da, kultur hizkuntza bezala ordurarte nagusi zirenen lekuan, norberarena nagusi eta erregina altxatzea. Latina eta grekoarekiko erreferentzia hori derrigorrezkoa zen, ez dugu ahantziko humanismoaren erdian gabiltzala. Honela, planteamendu modu hori humanismoak aurretik finkatuta aurkitzen da, bere arrazoibide eta erreferentzia modu behartuekin, euskotar apologistak arazoari lotzen zaizkionerako. Besteak egiten ikusi dutena egiten saiatu ziren hauek ere.

1.3. Estatuaren hizkuntza nazionalak

Pentsalari horien arabera, herri-hizkuntza hautatuari leku sozial eta politiko lehena eman behar zitzaion gizartean eta erakundeetan. Estatuaren tresna ere izan behar zuen, haren noblezia jatorrak eta erabilgarritasunak —eta *nazioak*— eskatzen zutenaren arabera. Hizkuntzaren alde soziala ongi ulertu zen Pizkundean: besteak beste, erreinua egiteko tresna bezala ikusi zen hizkuntza.

Erdal idazleetan bezala euskaldun batzuetan ere barrunda daiteke kontzientzia hori: hizkuntzen finkapen-hedapenak, konkistekin batera, ekintza politikoaren barnean doazela, alegia. Garibaik eta Henaok adibidez, gogoan dute erromatarrek inperioarekin batera latina ere lurralde eta herri berrietan nola ezarri zuten. Baina arazo honetan, Nebrijaren intuizioa da paradigmatikoa, gure artean behin eta berriz errepikatua izan bada ere, *topos* ezin baztertua dena:

Después que Vuestra Alteza [dio Erreginari] meta debajo de su yugo muchos pueblos bárbaros y naciones de peregrinas lenguas, y con el vencimiento aquellos tengan necesidad de recibir las leyes que el vencedor pone al vencido y con ellas nuestra lengua, entonces por esta arte gramatical podrán venir en conocimiento de ella. [...]. Siempre la lengua fue compañera del imperio, i de tal manera lo siguió que juntamente comen-zaron, crecieron y florecieron, i después junta fue la caída entrambos.

Amerika aurkituko den urte berean hori idatziz igarmen zolia erakusten du Nebrijak, inperio hura egiteke baitzegoen artean eta, itxura guztiz, Europako hizkuntzen mapa nahasiak ez zion berez batera lagundu behar Nebrijari, halako batasun politiko-linguistikorik aurrez ikusten.

Izan ere, Pizkundeko behatzaile arretatsu batek honela ikus zezakeen Euro-pako egoera linguistikoa: Frantzia *oc* eta *oil* hizkuntzetan (bretoiera eta euskara ere bai) banatuta zegoen, baina hainbat dialektotan sakabanatuta horiek ere; Ale-manian, Kolonian, Biblia behe-alemanez lehenengoz eman zenean (1474), fran-koieraz eta saxoiz, batera, eman behar izan zen. Herbehereetan arazoa naha-siagoa zen: Antwerpen-en (Anberes), administrazioan, nederlandera erabili ohi zen; baina Gortearakikoak frantsesez egiten ziren, eliz tribunaletan latinez, eta merkatalgoan hainbat interpreteren laguntzaz egiten zen lan (alemanez, italieraz, espainieraz...). Norvegiar gobernari eta merkatariek danieraz ziharduten. Italian, hegoaldean grekoa ere bizirik izateaz gain, tokian tokiko dialektoen arteko lehia eta horrek sortzen zituen eztabaidak amaigabeak ziren. Machiavellik berak ere ulertu zuen, bere teoria politikoan, hizkuntzen hori arazo politikoa bazela.

Horregatik, Errenazimentuko garai politiko berriek erabakiak eskatzen zi-tuzten, erabaki politikoak, hizkuntza bakoitzaren eta denen arteko betekizun sozialak definitzeko.

Behar horiei erantzunez, Espainia eta Frantziako Koroek garrantzizko era-bakiak hartuko dituzte, batzuetan legeak ere emanaz, besteetan praxi politiko baten bidez, arazo linguistikoa komeni zitzaien bideetatik eramanez. Brunot-ek, frantsesaren historialari klasikoak, gogoratu digun bezala, Luis XII.aren gandik (1498) Enrique III.aren gandin (1589), Koroa frantsesa saiatu zen, ahalegin handiagoz edo neurtuagoz, baina apenas etenik gabe, bere hizkuntzari babesa eta laguntza ematen. Bi adibide jasoko ditugu hemen: frantsesarentzat Villers-Cotterêts-eko Ordenantzak (1539); eta Karlos V.a 1536an, Aita Santuaren aurrean eta ohiko protokoloaren kontra, gaztelaniaz jardutera ausartu zeneko hura. Lehenengoaren bidez, latinak herri-hizkuntzei leku egin behar izan zien

agiri publikoetan, baina Koroaren gidaritzapean hizkuntza haiek bat bakarra izan ziren: frantsesa, edo hobeki esateko, *oil* hizkuntza. Monarkia espainiarrak, berriz, aski izan zuen zetozen uharkatik urak gidatzea: egin berri zen batasunean (1492-1512), Trastamara-tar gaztelauek agintzen zuten, Portugal galtzaila zen, eta lurralde aragoiarretako hizkuntza katalanak ez zuen, bere baitandik kanpo, Gortean eragin erabakigarriarik. Karlosek egin zuen bere hizkuntz hautapena, eta Gortea eta Ameriketako lurak —halako lurralde zabaletan, zitekeen neurrian, noski— gaztelau bilakarazi nahi izan ziren, legetan zalantzaren bat edo beste gorabehera.

I.4. Literatoen kontzientzia

Bukatu aurretik, azpimarra dezagun —apologista militante haien eta politikarien ondoan— literatur gizonen kontzientzia ere. Frai Luis Leongoa izan liteke eredu ona, gertuko erdararen baten adibiderik nahi bada: “Quiere dar categoría a la lengua materna —dio F. García—, contra los que juzgaban que sólo servía para decir las cosas sin ser o bagatelas de amores; y que las cosas graves y altas sólo podían decirse en latín”.

Eta Frai Luisek berak *De los Nombres de Cristoren* bi argitaraldi ezberdinetan heldu zion hizkuntz hautapenaren arazoari:

En lo que toca a la lengua no hay diferencia; ni son unas lenguas para decir unas cosas, sino en todas hay lugar para todas [...]. Que si, porque a nuestra lengua la llamamos *vulgar*, se imaginan que no podemos escribir en ella sino vulgar y bajamente es grandísimo error (1583).

De los dos libros pasados que publiqué para probar en ellos lo que se juzgaba de aqueste escribir, he entendido, Muy Ilustre Señor, que algunos han hablado mucho y por diferente manera; porque unos se maravillan que un teólogo, de quien, como ellos dicen, esperaban algunos grandes tratados llenos de profundas cuestiones, haya salido a la fin con un libro en romance. Otros dicen que no eran para romance las cosas que se tratan en estos libros, porque no son capaces de ellas todos los que entienden romance. Y otros hay que no los han querido leer, porque están en su lengua; y dicen que si estuvieran en latín los leyeran (1585).

Frai Luisek Bembo-ren obra aipatua irakurria zuen, eta maitea, gainera. Bembo-ren eta Frai Luisen erdi-puntuari (1545), antzeko kezken ildotik jaiotzen euskarazko Etxepareren lana.

Frai Luis ez zen bakarra, noski. Gaztelaniara soilik mugatzeko, ezaguna da Cervantesena. Caballero del Verde Gabán hark On Kixoteri bere familiarteko tristurak kontatu zizkionean (seme bat zeukan: “será de edad de diez y ocho años: los seis ha estado en Salamanca, aprendiendo las lenguas latina y griega [...] que de los modernos romancistas no hace mucha cuenta”), Mantxakoak zer erantzun zion:

Y a lo que decís señor, que vuestro hijo no estima mucho la poesía de romances, doyme a entender que no anda muy acertado en ello, y la razón es esta: el grande Homero no escribió en latín porque era griego, y Virgilio no escribió en griego porque era latino. En resolución, todos los poetas antiguos escribieron en la lengua que mamaron en la leche, y no fueron a buscar las extranjeras para declarar la alteza de sus conceptos; y siendo esto así, razón sería se extendiese esta costumbre por todas las naciones, y que no se desestimase al poeta alemán porque escribe en su lengua, ni al castellano, ni aún al vizcaíno que escriben en la suya. (*Quijote* II, I6).

Irizpide horri jarraiki, ez zen falta izan latinetik gaztelaniara iragandako idazle euskotarririk; esate baterako, Frai Diego Lizarrakoa ez da horren adibide txarra.

2. Pizkunde eta Erreformaren ildotik

Hiru gertakari historikok izan zuten muntarik nagusia, XVI-XVII. mendeetan, hizkuntz kontzientzia iratzarri eta literatura berriak garatzeko: lurralde-monarkia handien Estatu-politikak, Errenazimentuko zenbait humanistaren ahaleginak eta Erreforma-Kontrarreformen lanek.

Lehenengo hartaz eta bigarrenaz esan dugu zerbait, azkenekoaz falta zaigu aipuren bat egitea. Goazen, bada, hau dena Euskal Herrian arakatzera.

2.1. Etxepare, lehena eta argiena (1545)

Bernat Etxeparek 1545. urtean eman zuen argitara bere *Linguae Vasconum Primitiae*, euskarazko lehen liburu inprimatua, baina izenburua, arrotzentzako erronka bat bezala, latinez zuena. Letra ederren plazara honela atera nahi izan zuen Eiharalarreko erretoreak euskaldunon hizkuntza. Jakina denez, jainkoz-

ko amodioa eta profanoa zituen gaitzat olerki-bilduma hark, baina hizkuntzaren errebindikazioak aparteko lekua du Etxepareren obran. Nabaria da, oso ohartuki idatzi zituela autoreak, liburuaren azkenburu bezala, “Kontrapas” eta “Sautrela”, bildumako I4. eta I5. olerkiak.

Etxepare bere testuinguru historikoan ari da: gainerako hizkuntzak aurrera egiten ikusten ditu, aukera berriak dituzte haiek, baina geurea da atzera geratzen ari dena. Gutxietsia eta mespretxatua da, gainera (*estimatze gutitan*, “Kontrapas” I5). Egin duen lanarekin, itzal eta errespetagarritasun hobea irabazi nahi zion Etxeparek, erdaldunen iritziak zein ustelak ziren erakutsiz: “Berze jendek uste zuten / ezin skriba zaiteien; orai dute phorogatu / enganatu zirela” (“Kontrapas” 8-II).

Eta modernotasun nabaria du, gainera, lumagizon honek: inprimatzea Europan barreiatzen ari den garaian, kultura idatziaren hedapen-indarra euskararen zerbitzuan jarri nahi du: “Oraidano egon bahiz / inprimitu bagerik / hi engoitik ebiliren / mundu guzietarik”, dio Etxeparek (“Kontrapas” 30-33).

Beste herrietan entzungarri ez den euskal hizkuntza irakurgarria izanen da munduan, gainerako mintzairen parean jarrita: “Heuskara / eceyn ere lengoageric / ez francesa ez berceric / oray ezta erideyten / heuskararen pareric” (“Kontrapas”).

Euskaldun kikilduei, beren hizkuntza kontzientzia aldatu egin nahi die olerkariak, euskararen estimu berri bat piztuz: “Baskoak orok preziatzen, / heuskara ez iakin harren; orok ikhasiren dute / orai zer den heuskara. / Heuskara” (“Kontrapas” 25-29). Egin berri duen liburua, bada, irakurlearentzat olerki-bilduma gozagarri bat izateaz aparte, autorearen asmoz, tresna sozial bat ere bada, nekazari eta herritar apalen mintzairak *ohoria orotan* izan dezan eta behin eta berriz eskatzen duen publikotasun errespetatuaz jantzi dadin: “ihalgi adi plazara, habil mundu guzira”.

Euskaldunek munduan zehar irabazitako herri-izen onaren itzala, hizkuntzari ere irabazi nahi zion Etxeparek. Ondoko mendeetako eztabaidetan alde aurretik parte hartu nahi duela ematen du. Euskaldun estimatuek hizkuntza *erdeinatua* zutela ikusi du, eta behar *duian thormuia* (= ospea) eman nahi dio, eta hizkuntza ez idatziaren gabezietatik askatu: “berze oro burlatzen” baitzen, “orain dute ikhasiren nola gauza hona den” (“Sautrela” 7, 9).

Handikien talde sozialek hizkuntzaz berehala izango duten arduraz itxaropentsu agertzen da olerkaria: “Prinze eta iaun handiek orok haren galdia” egingo dute. Argi dago: Etxepare oso harro zegoen burututako lan hasikin horrekin, eta zinez sinetsia horrela hizkuntzari ematen zizkion duintasun eta gaitasun berriez, baina urrunegi zihoan agian bere itxaropenetan, printzeen ikasteko de-

sira haiek aipatzean (“Sautrela” I3). Zein zentzutan ikusten ote zuen komenigarri edo premiazko Etxeparek printzeen edo agintarien laguntza? Olerki llabur hauek ez gaitzakete hori argitzeraino eraman, baina ikustekoa da nola indar sozial nagusien aipu hori ere ez den falta gure lehenengo olerkari honengan.

Etxepareren lana batez ere etorkizunari begira egindakoa da, obra hobek burutzera egiten duen deia, geroa benetan bestelakoa izan daitekeelakoan: “Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruia, / ezi (= zeren) haien lengoajia izanen da floria” (“Sautrela” I0-II). Garaiko jaun jakitunei ere aurre egiten die kritikak: “Zeren baskoak baitira abil, animos eta jentil, eta hetan izan baita, eta baita, zientzia guztietan letratu handirik, miraz nago, iauna, nola batere ezten asaiatu bere lengoaje propioaren faboretan heuskaraz zer bait obra egitera eta skributan imeitera” (Hitzaurre-eskaintzan). Etxeparerentzat, euskara ez baita solas egin, plazer hartu eta denbora igarotzeko bakarrik, aitzitik baita dotrina jasoa emateko (hau da, kultur lanetan jardun) eta otoitz egiteko ere (hots, erlijio-eginkizun nobleetarako). Betekizun sozial jasoago hauek ere gogoan ditu olerkariak bere hitzaurre-eskaintza Erregeren abokatu Bernard Lehete-ri idaztean.

Hizkuntzaren alde sozial hauetaz ohartuki jarri zen lanera, bada, gure idazle guztietatik lehenengoa dugun Bernat Etxeparekoa. Ez da suertez suertatu, beraz, XX. mendeko kantariek hizkuntzaren eskubideak aldarrikatzeko haren hitzez baliatzea.

2.2. Protestantismoaren aukera: Leizarraga

Etxeparek handikiengandik nahi zuen babesa, moduren batean, 1545ean, segur aski hark espero ez zezakeen bideetatik sortu zitzaion euskarari: Errenazimentuzkoaz gain, XVI. mendean Erreforma protestanteak herri-hizkuntzekiko ardura berri bat sortu zuen, Protestantismoa Hitzaren Erreforma baitzen batez ere: herritar fededunen eskuetan Hitza era ulergarrian jarri nahi zuen Erreformak, lau menderen atzerapenarekin Eliza Katolikoak XX.ean egin duen gauza bera alegia.

2.2.1. *Erreformaren egitaraua*

Erreformaren asmo hau nolako arretaz zaindu zen jakiteko aski da Bibliaren itzulpenen eta Liturgiako liburu berrien –herri-hizkuntzetan emandakoen– datak gogoratzea: Luther-ek 1522-1534. urteetan egin zuen bere itzulpen biblikoa alemanera; laster datoz beste hizkuntzetan ere, sarritan lehenengo Testamendu Berria, eta handik urte batzuetara Zaharra ere bai: Petri-k suedieraz (TB 1526, osorik 1541), Estienne-k frantsesez (1528), Pedersen-ek danieraz (TB 1529,

osorik 1550), Gottskálkssonek islandieraz (TB 1540, osorik 1584), Agricola-k suomieraz (TB 1543), etab. Irakurgai bibliko hauen ondoan otoitz-liburuak dauzkagu (eta ez da pentsatu behar elizetako irakurgaiak bakarrik zirenik, aitzitik familiarteko arruntenak izaten ziren askotan): adibidez, hizkuntza ingelesaren ohiturazko irakur-balio sozialari gorputz ematen sekulako eragina izan zuen otoitz-liburu ofizialak (*The Book of Common Prayer*, 1559); orobat aipa genitzake Luther-en liturgia lanak (Meza alemana, kantuak). Kantutegi, prediku-liburu, dotrina-liburu eta katiximek Erreforma zabaltzen eta herrien hizkuntzak noletzen inoizko lana egin zuten.

XVI. mendean, intolerantziaren gizaldi hartan, agintariak erabaki ohi zituzten mendekoen erlijio eta fedea. Eta, horretan, Euskal Herria ez zen salbuespena. Erreformaren babeslea Nafarroako Joana Erregina gertatu zen eta hasieratik bertatik egin ziren predikuak euskaraz: 1556an ezagutzen da *artzain* euskaldun bat, Euskal Herritik kanpo bada ere. 1564etik aitzina ez da faltako artzain higanotik hemen bertan, batzuk, itxuraz, Geneva-ko ikastetxeetatik pasatakoak. Hauetako gehienak apez-ohiak ziren. Nafarroa Beherean eta Zuberoan zuten egoitza, batez ere. Euskaraz jardutea ezinbestekoa zenez, Joanak –horretan ere usadio kalbinistek jarraiki– hizkuntzaren arazo hau gogoan hartuko zuen mugimendu berriaren ideiak zabaltzeko, baina baita zenbait administrazio-erabaki hartzeko ere. Felipe II.aren enbaxadoreak, hain zuzen, Iparraldean euskaraz hainbat liburu higanot ere badela esaten du isilpeko bere txostenetan. Egia esan, ez dakigu enbaxadorearen berri hau zuzena denentz, galdurik izango liratekeen horien albisterik ez baitugu geroztik. Dena den, ezingo da hipotesia ahantzi, Joanarentzat Erreformak balio erlijiosoa ez ezik, politikoa bazuen.

Jokabide orokor horren barnean jarri behar dira, Erreginaren hileta-ohoretan (1572) halako laudorio handiz aipatzen diren Joanes Leizarragaren lanak: Testamentu Berria, katixima eta “Genevako elizan usadiozkoak diren otoitzak”. Idazlan hauek guztiek –hemen bereziki interesatzen zaigun zentzuan ere– balio berri bat erakusten dute: ez dute jaun bakar baten erabakia azaltzen, aginte politikoak zuen plangintza zabalago baten karga dute. Leizarragak berak aitortzen digu zein lagunarte babeslea zuen inguruan: Nafarroa Behereko noblezia erreformazalea, hain zuzen ere (Gramont, Beltzuntze, Meharin...). Alferrikako *futuribiliatan* erori gabe, halako mugimendu batek, garatuz gero, bere baitandik eta bere eraginez zer ekar zezakeen iradokitzen digu horrek: bazirudien, bide hartatik erakunde publikoek beren eskuetan har zezaketela hizkuntzaren gidaritza sozial modernoa.

2.2.2. Joanes Leizarraga (1571)

Joanes Leizarragaren (1520/1530-1601) idazlan denak urte berean eman ziren argitara 1571n, Arroxela hiri higanotean: *Jesus Christ Gure Iaunaren Testamendu Berria* dio izenburuan liburuak, eta barnean dauzka beste hauek ere: *Othoitza, Catechisimea, Kalendrerera, ABC, edo Christinoen Instructionea*. Testamentuak ia seiehun orrialde dauzka. Bizpahiru urtetako lanaren fruitua zen dena (1565-1566?), eta Erreginak eta eliz kontseiluak egin zituzten argitalpenaren ordainketak (120 ezkutu inprimaketarako, 50 Leizarragari berari). Babes sozial bat izan zuten beraz, lan hauek, berehala praxi sozial bat betetzeko pentsatuak, horretarako mandatuz eginak baitziren. Hauetan, bada, Etxepareren lanean ez dagoen betekizun praktikoa topatzen dugu: gizarte-mota eta programa militante baterako tresna da Leizarragaren obra, une historiko hartan Europako beste hainbat herritan Erreformak egin zituen lanen antzekoa.

Etxeparek bezalatsu, Leizarragak ere, bere lana burutzean, hizkuntzak oraindik dituen traba eta ezinak aitortuta, euskararen funtsezko gaitasunak azpimarratzen ditu: “Alabaina segur izanez ezen Heuskaldunak bertze nazione guzien artean ez garela hain basa, non gure lengoajez ezin ezagut eta lauda dezagun gure Iainko Iaina”. Leizarragari gehien ardura zitzaion betebeharrak horretarako gai zen euskara.

Horretarako eman du idazleak bere ahalegina, baina badu Leizarragak beste xede praktikoa berri bat ere: Bibliaren itzulpenarekin batera bere *ABCa* eskaintzen baitigu. Jainkoaren Hitza fededunen eskuetan jartzeko ez zen aski Haren itzulpena ematea, irakurlegaiak (haur euskaldunak alegia) irakurketarako trebatu egin behar ziren. Idazlearen hitzekin esateko, “Bertze nazione guziek, zeinek bere lengoajeaz bezala, Heuskaldunak ere berean duentzat, zertan irakurtzen ikas ahal dezan” eskaintzen du ikasliburu hau.

Hau da, asmoa bi puntutara bilduz: 1) Herriaren mintzaira hor dago eta Hitzaren hedabide bezala ontzat eta baliagarritzat ematen da, 2) baina, aurreko belaunaldietatik hizkuntzak eta hiztunek dakarten atzerapenari gaina hartzeko, erreformatzaileak, hasieratik bertatik, bere bizkar hartzen du *instrukzionearen* egitekua, “Heuskal Herrian gatzetasunaren irakasteko kargua dutener, eta goitiko guzier” irakas-liburu didaktiko hau sortuz. Zalantzarik gabe, Etxeparegandik hona funtsezko beste pauso bat eman da: 1545ean bazirudien hizkuntza idatzia lortuz gero gainerako mintzairaren pareko duintasun eta ohorea zituela euskarak, salbu zela eta mundura irteteko gai. Leizarragak ez du baikortasun bera, eta mintzatzaileen irakurgaitasunaz arduratzen da, hizkuntzaren arazo soziopedagogikoaz kezkatzen.

Etxeberri Sarakoari edo Aita Kardaberazi aurrea hartu zien, hortaz, Beskoitzeko Leizarragak. Leizarraga, erabat ez, baina aski bakarrik geratu zen buru-

tutako lanaren ondoren; ez, ordea, baliozko lana ez zelako, gizartean beste eite sozioerlijioso bateko premiak nagusitu zirelako baizik. Eta galtzaileek ez dute etorkizun onik izaten.

Erreforma-urteetan bero-bero hasitako euskalari higanoten tradizio jaio berriak, Leizarragaren ondoren, beste izenik ere eman zuen, batez ere Zuberoan: Bertran Zalgizeko, Jakes Belako eta beste Belatarrak, eta Zuberoatik kanpo, Piarrres d'Urt. Baina luzaroan, higanoten elizen etorkizun bera izan zuen haien euskal lanak ere: hain airoski ekindakoa itzali egin zen. Katolikoek hartu zioten erreleboa.

3. Bigarren jaiotza (XVII. mendean)

Lehenengo ekinaldion ondoren, antza, hutsaldi bat sumatzen da hizkuntza letretara eraman-nahi hartan: XVII. mendera arte apenas dugun katixima galduren bat edo beste, eta errefrau-bildumaren bat baizik. Tartean, guganaino heldu gabe galdu direnen albisteez ez dute balio hemen darabilgun hizkuntza kontzientzia deus argiagorik jakiteko. Hala ere, erdaraz jardun ziren batzuen izen eta obrek hutsarte honetan dute lekua: Zaldibiak (1564), Garibaik (1571) edo Pozak (1587), adibidez. Denak Hegoaldean. [N. B.: Irakurleak gomuta beza Lazarragarena topatu aurreko testua dela idazlan honetako hau].

3.1. Euskal idazleen kontzientzia hartzea

Mendea aldatzean, euskal literaturan katolikoek eskutik molde literario berriak agertzen dira: *Sarako eskola* deituak ez dio sobera zor Leizarragaren lanari. Hura higanota zen, eta harengan probetxuzko deus onik ez zuela aurkituko pentsatzen zuen, inondik ere, Kontrarreformako uhin berriak. Berehala zerbait esango den bezala, Kontrarreformaren hamarkadak dira XVI.aren azkenak eta hurrengoaren lehenengoak. Trentoko pastoral-erabakiak ezingo ditu Eliza Katolikoak berehala egintzetara eraman, baina lanerako programa bederen definitua zegoen: Bibliaren itzulpen herritarrek ez dute irtenbiderik; bai, orde, katiximek eta elizkizunetarako baliabideek. Predikua da, gainera, arima-arduradunen lehenengotariko betebeharra. Testuinguru honetan, bada, kristau-ikasbideak (Beto-laza, 1596) edo prediku-lanak emango dira argitara (Axularren lana batez ere horixe da, esate baterako).

3.1.1. *Etxeberri Ziburukoa*

Hizkuntzaren aukera berri baten aurrean gaude, bada, XVII. mendearen hasieran. Bigarrena da. Lehenengoaren eta honen artean euskararekiko hainbat teoria mitiko zabaldu da gaztelaniaz, hemengo idazleen eskutik nahiz kanpoko idazlanen bidez. Eztabaidarik ere piztu zuen horrek arazo linguistiko hauetaz kezkatuen artean. Euskararekikoan Garibaik (1571) eta Marianak (1591) izan zuten oihartzunik zabalena. Euskal idazle hamazazpigarrendarrek ezagutzen zituzten, noski, eta horregatik ere argigarriagoak dira bigarren idazle-uhin honen hizkuntza baieztapenak, Etxeberri Ziburukoarekin hasita.

Lapurdin hizkuntzaz arduratu eta berau landuz ari den gizatalde bat aurkitzen dugu mendearen hasieran: Materre, Etxeberri, Haranburu (1635), Argaingarats (1641, 1665), Voltoire eta batez ere Axular (1643).

Zerrenda horretatik bizpahiruren asmo bereziak nabarmenduko nituzke. Materreren *Buketak* (1617) eta Voltoireren *Tresorak* (1642) Leizagarraren xede pedagogikoetara garamatzate berriz ere. Materrek, erbesteko seme eta euskaldun berri idazle hark, euskaraz idazten eta irakurtzen irakasteko ere izkiriartzen duela adierazten digu, espresuki. Voltoiregan, berriz, helmuga pedagogiko hori zabalagoa da, “hirour linguaietaqua” baita honen obra; euskara, frantsesa eta gaztelania ikasten laguntzeko tresna da *Tresora*. Honela bada, ikaskizuna ez ezik, erdaretarako ikasbidea ere bada Voltoirerentzat bere liburua, edo alderantziz, erdaretatik euskararakoa. Pauso honekin, gure hizkuntzaren tresnatasun didaktikoa aitortzen da, balio pedagogiko horretan erdarekin parez pare emanez: euskaraz, euskara bera ez ezik, beste hizkuntzak ere ikas daitezke. Etxeberri Sarakoak hain zabalki landuko duen ideia bera.

Idazle-multzo honena ere ez zen bakartiaren lana izan: talde-lanak duen zabaltasuna du eta elkarreak eman dezakeen segurtasunez dihardute xede berriak bilatuz eta, elkarren hurbiltasun horretan, hizkuntza kontzientzia ekin-tzale bizia erakutsiz. Oraingoz ezagutzen ditugun datuen arabera, Leizarragaren garaian tamaina honetako idazle-talderik ez zegoen, nahiz eta itzultzaile lagunik ere izan Beskoitzeakoaren ondoan. Lapurdiko hau da, euskal literaturaren historian, hizkuntzaz ongi kontzientziaturiko lehenengo lagunarte *militantea*. Eta baieztapen honek lekuko nabarmena ere badu Etxeberri Ziburukoarengan.

1627-1636. urteetan hiru liburu eman zituen argitara Joanes Etxeberri Ziburukoak. Hauetatik bi gogoratuko ditugu hemen berezikiago: *Manual Debozionala* (1627) eta *Elizara erabiltzeko liburua* (1636). Zenbait pasarte jakingarri ditu Etxeberri bere liburuetan, gure gairako argigarriak. Lehenengo obra horretan, agintedunen eta berauen mendekoen hizkuntzekiko harreman-moldeak aipatzen ditu, bidenabar, idazleak. Baionako apezpikuari zuzentzen dion *de-*

dikazionean topatzen ditugu puntu honetaz lehenengo hitzak: apezpikuak badakizki hebreera, grekoa, latina eta erdara, eta Etxeberrik nahiko luke euskara ere jakin lezan *obraren aditzeko* (49-51); baina gogo hori apezpikuak eskakizun ausart bezala uler ez dezan, berehala dator testuan aitzakia literario zurigarria: “Alabainan guztietara ezin heda burua, / Jongoikoak berak baizen, eta adimendua” (53-54). Herri-herritarren hizkuntza ez-ofizialak ere ikasi beharrik ez zegoen artean Europako hierarkiaren buruetan (Ameriketara bestelakorik izan bazitekeen arren): Kontrarreformaren buruhaustetan bazegoen arazo larriagorik, Apezpikuek beren gotzain-egoitza gordetzearena, adibidez. Hizkuntzaren pastoral-eskakizunei buruz beherago esango da zerbait.

Euskararen aldeko arrazoiak indartzeko, erregeak ere aipatzen ditu Etxeberrik, bide batez edo; Apezpikuak euskara onberatasunez begira dezan ari da Etxeberri. Herritarren hizkuntza ikas dezala eskatzen ez bazaio ere “ondra baizen ez dukezu” eransten dio idazleak, anitz hizkuntzatako mendekoak izatea Erregerentzat ohore den bezala (69-72). *Dedikazionea* bi bertset hauekin burutzen du Etxeberrik: “Erregeak behar ditu defendatu jendeak / hizkuntza batekoak hain ungi nola berzeak”. Horra, bada, nola ematen duen hiritarraren berdintasun-lega testuinguru osoak, hitz estaliz bada ere, agian iradoki nahi duen hizkuntza-berdintasun gogoarekin batera. Liburu-eskaintza batean apenas zegoen deus nabarmenago esaterik. Jakin ere ez dakigu, Etxeberri bezalako burujantzi baten neurrikoak, beharbada bere lanak aitzindari sentituz gainera, euskarari oraindik zein leku eman gurako ziokeen kulturari eta Elizari.

Hamar urte geroago ordea (1636), autore eta mendeko-lotsarik gabe, bestek hitz egiten du Etxeberriren partez, Klaberiak alegia. Autorearen oniritziarekin, noski, bertsoan paratu du honek atarikoak, eta itxura guztiz inguruko beste idaztaldearen ahotsa izan zitekeen: Garibai erraldoiaren bizkar barre egitera iritsi zen bertso-jartzailea, hau da, garaiko euskal mito maitatuenen (tubalismo, kantabrismo, eusko-iberismoaren) arbasoari, XX. mendeko euskaltzale suharrak bezalaxe, bortizki erasoz, libururen gaiak eta egokierak eskatzen ez zion orrialdeetan bere konbentzimendua (eta agian talde osoarena ere) garbiki emanetz: “Burlatzen naiz Garibaiez / bai halaber Etxabez, / zeinak mintzatu baitire / erdaraz Euskaldunez. / Ezen zirenaz geroztik, / Euskaldunak hek biak, / Euskaraz behar zituzten / egin bere historiak” (III. liburuaren atarian). Gogoan har Garibai (1553-1599) zela oraindik Euskal Herriaren *ohorearen* eta jatorri garbiaren predikaria, eta hortik ekinda, Espainiako noblezia onenak iturburuetatik garbitzen zituen historialaria. Esan gabe doa, arrasatearra dela, Marianaren aurretik, Espainiako historia orokorra lehenengo idatzi zuena (*Compendio Historial*, 1571), eta halako obra itzalean euskarari ere laudoriozko pasarte luzeak

eskaini zizkion idazlea. Etxeberri Ziburukoaren itzalpean Klaberiak egiten duen eskea, horregatik, ausarta gertatzen da.

Esan bezala, Garibaik Espainiaren historia idatzi zuen (euskara bide batez goraiapatuz), eta gaiagatik, Espainiaz ari zelarik, gutxi-asko arrotza zen ipar-tarrentzat; Etxabe zumaiarraren lana, ostera, euskaldun guztion hizkuntzaren defentsa izanik (*Discursos de la Antigüedad de la Lengua Cántabra*, 1607), Iparraldeko irakurle eskolatuentzat etxekoa izan zitekeen, Garibairena ez bezala. Hala ere, Etxeberriren inguruko euskaltzaleentzat salakizun gertatu zen obra hau ere, euskarari buruz gaztelaniaz idatzi zuelako. Etxaberen lanak jatorrizko tatxa bat du: euskalduna zenez, euskaraz egin behar zuen bere historia. Horrela, momentuko arrazoi pragmatiko guztien kontra, printzipio bat ezartzen du Klaberiak, hiztunek gorde beharko luketen hizkuntz jokabide kulturala ororen aurretik definituz.

Etxeberrirekikoa amaitzeko gogora dezagun, gainera, haren bizitzaz ezer gutxi baldin badakigu ere, Villasantek “personaje de alta calidad, culto y humanista” bezala deskribatzen digula idazle hau: unibertsitatean doktoratua zen, eta garaikoen artean estimurik preziatuena lortu zuen. Hegi-k sarrera-bertsoetan dioena ez zegoen lausengu hutsez esana: halako lan gaitzaren ondoren (= *Manual debozionezkoa*), “Zergatik ez zara, bada, inor bekaiztu arren, / lehen seme izendatzen gure Euskal Herriaren?”.

Aurrerago baino lehen, komeniko da honezkero ohar bat egitea. 1545etik (Etxepare) 1643ra doan mendean bi jokabide ezberdin ikus genitzake Hegoaldean eta Iparraldean (geroago esan beharko da zerbait Euskal Herriko euskal eta erdal idazleen arteko aldeaz ere): Hegoaldean apologiarik ederrenak egiten ari dira idazleak (Larramendiren aurretik ezagutu ziren idazlerik *publizitarienak* ziren haiek), baina erdaraz, eta, neurri handi batean, kanporako idazten zuten. Iparraldean, aldiz, lañoki onartuta zegoen, dirudienez, hizkuntzaren bikaintasuna, beste gabe; ziurtasun horretatik aurrekoa, hizkuntza bera *obratan* jartzea zen. Etxeberri doktoreak nahiago izan zuen, jakintsuei argi berriak erdaraz eman baino, herritar xumeei euskaraz mintzatu. XX. mendetik begiratuta, ipartarren jokabide hura modernoagoa ikusten dugu gaur, erdaraz hizkuntzaren mitologia antzuki zabaltzen ibiltzea baino. Norabide bereko egitekoa hartu zuen, zer esanik ez, Axularrek ere.

3.1.2. *Pedro Agerre, “Axular” (1643)*

Gure idazle klasiko preziatuena ez zegoen ingurune honetatik urrun edo arrotz, berorren barru-barruan baizik: “euskaldunik baizen etzen” bileretan parte hartzen zuen, bere liburuko gai jasoak lagunartean erabiliz. Itxura gutziz,

jende eskolatu ikasia zen. Donibaneko beste haien garai berbereko gizasemea baita Sarako Erretorea: 1556an jaioa, mendearen hasieratik Saran zegoen eta heriotza arte iraun zuen han (1644). Oso adineko gizona hil zen, beraz.

Sarara etorri aurretik bazuen, Unibertsitate-ikasketak Salamancan (1592-1595) egin eta gero, Donibane-Lohizunen predikari onaren sona. Ongi eskolatuta zetorren gizona. Oinarri horren gainean hasi zen Axularren lana ontzen, urtez urte, pausoz pauso; baina, bururaino eramateko, alde aurretik bere gisara bakarrik baino lehen, taldean elkarrekin hartutako erabakien arabera egin zuen bere lana: “konpainia berean galdegin zen berehala, ea nori emanen zeikan liburuaren egiteko kargua”, eta Sarako Erretoreari eman zioten eginkizuna. Horrela jaio zen *Gero* idazteko asmoa, edo idatzitakoak paratzekoa: taldean.

Euskaldunei begira, euskara soilik zekitenei zuzendua da liburua bere jatorrizko asmotan: “on zatekeiela euskaraz, guztiz ere euskararik baizen etziakitenentzat, egitea”. Euskaldungoa da –euskal hiztunak bakarrik– aintzakotzat hartzen dena: hautapen hori egin zuen Donibane-Sarako idazle eta apez-taldeak, herritar euskaldunen faboretan. Egia esan, hizkuntza ttipi baten lehen urratsetan eragile direnek, betiere hizkuntzaren kontzientzia biziagoa dutelako egiten dute beren hautapen hori, eta alde honetatik ebidentzia bat azpimarratzen ari gara Axularren honetan. Hala ere, bego egiaztapen hori hemen, zeren Euskal Herrian, garai bertsuan, arestian esan bezala, ikastun anitz baitzegoen erdaraz euskal laudorioak egiten, baina euskal mintzatzaileen hizkuntzan deus gutxi idatziz.

Liburuaren lan luzeak eman dion eskarmentuaren ondoren, Axularrek ematen dizkigun gogoetak argigarri izan litezke XVII. mende hartan euskal idazle on batek hizkuntzaren inguruan izan zitzakeen zalantza eta arrangurak ezagutzeko. Lehenbiziko, euskararen literatur historia laburra gogoratzen du Axularrek: “[...] ikhusirik zein gauza guti edireiten den euskaraz eskiribaturik [...]”, eta horrek dakartzan traba eta eragozpenak.

Latinez edo beste erdaretan adina idatzi izan balitz gurean, aberatsa eta konplitua izanen litzateke euskara ere. Atzerapenaren errua, ordea, ez dago inondik ere hizkuntzan bertan: “euskaldunek berak dute falta eta ez euskarak”. Baieztapen hau garrantzizkoa da, etorkizun hobeago baterako itxaropena irekitzen baitu: hizkuntzaren baitan ez dago funtsezko ezinik, tresna horretaz egindako lanak alda lezake egoera. “Orai badirudi euskarak ahalke dela, arrotz dela, ez-tela iendartean ausart, [...] ez trebe. Zeren are bere herrikoen artean ere ez baitakite batzuek, nola eskiriba, eta ez nola irakur”.

Hala ere, euskararen duintasuna espresuki baieztatzen du Axularrek. Erdaretatik diferent da, noski, baina “ezta ez handik segitzen gaiztoagoa dela euskara”. Eta apologisten artean ere maiz esango diren garbitasuna eta aldakaiztasun

paregabea aitortuko dizkio Axularrek, aipatu berri duen euskararen hobegarritasunak eskatuko lukeen alda-beharra apur bat ahantziz: “Aitzitik badirudi ezen bertze hitzkuntza eta lengoia komun guztiak bata bertzearekin nahasiak direla. Baina euskara bere lehenbiziko hastean eta garbitasunean dagoela”. Berrezko balio hauengatik eta irakurle guztien ahaleginekin “ez lizateke euskara hain labur, eskas eta ez hertsia, nola munduak uste baitu, eta baitaduka, dela”.

Mintzatzaileok tradizio herdoildu batetik dakargun kontrapisuak kezkatzen du hala ere Axular, irakur-ohiturarik ezak eta euskalkitan banatutako hizkuntzak atzera eragin baitiezaioke euskaldunari: “Badakit halaber ezin heda naitekeiela euskarazko minzatze molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki minzaten baitira euskal herrian”. Hori, mintzatzearen aldetik, eta, orobat, euskara idatziaz: “Bada eskiribatzeaz denaz bezan batean ere ez naiz eguiteko gabe”, zeren ortografia batu eginik ez baitu Axularrek idorotzen (*chedea/gedea, ichilik/igilik*). Honetan, Leizarragak zuen kontzientzia bertsua du Urdazubiko idazleak ere: “Batbederak daki Euskal Herrian kasi etxe batetik bertzera ere mintzatzeko maneran zer diferentzia eta dibersitate den”, zioen Beskoitzeakoak bere garaian. Eta bi idazleok, bakoitzak bere idazmolde ezberdinekin noski, arazoari ohartuki bilatu nahi izan zioten irtenbide egokia. Zera dio Leizarragak: “ahalik gehiena guztiei adi eraziteari jarreiki izan gaitzaitza, eta ez xoil edozein leku jakineko lengoaje bereziri”. Ulergarritasunaren kezkarrekin, Axularrek irakurlearen bihotz onean jotzen du atea: euskara hau zurea bezalako ez dela eta, “ez, othoi, hargatik arbuia eta ez gaitz erran”. Euskalkien oztopoei aurre egiteko, orrialde-bazterrean oharrak ematera jo zuen Axularrek, irtenbide hori lagungarri praktikoa izango zelakoan; horrela irakurle “bat bederak zerbait kontentamendu duen amoreakgatik”, dio idazleak.

Bestalde, Axular ohartu zen aukeratutako gaia, bere filosofi eta teologi puntta harekin, ez zela samurra, euskaraz lantzeko, eta hark hizkuntzarentzat zuen berritasuna ere oztoparria zela airoski lan egiteko: bera baino gaiago zirenek—dio idazleak— “ezpaitute guztiarekin ere, orainokoan, hunelako materiatan, hunela ausartziarik eta eskudantziarik hartu”. Beraz, Etxeparek eta Leizarragak bere garaietan bezalatsu, Axularrek ere aitzindaritzat dauka bere burua, gaiaren aldetik bederen. Eta lanaren berritasun arriskugarri hori apalki, baina segurki, azpimarratzean, jakinaren gainean dago ezohiko gaietan sartzea bere alde duela: “haur edireiten dut nik neure alde eta fabore, zeren enseiukarrean bezala egiten diren lehenbiziko obrek eta enseiuek, zenbait huts eta falta izanagatik ere, badi-rudi ezen, zeren lehenak diren, barkhakizun direla”. Beraz, *Geroren* hitzaurrean garbi dago, geroaren hastapen bezala sentitzen zuela Axularrek bere liburua, eta gaiaren aldetik bideurratzaile ere bai.

Jaso ditzadan Erretoreak hizkera mintzatu eta idatziaz dituen kezkek. Euskalkiek hizkuntza mintzatuan nahiz idatzian sortu duten banakuntza, neurriren batean nonbait (zergatik esaten ez badu ere), zatiketa politikoaren ispilua da: “Eztitutze euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko mintzatzea ere, zeren *erresumak baititutze diferent*” eta hizkiak ere, horregatik, “*nork bere herriko edo erresumako arauaz diferentki* eskiribatzen baititutze”. Inolako ñabardurarik gabeko baieztapena da, noski, Axularren hau; baina gera bedi, hemen, ikusmolde honen lekuko bezala.

3.1.3. *Sylvain Pouvreau*

Eta, aurrera aitzin, egoki izango da hemen erdal herritik etorritako euskal idazle eta beste lapurtar haien lekuko ere izan zen Sylvain Pouvreau-ren aipua egitea. Saint-Cyran-en zerbitzaria izan zen; agian 1639an etorri zen Baionara, eta 1640-1644. urteetan Bidarteko erretore izan.

“Arrivé a Bayonne, l’abbé Pouvreau se prend d’un bel enthousiasme pour cette fière population basque dont le langage l’étonne et dont l’ignorance littéraire l’afflige. Il vient apprendre leur langue pour leur faire des livres” (Vinson, 1892). Larrayoz-en hipotesiaren arabera, Euskal Herrian orduan zeuden euskal gramatikarien bi taldeetatik batean (Oihenart-erenean, eta ez Belarenean) kokatuko litzateke Pouvreau: zoritxarrez, Erregerenean bi taldeek elkarri baimen-lorpena behaztopatu ere egin zioten, baina ez dakigu hortaz deus garbirik.

Pouvreau Euskal Herritik irten ondoren eman ziren argitara honen lanak, 1656-1665. urteetan (hauek denak espiritualitate-itzulpenak), baina hain zuzen, argitaragabeek dute guretzat interes handiena: erbesteko seme honek gramatika eta hiztegi bat prestatu zituen (hura Vinsonen eskutik irten zen kalera, 1881 eta 1892an). Harreman handiko gizona zen, apez eta laikoekin, Oihenart eta Moret tartean zituela. Kanpotar batek, hemen egonaldi hain laburra egin da, ondoko urteetan halako lana burutzeak Pouvreau-ri buruz ez ezik ezagutu zuen belaunaldi langileaz ere adieraz dezake zerbait: “Hamazazpigarren mendea agertzen da, ene ustez, Lapurdiko euskararen urrezko adin bezala” idatzi zuen Vinsonek (1910), Pouvreauren argitaratzaile euskaltzaleak, Pouvreau bera bezala kanpotarrak.

Mende hartako izen handien artean gogoratu behar da orain, leku aparte batean, Arnaut Oihenart, Euskal Herriak aurreko mendeetan eman dituen handiki eta jakintsu handienen artean euskarari bere ohorea eta lana eskaini zizkion herri-gizon prestua.

3.1.4. *Arnaut Oihenart (1638, 1657)*

Oihenart (1592-1668) ez zen elizgizona, herri-gizon politikoa baizik, legegizon eta historialaria, gainera; “bere herriaren askatasuna defendatu zuelako, kartzela jasan zuen” (E. Goihenetxe). Euskal Herriaren eta bereziki Nafarroako Erresumaren jatorrizko eskubideak erakutsi edo defendatzeko idatzi zituen Oihenartek bere latinezko eta frantsesezko obrak. 1657an argitaratu zuen bere *Atsotitzak eta Neurtitzak*, Oihenarten euskarazko argitalpena. Autorearen nortasun gorenagatik, esanahi sozial berria dauka liburu honek: klase gidarien artetik eta, historialari bezala ere, hizkuntzarekiko kontzientzia berria izan zezakeen batengandik datorrena. Garibairengandik bestelakoa ageri baitzaigu Oihenart: erabat Euskal Herriari begira egin zuen bere historia lana ere (*Notitia Utriusque Vasconiae*, 1638). Azken hogeitun urteak bereziki euskal historiari eskaini zizkion: 20.000 orrialde utzi zituen kopiatuta dokumentutan (fotokopiagailurik gabe, noski!).

Oihenart, bada, euskal historian izan dugun gizasamerik harrigarrietakoa izan da. “Oihenart-en literatur lanak humanista baten marka darama, baina baita izpiritu jakin-min batena ere, gure betidaniko hizkuntzaz hornitua, berri-ortografia bat asmatzen saiatua, neologismo-sortzailea” (E. Goihenetxe). Gure hizkuntzaz eta beronen bizi-arazoez ere arduratu zen, beraz, Oihenart. Tovar-ek gogoratzen digun bezala, berau dugu historia obra batean euskal gramatika baten lehen zirriborroa eman ziguna (ikus *Notitia Utriusque Vasconiaeren* XIV. kap). Hemen ez dagokigu haren ideia gramatikalak biltzea, baina bai hizkuntzaren kanpo-historiaz edo etorkizun sozialaz agertzen dituen ezagumenduen berri xume bat eskaintzea.

Euskararen inguruan aurreko zenbait idazlerengandik zetozen usteen aurrean begi kritikiko zorrotza erakutsi zuen Oihenartek. Kantabrismoarekin hautsi egin zuen historialari honek; alderantziz, baskoien inguruan bildu zuen euskal historia osoa: nolabait esateko, nafarra da euskal historia. Ongi ezagutzen zituen antzinako geografia eta histori iturriak, eta, haien arabera, baskoien kolonizazio bat bezala eratzen da Euskal Herria, bai gipuzkoar-bizkaitarrekin, bai Akitaniarekin. Beraz, Nafarroaz eta hemengoek *baskoitutako* lurralde eta tribuekin osatu zen mendeetan Euskal Herria. Eta euskararen barrutia, hain zuzen, eremu geografiko *baskoitua*rena da. Baina hori adieraztean ez da ari, noski, hizkuntzaren jatorrizko lehen lurraldeaz, zeren Oihenarten ustez ere, Antzinatean euskararen barruti geografikoa askoz zabalagoa izan baitzen. Bere zentzu kritikoa zorrotz, zera dio eskuartean darabilen arazo honetaz: “iragan aldietan espainiar guztien hizkuntza bat-bera izan zela defendatzen ez naiz hasiko, setati”; baina, uste duenez, Penintsulako herri menditar guztien jatorrizko hizkuntza da euskara

(baskoi, barduliar, karistiar, autrigoi, kantauriar, asturiar, galiziar eta lusitaniar herriena, alegia). Euskararen paniberismoa oso ñabartua ageri da, beraz, historialariagan, eta ez zalantzarik gabekoa. Iritzi honetara iristeko, aipu klasikoak betetako kapitulu bat eskaintzen du Oihenartek.

Baina jatorrizkotzat ematen den egoera hura arras aldatua izan da mendeak zehar, bai aipatu herri haietatik gehienek euskara galdu egin zutelako, bai geroago baskoiek ezarri zuten hizkuntz hedapen hargatik ere. Gorabehera guztiok, kausa nagusi bera izan zuten: erromatarren ahalegin politiko-armatua. Haien konkistaren zereginetako bat honela gogoratzen digu Oihenartek bere *Atsotitzak* obraren sarreran:

Mais comme les Romains, apres s'être rendus maistres de la plus grande partie de l'Espagne, s'estoient attachez à ruiner la Langue de ce Pays là, pour y planter la leur, il ne leur fut pas mal-aisé.

Inperio baten politikak hizkuntzen bizitzarekin izaten duen zerikusi zuzenaren ideia hau are bortizkiago eman zuen bere *Notitia Utriusque Vasconiae* liburuan. Hain zuzen, hizkuntzarekiko pasarteak (I. lib., XI-XIV. kap.) hortixe hasten dira: “Erromatarren araua zen, arma bidez menperatutako herriei latin hizkuntzaren erabilera ezartzea”. Hori horrela izan zela frogatuz San Agustinen hitzak dakartza Oihernartek: “Aliantza aitzakiarekin, hiri menperatzaileak herri garaituei, bere uztarria ez ezik, hizkuntza ere ezarriko ziela erabaki zen”. Eta Oihenarten beraren iruzkinak horrela dio ondoren: “Horregatik, galiarren eta espainiarren berariazko hizkuntzak desagertu egin dira erabat, erromantzeak ordezkaturata, bretoi, armorikar eta euskaldunen artean ezik, hauek gure egunetara arte gorde baitituzte berenak”. Scaliger handiaren (1556) esaldi bat jasotzen du, hain zuzen, Marianari gero zuzenean erantzunez, euskararen hizkuntza-balioa positiboki eta laudorioz erakutsiko lukeena: “Ez du deus barbaro, zakar edo zailik; guztiz antzinakoa, eta erromatarrak agertu aurretik mintzatzen zen herrialde haietan”.

Hauek dira Oihenartengan gurerako zegozkigunak. Hizkuntzen bizitzan fenomeno politiko batzuk izan duten garrantziaz ohartuta zegoen zuberotarra, nahiz eta horren nondik norakoa ez harago ezagutu. Ez zitzaion, noski, burutik pasa gertakari linguistikoaren eta bizitza politikoaren arteko harremana zehazki programatu zitekeenik, ez du bederen erromatarretan halakorik deskribatzen, edo aditzera ematen. Hala ere, Oihenarten XVII. mende hartan bertan eza-gunak ditugu aginte-erakundeek hartutako erabaki edo ezarritako hizkuntza egoera batzuk. Hortaz esango dugu orain zerbait.

3.2. Erakundeak hizkuntzen aurrean

Aro Modernoan euskarak ez zuen izan, Frantzian (1635) edo Espainian (1713) erdarek izan zuten bezalako Akademiarik. Honek zera esan nahi du, gu-txienez: Euskal Herrian halakorik sor zezaketen erakunde publikoek ez zutela hizkuntza-erakunde babesle eta gidariak sortzeko lain kontzientzia eta interesik, alde batetik, eta ondorioz, sortuz gero, Akademiak edo antzeko zerbaitek eman zezakeen laguntza eta babes ona falta izan zitzaiola euskarari.

Funtsezko datu ukakor horretatik hasita bada ere, galdetzekoa da aginteak gure herrian zituen erakundeek zer egin zuten, hizkuntza herritar ez-ofizialaren aurrean. Agintea eta agintariak —asko bederen— hurbil zeuden oraindik herritarren eguneroko hizkuntza bizitzatik. Gizartean batez ere betekizun pedagogikoren bat zutenek ezinbestean eta halabeharrez harreman mintzatu nahiz idatzia euskaldun elebakarrek konprenitzeko gisan zaindu beharra zeukaten, ulerpen hori premiazkoa zenetan. Ez da, beraz, harritzekoa, Elizak arazo hau, berak lehenik, eskutan hartzea.

3.2.1. *Eliza katolikoa*

Ikusi dugu XVI. mendean Erreforma protestanteak izan zuen oihartzuna eta eragina, euskal literaturaren lehen pausoetan; laster mantsotu zen olatu haren indarra, mugimendu hark bere oldarra galtzean. Literaturaren aldetik, katolikoek hartuko dute erreleboa euskal letretan: hierarkiaren eta apaiz xumeen beharrizan kateketiko-pastoralek gidatuko dute euskal literaturaren bigarren jaiotza hau. Elizgizon idazleen artean bilatu ditugu, beraz, hizkuntzarekiko kontzientzi aztarnak (Oihenart laikoa salbuespen eder bat baizik ez da eliztar haien artean), zituzten beste xede eta asmo pastoral aitortuen ondoan. Demagun, bada, hori esandakotzat.

3.2.1.1. *Hierarkia eta elizgizonak*

Orain ardura zaiguna zera da, Eliza ofizial hierarkikoak, bere lege eta arauetan, euskara aintzakotzat hartu zuenentz jakitea, eta hartu zuenetan hori nola izan zen argitan jartzea.

Jakina denez, Monarkia hispanikoan, Eliz Errege Zaingoak (= Patronato Real) iradokita ere bai, dozenaka gramatika idatzi eta argitara eman ziren Ameriketara, indiarren hizkuntzak ikasi eta irakasteko; aldi berean, katedrak ere sortu ziren misiolariantzat. Elizak esku zuzena eta handia izan zuen zeregin horietan, nahi bada bide batez kolonizazioari ere laguntzatxoa eskainiz.

Europako metropoletan oso bestelako burubidea suma daiteke Monarkia

handietako eliz hierarkietan. Salbuespenak salbuespen, plangintza eta obrantza boteretsu bat (gisa batean Ameriketakoaren edo Europako Erreforma garailearen parekoa) falta da, herri txikien hizkuntzak etorkizun handiko duintasun kultural bateraino jasotzeko. Hutsune horren erantzukizunak noren bizkar eman beharko genituzkeen jakitea besterik da.

Calahorrako Sinodoetan, Trento-ondoko Erreforma katolikoaren garaian, eliz bizitza berritzeko herri-hizkuntzen erabileraren arazoa ere aztertu zen. Calahorrako Sinodoetan, eman zen euskarari buruzko hainbat arau. 1602ko Konstituzio Sinodaletakoak dira ezagutzen ditugun lehenengoetakoak.

Hierarkia katolikoan bada salbuespen bat bederen hona begiramen guztiz ekarri beharko genukeena: Bertrand Etxauz artzapezpikuarena (1556-1641). Baigorriarra zen, eta Baionako gotzain izan ondoren (1599-1614) Tours-eko artzapezpiku izendatu zuten (1618-1641). Hierarki gizon honi ezohiko gorazareak egin zizkieten bi euskal idazle handik: lehenik, Etxeberri Ziburukoak bere *Elizara erabiltzeko liburuan* (1636), baina berezi-bereziki Axularrek bere “Gomendiozko karta”n. Benetan bihotzondotik egiten dio eskaintza idazle maisu honek: “Neure iaun maitea, ioan zatzaizkit lurretik, baina ez gogotik, eta ez bihotzetik” hasten da Axular. Honek obraren aitatasuna aitortzen dio hilberri den Etxauz-i, beronen mezenasgoa ezagutuz noski (“Adimendutsu zirenen laguntzaile” zela dio Villasantek): “Liburutto haur [Gero, 1643] da emazurtza. *Posthumus*. Aita hillez gero sortua. Baina zu bezalako aitaren semea, emazurtz izanagatik ere, ezin dateke gaizki” dio eskaintzak, “euskaldunen ohorea”, “kantabres fina [...]”. Bada eztuzu zuk ere zeure arrazaz ukhatu” diotsa Axularrek Etxauzi.

Eta Axularrek garaiko euskal lanak denak Etxauzekin lotzen ditu. Ziur da, gomendiozko karta hau, ohorezkoa izanik, ez dela hitzez hitz hartu behar; baina, era berean ere, segurutzat eman liteke orduko euskalgintzarekin zerikusi hurbila izan zuela, horretaz xehetasun sobera ez izan arren: “Zer ere eskiribatuko baita euskaraz, hura guztia, euskaldunen buruzagi bezala, zuri dagotzula, zuri zor zaitzula” esaten dio hildako lagunari, horrelakoak esan gabe isiltzeko ere trabarik jartzen ez dion adiskideari. Eliz hierarki gizon honek, eman zion, nonbait, funtsezko zerbait belaunaldi haren euskalgintzari.

3.2.1.2. *Erakundea*

Baina, hori garrantzizko izanda ere, banako baten lana zen oraindik Etxauzena. Horregatik, esanahitsuagoa izan zitekeen Elizak, erakunde bezala ezar zezakeen politika. Trentoren ondoren Sinodoen bidez berritu nahi izan zen elizbarrutietako bizitza; elizbarruti osoko ordezkariak biltzen zen biltzar hauetan, diozesiko arazo garrantzitsuenak arautzeko. Euskal Herria, batez ere, hiru dio-

zesitan banatuta zegoen: Baiona, Iruñea, Calahorra. Hain zuzen, azken honetan, XVIIan, hiru Sinodotako arauak ezagutzen ditugu: *Constituciones Synodales* deituok 1602an, 1621ean eta 1700ean eman ziren argitara.

Esan beharrik apenas dagoen: hizkuntza guztiek ez dute trataera berdina sinodal hauetan. Arauak erdaraz bakarrik ematen dira, eta katekesi-zereginetarako hainbat testu latinez eta gaztelaniaz dago. Euskaraz ez da horrelakorik gertatzen; baina ofizialki erakundeak –taldean bilduta– eliz lanetarako baliabide inprimatuak sortzeko erabakia hartu zuen, horretarako euskalkien berezitasunak ere gogoan izanik. Dena den, euskal katiximak, ondoan *erromantzea* dutela eman beharko dira, urtero aterako diren argitalpenetan. 1621eko Sinodaletan, predikuak ere euskaraz egin daitezzen ematen da konstituzio bat.

Euskararen egoeraz elizgizonok duten irudia ezagutzeko balio du konstituzio honek (I. Lib., L. Tit., VII. Konst.):

Porque somos informado, que en la tierra Vazcongada, y especial en algunos lugares, que en la mayor parte dellos habla Vazcuence, los predicadores por autoridad predicán en Romance, y no en Vazcuence, de lo cual se sigue grande daño, y que la gente que viene de las caserías a oyrlos, como no saben Romance, se salen en ayunos del sermón. Por lo tanto, Santa Sinodo aprobante, ordenamos y mandamos que en los tales lugares los sermones se hagan en Vazcuence, y los Curas no consientan otra cosa, so pena de que serán castigados, y lo mismo guarden los dichos Curas quando declaren el Evangelio.

Sinodo honetatik ia laurogei urte geroago Lepe gotzainak onartutako (1698) konstituzio berri bat sortzen da (1700: I. Lib., I. Tit., XI. Konst.), aurreko hamarkadetako eskarmentuak hala eskatuta, aditzera ematen denez. Urteroko katixima-argitalpenen erabakia eztabaidatua izan zen nonbait, eta berriz ere *sana* eta *saludable* irizten zaio; baina ezinezkoen batzuk ere badaude, *en quanto ser pueda* gehitzen baita orain. Euskalkien eragozpenak kezkatuta nabari da Sinodoa:

Hallamos, que no es fácil dar impresso texto, ó explicación de Doctrina christiana, que uniformemente puede servir en todas las tierras, en donde se habla este Idioma, por la mucha diferencia que ay del Vazcuence de unos lugares a otros.

Oharra interesgarria da, euskara seriooki erabili nahi izan zuen erakunde batek (Araba eta Bizkaira, eta ez hainbeste Gipuzkoara mugatua zegoen lu-

rraldean, gainera) hizkuntzaren batasun-problemarekin laster topo egin zuela erakusten baitigu. Ezberdintasun hauen kausa non dagoen ere adierazten da, dialektoen aldeak argitzeko arrazoi geografikoa erabiliz: “según la mayor, ó menor distancia que entre ellos ay, de la fuente, y origen de la lengua Vazquence”, esaten da.

Konstituzio berak, gure egunera arte luzatu zaigun beste egiteko bat ere adierazten digu: eliz hiztegi finkatu baten premia. Izan ere, zeuden katiximek jakitunen batek, tokian tokikoentzat, argibide labur batzuk prestatzeko agintzen da, horrela batasunik ezaren eragozpena gainditzearren. “Aquel uso de voces” eskualdeko arima-arduradunei azaltzea agintzen da espresuki: “Lo qual encomendaremos a personas inteligentes, y de doctrina: que sin duda alguna las ay en el Vazquence. Y hablamos de experiencia”. Badirudi, apezpikuak zenbait jenderen bestelako iritziak isilarazi nahi dituela azken eranskin horrekin.

Hurrengo konstituzioak (I. Lib., I. Tit., XII. Konst.) datu orokor bat dakar, eliz gizonen euskararen lurraldea oso edo erabat euskaldun ikusten zutela erakusten duena. (Gasteizko Sinodoan, 1885ean, baieztapen bertsua aurkituko da). Berriz ere bazegoen, nonbait, predikarien artean sermoiak gaztelaniaz egiteko ohiturarik; horri gogor erasotzen dio arauak, 1621ean esandakoa errepikatuz: “de lo que se sigue grande daño; y que la gente que viene de las caserías a oírlos, como no saben Romance, se salen ayunos del Sermon”. Honelako auzoetan predikuak euskaraz egitea agintzen da, eta, orobat, baita gaztelania ia bizilagun denek ulertzen duten *euskaldun herrietan* ere. Kasu hauetan honela jokatzeko arrazoiak, behingoz bederen, ez da batere kolonialista, euskararen alde zihona baizik: “porque guardada esta forma, todos se aprovechan de la Doctrina; y siendo el Sermon en Romance, necesariamente quedan sin entenderlo aquellos pocos o muchos que (no) lo saben”. Predikariek, bada, euskaldunak izan beharko dutela esaten da azkenik.

Zer pentsa Sinodo hauen eta eliz erakundearen jokabideaz? Euskal literaturak erakusten digunez, bere lanorduak eman zizkion elizgizon multzo batek euskarari, eta, itxura guztiz, hizkuntzaren balio kultural autonomoa ere sentituz (zentzu honetan, Etxeberri Ziburukoa emango nuke eredurik argiena bezala, eta apaiz gramatikariak ere, oro har, agian bai). Hortik aurrera, banako kasu bakoitzaren xehekiago aztertu beharko genuke, eta denetatik aurkituko litzateke segur aski: hizkuntza, pastoralaren tresna huts-huts bezala sumatzen zutenengandik hasita, arrazoi erlijiosoen gain hizkuntzaren beraren errebindikazio nolabait beregaina eskaintzen digutenenganainokoak.

Baina, hemen orain, gehiago axola zaigu eliz erakundearen beraren ikusmolde eta burubidea. Eliza katoliko latinoak hizkuntza ofizial bat izan du, latina,

gainerakoak, tokian tokiko zuhurtziaren arabera erabili ditu. Honek ondorio larri bat zekarren, gutxienez: eliz kultura jasoena eta elizgizonen hezkuntza latinez eskaintzen ziren. Apaizgo ongi eskolatuak, eta aldi berean herrian ongi txertatuak, bere aldetik landu zitzaizkeen beste apaiz laguntzako edo herri ikasiagoarentzako herri-hizkuntzazko argitalpenak. Baina erlijio-literatura hau ez zen, eskierki, hierarkiaren (apezpikuen) ardura; erakundea ez zen eragile bizia, Sinodaletan ikusi ditugunek erakusten dutenez, oso oinarritzko premietarako izan ezik (katixima, otoitzak, predikua...). Kleroan, bestalde, bazegoen XVII. mendean hizkuntzak berak zekartzen arazoez kezkatuak (argigarri da aipaturiko XII. Konstituzioa); baina esan behar da —eliza beste edozein erakunde publiko baino bide-urratzaileago izanik ere— Kontrarreformaren barruan, hemengo klero katolikoak ez zuela jokatu, beste herrialdeetan erreformatzaileek jokatu zuten bezain rol bizia. Eliz erakundeak oso etxe-barnera begira egin zuen lan, eta hor ere oso maila apaletan geratu zitzaion egindakoa. Besterik da apaizen batzuk beren gisara egindakoa.

Ohargarria baita: Hegoaldean, mende osoan zehar, 1602-1700 bitarte guztian, hainbat agindu, interes, kezka, mehatxu agertzen da Sinodoaren aldetik. Baina apaizarte xumean ez da ikusten idazle bat bakarrik ere. Idazleak Iparraldean mugitu dira denak.

Agian, hau dena Euskal Herriko kultur egoeraren ispilua baizik ez da, edota benetan kultur lan serio bat egin zezakeen elizgizonen multzoa (monje, fraide, jesulagun...) artean erbestera begiraegi izatearena. Gogoan har, Iparraldeko herri-apaizen XVIIko lanak, berez oso zailak izateaz gain, oso segida eskasa izan zuela eta Hegoaldeko literaturaren jaiotza bipila komentu-etxeetako jendea iratzartzean gertatutako dela. Euskararen garapen kulturalak ez zuen berehala aurkitu premiazkoa zen talde gidaririk, gizarte zibilak ere laguntzen ez zuenez gero.

3.2.2. *Euskal Herri-Erakundeak*

Euskal erakundeetako bizitza erdal herrietatik baldintzatua zegoen; egia da, inoiz edo bestetan agintari-izendapenentarako eduki zela gogoan, ez-ofizialki noski, euskaraz jakitea ere; baina, Oihenart Zuberoako sindiko aukeratu zuten “paysans rustiques et ignorants” (laidoak badu esanahi sozialik) haien antzeko beste euskal herritarren hizkuntzak ez zuen, eskierki, bizitza publiko nagusian (Biltzarak, Diputazioak) lekurik izan. Administrazioaren hizkuntza-ohiturak modu itxuragabea eta iraunkorrean tinko gorde ohi ziren (Nafarroa Beherean, adibidez, gaztelaniak luzaro iraun zuen, Pirinioetako muga berria ongi finkatu eta gero ere), Estatuaren aparatuak gizartearengandik aparteko pentsamolde autonomoa izan baitu.

Egoera zurrun honek aldatzera jo zuenean ere, euskararen kontra egin zuen. Erbestearekin genituen harreman ekonomiko eta politikoetan ez zegoen beste ezer itxaroterik ere, baina barneko erakundeetan ere halaxe izan zen: Bizkaiko Batzarretan, esate baterako, aski ziren kanpoko (Korrejidorea, etab.) erdaldun gutxi batzuk, denei gaztelaniaren beharrezkotasuna ezartzeko. Campiónek zera idatzi zuen Nafarroaz: “Las Cortes de Navarra y las Juntas Generales de otros Estados baskos se cuidaron a veces de extender el castellano, jamás de conservar el baskuenze”.

Eskubidearen aldetik, berriz, Monrealek dioenak egoera gogorra ispilatzen du:

Las posibilidades de derecho a este nivel [euskal erakunde zentraleri buruz ari da] eran nulas, [...] las únicas prescripciones de tipo lingüístico que se formularon fueron las que exigieron el conocimiento del castellano. [...] Así, resulta que de hecho la única lengua empleada a nivel formal fue el castellano.

Autore berarentzat, euskara babesteko legeria baten falta “se puede interpretar en el sentido de un gran desinterés por los problemas de tipo cultural”. Hizkuntzaren mitologieta halako gozamina zuen gure klase gidariak, ez zuen erakundeetan Elizak berean hainbateko ardura mugaturik ere erakutsi, XVI-XVII. mendeetan.

Okerrago oraindik: gaztelaniaren aldeko zama bizkarreratu zitzaion gure herri euskaldunari. Bizkaiko Batzarretan, urte gutxitan hiru aldiz baldintza bera ezarri zen (1613, 1618, 1620): herrietako ordezkari batzar-lagunek, “para que mejor se gobierne la republica”, erromantzez irakurri eta idazten jakin beharra zeukatela. Gainera, agiri publikoetan Erdi Arotik zetorren erdal tradizio osoak berresten zuen mentalitate ofizial hori (G. Monreal). Egoera soziolinguistikoak ezinbestean inposatuta ematen du Foruak interpreteren baten irtenbidea erdaldun hutsak diren errege ofizialen faboretan (Forua: IX. tit., 2. leg.). Batzarretarako hiru baldintza pertsonal eskas inposatzen zitzaizkien ordezkariak Gipuzkoan (1529), eta horietatik bat linguistikoa: gaztelania ezagutu behar zuen ordezkariak (jatorriz gipuzkoarra eta ondasunez *milarista* izateaz gain).

Arau orokorrak ez ezik, unean uneko erabaki betearazleak ere hartzen dira. Bizkaian 1624ean hamaika herritako ordezkariak ez zekiten aski gaztelaniarik eta korrejidoreak ez zituen Batzarretarako onartu, herriek handik bi egunetara ordezkari berriak bidal zituztela erabakiz. Halako arau eta honelako erabakiek herrian zenbaterainoko arbuioa izan zuten ez dakigu zuzenean, baina herritarren

artean desadostasunen bat bazegoela segurua da, ondoko urteetako matxinadan (1631-1634) euskararekiko burubide hori matxinatu batzuek gaitzetsi egiten baitute. Arazoak bazuen, nonbait, hamarkada haietako gatazka sozialekin ere zerikusirik:

La masa de vascohablantes, esto es la mayoría, quedaba apartada, discriminación tanto más dura cuanto que no bastaba con entender y expresarse en romance, sino saber escribirlo, medida por sí sola brutal incluso para un labriego castellano de la época (Fdez. Pinedo).

Ordezkaritza politikoa klase sozial aberatsei pasatzeko modu bat ere baziren, beraz, arau linguistiko haiek: talde nagusien mentalitatearen ispilu, esan nahi da.

Hizkuntza gatazka-une hauek behin eta berriz ozpindu ziren mendearen azkenera arte (1638, 1652, 1689) eta baita hurrengoan ere, dakigunez, nahiz eta 1624 edo 1631ko Batzarretako hertsikeriara ez iritsi. Euskal erakundeen zabarkeria honek ez zezakeen euskarazko kultura ezer bultza, eta itsumen zital horren zuloan hainbat ahalegin estimagarri galdu zen.

Adibidetzat aipa litezke batzuk: Gipuzkoan 200 dukat ukatu zituen Juntak katixima baten argiralpenerako (1609); Nafarroan (1662), gaztelaniarentzat eskatzen zena hiritar batek euskararentzat ere eskatu zuenean (“se establezca [...] que en los Tribunales de dichos lugares donde hasta ahora se habla [vascuence], se escriba y hable en vascuence...”), ez zuen erantzunik ere jaso; eta Nafarroa Behereko Estatuaren ukazio edo axolagabekeriari esker galdu zen azkenik (1675-1676) Bidegarai-k hogeitun urtetan buruturako hiztegia. Belaunaldi bat geroago, berehala aipatu behar dugun Etxeberri Sarakoak ere izango zuen Lapurdiko Biltzarreaz, antzeko zerbaitegatik, zer sala.

4. Hegoaldea ere hizkuntzaren bila (1700-1839)

Aurreko bi mendeetako Iparraldeko lanen ondoren, eta han ahulaldi bat sumatzen den unean, Hegoaldean talde-mugimendu berria sortzen da, adoretsua, ausarta, arnasa handikoa. Buru argiak, eta sozialki ere boteretsuagoak izango dira mugimendu horren gidariak. Euskararen arazoa ahots ozenez iritsiko da, gainera, kultur mundura ez ezik, baita erakundeen bihotzetara ere. Hizkuntzaren protesta gehienetan janzkera zaharrez jantzia, egia da, ez da batere lotsati agertuko, eskuetan zerbaitek baliozko daramanaren atrebentziarekin baizik.

Hizkuntza ez-ofiziala izan eta eginkizun kulturaletatik, osorik edo gehienbat baztertuta dagoen hizkuntzaren aurrean (hauxe zen XVIIIaren hasieran ere euskararen egoera), idazlegaiaren lehenengo erabakia hizkuntzen artean ohar-tuki aukera egitea da. Mende honetan, hautapen horretara bultzatzeko arrazoi berriak formulatzen dira euskal gizartean. Egia da, ikusi dugunez, Etxepare eta berorren ondoko euskal idazleengan egon zela aipatu arazoaz gogoetarik, eta haiek ere jakinaren gainean eman zutela beren hautapen pausoa; baina XVIIIko idazleen artean, gidaritza tartean dela, berformulatuak eta onduak ageri zaizki-gu hizkuntz aukera horretarako arrazoi teoriko eta praktikoak.

Une historiko hartako hizkuntz kontzientzia honela definitu du Lasagabasterrek:

La conciencia de la lengua que funciona como estímulo y justificación primera de la tarea de escribir en euskara se hace más refleja, se sistematiza y expresa en obras lingüísticas —gramáticas, diccionarios, apologías de la lengua—, explicitando progresivamente posibilidades y necesidades a un tiempo en el terreno de la actividad cultural e incluso en la creación literaria.

Hizkuntzagintza kulturala izan zela esango genuke: mintzairak bere baitan dituen baliabideen ezagumendua eratu eta berorien birsorkuntza kulturala, be-launaldi haien eginkizun nagusi bezala agertzen zaigu. Hegoaldean asmo hau erabat berria zen (Iparraldean egindakoak motza zirudien, bestalde): idazten hasi baino lehen, idatzarauak definitu nahi izan ziren, gramatika eta hiztegia sortuz. Lan luze baterako asmoari zutabe ongi landuak jarri zitzaizkion.

Aurreko mendeetako hizkuntza apologiek ez dute oraindik indarririk gal-du (batzuetan egindako aurrerapenak ere —Oihenarten histori lana gogoratuko genuke— aintzakotzat hartu gabe, gainera); baina apologisten ideia eta mitoe-k bestelako aplikazio-puntua izan zuten, hizkuntzaren bizitzan bertan, ohiko *jato-rrri-garbitasunaren* frogantza sozialetan asmo eta xede guztiak ito gabe. Hizkuntza-ren jatortasunak ere bide batez erakusten ziren bitartean, erabilera soziokultural berrietarako deskribatu eta sistematizatzen zen euskara.

Eta, bigarren urrats gisa, deskribapen sistematiko haietan bere gaitasuna erakutsitako hizkuntzak, lan burutuetan frogatu behar zuen trebakuntza hura: hau da, gramatiketatik idazlanetara pasa behar zuen euskarak, horretarako bo-rondatea eta lumagizon iaioak inguratuz. Ideia haiek idazlegaien zenbait behar-rrizan sozialekin elkartzean gertatu zen egingarria XVIII. mendeko euskal lana.

Apologieta herentzia jaso, eta zabaldu, baizik egiten ez bada ere, hizkuntzaren ezaupidean aurrerapauso erraldoia ematen da, eta hizkuntza idatzi argitaratuan orobat. Apologiak egin, baina baita gramatikak ere, eta euskarazko liburuak sortu halaber.

1700-1839 arteko ia mende eta erdian, pentsa daitekeenez, molde ezberdinetako idazleak izan genituen. Badago hor zer aukera: Etxeberri Sarakoa, Larramendi, Kardaberaz, Mendiburu, Ubillos, Astarloatarrak, Mogel... orduan lan egin eta argitaratu zutenak, baina batzuk askoz geroago kaleratuak, euskaraz bakarrik jardundakoak, entzute handiko apologien idazleak edo euskaraz gela isilean apalki saiatuak, bata eta bestea egin zutenak... Denetatik, nagusitxoena eta euskaraz lan egin zutenak ekarriko ditugu hona, gainerakoen erreferentzia laburren bat, premiazko denean, tartekatuz.

4.I. Etxeberri Sarakoa, mendearen atarian

Nortasun ongi bereziko gizona dugu euskal letretan Etxeberri Sarakoa (1668-1749): Iparraldeko semea, Hegoaldean eman zituen urterik helduenak (1716-1749). Oihenart bezala, laikoa zen, baina herritar ongi eskolatua, doktore medikua; 1720 ingururako idatziak zituen ezagutzen dizkiogun lanak, nahiz eta haien lehen argitalpenak 1907ra arte itxaron behar izan zuen, batek salbu: *Lau-Urdiri carta edo guthuna*, 1718.

Villasantek esan duenez, “es notable por su extensa producción original en vascuence y por la *viva conciencia* de aprecio y estima del euskera que en sus escritos refleja”. Eta Urkixok bere *Obras Vascongadas del doctor labortano Joanes d’Etxeberri* (1907) baitan, ez du beldurrik ondoko hau idazteko:

[...] el plan del doctor labortano fue casi tan vasto como el del P. Larramendi, ofreciendo su desarrollo más dificultades que el del esclarecido jesuita, puesto que mientras que éste se sirvió en todas sus obras del castellano, aquél quiso ilustrar a sus compatriotas respecto de su patria e idioma, en la misma lengua que empleara 69 años antes Axular.

Eta hau dena Larramendi baino urte dezente lehenago gertatu zen. XVIII. mendeko ahots isildu hau, bada, ez dago ondoren, gizaldi berean, ezagutuko dugun mugimendutik, beregaina da. Argitalpen ezagatik, ondokoengan behar bezalako eraginik izango ez badu ere, aitortu behar da aurrea hartu zuela, denboraz bederen, argitasunean, asmoetan, lanetan eta modernotasunean Larramenditarrei.

Ekar ditzagun hona doktore medikuaren lanak: *Gomendiozko karta* (1718), *Eskuararen hatsapenak* (1716), *Eskuarazko hatsapenak latin ikasteko* (1712), eta galdua den hiztegia. Etxeberriren lanak euskara bera du gaitzat, latinari heldu zionean ere hartaz ari baitzen ahal bezainbatean.

Ordura arte erdaraz ematen ziren euskararen aldeko ideiak Etxeberrirengan euskaraz emanda aurkituko ditugu, kapitulu eta orrialde luzeetan. Eliz kanpoko kultur gaiak dira Etxeberriren azterkizun, saiakera-moduan emanda. Hizkuntzaren aldetik Etxeberriren euskarak maisu bat du, aitortua eta miretsia: Axular. Hauxe hartu zuen mediku idazleak bere eredu bakartzat, euskaraz idazteko eredu klasiko baten premia zegoela frogatzen saiatu ondoren:

Beraz ordena eder hunen arauera arrozoin dut nik ere, Aitzindari, eta Buruzagi bat gure Eskuararentzat bilatu nahi izatea? Ordea nor erranen dut dela, nik orain bilatzen dudan Aitzindaria, eta Buruzagia, baizik P. Axular gure Errotor famatua, eta ospe handitako hura? Egiazki Eskual-herrian hau da bakarra.

Izan ere, gai gorenak “ederkienik argitara eman darokuna” Axular baita, eta “merezi du deit dadin Eskuararen, eta Eskual-herriko Eskualdun dotor, Aingirua bezalakoa”. Hizkuntza hezteko eman behar izan zituen nekeak nabari dira hemen: ereduaren iparririk gabe, ezina da Etxeberrirentzat bide berritan ibiltzea eta hizkuntza jaso bat ematea. Hizkuntza trebatzeko, idazleei gaitasun hobekak emateko eta gairik korapilatuenak ere egokiro eman ahal izateko –gramatika eta hiztegiak egin baino lehen, eta berauen balioa inola ukatu gabe– maisutza bat premiazko jotzen du Etxeberririk.

Euskararen balioak behin eta berriz goraiatzen eta deskribatzen ditu. Ordu arte emandako arrazoi-molde denak darabiltza: euskara noblea da, etorkirik gabekoa, tubaldarra, kantabresa, Uholde handiaren ondokoa, garbia, bere gramatika-arauetan zuhurtziaz hornitua, kanbiamendurik gabea... Apologia zaharren ideia topikoak biltzen ditu. Erretorikarik ez zaio falta Etxeberriri bere argudioetan:

[...] ardurako dabiltzanek errespeturekin zure [euskararen] zuhurtziari agur eginen diotela, eta boz batez aitortu zure bizitasunaren indarra eta edertasuna paregabekoak direla, eta aitzitik lehen deit zaitezteela Aingeruen hizkuntza, ezen ez gizonena, zeren zure hitz bakotxa baita misterioz eta zuhurtziaz betea; hala nola *laungoikoa*, non ediren liteke hitz bat misteriotsuagoa eta gure mintzatzeko maneran Jainkotasunaren aditzerat emateko gauzagoa?

Hitzetan ez ezik, egitura gramatikaletan ere antzeko bikaintasunak aurkituko dizkio euskarari, zeren “artezki, eta zuzentki gauzak deklaritzen tu, hain manera ederrean, non [...] edirenen da, dela hagitz misteriotsua, eta antzatsua, eta bertze hizkuntzetarik hagitz diferenta”. Jakinduriaz betetako hizkuntza da hau: “Aristotelek erran bazuen ere [...] nihor eztela sortzen jakintsun, guttiarekin ere jakin izan balu Eskuara, uste dut, erranen zuela [...] Eskuara da irakaslerik eta Eskola nausirik gabe jakintsuna”.

Etxeberrirentzat, hori dena horrela izanik, badago beste datu harrigarri eta bitxirik euskararen historian: bere biziraupena. Mendez mende denboraren eta indarren kontra iraun du, denborak kanbiamendua eta hondatzea baitakartza, eta boterea galtzeak, jatorrizko distira lausotzea, grekoarekin edo latinarekin gertatu zen bezala. Bestelakorik gertatu da euskararekin, “zeren bertze hizkuntza hauk ganbiarazi tuzten etsaiak ez baitira aski boteretsu izan Eskuararen ganbiarazteko eta hunen iraupenaren etentzeko”. Dena den, hizkuntzak jasan ditzakeen aldakuntzez ere ohartuta zegoen, nonbait, Etxeberri, eta, badaezpada, mugatu egiten du arazoa “Ehun eta berrogoi eta hamar urteren ingurunean eskuarak eztu ganbiadurarik hartu” dioen kapitulu batean.

Hizkuntzaren izen ona mila argudio eta gisatan defendatzen du idazleak. Ez zaizkio, gainera, falta kanpoko etsai eta lagunak ere; berauen lekukotasunak eta aipuak erruz erabiltzen ditu; baina Mariana eta Scaliger jarriko ditu biak elkarren aurrez aurre. Marianaren eraso hura (*linguam rudem, et barbaram, cultumque abhorrentem*) jasanezina gertatzen zitzaion Etxeberriri: “baldin Marianak jakin izan balu Eskuara Joseph Scaligerok hau eta bertze hainitz hizkuntza ziakitzan bezala...” jarraitzen da Etxeberri, Scaliger-en testuak aipatu eta haren arrazoiak zabalduz. Erretorikari leku emanez honela erasotzen dio: “Eta hauk hunela entzun eta ondoan, orai zuk zer diozu Mariana? Zeure hitzetan zaude? Orai erranen ote duzu [...] Eskualdunek xoilki dadukatela bere hitzkuntza zahar, barbaro, moldegaitza?”.

Falta omen zitzaion horixe da, izan ere, Etxeberrik euskarari landu nahi zion gaitasuna. Konbentzitura zegoen, hizkuntza eramán zitekeela inondik ere, gai eskolatu eta esankizun landu eta gorenetera. Garaiko kultur gai helduena eta arriskutsuena. Teologia zen, hortxe zegoen hitza neurtu beharra, fede-sineskizunetan zorrozki eta zehazki jardun beharra. Alor horretan gai zena, zernahitarako ere izan zitekeen. Horregatik, Axular, Materre eta Etxeberri Ziburukoaren lanak gogoratu ondoren, zera dio gure Doktore medikuak:

Teologiaren kapetarik altoenera, eta gizonaren adimendua dohakeen kukuilorik gorenera eta garraiterik xutenera, hedatzen eta hegaldatzen da

(euskara), batere traburik, behaztoparik eta moteldurarik gabe: mihia libre eta sufle du, eta ausartki mintzo da, gauza guztiak xehero, bat-banazka, beregainki eta bereziki aditzera emaiten tuelarikan; lekuko dira erran eskualdun Autor haukien liburuak, zeinetan garbiki ageri baita nahiz perpausean, edo dela kopletan trebea eta bokantzaz betea dela Eskuara.

Ordurako euskal literaturan egindako aurrerapenen kontzientzia bazuen, bada, Etxeberri: posible zen euskaraz ere kultura jaso eskolatu bat lantzea, baina ziurtasun horrek ez zuen itsutzen idazle jakitun hau, baikorkeria apolo-gista hutsal batera joz. Urteetan idazlanean, bere bizkar jasotako eskarmentuak erakutsita, oharturik zegoen Etxeberri honelako zereginetik hastapenetan izan ohi dituzten zailtasunez. Hizkuntza guztiena da hori, euskara ez da horretan salbuespena, eta Etxeberri adoretzu ageri zaigu aurrera jotzeko:

Ordea ezta hau [zailtasuna] arrozoin bat aski dena bat-bederaren bere eginbidetik gibelerarazteko, ezen ezta dudarik bertze hitzkuntzek ere lehenbiziko hatsapenean eta abiaduran neke eta arantze berak iragan zituztela: ordea, entseiatuz eta trabaillatuz, azkenean bere xedera dira [...]. Eltzaur xistorra jan nahi duenak, eltzaurra koskatu eta hautsi behar du, dio errefinak.

Gaur egun, samurra da, noski, ideia hauetaz jabetuta izatea, baina geure egunetara arte heldu diren uste horren kontrako aurreiritziek indar gaitza zuten orduan oraindik, eta euskaldunak berak mingainez aitorturiko konbentzimen-dua obretara eramateko lain ez ziren, nonbait.

Euskaldunok gure hizkuntzaz izan dugun utzikeria salatuko du Etxeberri, herri bezala ditugun bestelako balioak eta hizkuntzek gertakari politikoekin duten zerikusia argitara ateratzen dituen pasarte luze baten ondoren: “Ezin nagoke erran gabe (dio idazleak), zein axola guti, eta arta apurra izatu duten Eskualdunek bere Eskuaz eta deusez-ere baldin egin badakie erantzukirik, da gauza hunetaz”. Laudorio eta gorazarre hanpatuz diharduen une-unean ezartzen du Etxeberri salakizun hau. *Gomendiozko kartan* doa hori, bere hiztegia Lapurdiko Biltzarreari eskaintzen dion unean. Laguntza lortzeko ere bai, erakunde horri aurrez aurre jarri nahi dio hizkuntzaz dagokion erantzukizun politikoa. Horretarako zabaltzen duen argudioak indar berezia du Etxeberrirengan.

Lapurdiko Biltzarreari, aginteak hizkuntzarekin izan dituen zerikusi her-tsiak gogorarazten saiatzen da idazlea. Batez ere, erromatar inperioko ustezko hizkuntza politika gogoratzen du. San Agustinen aipu bat ekarriz, honela dio:

Etziren kontent erromatarrek garaitzen zituzten jendeak bere azpiratzeaz, eta bere menera errendarazteaz; aitzitik ere hitzkuntzaren hedaraztera entseiatzen ziren: zeren ez baitzeritzaten hanbat, Erresuma baten garaitzea, eta irabaztea, nola garaitu eta hei bere hitzkuntzaren har-araztea.

Huescan erromatarrek eraikitako eskolak, etruriarrei ezarritako legea (“nihor etzekiola mintza Justiziari erromarren hitzkuntzaz baizik”) edo, Etxeberrik dioenez Senatuan zuten ohitura (“nihoren ez entzuteko [...] baldin Erromako hitzkuntzaz mintzatzen ezbaziren”), guztia zen beren botere politikoa zabalagotzeko:

Eta hala egundaino nihork-ere baino gehiago hedatu eta aitzinatu zuten bere Inperioa, edo Erresuma, bere hitzkuntza Mundutik hedatuz eta barraiatuz, zeren bide hunetaz bere azpikoak hobekiago gobernatzen, begiratzen eta manaiatzen baitzituzten.

Idea hau berretsi baizik ez du egiten ondoren dakartzan greziarren eta arabiarren adibideekin. Grezian ikusi zutenean Estatua galtzera zihoala —dio Etxeberrik—,

[...] egin zuten lege bat zeinetan manatzen baitzuten Greziako mutilko eta eskolau guztiak eskola zitezila Erresuma bereko hitzkuntzan, bai halaber, lege eta zuzen guztiak irakats zitezila hitzkuntza hartan berean [...]. Eta bide hunetaz egin zioten hanbat ontasun eta fagore bere Erresuma ia erortzera zihoanari, non eraiki eta altxatu baitzuten eta ardietsi zuten jakintsunen izena, eta omena.

Etxeberriren pentsamenduaren arabera, bada, politikaren eta hizkuntza bizitzaren artean harreman dialektiko bat dago, eta Lapurdiko Biltzarreari horixe da argitan jarri nahi diona: erabaki politikoak, bizitza publikoa, administrazioa edo eskola, hizkuntza iraupenaren leku behin-behinenak izan daitezke, eta dira. Horren ondorioz dator Biltzarreari jaurtitzen dion erronka: “Eztut, bada dutatzen, *jaunak*, zuek ere egiazko eskualdun eta lau-urtar [lapurtar] bezala ez duzuela amodio eta borondate bera zeuen herriarentzat, eta herriko hitzkuntzarentzat”.

1727ko azaroaren 28an eman zion argitalpen-eskeari Biltzarre Nagusiak bere erantzuna: “Egalament ce même Général a rejeté le troisieme article concernant l'impression du livre y mentionné ne pretend(ant) rien contribuer a

l'impression dud. livre". Zaila zen erantzun zorrotzagorik eta garbiagorik ematea: Biltzarreak ez zuen, nonbait, erromatarrek bezala pentsatzen. Idazle aitzindari honek baino zorte hobea izango zuen Gipuzkoan, bizirik zela, hainbat lan argitara atera ahal izan zituen Larramendi garaikideak.

4.2. Larramendi, kontzientzia berriaren gidaria

Gure herri eta hizkuntzarekiko grina eta gogoa inork gutxik bezala erakutsi zuen Manuel Larramendi jesulagunak (1691-1766), hitzez eta ekintzaz. Ez dagokigu hemen hartaz albiste oso bat ematea, haren erdal lanetan ageri den hizkuntza kontzientzia arakatzea, baina ezinbestekoa da pertsonaia honetaz zertxobait esatea.

Larramendik deus gutxi idatzi zuen euskaraz, baina erdaraz idatzi zuenarekin astindu ederra eman zien garaiko mentalitate eta gogoei. Euskararekiko jarrerak guztiz aldatu ziren Hegoaldean hainbat euskaldun eskolaturengan. Etxeberri Sarakoak – argitalpen ezagatik ere– lortu ez zuena jadetsi zuen andoaindar honek, lan eta harremanen bidez: bere ingurua aldatu egin zuen, jendea euskalgintzara erakarriz, eta orduko langileei eta ondoko belaunaldiei ere segurtasun kolektibo eginago bat emanez.

Garaiko jesulagun handien ondoan (Isla, Masdeu, Hervás...) eta mundu zabalean harreman ugari izan ostean (Salamanca, Gortea...), gizon honek, halako erdal luma distiratsua izanik ere, Loiolako zokoa aukeratu zuen bizitzeko (1733-1766) eta Euskal Herriko egoitza hau ez ezik baita hizkuntza ere, bere bizitzako zeregin nagusi bezala, erbesteko arrakastak, gozagarriagoak agian, baztertuz: "[...] una obra ceñida casi exclusivamente a una lengua marginal...". Euskarari duintasun berri bat eman nahi izan zion gure gizartean.

Larramendi, Etxeberri bezala, konbentziturata dago hizkuntzari bere arautegi idatzia eman behar zaiola: gramatika eta hiztegia. Hau da ondoko idazlegoarentzat eraikiko duen obra handia. Bere aurrekoak baino ohartukiago eta sistematikoago aitzurtu nahi du hizkuntzaren saila, dena ongi jorratu betiere jakinaren gainean erabil dezagun: hizkuntza biluzik agerian jarri nahi du, euskaldunek hobeki ezagut dezaten... eta atzerritar eta arrotzek mirets. Egia da, bigarren xede honek bere deskribapen-eginkizunetik behin baino gehiagotan saihestuko duela, baina, hala ere, hizkuntzaren ezagumenduan urrats luzea eman zen Larramendiri esker. Uka ezina da hori.

1729an *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada* kaleratu zuen Larramendik; baina autorea ez zen argitara behar zuena ezkutuka erakusten ibiliko zena. Euskararen *etsaiei* eta barruko euskal jendeari mezu bat pasa nahi zenez, alde

aurretik abisatuta irten zen gramatika hura: *De la Antigüedad y Universalidad del Bascuence en España: de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas lenguas. Demostración previa al Arte que se dará a la luz desta Lengua* (Salamanca, 1728). Horra tesiak eta promesak batean emanda; ondoko eztabaidetako lehenengo ezkila-joaldia zen liburua:

Estoy para dar a la luz un Arte de la lengua Bascongada; y por que preveo crisis, y resultas, quiero prevenirlas con este escrito. Así será menos el volumen del Arte, y le vindicaré de objeciones, y calumnias con más despejo, y liberalidad.

Egitera doan azterketa hau ez omen da inola ere umekeria, “sino de gigantes, como de un Platón; de un Aristóteles, y otros doctísimos hombres”. Euskara nolakoa den erakutsiko du: “de las más hermosas, cultas y elegantes” dio berak, “pues no como quiere descubro a mi lengua, sino que la remozo en su ancianidad, hasta dexarla convertida en Dama de las lenguas”. Ondoren, oraindik, Espainako historialari eta hizkuntzalariei erasoko die, erdal Akademia bera ahantzi gabe.

Eta Larramendiri, benetan garai-garaiko gizona baita, ez zaio egokiera historikoaren zentzurik falta: “Todas las naciones andan muy solícitas en pulir sus lenguas, y depurarlas: cortan, añaden, mudan, con una faena mayor, que la de un Astillero”, dio ironia irriz duela. Larramendiren asmo eta lanak, hizkuntzaren kanpaina sozial programatu baten antz-antzekoak gertatzen zaizkigu beraz. Gramatika egingo du, hiztegia gero, hizkuntzaren bikaintasuna ezohiko metodoz erakutsiko du. Kanpoko jakitunentzat eta barneko langilegiantzat aldi berean egingo du lan.

Euskararen arazoa testuingu historiko eta politiko zabalago baten barnean kokatzen zuen Larramendik. Kasik bi mendetako apologisten herentzia osorik eta kritikarik gabe jaso zuen; bere polemikarako balio zion, baina bazekien XVIII. mendean arazo berrien aurrean aurkitzen zela hizkuntza (Borboitarren hizkuntz politika eta politika orokorra), eta bere erara irtenbide bat bilatu zuen. Batez ere, euskaldunengan hizkuntzarekiko harrotasun praktikoago eta langileagoa piztu nahi izan zuen eta praktikotasun hori lortzeko tresna didaktikoak ahalbidetu nahi izan zituen. Laudoriozko defentsa dialektikoaren ondoan, hizkuntzaren ezagumendu analitikoa bilatu zuen, hiztun eskolatuek (elizgizonek bereziki) hizkuntzaren erabilera duin eta ohartuki landua izan zezaten. Apologia, politika eta hizkuntz analisia, etengabe txirikordatzen dira Larramendiren lanetan: hortik, haren piperra, ironia irtena eta zientzi janzkera ere. Larramendi, berria zen alde askotatik.

Politika aipatu dugu: hizkuntza lan bat hasi eta burutzean, egitekoa beti panoramika historiko-soziopolitiko ireki batean ikusten zuen Larramendik. Ez da, beraz, batere harritzekoa, gramatikaren aurretik, hitzaurre gisa, beste liburu bat idaztea; orobat, hiztegiari 200 orrialdeko sarrera ematea (*Diccionario Trilingüe*, 1745). Etxeberri Sarakoa ez bezala, Larramendi ez dabil batere urrun garaiko politikatik. Gramatika, “A la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipuzcoa” eskainiko dio, hiztegia berdin.

Eta krisian erortzera zihoan Foru-sistemaren defentsa egiten ere saiatu zen Larramendi. Euskal Herri osoarentzat biziki irtenbide orokor berri bat bilatzeotan, “Provincias Unidas del Pyrineo” batzuen proposamena eskaintzean, batasun politiko horren funts bezala hizkuntza aitortzen zuen:

Qué razón hay para que la nación vascongada [...] no sea nación aparte, nación por sí, nación exenta e independiente de las demás? Las lenguas muertas, latín, griego, hebreo, arábigo y otras, tuvieron cada una su nación aparte y gobernada por sí, sin dependencia de otras vecinas o distantes. Las lenguas vivas tienen hoy la misma independencia y exención, como la francesa, española y demás. Pues, ¿por qué el bascuence, lengua tan viva y de más vida que otra ninguna, no ha de ver a todos los bascongados juntos y unidos en una sola nación libre y esenta de otra lengua y nación? [...] Así estará por de medio [entre España y Francia] nuestra nación, unida y aparte y con su lengua, que por sus primores hasta ahora no conocidos merece ser lengua de todo el mundo cultivado. Parece que nos deben dejar en paz.

Agure hitzun baten ezpainetan jartzen zuen proposamen horretan barrunda daiteke Larramendik hizkuntzari ezagutzen zion betekizun *nazional* eta politikoa.

Hain zuzen, andoaindar batzar-lagunak hitz egiten du geroago (Larramendiren beraren ahotsa, noski) azalduko proiektu politiko horri hizkuntzaren instituzionalizazioaren asmoa gehituz: “Fáltanle [Errepublikari proposatuari alegia] las providencias de Academias, escuelas para la educación de nuestra juventud. Enséñense las lenguas bascuence, español, francés y latín: y llámese *Colegio Quatrilingüe*”. Hizkuntza landueneren parekoa izan behar du, beraz gureak ere. Andoaindarrak eskatzen du hori.

Hona, batik bat, euskarazko obren aipua dakargunez, ezin gara Larramendirekin gehiago luzatu; baina izan bedi zilegi hark bere inguruan sortu zuen eraginaren oihartzunen bat jasotzea, ekarri zuen aldakuntzaz garaiko batzuk zer

sentitu zuten jakiteko, besterik ezean. Larramendik, arrakasta bere bizialdian ikusi ahal izan zuen: argitalpenen bidez eta, bakoitza bere gisan, euskalgintzara hurbildu zitzaizkion jesulagun eta gainerakoekin. Aita Mendiburuk (1708-1782) honela ikusi zuen andoaindarraren lana:

Orain Aita Larramendik egin duena, egin balu norbaitek orain mila urte, dadukanetik beste itxura izain zuen gure Euskarak. Badugu bizi garanak eta izain dute gure ondokoak nondik atera behar den guzia edertzeko eta apaintzeko euskarazko hizkera leuna. Ondasun hau guziok zorko diogu Aita Larramendiri.

Ohartu ziren, beraz, garaikoak ere gertatu zen aldakuntzaz.

Hizkuntzarekiko hitzunen kontzientziatzeari gaudela, pauso erraldoia eman zuen Larramendik, berak eginez eta inori eraginez, euskararekiko sentiera onduz eta itxuraldatuz. Tamalez, haren idazle-luma bikainak ez zigun laga euskarazko obra zabal eta oparorik, baina hark sortuko zuen Hegoaldean hizkuntzarekiko portaera berri bat, hainbat idazlegairengan. Hauetakoa genuen Aita Agustin Kardaberaz-en kasua.

4.3. Aita Agustin Kardaberaz (1703-1770)

Oso zaila zen Larramendiren ekarpen teorikoak eta indar dialektikoak ondorengo batengan segida osorik izatea. Larramendiren lana euskal gizarteari zuzendutako galdekizun kezagarria izan zen; tradizio onartua eta utopia kritikoa haren obran hezurmamitu zirenetik, ezinezkoa zen euskararen inguruko gatazkak edo, samurrago nahi bada, arazoak lehengo zabarkeria berarekin tratatzea. Larramendiren ingurukoek, besterik ezean, pentsatzen hasi beharra zeukaten, norberak bere jitean euskaldunen aurrean erantzun ahal izateko.

Hauetakoa izan zen Aita Agustin Kardaberaz jesuita, eta Larramendi beraren Loiolako bizilaguna. Bere euskal maisua bezala, irakaslea izan zen, Oñatiko Unibertsitatean urtebetez; bestelako irakasle-lanik ere egin zuen, baina Kardaberaz-en lana, batez ere, predikariarena izan zen. Ez zuen Aita Manuelen intelektual-tamainarik, eta ez zuen maite hark sortu ohi zuen moduko eztabaida zalapartatsurik. Hala ere, bazituen Larramendik ez bezalako dohainak; fededunentzat eta eliztarrentzat, Kardaberazek ahots entzungarriagoa zuen, eta *euskararen predikua* bere eskuetan hartu bazuen, *Jainko-Zerbitzari* batek izan ditzakeen konbentzimendu eta itzalarekin egiten zuen. Ur berriak ekarri zizkion honela (edo modu berrian bederen) euskararen errotari, bere ibilian jarraiki

zedin: “Jainkoak nahi du...” esaten die Kardaberazek apaiz eta bataiatuei. Eta borondate hori obretan nahi du ikusi; obratze hau bultzatu eta laguntzeko, gero, bere lanetan denetatik du: arrazoi teologiko-pastoralak eta azalpen gramatikal eta erretorikoak.

Izkribu-saila idatzi zuen Kardaberazek, baina gure hemengo gaiari bereziki dagokiona bat da: *Eusqueraren Berri Onac: eta ondo escripticeco, ondo iracurteco ta ondo itzeguiteco Erreglac* (1761). Haren bizitzan argitara eman zirenetatik landa, hilon-doa ere geratu zitzaion argitaragabe Aita Kardaberazi.

Larramendiren maisutasuna goraki aitortzen zuen Kardaberazek; hala ere, haren praktikarekin ez zetorren adostasun osoan eta ez zuen erreparorik izan kritika zerbait aditzera emateko: “V. Rev. que ha escrito a la maravilla y tantos libros sobre el bascuence o del bascuence, ni uno ha escrito en bascuenze. ¡Ojalá hubiera escrito muchos y muchos sermones y aún más doctrina! Nos hubiera hecho a todos otro favor mayor”. Kardaberazaren obra baten zentsore gertaturiko Larramendiri ematen zaizkion iruzkinak dira horiek, eta horren guztiaren alkantzua urrunegi eraman behar ez bada era, idazle praktikan saiatu baten oharra bederen bada. Izan ere, euskarazko idazlanak kaleratu behar zituenak, hainbat zereginetarako, gramatika ez ezik, eta hiztegiak baino areago, literatur tradizio baten eskasia penatuta sentitzen baitzuen gure Historian. Kardaberazaren kezka hau, beste idazle batenarekin –Etxeberri Sarakoarekin, alegia– bat dator: idazle maisuak behar-beharrezkoak dira hizkuntza heldutasun eta jabetasun bateraino eramateko.

Kardaberazek bere orrialdeetan ematen duen pentsamenduak ez du, agian, hegaldi teologiko handirik; baina hurbiletik, bertatik, ezagutu duen herri xumeari dagozkion hizkuntza eskubidea eta etorkizuna aitortzen dizkio. Benetan, kasu berezia da Kardaberaz. Larramendiren zehaztasun eta zorroztasunik gabea, garaiko *Zalduntxoek* modernotasunik gabea, baina bere tradizionaltasun apalean, ahularen alde jokatu zena, kontrako uholdean ere uretan gora igeri egin zuena: beraz, alde honetatik, ez ondradua bakarrik, baita justiziazalea eta aurrezalea ere.

Hortik aurrera, hizkuntzak beti izan dezakeen kontrol-betekizun sozioideologikoz apaiz artean nolako kontzientzia zegoen, aztertzekeo geratzen da, eta gaiari ez zaio piperrik falta normalizazio egunotan.

4.4. Euskal Herriaren Adiskideak

XVIII. mendeko euskal kulturaren historian leku behinena betetzen dute Euskal Herriaren Adiskideek, *Zalduntxoek*. Galdetzekoa da, beraz, euskararen eremu-barrutian errotu zen mugimendu eta talde hau noraino arduratu zen gure

hizkuntzaz (ezer arduratu bazen, behintzat). Arazoari buruzko benetako ikerlan baten faltan gaude: hala ere, Peñafloidako Kondea bera euskal idazle izan genuenez, bidezkoa izango da dakiguntzua hemen jasotzea.

Erdaraz mintzatuko dira Azkoitiko Zalduntxoak [...]. Ez, egia esan, ez ziren beti eta erabat erdaraz mintzatzen. Euskaraz ere mintzatzen ziren, ongi zegokien orduan. Euskaraz jakin, berriz, ongi baino hobeki zekiten, Azkoitia edo Bergara aldekoak batipat. Izen ona du jauntxo buruzagiak euskal literaturan eta ez, nik uste, merezi duen adinakoa (K. Mitxelena).

Jakite horrek muga bat izan zuen etorkizuna urratzeko: “Dударik gabe, esan dezakegu ez zutela uste euskal irakaskuntzarako premia zen lan esker gan barrera abiatzeak gehiegi balio zuenik” (ibid.). Ziurtzat ematen diren baieztapen horien ondoren datoz beste galderak: Zergatik uste zuten hori?, zenbateraino zetozen bat, horretan, garaiko beste euskaltzaleekin? Europako *argiztatuen* artean bazegoen ustekizun horri oinarririk emango zionik, noski (XVIIIko eztabaidetan historia luzea du hizkuntzen gaitasun-arazoak), baina bestelako korronterik ere aurkitzen dugu. Hau dena ilunago gera dadin, orain gutxi Sáenz de Santa Mariák gogoratu diguna ekar daiteke hona:

En el Seminario Patriótico al fomentar la lengua nacional –frente al latín– se distinguía entre la lengua *peculiar* que era la vasca, y la *nativa* que era el castellano. En el mismo Vergara y por iniciativa de Larramendi se prohibía el uso del vascuence dentro del colegio.

Puntu hauek mereziko lukete ikerlan egokirik, beste zenbait larramenditarrekin ezkontzeko ere; zeren Bergarako Errege Mintegian euskarari leku egin baitzitzaion arautegiz bederen; obraz zer izan zen, beharko genuke orain zehatz jakin.

Horiek horrela, elkartearen bilera-agiriekin eta Peñafloidaren gutun bildumak erakusten digutenez (*Extractos* 1773-1774; *Gutunak* 1781-1784, gutxiarik), badakigu euskal hiztegi berri bat landu nahi izan zela, Larramendirena alderantziz emanez. Horretarako, Aizpitarteren lanarekin kontaktu zuten.

Zer pentsa beraz, Adiskideen lagunarteak euskararen alorrean eman zuen fruitu hain mugatuaz? Zenbateraino ulertu, onartu eta bultzatu ote zuten Larramendik bere obra osoan egiten zuen proposamena? Dena dela, garai haietan Europan etorkizuneko nazionalismo hizkuntzazaleei oinarriak ematen ari ziren

kultur mugimenduen artean, behintzat, ezingo genituzke kokatu Adiskideak: “El estudio ni el cultivo del vascuence no fueron ciertamente objeto de atención preferente de los miembros de la Sociedad” (L. Villasante). Batez ere irakas-kuntzara zuzendutako ahalegin hartan, hutsune larria zen hori gerorako; baina harritu ere, ez gaitu apika sobera harrituko horrek, Espainiako *ilustratuak* berak oraindik alor berean latinaren zama gainetik ezin kenduta zebiltzala kontu egiten badugu. Latinaren gaztelua zartatzen hasita zegoen kultur zeregin jasoetan, baina oraindik ere ez zitzaion falta babeslerik: “los maestros profesores y estudiantes no hablen ni disputen dentro de los patios y aulas si no es en lengua latina” zioen 1753ko Errege Agindu batek.

4.5. Aldi berrien bidegurutzean

Hala ere, ari gara mendearen azkenetara iristen eta aire berriak ere sumatzen dira. Ikusten da, euskal Erakundeek ez dutela Madrilgo Gortean begiramen handiegirik; erasoaren kontrako defentsa bera zigortu egin nahi da eta hemengo Diputazioek ezkutuka ibili behar dute ohiko erakundeen alde isil-lana egiten. Euskarazko idazlanek debekua eta baimen-ukapena aurkituko dute kalera irteteko. Hala eta guztiz ere, idatzi egiten zen; erdaraz, dezente, eta euskaraz, gutxiago.

Hemen, dakargun bideari jarraikiz, Astarloaren garaia, edo hobeki haren ingurumarian sortutako argitalpen apologistak, albo batera uzten ditugu. Baina gutxienik aipatu beharrekoa da W. Humboldt-en presentzia, honi esker Europan jaiotzera zihoan linguistika modernoan leku bat irabazi baitzuen euskarak. XIX. mendearen erdialdetik aurrera hurbilduko zitzaizkigun jakitun berriak Humboldten ildotik etorri ziren gurera. Zer esanik ez: luzarora bai, hizkuntzari begiratzeko molde berri bat sortuko zen, ondorioz. Baina gure ikusbide honetan, astarloatarrak gainditzeko oztoparri bat gehiago ziren, argi lagungarria baino, eusko-iberismoa onartzen zuten neurrian.

Wilhelm von Humboldt (1767-1835. Ez da nahastu behar bere anaia Alexander-ekin), Berlineko Unibertsitatearen sortzaile eta lehenengo Errektorea izan zen. Napoleon-ondoko bakegintzan Prusiaren ordezkari guztiahaldundua izan zen lehenik, eta Alemaniarentzat Konstituzio liberal bat asmatzen saiatu zen gero. Linguista zelarik, hizkuntzen sailkapen tipologikoa bilatu zuen, berorien egiturak aztertuz. Europaren hizkuntza oinarri prehistorikoaz biziki arduratuta baitzegoen, euskara eta hizkuntza zeltikoak zituen bereziki aukeratu antzinate hartara begiratzeko leihatila gisa.

Bi obra nagusitan eman zituen batez ere Humboldt-ek gure hizkuntzarekiko ideiak: *Berichtungen (Zuzenketak, 1817)* eta *Prüfung (Azterketa, 1821)* bezala

aipatu ohi dira. Hauen aurretik 1799-1801. urteetan Euskal Herrira egindako bidaien berri ere utzi zuen 1821eko obraren gaztelaniazko itzulpenaren sarrean (*Primitivos Pobladores de España y lengua vasca*, 1959): “No cabe duda de que este libro marca una fecha capital en la historia de la lingüística y toca en lo vivo, en lo medular del vascuence”, idatzi da. Linguistika osoaz ere esaten du hori, beraz.

Azterketa linguistikoetara Humboldték ekarri zuen berrikuntza batez ere metodologikoa da: etimologietan lan zuzenik egin ahal izateko, haren ustez, premiazkoa da etimologiaren “eratorbide-sistema finko baten arabera, soinuen benetako ahaidetasunaren aurkikundean oinarrituta lan egitea”. Hain zuzen, hauxe zen, funts-funtsetik Astarloa eta Humboldt elkarrengandik urruntzen zituen tesia, nahiz eta tesi honek eusko-iberismo eta abarretan bi jakitunak oraindik ez aldendu. Euskal jakitunek –gutxiago oraindik idazle, politikari eta herriak– denboraldi luze batean ez zuten lezio berria ikasi, eta hizkuntzarekiko ikusmoldeak lehengo bere hartan iraun zuen: apologistak beren topikoetan, euskal idazleak hizkuntzari betekizun sozial berriak bilatzen.

5. XIX. mendeko euskararen kontzientzia

Hemen jasoko diren albiste laburrok epeka emateko, ondoko data hauek eman litezke, Aro Garaikidean euskal idazleen hizkuntza kontzientzia nondik nora joan den azaltzean: 1) Krisiaurreko eztabaida eta kontzientzia, Astarloa eta Mogel-engandik lehenengo karlistaldirainokoa (1800-1833); 2) Gerrate hartatik Foruak galdu ziren datarainokoa (1833-1876), Iztueta, Iturriaga, Elizanburu, Iparragirre eta Bonaparteren lankideek bete zutena; 3) Eusko-Pizkundeari dagokion aroa, bere politikari abertzale, euskaltzale, idazle eta euskalariekin (1877-1936) eta, azkenik, 4) Diktadura eta ondoko urte luzagarriak, itxaropen eta zalantzaz beteak. Hemen, ordea, XX. mendearen ataureraino bakarrik iritsiko gara; hizkuntzaren kontzientzia nazionala aurkitu zen arte.

5.1. Krisiaurreko kontzientzia (1800-1833)

Aurreko tradizio guztiak bezala, urte hauetan ere bi hurbilpen-modu ezagutzen ditugu hizkuntzara: ustekizun mitiko zaharrekin egiten dena (Astarloaren eskolakoa, esan dezagun), eta hizkuntzaren bizitzaz arduratuta euskal idazleek erakusten dutena, biotan hemen eman ezin ditugun ñabardurak ahantzi gabe, elkarren artean nahasi ere egiten baitira behin baino gehiagotan.

5.1.1. *Juan Antonio Mogel (1745-1804)*

J. A. Mogel batez ere bere *Peru Abarka* obragatik gogoratu ohi dugu (1800-1802. urteetan idatzia, 1881ean argitarara emana). Titulutik bertatik interes berezia du obra honek hemen, “Catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte” bezala aurkezten baitu idazleak Peru bere protagonista. Horrela, bi zera batera iradokitzen ditu Mogelek: baserritarra ere izan daiteke jakituna, goi-eskolatua bezain jakituna, eta baita areago ere, segun zertan; eta bigarren: pentsa liteke, euskara ez ote den Unibertsitatera eramateko ere, gairik jasoenak erabiltzeko lain alegia.

Belaunaldiz, Astarloaren garaikoa dugu Mogel, baina honen pentsamendua hurbilago dago Ulibarri edo Iturriagarenetik, beste harenetik baino. Badakigu hasteko, Mogelek nahiko mesfidantzaz begiratzen zituela orduan hizkuntzaren inguruan entzuten ziren teoria buruberogarriak. Astarloa lagunarenetatik, esate baterako, urrunxko egoten bazekien, kontuz-kontuz: “Yo conozco mucho a este sujeto; es hábil y ha hecho mucho estudio del idioma. [...]. Es demasiado metafísico y será un galimatías mucha parte de su escrito”, idatzi zion Vargas Ponce-ri. Bere sen onak erakusten zion hori Mogeli; horregatik da hain desberdina bi idazleez gaurko kritikariek duten iritzia: “el buen sentido de Moguel le hacía ver lo peligroso de la exageración [...]. El buen sentido y el conocimiento del excelente escritor que era Moguel brillan en todo cuanto no es etimología”; Astarloa “fue amigo de Juan Antonio Moguel, que si compartía sus ideas sobre el euskera, tuvo mejor acierto en cultivar la lengua y ganar en ello laureles indiscutibles” (A. Tovar). Mogel ez zegoen garaikoen euskararekiko ideietatik erabat aparte, baina bere ardura eta jokabidea hizkuntzaren praktikara zuzendu zituen, eta horrek bestelako ideia eta kezka batzuetara eraman zuen.

Astarloarenetan ez ezik, Larramendiren lanetan idorotako gehiegikerietatik ihesi halaber, mesfidantzaz begiratzen zituen gramatika-lan herritik urrunegiak ere: “No he procurado estudiar el vascuence de Larramendi, sino de los mismos rústicos y originalmente”. Asmakizunetatik errealismorako deia da Mogelena: herri hiztuna da hizkuntzaren jatorrizko jabea. Gizarte-klase jasoen salakuntza ere bada uste hau: “Estos diálogos (*Peru Abarka*) no se dirigen a la instrucción de la juventud bascongada, sino á la de los que son tenidos por muy literatos [...]. Un rústico puede ser Doctor y Maestro de su lengua y ser Catedrático de ella, llamando a su escuela de las Montañas, á Clérigos, Frailes, Caballeros [...]. ¿En qué otro territorio del mundo se verá que ignoren la lengua patria los que debían erigir academias de ella [...]?”.

Honek ez du esan nahi, ordea, herritarkerian eta populismo hegamatuz batean bukatzen zenik haren euskarazko kultur programa: alderantziz, aski da

Peru Abarkaren lehen edizioko hitzaurrea eta fraide-apaizen ondoko elkarrizketa irakurtzea horretaz jabetzeko.

Mogelek bazekien, euskara jazarrita zegoena, eta euskal lanak erabaki instituzionalen kontra saiaturaz bakarrik atera zitezkeena. Prediku-liburuak ateratzeko ere, Urkixo Ministroaren babesa bilatu behar Madrileko Gortean! Mogelek berak ematen ditu horren xehetasunak, azkenean baimena lortu duela adieraziz: “Qué triunfo para nuestro idioma!”.

Baina kanpokoen jokamoldeak salatzean, ez du euskaldunen hoztasuna ahanzten, eta zabarkeria hutsa baino haragoko zerbait gogoratzen digu, euskaldun eskolatuen autogorrotu linguistikoa deskribatuz:

Eskolan ebilzanean, milla zemai ta agirakaz bere, ezin itxi eutseen, euskera berba egitiari. Nekez eta odolaz legez, sartu jakeen erdara txaar bat euren buruban. Eta euskaria biarren dabeen orduban biraoka ta araoka legez dagoz esanaz: Arren sekula jaijo ezpalitz euskaria: urrrinduta balego lurraren azken, iñor elduten ez daneraño. Plagiak balerua onelango berbeeta ikasten gatxa.

Testuak badu interes historikorik: Larramendik eta Kardaberazek sortuak zituzten ikasliburuak, baina euskarak ez zuen eskolarik (aitzitik, kontra zuen berau), eta sozialki zaila zen hizkuntza idatziaz ongi jabetzea. Bazen jenderik, ikasiko zukeenik (mila bat ale zabaldu omen ziren Mogelen lehenengo obratik, eta irakurri egiten omen ziren, autoreak berak dioenez), baina Eskolan ikasi ezin horrek, atzera eragin ez ezik, hizkuntzarekiko higuina sortu ere egiten zuen, nonbait.

Peru Abarkak zailtasun horri erantzun nahi izan zion, hain zuzen. Benetan kezkarria gertatzen zitzaion datu bat gogoratzen du autoreak: “Abade askok nazaude, ta gitxi gitxi batzuk baño aurkitu ez ditut euskera zaleak”. Kardaberazen deiak ez du oraindik, Mogelentzat, fruitu asegarririk eman apaizen artean, eta hark Larramendiri eskatzen ziona bera nahi luke berriro idazleak: “Atera ugari liburu euskerazkuak. Oneei ekin gau ta egun legez; dendatu irakurtera lotutasun baga, ta denpora gitxi barru ikasiko litzake euskera ondo berba egiten”. Konbentzituta dago Mogel, gramatiken eta hiztegien betekizuna hobeki baizik ez dutela betetzen beste idazlanok, hauexek dakartela eskolamendurik onena. “La lectura de buenos libros instruye mucho más que un gran Diccionario...”.

Hizkuntzaren duintasunarekin batera, euskara jasoaren eztabaida gogoratzen digu: “aspertzaka esango deuskube erdaldunak ta euskaldun dongaak, ez dala gauza euskera gauza goratubetarako, ez da bere eskuor darabilguzanetara-

ko”. *Sombrero, tabaco* edo *taja-pluma* euskaraz eman litezkeela frogatu zaionean, Mogelek bat-batean ahoa bete hortz uzten du irakurle sinesgaitza, hizkuntzaren kultur baliagarritasuna erakusteko hizlari klasikoen itzulpenak euskaraz emanez: “alan ikusiko da euskeriak baditubala berba bizkor, apaindu, zoli ta adiu-tubak gauza goratubak azaldetako”.

Modernotasun ausartarekin adierazi zuen Mogelek, XX. mendeko euskaltzaleek hain neketsu daramaten ezin eta ahalegin hori, hizkuntza zernahitarako moldatuta ikusi nahia:

Se acusa comúnmente á nuestro idioma de que no tiene voces científicas; que por esta causa es pobre, á lo menos en esta parte. Quiere decir esto, que un bascongado no puede ser filósofo, teólogo, matemático, jurisperito, anatómico sin que se valga de otras lenguas.

Salakizuna, *boomerang* bihurtzen da Mogelen eskuetan, zientzia modernoetarako mailegu grekoen erabilera aurrean jarriz:

Latinos, franceses, ingleses... todos recurren a mendigar del idioma griego para enriquecer los suyos [...]. A lo menos me deberán confesar que todas las demás lenguas, menos la griega, son por si pobres é ineptas para las ciencias y varias artes. Luego no son de mejor condición que la bascongada.

Eta, nahi izanez gero, ez du eskutik uzten euskarari ere berdin ezagut dakiokeen eskubide bera: “Si el bascongado, como el latino y otros, quiere aplicar á su lengua las voces griegas [...]”. Mailegu horietarako erdaldunen aurrean lotsati agertzen ez bada ere, Mogelek maiteago du geure harrobia, eta hizkuntzaren ahalbide propioez, gaurko euskal terminologoen aldean, askoz baikorrago sumatzen dugu.

Etxeberrri Sarakoaren eta Larramendiren ondoan Juan Antonio Mogelek, XIX. mendearen hasiera hartaraino ezagutu dugun hizkuntza kontzientziarik argiena eta zentzuzkoena erakusten du; apologien eta eztabaiden zurrunbiloak zora zezakeen unean, bere aiurri praktikoak eta buru orekatuak salbatu zuten idazlea, gero *Peru Abarka*, baliozko lan hau, laurogei urte argitara eman gabe gelditu zitzaigun arren.

Hau izan liteke Pablo Pedro Astarloa (1752-1806) apologistari buruz zerbait esateko lekua, baina idazlan honetan ez ditugu aztertu erdaraz jardundako apologisten ekarpenak.

5.1.2. *Jose Pablo Ulibarri (1775-1847)*

Garaiko eskolatuen zirkulu hertsietatik kanpo zegoen arabar hau, ia bizitza osoan Bizkaiko Abandon bizi izan zen. Zer berri ekarri digu?

Liburuzale porrokatua, biblioteca ederra zuen inondik ere. Euskarari berak zion atxikimendua ez digu beste inork agertu inguruetan, hizkuntzaren praktika pertsonal eta sozialari bagagozkio bederen. Honen aurreko euskaltzaleek eta berehalako belaunaldiek ez zuten, eguneroko egunaren mila xehetasunetan, inon beste hainbeste erakutsi. Goazen ikustera.

Hasteko, bere bizitza pribatuko hizkuntza idatzia euskara izango zela erabaki zuen Uribarririk, eta etxeko barne-paper denak euskaraz ematen hasi zen. Beretzat, hori. Bigarren pauso praktiko bezala, euskaldunak ziren lagunekin eta lagunartean gisa berean jokatzeko deliberamendua hartu zuen. Beraz, harekin hitzarmenak sinatu nahi zituztenentzako agiriak euskaraz prestatzen zituen. Hirugarren urrats bat emanez, bizitza ofizial publikoa euskaraz egin zedila eskatzen zuen Ulibarririk: bere udaletxean, Gernikako Batzarretan nahiz agintari gorenarekiko harremanetan. Azkenik, hizkuntza gizartean zinez indartzeko, eskolara eraman zedila erregutzen eta eskatzen zuen Jose Paulok. Baina zehatz dezagun hau guztia.

Bera eskolamendu garairik gabekoa izan arren (errementaria zen, ofizioz), Ulibarririk harreman sozial zabalak izan zituen eta bizitza politikoan biziki parte hartu zuen, bai Abandon eta bai Gernikako Batzarretan. Nonahi edo nornahirekin zebilela, beti erakutsi zituen euskarari zizkion zaletasuna eta atxikimendu praktikoa.

Etxean, bere zereginetan, idaztekoak, esan den moduan, beti euskaraz eman zituen: hau da, bere diru- nahiz lan-kontuak, inguruko gertakari xumeen berriemateak, bati eta besteari zuzendutako gutunak. Haren euskarazko harremanen artean, gogoratzekoak dira historian izen batzuk: Erro, Novia, Valdespina markesa, etab. Fernando VII.ari berari (1828) txosten bat eman nahi izan zion eskutan, Mendizabal inprimatzailearen bidez, euskarazko bere hitzaldi batekin aurkeztuta. Alegia, euskal hiztun bati dagokion berezko hizkuntz naturaltasuna, edo egoki beharko lukeena, hobeto esateko, nabaria da Ulibarrigan: inor mindu gabe, Erregeri ere euskaraz mintza zekiokkeen, bizkaitarren Jauna omen zenez; eta, "euskaldunari eguño ez erderaz, euskaldunari beti euskeraz, orra zeure adiskidiaren esan maitatia, Praisku", idatz ziezaiokkeen Berrizko Zengotita-Bengoa koronelari. Baina ez baitzen hori bakarrik: eremu berriak ere irabazi nahi zizkion euskarari.

Munta berezia eskolari eman zion horretan: ikastetxeetan euskara eta euskaraz irakastearen aldeko kanpainak egin zituen. Eta euskararen etorkizun-arazoa

Gernikako Batzarretan aurkeztu eta aurrera bultzatzeko, bere eskuetan zituen eginahalak egin zituen (1829), fruitua geroago, karlistaldiaren ondoren (1841) emango zutenak, euskal katedra baterako erabakiak hartuz eta han bertan ere, Batzarretan, hizkuntz ohitura berriei bidea irekiz (“que diariamente se trajese a la Junta en lengua vascongada por escrito el extracto del acta de la sesión precedente”). Baina, gutxi ez izanik, hori ez da oraindik dena.

Ezaguna denez, Ulibarrik uste zuen hizkuntza ofizialki aitortuei, aurrera egiteko, Akademia bat zor zitzaizela, eta premiazkoa zutela gainera horrelako erakunde bat: “Ogeta lau gizon / bear dira izentau / Gernikako batzarrean / euzkararen ganean / egiteko alegin au” (1832), zioen Aizkibel-i aurrea hartuz.

Hizkuntzaren hau etengabeko leloa dizu Ulibarrik, liburu eta oharretan, eskutitz eta bertsoetan: “Esaizu: zelan da au, / (edo) zetara adi gara? / Euskera berba eginda, eskolia erdera? / Ori da asmo gaiztoak / egitia gu galtzera. / Esan biarrian Aita Guria / esaten Padre Nuestro / erderazko garrazkerian”. Akesolok, beroren ikertzaileak, horregatik idatzi du:

[...] le corresponde un lugar destacadísimo entre los hombres de su tierra que más fuerte sintieron la llamada de la lengua nativa y más denodadamente lucharon entre nosotros por despertar la conciencia de sus paisanos y promoviendo entre ellos un esfuerzo unitario y sistemático, a nivel individual y colectivo, para darle a la lengua de sus mayores el rango que creyó corresponderle, así en la vida privada como en la social y pública.

Txundigarria da errementari autodidakta baten ikusmolde argi eta argigarri hau: “fue ante todo, un despertador de la conciencia euskalduna” (Akesolo).

5.2. Krisialdia (1833-1876)

Euskararen erreibindikazio hori, oraindik Ulibarri bera bizi zela aurkituko dugu, Euskal Herriak zituen eskakizunen artean.

Aurreko mendeetan, apologien bidez batez ere kanporako predikua izan zen bezala (eta barruan klase arteko arazoa ere bai, noski) hemengo defentsa eta borroka instituzionalekin lotuta ageriko da orain. Ulibarrik berak euskararen etorkizun hobea Karlos-enean ikusiko du; eta, egia da, azken karlistadan batik bat, administrazio karlistak toki egokiagoa eman nahi izan ziola hizkuntzaren egiteko honi, Bizkaian bezala Gipuzkoan.

Karlisten euskararen aldeko defentsa erabat herrikoia zen, hots, gehiengo handi batena (egin kontu Bizkaian, adibidez, 183.000 bizilagunetatik 149.000

euskal hiztunak zirela artean). Baina, besterik ezinean, tartean zebiltzan noski interes politiko-ideologikoak: euskara bakarrik zekiena, zer duda, urrunago zegoen liberalismoaren ideia zabaldu berrietatik. Hori zioten hemengo karlistek eta halaxe ikusten zuten gure egoera kanpoko politikari eta ideologoen.

Eskola, eta ondorioz, hizkuntza, gudazelai izango dira bi aldeetakoentzat. Moyano-ren Irakaskuntza Legeak (1857), euskal lege zaharren kontra, eredu berria ezarri nahi zuen: “obliga a que las localidades se vean en la precisión de aceptar maestros extraños al idioma vascongado, cual si se tratara de hacer desaparecer el vascuence”, kritikatzan zuen Artiñakok legea. Bi aldeetan, ohartuta jokatu ziren hizkuntzaren honetan, bientzat zen eginkizun politikoa. Hizkuntzaren balioespen politikoa idazleen artean ere agertzeak ez gaitu, honezkero, sobera harrituko, maite zen zerbaiten defentsa-bide naturala baitzen, gure erakundeen kontrako eraso idatziak eta ahalegin politikoak begi-bistan zeudenez.

5.2.1. *Juan Ignacio Iztueta (1767-1845)*

Herritasunaren oinarrietan dauden funtsezko balioetarako geroz eta kontzientzia ernaiagoa erakusten digute euskal idazleek, eta are gehiago hemeretzigarrenean. Zentzu honetan Iztueta hizkuntzari begira pauso berri bat emango duen lehenengoetakoa da.

Maite zuen Iztuetak gure herria, bere balio etnokultural guztietan: dantzak, musika, historia, foruak, hizkuntza... Zenbait euskaldunek bere hizkuntzarekiko zuen mespretxua eta higuina haserre salatzen zituen zaldibiarrak. Eta iseka egiten du jakinduria berriak euskal liburuak irakurtzeko gai egin ez dituen horietaz. Iztuetarentzat, euskara zabarki bazterteak ez dakar jakinduria hoberik, modernotasunak ez baitu berez geure hizkuntzarekin konpondu ezinik.

Baina Iztuetarenean beste zerbait dago hemen azpimarragarriagoa izan daitekeena: euskal erakunde politikoen etorkizuna ere hizkuntzaren bizitza sozia- larekin lotzen du Iztuetak. Kardaberazek kristau etorkizuna euskararekin lotzen zuen bezala, edo zenbait karlistentzat kontrol-segurtasun bat zen gisara, Iztuetak Foruen geroa ez du hizkuntzarenetik aparte ikusten. *Gipuzkoako Kondairan* honela dio: “Euskara il ezker, Fueroak ez dira biziko; [...] Fueroak nai dituanak, maite izan bear du euskara”. Konbentzimendu hau oso errotua zeukan, nonbait, idazleak, ondorio horretara iritsi aurretik zera idazten baitzuen: “Jakinarean gainean bizi gaitezke bada Gipuzkoatarrak ezen Fueroak gordetzeko bilatu al gentzakean eldu lekuriik oberena ta seguruen dala, Euskarazko izkuntzari ondo kontu egitea”.

Horregatik, barruan eskatzen zion euskal lanari berak ere ekitea. Eta ezjakina izanik, idazlanetan sartu bada bere burua nolabait zurrizearren zera dio:

“Bainan, nere jaioterriko oitura garbiai; eta jaiotzako izkuntz gozoari dioteran amodio irazekiak murgildu nau ez dagokidan beargai gaindiro oni egitera”.

Ez dago dudarik, Larramendik ere euskal nortasunaren salbabidea edo hon-damendia funtsezko beste euskal balio guztiekin batera, bere osoan, ikusten zuena: ahalegin berdintsuarekin defendatu zituen hizkuntza eta erakundeak aldi berean. Hala ere, dakidanez, hizkuntza Foruen segurtabide ezinbesteko bezala Iztuetak eman zuen lehenengoz.

Azpimarragarria da Iztuetaren iritzi politiko hau. Hizkuntzaren arazoa tes-tuinguru politikora garbiki heldu dela, esan nahi du.

Iztuetaren luman, euskararen ardura alor literario batera ere pasa zen: nahi-ko poema luzea utzi zigun, Onaindiak “Gure euskera maite” bezala emana. Azken urte haietako eztabaidak gogoratuz, harro eta itxaropentsu agertzen da olerkaria, euskarak jasan eta gainditu zituen erasoen aurrean.

“Alegiñak aundiak txit egin dituzte,
Galduko dutelako; bañan ezin dute
[...]
Naiz joan batera ta naiz joan bestera,
Nonnai aurkitutzen da argiro euskara.
[...]
Euskara Piztea da erdaldunen miña;
ez dakit nondik duten orrelako griña”.

Bi ideia dira poesian zehar nagusi: Euskara oso bizirik dagoen zerbait da; eta, erasoak izan arren, arrotzen asmoen kontra gauza da garaile irteteko. Baikortasun hau ez zen gertatuko XIX. mende hartan euskaltzale kezkatu guztien sentiera.

5.2.2. A. Pascual Iturriaga (1778-1851)

Hernaniarra zen Iturriaga, XVIIIan jaioa, baina bere heldutasun osoa XIX. mendearen lehen erdian eman zuena, apaiz eta maisu bezala. Xehetasun argi gehiegirik ezagutzen ez bada ere, badakigu betekizun publikoetan esku hartu zuela. Erbestealdi bat ere jasan zuen, lehen karlistaldiaren garaian (1834-1840); Iturriaga apaiz maisua ez zen nonbait ideia liberal berrietatik urrutiegi ibili, eta *Trienio Constitucional* delakoan (1820-1823), irakaskuntzari begira zenbait aholku-zerbitzu eskatu zioten agintariek. Hala ere, itxura guztiz, ez zen garbiki inolako alderdiren lagun izan. [N. B.: Zalbide, M., 2007, “Pedagogoa Batzar Nagusietan. Hizkuntzen azterbideak, Iturriagaren argitan”, *Euskera* 52, 2007-I, 61-157].

Hemeretzigarren mendearen lehen hamarkadetan hiritar eskolatu aurrerazaleek zituzten ideiak zituen Iturriagak. Hain zuzen, idazle irakasle hau lanean bete-betean ari zen urteetan burutu zen, azkenik, Gipuzkoan XVIII. mendetik amestutako Irakaskuntz Plangintza bat (1823-1824), lehen mailako eskolatarako. Eta aldi berean eman zen Madrilen Lehen Irakaskuntzako Egitasmo Orokorra. Gizartean eta Udaletan bizirik ageri zen kezka baten aitzindari eta zerbitzaria zen Iturriaga lehendik ere, berak Hernanin sortutako Eskolaren bidez (1817-1818. urteetan eraikia).

Eskola honetako egitaraua ezaguna da, eta berorren arabera badakigu ez zela han euskararik irakasten. Hutsune hauxe da Iturriaga bultzatuko duena pauso berri bat ematera: “Orain dala zazpi urte umetxoekin denbora igarotzen nuenean ezagutu nuen zer erokeria andia egiten zan emengo eskoletan erderaz gaztiai irakurtzen erakustearekin, izanik mila bider errazago euskeraz ikastea eta erakustea”. Eskarmentu horren arabera, nagusitzen ari zen sistemaren barnean erdara irakatsi beharra zeukanez, zeregin horretarako tresna pedagogiko bezala hartu nahi du euskara. Hau da, batez ere, bere alde praktikoan Iturriagak dakarren proposamen berria, 1830eko *Memorian* esandakoen argitan begiratu behar dena.

Iturriagaren lana, bereziki eskola-lana izan zen. Bere ikastetxea gidatzen eta haurrak eskolatzen egindako lanak Iturriaga osorik markatu zuen: prestatuko zituen argitalpenak eskolaren zerbitzurako asmatuak ziren, eta eskolan bizi izandako esperientziatik dator batik bat euskararen eta erdararen arteko harremanak aztertzean erabiliko duen *diskurtsoa* ere.

Horrela, bada, Iturriagak eskola-liburuak egin zituen: *Arte de aprender a hablar la lengua castellana* (Hernani, 1841), *Dialogos Basco-castellanos* (Hernani, 1841) eta *Fábulas* (Donostia, 1841). Obra hauen erdal tituluak eta tituluetatik bertatik iradokitzen zaizkigun helburuak bakarrik ezagutuko bagenu, hizkuntza prozesu kolonial baten supiztaile bezala deskribatu beharko genuke Iturriaga. Baina goazen gure arazo honetan jakingarrienak diren beste idazlanak aztertzea.

Iztuetari egin zizkion eskutitzak eta Gipuzkoako Batzarrei prestatu zien *Memoria* (1830) dauzkagu Iturriagaren pentsaera politiko-linguistikoa ezagutzeko. Bigarren hori bereziki. Urte hartan, Arrasaten, Batzarrek “Comisión Auxiliar de la Diputación para el fomento de la industria, comercio y de la lengua vascongada” bat eratu zuten (Erro apologista famatuak eskatuta gehitu zitzaion hirugarren egitekoa Batzordeari). Beroni prestatu zion aipaturiko *Memoria* horretan, Iturriaga saiatzen da hizkuntzaren historia ikusbide zabalago batetik ere begiratzen eskolatik bakarrik baino. Esaten dituenak apenas iristen diren lan-programa oso bat izatera; baina agerian dago, bere eskasean ere (batez ere,

aginte politikoarentzat plangintza oso bat behar zela gogoan badugu), pauso berritzailea dela Iturriagak proposatzen duena.

Hizkuntzaren egoera orokorraz hitz egiten du lehenik. Apologiarena alferrikako lana izan dela dio; salakuntzari ez zaio falta ironiarik: “Mientras nuestros filólogos están haciendo la anatomía de esta lengua, se nos va escapando de las manos”. Hizkuntz atzerakada geografikoaz kontzientzia garbia zuen irakasle honek; bera inguru euskaldun batean bizi zen, Hernanin, baina ezagutzen zuen belaunaldi gutxiren buruan zer ari zen gertatzen Araba eta Nafarroako herrietan. Ez zaio falta, gainera, bi hizkuntzen arteko mugaldeen ikusten duen aldakuntza moldea salatzekeo deskribapen egokirik. Saiatzen da hizkuntz kolonizazioaren (hitza erabili gabe, noski) mekanismo arruntenak argitan jartzen, batez ere eskola-bidez eta eliz lanetan erabiltzen direnak.

Baldintza politikoek hizkuntzen bizitzetan duten eragina oso garbi atzeman du Iturriagak:

Si los países o provincias, en que las lenguas son diferentes, pasan a ser partes integrantes de un estado o nación, la lengua que adopta por suya el Gobierno, será la denominante porque todos los intereses y ventajas se reunirán para cultivarla y generalizarla. Prevalcerá pues, sobre todas las demás [...] y acabará por eclipsarlas hasta hacerlas desaparecer totalmente.

Eta, horrela, ez zen enganatzen euskaldunaren trantzeaz: zenbait egoeratan alfer-alferrikakoa gertatzen zaiola bere jatorrizko hizkuntza, interes materialak beste nonbaitetik doazkiolako (“consultando nuestras ventajas, procuramos nosotros mismos con todo el empeño, que ellos nos aconsejan, exterminarla de su suelo natal”).

Arrazoiketa salatari honen hurrengo urratsa –itxura guztiz politikoa espero zitekeena– Iturriagarengan pedagogiko soila bilakatzen da: eskolatik egoera linguistiko berronkatu bat itxaroten du, elebiduna, erdara eta euskara elkarrekin harmonia onean eramango dituen. “Ya que por la naturaleza de las cosas esta lucha es desigual (dío, euskararen galerak eta ezinak gogoratuz), y el triunfo ha de quedar para la lengua castellana, salgámosle al encuentro, recibámosla de paz”. Helburu hori lortzeko, “enseñeseles a leer en *bascuence*” esaten du maisu idazleak. Eskaintzen duen ikasbideari jarraikiz, ezin arbuatua den gatzelania ikasi egingo da, eta aldi berean “instruyendo desde sus primeros años a la nueva generación en la lengua de sus padres, contendrá en sus límites actuales los estragos, que va haciendo la castellana”.

Iturriagarentzat (1830ean gaude: oraindik ia 50 urte geroago Gipuzkoak euskaldunak izango ditu bere 176.000 bizilagunetatik 170.000) Euskal Herriaren etorkizuna onenean elebiduna izango da, nahitaez. Egoera berri horri aurrea hartu nahi zion, eskuartean zeuzkan tresna pedagogikoak erabiliz. Badirudi, ordea, irtenbide elebiduna –eskolaren bidez ahalik eta modurik orekatuenean gidatu beharko dena– ezinbesteko irtenbide sozial salbagarri bakar bezala ikusten zuela Iturriagak; inondik ere ez bere borondate hutsez berak nahiko zukeena, baina bai aldeaz aurretik ematen zitzaizkion baldintza bazterrezinei gaina hartzeko bide ustez egokiena. Ustezkoa diot, zeren galdera baten bidez (ez segur aski erretoriko hutsa, baizik eta agian baita etorkizunarekiko benetako zalantza pertsonal baten agergarria ere) agertzen baitu *Memoriak* etorkizunaz uste zuena:

¿Quién sabe si de esta hermandad [...] en que pusiéramos a las dos lenguas, que hasta ahora han sido enemigas irreconciliables, resultará que entrando la castellana por todo este país a paso franco sin inconveniente de ningún género, y sí con muchas ventajas de la vascongada, hará también ésta por su parte la reconquista de aquellos pueblos, donde hoy se halla agonizando, y en momentos de expirar?.

Iturriagak ongi zekien Euskal Herria euskalduna zena, eta euskarak ematen ziola gure jendeari batasun hertsia (“este vínculo, que tanto estrecha nuestro personaje y confraternidad admirable”). Baina baldintza sozial berriei hobeki eta praktikotasun egokituago batez erantzun ziezaieketen pedagogia eta eskola-antolamenduetan zuen bere itxaropena. Bestelako irtenbide erradikalagorik ez zuelako, edo eskatzen zitzaion *Memoria* batean besterik ezin zelako, edo eguneroko eskola-lanaren bidetik uste zindoegia zuelako..., hori da Iturriagaren proposamena. Argi dago, bere modura langile eta profeta aurreratu bat izan zela, baina intuizio bidez barrundaturiko hondamendiaren sakonari ezin zitzaion hipotesi elebidunzale horrekin aurre egin.

Dena den, euskararekiko kontzientzia hartzean ez ezik, hizkuntzaren praxi sozialean helmuga berriak eskaini zituen Iturriagak, maila bateraino bederen, kasik mende oso batez gerokoei aurrea hartuz. Bukatzeko, esan beharra legoke, kezka didaktiko hauetan Iturriaga ez zebilela bakarrik. Beste argitalpenik ere egin zen urte haietan eskola-mundua aintzakotzat hartuz (L. Astigarraga, 1825, urte batzuk lehenago; Goyhetché apur bat geroago, 1852). Baina Iturriaga da, eskola-sortzaile eta arduradun bezala, euskal gogoeta honetan, profesio bereko guztiei zinez, bide berri posible bat, esperientziatik hitz eginez, erakutsi ziena gure artean.

5.2.3. *Poesia, jakitatearen bila*

Hemeretzigarren mendera arte, hizkuntzak, kantagai bezala ez zuen leku handirik izan euskal poesian. Egia da, aipu-molde honetan –guztien aurreko– Etxeparek jarri zuela marka. Ikusi dugu harena. Gertuago Iturriagak ere utzi zuen zerbait, eta Iztuetarena aipatu berri dugu. Baina XIX-XXetan, euskal olerkariak behin eta berriz hartu izan dute hizkuntza, beren olerkigai bezala, eta gure egunetan lan hori Kanta Berriraino iritsi da.

Poesia erromantikoa indarrean zegoen hartan euskara poeta haien kantagai bilakatzeak ez gaitu batere harritzen: herri baten borroka armatuak, gure artean bizirik zeuden mitoek eta olerkariaren etorriak gairik franko topa zezaketen euskararen inguruan.

5.2.3.1. *Hizkuntza, olertian*

Hizkuntzaren gai honi poesian eman zitzaion lekua Hiribarren-engan ikus dezakegu berehala (1853); baina, puntu honetaz ari garenez, zilegi izan bedi arazoaz espresuki zerbait, bidenabar izan arren aipatzea.

XIX. mendearen erditik hona, emankorra izan da euskal poesia zerabilen hizkuntza kantatzen. Ipar-Hegoaldeetan, bietan, izan da hori horrela: Ibarret, Elizanburu, Zaldubi, Zerbitzari, Oxobi edo Iratzeder gogora genitzake Bidasoaz haraindi; Hegoaldean, halaber, erruz azaldu dira honelakoak: Arrese-Beitiaren lan osoan zehar dugu honelakorik, baina lehenagotik ere bada besterik (Manterola, Arzak).

Poesia bidez, euskarari buruz idatzi duen zenbait, beste kultur alorretakoa izan da berezikiago: bi Etxegaraitarrak (Karmelo eta Bonifazio) gogora litezke. Euskal Jaietara bidalitako lan multzo batek hizkuntza izan zuen ardatz. Inoiz poema luzeak egin dira gai honekin (S. Mitxelena: “Bizi Nai”, 1954), eta euskal literaturaren historia bete-betean pasatakoren bat ere badugu, Lizardiren “Eusko Bidaztiarena” edo “Asaba zaarren baratza” adibidez.

Bertsolariak ez dira alor honetatik urrun geratu; Elizaren hizkuntz jokabidea arakatzen duen Xalbador-en “Fededun erdaldu” bertsoak ekar genitzake, esate baterako. Hau dena, zabalegia da zehazkiago hemen eman ahal izateko, bai dagoen langai ugarien aldetik eta areago oraindik azterketa honi ezarri dizkiogun garai-mugengatik.

5.2.3.2. *M. Hiribarren (1810-1866)*

1853an, Euskal Herriaren poema epikoa izan nahi zuen *Eskaldunak* obra argitara eman zuen M. Hiribarrenek (1810-1866). Herrialdez herrialde, bailaraz bailara doa kantatzen gure herri osoa. Idazlan epikoa denez, gure euskal eta

erdal literaturetan ditugun ustekizun eta mitoak jasotzea barkagarri zaio olerkariari, izan ere hori gabeko poema epiko bat pentsaezina baitzen XIX. mendean. Hiribarrenek eta Orixek zerikusi gutxi dute alde honetatik.

Hiribarrenen idazlanean “Eskaldunei bi hitz hastean” atarikoak du guretzat interes berezia, zeren poema batean espero ez genitzakeen gogoetak eskaintzen baitzaizkigu. Lehenik, frantses eskolaren kontrako salakuntza topatzen dugu berehala, eta eskola horrek bi hizkuntzen artean ezarri zuen bidegabeko trataera ezberdina: “Haur osteak ikusi, buraso gastutan, / Urthe multzu egoten eskola handitan / Mihi arrotz zenbeitez ikhasi mintzatzen / Eskaraz jakin gabe kasik irakurtzen”.

Hau da, frantsesaren zerbitzuan ikusten zuen osorik eskola, euskarari zerbitzurik oinarritzkoena ukatzen zion une berean. Baina eskola-antolamenduauren aurkako salakizun honen ondoan, beste bat botatzen zion aurpegira Hiribarrenek gure jendeari, hau da, hizkuntzarekiko ardua eskasa eta euskaldun batzuren baitan ageri den mentalitatea: “Zenbatek jakitea eskara herriko / Ezbaitute kondatzen bi arditendako!”. Eta ondoko herrien burubidea gogorazten die poetak horrelakoei, eredu eta zirikagarri bezala, bakoitzari bere izena emanez:

“Espainolek espainol nahi dute jakin,
Franssek ere franses bere arantzekin;
Zertako Eskaldunak utziren eskara,
Bilhatzeko non gasta bertzetan denbora?”.

Eskolak inposatu nahi zuen hizkuntz egoeraren barnean beste datu kultur-sozial batzuk gogoan ditu poemari hasiera ematean. Olerki batean, *lekuz kanpo* egon litezkeela pentsa genizakeen ondoko datuok, horregatixe ere, esanahitsua goak dira hemen: “Dirurik ez duenak ezin ikhas deusik, / Sosa gabe es baita eskola fransesik; / Liburu on guzia fransesez egina; / Soseko liburu bat gabe Eskalduna!”.

Beraz, bi puntu ditugu hor salatuta: egiten zaigun injustizia bera garestia dela eta geuri ordainarazten zaigula, eta, bigarren egiaztapena, liburu onik gabe aurkitzen dela euskara eskola-uholde frantsesari erantzun ahal izateko. Liburuaren gai honek benetan kezkatzen zuen, nonbait, Hiribarren arazoaz luzatu egiten baita, eliz liburuez eta erdal liburuen mezu ideologikoaz bere iritziak emanez. Iparraldeko une historikoarekin lotuta dagoen (eta hogeita hamar urte geroago areago ozpinduko den) egoera ispiatzen da hemen. Dena den, eskola-liburuaren garrantziaz bazuen kontzientziarik Hiribarrenek. Honela, Hiriba-

rren eta Iturriaga, elkarrekin kezka berean kideko ikusten ditugu idaz-mota hain ezberdinetan saiatu arren (poema bat eta ikasliburuak).

Jakitarearen grina azaltzen zaigu indarberrituta. Euskaldunak jakituna izan behar du, dio *Eskaldunak*: “Populu guzietan lurreko lehena / Ezin jasan diteke gutien jakina / Iharrus, Eskaldunak, zuen ilhunbeak, / Abia ordu luke argien mendeak”. Badirudi, karlistada luzeak eman ez duen garaipena, “argietatik” etor daitekeela.

5.2.3.3. J. M. Iparragirre (1820-1881)

Jose Mari Iparragirrek (1820-1881) maite zuen herria, maite zuen euskara, biak batera maite zituen. Foruak eta hizkuntza elkartuta ageri zaizkigu Iparragirreren bizitzan: Gernikako Arbola eta Moraza kantatu zituen alde batetik, euskara eta Aizkibel bestetik.

Galtzen ikusten zuen Iparragirrek euskara: “euskaldun onak arritzeko da nola ez diran lotsatzen”. Euskal Herriaren nortasuna maldan behera dihoala sumatzen du, nortasun hori hizkuntzaren bizitzan eta iraupenean oinarrituta ikusten baitu kantariak. Erregu batekin burutzen du abestia: “Arren, ez bada galdu euskera, / nere anaia maiteak! / Galtzen badegu... galduak gera / gu eta gure semeak”, “Gure euskera... ai! galtzen bada / gu... euskaldunak ez gera!”. Belaunaldi gutxiren buruko hondamendia izan liteke hori, “ola bagaude, eun urte barru / galdu da gure izena!”.

Alde ezberdinetatik, bere aurrekoekin (Ulibarri, Iztueta, Hiribarren) eta garaiko jakitun euskaltzaleekin harrigarriro elkartuta agertzen zaigu Iparragirre: 1) Bakea egiteko, euskara bilera guztietara eraman behar da (“Pakean bizitzeko / gure mendietan / euskera itz egin bear da / batzarre denetan”. Ulibarriren oihartzuna), eta 2) Hizkuntzari segida emateko, jakitunen itzal eta laguntzaren beharretan ageri zaio Iparragirreri Euskal Herria.

Nabarmena da iritzi hau hizkuntzari eskainitako bi kantuetan: “Gora Euskera” edo “Biba euskera” bezala ezagutuan eta “Arren, ez bedi galdu euskera” dioen abestian. Bi poemetan aipatu zituen jakitunak hauexek ditugu: Larramendi eta Astarloa, Erro apologista eta hemen berezikiago interesatzen zaizkigun Aizkibel eta Luis Luziano Bonaparte. Horiengan jartzen du itxaropena, Aizkibeli buruz zera baitio, haren bizitza langilea gogoratuta: “lanean gau ta egun / gure euskera maitea / galdu ez dezagun” eta, “errespeta dezagun gure maisua”. Azkenik, “Erro, Aizkibel ziran bezala / erakusterik gaur ez da” kantatzen zuen ilunki Iparragirrek.

Urretxuarraren ahotsetan hizkuntzaren sentipen agonikoa agertzen zaigu. Gerratea bizi izan zuen, ondoko galerak ere bai; herriaren lozorroari astindu

bat eman nahi zion, arriskuak non zeuden erakutsiz. Bazuen Iparragirrek, hizkuntzaren behera-beharraren zentzu historikoa; bazekien hizkuntzaren bizitza soziala zerbait aldakorra zela. Herriaren eta euskararen izatea denboraren katean ikusteko dohain argia zuen kantariak: aurreko belaunaldietako jakitunak gogoan ditu, orainaldia deskribatzen du, *Kondaira* aipatzen... Etorkizunaz kezka ageri zaigu Iparragirre.

Herriaren hizkuntz kontzientzia iratzar dadin, jakitunen lana eta iritziak abestu zituen kantari-poetak. Bortizki jaurtitzen du bere deiadarra: “Gora, gora euskera! / Biotzean gurutza, / eskuan bandera, / esan lotsarik gabe / euskaldunak gera!”. Jakitun handien burubidea erakusten dio ernai eta ohar-tuta nahi lukeen euskaldun herriari. Egoki izango da, bada, garaiko bi jakitun hona ekartzea: Aizkibel eta Bonaparte Printzea, biak Iparragirrek miresmenez abestuak.

5.2.4. *Jakitunen inguruan*

Aizkibelen omenez sortutako “Gora Euskera”, Iparragirrek Tolosan argitaratu ematen zuen urte berean (1856), hark Madrilen *De la lengua Euskera, o de los Vascongados* eman zuen. Bi argitalpenak kezka beraren fruituak ziren, eta 1854eko Hezkuntzako Dekretuei egiten zitzaizkien kritika-giroan koka liteke Aizkibeli kantariak eskaini zion olerkia.

1856an, Jose Frantzisko Aizkibel (1798-1865) ez zen ezezaguna Euskal Herrian. Alderantziz, aspaldidanik sona handia irabazita zuen hemengo ikastunen artean, eta ordurako bazuen hainbat argitalpen eginda. Kultura ederreko gizona zen azkoitiar hau, Europan zehar oso ibilia. Toledon bizi izan zen, urtetan; han bildu zuen euskal biblioteka ugaria. Euskal idazletzat eman ez dezakegunez, ez dugu deus handirik esango hemen; baina, badu interesik, batez ere Iparragirre bezalako batek jakitun eredu bat non ikusten zuen jakiteko. Eta ez Iparragirrek bakarrik, baita urte-sail bat lehenago Ulibarrik ere, 1833an besakada liburu eman, oparitu, zionean horrela hiztegi berria lehenbailehen buruz zezan (Aizkibelen hilondoan, hogeitau urte geroago, 1885ean kaleratu zena).

Urte hauetan nabariagoa da bertoko eta kanpoko jakitunen lanen presentzia eta hainbat sektore sozialetan horri ematen zaion garrantzia. “El único documento fehaciente de su [de la nación Euskalduna] independencia es la misma lengua” idatzi eta Aizkibelek zera gehitu zuen: “de un siglo a esta parte [la lengua Euskera] va adquiriendo cada vez más importancia, particularmente en el extranjero, donde se aprecian más los conocimientos en toda clases de ciencias”. Gure bertoko euskaltzaleentzat kanpoko jakitunen oniritziak —berriz ere— Espainiako eraso guztien kontrako balio berreslea zekarren. Honelako la-

guntzetan, burutu zuen lanagatik eta hemengoan artean bildu zuen lankidetzazabalagatik, lehena Bonaparte Printzearena izan zen.

Luis Luziano Bonaparteren (1813-1891) lana honela laburtu da: “Hizo cinco excursiones lingüísticas al país [...], de 1856 a 1869. Se hizo con una colección de más de 800 obras, y, en fin, de él se ha dicho que sabía el vasco como nadie lo ha sabido jamás ni probablemente lo sabrá” (L. Villasante). Euskaldun fin askok ikusi ahal izan zuen jakitun gidari eta langile baten inguruan nola lan egin zitekeen plangintza luze baten barnean, eta, norbera beretik, bata bestearen osagarri izanez, noraino irits zitekeen hizkuntzaren aldeko lanetan. Bestalde, hizkuntzaren bilatzaile suharra zen eta harixe zor diogu gure dialektoen *aurpegi geografikoa* (1861-1869).

Printzeak idazleen artean izan zuen oihartzun osoa hemen jasotzea ezina da; lekuko bat nahi balitz, hona Daskonagerrek 1866an idatzi zuena:

Gure mintzairaren aberastasunak zaitu zu ere gureganatu, eta zure Euskaldunen arteko egoitzak irabazarazi zaitu betikoz populu horren ezagutza biziena: zorionez gaintutua da ikusteaz haren mintzaira ikasmenetan hartua printze batez, zeinaren jakitate handiak berregintza geihagoko bat eman baitio.

Ez dugu ahantzi behar Napoleon III.aren (1852-1870) familiakoa zela Luis Luziano, eta Hegoaldean euskal erakundeak erasoak ziren garai berean iparraldetik zetorrela Frantziako boterea eskuetan zuenaren odoleko Printze hau. Ez zen babes kaskarra.

Campión-ek ere bere *Gramática* (1884) Printzeari berari eskaini zion, harekin zuen zorra nolabait kitatu nahirik:

Dignaos permitir, Monseñor, que proclame una vez más esa solidaridad entre la ciencia bascófila y vuestra persona. Es lo menos que pueden hacer los que, como yo, han aprendido mucho en vuestros libros, y saben cuán de corazón amáis á la Euskal-Erria, puesta nuevamente en predicamento de los sabios, merced á vuestros admirables trabajos.

Printzearen diruari eta eragimenari esker, hainbat obra berri prestatu eta argitaratu ahal izan ziren euskaraz. Hemengo idazle goak gertutik ikusi eta gozatu zuen hori. Printzearen inguruan bildu zirenek errenkada ederra egiten dute: Intxauspe, Duvoisin, Uriarte, Otaegi, Etxenike... 1860-1870etako hamarkadan bazirudien, benetan, hizkuntza idatziarekiko ohitura berri bat finkatzera

zihoala; baina 1870eko gerrate laburrekin, Printzeak bere baliabide ekonomikoak galdu zituen, eta Hegoaldean berehala lehertu zen azken karlistada (1872-1876). Aro berri eta malkartsu baten aurrean zegoen Euskal Herria.

Giro honetan ez da bazterrera utzi behar beste pertsona goren batek eratutako hizkuntzaren aldeko ekintza bat, urte hauetantsu hasita (1853) Iparraldean eta gero Bidasoaz hegoaldera, agertu zen fenomeno sozial interesgarria: Euskal Jaiena, Antoine Abbadia izan zen hauen sustatzailea. Hauetan praktika sozial berria sortzen zaio hizkuntzari, euskal kontzientzia idazle eta herritarrengan alda zezakeena.

5.3. Eusko Pizkundearen lehen pausoak (1876-1900)

Hizkuntzarekiko kontzientzia hartze honetan, gizartearen eta beronen egoera linguistikoaren arteko egin-eraginek konplexutasun nahasiagoa eta aberatsagoa hartzen dute azken karlistaldiaren ondoren. Gerra galdu da, jatorrizko erakundeak galdu dira, armatan ibilitakoak galtzaile itzultzen dira etxera, edo erbestea dute ihesleku... Armek eta politikak ez dute Euskal Herria salbatu. Beraz, beste biderik bilatzen hasi beharko da gure funtsezko balioak aurrera ateratzeko. Badugu belaunaldiz belaunaldi segida garbia izan duen herria, badugu historiarik, ez zaigu falta jatorrizko hizkuntza ongi berezia...

Hizkuntzari gagozkiola, Hegoaldean ere badago mende oso baterako tradizioa duen literatura. Euskara gorde den lurraldeetako biztanleriak badaki euskaraz; oraindik 1876an ez zen iritsi Iraultza Industrialak ondoko hamarkadetan ekarriko zuen etorkinen uholdea, eta euskarak badu berea duen eremu trinko eta zindoa.

5.3.1. Taldeak. Ekintzak

Karlistada amaitu eta Foruak galtzean, hizkuntzaren inguruko gertakari sozialek geroz eta gorputz handiagoa hartu zuten. Euskal Jaiak Hegoaldean ere hasi ziren (Elizondo, 1879: Arrese Beitia-ren poesiarekin eta "Asociación Euskara de Navarra" antolatzaile dela); argitaragabeko obra nagusi handiek argitalpen-bidea aurkitu zuten, erdarazkoak ez ezik baita euskarazkoek ere (Henaok, Larramendik eta Astarloak, Moglek ere bai); hizkuntzaren ingurumarian dabilzan obra maisuak ez dira falta (Manterolaren *Cancionero*, 1877tik aurrera). Laster oinarri praktikoko berrituak ere eman nahi izango zaizkio hizkuntzari: Campiónen *Gramática de los cuatro dialectos literarios* agertuko da (1884); hurrengo urtean Aizkibel zenaren *Diccionario Basco-Español, titulado Euskeratik Erderara biurtzeco Iztegia* (1885).

Mugimendu bat agertu da, geroz eta argiago, hizkuntzaren alde. Guztiaren eragile bezala, talde berriak aurkitzen ditugu. Lehenengo Nafarroan, Iturralde eta Campi3n buru direla “Asociaci3n Euskara” jaiotzen da (1877), eta badu aldizkaria ere, *Revista Euskara* (1878-1883). F. Herr3n-enak bizitza laburragoa izan zuen Gasteizen (1879), baina Manterolaren *Euskal-Erria* donostiarra luzaroan eman zen argitara (1880-1918), nahiz eta sortzailea gazterik hil (1884).

Urte haietako lan gaitza aurrera ateratzeko gizartearen sentiera bizia eta lankidego ugaria behar-beharrezkoak ziren. Klase herritarrak “faltos de una conciencia nacional en el sentido contempor3neo de la palabra, no se hacían formulaciones de este tipo [Euskal Herria arma bidez konkistatua bezala ikus-teaz, alegia]. Pero la mentalidad de derrota y amargura estaba muy extendida. Poetas y bersolaris nos han dejado testimonios de estos sentimientos” (Beltza). Hizkuntzara itzuliz, Arzak-en “Iltzen bazaigu ama Euskera, Euskaldunak, illak gera” hura (1881) ez da adibiderik txarrena.

Kultur mugimendu honen barnean ezin zitekeen hizkuntzaren arazoa ohar-tu gabe pasa. Defentsa on baten antolamendurako erakundeen jabetasuna gal-duta, soldadutzak gazteak erdal-herrietara eramaten zituela, eskolan maisu er-dalduna nagusi zela, etorkizuna beltz ageri zen. Gertatzen ari zenaz ohartuta zegoen jendea: “Se puede [...] admitir que hacia finales del siglo XIX la escuela p3blica y los maestros formados en las Normales [Donostian, 1865ean sortua bat] han dado ya su car3cter dominante a la educaci3n destinada a erradicar el euskera” (Beltza). Testuinguru eta arazo hauekin birpentsatzen da hizkuntzari euskal gizartean dagokion betekizuna; baina birdefinizio hori herri-nortasuna-ren birdefinizioarekin batera eman beharrekoa gertatzen da.

5.3.2. *Arturo Campi3n (1854-1937)*

Nafarroan, aitzindari bezala, Arturo Campi3n (1854-1937) daukagu “Asociaci3n Euskara de Navarra”n bizi izandako mugimendu euskaltzalearen bazkide ezagunena. Honen idazlanak milaka orrialde jakitun eta suhar ditu. Euskaldun berria zen, eta obrarik gehiena gaztelaniaz utzi zigun. Luma-gizon eta ikertzaile bezala bizitza luzea izan zuen; alderdi politikoetatik aparte jardun zuen lanean, inoiz politika zuzenean parte hartu arren. Baina hainbat erakunde kulturaletan egon zen, eta beti etenik gabeko lanean batez ere. Aski da Campi3n-en argitalpen-kronologia begiratzea, norainoko langilea zen jakiteko.

Ez ziren osorik bat etorri S. Arana eta Campi3n; baina hark piztu eta gidatutako abertzaletasunetik, oro har, hurbil sentitu zuen bere burua. Euskal Herriaren oinarri nagusi guztiak aztertu zituen: historia, erakundeak, zuzenbidea, hizkuntza, politika...

Su angustia patriótica le lleva a plantear en los más variados matices los problemas pendientes de la sociedad vasca [...]. Campi3n unía en su mente la subsistencia del pueblo vasco a la del euskera. Intensamente preocupado, desde muy joven, por el porvenir político de su pueblo, dedicóse con afán al estudio de sus valores nacionales, comenzando por aprender su idioma (M. Irujo).

Hizkuntz arazoari eskaini zizkion orrialdeak bi moldetan landuak dira: lan literarioak (eleberrri, ipuin, kazetari-lanak, etab.) eta gramatikari buruzkoak (gramatika ezaguna batik bat). Baina azpimarratzekoa da *Gramática de los cuatro dialectosen* (1884) zabaldu nahi izan zuen mezu politikoa ere (ik. “Advertencia”, “Introducción” eta “Addenda et Corrigenda”).

A. Campi3n saiatu zen, bere garaian Europan hain bizirik zegoen *nazioen arazo*a ezagutzen, herrien historia eta teorialarien ideiak aztertuz. Hauetako baten pasarte da hau, Munich-en eta Heidelberg-en irakasle izandako J.C. Bluntschli (1808-1881) legegizon famatuarena: hain zuzen, berau izan zen herrien zuzenbidearen nazioarteko institutuaren sortzaileetako bat. Pasarte, 1875-1876etan argitara emandako liburu batetik hartua da:

La lengua es el bien más esencialmente propio del pueblo, la manifestación más neta de su carácter, el lazo más fuerte de la cultura común. [...] El Estado no tiene el derecho de arrancar a un pueblo su idioma, ni de impedir su progreso, ni su literatura [...]. Proscribir de la Iglesia y de la escuela la lengua de un pueblo civilizado es una amarga injusticia.

Campi3nen lan literarioetatik hemen aipatuko ditugunak zerak dira: “Oken-doren Eriotza” (1883), *Blancos y Negro*seko (1898) Martinicoren historia eta “El último tamborilero de Erraondo” (1918). Campi3nek irudimen literarioa erabili zuen hizkuntzaren egoera eta atzerakada, errealitate soziolinguistikoa, ispilatzeke: “Esta leyenda, ideada por Arturo Campi3n, refleja la más pura realidad. Es la historia de la pérdida de la lengua en extensas zonas de Navarra” (L. Villasante). Campi3nek laburki deskribaturik ispilatzen du egoera bere lanetan: “En Alaba la vida del euskara agoniza; en Nabarra la extensión territorial que aún ocupa es grande, pero el castellano hace lamentables progresos”.

Campi3nek hizkuntzaren alde nazionala argi ikusi zuen. Gainerako balio zientifiko edo hizkuntz gaitasuna ukatu gabe (alderantziz, ongi azpimarratzeaz gain), hizkuntzaren betekizun nazionala ongi azpimarratuta utzi nahi izan zuen:

“Habla la lengua euskara por una raza de origen desconocido, de filiación ignorada...” dio, hau da, Campión betidanik ezagutzen dugun baieztapen batetik hasten da bere gogoeta azaltzen. Eta arrazoiketari bere segida emanaz zera dio: “pero este aliciente es general, meramente especulativo y únicamente requiere para manifestarse afición a cierta clase de estudios [...]”. Hau da, euskararen jatorri misteriotsuak jakin-min direnak erakartzeko balioko luke, filologia egiteko, zientzia lanetarako erakarmen berezia izan lezake. Baina hori ez zaigu aski.

Para nosotros, en efecto, el euskara es algo, mucho más que un instrumento de investigaciones científicas [urrun dabil Campión, apologista zaharretatik ez ezik, linguista huts direnengandik]; es la lengua de nuestros padres y á adorarla nos lleva el sentimiento natural del amor hacia las cosas nativas. Es un testimonio vivo y fehaciente de nuestra jamás domada independencia nacional; y es el elemento que tiende á diferenciarnos, á dotarnos de fisonomía propia, y por lo tanto, á crear obstáculos á nuestra completa asimilación, desde hace tanto tiempo perseguida y puesta en práctica por tan arteros medios. Por eso dije yo [...] con exageración poética en la forma, pero con incuestionable verdad en el fondo: cada palabra euskara que se pierde, se lleva un pedazo del alma nacional.

Hizkuntzek naziotasunari ematen dioten nortasun bereziaz eta konkistatzaileek horregatixe haiek deuseztatzeko egin ohi dituzten ahaleginez, horrela dio Campiónek, Galesen Enrike VIII.ak egindakoa gogoratuz:

La conducta de Enrique VIII con los habitantes del País de Gales [Kymruera hizkuntzaren debekuak] ha sido practicada constantemente por todos los conquistadores; la lengua nativa es un poderoso elemento de diferenciación, y he aquí el motivo de que sea por ellos perseguida.

Jokabide zapaltzaile horren ondoan atzerriko eta bertoko jakintsuen errespetuzko burubidea begiratzen du, Espainiakoen eskastasunak argitara ekarriz. Baina Campiónen salakuntzak ez doaz politika horren kontra bakarrik; euskal gizartean bertan dauden utzikeriak ere salatzen ditu, klase sozial nagusien jokamoldea itsustuz:

[...] la lengua euskara, perseguida brutalmente por la tiranía de los gobiernos centrales [...]. Y no es eso lo más triste, sino que aquí, en el mismo país, hay hijos espúreos que la combaten o escarnecen y clases

enteras –llamadas altas, tal vez, porque en el deshonor y carencia de patriotismo hay también jerarquías– que tienen la insolencia de desdenarla.

Gramática inprimategian sartu eta azken probak zuzentzeko tarte horretan, ez zegoen Campión lasai eta esandako honi kasik sei orrialdeko oharra erantsi zion liburuan: “Es tan íntima, tan profunda, tan completa la conexión reinante entre un pueblo y su idioma que, sin exageración ha podido decirse: cambiar de lengua, es cambiar de alma”. Europako herri txiki eta handien hainbat adibide bildu ondoren, ondorio honetara iritsi zen idazle nafarra:

El bascuence puede salvarse... y salvarnos. Querer es poder. Su muerte no hay que atribuirle a la intervención de una ley fatal, superior á las voluntades de los hombres. La carencia de sentido jurídico de los Estados españoles y francés, auxiliada por la tibieza de nuestro patriotismo, serán los causantes.

Campión, XIX-XX. mendeetako nazionalismoen artean dago, bete-betean (herri batzuei Estatuak sortu zizkieten nazionalismoen artean) eta mugimendu haietan *hizkuntz abertzaletasuna* dei dezakegun korrontean; Euskal Herriaren naziotasuna ulertzean, aberriaren funtsa hizkuntzan ikusi zuen. Orduetik hona indartuz joan den abertzaletasunean, kulturaren aldetik batik bat, lekurik jasoen irabazi zuen historialari eta gramatikari handiak. Beronen ondoan, garaikidea izan zuen, baina bizitza laburragoan euskal kontzientzia iratzarri zuen bizkaitarra jarri behar da: Arana Goiri.

5.3.3. *Sabin Arana Goiri (1865-1903)*

Campión baino hamar-hamaika urte gazteagoa zen Sabin Arana, eta hogeita hamalau urte lehenago hil zen, hogeita hemezortzi baino ez zituela. Bizitza labur horretan alderdi eta abertzale-mugimendua abiarazi eta gidatu zuen. Euskal nazio eta aberriaren formulazioa eman zuenez, hizkuntzaz ere eskaini zuen balioespen bat. Hemen ezin gaitezke sar formulazio sabindar horren barnean hizkuntzaren defentsak eta kontzientziak gainerako nazio-osagaiekin eta haren gizarte analisiarekin duten zerikusiak aztertzeraz; baina lan honen hariari jarraituz, premiazkoa dugu hizkuntzarekiko irizpen nazionalistaren berri ematea.

Campiónen gisa, Arana ere euskaldun berria zen, ez zuen euskara haurtzaroan jaso. Unibertsitateko lagunak euskaraz entzutean, miretsita, inbidiaz entzuten omen zituen. Hala ere, ikasi egin zuen euskara, baita hogeita bi urte

zituela euskal katedra baterako oposizioetan parte hartu ere (Bilbo, 1887), Azkue eta Unamunorekin batera. Kanpaina politikoen tartean, euskarari buruz ere hainbat lan tekniko ondu zuen. Lehenengo lan argitaratuak hain zuzen honelakoak izan ziren (1887-1888).

Sabin-ek, abertzaletasunaren maisu eta sustatzaile bezala, luma eta antolamendua, biak batera, erabili zituen euskal gizartean naziotasunaren kontzientzia pizteko. Urte gutxitan (1887-1903) milaka orrialde idatzi zituen Aberri aurkitu berriaren mezua zabaldu eta indartzeko. Orobat, haren pentsamendua, alderdi edo mugimendu baten bidez, gizartera pasa zuen, eta Euskal Herriko politikan hezur-mamitu da neurri batean. Batez ere, hari esker milaka lagunek kontzientzia hartze bat izan du, gure egunetara arte luzatu dena; Euskal Herria Aberri eta nazio bezala birdefinitua geratu da, Sabinen hitzaren eta ekintzaren eraginez. Eta hizkuntza, noski, nazio horren funtsezko osagai bezala. [N. B.: Hemendik sortutako tradizioari buruzko saio historikoa, Atxaga, M., 1996, *EAJ eta euskara*, Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa].

Aranak argitara eman zuen lehenengo lanean agertzen da hizkuntzaren balio nazionalaren baieztapena, garaiko testuinguru historiko-pertsonalean eta Donostiako *Euskal-Erria* aldizkarian emana (1886):

¡Dichoso el pueblo que conoce su historia! [...]. Sin detenernos a discurrir por las numerosas y útiles lecciones que desde hace algunos años particularmente nos suministra el andar del tiempo y el variar de las circunstancias, citaremos una cuya importancia es indudable: la desaparición del euskera, causa de inmoralidad, ignorancia y extravío de ideas [...]. En los naturales de las regiones [que] [...] han perdido su idioma, el carácter euskariano ha desaparecido en la mayoría y desfallece y casi muere en los que han conservado pura la sangre de su raza. El euskera es, pues, elemento esencial de la nación euskalduna; sin él, las instituciones de ésta son imposibles. La desaparición del euskera causaría irremisiblemente la ruina de aquella nación, que moriría como muere la hoja en otoño al ser privada por la naturaleza de la savia nutritiva... [...]. Irrecusable es esta consecuencia, y si a tiempo no empleamos todas nuestras fuerzas por salvar nuestra patria de tan fatal desenlace”.

Baieztapen honen ondoan, beste ideia baliagarri bat ere bultzatu nahi zuen Sabin-ek, hizkuntzari laguntzeko: Euskal Akademia batena. Une hartan, hain zuzen, Artiñanok horretarako landutako proiektu bat zabaldu zen Durangoko Euskal Jaietan. Asmo hau tarteko zela egiten zuen Aranak euskararen baieztapena.

pen nazional hori. 1882az gero abertzalea, nazionalista zen Sabineek eskaintzen zuen mezua zen, ez erabat berria, baina bai gizartea bera mugiaraziko zuen ahotsak zekarren mezua, jakin eta ekin egin baitzuen abandoarrak.

5.4. Ehun urte berri

Hizkuntzaren kontzientzia nazionalarekin, Euskal Herriko mugimendu politiko eta kultural abertzaleek abiada bizkorrago eta ohartuago bat eman diote euskararen aldeko lanari. Bitartean, ordea, gure demografia aldatu egin zen Iraultza Industrialak erakarritako etorkinekin.

Azkue eta Urkixoren gidaritzapean lan erraldoia egin zen: autoreon lan denak, alde batetik, Euskaltzaindia, Eusko-Ikaskuntza eta *RIEV* bestetik. Herritarrentzat eta jakitunentzat aldizkari geroz eta egokiagoak ezagutu ziren. 1918ko inguruetan, Herri Erakundeek ere ardura politiko berria erakutsi zuten euskararekiko, Estatutu-gaietara ere hizkuntzarena eramateraino.

Aitzolen inguruan talde eta ekintza bizigarriak eratu ziren. Garrantzizko izenik ez zitzaion falta izan hizkuntzari: Txomin Agirre, Lizardi, Lauaxeta, Orixe... Errepublikar-urteek egokiera berria eskaini zuten gure herriaren kontzientzia hartzea eztenkatzeko. Baina urte motzak izan ziren.

Franco-ren urteetako bestelako historia da (1937-1975). Gerra baten gaitzaileak nekez galtzen du gudazelaian zuen arrazoia eta kontzientzia. Barruan darama hori. Koldartu, beharbada koldartuko da, baina ikaratuen eta nekatuenari ere ez zaio agian barne-argi isila erabat itzaltzen. Eta, nolana ere, guraso nekatuen seme-alabak ez dira nekatuta jaiotzen, eta aurrekoen mezu isildua ezagutu egiten dute... Orduan hasi zen Euskal Herria, erbestean ez ezik, barnean ere berriz ibiltzen, are bizkorrago gerra bukatu eta hogeiren bat urteren buruan (1960...).

Aldizkariak, argitalpenak, bilerak, irratia... Bertsolariak, idazleak, argitaldariak, politikariak, eragile sozialak... Hizkuntzaren inguruko hainbat motatako lan: gramatikak, hiztegiak, metodoak, ikerkuntzak... Literatur lanak: nobela, saiakera, olerkia... Irakasmaterialak: haur, gaztetxo, helduentzat... Kantariak, diskoak, filmak, telebista...

Eta Ikastola: ehunka eta ehunka guraso, irakasle, milaka ikasle... Eraikuntza xume edo berri handiak... Ongi kostatako lan luzea. Azkenik, erakundetzearekin etorri den sorkuntza bizkorragoa eta berrikuntza... Euskara eskolara doa, eta telebistan dago... Hala ere, etorkizuna zalantzaz betea ageri da.

6. Azken begiratuan

Hizkuntzaren kontzientzia espiralean gora doan fenomeno da euskal idazleen baitan. Lehenengo geldiro-geldiro, baina geroz eta bizkorrago, aurrekoen baieztapenak aberastuz eta hobetuz.

Etxeparek, bere eta guztion lehen euskarazko liburua amaitzean euskararen jabe denaren harrotasuna sentitu eta kantatu zuen. Humanista garaile bat zen bera. Bere hizkuntza bazen, gutxienik, besteena bezainbat. Klaserik nagusienek ere ikasi ahalko dute euskara. Leizarragak, egokiera historiko berriaz baliatu nahi du: Jainkoaren Hitza emateko lain bada euskara (frogatu berri duenez), eta Erreforma herritartuaren barnean, gainerakoen parean paratzen du Beskoitzekoak. Hemen, printze eta buruzagiek, izan zuten lekurik euskara bultzatzen: behingoz arrazoia eman zitzaion Etxepareren itxaropenari. Hauxe izan zen lehen urratsa (1545-1600).

Bigarrena (1600-1700) hastapen horretatik beregaina da: Sarako Eskola edo taldea. Funtsezko baieztapen pare bat dakar: euskaldunek euskaldunei euskaraz behar diote egin. Esan egiten dute hori, eta egin. Gure ezberdintasunak ikusten zituzten, baina itxuraren aparra ziren horiek: barrutik euskara bat, herri bat gara. Eta, batasun horren gain hizkuntzaren araua ohartuki idazgarria da, euskaldun guztion onetan (Oihenart).

Hirugarren pausoa (1700-1766) Sinodalen aitopenearekin irekitzen da. Euskal Herrian euskaraz egiten da. Idazleek bazekiten hori lehendik ere. Horregatik, Iparraldetik datorrena (Etxeberri Sarakoa) ez da arrotza izanen Hegoaldean.

Urrats berriak ematen ditu doktore mediku honek: esateko dituenak oro euskaraz emango ditu, gainerako idazleei, zenbait ikuspegitatik, gutxienez mende t'erditan aurrea hartuz. Euskarak balio du latina irakatsi eta ikasteko ere. Hizkuntzaren maisu on batekin (Axular proposatzen zuen), urrun joanen da euskara: zernahi gauza eman lezake gure hizkuntzak.

Hori egia bihur dadin, gramatikak eta hiztegiak behar dira (Etxeberri egin zituen, baina ez oraindik argitaratu): Larramendik helduko dio egitekoari, plangintza zabal batez. Hizkuntzaren arautze sistematikoak, izen ona ez ezik, praxi sozial berriak piztu zituen, Larramendiren maisutasun eztenkaria lagun. Bada go hizkuntza *nazionalaren* baieztapenik, baina inguruak ez zion mezua horrela ulertu (haren idatzi batzuk isilpean gorde zirelako ere bai, noski). Nekazaritza, erlijioa eta euskalduntasuna elkarren artean korapilatu-korapilatuta geratu ziren: Kardaberazek eman zuen sozialki hobekien ulertu zen kontzientzia berria, justu, garaiko gidarien tamaina-tamainakoa zelako, zalantzarik gabe.

Jesulagunak iraitziak izatean, berrogei urteko parentesi bat dugu: Mogelek hasten du une historiko berria (1800-1876). Herritik dator hizkuntza eta jakinduria, eta biak elkartuta datozelako, herri-hizkuntza hori noranahi iristeko gauza da: balio du gairik jasoenetarako ere. Zientziak eragozpen berezirik gabe erabili dezake. Baina, horretarako, euskaldun *ikasien* erabakia behar da. Ulibarri autodidaktak (kasik Peru Abarka hiritartu batek) bere bizitzako praxian erakutsiko du noraino hel litekeen, baita politika (Iturriaga 1829, Ulibarri 1833) eta eskolara ere (Ulibarriren eskea, Iturriagaren praktika). Horrela, hizkuntz burubide honekin, salbatuko da Euskal Herria, betiere Foruak (= herri nortasuna) ezin gordeak baitira hizkuntzarik gabe (Iztueta). Euskal Herriaren nortasuna hizkuntzan dago, bada, hurrengoan ustez (Hiribarren, Iparragirre).

Baina, eta hauxe da azken pauso nagusia (1876-1886), gure herriaren nortasun- funtsa ez dago Foruetan bakarrik edo bereziki: Euskal Herria nazio bat da, eta gure nortasun nazionalaren zutoinetako bat da hizkuntza. Berau, gainera, funtsezkoena, beharbada. Hortaz, gure herritasuna salbatzeko, nazio izaten irauteko, hizkuntza nazionalaren praxi sozial osoa, molde berrikoa, eskatuko du abertzaletasunak.

UN SIGLO DE HISTORIA SOCIO-LITERARIA VASCA: A PROPOSITO DE *ORIXE ETA BERE GARAI* (c. 1860-1960)*

No es frecuente, en la labor editorial del país, la aparición de Obras Completas, y es, en verdad, *rara avis* —totalmente excepcional— la publicación de nada equiparable a lo que nos ofrece *Idazlan guztiak*, del escritor vasco Nikolas Ormaetxea, *Orixex*¹. Esta excepcionalidad —manifiesta, en cuanto se verifique el contenido de sus cinco grande volúmenes— nos aconseja la redacción de esta reseña.

Razones de carácter académico y social parecen urgir la presentación al público de estas obras completas: a) por una parte, en la edición se incluyen dos tomos de estudios sobre la obra orixiana, estudios que, no dudamos, han de ser un revulsivo para los futuros trabajos sobre Literatura Vasca; b) y, sin embargo, dado lo costoso de su adquisición (29.500 pts.: precio más bien recatado), nos tememos que la publicación puede llegar bastante lentamente al público interesado, que ya no puede ser, así lo creemos, tan reducido para contenidos tan de atención general como, de hecho, aquí se nos exponen. Así, pues, esperamos que los lectores de *RIEV*, atentos siempre a cuanto venga a significar progreso y mejora de nuestra vida cultural, agradecerán la presentación de estas obras completas.

* *RIEV* 38, 1993-I, 17-31.

¹ La obra en cinco volúmenes, que carece de título general único, comprende los siguientes encabezados: Ormaetxea, N. (*Orixex*), 1991, *Idazlan guztiak*, I: *Sorkuntzazkoak*; II: *Itzulpenak*; III: *Artikulu eta saiakerak*, Donostia: Eusko Jaurlaritza / Etor Argitaletxea. - El cuarto volumen recoge los estudios presentados en las efemérides conmemorativas del centenario en 1988: Varii, 1991, IV: *Orixex Mendurrena (1888-1988)*. *Hitzaldiak*, Donostia: Eusko Jaurlaritza / Etor Argitaletxea. - Por último, el quinto volumen comprende un estudio general único: Iztueta, Paulo, 1991, V: *Orixex eta bere garaia*, Donostia: Eusko Jaurlaritza / Etor Argitaletxea.

I. *Idazlan Guztiak*

La preparación de *Idazlan guztiak / Obras Completas* ha tenido un contexto conmemorativo propio, es fruto de una amplia colaboración y ha precisado de su principal responsable (P. Iztueta) y colaboradores una larga dedicación. A todo ello hay que añadir, además, el sacrificio decidido de la casa editora y el mecenazgo oficial del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco que coedita la obra.

En efecto, la idea de esta edición nació y tomó cuerpo en el contexto de las conmemoraciones centenarias del nacimiento de Nikolas Ormaetxea, *Orixe* (1888-1988). En *Idazlan guztiak* se articulan dos propósitos complementarios: en primer lugar, la edición aspira a rescatar y reunir de las hemerotecas y el extravío un patrimonio literario importante, pero quiere igualmente establecer una relectura del mismo en su diacronía propia y contextual, desde el saber actual acerca de un pasado literario aún vibrante entre nosotros. En ambos sentidos la labor llevada a cabo ha sido ambiciosa, y puede ser concluyente.

Al frente de los cuatro primeros volúmenes figura el equipo que ha posibilitado, con la búsqueda paciente y su crítica avisada, esta edición: bajo la responsabilidad general del Dr. Paulo Iztueta, un Consejo Asesor encaminó el proyecto de la edición (J. M. Aranalde, X. Azurmendi, G. Etxeberria y J. M. Lekuona). Hay que señalar también que EUTG (J. M. Lekuona) y UPV-EHU (J. M. Mujika, G. Etxeberria), junto con X. Azurmendi, coordinaron los ciclos de conferencias. El quinto volumen es obra directa y exclusiva del Dr. Iztueta.

I.I. Los tres volúmenes de escritos

Son los tres primeros volúmenes de la publicación los que acogen el conjunto de los escritos de Nikolas Ormaetxea, *Orixe*, en una trilogía que se completa del siguiente modo: I. *Sorkuntzazkoak* (De creación propia: 1002 pp.), II. *Itzulpenak* (Traducciones: 950 pp.), y III, *Artikulu eta saiakerak* (Artículos y Ensayos: 1.368 pp.).

El volumen primero incluye la obra en prosa y poesía: ésta engloba *Barne-Muinetan* (En la intimidad del alma: 1934) y *Euskaldunak* (Los vascos: 1935/1950), amén de toda la producción poética dispersa a lo largo de varias décadas, en el interior y en el exilio, hasta la muerte del autor (1961). Esta poesía, presentada con su correspondiente versión castellana, alcanza un considerable volumen de más de 600 páginas. La parte consagrada a la prosa reedita cuatro obras: *Santa Kruz apaiza* (1929), *Leoi-Kumea* (1948), *Quito-n arrebarekin* (1950-1954) y

Jainkoaren billa —ésta, publicación póstuma (1971)—, recuperando así la totalidad de la prosa original de Orixe.

En el segundo volumen se han agrupado las traducciones que llevó a cabo Nikolas Ormaetxea, a lo largo de toda su vida. La obra de traductor ha sido una de las facetas más características del empeño literario del escritor Orixe, y comprende igualmente poesía y prosa. Las versiones poéticas de Orixe (hechas en verso, excepto en el caso de *Mireio*: 1930) alcanzan a plumas tan variadas como Horacio, Virgilio, Prudencio, Manrique, B. de Alcázar, Fray Luis de León, Fray Juan de la Cruz, F. Mistral o Joan Maragall, sin que falten el Salterio bíblico o los Himnos de la Liturgia católica preconiliar. El volumen se completa con las versiones en prosa: *Tormes'ko Itsu-mutilla* (Lazarillo de Tormes: 1929), *Agustín Gurenaren Aitorkizunak* (Confesiones de San Agustín: 1956), la versión de los Evangelios (1967), la Regla de S. Benito (1980) y otras piezas menores (entre las cuales figura el capítulo cervantino intitulado “Donde se concluye y da fin a la estupenda batalla que el gallardo vizcaíno y el valiente manchego tuvieron”). Hay que observar, con el recopilador (I, I9), que se han excluido de esta edición algunas obras de características tan peculiares como *Urte guziko Meza-Bezperak* (1950), o el inédito *Officium parvum*. Se ha renunciado al propósito inicial de incluir en paralelo los textos originales de los escritos traducidos. El peso específico de esta labor de traducción en la obra total de Orixe queda suficientemente subrayado con decir que el autor es unánimemente considerado como un traductor-creador no superado en la historia de la literatura vasca, dotado de una pluma tan personal y recreativa que seguirá siendo objeto de obligado estudio, al menos en el campo de las versiones humanísticas al euskera.

En *Idazlan guztiak* es el tercer volumen el que presenta la aportación más novedosa en la tarea de recuperación de los textos orixianos: en su mayor parte, los artículos y ensayos recogidos en el mismo eran desconocidos hasta el presente, no sólo para el gran público, sino también para los especialistas. La labor periodística de Orixe fue considerable y apasionada, cargada con las inquietudes de cada momento, y, como se podrá ver, ha proporcionado a Iztueta (en el volumen V) el entramado con que reconstruir una historia intelectual jadeante cuyo interés no decae apenas nunca. Aparte los prólogos orixianos que se reúnen, este volumen —fundamentalmente periodístico, centrado en los periódicos *Euzkadi* (Bilbao) y *El Día* (San Sebastián)— se distribuye temáticamente del siguiente modo: Filosofía, Literatura, Lingüística, Folklore, Religión, Política, Pedagogía y Sociología. La creación periodística, compartimentada aquí por ámbitos temáticos, quedará más adelante expuesta en su sucesión cronológica general, dentro de la bibliografía final del quinto volumen (V: I.357-I.374). Por últi-

mo, junto a los artículos periodísticos y ensayos de diverso carácter publicados en su día, es preciso señalar la presencia de cuatro breves trabajos inéditos: la correspondencia filosófica con Mr. W. Viennot, un estudio sobre Bergson, unas reflexiones metafísicas y un ensayo crítico sobre *Itz-lauz* de Lizardi, no publicado por *El Día* (III, 19-102, 406-420).

Hay que recordar también una circunstancia peculiar de este escritor: Orixe redactó su obra en múltiples idiomas. Poseemos textos suyos en euskera, castellano, francés, latín, griego y hebreo; pero, sobre todo, fue —en ocasiones bien a pesar suyo— un escritor bilingüe vasco-castellano: de los 393 artículos y prólogos recogidos en este tercer volumen, 130 están en euskera y 263 en castellano (66,92%). Las explicaciones de este hecho las dio ya el propio escritor (V: 86-87, 515-531).

I.2. Estudios sobre la obra de N. Ormaetxea, Orixe

Con el cuarto volumen pasamos al apartado de estudios académicos sobre la obra y persona de Nikolas Ormaetxea. Los textos que se editan corresponden a la versión escrita de las conferencias que se impartieron en diversas poblaciones vascas a lo largo del año centenario, desde diciembre de 1987 a noviembre de 1988 (en las cinco capitales: Donostia, Bilbo, Baiona, Gasteiz e Iruñea, y en Oresa y Uitzu). No obstante, más allá de las efemérides conmemorativas, la amplitud y calidad de muchas de las investigaciones editadas en los dos últimos volúmenes ponen de manifiesto (en varios de los casos), la previa y prolongada dedicación personal del escritor a la investigación. Afortunadamente, la publicación ha podido beneficiarse, al mismo tiempo, de las aportaciones de especialistas anteriormente ya conocidos y de las de otros que se han consagrado al tema más recientemente, aunque no con menos intensidad y acierto.

Veinte profesores universitarios y otros estudiosos de la obra orixiana contribuyen con 27 trabajos a un mejor conocimiento de la misma. A las presentaciones institucionales (J. Arregi, I. Murua), siguen trabajos biográficos o autobiográficos (P. Iztueta, P. Altuna; J. M. Aranalde), de ubicación histórica (L. Otaegi, P. Charritton), de análisis de su pensamiento (L. Akesolo, X. Andonegi, I. Aldekoa), de crítica y examen de su obra literaria original (J. Garmendia: etnología; J. Kortazar, S. Onaindia y J. A. Arrieta: estilística; L. M. Mujika y J. Azurmendi: recursos y modelos literarios; J. M. Lekuona: poesía litúrgica y retablo de personajes y oficios; J. Otaegi: mundo épico orixiano; L. Villasante, P. Iztueta: la vivencia religiosa). En sendos apartados se estudia a Orixe en sus

vertientes de traductor (X. Mendiguren) y lingüista (P. Goenaga: gramática; J. M. Etxeberria: dialectología).

En el conjunto de estas investigaciones disponemos de un balance actualizado de conocimientos y valoraciones: a una revalidación matizada de múltiples aspectos de la obra orixiana acompaña también otra visión más crítica acerca de aportaciones sectoriales, tal sucede con el nuevo juicio que merecen sus estudios gramaticales vascos (P. Goenaga), o la modesta entidad filosófica que se pueda conceder a su pensamiento (X. Andonegi).

Aunque el esfuerzo hecho merecería aquí una reseña más pormenorizada, el espacio disponible nos lo impide en este caso. Quede aquí constancia de la mejora considerable que supone este cuarto volumen de *Idazlan guztiak* en cuanto a la comprensión más exacta de la prolongada y heterogénea –diríamos también que desigual– aventura literaria del escritor. Esperemos que ello contribuya a un creciente interés académico de la obra creada por Nikolas Ormaetxea.

Avanzando en esta exposición, creemos que el quinto volumen de *Idazlan guztiak* (*V. Orixe eta bere garaia*) rebasa ampliamente los límites, ya de por sí ambiciosos, de los estudios que figuran en el anterior. Y nos atreveríamos a otra afirmación más grave, aunque creemos que nada aventurada: por los objetivos propuestos y efectivamente alcanzados, lo mismo que, por el rigor y el amplio ángulo de visión, *Orixe eta bere garaia* rebasa con creces cualquier otro estudio sociohistórico jamás consagrado a un autor literario vasco. Esto es lo que nosotros hemos podido detectar en su atenta lectura. Apenas nadie, entre nuestros escritores vascos, podía dar lugar a un seguimiento histórico tan diverso y rico como Orixe, con una experiencia vital en que continuidades y rupturas se superpusieron y para el que la discrepancia fue condimento del pan de cada día. Y a tal señor tal honor: en este caso, Orixe tiene la fortuna de disponer de un analista porfiado y tenaz, equipado de una metodología rigurosa, voluntarioso hasta el agotamiento, dotado de una pluma expositiva atrayente. Para quien, como para este abajo firmante, la historia sociocultural del País (al menos en alguno de sus aspectos) es obligación profesional confesada, este quinto volumen ha resultado ser obra llena de novedad, coherencia, servicio y bien hacer. Permítasenos, pues, tratar más especialmente de él.

2. Rasgos y contenidos del volumen *Orixe eta bere garaia*

En nuestro contorno cultural, las dos últimas décadas han conocido ya la publicación de Obras Completas de diversos autores –euskéricos o bilin-

gües— del País². Ha habido esfuerzos enmiendables no sólo de compilación, sino también de estudio y análisis: un buen ejemplo que se podría destacar ha sido la edición de la obra de Aitzol (ed. Erein) con un pausado encuadre histórico-social y una exposición de su pensamiento y acción; en este caso, a la recopilación vino a acompañarle todo un tomo de estudios: “Biografía y rasgos mayores de su obra / Biografia eta bere ekintzaren alderdi nagusienak” (I: 5-333). Similares o más modestas ediciones, junto con otros estudios y tesis doctorales que se han venido elaborando³, han deparado la oportunidad para un mejor conocimiento de nuestro pasado cultural de la preguerra (Tx. Agirre, Lizardi, Lauaxeta, Aitzol).

En *Idazlan guztiak* de Orixe el tratamiento analítico de la producción escrita y de la personalidad del escritor reviste otra entidad. Ya de entrada llama la atención el volumen textual de las investigaciones presentadas en los dos últimos volúmenes (596 + 1.428 pp.). Y en *V. Orixe eta bere garaia* tenemos, además, una metodología sociohistórica inédita entre nosotros en cuanto a su sistemática y amplitud.

² Sin ánimo de ser exhaustivos al respecto, podemos recordar algunos casos. Por una parte, las de Larramendi están en curso de publicación (a cargo de J. I. Tellechea Idígoras, 1969-1990, San Sebastián / Donostia: Sociedad Guip. de Ediciones y Publicaciones. 4 vols. editados). Han sido publicaciones más inmediatas: Campión, A., 1990, *Obras Completas* (15 vols.), Pamplona: Mintzoa; Arana-Goiri, S., 1980, *Obras Completas* (3 vols.), San Sebastián: Sendoa. Ya en el campo más próximo de la literatura euskérica, contamos por ejemplo con publicaciones tan valiosas como las que siguen: Mitxelena, Salbatore, 1977-1984, *Idazlan guztiak* (2 vols.), Arantzazu: EFA. (Prestatzaileak: K. Iturria, J. A. Gandarias). Lekuona'tar Manuel, 1978-1987, *Idazlan guztiak* (11 vols.), [Donostia]: Gipuzkoako Aldundia / Kardaberaz Bilduma. (Prestatzailea: J. M. Lekuona). Charritton, Piarres, 1984-1992, *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak* (4 vols.), Donostia: Elkar. Akesolo, Lino, 1989, *Idazlan guztiak* (2 vols.), Larrea-Zornotza: Karmel Sorta. (Prestatzailea: Julen Urkiza). Ariztimuño, Jose (Aitzol), 1986-1988, *Obras Completas/Idazlan guztiak* (6 vols.), Donostia: Erein. Lizardi, Xabier, 1987, *Kazetari lanak*, Donostia: Erein. Lizardi, Xabier, 1989, *Olerkiak*, Donostia: Erein. Koldo Mitxelena/Luis Michelena ha merecido una doble atención en la reedición de su obra dispersa: la castellana o referente al euskera ha visto la luz en tres casas editoras: Paraninfo, Univ. del País Vasco, Diputación Foral de Gipuzkoa (Anejos ASJU), sin carácter, por tanto, de “obras completas”, agrupándose la obra euskérica en la colección “Klasikoak”: Mitxelena, Koldo, 1988-1989, *Euskal idazlan guztiak* (9 vols.), Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.

³ He aquí dos ejemplos referidos al Renacimiento Vasco: Toledo Lezeta, Ana M., 1989, *Domingo Agirre: Euskal eleberriarren sorrera*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia; Kortazar, J., 1986, *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*, Bilbao: Desclée de Brouwer.

2.1. Ordenamiento de materiales

El ordenamiento de los materiales en *Orixe eta bere garaia* (Orixe y su tiempo) —algo reiterativo en ocasiones, pero plenamente eficaz— se presenta en tres círculos concéntricos sucesivos que mutuamente se presuponen y superan:

- a) “Bizi-urratsak. (Azterketa historiko-biografikoa)” nos describe la ruta e hitos principales de la vida personal del escritor (21-172); es una biografía detallada, de ritmo vivo, a la que acompaña un apéndice documental referente a la exclusión de Ormaetxea de la Compañía de Jesús (a este respecto, el lector deberá remitirse también al trabajo de P. Altuna en el IV volumen, pp. 41-86).
- b) “Orixe eta gizarte-ingurua. (Azterketa soziologikoa)” comprende el grueso del texto (205-1.095) que nos expone un cuadro analítico del contexto social —activo y pasivo— en que nace y se expresa la vida y escritos de Ormaetxea. Manifiestamente, este segundo libro del volumen quinto ofrece el panorama de conjunto y el análisis puntual mejor trabados de todo el estudio.
- c) “Orixe mistikariaren bizipen erlijiosoa (*Quito'n arrebarekin irakurriz*)” nos pone ante la vivencia religiosa del místico Orixe (1.099-1.351), experiencia mística que en el pensamiento del escritor Orixe debe ser la cumbre y coronamiento final obligados de todas las realidades humanas, incluidas la estética y “verbal” (léase literaria). Una obra en prosa —singular por sus soluciones formales: *Quito'n arrebarekin* (En Quito con la hermana), 1950-1954— prestará la apoyatura necesaria para este análisis místico-literario.

Debemos subrayar la riqueza del andamiaje de notas a pie de página que acompaña siempre al lector a lo largo de la lectura, de modo especial en los dos primeros libros mentados (al que se añade un denso y prolijo apéndice de observaciones más amplias: 1.027-1.098). Las bases documentales del estudio vienen resumidas en la “Bibliografía” (1.353-1.407): ahí figuran la relación de escritos propios de Orixe, publicados o no, cronológicamente ordenados, la correspondencia propia o recibida que se ha podido reunir, los artículos y libros consagrados al mismo, la relación de entrevistas grabadas a personas que trataron al escritor (19). Y ya en el campo de la documentación auxiliar —que, en la metodología seguida, puede resultar igualmente central— la bibliografía que se refiere a la sociología e historia social de la cultura en el País Vasco (1.380-

I.401), o a vertientes más metodológicas del trabajo, tales como la sociología de la educación, el pensamiento filosófico-teológico y estético (I.402-I.407).

2.2. Contenidos más destacables

La riqueza informativa de *Orixe eta bere garaia* nos pide, al menos, exponer un sucinto elenco de sus contenidos más destacables.

De entrada, en “Bizi-urratsak” Iztueta define la infancia del autor como una “Haurtzaroko tragedia (1888-1905)”, una infancia de rasgos trágicos; sigue un capítulo dedicado a los años de formación y vida en la Compañía de Jesús (1905-1923). Son etapas que troquelarán de forma definitiva la personalidad humana y literaria de Orixe. Casi una década cubren los años más intensamente dedicados al periodismo y a las labores académicas en Bilbao (1923-1931), a la que sigue el quinquenio largo en Oresa hasta el encarcelamiento y la huida a Euskadi Norte (1931-1938). Los dieciocho años del exilio (1938-1954) y el retorno final (1954-1961) ocuparán sendos capítulos de esta biografía. Al hilo de una certera intuición femenina, en un bello capítulo final —algo marginal en el contexto general de la obra— se nos muestran facetas silenciadas y veladas en la personalidad humana de Orixe. Por último, se publica por primera vez un conjunto documental del máximo interés para conocer las raíces de la “agonía” religiosa que dio rasgos duraderos a la vida de Orixe (167-202).

“Orixe eta gizarte-ingurua” es —ya lo hemos dicho— el libro más logrado y riguroso de todo este volumen. En este segundo apartado del mismo, en cinco secuencias consecutivas se describe y justifica la dialéctica de relaciones entre el personaje humano-literario que fue Orixe y el País en el que le tocó vivir.

- 1) La andadura se inicia con la vuelta, de nuevo, al punto de partida (a la infancia y adolescencia), para comprender desde el contorno social —el inmediatamente rural, pletórico de fidelidades, pero también desde el urbano-industrial, de rupturas y cambios— el mundo personal que se fragua para siempre en el corazón y la mente de Orixe en sus primeros años de Oresa y Uitz.
- 2) A los valores *nativos* se superpondrán inmediatamente los que el sistema educativo de la Compañía habrá de grabar indeleblemente en el espíritu y alma del joven Nikolas. Se describen los cambios político-culturales de las primeras dos décadas del siglo, el sentido jesuítico de la formación humanística, la crisis religiosa de la modernidad y el afianzamiento conservador de las pautas religiosas dominantes en dogma, moral y esté-

tica. A una percepción y aceptación monolíticas de lo religioso-estético sigue, incomprensiblemente, la exclusión de la Compañía, lo que hará que la crisis del momento se vuelva pasión frustrada y crónica (que tendrá eco obligado en la propia obra literaria).

- 3) En un tercer momento se muestra la panorámica general de tres lustros de trabajo intenso (1923-1938), período en que los avatares de la actividad social, política y cultural del País tienen en Orixé un intérprete y protagonista personalísimo: preparado para la religiosidad institucional, debe hacer frente a los imperativos civiles de la vida secular. La fragmentación del euskerismo y el nacionalismo, las urgencias cotidianas, las relaciones laborales y la mediatización consiguiente de las ideas, todo es vivido desde la redacción de un periódico y la sede bilbaína de la Academia Vasca. El relativo auge del nacionalismo en la II República trae consigo el reconocimiento social de la obra orixiana, pero no sin que deba percatarse de su paulatina y dorada marginación (pudo trabajar por encargo) y/o de su inadecuación personal a las formas de gestión cultural de Aitzol. El autor se ha cuidado de que cualquiera de los campos, temas o sectores sociales que tuvieron algo que ver con la persona y obra del escritor fueran convenientemente expuestos: la acción cultural de la Dictadura primo-riverista, los focos de actividad euskerista (revistas y grupos), las corrientes estéticas y las prioridades lingüístico-literarias del momento, los debates de la crítica de la preguerra. En ágiles secuencias, con análisis en *zoom*, se suceden episodios y personajes (Aitzol, desde luego, pero también el amigo Lizardi, Lauaxeta, Jautarkol, Mokoroa, Labaien...): las ideas cambian y se alteran los proyectos, zozobran conceptos estético-sociales ante la retina –cristalizada y fija– del escritor. Iztueta se acerca amorosamente (como lo había hecho ya en la etapa anterior, V: 362-757) al trabajo intelectual de Orixé; lo sistematiza, desmenuza, compara y contrasta en su contexto sincrónico y en el progreso vivo: desfilan por el estudio el periodismo y la gramática orixianos (V: 517-598), y sobre todo, su literatura y estética; Orixé se define en ellas (V: 600-750), y junto a él queda definida también –a favor y en contra: apenas nunca en la indiferencia– la generación que le acompaña y sigue.
- 4) En una cuarta etapa (1938-1954), se contextualiza política y literariamente el exilio de Orixé, con una década francesa y un lustro americano (Argentina, Ecuador, Guatemala). Tras una oscura inmediata postguerra (1938-1949), Orixé es de nuevo solicitado como mentor y colabora-

dor en revistas y grupos de trabajo, pero él se expresa sobre todo en su propia obra escrita, personal y casi eremítica (traducciones y obra original). Se complace en el reconocimiento social de su *Euskaldunak* y la difusión más fragmentada de su poesía y prosa a través de la revista *Euzko-Gogoa*; pero igualmente participa u observa –crítico y vigilante– la reestructuración del entramado cultural del euskera (la Academia, a la que ve hipotecada, pp. 816-888; las publicaciones de la militancia interior del País y la crítica no siempre indulgente, de las que espera mucho y desconfía bastante, pp. 901-937). Orixe sigue mostrándose como el rebelde sin desmayo de siempre que difícilmente renuncia a la palabra, en la reflexión íntima (correspondencia airada y obra serena) y en la réplica acalorada de los debates que busca y/o le rodean.

- 5) Así se abre la postrera etapa de la vida del escritor (1954-1961). Las marejadillas culturales comienzan a revolverse, justo a partir de las fechas en que retorna Orixe del exilio. Aflora una doble generación: la de quienes, tras un largo paréntesis interior, pueden en su madurez volver a expresarse (Congreso de la Academia [1956], V: 943-950), y la de los más jóvenes que aspiran a tomar la palabra por primera vez (la juventud de los Centros eclesiásticos, V: 950-969, 987-990); no es tampoco fácil la síntesis de fuerzas e iniciativas entre los más capacitados y los más osados (París, V: 969-981; nueva generación, V: 981-987). Orixe no es, en modo alguno, espectador mudo e inalterado de los nuevos riesgos u oportunidades. Cada episodio queda aquí consignado y debidamente atestiguado. Así se cierra, en repetidas y didácticas síntesis circulares, la historia de una vida amasada de todo, menos de indiferencias.

“Orixe mistikariaren bizipen erlijioso” es el tercer libro con que se cierra este quinto volumen de *Orixe eta bere garaia*. El contenido del mismo fue ya publicado anteriormente, en 1988⁴, y el estudio de Iztueta aquí considerado formaba la I y III partes de aquella edición.

El objeto de análisis de esta tercera entrega del volumen quinto precisa de algunas aclaraciones de interés. Por encima de cualquier otra empresa intelectual o vital, Orixe se esforzó siempre en cultivar sus conocimientos y vivencias místicos, y más éstas que aquellos. Ello dio lugar a múltiples textos que aluden

⁴ Iztueta Armendariz, P., 1988, “Quito’n arrebarekin” irakurriz. (*Orixeren pentsamendu erlijioso aztertzeo burbil-keta-saioa*), Donostia: Eusko Jaurlaritzza / Etor Argitaletxea.

a esta aspiración de trascenderse religiosamente. En particular, existe uno central al respecto, *Quito'n arrebarekin*, de lectura y comprensión difíciles: proyectado en un comienzo con el título de *Argi-erri* (País de la Luz), llegó al público —en forma dispersa y desordenada— en las páginas de la revista vasco-guatemalteca *Euzko-Gogoa* (1950-1954). A este texto básico de análisis han coadyuvado otros de diversa índole, y de modo más próximo y esclarecedor *Jainkoaren billa* (1971, Bilbo: Etor). Ambos textos orixianos pueden ahora encontrarse en estos *Idazlan guztiak* (I: 705-812, 813-977).

“Orixé mistikariaren bizipen erlijioso” es el estudio monográfico de una vertiente precisa de la persona y obra de Orixé y centrado en el análisis de un ensayo literario que el autor elaboró en estrecha simbiosis entre ideas recibidas y vivencias personales (V: I.II0). Iztueta examina aquí la estructura formal de este ensayo orixiano, su método heurístico dialogal, los recursos literarios utilizados (V: I.III-I.I45) y su instrumental lingüístico (V: I.I47-I.I56); expone el *corpus* doctrinal heredado (V: I.I63-I.312), sin olvidar las encrucijadas socio-personales e ideológicas desde las que Orixé interpreta el mismo (V: I.I68-I.I94; I.200-I.231); tanto las ideas consagradas por la estética escolástica (V: I.I41-I.I45) como la expresividad etnopolular (V: I.313-I.322) concurren a la definición de los postulados estéticos de Orixé.

2.3. Criterios metodológicos

La cuantía y calidad de los logros epistemológicos, en los tres libros agrupados en el volumen *Orixé eta bere garaia*, dependen obviamente de los objetivos propuestos y de los criterios metodológicos manejados para la consecución de aquellos. Por lo mismo, es de evidente interés tener una noticia, al menos somera, de éstos, tanto más cuanto que son ellos los que, en definitiva, hacen accesibles los objetivos teóricos y prácticos a alcanzar. Pero, ya que es el investigador quien deberá demostrarnos su destreza en el manejo de la metodología elegida, no estará de más aludir también al autor del estudio.

2.3.1. Paulo Iztueta Armendaritz es profesor titular de Sociología de la Educación en la Facultad de Pedagogía de la Universidad del País Vasco (Campus de San Sebastián), en la que profesa desde 1986. Doctorado en Sociología por la Universidad de París VIII (1976), tiene publicada la versión española de su tesis: *Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco: 1940-1975* (1981, Donostia: Elkar). Aparte titulaciones y status académicos, creemos que han sido tres los factores personales que han hecho viable la consecución de esta obra

sobre Orixe: la formación teológica del autor (Licenciatura en Filosofía en la Universidad romana de Santo Tomás de Aquino), su dedicación vocacional a la Sociología de la Cultura, su presencia activa y seguimiento constante de nuestra problemática cultural, amén de una disposición –no demasiado confesada, pero sí patente– de historiador. Sólo la coincidencia en el autor de todos estos factores y su tesón en el trabajo de casi una década explican el buen éxito de la metodología utilizada en *Orixe eta bere garaia*.

2.3.2. El autor se ha encargado de exponer al lector en las páginas del libro las metas y el método elegidos. El objetivo del trabajo es, dice, el de “establecer el contexto histórico y sociológico que explique la totalidad de la aportación cultural de Orixe” (I: 22), renunciando a la mera explicación literaria o filológica que atienda a los recursos formales o estilísticos (V: 15), aspectos de los que se ha ocupado el volumen anterior. En palabras del investigador se trataría de lo siguiente:

Nire hau, berriro diot, osoki soziologiaren ikuspuntutik gogoemana dago eta hortik abiatuta egiten ditut neure kultur eta literatur gogoe-tak. Bigarren liburukian, bereziki hor [como ya lo recogimos en líneas anteriores], kultur eta hezkuntz soziologiak leku handia betetzen du, jadanik gauza onartua bait da, zein neurritan ez badakigu ere, gizarte inguruneak nahiz hezkuntzak nabarmenki parte hartzen dutela pentsa-menduaren zein edozein motatako sorkuntzaren eraikuntzan. [...]. Hori horrela [...], ezinbesteko iruditu zait haren obra osoaren aurkezpena testuinguru sozio-historiko zabal baten barruan egitea (V: 15).

Así, pues, por obligación metodológica postulada desde el punto de arranque del trabajo, *Orixe eta bere garaia* no podía desembocar, a fuer de purísimamente orixiano, en un análisis de cuenca cerrada y de sentido inquisitivo único. La búsqueda investigadora debía ir, más bien, hacia un policentrismo de incitaciones y respuestas, en todos aquellos espacios en que se hicieran presentes la persona y obra de Orixe. El autor lo dice, así, al pasar de la biografía al análisis del pensamiento:

Hemen ere, lehen liburukian bezala, eskema kronologikoaren arabe-ra jokatuko dut, ideien genesisia testuinguru sozio-historikoaren bilakabi-dean argiago agertzen delakoan bait nago (V: 206).

Confiesa Iztueta su proximidad a las formulaciones metodológicas de Emile Durkheim y el atractivo de las mismas sobre su espíritu de investigador (V: 206). Sociología de la cultura y sociología de la educación, siempre en una perspectiva cronológica, serán la atalaya desde la que se contextualizarán —en el tiempo y en la sociedad— el personaje y la obra. Cambios y continuidades, *duraciones* distintas, o cambios a ritmo diverso y contrastado... Las aparentes reiteraciones de la realidad, se matizan y alcanzan una altura distinta en cada coyuntura histórica: así, el eco de la misma palabra orixiana —aparentemente tan inmutable— tiene otro eco, y por tanto otra verdad, en 1935 que en 1956. Habla con otra generación de hombres, desde otra experiencia y desde otra aventura. El rostro de la sociedad vasca —con la que dialoga y a la que replica, retornando su propio pensamiento para hacerse presente en una comunidad cultural cambiante— también expresa justamente la *otra* voz de Orixe, no extraña, sino también *propia*: así los ha visto Iztueta, rostro y letra de una misma moneda.

La lectura de *Orixe eta bere garaia* apenas dispone de remansos en monólogo; al contrario, el colectivo cultural vasco está siempre tan presente en estas páginas con sus logros y mezquindades, con sus grandezas e incertidumbres, que a veces abruma. Todo se nos hace presente, no como biografía de un protagonista y sus ideas, sino como película trepidante de una marcha común. De ahí el interés de esta socio-historia cultural, con debates periodísticos y cenáculos literarios, querencias personales y malquerencias inesperadas, con proyectos políticos contrapuestos y estéticas a corto o largo plazo.

Orixe eta bere garaia nos recuerda, inevitablemente, algunas viejas lecturas: la de *Cambó*, de Jesús Pabón (1969, Barcelona: Alpha), por lo que ambos intentos suponen de reto de biografía social, y *Erasmus et l'Espagne*, de M. Bataillon (1937), por lo que éste supuso como mejora de metodologías con que reconstruir una fisonomía espiritual de toda una generación. De entonces acá mucho ha llovido, y obviamente, Iztueta ha podido jugar con la ventaja de medio siglo de perfeccionamiento de métodos de la historiografía social, o, si él así lo prefiere, de métodos de una nueva sociología diacrónica; no en balde han mediado litigios epistemológico-gremiales entre historiadores y sociólogos⁵, y las inquietudes de

⁵ Véanse, por ejemplo: Braudel, F., 1968, *La historia y las ciencias sociales*, Madrid: Alianza Editorial. Labrousse, E. et al., 1969, *Las estructuras y los hombres*, Madrid: Ediciones Ariel. Véase también: Le Goff, J., 1978, *La Nouvelle Histoire*, Paris: Retz-CEPL. s.v. "Sociale (Histoire)".

sus colegas sociólogos por la biografía⁶. Todo lo cual –con el trabajo hecho– no demuestra en el autor oportunismos intelectuales, sino buena y precavida escuela.

2.4. Los logros

Los logros para la historia social de la cultura vasca del último siglo y medio, son de entidad más que notable en *Orixte eta bere garaia*. Permítasenos, de entrada, algunas observaciones críticas, las más de carácter puntual y de menor monta.

2.4.I. En cuanto a la estructura general de la obra tal vez hubiera sido preferible la integración de los materiales biográficos del primer libro, “Bizi-urratsak”, en el segundo, “Orixte eta gizarte-ingurua”, lo que habría evitado la reiteración innecesaria de las mismas informaciones. Entiendo que razones conmemorativas o editoriales habrán aconsejado otra cosa, lo que puede tener la ventaja de que disponemos de una biografía de Orixte a dos niveles, con una versión primera más reducida y de lectura más fácil y divulgable, y otra de naturaleza más académica. En cuanto al tercer libro, “Orixte mistikariaren bizipen erlijioso”, de carácter monográfico mucho más restrictivo que el resto de la obra, lo hubiéramos visto mejor en un volumen aparte, o, si se prefiere, en el tercero de *Idazlan guztiak*. Estos cambios habrían podido redundar en beneficio del cuerpo textual central que es el que de verdad aporta una novedad historiográfica más neta.

La forma expositiva adoptada, muy cronológicamente lineal, ha forzado en ocasiones a retomar temas y cuestiones muy anteriormente tratados: a pesar de las repeticiones creemos que, en la prolija extensión del texto, es un servicio del autor que el lector ha de agradecer. Y lo mismo diríamos de las síntesis finales abreviadas que se ofrecen en los casos de debates largos o de cuestiones o materias particularmente enmarañadas.

Puede que algunas exposiciones históricas de tipo general pudieran haber sido más escuetas (vid. V: 213-238, 303-334), pero, dado que la obra no se dirige precisa o únicamente a los historiadores, el lector de otras especialidades agradecerá sin duda esta mayor dedicación. Hay que decir, además, que capítulos como estos contribuyen a dar al volumen verdadero valor interdisciplinar.

⁶ No olvidemos que la Asociación Internacional de Sociología cuenta con una “Comisión 38” que se cuida del tema “Biografía y Sociedad”.

La extensión de la obra puede ser una dificultad suplementaria para muchos lectores, ya que sin una lectura continuada y suficientemente dedicada (lo que no ha de resultar fácil para muchos de los hipotéticos usuarios) se ve dificultosa la comprensión de la “globalidad histórica” que aporta la obra.

2.4.2. Los frutos positivos de este trabajo de investigación son múltiples. Por mi parte desearía subrayar algunos, aunque de forma escueta; la calidad de lo hecho lo vemos: 1) en la riquísima recuperación de datos de nuestro Renacimiento Vasco (1876-1936) y de las primeras décadas de la etapa franquista; 2) en la contextualización sociohistórica globalizante, lograda no sólo respecto de un escritor, Orixe, sino también de la obra cultural de sus contemporáneos; 3) en la reconstrucción de su condición histórica, supuesta sí, pero velada o ignorada para las generaciones que han seguido, y que ahora se nos aparece con su profundidad temporal y dinámica matizada; 4) en el feliz equilibrio de síntesis temáticas sucesivas y de numerosísimos análisis monográficos; 5) en el ágil *tempus* –lógico y cordial– de la narración histórica de ideas y vida, y, por último, 6) en la prosa didáctico-ensayística sumamente atractiva y moderna, sin que a lo largo del vasto texto se vea apenas desmayar la pluma del investigador –escritor.

La obra toca las vertientes más heterogéneas del período estudiado: desde la naturaleza de la danza o el acento vasco hasta la moral casuística de los Seminarios postridentinos, desde la estética clásica hasta los valores estéticos del folklore, desde la pedagogía renacentista europea hasta los debates acerca del evolucionismo, desde la gramática en general hasta los problemas de la lengua literaria vasca y la ortografía, desde las ideas vascológicas de Unamuno y Menéndez Pidal hasta las controversias de crítica literaria de la preguerra, desde el significado de los centros de enseñanza de la Compañía en la Contrarreforma hasta el que tuvieron o no en el Renacimiento Vasco, etc.

No hace falta siquiera indicar que están en embrión futuras síntesis y monografías del máximo interés, como podrían ser sendas historias sobre las ideas estéticas del Renacimiento Vasco, sobre la crítica literaria en dicho período, sobre la historia de la traducción literaria vasca, sobre la política lingüística eclesiástica en congregaciones y centros religiosos del País Vasco, sobre la forma en que se articularon o contrapusieron, durante el franquismo, las actividades culturales del interior y del exilio; sobre el conflicto generacional de los sesenta... Se han recogido materiales, a veces abundantes, para todo ello. Una vez aquí y en cuanto al elenco de monografías que la lectura de la obra sugiere, nos atreveríamos a solicitar al autor, muy bien situado para ello, que tenga a bien

darnos un gui3n-propuesta de investigaciones nuevas con las prioridades que le parezcan m1s urgentes. Se lo agradecer1amos todos.

Por si hac1a falta, con *Orixe eta bere garaia* queda probada la incongruencia cient1fica de una historia de la cultura vasca de los siglos XIX y XX que ignore, en la pr1ctica, las fuentes eusk1ricas y las investigaciones nacidas de las mismas.

Esta dilatada rese1a toca a su t1rmino. Esperamos que haya servido para que el lector se sienta acuciado por la lectura directa de *Idazlan guztiak*, de Orixe, y m1s en particular a la de *Orixe eta bere garaia*, de Iztueta. Si se anima a ello, estamos seguros de que nos agradecer1 este toque de atenci3n informativo.

EUSKARAREN OFIZIALTASUNA. AURREKARI HISTORIKOAK*

0. Iraganeko zenbait egokiera

Beren adiera zabalean, hizkuntzen ofizialtasunek historia luzea izan dute munduan, batzuetan legezkoatasun osoz aitortuta, besteetan halakorik ezagutu gabe baina ofizialtasun praktikoa dutela. Euskararen iraganak ere bi molde horietako ofizialtasunak bizi izan ditu: adiera zabaleko zenbait izaera ofizial mintzatu eta idatzi, eta XX. mendean, bere adiera hertsian, baita legezko ofizialtasun funtzio anitza ere (Euskadi 1936; Euskadi 1979, Nafarroa 1982).

1979ko Euskadiko Estatutuak aitortu eta 1982ko Erabilpen-Legeak garutako ofizialtasuna da gure hizkuntzaren historian izan dugun legezko ofizialtasun-esperientziarik aberatsena. Horregatik ere, ez dago batere lekuz kanpo *Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legearen* 25. urte hau ospatzea.

Hizkuntzaren ofizialtasunarena botereen eta gizarteko hiztunen arteko elkarrizketa-esparrua da, usadioz edo legez bideratu izan dena, betiere hizkuntzen presentzia soziala arautzeko. Erakundeek beren baitan nahiz beren eskutik dituzten eremuetan hizkuntza jakin bati zein erabilera-eskubide eta betebeharrak aitortuko dizkieten legez erabakita uzten du ofizialtasunak. Ofizialtasun-aitorpenak, gutxienik, estimu- eta sinbolo-balioa du, baina jeneralean erakunde ofizialetarako erabilpen-eskubideren bat behintzat ezagutu eta eman ohi zaio hizkuntzari, holakoetan. Dena den, ofizialtasunak gisa anitzetako aurpegi juridikoak har ditzake, eta era bertsuan, ondorio praktikoa guztiz ezberdinak izan, arrazoi historiko, sozial, erlijioso, politiko edo kulturalengatik.

* “Euskararen Legea, 25 urte Euskal Autonomia Erkidegoan” izenburupean, Euskaltzaindiak Sabino Arana Fundazioarekin batera, 2007an antolatutako jardunaldian emandako hitzaldia: *Euskera* 52, 2007-3, 1235-1249. Lanari ukitu txikiren bat edo beste egin zaio, eta agiri bat (Las Arenas) eta bibliografia laburra gehitu.

Hemen orain oroitzapenetan gabiltzanez, zilegi bedi azken urteetako horren aurrekari historiko zenbait gomutaraztea. Nik zortzi une edo abagune historiko hautatu ditut, aski esanguratsuak direlakoan:

- | | |
|--------------------------------|-------------------------------------|
| 1. XIII. mendea | 5. Frantziako Iraultza eta ondokoak |
| 2. Errenazimentua, Erreformak | 6. Karlismoaren eskea |
| 3. XVII.eko zenbait gertakari | 7. Eusko Pizkundea |
| 4. Euskal Herriaren Adiskideak | 8. Frankismoko parentesia |

Saiatuko naiz albiste gutxi ezagunak biltzen, baina, bistan da, euskararen historian oso ezaguna den eta neuk ere bestetarako erabili izan dudan hainbat datu ere lagungarri izango da ofizialtasunaren hau ikusteko. Barka bekizkit, beraz, errepikapenak.

1. Ofizialtasunen gaurkotasuna

Hizkuntzen ofizialtasunaren gaia gaurkotasun handikoa da munduan, Europan bezala Afrikan, nola Asian hala Amerikan, Estatu Batuetan bezalatsu Txinan, frankofonian legez anglofonian edo arabofonian. Eta gisa ezberdinetan, eta egoera desberdinei erantzunez ari da hori gertatzen.

Elebakartasun ofizios edo ofiziala erabat nagusia zen zenbait estatutan, nora-bide kontrajarriko erabakiak hartzen ari dira, batzuetan lehengo egoera zurruntzeko (Frantzia: Konstituzio osaketa frantsesa ofizial bihurtuz, 1992an, eta *Toubon Legearekin* blindatuz, 1994an), edo historia luzekoren batean egoera berrietara moldatzeko (Txina, 2000), eta inoiz edo behin hizkuntza-gutxituekiko estimua agertuz (partez Brasil, eta tentuz, Argentina). Bere garai berrietara egokitzuz, Hegoafrika dugu, beharbada, irekitasun teorikorik handiena erakutsi duenetako bat (II hizkuntza ofizial). Europar Batasunean 23 omen ditugu jada, estatu ezberdinetan lehendik ofizialak zirenak, eta gehiago izatekotan omen gara¹.

Hau dena oso berrikitan gertatzen ari den zerbait da.

Kasuan kasuko lehenengo ofizialtasunak eta ondoko egokitzapen berriak eten

¹ Ikus, adibidez, hainbat herrialdetarako:

<<http://www.lawresearch.com/constitutions>>

<http://www.chr.up.ac.za/hr_docs/constitutions/docs>

<<http://www.uc3m.es/uc3m/inst/MGP/consibam.htm>>

gabe ari dira gertatzen. Inoiz ofizialtasun finkatu hertsu batetik hasita malgutasun eta eleaniztasun berrietara pasatzen ari dira lege-politika hauek. Eta, bada kasurik, garai batean legezko ofizialtasunik ezagutu gabeko herrietan hain zuzen, hizkuntza nagusiaren mesedetan legezko ofizialtasun elebakarraren bandera hartu nahi dutenena edo hartzen ari direnena (Ipar Amerikako ingelesaren kasua).

2. Euskaldungoa botere ezberdinen artean

Labur beharrez esateko, euskararen ofizialtasuna estatutik gabeko hizkuntza baten historia izan da. Horretan, ez du antziz, adibidez, XIII-XVIII. mendeetako katalanaren historiarekin edo Portugalen bere estatua aurkitu zuen galizierarekin, Penintsulako bi kasu ekartzeko.

Bere iragan ofizialean/ez-ofizialean baldintza ezagunak izan ditu euskarak, zinezko ofizialtasun posiblea edo erreala baldintzatu dutenak. Mota ezberdinetako baldintza soziohistorikoak ezagutu ditugu gurean.

- Botere bateratzaile jakin baten faltan, Administrazio ezberdinek gobernatu dituzte euskal lurraldea eta gizartea: horretan, ez dugu batasunik izan, agintari zibilak bezala eliztarrak, bakoitza bere gisara ibili da hizkuntzarekiko honetan.
- Batetik, Nafarroa, Hiru Probintziak eta Iparraldea beren Herri-Erakundeekin; bestetik, Eliza, hemezortzitaraino izan zirenetako hiru Diozesi nagusietan (Baiona, Iruñea, Calahorra) banatuta, bere Artzapezpikutegi eta Ordena ezberdinekin; eta ezin da ahaztu Eliza Erreformatua (XVI-XVII. mendeak).
- Euskara beste hainbat hizkuntzaren artean aurkitu da, eta lehia zailean: latina eta erromantzeak batez ere, bertakoak eta ingurukoak, bakoitzak bere botere-antolamendua duela, hiztun-indar eta kultur baliabide ezberdinekin.

3. Gure une historiko gomutagarriak

Mendeak iragan ahala, abagune historiko ezberdinak sortu zaizkio euskarari, erromatartzetik hasi, kristautzea bizi, Erdi Aroko mundu erromanikoa (erromantzeak) ezagutu, Aro Modernoko une jasoenak ikusi (Errenazimentua, Erreforma erlijiosoak, Argiak), eta Aro Garaikideko arazo hurbilagoetan murgildu arte.

3.1. XIII. mendeko Administrazioan

Hasteko, gure oroimen bizian nahikoa isilik pasatu izan den XIII. mendea gogorarazi behar dut, hizkuntzen ofizialtasunarekin zerikusi zuzena izandako aldakuntzaren lekuko izan baitzen mende hura.

Penintsulan, Herri-Administrazioek erromantzeak hobetsi zituzten bere zereginetarako, eta erortzen utzi lehendik indarrean zegoen latina. Egokiera hartan, ordea, bazterrean geratu zen euskara, administrazio-bizitza idatzirik gabe. Errazagoa izan zen latinetik erromantzerako jauzia, euskarara egin zitekeena baino.

Hala ere, gogora daiteke hemen, ordukoa dugula Merino Urrutiak Errioxa Garaiko Ojacastro herriari buruz aurkitutako lekuko hura, hango herritar euskaldunei epailearen aurrean euskaraz hitz egiteko eskubidea aitortzen zien epaia (c. 1237), Fernando III.a Gaztelako erregeak onartu zuen eskubidea.

Fernando III.aren urteetan (1217-1252), hain zuzen, Errege Kantzileriak biziki lagundu zuen gaztelania administrazioan sartzen, latina utziz zihoan bitartean. 1240ko hamarkadan errege bulegoko agirieta %60ren bat idatzi zen gaztelaniaz. Erromantzearen aldeko ahalegin hartan, Alfontso X.ak, Fernandoren semeak, eman zuen urrats erabakigarria (1252-1284), Kantzileria dena eman baitzuen gaztelaniaz, eta beste Erreinuatarako agiriak bakarrik idatzi ziren latinez handik aurrera.

Euskal Herria ez zegoen erabaki politiko haietatik urrun; alderantziz, hemengo herrietara zetozen errege agiriak gaztelaniaz etortzen hasi ziren, kasik bat-batean (1252-1256). Gure udal artxiboetan gorde diren paperen artean ikus daiteke hori. Elgetan, adibidez, 1217an latinez gorde zen Gasteizerako zen errege agiri bat (bidesariei zegokiena), baina 1254an gaztelaniara itzulita ageri zaigu hori Elgetan bertan. 1237an Errenteriako Forua latinez berretsi baldin bazen, artxiibo hartako hurrengo agiri denak gaztelaniaz aurkituko ditugu, eta abar.

Gure herritarrak ohartu ote ziren Administrazio idatzian gertatutako aldakuntza hartaz? Zer pentsatu eta erabaki ote zuten horren berri izandako eskribauek? Eta herrietako handikiek? Badakigu, Errege Kantzileria aldakuntza -erabakia Gaztelako zenbait herrik halaxe eskatuta ere gertatu zela. Ez dakigu hemengoek ezer eskatu zuten.

Eta Nafarroan, Erreinu beregaina eta aski euskalduna zen hartan nola joan ziren urak? Garaiz hasi ziren Erregeak erromantzeak erabiltzen. Antso Azkarrak (1194-1234) bere agirieta %20 erromantzez eman zuen. Tibalt Lak (1234-1253), oster, 1244tik aurrera dena idatzi zuen erromantzez, bere aurreko urteetan erdiak bakarrik eman zituen arren (1234-1244). Artean,

ohitura hau ez zen erabat iraunkorra gertatu, baina bidea erakutsita geratu zen geroagorako.

Gaztela eta Nafarroako politika ofizial praktikoa, ondoko mendeetako kultur garapen idatzirako eta euskal Administrazio osoarentzat, kontrako erabaki larria gertatu zen, euskararen ofizialtasun idatziari apenas lekurik utziko ziona.

3.2. Errenazimentua eta Erreforma erlijiosoak

Hurrengo abagunea Europako haize berriek ekarri zuten: Errenazimentuak eta Erreforma erlijiosoek. Hark ernaldurik, euskal literatura jaio zitzaigun Etxeparerekin, baina Administrazioaren “plazara” sobera begiratu gabe. Elizan, gure ofizialtasun-arazorako garrantzizkoagoak izan zitezkeen eliz agintari erreformazaleak (Zumarraga, Luku, Ignazio Loiolakoa), Erreforma protestantea, Nafarroa Beherean berorrek lotuta ageri zaizkigun Joana Albretekoaren hizkuntz politika eta Eliza Erreformatu kalbindarrarena (1560-1572).

1530-1570 urteen bitartean, gure euskal gizartean hizkuntzaren inguruan ageri zaizkigun gertakari adierazgarri batzuk azpimarratzeko aukera ez nuke galdu nahi. 1539an Iruñeko kalonjeek gotzain euskalduna eskatu zuten; bi urte lehenago Zumarraga gotzaina etxekoei euskaraz idazten zebilen; 1545ean Etxepareren mirari bibliografikoa dator, eta urte berean ama euskaldun baten semea Calahorrako gotzain izendatzen dute: ordura arte ez bezalako ardua jarri zuen J. B. Lukuk, Diozesian predikua euskaraz egin zedin. Gotzainaren eta San Ignazioren artean izandako gutun-harremanetik ezagutu ahal izan dugu euskarari Elizan zein leku eman nahi zioten Lukuk eta Ignazio Loiolakoak (1545-1552): jesulagun euskaldun ugari (*vascongados* bezala aipatuak) bidaltzeko eskatu zion behin eta berriz Lukuk Ignaziori, “para que se pudiesen enviar predicadores y confesores por la Provincia y por el condado de Vizcaya” (1551). Lazarraga ere sasoi hartakoa dugu (1567).

Trentotik etorri bezain laster Sinodo bat bildu zuen Lukuk Gasteizen (1553). Zoritxarrez, Sinodoko arauak argitara eman (1555) eta berehala hil zen gotzain erreformazalea (1556). Luzarago bizi izan balitz, agian Calahorrako Diozesian hizkuntz politika berria bideratu ahal izango zuen kanonista handiak.

Ordena erlijiosoek ere arduratzeko gaia zuten, nonbait, euskararena, zeren eta oraindik aztertzeko badago ere badirudi bi aldeetako elebakartasunak (Gaztela/gaztelania, EH/euskara) zerikusiren bat izan zuela frantziskotarrek beren Probintzia erlijioso berria eratu zutenean. Eta, nolahi ere, Gipuzkoako komentu berriak eraikitzean, predikari euskaldunak egotea izan zen fundazio-

rako baldintzetako bat (Arrasate, 1582), edo batez ere fraidegai euskaldunak hartzea (Zarautz, 1747). Dena den, Kontrarreforma katolikoa mantso ibili zen bere euskalgintzan.

Egoera hartan, beste Eliza batek hartu zuen erreleboa Iparraldean euskalgintza sustatzen: Eliza Erreformatu kalbindarrak. Kasu honetan, gainera, agintari zibilek eta eliztarrek bat egin zuten euskarari leku idatzi berria emateko. 1560ko Gabonetan, eta Th. Bèze-koarekin hitz-aspertu luzeak izan ondoren, Nafarroako erregina Joana Albretekoak Erreinurako Elizatzat hartu zuen Eliza Erreformatua. Erabaki horrek berarekin zekartzan eskakizun linguistiko batzuk ere.

Jada, 1556an, Joana erreginak, European garaiko hainbat erreinutan bezala, herritarren usadio zaharra gordez herritarren hizkuntzari bere zeregin administratiboa berretsi zion, hiru Estatuen eskeari erantzunez. Biarnon berria ez izan arren, zinezko aukera politikoa izan zen Joana erreginarena. Frantziako Frantses Lari, Joanaren osaba honi, Villers-Cotterêts-eko Ordenantzaren bidez praktikan frantsesaren erabilera ofiziala segurtatzea suertatu zitzaion bezala (1539), Joanak bere Nafarroako Erreinuaren biarnesari heldu zion, herri-hizkuntzari ofizialtasuna aitortuz. Erreformara pasatzean, indartu baizik ez zen egin erromantze biarnesaren hautapen hori. Eta euskararena ere logika berean etorri zen.

Erreginak eta Eliza Erreformatuko Sinodoek (Paue, 1563; Oloroe, 1565; Salbaterra, 1565; Nay, 1566; Leskarre, 1569; Paue, 1573) erabaki eta lagundu zuten *Testament Berria* eta gainerako idazkien euskal itzulpena. Ofizialtasun zibil eta eliztarrez egindako lana izan zen Leizarraga eta lankideena.

Aurrera baino lehen, aipa dezadan –bide batez eta gehiago gabe– euskararen aldeko apologistika, erdarazko lanetan hain emankorra eta euskarazkoetan hain antzua, ideologia sozial jakin baten zerbitzuan eraiki zela (J. Madariaga). Oro har, ez dirudi ofizialtasunaren hau euskararen apologistei burutik pasatu zitzaienik.

3.3. Hamazazpigarren mendean

Hamazazpigarren mendeak baditu, ofizialtasunaren eremuan, une interesgarriak: Trento ondoko Erreforma dago Iparraldean (Donibane-Sara), Eliza katolikoaren Sinodoak Hegoaldean, baina Elizatik kanpo, begiratzekoak dira Iparraldean Foru eta Erregelamenduetan emandako arauak, euskarari ofizialtasun mintzatua bederen aitortu ziotenak. Orduetik ezagutzen dugu, gainera, Bizkaiko Batzarretako zenbait gatazka-une, debeku-arau ofizialaren kontrakoak (1613-1633).

Euskal literaturan ez ezik ofizialtasunari dagokion bide honetan ere Iparraldea da XVII.ean une interesgarrienak eskaintzen dizkiguna. Literaturaren

loraldia ez zen gertatu boteredunek euskararen alde egindako saiorik gabe. Honetan, alde batetik Eliza eta eliz agintariak daude, eta bestetik batez ere Nafarroako Erreinuak indarrean dituen hizkuntz politikarako arauak.

Donibane-Sarako idazle-taldea Diozesiko gotzainaren laguntzaz eta, segur aski aginduz, ariko da euskarazko predikua eta idazlana ontzen. Bertrand Etxauz (1556-1641) da lehenik aipatu behar dena, Axularren adin berekoa (j. 1556). Baionako apezpikua izan zen mende hasieran, hogeitaz luzez (1598-1618), eta hainbat gotzain erdaldun hutsen artean bera euskalduna. Izpegi elkarteak eskaini zizkion orain urte batzuk bere ikerlanak Etxauzi (Baigorri, 1999), eta Villasantek gogorarazi zigun *Axular* liburuan gotzain honen lekua.

Baionatik 1618an alde egin zuen Etxauz apezpikuak, Tours-eko artzapezpiku izendatu baitzuten, baina bistan da haren oroitzapena ez ezik itzala ere sumatu eta bizi izan zutela hemengo Lapurdiko apaizek. Irakurri besterik ez dago nolako estimuz mintzatzen zaion *Gero* liburuko sarreran autorea, hogeita bost urte geroago ere (1643).

Garai zailak izan ziren herrialde hartan Etxauz Baionan zegoela (sorginen aurkako jazarpenean De Lancre hura, morisko etorri berriak...). Nabaria zen bizitza pastoral zentzatu eta indarberritzeko premia; orduan ekarri zituzten Ziburura frantziskotar errekoletak (gogora Materre ere), inguruko apaiz jantzien bilera-leku eta beharbada eskola ere izango zena.

Pedro Agerre *Axular*-ek Etxauzi eskaini zion bere “Gomendiozko Karta”: “Neure iaun maitea, ioan zatzaizkit lurretik, baiña ez gogotik, eta ez bihotzetik. [...]. Ezterautazu iguriki” (1643: 3), diotsa, hain zuzen *Gero* agertu baino bi urte lehenago hil baitzen Etxauz (1641), eta ondoko urtean Axular bera.

Jakina da halako aitzinsolas haiek aurreko mendeetan zer esan nahi zuten. Ohoratu nahi zenarekiko estimua, noski, eta sarritan ohoratuarengandik espero edo hartutako laguntza ekonomikoa, argitalpenak bere bidea egin zezan. Galde daiteke, hortaz, ez ote zion Etxauzek diruren bat jarri, Axularrek luzaro eskuetan izandako obra kalera zedin? Esker ona dario alde guztietatik *Gero*ko hitzaurreri, esker on pertsonala eta idazle-inguru oso batena:

Eta iragaiten naizela aitzina, derradan hutsik egin gabe. Zer ere eskiribatuko baita euskaraz, hura guztia, euskaldunen buruzagi bezala, zuri dagotzula, zuri zor zaitzula, [...] (1643: 9-10).

Zalantzarik gabe apaizarte idazle saiatu baten esker ona da hau, Axularrek aipatu zuen “konpainia on” harena, Sara-Donibaneko Eskolakoena. Talde honek Hierarkiaren laguntzaz baliaurik burutu zuen hain laudatua dugun

idazketa hura. Baionako Elizak belaunaldi hartan emaitza onak eman zituen, euskara idatziaren tradizio oso bat abian jartzeraino.

Bestalde, Hegoaldean eta betiere erreformen bidean, XVII.eko Calahorrako Diozesiko Sinodoen arauak (1600, 1621, 1700) zerikusi zuzena izan zuten ofizialtasun berriekin, euskara mintzatuarekin (predikua) eta baita hizkuntza idatzi eta inprimatuarekin ere (“Que los Prelados hagan imprimir [...]”). Arau horrek gure ofizialtasunean berritasun bat zekarren, euskara ofizial inprimatuarena (aurreko dotrinaren bat ahaztu gabe: Eltso, 1561). Laster jakingo dugu zerbait gehiago handik aitzina Hegoalde-Iparraldeetako dotrina eta katiximen historiaz, hori aztertzen ari baita Arana Martija jauna.

Sinodoko hiru arauen izenburuek zera zioten:

X. Que los Prelados hagan imprimir cada año Doctrinas Christianas, en language acomodado à las Provincias.

XI. Dase forma de como se han de hazer los Cathecismos de Doctrina Christiana en Vazquence, para que pueda aprovechar en las Provincias Vazcongadas.

XII. Que en la tierra Vazcongada los sermones sean en Vazquence.

Beraz, Calahorrako Sinodoek lortu zuten, hasteko behintzat, hizkuntza mintzatu eta idatziaren arteko horma kasik zeharka ezina haustea. Alde horretatik, beste hainbat erabaki txiki eta handiagoren gaintetik jarri behar da Diozesi honen hizkuntz politika hau.

Euskararen eliz erabilera ez zegoen, ordea, garaiko Hierarkiaren ardurapean bakarrik. Izan ere, Ipar Nafarroako Foru-arauetan agertu zen Hierarkia katolikoari eskatzen zitzaion beste hau ere (1691): “Apezpiku jaunak, bere Diozesiko barrutian, euskara dakien Bikario Jeneral bat jarriko du” (ikus Goihenetxe 1983: 254). Hegoaldeko Diozesietan nik ezagutzen ez dudan araua da hau, nahiz eta agian hemen ere antzekorik egin izan zen (*receptores* edo “hartzaileak” hor egon ziren, behintzat, Nafarroa Garaian beste zeregin batzuetarako).

Bitartekari euskaldunen kezka hori bera are biziago ageri da Administrazio zibilar dagozkionetan (ikus Nafarroa Behereko Foruaren 1645eko edizioan). Notario eta epaitegietako funtzionario izateko ezinbestekoa zen, Foruaren arabera, herriko hizkuntza ulertzea. Lege ondoko erregelamenduek ere berretsi egin zuten hori: “Argibide-itaunketak, inkestak eta prozedurak euskara dakiten funtzionarioek egingo dituzte”, dio arau batek (1691).

Euskaldunei (elebakarrak zirenak, izan ere, gehienak) euskaraz entzun behar zitzairen. Eskubide hori defendatu zuen A. Oihenart politikari, idazle eta

historialariak Luis XIII.ari Donapaleun seneskalia (fr. *sénéchal*) edo epaitegia jarri zedila eskatu zionean (1639), izan ere “batez ere pobreek euskara baizik ez baitakite eta ez baitute besterik ulertzen”. Esaldi hau (Oihenartek bere eskarian emandako arrazoia, noski) Erregek bere agirian jaso zuen hitzez hitz, epaitegia Donapaleura lekualdatzeko argudio gisa (ikus Zierbide 1994).

3.4. Hegoaldeko XVIII. mendea

Hegoaldeko XVIII.ean bi gertakari nagusi izan ziren ofizialtasun idatzi eta mintzaturako bidea ireki zezaketenak: *corpusaren* gain larramenditarrek egindako lana (1728...) eta euskararen alde hedatutako ideiak (Kardaberaz 1761), alde batetik, eta Euskal Herriaren Adiskideak, bestetik, beharbada ofizialtasunen bat lortzeko abagunea izan zezaketenak, nork jakin (1765...). Euskal Herriaren Adiskideena erakargarria gertatzen da hemen, ofizialtasunerako historia honetan.

Adiskideen artean, euskarari buruzko jarrera eta burubide pertsonal ezberdinak suma ditzakegu: hasteko, batzuk euskaldunak ziren hizkuntzaz, bestek ez; batzuek hizkuntzen eta euskararen balio kulturala aintzakotzat hartuta zeukaten (Munibe), baina egon zen horretan bestelako iritzirik izan zuenik ere (Foronda); kasuren batean edo bestean, euskal idazle ere izan ziren (Munibe, Ubillos, etab.). Horrela, bada, burubide pertsonal horietan ez zen egon Elkartean batasun eta berdintasunik.

Adiskideek leku eskasa eman zioten euskarari beren agerpen publikoetan, baina horrek ez du esan nahi Adiskideen Elkarreak sorreratik (*Reglamento para los Alumnos* hartan, 1766) euskara gogoan hartu ez zuenik, irakas-egitarauan baitzegoen euskara eta euskal literaturarena ere. Asmo hori, ordea, ahulduz joan zen ondoko urteetan, segur aski desagertzeraino.

Dena den, gauza bat zen Bergarako Mintegiko lana, eta bestelakoa oso Euskal Herriko eskoletarako Adiskideek bultza zezaketen plangintza. Horrek hizkuntzaren ofizialtasunaren arazoa ukitzen zuen, horrela izendatu ez bazen ere.

Arazo honen inguruan eztabaida garratza piztu zen Adiskideen artean: espresuki egon zen arazoa mahai gainean, eta iritziak oso kontrajarriak gertatu ziren. Eskoletan euskal gramatikaz irakastearen kontrako jarrera erakutsi zuten Munibe, Narros eta Samaniego-k, adibidez, eta asmo horren alde agertu zen zenbait Adiskide arabar (Landazuri eta Egin, beharbada) eta Bergaran Oxirondoko erretorea. Elkarteko zuzendaritzak hagitx gogor hartu zuen arabarren proposamena (1772), eta ez batere ondo Garitano erretorearena (1775).

Adiskideek arrakasta ofizial eta sozial handia ezagutu zuten Espainian, eta Koroaren politikari lotu zitzaion Elkartea. Euskararen eskolako ofizialtasuna-

ren alde ez zuten jokatu nahi izan, edo ezin izan zuten horrelakorik egin; Koroaren aurrean irabazitako estimu eta itzalak ez zuen gero lagundu Koroa berak abiaraziko zuen hizkuntz politika ilustratuari aurre egiten.

Erregimen Zaharreko ideologia linguistiko ofiziala ezaguna da (Frantziako eta Espainiako Borboitarren jokabidea dut batez ere gogoan), eta era berean baita despotismo ilustratuak monarkia ezberdinetan ezarritako hizkuntz politika ere. Izenak hor daude, aski hurbil: Pombal (1757), Aranda (1766), Lorenzana/Karlos III (1772), Campomanes, eta abar.

Testuinguru hartan, Adiskideek ez zuten indarrrik eta/edo gogorik izan euskararen aldeko ofizialtasun-borrokari heltzeko, eta ofizialtasun posible bakarra (eskolari zegokiona, alegia) horrela ito zen. 1775eko *Proyecto de una Escuela Patriótica* delakoak ez zuen aipatu ere egin euskara, baina bai gaztelania, latina, frantsesa, italiara, alemana eta ingelesa (K. Larrañaga).

Etxeko gogo eta asmoa baino indartsuago agertu zen despotismo ilustratua- ren egitasmu politiko-kulturala, Frantziako Iraultzaren bezpera hartan.

3.5. Frantziako Iraultza eta Liberalismoa

Hegoaldeko euskal literaturak (hizkuntza idatziak) bere urratsak eman zituenetik, Frantziako Iraultzan eta ondoko Liberalismoan, hizkuntzaren ardurak eske berriak ekarri zituen. Hori ageri zaigu Hegoaldeko Herri-Erakundeetan, zenbait politikari eta idazleren burutan, gure lehen liberalen artean bezala karlisten egitarauetan.

Frantziako Iraultzak bata bestearen segidako bi kapitulu kontrajarri izan zituen hizkuntz politikan: herri guztiekiko adiskidetasun eta propagandarena, bata (1789-1793), eta boteretik herriak ongi lotzearena, bestea, horretarako eragozpen izan zitezkeen hizkuntzak baztertuz (1794...).

Frantzian Iraultza piztean (1789ko maiatza), burgesia eta herritarrek hartzen dute boterearen gidaritzza. Hexagonoko eskualde eta herrietan ongi errotuta bizi zen diputatu askok, Parisera *États Généraux*etara joandakoek beren eskualdeetako herritarrak ezagutzen zituzten, eta bazekiten hainbat hizkuntza erabiliz bizi zirela, diputatuak berak bezalaxe. Frantzia ez zen elebakarra, eta 1792an Errepublikak zituen 27,5 milioi bizilagunetatik 12 milioik eguneroko bizitzan frantsesa ez beste hizkuntzak hitz egiten zituen.

Horregatik ere, lehenengo epealdi hartan hizkuntzei leku ofizialen bat eman zitzaien: itzulpen-bulegoa jarri zen, agiri ofizialak itzuli eta zabaltzeko, eta herrietan eginkizun horretarako lankide trebatuak bilatu ziren. Horri esker, ezagutzen dugu Iraultza garaiko euskarazko literatura. Horrela, bada, une har-

tan gure hizkuntzak, Hexagonoko besteek bezalatsu, ofizialtasun idatzi maila bat ezagutu zuen, inprimatu ere egin zena (lege-testuak, afixak, eta abar).

Iraultzaren politika orokorra, ordea, nahasten eta zitaltzen joan zen, arrazoi anitzengatik: Frantzia barruko gatazkak, kanpoko eraso armatuak, eskaintza iraultzaileen aurrean herritarrek erakutsi zituzten erresistentziak, borroka ideologikoen gogortzea, iraultzaileen arteko botere-banaketak, etab. Bestalde, Pariseko Komunak eta hiriburu hartako klub iraultzaileek beren hizkuntzaren bidez gidatu eta kontrolatu nahi izan zuten Frantzia, frantsesez.

Hortaz, hizkuntz politika aldatu egin zen. Egia esan, bihurtune horretan Erregimen Zaharreko Borboitarren hizkuntz politikaren ildoari heldu zitzaion berriro. Frantzian frantsesak izan beharko du hizkuntza nagusia, bera da Iraultzaren hizkuntza, eta kontrairaultza da herritarren *patois* horiek erabiltzen dituen.

Erregimen Zaharrean sekula ez bezala, Iraultzaren ideologia politiko-linguistikoa bere formulazio landua aurkituko du bigarren epealdi honetan, eta guztion oroimenean bi izen geratu zaizkigu batez ere: Abbé Henri Baptiste Grégoire (1750-1831) eta Bertrand Barère (1755-1841) jaun diputatuak. Txosten bana aurkeztu zuten (1794). Lehendik, Grégoire-k ongi ezagutzen zuen Errepublikako hizkuntza-egoera, 1790-1792an egindako inkestaren bidez.

Zer pentsa daiteke gaur egun azken boladako hizkuntz politika hartaz? Dagoeneko eginda dago aspaldixotik haren historia kritikoa eta berrikitan eman zaio beste begiratu bat (Julia; Revel 2002). Orain, frantsesaren historia-lari batek, Alain Rey-k, gupidarik gabe laburtu du Grégoire-ren inkestak eta politikak izan zuten xedea:

Hizkuntza-ugaritasunaren ezagutza berritua bizi izan zen Iraultzakoan, hain zuzen XXI. mendearen hasiera honetan «Frantziako hizkuntzak» deitu izan den horiena, baina berorien merituak gorai-patzen ziren aldi berean zera ikusi ahal izan zen: botere-baliabide guztien bidez –botere politiko, ekonomiko eta kulturalen bitartez...– nola bilatzen zen hizkuntza horiek berak itoaraztea, erasotzea, umiliatzea, deserrortzea... (Rey 2007: 962). [Itzulpena gurea].

Hizkuntz politika hori izan zen ondoko urteetako Iraultzarena, eta, oro har, Argien eta Liberalismoaren arrastoan Frantzian zein Espainian nagusitu zena, sarritan boteretik errealitate soziolinguistikoa ukatzeraino (errealitate ezkutatu eta isilarazi), eta komeni zenean zehatuz ere (debekuak eta zigorrak), ofizialtasunerako lekurik utzi gabe.

Politika hark, molde batez nahiz bestez, eraginik franko izan zuen gure artean ere, hala Gipuzkoan nola Bizkaian, eta Bilbon ere (J. Agirreazkuenaga). Euskal gizartean norabide haien aurkako erresistentziak gero eta gehiago agertuz joan ziren XIX. mendean, eta ez kontrairaultza gisa ikus zitekeen karlismoaren barruan bakarrik; aitzitik, gaztelaniazko elebakartasun ofizialaren aurka azaldutako euskal liberalismotik ere.

Horren adibiderik onena Foruen etorkizunaz eta eskolaz arduratutako gure liberal moderatuena da. Badago aipatzeko izenik: ezagunena beharbada Juan I. Iztueta (1767-1845: “euskara hilez gero, Foruak ez dira biziko”), baina baita bi eskola-gizonena ere: Luis Astigarraga, pedagogo eta politikariarena (1767-1840) eta Agustin P. Iturriaga, apaiz eta pedagogoarena (1778-1851). Eskolan euskarari leku ofiziala aitortzea da bi hauen guraria, eta horretarako beren eskolak sortu zituzten eta eskola-lanetarako laguntza ofiziala eskatu eta lortu zuten Gipuzkoako erakundeetatik. Ez luzatzearen, bien biografiez egin berri diren idazlanetara bidaliko nuke jakin-nahia duen irakurlea (Intxausti 2008; Zalbide 2007).

Liberal horien ondoan edo ondoren, partez bederen eskueran dugun Bizkaiko Batzarren XIX. mendeko berritasunak aipa daitezke hemen. Gaia eta berorren aurrekariak A. Urrutia, C. Gallastegi eta taldeak aurkeztu dizkigute, horretaz lekukoek diotena, Batzarretako Araudiak eta urtez urte izandako euskararen erabilera aurkeztuz (1833-1877) (Ikus Urrutia 2003). Euskarazko testuak ere eskueran daude orain, testu-bilduma zabal batean (1846-1872), azterketa juridiko eta filologikoak lagungarri dituztela. Uste dudanez, urte hartara arte ezagutzen den euskarazko testu-bilduma aberatsena da Bizkaiko Batzarren hau ofizialtasunen historian, eta Batzar liberalen eskutik datorkigu.

3.6. Karlismoa eta euskara

Esperientzia horren paretsuan edo, Hegoaldeko kontrairaultza (J. P. Uribarri [1775-1845]) eta karlismoa ere gomutarazi behar ditugu hemen. Euskal kulturaren bere lekua izan zuen karlismoak (López Antón), eta egon zen tradizio karlista horren barnean hizkuntz politikarako unerik ere.

Zenbait karlistak iradokita, eskuetan zituzten Herri-Erakundeetan egon zen proposamen ausartik, kasu batean behintzat ofizialtasunaren arazoa zuzen-zuzen aurkeztu zuena. Azken karlistaldian, Gipuzkoa eta Bizkaiko Herri-Erakunde karlistetan agertu zen hizkuntz politika aldatzeko gogo nabarmenagoa (1874, 1875). Gipuzkoan eskola-eginkizunei begira batez ere, eta Bizkaian politika orokor zabalago baten proposamenarekin.

Bizkaiko Herri-Irakaskuntzako Batzordeak ofizialtasunaz zioena bereziki azpimarratzekoa da (1875). Testuak ez du ispiatzen beharbada karlisten pentsamendurik orokorra, baina balio du haietako batzuen irizpide politiko-linguistiko ausartak ezagutzeko. Ez da mugatzen eskola-kontuetara, eta begiratu zabalago batekin hizkuntzaren estatus sozialaz, euskararen ofizialtasun-mailaz eta hizkuntz politika berriaren azken xedeaz ari da hitz egiten:

De suma importancia bajo todos los conceptos es el cultivo del idioma que como el más rico de los tesoros tradicionales nos legaron nuestros mayores. En el honor de Vizcaya está el conservarla, cultivarla y perfeccionarla, generalizándola además por todos los ámbitos de su jurisdicción y haciéndola extensiva a todas las clases sociales, hasta elevarla a idioma oficial, en sustitución o al menos al igual del castellano que ha invadido hasta las últimas aldeas relegando al olvido y aun hasta el desprecio de ciertas gentes, la veneranda lengua euzcara, arrinconada y abandonada al uso rutinario de las últimas clases.

Por eso la enseñanza simultánea e igualmente esmerada de ambos idiomas entra en las patrióticas miradas de esta Junta (Garmendia 1984: 428).

Ez dago esan beharrik garrantzi teorikoa eta politikoa izan zitzaketen ideia eta asmoen aurrean gaudela testu honetan. Nolanahi ere, hizkuntzarekiko kontzientzia politiko berritu baten aurrean aurkitzen gara, nik uste; euskararen ofizialtasun orokorraren arazoa mahai gainean jartzen duen horrelako lehenengo testua da, nik dakidanez.

3.7. Eusko Pizkundea

Hizkuntzaren kontzientzia sozialak gora egin zuen, beraz, eta hizkuntza-abertzaletasuna gertatu zen hurrengo pausoa, Arana-Goirik hizkuntza balio nazionaltzat begiratzean, eta aitopen horretarako euskara hautatzean. Ideia hori gertatu zen euskaltzaletasun berrien motor azkarra, Eusko Pizkundan garatu eta hedatuz joan zena (1876-1936); ez noski erresistentzia eta kontrakorrik gabe, eta betiere bakoitzak hizkuntz politikarako asmo eta egitarauak bere gisara azalduz.

S. Arana-Goirik (1865-1903) bere abertzaletasuna aldarrikatzean, pentsamendu eta zaletasun horretan txertatu zuen euskara ere. Euskara ikasi egin zuen, hainbat lan idatzi euskarari buruz (*Gramática elemental del euskera bizkaino*,

1888, etab.), eta berari zor diogu neurri handi batean euskal pertsona-izenen zerrenda berria (*Egutegi bizkattarra*, 1897; *Deun-ixendegi euzkotarra*, 1910; Iñaki, Jon, Joseba, Alazne, Miren, Jokiñe...), herritarrek berentzat hartu dutena.

Abertzaletasun sabindarrak ez du izango, beharbada, bere nazio-ezaugarri nagusizat hizkuntza, baina segurua da Arana-Goiriren euskararen aldeko grina bizia. Begira hogeita bat urterekin (1886an) idatzitako pasarte hau:

El euskara es, pues, elemento esencial de la nación euskaldun; sin él, las instituciones de ésta son imposibles. La desaparición del euskara causaría irremisiblemente la ruina de aquella nación, que moriría como muere la hoja en otoño al ser privada por la naturaleza de la savia nutritiva (Arana Goiri 1980, I: XXXIII).

Azken karlistaldiaren ondoren, inoiz baino biziagoak ageri zaizkigu hizkuntza galduko denaren susmoa eta mina. Horren lekuko literario onak dira bata Bizkaitik datorrena eta beste bi Nafarroakoak: Arrese Beitiaren “Ama euskeriari azken agurrak” (Elizondo, 1879), Campión-en biak, *Blancos y negros* eleberrian eman zuen Martiniko-ren historia (1896) eta Erraondoko danbolintzeroarena.

Gerraondo latz hartan (1876...) kulturari eta hizkuntzari eman zitzaizen lehenetasuna, Euskal Herriaren nortasuna indartu nahian edo. Horren emaitza izan ziren hainbat aldizkari (erdaraz lehenengo, euskaraz ere bai geroago), horien inguruko taldeak eta, azkenik, Erakundeak berak. Goraldi horrek bere urte jasoena 1918an izan zuen, hain zuzen lau Aldundiek Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia sortu zituztenean.

Euskal Herrian hizkuntzaren aldeko (edo kontrako) asmo politikoak gora eta gora eginez zihoazen bitartean, Espainiak ere nahitaezkoa zuen gaiak iritzi eta jarrerarik izatea, XVIII. mendetik honako arrasto zurrun berean gaztelania bakarrik defendatzeko, edo alderantziz, Penintsulako hizkuntzei eta elebitasunei bide emateko.

Bi korronte hauen topaketaren historian katalanismoa izan zen gureari aurrea hartu ziona, eta Madrilgo Kongresu eta Senatuan eztabaida bortitzena sortu zuena (1916), F. Cambó *Lligako* diputatu moderatuak katalanaren ofizialtasuna eskatzen zuen bitartean. *Gaztelanismo* linguistikoaren historia egiten hasi gabe ere, gogora dezadan pasadizo hori.

Ez zen hura hizkuntza katalanaren arazoa Espainiako Gortean eztabaidatzen zen lehen aldia, baina bai, uste dut, halako oihartzunarekin eta egitarau politiko oso baten barruan Espainiari hizkuntzaren ofizialtasun-arazoa aurkez-

tu zitzaion lehenengo parada. Katalanaren ofizialtasunerako lege-proposamen bat aurkeztu zen orduan. Handik gutxira, 1918 aurreko euskal mugimendu politikoaren giroan, Cambók Donostian eta Bilbon ere bere egitarau politiko horren berri eman zuen.

Euskararen ofizialtasunarena bete-betean ageri zaigu handik aurrerako euskal autonomismoaren historian (1918-1936): jada isildu ezineko gaia zen, eta alderdi eta erakundeak berorren inguruko eztabaidara deituta aurkitu ziren. Arazoa ez zen ezkutatu ahal izan ez ikusiarena eginez, eta gaia ondoko Estatutu-Proiektu guztietan agertu zen.

Urte haietan, euskararen ofizialtasunarena aukera zegoen bakoitzean ikusten dugu: Euskal Herriko eskariei erantzunez Gorteetan aurkeztutako Estatutu-Proposamenean (1918), Gipuzkoako Aldundiak “Directorio Militar” delakoari bidalitako mezu luzean (1923), Eusko Ikaskuntzaren Estatutu-Egitasmoan (1931), Lizarrako Estatutu-gaian (1931), Iruñean udalek bozkatutako testuan (1932), Hiru Probintzietan plebiszituz onartutako Estatutu-Proiektuan (1933).

Errepublika aldarrikatu ondoren (1931), Espainiako Konstituzionalismoaren historian lehenengo aldiz eraman zuten maila horretako Gutun Nagusira hizkuntzen arazoa; aurreko beste hamaika Konstituzioetan ez zen sekula horrelakorik egin, eta Penintsulako hizkuntzek aukera berri bat izan zuten II. Errepublikarekin. Katalanek, beren hizkuntzaren ofizialtasuna kendu eta bi mende geroago, berreskuratzeko abagunea zuten, eta euskaldunek, berriz, euskararen historia luzean inoiz ezagutu gabeko ofizialtasun-maila izan zezaketen.

Gerra piztu eta gero, azkenik, hilabete batzuetan indarrean egon zen Euskal Estatutua (euskaraz, *Euzkadi'ren Berjabetasun Araudia*: 1936-1937), eta lehen artikulutik bertatik arautu zuen modu orokorrean hizkuntzarena. Erdarazko testuak (Espainian ulertu zutenak, alegia) hauxe zioen:

[...] El vascuence será como el castellano, lengua oficial en el País Vasco, y, en consecuencia, las disposiciones generales de carácter general que emanen de los poderes autónomos serán redactadas en ambos idiomas. En las relaciones con el Estado español o sus autoridades, el idioma oficial será el castellano.

Oinarrizko artikulua horren ondoren, ofizialkidetasun hori euskal gizartera moldatzeko arau-saila eman zuen Estatutu honek bere 7. artikuluan: “El País Vasco regulará la cooficialidad del castellano y el vascuence con arreglo a las siguientes normas”, dio izenburuan. Azpimarratzekoa da Hiru Probintzietan Aldundien egitekoa zela eremu euskaldun/erdaldunen lurraldeak izendatzea,

euskaldunek hizkuntza bat nahiz bestea libreki aukeratu ahal izango zutela, eta abar.

Bistan da 1936ko Estatutuak ez zuela legeztatu Euskal Herri osoko ofizialtasuna, ezta euskararen lurralde eta hiztun guztiena ere, baina aro berria ireki zion euskararekiko hizkuntz politikari, berehala eten zena eta, hala ere, geroko belaunek berreskuratu dutena, Hiru Probintzietan eta Nafarroan (1979, 1982).

3.8. Gerraostean (1937-1975)

Gerraostean, lehen hamarkadako deuseztapen ofizialaren ondoren (1939-1949), gizarteak burua jaso ahala (1950-1970) zirrikitu praktikoak behartuz edo joan ginen, baina hizkuntzen aldeko lege-izpirik izateko 1970 arte itxaron behar izan zen.

Gerrateak eta ondoko urteek ofizialtasun oro ezabatzeaz gain beste hainbat errealitate ezabatu zuen, erro-errotik gainera: 1930eko hamarkadan euskararen alde ziharduen lagunarte kultural bizkorra preso edo erbestera joan zen, eta hemen gelditutakoek isilpera pasatu behar izan zuten. 1940an liburu bakarra eman zen argitara Hegoaldean, dotrina bat, eta erdal ortografiara itzulua: *Cristau-Dotriña* (Gasteiz, 1940).

Hizkuntzaren aldeko Erakundeak (Eusko Ikaskuntza...), elkarteak (Jaungoiko-Zale, Kardaberaz...), aldizkariak (*Zeruko Argia*, *Euzkerea*, *Yakintza*, *RIEV* bera...), astekariak (*Argia*, *Ekin*...), euskarari lekuri ematen zioten egunkariak (*Euskadi*, *El Día*...) edo egutegiak isilaraziak izan ziren Hegoaldean, eta Euskaltzaindia bera ere negualdi luze batean sartu zuten.

Kultura idatzi eta ofizialtasunen ametsik gabe ere, nahikoa lan zuen euskaldunak bizitza arrunteko euskarari berean eusten. Ezagunak dira errepresio hartako modu zail eta zitalak, hain zuzen ofizialtasun guztien kontrako bidea eramane zutenak. Pertsonen, enpresen eta kaleen euskal izenak debekatu egin ziren, eta badago “agur” esatea bera ere debekatu nahi izan zuen tokiko ebazpenen bat (R. Sainz Iturria komandantea: Lizarra, 1936-09-25), edo Bizkaiko Areetan semeari kalean euskal izenez deitzeagatik ezarritako isunik². Herritar

² “COMANDANCIA MILITAR DE LAS ARENAS. He recibido de Don JOSE MARÍSCAL ARANA la cantidad de quinientas pesetas que en calidad de multa le ha sido impuesta por mi Autoridad por consentir que a un hijo suyo se le llame en la vía pública con el nombre de Yonchu, demostrando con ello una manifiesta desafección á nuestro Glorioso Movimiento Nacional y una desobediencia marcada á lo dispuesto por nuestro Caudillo en el sentido de usar nombres de marcada significación separatista. Las Arenas 29 de Octubre de 1938. III Año Triunfal. El Comandante Militar”. [Zigilua du, eta sinadura irakurtezina].

askoren oroimenean geratu dira halako ukapen ofizialen oihartzunak.

Bide batez gogorarazi behar dut, gainera, gerra gorrian geundela (1938ko abendua), estropezu txar bat egon zela Gobernu frankistaren eta F. J. Lauzurika Gasteizko Administrari Apostolikoaren artean, hain zuzen elizako euskararen erabilera agintari zibilek beren gisara arautu nahi izan zutelako. Diozesiko hizkuntza-tradizio betidanik onartua eta Erregimen militar-falangistaren hizkuntza-proiektua aurrez aurre aurkitu ziren, Elizan indarrean zeuden ohituren aurka Gobernu eskua sartzen ausartu zelako.

Hiru hamarkada joan ziren ofizialtasunen bati legezko bidexkaren bat ireki zitzaion arte. Bien bitartean, bide praktikoa ibilgarriagoak urratzen ibili zen euskal kultura (ikastola, irriatiak, aldizkariak, liburugintza, kanta berria, bertsolariak...). Azkenik, 1970eko *Ley General de Educación y Financiación de la Reforma Educativa* delakoak zera jaso zuen bere testuan:

Tit. I. Cap. II. Art. I4. La educación preescolar comprende juegos, actividades de lenguaje, *incluidas en su caso las lenguas nativas [...]*. **Art. I7.** I. Educación General Básica. Las áreas de actividad educativa en este nivel comprenderán: el dominio del lenguaje mediante el estudio de la lengua nacional, el aprendizaje de una lengua extranjera y *el cultivo, en su caso, de la lengua nativa [...]*. [Azpimarra gurea].

Bost urte geroago, erregimen frankistaren azken orduko bi Dekretuk (1975eko maiatzean eta urrian onartuak) ireki zuten bidea bestelako zabalatasun batekin lanean hasteko. Lehenengoak zioenaren arabera, xedea zera zen (*Decreto 1433/1975*, 30 de mayo): “la incorporación de las lenguas nativas en los programas de Educación Preescolar y General Básica”, 1975-1976 ikasturteak aurrera. Eta bigarrenaren arabera (*Decreto 2929/1975*, 31 de octubre), “se regula el uso de las lenguas regionales españolas”: hauek espainiar ondare kulturaltzat hartzen dira eta Estatuak babestekoak dira, hedabide eta argitalpenetarako legezko zilegitasuna aitortzen zaie, gaztelania da Estatu eta Herri-Erakundeetako hizkuntza ofizial bakarra, eta, azkenik, inor ezingo da baztertu eskualdeko hizkuntza bat ez jakin edo ez erabiltzeagatik.

Nabaria zen garai berrien atarian geundela 1975eko udazken hartan.

Rikardo Badiola-ri eskertzen diot agiri honen berriematea. Honelako erabaki eta zigorrak ugariak izan ziren, Errepublikara garaiko hizkuntza politikaren urratsak ezabatzeke. Ikus Torrealda 1998. [N. B.: Ikus orain: Anaut, D., 2013, *Euskararen kate hautsiak*, Andoain: Aise].

4. Begiratu orokor batean

Ofizialtasunaren historia honetan zenbait puntu azpimarratzea ez da guztiz lekuz kanpo egongo, nahiz eta honelako saiakera-lan batek behin betiko ondorio asko ateratzeko lain indarririk ez duen.

Lehenik esan dezadan euskara hizkuntza ofiziala ere izan dela aurreko mendeetan, XX.aren aurretik. Hori bai, halakorik izan den bakoitzean galdetu beharra dago zenbateko ofizialtasuna izan duen, garai ezberdinetan, betekizun sozialetan, jarduera-sektoretan, bere molde idatzi/mintzatuak, lurralde eta erakundeetan, betiere aldakorra izan baita berori aipatu alde guztiotan.

Euskararen ofizialtasuna sakabanatua izan da, mundu zibilean zein eliztarrean, gure gizarteetako botere ezberdinak bezala. Ofizialtasun ezberdinen bidez, Aginte-Erakunde bakoitzak euskal hiztuna bere gisara hartu izan du.

Botere horiek erbestetik baldintzatuak ageri zaizkigu beren hizkuntza-hautapenetan, sarritan iraunkorki gainera, eta oso zaila gertatu da hizkuntz politikan ofizialtasunerako erabakiak erabat beregainak izatea, halakorik nahi izan den gutxietan ere.

Begiratzekoa da euskal gizarteko talde sozialak eta interesak nola mugitu diren hizkuntza balioestean, beroni betekizun ofizialik ematean, edo albora uztean. Aztergai argigarria gerta daiteke agintari eta agintearen zerbitzariak bitartekari-zeregina nola bete duten jakitea, botere ezberdinen artean (Koroa, Batzarrak, etab.) ez ezik gizarte-klase ezberdinen artean ere.

Beti ondoan izan dituen beste hizkuntzekiko gizarte-harremanean lekutu izan da euskararen ofizialtasuna, hain zuzen ofizialtasunean aurrea hartu dioten hizkuntzekin lehian alegia. Ofizialtasun hori ez da izan sekula ezer beregain isolatua, inguruak baldintzatu eta mugatua baizik.

Historia honetan galdetu beharra dago, gainera, nola sortu, garatu eta bizi izan diren euskal gizartean hizkuntzarekiko kontzientzia apalenetik aurrera agertutako sentiera, jarrera eta ideologiak, itxura guztiz garrantzia baitute ofizialtasunaren bilakaeran.

Nabaria izan da mendez mende hizkuntzarekiko oharpena eta gogoeta nola joan den loratzen, klase zuzendariengan lehenengo eta herritar arruntengan gero, azkenik abertzaletasunak balio nazionaltzat eta autonomismoak arautu beharreko balio kulturaltzat definitu eta egitarau politikoetaraino eramanean arte.

Ofizialtasunaren hau gai zabala da, eta ikerlan arretatsua beharko luke iraupen luzeko historian lekututa, botere, politika, gizarte eta mentalitateen bidegurutzetik begiraturik. Lerro hauek horrelako zerbaite iradokitzeko soilik balio izan dute, gehiago gabe. Etorriko ahal dira lan osoagoak eta helduak.

BIBLIOGRAFIA

- Agirreazkuenaga Zigorraga, I., 1991, "Hizkuntzaren ofizialtasunaz", *Jakin* 65, 1991, II-38.
- Agirreazkuenaga Zigorraga, J., 1994, *Euskal gizartean barrena euskaltzaletasun politikoaren sorrera garaian: zaldunak, matxinoak, enpresariak, langileen eraketa (1789-1876)*, Bilbo: Beitia.
- Agirreazkuenaga Zigorraga, J., 2002, "Euskararen ideologia nagusiak. Euskara jasoaz edo goren graduaz (1801-1901-2001)", *Hermes* 4, 2002, 86-91.
- Arana Goiri, S., 1980², *Obras completas* (3 libk.), Donostia: Sendoa.
- Cano, R. (ed.), 2004, *Historia de la lengua española*, Barcelona: Ariel.
- Certeau, M.; Julia, D.; Revel, J., 2002 [1975], *Une politique de la langue. La Révolution française et les patois: l'enquête de Grégoire*, Paris: Gallimard. [Posface inédite de Dominique Julia eta Jacques Revel].
- Euskaltzaindia, 1978, *Euskararen liburu zuria*, Bilbo.
- Eusko Legebiltzarra, 1991, *Ley básica de normalización del uso del euskera*, Vitoria-Gasteiz: Legebiltzarra.
- Euzkadi'ren Berjabetasun Araudia / Estatuto de Autonomía de Euzkadi*, [1936?], Bilbo: Tip. y Enc. E. Verdes.
- Fernández Ordóñez, I., 2004, "Alfonso X el Sabio en la historia del español" in Cano, R. (ed.), 381-422.
- Garmendia, V., 1984, *La ideología carlista. (1868-1876). En los orígenes del nacionalismo vasco*, [Donostia]: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Goihenetxe, M., 1983, "Euskararen erabilpena Nafarroako Erreinuan XVI-XVIII g. mendeetan" in *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, Bilbo: Euskaltzaindia, Iker 2, 251-257.
- González Jiménez, M., 2004, "El reino de Castilla durante el siglo XIII" in Cano, R. (ed.), 357-379.
- Intxausti, J., 1978, "[Hizkuntzen] Ikuspegi politikoa" in *Euskaltzaindia* 1978, 79-142.
- Intxausti, J., 2004, "Elizak egin (ez) duen euskarazko kultura idatziaz", *Hemen* 4, 2004, 63-80.
- Intxausti, J., 2008, "Luis Astigarraga Ugarte, politikari eta pedagogo euskaltzalea (Segura, 1767 – Gasteiz, 1840)", *Ikastaria. Cuadernos de Educación* 16, 2008, 11-45. [N. B.].

- Jimeno Jurío, J. M., 1997, *Navarra. Historia del euskera*, Tafalla: Txalaparta.
- Jimeno Jurío, J. M., 1999, *Navarra, Gipuzkoa y el euskera. Siglo XVIII*, Pamplona: Pamiela.
- Larrañaga Elortza, K., 1978, “Faktore sozio-ekonomikoak eta euskara [historian zehar]” in *Euskaltzaindia* 1978, 227-301.
- Larrañaga Elortza, K., 1991, “Euskal egitate bereizgarriaren ardura eta euskararena bereziki Bergarako Erret Mintegi abertzalearen hizkuntza egitarauan”, *Tantak* 6, 1991, 65-85.
- López Antón, J. J., 2000, *Escritores carlistas en la cultura vasca. Sustrato lingüístico y etnográfico en la vascoología carlista*, Iruñea: Pamiela.
- Madariaga Orbea, J., 2008, *Apologistas y detractores de la lengua vasca*, Donostia: FEDHAV (Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autónomo de Vasconia). [Jat. ed., 2006, *Anthology of apologists and detractors of the Basque language*, Reno: Center for Basque Studies, University of Nevada].
- Moreno Fernández, F., 2005, *Historia social de las lenguas de España*, Barcelona: Ariel.
- Rey, A. et al., 2007, *Mille ans de langue française. Histoire d'une passion*, Paris: Perrin.
- Torrealdai, J. M., 1998, *El libro negro del euskera*, Donostia: Ttarttalo.
- Urrutia Bilbao, J., 1978, “Euskararen prozesu historikoari eragiten dioten faktore juridiko-legalak” in *Euskaltzaindia* 1978, 383-440.
- Urrutia, A., 1991, “Hizkuntz ofizialkidetasuna”, *Jakin* 65, 1991, 39-60.
- Urrutia, A. (ed.), 2003, *Bizkaiko Batzar Nagusiak eta euskara, 1833-1877: euskarazko testuen bilduma eta azterketa*, Bilbo: Bizkaiko Batzar Nagusiak.
- Zalbide, M., 2007, “Pedagogoa Batzar Nagusietan. Hizkuntzen azterbideak, Iturriagaren argitan”, *Euskera* 52, 2007-I, 61-157.
- Zierbide, R., 1994, “Creación de la Senescalía de Saint-Palais 1639” in *Oibenarten laugarren mendeurrena (1992)*, Bilbo: Euskaltzaindia, *Iker* 8, 613-625.

EUSKAL ALMANAKA ETA EGUTEGIAK (1815-2007)*

Euskarazko egutegi, almanaka edo urtekariak ez dira izan batere arrotzak euskara idatziaren historian, eta tradizio hori ez da gertatu pisu gutxikoa ere euskal irakurleen artean. Izenburuan bi data eman ditut mugarriztat (1815-2007), baina Leizarragaren idazlanak ezagutzen dituenak badaki askoz ere historia zaharragoa izan daitekeela hori.

Egia esan argitalpen-mota horren balioa ez da erreparatu gabe pasatu gure artean; adibidez, 1996an Arantzazuko Egutegiari Abadia Saria eman zion Gipuzkoako Aldundiak; hala ere, euskara idatziko jarduera horren guztiaren azalpen orokorrik ez dut ezagutzen, eta ondoko orrialdeen bidez ekarri nahiko nuke argitara iragan gutxi ezagun hori. Lan erabat burutua ez izan arren, balioa ahal du, behintzat, hurrengo iker-urratsak emateko.

Kultura handi eta hizkuntza idatzi normalizatuetan, egutegiena bazterreko kultur gertaera izan ohi da itxuraz (nahiz eta tamaina handikoa izan), baina gurea bezalako batean besterik dela pentsa daiteke, irakurlego zabal bat sustatzeko baliozko lanabesa izatera iritsi izan baitira egutegiak. Euskal Herrian ere irakurle leialak izan dituzte, liburuek baino areago. Hori horrela izanik, gaiaren aurkezpen xume bat egiteko balio dit J. Haritschelhar adiskidearen omenaldi-egokiera honek, betiere Hegoaldearekin batera Iparraldea ere gogoraturaz.

I. Urtealdi oroko aldizkariak (1848...)

Argitalpen-genero honek historiaurre luzea izan du gure artera iritsi aurretik. Egutegien historiak, eta berorien bidezko kultur, erlijio edo politika-hedapenaren jardunak biziraupen handiko kondaira bete du, herri eta kulturetan.

* 2008, in *Jean Haritschelhar-i Omenaldia*, Bilbo: Euskaltzaindia, Iker 21, 241-280.

Batez ere tresna praktikoak zirelako iraun izan dute horrelakoek, halako segidarekin. Baliagarritasun hori, beren baitan zekartzaten argibide praktikoe-tatik zetorkien: denboraren neurketak, eguraldiaren iragarpenak, iragan-urtea-ren oroimenak, hurrengo urtealdiko aste eta egunen gobernu hobeak, lanen eta uzten ardurak, edo elizako urte-zikloa, etab. Hori guztia herritarren eskueran jartzeko balio izan dute egutegiek. Hortaz, gizarte-bizitza kodetuan guztiz baliagarriak ziren.

Arrazoi horiengatik, herritarrek gogoz bilatu ohi dituzte honelako argital-penak. Eta hortik zetorren almanaka eta egutegien bestelako baliagarritasun praktikoa: beren hedapenagatik, ideiak erakutsi eta zabaltzeko ere balio zuten, eta herritar xumearenganaino hainbat mezu interesatu pasarazteko tresna eroso bilakatu ziren. Eta halaxe izan zen, adibidez, Leizarragaren Eliza kalbinistaren-tzat bezala katolikoarentzat, nahiz talde kultural edo politikoentzat.

Nazio handi eta txikietan aurki daitezke honelako adibideak, baina Euskal Herrira hurbilduz, frantsesez argitara emandako bat gogoraraz genezake: Baionako Elizbarrutian, besteak beste Napoleon Handiaren politika erlijiosoaren bertute onak aldarrikatzeko erabili zen *Almanach Ecclésiastique du Diocèse de Bayonne* hura (1806). Iraultza-urteetako jukutriak ahantzi, eta aro berrien leun-tasun eta itxaropenak zabaltzeko, esan nahi da.

1806ko hori erdaraz bazen, euskarazkorik ez da falta izan geroztik, Iparraldean noski, baina baita Hegoaldean ere. Ez naiz hasiko almanaka haien guztien historia egiten, baina merezi du iruzkin labur bat honek.

I.1. Liburu gisako almanakak (1848-2007)

Egutegi-takoak agertu aurretik, liburu gisako egutegiak izan ditugu Euskal Herrian. Leizarraga izan zen lehenengo euskarazko egutegia eman ziguna, Bibliaren ondoan bere *Kalendrer*a argitara ematean, “Bazko noiz daten” jakiteko (1571).

Bibliografoen arabera, gure euskal egutegi modernoetan lehena 1815koa da, Bilbon inprimaturiko *Egutegia eusquerascoa* zeritzana, Jose Pablo Ulibarri idaz-le arabarraren ardurapean kaleratutakoa. Aipu bibliografikoa ezaguna dugun arren, ez zaigu geratu liburutegietan honen ale bat bera ere.

Geroztik, argitaletxe, talde sozial edo pertsonaia eragileren baten inguruan sortu eta zabaldu izan dira almanaka, urtekari, egutegi, agenda eta antzeko aldizkariak. Gogoratu besterik ez dago: Iparraldean xuriek bezala gorriek, Hegoaldean kolore ezberdinetako abertzaleek, *Argiak* bezala *Eskualdunak*, Duvoisin kapitainak legez J. Hiriart-Urrutyk, S. Arana-Goirik ez ezik A.

Campionek ere, Gregorio Mujikaren antzera I. López-Mendizabalek eman zituzten argitara Egutegiak. Bakoitzak bere gisara, eta bere xedeekin.

Egutegiok sarrienik bizialdi laburrekoak izan ziren (J. Gorosabelen *Eusquerasco pronosticua*, adibidez, behin bakarrik agertu zen: 1860an), baina bada domina mereziko lukeen historia luzeagorik ere: J.-B. Etxeberri Uztaritzeko omonier ibar-tarrak 49 urtez atera zuen, berak bakarrik, *Escualdun laborarien adiskidea* (1848-1897). 1854ko goseteak eragin zion atzera, behin; bestelakoan, gogor eutsi zion lanari. Etxeberri hau da Iparraldean “Almanakaren aita” deitu izan zutena.

Gerora, Almanakaren lanari hamarkadetan heldu zion J.-B. Etxeberri horretaz (1806-1898) Piarres Lafitte mirespenez mintzatu izan da, birritan (almanaken mendeurrena betetzeari, 1949an, eta geroago ere bai, 1970ean)¹. Eta J.-B. Etxeberri hau hiltzean, almanaka ez zen desagertu, baizik eta M. Landerretxe-k eta Etxeparetarrek (apaizak eta medikuak, biek) eramanik 1914raino iraun zuen bederen. Lafittek ateratako *Gure Almanakaren gurasoetako bat* Etxeberriren hartan ikusi zuen Lafittek berak (Lafitte 1949, 1970).

Azken hamarkadetako almanaka eta egutegien guraso nagusia *Eskualduna* eta *Herriaren* ondoko urtekarietan ikusi behar da. Dena den, honek ere bere aurrekaria izan zuen Duvoisin-en *Escualdun almanac edo egunari berria* deituan (1884-1887). Vinson eta Lafitteren esanetan, “enperadoretarra” zen hau, baina 1888an *Eskualdun gazetaren almanaka* bilakatu zen, hau da, izen bereko astekariaren argitalpena.

Hortik aitzina, astekariko irakurleen artean, ia beti izan zen urteko argitalpenen bat, noizbehinka huts egin arren (1901-1902. urteetan, adibidez, 1903koan esaten zaigunez: 22. or.), eta bizpahiru alditan izenburuz aldatu. Bildu ahal izan ditugun datuen arabera, kronologiarik ziurrena ondoko hau izan daiteke: *Escualdun Gazetaren Almanaka* (1888-1904), *Eskualdun Onaren Almanaka* (1905, 1908) eta *Eskualdunaren Almanaka* (1910-1925)².

Azken helburuak espresuki erakusteko, almanaka honek bazituen bere esloganak, argitalpenaren pentsamendua nolabait laburbiltzen zutenak; bata

¹ J.-B. Etxeberri-ren lan nagusia Almanaka izan zen, baina bestelako idazlanik ere eman zuen. Horietan mardulena, *Testament zaharreko eta berrico istoria* (1874 eta 1877: 284 orrialde). Beste aipagarrienak: *Miguel Garicoitz aphezaren bizitza* (1882) eta *Maiatzeko bilabete chumea* (1877). (J.-B. Etxeberri hau ez da nahasi behar P. Lafitte-ren izen bereko lankide eta beste almanaka-egile donoztiritarrarekin).

² [N. B.: Ikus orain, Baionan 1909an inprimatutako “Eskualdunentzat eskuarazko egunari edo Almanaka berria”, M. Haranburuk sarean jarrita: <http://issuu.com/musdeh/docs/1909garren_urtheke_almanaka_berria>].

Iparragirreri hartua zen, bestea Gr. Adema *Zaldubirena*: “Herrialde guzietan toki onak badira; / baina bihotzak dio: zoaz Eskual Herrira!” eta “Laborantza gauza handi / eta botheretsua: / Hartan da lanean ari / Jainkoaren eskua, / Gizonaren eskuari / berma dadin lothua”.

Gure Herria aldizkariak, Gerrate Handiaren ostean, *Gure Almanaka* atera zuen (1924), baina 1925etik aitzina *Eskualdunaren* almanakarekin bat egin zen. Eta ekimen bateratu hori da gerrateraino (1939-1944) luzatu zena, eta haren ondoren (1946) Piarres Lafittek eta beronen lantaldeak 1984raino ekarri zutena. P. Xarriton euskaltzainak esaten didanez, *Herriaren* zuzendaritza utzi eta gero ere bihotzez arrunt maitea zuen almanaka ez zuen utzi nahi izan bere eskutik Lafittek. (Baionako Euskal Museoa ikus daiteke argitalpen hau: gerraurreko gehienak eta 1956-1984. urte artekoak).

Eskualduna eta *Herriaren* almanaka *bandi* horien ondoan, bada besterik ere Iparraldean, arrazoiren bat edo bestegatik interesgarri gertatzen dena.

Zuberoak historia beregaina du honetan ere: xuriek bezala gorriek beren almanakak izan zituzten. Berdoly-ren inguruko errepublikazaleek izan zuten aski indar berariazko urtekari bat kaleratzeko (*Almanaka berria edo Ziberouko eta Basa-nabarreko egunaria*: 1879tik 1890eraino agertu zena). Errepublikaren ongiak eta Konstituzioaren bikaintasunak aldarrikatzen zituen, halako zuhurtasun zaindu batez badaezpada.

Aldi berean, xuri elizkoiek Iribarne Zalgizeko erretorearen eskutik *Armanak uskara edo Ziberouko egunaria* argitaratu zuten (1887-1906)³, eskola eta kongregazioen alde/kontrako borrokarik gordinenean xurien ahotsa goraki jaso zuena, Euskal Herria ahantzi gabe: kasu honetan, “Jinkoua eta herria! Zuhurtarizona eta lana! / Eta bizi bedi Uskalduna! Iao! Iao!” zioen ikurburuak.

Iparraldeko tradizioa izan zen hori dena. Hegoaldea beranduago, eta ziurki askoz motelago, ibili zen almanaken argitalpenetan. Aipatu dugu segidarik gabeko Ulibarri-rena (1815). Mende-erdia geroago etorri ziren hurrengoak: Hiru Probintzietarako *Eusquerasco pronosticua* (Bilbo, 1860), Tolosan argitara emandako *Euscaldun necazarien adisquidea* (1865-1866) eta Donostian S. Barojaren bi almanaka elebidunak (1877, 1878). Hortik aitzina, *calendariyoak* nagusitu ziren (iradoki zaigunez, *Calendario Zaragozano* ezaguna zen hori, gaur egun ere Donostian salgai dagoena). Erdal egutegi horiek desagertaraztea izan zen gero, ikusiko denez, euskarazko lehenengo egutegi-takoen xedea.

³ *Armanak uskararen* bilduma oso bat Baionako Udal Liburutegian ikus daiteke, liburuki bakar batean koadernaturik.

Urteroko horiek guztiek Euskal Herriko bi aldeetan ere utzi zuten gizar-tean ildorik urratuta, beren kopuruagatik, noski, eta baita zabaldu zituzten mezuengatik ere.

Iparraldeko almanaka haien hedapenaz ez dut aurkitu estatistikarik; hala ere, badakigu, Lafittek idatzi zuenez, *Eskualduna* astekaria 1908an 7.000 harpidedun izatera iritsi zela. Galde liteke horietarik zenbatek jaso ohi zuen almanaka ere. 1896an zera idatzi zuen Almanakak bere orrialdeetan (3-4 or.): “[...] kazeta baino anhitz gehiago hedatzen delakotz Almanaka [...]” honetan zenbait informazio errepikatu egingo zituela, alegia. Uste daiteke, gainera, 1900-1910. urteetako borroka ideologikoen garrantza ezagutuz, ez zuela zabalkunde hark batere behera egingo 1896tik aitzina, alderantziz baizik.

Baina balioespen kuantitatiboen ondoan, ezin da ahantzita utzi almanaken alde kualitatibo soziala. Garaiko mentalitateen gain lan bortitza egin zuten, batzuetan jaun eta jabe izaki (*Eskualdunaren Almanakaren* kasuan bezala), eta inoiz bertatik bertarako borroka politiko-erlijiosoan sarturik (Zuberoan gertatu zenaren arabera).

Hortaz, garaiko eta ondoko mentalitate herritarraren moldakuntza ezagutzeko, almanaka hauek aztertu beharra dago, lortu zituzten leku eta garrantziagatik. Berariazko balio historiko eta soziala ezagutu behar zaie urtealdi oroko argitalpen hauei, ezagutza historiko-sozialerako.

I.2. Egutegi-takoak (1898-2007)

Almanaken saioaren ondoren asmatu eta zabaldu zen egutegi-takoen ohitura, lehenik Hegoaldean, eta Iparraldean gero. Egutegi-molde berri honek sekulako arrakasta ezagutu du, eta izan, badu oraindik ere, argitalpenen artean ediziorik handienak dituela eta eguneroko irakurketa leialenarekin, gainera.

Oro har, almanaken eta zehazkiago egutegi-takoen katalogatzeak, eta izandakoen bilduma osoak jasotzeak, aparteko zailtasunak dituzte, arrazoi ezberdinentzat: a) luzaz iraundakoak, tituluz maiz aldatu izan dira (argitalpenaren beraren segida ezkutatuz), b) urte jakin baterako balioa zutenek, jendeak ez ditu gorde izan, c) takoak, gainera, egunez egun azkeneraino desegiteko sortuak dira, eta liburutegietan ere ez dira jeneralean gorde izan⁴.

⁴ Hiru liburutegitan daude batez ere egutegi-tako hauek: Urkixo Liburutegian (Donostia), Baionako Museoa eta Lazkaoko beneditarren euskal liburutegian.

Ziur tako izandakoak aipatuko ditugu ondoko laukian. Zaila da horrelako besterik ez dela izan baieztatzea, baina bibliografia eta liburutegi pribatuetan ikusitakoen ostean, ondoko laukiko horretara mugatuko dugu egutegi-takoen zerrenda.

EUSKAL EGUTEGI-TAKOAK (1898-2007)

Urtea	Egutegia	Argitaratzailea
1898	<i>Lenengo Egutegi Biskattarra</i>	S. Arana-Goiri
1909	<i>Euskal-Esnalearen Egundiya</i>	Euskal-Esnalea
1910-1936	<i>Euskal Egutegia</i>	I. López-Mendizabal
...1933...	<i>Eskual-Egutegia</i>	J. Elizalde <i>Zerbitzari</i> ⁵
1947-2007	<i>Arantzazuko A.M.ren Egutegia</i>	Garate/Zurutuza, etab.
c.1950-1957	<i>1950. Urte Saindua</i>	Narbaiz (A. C. E.) ⁶
1952-1981	<i>Arantzazuko A.M.ren Egutegia</i>	Frantziskotar bizkaitarrak
1958...	[Almanaka]	Eskualdun Gazteria
1974-1976	<i>Erri-Egutegia</i>	Goiz-Argi/Agur ⁷
1981-2007	<i>Euskerazaleak Alkartea: Egutegia</i>	M. Olazar eta beste
1985, 1987	<i>Akademia sekretuaren egutegia</i>	Erein; Pamiela.
1992...	<i>Argia. Egutegi.</i>	Argia Taldea
1996	<i>Literatur Egutegia</i>	Euskal Idazleen Elkartea
2007...	<i>Jesusen Bibotzaren Egutegia</i>	Mensajero argialetxea

Gerraurrean bizpahiru tradizio ezberdin dituzte egutegi-takoek. Arana-Goirik hasi eta Euzkeltzale-Bazkunak segurtatu zuena (1908-1912, 1918, 1932, 1934, gutxienez), Euskal-Esnaleak sustatu eta I. López-Mendizabalek zuzendu zuena (1909-1936), eta Iparraldean Elizalde idazlearen ingurutik hedatutakoa (...1933...).

⁵ Egutegi honen oroitzapena hainbat lagunen baitan bizirik dago oraindik ere, baina ez dut bilduma osorik ikusi ahal izan. Hemen eman dudana data ikusitako ale bakarrarena da (Baionako Museoko egutegi-sailean, hain zuzen); baina jakin badakigu zenbait urtetako bizialdia izan zuela Zerbitzari-ren honek.

⁶ Sortze-urtea ezin izan dut zehazki jakin.

⁷ Lazkaoko beneditarrean ikusi ahal izan dut bilduma osoa.

Gerraondoan, nahitaez franko aldatu ziren gauzak. Elkarte kultural eta politikoek isildu egin behar izan zuten Hegoaldean (Bizkaian Euzkeltzale-Bazkunaren gune politikoa desagertu zen, noski), eta López-Mendizabal Argentinan zegoen, egutegiari segida emateko modurik gabe. Iparraldean, ostera, *Eskualdunaren* desagertzeak, zeregin kulturalak birbanatzera behartu zituen euskaltzaleak.

Baina garbi zegoen, egutegiaren tradizioa ezin zitekeela zokoratu edo isilarazi. Aipatu dugun betiko *Gure Almanakaren* kargu egin zen Lafitte. Bestalde, bi aldeetan, egutegi-takoen tradizioa indarberritu egin nahi izan zen: elizgizon euskaltzaleek hartu zuten beren gain eginkizun hori. Hegoaldean frantziskotarrak (J. A. Garate, 1947), eta Iparraldean Narbaitz-ek (c. 1950). Arrakasta luzeko bizitza izan dute, eta hamarkadatan zehar eskaintza bakar bana izan dira, bi aldeetan.

Arantzazuko Egutegia Hegoaldean kasik hogeita hamar urtetan bakarra izan eta gero, 1970ko hamarkadan agertu zen beste egutegi-takorik (*Erri-Egutegia*, 1974). 1980.etatik hona osatu da, azkenik, Hegoaldeko egoera berria, egutegi-takoen aukera inoiz baino irekiagoa izateraino. Iparraldean, Narbaitzen hura Eskualdun Gazteriaren eskutara pasatu zen 1958an, handik hona urteroko emanaldia segurtatuz. Oro har, egutegi-tako politikoak desagertu egin dira, egutegi erlijioso eta euskaltzaleen mesedetan.

1.2.1. *Egutegi-tako sabindarrak (1898...)*

Laukian ikus dezakegunez, egun bakoitzerako orri eta testuekin osaturiko lehenengo “tako” Sabin Arana-Goiriri zor zaio, eta gaur egun ere eskueran dago haren *Obras Completas* deritzan edizioan (liburu gisara emana, noski: Buenos Aires, 1965, 1401-1659). *Lenengo Egutegi Biskattarra* (s eta tileta eta guzti) zuen izenburua tako horrek, eta 1897an prestatuak, hurrengo urterako egutegia zen (1898). Izenak dioena gorabehera, *Lenengo Egutegi Biskattarra* Sabin-en bigarren egutegia zen, ordea.

Garaiko kanpaina-ekimenen artean kokatu behar ditugu bata eta bestea. Arana-Goirik egutegiaren lanari lehenengoz heldu zionean (1896), *Lecciones de ortografía del euskera bizkainoren emanaldien barnean zabaldu zuen bere Egutegi Biskattarra* (1896) (ik. o. c. 983-1.015) eta xede jakin eta mugatu batekin egin zuen argitalpena: honen bidez euskal izendegi asmatu berria hedatu nahi zuelako. *Miren, Koldobika, Kepa* eta *Josu* aipatu zituen, adibidez, hitzaurrean, eta gero gainerako guztiak bildu egunez egun. Mende bat geroago gureak ditugu izen horiek, sortzaileak nahi izan zuen bezala.

Baina Aranaren “tako” gisako egutegia, *Egutegi Biskattarra* ez (1896), baizik aipatutako bigarrena izan zen: *Lenengo Egutegi Biskattarra* zeritzana (1897/1898).

Tako honetan ere izendegiak leku nabaria zuen, baina baita euskal historiak eta geografiak eta ideia politiko abertzaleek ere (ikurrina, Gernika, debeku politikoak, Bergarako Ituna, etab.). Tresna politiko baliagarri gisan ikusi zuen, bada, Aranek egutegia, baina ez berak bakarrik.

Ezin izan dut jakin Arana-Goiriren egutegi-takoak zenbaterainoko segida izan zuen; baina, 1907an edo 1908an berriz ekinda, urte batzuetan luzatu zela bederen badakigu (Elexpuruk inprimatutako *Egutegi Bizkattarrak* 1910ean “III Urtealdija” esaten baitu). Gutxienik, 1932an agertu zen berriro (Aranaren 1898ko ale batean Urkixok idatzitako oharrari sinetsi nahi badiogu, behintzat), eta 1934rako ere argitara zuen Euzkeltzale-Bazkunak *Egutegi Bizkattarraren* beste urtealdi bat.

Elkargo horrek berak emandako *Egutegi Euzkotarra* ere bada, uste dudanez, urte batzuetan bederen horrela deitu zena. Izenburu honekin eskuetan izan ditudanak 1911 (?), 1912, 1914 eta 1918koak dira (J. U. 571, lehenengo biak eta azkena; Baionako E. Museoan 1914koa). Guztiok ere, egutegi-tako bat bera direla esan beharko litzateke, tradizio-arrasto berean, irizpide eta xede berekin eta familiarte politiko beretik sortuak direlako.

1914koaren arabera, *Egutegi Euzkotarrak* badu bereziki azpimarra daitekeenik: Bizkaian ateratakoa izanda ere (baina aurreko *Bizkattarra*, *Euzkotarra* bihurtuz), euskalki denei leku eman nahi die tako honek, eta testuak nonahitik jasotzen ditu, baita Iparraldetik ere, kasu bakoitzean zein euskalkitakoa den propio aditzera emanaz.

Tolosatik bezala Bilbotik, egutegi-takoek Euskal Herri osora begira jarri nahirik zebiltzan 1910. haietan. Dena den, Bilboko sabindar hau ildo politiko jakin batean zihoan, eta inondik ere ez da harritzekoa agian Diktadurapean isildu behar izatea (1924-1930)⁸.

1.2.2. *Euskal-Esnalearen asmoa (1909)*

Euskal-Esnaleak ateratako egutegi-takoa, euskararen aldeko tresna kultural gisa batez ere erabili nahi izan zuen elkarteak urte haietan (1907-1914). Elkarte hau jaio eta berehala heldu zitzaion *Egundiya* prestatzeari (1908), eta hurrengo urtean kalean zen egutegi berri hau, batik bat Gipuzkoara begira egina.

Euskal-Esnalea Elkartearen ekimenak historia honetan azpimarragarria den alde jakin bat gogoraraztera garamatza: euskal egutegi eta almanakak aldizkari

⁸ Egindako kontsulta eta bilaketan artean ez dut lortu egutegi-tako sabindarrek jarraipen osorik (1910-1936) izan zutenaren segurtasunik; horregatik iradokitzen da hemen balizko eten horren hipotesia.

eta elkarteen emaitza izan dira sarritan, eta batzuetan egutegi horixe gertatu izan da taldearen urteko lan nagusia ere.

Eliz erakundeena izan dira zuzenean egutegi-tako batzuk: karmeldar edo frantziskotarrenak, nahiz laiko-elkarte eliztarrenak (Eskualdun Gazteria). Hizkuntzaren inguruko lagunarteetara gatozela, kultur elkarte ezagunak ibili ziren egutegi-tako batzuk egiten (Euzkeltzale-Bazkuna sabindarra, Campion/Mujikak gidaturiko Euskal-Esnalea).

Euskal-Esnaleak bere egutegi-takoa sortzea erabaki zuenean, Elkartearen eta bertako gidarien ideia-zabalkunderako deliberatu zen hori. Aranak izendegia hedatzeko aukeratutako bide bera, G. Mujikak euskal irakurlegaiak irabazteko pentsatu zuen, eta bide batez euskal sukaldeetatik erdal *calendariyoa* desgertarazteko:

¡AGUR! Ona ni emen, irakurlea, *egundiya* naiz eta euskaldunen echietatik aspaldiko *calendariyoak* betiko urrutiratzeko asmoak dakarzkiz [...], begiratzen didazun bakoitzean amak erakutsi zizun izkeran zerbait izango det zuretzat. [...]. Ni nagon gelan, *egundiya* dagon tokian, *calendariyoric* ez det nai. Bakarrik bear det nik.-- Ara bada esan zertara bidaldu naun *Euskal-Esnalea*-k zure echera: urte askotan erderaz esan dizutena euskeraz esatera. ¡Gora euskera! [Ilbeltzak I, atzealdean].

Euskaldunen irakur-ohiturak euskaldundu nahi zituen egutegi horrek. Ikusi besterik ez dago, testu horretaz gain, Elkartearen aldizkarian emandako arrazoiak: “Dicha Sociedad ha considerado, en efecto, que un calendario completamente euskérico puede ser un poderoso medio de propaganda del Euskera, fin al que dirige sus constantes esfuerzos. [...]. Todo él está escrito en euskera”. Kanpaina aurrera eramateko, 2.000 aleko edizioa egin zen (*Euskal-Esnalea*, 1908, 155, 175, 181).

1.2.3. *López-Mendizabalen leialtasuna (1910-1936)*

Esan bezala, egutegi-takoen artean, jarraia izan duen historia 1909an hasi zen Euskal-Esnalea elkarte eta aldizkariak ekinda, baina Elkarte horrek ez zion jarraipenik eman. Hau da, segur aski, X. López-Mendizabalek bere aitaren lehenengo bezala gogorarazi digun edizioa: bi mila argitara bai, baina milaren bat bakarrik saldu zirenekoa, alegia. Baserritarrek ez omen zuten nahi euskarazko egutegirik, erdarazkoa baizik! (Ik. *Euskal-Esnalea*, 1909, 180-181).

Euskal-Esnalea Elkarreak bazituen bere ezin ekonomikoak argitalpenak aitzina eramateko (aldizkaria une batez desgertzeraino: 1910), eta lehen edi-

zioko salmenta-porrot horrek ez zion, noski, egutegi-takoari batere lagundu. Handik aurrera, Euskal-Esnaleak eskutik lagata eta aitaren baimenarekin, Ixaak López-Mendizabal gazteak hartu zuen bere gain egutegien ardura⁹; ez zen bat bakarra, bi baizik López-Mendizabalek kaleratu ohi zituenak: bata, hormarako takoa (*Euskal-Egundiya*), eta patrikarako egutegi txikia bestea (liburuxka: *Euskal-Egundi txikiya*). Biak elkarren osagarri ziren eta erosle berarentzakoak, baina erabilera ezberdinekoak.

Garaiko abertzaletasunari berea eman zion noski, baina egutegiaren zereginan lehentasuna hizkuntzarenak zuen López-Mendizabalentzat, horretan Euskal-Esnalearen arrasto bera segiz: “Gaurko euzkeldun geyenai galde egiyozute euzkera ez idazten, baizik irakurtzen badakiten eta ezetz erantzungo dizute. ¿Lotsagarriya ez al da au?”, galdetu zuen 1911ko lehen orritxoak. Egoera horri aurre egin nahirik eman ziren, bada, hurrengo pausoak.

Salmentan jasandako eskarmentuaren ondoren, egutegi euskaltzalearen asmoari jarraipenik ematekotan guztiz premiazkoa zen egutegi-takoaren eskaintza merkatu ahalik zabalenari egitea. Eta, horra, hamarkada dezente geroago eskola-liburuen produkzioak behar izan duen hizkuntzaren batasuna López-Mendizabalek espresuki nola aipatu zuen:

Beti aurrian izan degun korapillo bat (eta au egiya da) Euzkadi'n izkelgi, edo dialecto asko izatia da. Izkelgi oyek bat egitera iritxiko bagiñake, aurrerapen aundiya litzake. EGUTEGI au bi izkelgitan (gipuzkoeraz eta bizkayeraz) dijuu, eta bat-egite ontara eta euzkera zabaltzea bere apurra laguntzen badu bere asmua beti aurkituko da [1911, IIbeltzak I, atzealdean].

Ikustekoa da hautatutako bi euskalkiak nola elkarretaratu ziren, batzuetan esango genuke bata bestea zangotrabatuz ere bai: asteko egunen izenak bi hizkelgietan txandakatuz eman ziren, batean *ostirala* zena hurrengoan *barikua* zen, bata bestearen itzulpena sekula elkarren ondoan eman gabe. Hilabeteen izenekin ere berdín jokatu zuen López-Mendizabalek. Atzealdeko testuetan, ostera, batzuk gipuzkeraz eman zituen, eta besteak bizkaieraz, euskalkien arteko bitariko testurik sortzeke.

⁹ Euskal-Esnalearen eta López-Mendizabalen bi takoen elkarren segida garbiki ageri da 1910eko egutegian, hau da, osorik López-Mendizabalen ardura bakarpean agertutakoan: “Bigarren aldiz emen gatoz euskeraren alde [..]”.

Hartutako bideak ez zuen, nonbait, onarpen handirik izan, eta hurrengo urtetik aurrera, López-Mendizabalek gipuzkera hutsean eman zituen bere egutegi-edizioak. Bizkaiko euskaltzaleak segur aski Euzkeltzale-Bazkunaren eskaintzari lotu zitzaizkion, eta Tolosako argitaratzaileak azken buruan, euskalkien mugak gorabehera, lortu zuen bere argitalpenaren hedapen zabala.

Hasiera zailen ondoren, 10.000 aleko emanaldiak izatera iritsi zen López-Mendizabal. Banaketa Tolosa-inguruko herrietako errekadisten bidez egiten omen zuten. Lankideen artean zeuden Aitzol, Lizardi, zenbait apaiz lagun; handik eta hemendik testu interesgarriak jasoz osatuta geratu ohi zen, azkenik, takoa¹⁰.

Bizialdi luzeena izandako López-Mendizabalen egutegi-tako honen ondoan, liburu-almanaken kasua ere aintzakotzat hartu behar da. Hegoaldean, aipatu dugu, izan zuen oihartzunagatik Donostiako *Argia-ren Egutegia* da ezagunena, 1922tik aurrera atera zena¹¹.

1.2.4. *Iparraldean ere (...1933...)*

Egutegi-takoena Iparraldera Hegoaldetik hedatu zen. Ezagutu ahal izan dudana lehenengoa J. Elizalde *Zerbitzariri* zor zaio. 1933ko agerraldian honela aurkeztu zuen bere burua: *Eskual-Egutegia. 1933. Oibal Magazina*. Donibane-Lohizuneko Mendiburutegia etxean saldu ohi zen. Bada oraindik hori gogoratzen duenik.

J. Elizalde, (1883-1961), garaiko luma ederretakoa zen; Eskualtzaleen Biltzarreko idazkaria ere bai, eta 1930ean euskaltzain izendatua. Apaiza zen, baina, zabal zezakeen pentsamoldearen azterketa beste baterako utziz, egutegia guztiz zibila egin nahi izan zuen. Atzeko orrialdeetan, ikusi ahal izan dugun urte horretan behintzat (1933), ez zuen sartu deus elizakorik: dena atsotitz, gertakari eta izkirimiriz bete zuen, igande eta eliz jaiegunetan ere bai. Egun bakoitzari, eta guztiei berdin, bere *poxa* eman nahi izan zion Gerezieta erretoare honek.

Ez dugu jakin ahal izan zenbat urtez kaleratu zen egutegi-tako hau. 1933ko zenbakia ikusi dugu Baionako Euskal Museoan, besterik ez; baina gerraurrean Iparraldeko familietan urtero ikusten omen zen Zerbitzarik idatzi eta Mendiburutegiak banatuta.

¹⁰ X. López-Mendizabalek, 1996-12-16an emandako datuak.

¹¹ *Argia* astekariaren historia osagarri bezala, ez litzateke batere gaizki etorriko haren *Egutegia*-ren azterketa xehe bat egingo balitz.

1.2.5. *Azken mende-erdiko egutegi-takoak (c. 1950...)*

Inoiz baino egutegi-tako gehiago izan ditugu euskaraz azken mende-erdian, eta horietako zenbait bizirik dago XXI. mendearen hasiera honetan. Irudiaren eta Interneten munduan bizi garela ere, egutegiek osasun ona edo eramangarria dute oraindik gaurko gizartean. Horren adibide zabal bat nahi balitz, aski izan bedi jakitea Bilboko Mensajero argitaletxeak, mota bateko eta besteko egutegitan, 250.000 ale saltzen dituela, gaztelaniaz.

Euskal munduko egutegien hau ez da, beraz, gertaera bitxiegia. Bildu ahal izan ditudan datuen arabera, 25.000/30.000ren bat euskarazko egutegi-tako saldu/banatuko dira 2007an.

1.2.5.1. *“Eskualdun Gazteria”ren Almanaka (c. 1950...)*

Egutegi-takoen artean Arantzazukoaren kasik urte bertsuak dituen *Eskualdun Gazteriaren Almanaka* da. Agian lehen urtea ez izan arren, 1950etik aitzina kaleratu zen behinik behin: *1950. Urthe Saindua*, zioen azalak. Elkarte horrek 1958tik aitzina argitara eman badu ere, lehenagotik zetorren egutegi hau: Narbaitz kalonjeak ateratzen zuen, Emakumezkoen Ekintza Katolikoko argitalpen bezala.

Zenbait ale aurkitu ahal izan dut Baionako Museoa: 1950, 1951, 1953, 1954, 1956, 1957, eta Donostiako Koldo Mitxelena Liburutegian ere ikus daitezke urte batzuetakoak. Hasiera hartan, aurreko orrialdea zuen bakarrik idatzita, eta egunean eguneko datu *teknikoen* ondoan, esatera zabal xamarren bat eman ohi zuen, eta merkatu eta adorazione-egunak ez ziren falta. Euskalkien gainetik jauzi egin nahia ageri da bertan, egunen izenak hainbat moldetan ematen baitzituen.

Arrakasta handia izan zuen, nonbait, eta ez zihoan salmentetan batere gaizki. Gerraurretik (1929) zetorren “Gazteria Katoliko Frantsesa” Iparraldean “Eskualdun Gazteria” bihurtzean (1954), bateratzaile-karguduna (*permananta*) behar izan zuelarik (1957), honen soldata ordaindu ahal izateko Elizbarrutiko diru eskasa jarri partez, almanakaren egitea eta saltzea eskaini zion Narbaitzek Xarriton omonierari, horrela Jeanne Idiart-i (ezk. Davant andereari) lana ordaintzeko.

Eskualdun Gazteriaren egutegia erakundea bera baino lehenagokoa zela uste izan dutenak, beraz, ez dabilta guztiz oker: lehenagotik zen, baina Narbaitzek aterea, eta, esan bezala, 1958tik hona dago Eskualdun Gazteriaren eskuetan.

Narbaitz/Eskualdun Gazteriaren egutegi-takoa herrian *Almanaka* bezala ezagutu izan da, baina ez du titulu berezirik eraman izan, *Eskualdun Gazteria*

baizik. 1970eko inguru hartan 7.500en bat ale salduz banatu zen, eta guztiz elizako gaiez hornitua agertzen zen; gerora, edizio txikiagoak ditu (1997an, 3.500), eta gaiez, bestelakorik ere badu orain.

Almanaka-tako hau izan da azken urteetan Iparraldean molde honetako bakarra, zeren eta Seaska-ren horma-egutegia ez baita takoa (hala ere, azpimarratzekoa da Euskal Herri osoan 35.000 ale hedatzen dituela Seaskako honek eta Hegoaldean ere oso ikusia dela)¹².

1.2.5.2. “*Erri-Egutegia*” (1974-1976)

Ikusi da nola S. Arana-Goirik Egutegia erabili zuen bere euskal izendegi berria zabaltzeko, beraz hizkuntzaren inguruko bere lana ezagutzera emateko. Esan beharrik ez dago antzeko asmoak erakutsi zituela López-Mendizabalek ere; ez da, beraz, harritzekoa euskara batuaren inguruko proposamenak egin eta eztabaidak piztu zirenean, egutegien zeregin hauetan ere arazoa ispilaturik geratzea.

Arantzazuko Egutegiak –zabalduenak– Euskaltzaindiak proposaturiko batasunaren bidea hartu zuenean (1971), euskalkietako mintzatzaile ohituek zailtasunak izan zituzten jauzi hura egiteko: horra, bada, *Erri-Egutegia* eta Euskerazaleak Alkartearen egutegigintzaren zergatietako bat.

Lehenengo saioa *Goiz-Argi* eta *Agur* astekariaren inguruan antolatu zen, eta *Erri-Egutegia* izenburuarekin agertu, hiru urtetan (1974-1976): “Erribide’ren *Erri-Egutegia*” zen azpтитulua. Zuzendari eta lankideen albisterik ez zen adierazten.

Erri-Egutegiak ez zuen bizialdi luzea izan, *Agur* eta *Goiz-Argi* aldizkari sustatzaileak desagertu egin baitziren (1975 eta 1986an, hurrenez hurren), eta euskara batuak halako normaltasun bat irabazi, baina euskalkietako irakurle hurbilen kezka hori ez zen ito, eta hurrengo ekimena da horren lekuko.

1.2.5.3. *Euskerazaleak Alkartearen Egutegia* (1981...)

Euskerazaleak Alkartearak kaleratzen duen egutegiaren ale-kopurua handia izan zen hainbat urtetan, inoiz edo bestetan milaka dezenteko edizioak egiteraino; gaur egun 5.000ko argitaraldia du (2007). Egutegi honek Bizkaiko premiei erantzun nahi izan die, gainerako egutegi batuetatik euskalkiarengatik bizkaitarrek duten urruntasun mintzatua gainditu nahiz edo.

¹² Xarritton/Davant anderearen albisteak: 1997-01-07; P. Sudupe/Seaska, 96-12-23; M. Arhets, H. Duhau, eta B. Ameztoti: 1997-01-07.

Euskerazaleak Alkartek proposaturik Caja de Ahorros Vizcaína-k asmoa babestean (1981) eta Mensajeroren ardura teknikopean jaio zen egutegi-tako hau, eta Olazar'tar Martin izan da beronen gidaritza eraman duena (bateratze-lanak, alegia): *Calendario de Euskerazaleak. 1981. Euskerazaleak Taldearen Egutegia* zioen izenburuak¹³. Bizkaiko bi Kutxak bat egin zutenetik, BBKren esku egon da argitalpena (1991), eta ondoko edizio-kopuru hauek izan ditu: 15.000 ale (1991), 18.000 (1992, 1993, 1994) eta 20.000ko argitaraldirik ere izan du (1995, 1996, 1997); 2004.ekoa izan zen BBKren azken argitaraldia. 2005ean ez zen kaleratu, baina 2006tik honakoan Bizkaiko Aldundiaren babespean ari da agertzen, esan bezala 5.000 aleko edizio batekin.

Euskerazaleak/BBK-k honela egiten zuten beren banaketa: 2.000 ale Euskerazaleak Alkarteari ematen zitzaizkion banatzeko, 2.000 Durangoko Azokan eskaintzen ziren, eta gainerako ale-kopurua sukurtsaletan eman ohi zen. Banaketa osoa doan egiten zen¹⁴.

Ikus daitekeenez, kultur ekimen estimagarria da BBK-k burutzen zuen hau. Baina salmenta-merkatuko usadioetatik kanpo geratzen zen hedapena, doan eman eta finantza etxe baten bidez egiten zelako batik bat, eta ez liburu-denda eta ohiko sare komertzialaren bitartez.

1.2.5.4. “Argia”ren Egutegia (1992...), eta beste

Azken hamarkadetek egutegi-takoen merkatua eta ideia-mundua birbanatzeko aukera eman dute, eta hainbat proiektu egikaritu da euskal argitaletxeetan.

Egutegi horren ostean, Akademia Sekretuaren saioa dator, hamar urte geroago. Ideia eta taldea B. Atxaga, J. M. Iturralde eta J. L. Agote-ren inguruan moldatu zen. Lehenengo emanaldia 1985ekoa da, eta Erein argitaletxearen bidez kaleratu zen egutegi-tako hau. Bigarren zenbakia 1987koa da, eta Pamiela argitaletxeak jarri zuen jendartean. Bigarren aldi honetan, lankide gehiagok hartu zuen parte: marrazkilari berriak, Euskal Idazleen Elkarteko zenbaitek. Ondoren, azken edizioko gorabeherengatik edo, asmo honek ez zuen jarraipenik izan¹⁵.

¹³ “Bizkaiko Aurrezki Kutxaren adiguri bat” (oparia, esan nahi du). 1981eko urtean lankide hauek izan zituen: Zubikarai'tar Agustin (kondaira-aldeko jakingarriak), Zubiri'tar Iñaki, Bilbao'tar Jon Erramun, Arrieta'tar Nikola, Ibarra'tar Bernardo.

¹⁴ Egutegi honen lehen albisteak E. Ortega jaunak eman zizkidan (BBKko Publizitate, 1997-01-07). Bizkaiko egutegi honen bilduma oso bat Lazkaoko beneditarrenean ikus daiteke.

¹⁵ Tx. Aranatz-ek eta J.M. Iturralde-ek emandako albisteak.

Goiz-Argi eta Akademia Sekretuaren lanen ondoren, *Argia* astekariarena dator (1992). Hau da egutegi-tako salgarrietan kasu berri aipagarriena, urteroko segidari eutsi ahal izan baitio, urtero 7.000 aleko edizioak eginez. Zabalkundez eta iraupenez, 2007raino behintzat luzatu da, dagoeneko.

Arduradun edo Zuzendari ezberdinak izan ditu. Eginkizun horrekin agertu direnak hauek dira: Josu Landa (1993-1995), Garbiñe Ubeda (1996, 1998), Mikel Jauregi (1997), Onintza Irureta eta Berdaitz Goia (1999), Onintza Irureta (2000-2004), Garbiñe Ubeda (2005-2007). Lankidegoa Argia Taldea izan da beti, eta elkar-lan horretan iraun du finko, nahiz eta halakorik komeni zenean kanpoko lankide berezirik ere izan duen¹⁶.

Euskal Herri osora begira egindako egutegia da hau, eta Bizkaiko Euskerazaleak Alkartearena baino asmo zabalagoz egikaritu; bestalde, kristau fededunentzako pentsatua baino euskaltzale ororentzat idatzita dago. Salmenten merkatuan ehuneko handi bat bereganatu du jada. Ez dut izan banaketa geografian albisterik.

Argia aldizkariaren sorburu beretik dator beste urteroko argitalpen bat ere: *Euskal Kulturaren Urtekaria*. Liburu gisara datorren arren, bere urterokotasuna hain zintzo gorde duen honek leku egin bat irabazita du jada euskarazko kulturaren munduan. 1984an jaioa, gaur egun arte iraun du: 1984-1998. urteetan 10.000 aleko argitaraldiak izan zituen, eta 1999tik hona 15.000ko edizioa egiten du urtero¹⁷.

Literatur balioak hedatu nahirik, Euskal Idazleen Elkartearen ere saiatu zen egutegi-tako baterako lana antolatzen, baina urte bakarreko ahalegina izan zen: *Literatur Egutegia* (1996, Donostia: Gráficas Bost).

Berrikitan, jesulagunen Mensajero Argitaletxeak kaleratu du Hegoaldeko azkeneko egutegi-tako berria: *Jesusen Bibotzaren Egutegia* (Bilbo, 2007: 5.000 aleko argitaraldia). Horretarako, beharrezko langaiak eguneratuz, beste zenbait langai etxe berak erdaraz atera ohi duen aurreko urtekotik hartua du. Eta ohar bat: inoiz esan izan da gerraurrean ere bazuela Mensajerok euskarazko honelako egutegi-takorik, baina, azken finean, ezin izan dut horren albiste garbirik bildu. Dena den, argi gera bedi *Jesusen Bibotzaren Egutegia* hau ez dela Euskerazaleak

¹⁶ 1992ko Egutegian honela banatzen ziren autoretzak: “Egilea: Argia astekaria. Kolaboratzaileetan, Jokuak: Enbido. Txisteak: Kike Amunarriz. Bertso-bilketa: Jokin Sorozabal, Jon Sarasua. Marrazkiak: Iñaki Martiarena, Asisko Urmeneta, Fernan Goñi. Efemerideak: Eugenio Arraiza. Nazioartekoak: Luis Fernández, Pablo Sastre. Historia: Patxi Larrion”.

¹⁷ *Argiatik* Arantza Egañak emandako zertzeladak (2007-01-16).

Alkarteak Mensajeroren lankidetzat teknikoarekin atera ohi zuenaren segida, egutegi guztiz berria baizik.

Egutegien albiste orokor hauen ondoren, orain artean zabalkunde-iraupen handienak izandako egutegiaren historia berezikiago begiratu nahiko nuke, egutegiok izan ohi dituzten arazo eta lorpenik interesgarrienak bederen adibide nagusi horretan begiratzeko.

2. *Arantzazuko Andre Mariaren Egutegia (1947...)*

Goazen 1936.eko urte hartara. Arantzazuko Andre Mariaren Koroatzearen mende-erdia betetzen zen urte hartan (1886-1936). Oñatin ospatzeko asmoz, aurreko urtetik hasita eta Arantzazuko fraideek parte on bat zutela, Gasteizko Elizbarrutian Andre Mariaren Batzarra eratu zen (“Asamblea Mariana” deitua). Ospatu ere, arrakasta handienarekin ospatu zen hori, Altxamendu militarra lehertu baino hamabost egun lehenago (1936ko ekainaren 29tik uztailearen 5era).

Testuinguru hartan Arantzazuko fraideek *Andre Mariarekin Eleizegutegian zear* zeritzan egutegi bat eman zuten argitara, asteroko orriz hornitua. Aita I. Omaetxebarria (†1995) euskalari gernikarra izan zen argitalpen haren kudeatzailea, K. Zubizarretak azpimarratu zidanez. Gorde da ale bat behinik behin Arantzazuko liburutegian¹⁸.

Gerrak etenarazitako Arantzazuko lehen ekimen horrek, 1943an izan zuen hurrengo pausotxo, baina, dakigunez, erdaraz bakarrik, eta ezagunak diren egutegietako hileroko orri soilez osatua, besterik gabe. Handik lau urtetara, giroa zerbait samurtu eta fraide euskaltzale gazteak elkarganatuta zeudenean sortu zen *Arantzazuko Andre Mariaren Egutegia*.

Aurreko orrialdeetan eman dugun historia orokorragoa ahanzi gabe, Egutegi horrek bere berritasuna eskaini zuen une hartan, argitalpen-lehorte gaiztoak jotako gerraondoan. Inondik ere, berritasunak lagundu ere egin zion argitalpenari, eta López-Mendizabalen lanen eta *Argiaren Egutegiaren* gerraurreko arrastoa galduta zuen euskaldungoari.

¹⁸ Aldi berean, erdarazko beste edizioa ere izan zuen *Calendario Litúrgico-Mariano* izenburuarekin. (Ikus une hartako giroa: *Arantzazu* aldizkaria: XVI, 1936, Uztaila).

2.1. Zenbait argitaratze-gorabehera

Arantzazuko Egutegiak guraso ezagun bat izan zuen: Aita Jose Antonio Garate Unanue, azkoitiarra (Azkoitia, 1914-Bermeo, 2003). 1941etik aurrera Tolosan bizi izan zen, 2000ko urria arte. Haren eskuetan sortu zen, eta bere ahaleginez joan zen hedatzen eta hazten, harik eta Arantzazuko Santutegiak argitalpenaren ardurak hartu zituen arte (administrazioa eta zuzendaritza)¹⁹.

Egutegiaren lehen edizioa erraldoia izan zen: 40.000 alekoa. Gehiegikoa, noski, eta ausartzia edo kasketaldi baten fruitua. 25.000 ale edo saldu, eta gainerakoak paper-zabortegira bota behar izan ziren (Belauntzako San Jose paper-fabrika erre zenean, ketan joan ziren 15.000 tako).

Balentria editorial horren aita eta gurasoa Aita Teofilo Artzallus (Larraul, 1896-Zarautz, 1960) izan zen. Zertan zebilen jakinik (!) egin omen zuen, euskal herrietako demografia eta bestelako albisteak bildu eta aztertu ondoren alegia... Baina ez zen izan kalkulu ona: eman zitzaizkion aholkuen kontra jokatu zuen Artzallusek, eta diru-maileguren bat ere egon zen tartean horretarako. Baina gizonaren gogoari eta ahaleginei justizia eginez, esan dezagun, komentuko haserreren bat edo beste gorabehera, Artzallusek berak kitatu zituela egingadako zorrak (itxura guztiz, adiskide ongileren batek laguntzen ziolarik).

Handik hona inprimategi-etxe ezberdinak ezagutu ditu Arantzazuko egutegi-takoak; hasieran, Nerecan-en kontu joan zen hori. Lehen urteetan ez zegoen bestetarako aukerarik ere, Euskal Herriko inprimategiak ez baitzeuden prestatuta halako takoak lantzeko, eta Nerecan zen hautabide bakarra; gero, Alvarez-Iraola eta Gráficas Lorea etxeetan, 1988ra arte, eta handik hona Gráficas Bost etxean.

1950.eko urteetan Santutegira eraman zen Zuzendaritza, Garatek egutegiaren historia labur batean esaten digunez. 1977tik hona, Egutegiaren Zuzendaritza Aita Jose Luis Zurutuzaren (*Arendui*) ardurapean dago (jada hogeita hamar urte jardunean!). Aurreko urteetako behin-behineko zuzendarien berri jakitea ez da erraza: ia beti Arantzazuko ikasle teologoak izan ziren, gipuzkeraz zein bizkaieraz, eta ez zuten izendapen formalik.

Erriberriko lanaren bateragile-zeregina *Gure Izarra* barne-aldizkariaren zuzendaritzakoren batek hartu ohi zuen, eta Arantzazuko azken zuzendaritza, ostera, *Jakinen* idazkaritzakoek edo besteren batek (F. Bilbao, K. Enbeita, J. Azurmendi, J. M. Torrealdei, P. Zabaleta, J. R. Beloki, L. Oihartzabal, etab.).

¹⁹ Biografia Ilabur bat: Intxausti, J., 2003, "Aita Garate hil da", *Berria*, 2003ko uztailearen 23a, 7 or.

Lankideen artean, ikasle euskaltzale guztiek izan zuten ekarpen handiago edo txikiagorik.

Banaketa R. Labartak egin zuen urtetan (1967-1989), eta gaur Aita Patxi Agirrereren eskuetan dago. 1950-1975.eko urteetan 24.000/25.000 aletara mugatu zen argitaratzailea. Baina, hau ulertzeko, aurrera baino lehen Bizkaiko edizioaz espresuki zerbait esan beharra dago, bere nortasun eta arazo bereziak izan baitzituen honek, Santutegiko egutegigintzaren barnean.

2.2. Bizkaierazko Arantzazuko egutegia (1952-1981)

Arantzazuko Andre Mariaren Egutegiak urte askotan aldibereko bi argitalpen izan zituen: 1947an hasitakoa, eta 1952tik 1981eraino bizkaierazkoa hogeita zortzi ediziotan argitaratutakoa²⁰. Bigarren egutegi honetaz esango ditugunak, beronen lankide izandakoengandik jaso ditugu²¹.

Gipuzkeraz agertzen zen egutegiarekin lehiari, baina batez ere frantziskotarren Bizkaiko presentzia ahulagoa indartu nahirik sortu zuten Probintzia Erlijosoko bizkaitarrek bigarren edizio hau, Probintziaren onespenearekin eta Arantzazuko argitaletxearen barruan. Hasiera hartan guztien buru Aita Jose Antonio Obieta izan zen, orduan Arantzazuko Ikastetxean irakasle-lanetan zebilena.

Nagusien aldetik, azpimarratzekoa da jarrera ezberdinak sumatu zirela. Aita P. Aranguren Santutegiko Goardianoak (irtenbide ekonomiko arazotsua aurreikusten ziolako, segur aski) ez zuen hartu egitasmoa batera bero. Aitzitik, Aita Pablo Lete Probintzialak, sustatzaileek aurrera egin zezaten 20.000 pezetara jarri zituen (ordurako bazen zerbait). Aita Leteren jarrera honek badu interesik, zeren erakusten baitu orduan Gipuzkoan egiten ari zen guztiaren parean, ez zegoela Aita Nagusi hura Bizkaia ahantzita ibiltzeko (jakina da Euskal Herri osoa hartu ohi zuela aintzakotzat bere proiektuetan). Gogoratu behar da, gainera, Aita Lete bera euskalkiz bizkaieraduna zela.

²⁰ Bizkaiko egutegi honen kronologiari buruz ez da falta izan zalantzarik zuzendari eta egile izan direnen artean. Hitzez hitz zera dio lehen urteko zenbakiak bere azalean: "Arantzazuko / Andramariaren / egutegia / Biskaiko euskera / Aita Prantzizkotarrak egiña / 1952 / Lenengo urtea / Bear diran baimenakaz".

²¹ Bilera-lagunak (Bermeo, 1997-02-04): Jon Zubieta, Sabin Zubieta, Antonio Zubizarreta, Jose Antonio Obieta, Felix Bilbao, Pedro Uriona, Joan Barrera eta Benjamin Erezuma. Eskerrak guztiei, eta bereziki Aita Joni, bilera horretara nire galderak eraman zituelako.

Behin baino gehiagotan gipuzkerazkotik zenbait langai hartu edo moldatu baldin bazen ere, urteetan zehar edizio bizkaitarrak gero eta gehiago zaindu zuen edukian eta lanketan bere autonomia. Egutegiaren testu prestakuntza osorik zen librea, eta gero zetorren inprimaketa-edizioetarako Arantzazuko Argitaletxeak eman ohi zuen aterpea. Azken finean, edizio gipuzkoarrarekin gertatzen zenaren antzeko zerbait.

Bestalde, esan beharrik ere ez dago, bizkaitarrek eraman ohi zutela Zuzendaritza, Zuzendari bakoitzak izan zezakeen berariazko gisa batean. Arduradun hauen zerrenda ere eman daiteke: J. A. Obieta, P. Uriona, F. Bilbao, S. Berasaluze, J. M. Torrealдай, J. A. Barrena, P. Urriolabeitia, B. Erezuma, eta azken aldian J. L. Zurutuza Aita Jon Zubietarekin batera. Besterik ere izan zen, baina ditudan albisteak horietara mugatzen dira.

Aita Garatek bere txostenetan, Bizkaiko edizioa aipatzean, 8.000ren bat aleko argitalpenak izan zirela idatzi izan du. Badirudi, oro har, berriemaile bizkaitarrek esandakoarekin bat datorrela kopuru hori; hala ere, ñabarduraren bat behar du horrek. Lehenengo urtean, adibidez, 1.000 alekoa bakarrik izan zen edizioa; gerora, ezagutu ahal izan ez dudana data batetik aurrera, 6.000 eta 8.000 aleren arteko emanaldiak izan zituen.

Jaiotzean eta berehala, bizkaierazko edizio honek hizkera edo idazkeraren aldetik izan zuen eskastasunik ere, ekoizpen baldintzak zailak zirelako, noski. Adierazgarria da horretaz jabetzeko lehenengo edizioaren azala. Lankideek beren-beregi gogoratzen dute hori: ortografiak sortzen zizkien lanak (Bizkaiko ahoskeraren eta idatziaren alde bereziak tarteko: *z/s*, *tz/ts*, etab.). Imanol Berriatuak ere lagundu zuen inoiz edo bestetan arazoari aurre egiten.

Hemen ere, egutegia egin ondoren, zabalkundeak zekartzan bere katramilak. Batzuetan, baliatu izan ziren propaganda idatziak ere: *Aránzazu* eta *Misiones Franciscanasen* barruan orri bat banatu ohi zen Bizkai aldean. Eta gero, fraideek herriz herri eta etxerik etxe egiten zuten bisitaldia zetorren, Gipuzkoan egin izan zen bezalatsu, baina, Bizkaiko komentuak eta fraideak gutxiago zirenez, zailagoa zen Bizkai euskaldun osoa besarkatzen.

Egutegi-fardeltxo bat uzteko leku egoki asko zegoen, hala ere: abade-etxean legez hirugarrendarren batenean, moja-komentuetan, auzoko tabernan, eskoletan, liburu-dendetan (*Moderna*, *Larrinaga* edo *Gaubeka* Gernikan, *Verdesenean* Bilbon, etab.). Banaketa honek bere arduradun edo langile nagusiak izan ditu: Aita Sabin Zubietaren ibilaldiak izan ziren zabalduenak, eta berak Bizkai osoaz zuen ezagumenduak ederto lagundu zuen. Bakoitzak bere garai eta modura, izan da besterik ere: Bittor Anasagasti, Jon Zubieta, Felix Bilbao, Antonio Zubizarreta. Eta beste zerbitzu modu praktiko bat eskainiz, Arantzazutik J. M.

Arozena, eta oro har, Arantzazuko argialetzeko arduradunak, Rikardo biak aitzindari direla (Auzmendi eta Labarta).

1981ean desagertu zen Arantzazuko Egutegiaren bizkaierazko edizioa. Gertaera horren arrazoiak nahiko konplexuak direla esango nuke. Batuaren eztabaidak segur aski ez zion batere onik egin. Bizkaian, euskalgintza bizkaitarrerako frantziskotarrak baino hobeki lekuturiko jenderik bazen, Elizbarrutiko abadeen artean ez ezik baita erlijiosoetan ere (Larreako karmeldarrak, adibidez)²²; bestalde, Arantzazuko Probintzia Erlijioso izanberrituan euskalkiaren arazoak ez du izan irtenbide garbi sistematikoa eta aski osorik fraidegai eta fraideen prestakuntzan, eta euskalkien arteko diglosia motaren bat ere bizi izan da (bizkaieraren “lotsa” edo esan litekeena).

Baina batez ere kanpoko lehiak eta arazo ekonomikoak ukitu zuten Arantzazuko Egutegiaren Bizkaiko edizio hau. Zenbait urtetako argitaraldietan, edizioak ez ziren osorik saldu, eta gero ere urteak pasatu ahala kostuen eta sarreraren arteko oreka galduz joan zen. Izan zezakeen horrek guztiak zerikusirik barruko antolamendu desegoki batekin; baina azken kolpea, ordea, guztiz kanpotik etorri zitzaion: lan-talde eta estilo berriarekin M. Olazar jaunak sortu zuen egutegi berritik (1981), eta bereziki Bizkaiko Aurrezki-Kutxak lehenengo eta bi Kutxa bateratuek gero, egutegi berri hau babestu eta doan salduko zutela erabakitzean. Horrek lanerako baldintza guztiak aldarazi zituen, eta bizkaierazko Arantzazuko Egutegia bat-batean bere merkaturik gabe edo geratu zen. Ahulduz zetorrena, itota, beraz.

Hau da Bizkaiko edizioaren historia laburtua, eta hemen bereziki jasota utzi nahi izan dudana. Baina, bai honek eta baita gipuzkerazko/batuak ere testuinguru historiko jakin bat bizi izan zuten, eta frantziskotarren egutegigintza –Bizkaikoa eta berehala azalduko dugun orokorragoa– ulertzeko, komeni da inguru historiko hartaz zerbait esatea.

2.3. Ingurune soziohistorikoa

Euskal egutegi guztien kasuan bezalatsu, Arantzazukoa inguru bateko eske edo beharrei ere erantzun nahirik sortutako argitalpena izan da. Kasu honetan,

²² Kasu honetan, egutegi-munduan jardundakoa zen Aita Santiago Onaindia. Honen beste zeregin askoren artean gogoratzekoa da berak kaleratutako *Karmen'go Amaren Egutegia* (1951-1956), gerora *Karmel* aldizkari izatera iritsi zena. Hau ez zen egutegi-takoa, baina bai liburu urtekari atsegina, eduki erlijioso batekin gerraurreko *Argiaren* Egutegiaren ildoan zetorrena.

gainera, euskal gizarteko baldintzak ez ezik (gerraondoa eta abar), hemen bertako Elizakoak eta berariaz frantziskotarrenak ere gogoan izan behar dira.

Laburki bederen, gogora dezagun zein inguru sozial eta historikotan sortu eta garatu zen Egutegia.

2.3.1. *Gerrate eta gerraondo butsak (1936-1946)*

Gerraurrekoak ahantzi gabe (López-Mendizabalena batez ere), egutegi horrek euskal argitalpenen artean berritasun nabaria ekarri zuen bere jaiotza-urtean, lehorre gaiztoak jotako gerraondoa baitzen hura.

Inondik ere, berritasunak lagundu ere egin zion argitalpenari, eta López-Mendizabalen lanen eta *Argiaren* almanakaren gerraurreko arrastoa galdutako euskaldungoak pozik hartu zuen, are gehiago orduko giroan fraideen eskuetatik zetorrela ikusita.

Begira dezagun 1940ko hamarkadan Egutegiaren aurretik zer zen euskal Hegoaldean euskaraz argitara emandako guztia. Hasteko, esan dezagun 1941, 1942, 1943 eta 1945etan liburu bat bera ere ez zela kaleratu euskal Hegoaldean (Madrilen argitara emandako Azkueren *Euskalerrriaren Yakintzak* ezer gutxi egin zezakeen egoera konpontzeko: Espasa-Calpe 1942, 1945, 1947). Gainerako urteetan, agertu ere ezer gutxi agertu zen: 1940an, *Cristau-Dotriña* bat (ortografia desitxuraturaz idatzia), 1944an Bederatziurren bat Bermeon, 1946an Baltzolaren gerraurreko *Argi Donea*²³.

1947an, bat-batean, eliz agerpena izanik ere, errezo eta dotrina-liburuetatik kanpoko zerbaitekin egiten dugu topo: *Arantzazuko Andre Mariaren Egutegia*. Hortaz, urte bereko beste *Kristiñau-ikaskizunaren* ondoan (Bermeo) nobedade handia zen Egutegia.

1940. urteetakoak laburtuz, Azkueren herri-literaturazko bilduman murgildu edo dotrinara nahiz elizkizunetara gabe euskaraz zerbait irakurri nahi zuenak, erosotasun bakarra zeukan; baina, zorionez, egunero eskueran izan zezakeena: Egutegia.

Baina nola eta zergatik sartu ziren frantziskotarrak egutegigintza horretan?

2.3.2. *Frantziskotarren Prentsa herritarra (1910-1960)*

1910etik aurrera garatu zen Euskal Herriko frantziskotarren artean eliz Prentsa herritarra, aurreko hogeita hamar urtetan halakorik gabe ibili eta lan

²³ Zarauzko Itxaropenan S. Unzurrunzagak esaten didanez, katiximaren bat atera zuten haiek ere, baina argitalpenari gerraurreko urtea emanez, bestela aurkitzen zituzten eragozpenak saihesteko.

egin ondoren. 1876-1910 artean euskal frantziskotarrek ez zuten izan aldizkari propiorik; aitzitik, beren elkarte edo mugimenduari buruz zerbait idatzi nahi izan zutenean, Santiago, Sevilla edo Bartzelonako aldizkarietara jo behar izaten zuten. Ez zuten, bada, garai haietan esan ohi zen gisara adierazteko, beren eskuetako *Prensa Onik*.

Hutsune hori betetzeko asmoz lehen sustapen-ekimenak 1910-1925. urteetakoak ditugu. Euskal Herriko frantziskotarren esperientzia berri hau Kuban hasi zen (1910), eta erdal idazle-multzo estimagarria bildu zuen aldizkari jaioberrietara jo behar da: besteak beste, urte haietan Urkiola bergararra, Sarasola lekeitiarrak, G. de Andoin foruarra izan ziren sinadurarik preziatuenak, etab.

Erdaraz hasitako horrek geroxeago eta apalago Penintsulan euskaraz ere izan zuen hastapena luma berriekin: guztietan onena Antonio Arruti poeta (†1919), eta bateratsu gerraraino, J. A. Ugarte, B. Gerra, J. Arrue, J. M. Azkue, etab. Justu Altxamenduaren bezperan luma hobek agertu ziren, gainera: I. Omaetxebarria (*Aritzondo*), D. Garmendia (*Antzi*), J. Alustiza (*Aztiri*), Kandido Izagirre, etab. Berehalako gerraondoan *Bai* zeritzan taldekoak datoz: S. Mitxelena, E. Agirretxe, K. Iturria, M. Gaztelu-Urrutia, eta beste. J. A. Garate, azken bi talde hauen tartekoa da (1938an apaiztua).

Komentuetatik kanpo, Hirugarren Ordenako kristau laikoen elkarteak Prentsa-zabalkunderako sare sozial baliagarria eskaintzen zuen aspalditxotik, eta beronen barruan sortu ziren euskarazko orriak gerraurrean eta ondoren: *Irugarrengeon Irakaslea* (1917-1923, 1935-1936), *Irugarrengeon Maixua* (= *El Maestro de los Tercerios*, 1944-1950), *Anaitasuna* (1950 eta 1952: G eta B euskalkietan). Gerraurreko *Irugarrengeon Irakaslea* ia 5.000 aleko edizioak egitera iritsi zen (1935)²⁴.

Prentsa erlijioso eliztar hau noraino landu zen jakiteko argigarriak dira ondoko datu hauek: Arantzazuko moldiztegitik ateratzen ziren aldizkarietan, ia 80.000 ale zabaldu ziren hilerio 1963an. Horietako bat elebiduna zen (*Aránzazu*: 21.000 ale), eta bi euskara hutsean agertzen zirenak (*Anaitasuna* biak: 6.200-G, 1.325-B).

Berrogeita hamar urteko (1910-1960) idatz-tradizio apal horrek ere ahalbidetu zuen Egutegiaren sorrera, gerraondoan –ikusiko dugunaren arabera– Santutegiaren itzalak ere erraztu baitzuen zabalkundea.

²⁴ *Homenaje* 1935: 201, 331-332.

2.3.3. *Santutegiaren erakarmen landua*

Argitalpena burutzean, Egutegiaren banaketak zekarren hurrengo buruhaustea. Egon zen ibilera xebrerik ere. Inoiz Aita Demetrio Garmendia predikari miretsiak asto bat eskatu, eta han joan zen etxez etxe ongi ezaguna zuten herrietako dendariak eta familiak ikustatzera, asto zamariaren bastak Egutegiz beteta (Soraluze, Bergara, Arrasate, etab.). Ezagutzen dugu, gainera, takoekin Tolosaldean auzoz auzo presaka batean ibili ohi zen Garateren lana.

Bigarren urtetik hasita (1948), Arantzazuko Egutegia nazioarteratu egin zen, Euskal Erbesteak halaxe eskatuta: 400 ale eskatu zituen López-Mendizabalek Buenos Airestik, 200 bidali ziren Mexikora, etab.

Gauzak nola mugitu izan ziren jakiteko pare bat ohar bederen egin beharra dago hemen. Gaur egun bitxia gertatuko zaigu, baina, Garatek gogorarazi duenez, gerraondo hartan baserri eta herrixketako jende heldu asko zegoen gerrateko larrialdietan “Arantzazurako promesa” egindakorik, eta kontzientzia lasaitzeko promesa hura bete beharra zuenik (frontetik itzuliak, preso-ohiak, etxean estu eta larri egondakoak, etab.).

Kostaldean J. Olaizolak (Getaria, 1911-Zarautz, 1948) eta Tolosaldean J. A. Garatek erromesaldiak antolatzea erabaki zuten, horrek Santutegiari ere on egingo ziolakoan. Gasogenoaren garaiak ziren, eta autobusak kaskarrak; hauek ez zenean, berriz, kamioiak ere igo ohi ziren hara, erromesez gainezka.

Erromesaldiak antolatu zituzten, bada (1945-1965 urte artean 140 erromesaldi, Goieritik bakarrik 45 herritatik joan zirenak), baina, ondoren, urte osoan zehar eutsi nahi izan zitzaion ibilaldi haietan lotutako harremanari, iraunkorki erromesen etxe-etxean egonez, sukaldean presente jarrita...

Hori dena, gainera, fraideen ekonomi sistemarekin lotuta zegoen (fraideen etxerik etxeko limosna-eskea artean bizirik zegoen garaiak ziren haiek), eta sermolarien mezuari ere egunerokotasuna eman nahi izan zitzaion (ez ahantzi 1945-1965. urteetako bi hamarkadak direla gerraondoan frantziskotarren herri-misioaldien loraldia ezagutu zutenak).

Giro hartan Egutegia berebiziko tresna gertatu zen, kristauen jarrera eta pentsamoldeak lantzeko eta harremanak segurtatzeko. Bestalde, herritarrak esker oneko agertzen ziren Santutegiarekiko, frantziskotarrak beren indar sozial estimagarriarekin indarrean zegoen botere politikotik Gotzainen ingurua baino askeago ageri zirelako, eta gerraondoak ekarritako uren kontra igeri egitera ausartu ere bai. Herritarren zerbitzuan ari zirela, fraideek ez zuten etxekalte ere jokutzen, noski, eta ezagutua zen, Santutegiaren gidaritzaren herritar eta Euskal Herrizalea.

Egutegiak lehen urteak bete ondoren, 1950etan egokiera hobeak izan zituen; gogoratzekoa da bereziki, 1951-1952. urteetan herriz herri fraideek Basilika berrirako egin zuten eskealdia. Herri eta auzo guztietara iritsi ziren, familia eta apaizetxe orotara, harreman zuzen eta bizkorrak sortuz. Gure herria bertatik bertara bere eguneroko bizitzan ezagutzeko aukera izan zuten: zoko guztietara heldu zen Arantzazu, sinbolo erlijioso eta euskal-herrizale bihurtzeraino. Zeharbidezko marketin izugarria izan zen hura, gero ere ongi zainduko zena (1956an bereziki).

2.4. Produktua eta lankidetzak Erakundearen barnean

Egutegiak gorputz molde bat izan du beti, eguneroko orrialdez hornitua. Eta liburu-tako horrek informazio eta irakurgai ugari bildu izan du. Hori hala izan zedin urte bakoitzeko argitalpena aurreko urtean egitarautu eta burutu behar zen. Neurri batean produktu definitua zen Egutegia; baina, horretarako, lankide-taldea urtero berritu behar zen, etab.

2.4.1. *Produktua*

Fraideen presentzia sozialari esker, banaketa-salmentak bideratuta zeuden; baina, aurretik, egutegi-orrietako atzeko orrialdea urtero bete-berritu behar zuten, eta hori zen buruhausterik handiena.

Egutegiko orriek bi moldetako aurpegiak zituzten: a) Lehen orrialdean, datu teknikoak biltzen zituela esango genuke: eguzki-ilargien gorabeherak, santu-izendegia, esaera zaharren bat. b) Atzealdea libreagoa zen: izkirimiriak, gertakariak, bertsoak, estatistikak, libururen baten publizitatea, igande eta eliz jaietako ebanjelioa, etab.

Aurrealdea erredakzioko lana izan ohi zen, urtero berdintsua, eta egokitua. San Fernando-Cádizko Behatokitik jasotako datuez, eta komentuetako liburutegietan bildutako langaiez betetzen zen orrialde hau. Lehen urteetan Garate bera arduratu zen horretaz, eta gero, J. A. Amundarain, idazkaritza Arantzazura eramán zenetik (1951).

2.4.2. *Lankideak*

Atzeko orrialdeak ematen zituen zeregin handiagoak, eta berorrek bildu ditu hainbat lagunen lankidetzak. Hasiera hartan, 1940. urteetako *Bai* taldeko lagunek eta abarrek osatu zuten lantaldea. Hona Garatek gogorarazi izan duen lehen lankidegoa:

E. Agirretxe (Errezil, 1920-Bermeo, 2005)	Iruzkin biblikoak
F. Altube (Oñati, 1921...)	Katekesia
J. Alustiza (Gabiria, 1913-Arantzazu, 2005)	Sukaldekoak
D. Garmendia (Berrobi, 1908-Arrasate, 1999)	Izkirimiriak
J. I. Ibarbia (Errezil, 1914-Bermeo, 2003)	Artisautza, teknika
B. Mendia (Zarautz, 1905-Zarautz, 1983)	Kultura, filosofia
S. Mitxelena (Zarautz, 1919-Suitza, 1965)	Folklore, olerkiak
P. Peñagarikano (Larraul, 1916-Tolosa, 1983)	Bertsoak, ateraldiak
Zuzendaria: J. A. Garate Idazkaria: Joxe Urbistondo	

Ondoko urteetan, idazketa-lan hori Erriberriko Filosofi eta Arantzazuko Teologi Ikastegietako ikasle gazteen eskuetara pasatu zen. Horrela, ikasle pres-tatuenak lanera deituz nahiz prestakuntza apalagoa zutenei aukera emanez. Alfabetatze-eskola praktikoa bihurtu zen Egutegiaren idazketa, probalekua; ongien zebiltzanek bazituzten trebakuntzarako etxe-barruko beste komentu-aldizkariak, baina batez ere euskaraz zerbait atzerago zebiltzanentzat –eta orobat guztientzat– Egutegiko orriak idaztea idazketa-eskola bilakatu zen. Geroko euskal kulturako hainbat jende ezagun esperientzia hasikin hartatik iragandakoa da. Orri-multzo jakin bat izendatzen zitzaion bakoitzari, epe jakin batean lana burutzeko eskatuz.

2.4.3. *Baldintza instituzionalak*

Hastapenean, Komentu Ikastegietan lan hauek eratu ahal izateko, bazterre-zina zen gutxienik Nagusien tolerantzia; geroago, babes ofizialen bat ere bai, eta, azkenik, guztien elkar-lana. Bakoitzari berea baita legea, gogora ditzagun izenen batzuk.

Nafarroako Erriberan, gerrako estualdiren bat edo beste pasatako Aita Benito Mendia (†1983) zarautzitarra ekarriko dut hona. Bera izan zen lan honen lehen sustatzailea ikasle gazteen artean, batez ere Erriberrin Filosofi irakasle zelarik, eta gero, beste estilo eta erantzukizun batekin, Probintzial izendatu zutenetik (1955-1967).

Era berean, Arantzazuko Santutegiak erantzukizun editoriala hartu behar izan zuenean, A. Arkanjel Mitxelena (†1969) hango Nagusia izan zen baiezkota eman zuena (artean ere Erriberriko gerra-mehatxuen gertakarien oroitzapena eta izua ere barruan zituela), Joakin Arriaran (†1978) argitaletxeko zuzendaria-

rekin batera. Halako eliz agintariak merezi dute euskaltzaleon aitormena, elizgizonen ez baitzuten berdin jokatu denek.

Testuak prestatuak zeudenean, kanpoko baimen bila hasi behar zuen zuzendariak. Lehen urteetan hiru kopia egin behar izaten ziren, kalko urdin-beltz haiek erabiliz, zentsura-aurretik moldiztegi muntaketa eta proben mentura arriskugarritan sartu gabe: bata Madrilerako, bigarrena Gotzaindegirako eta hirugarrena inprimategirako. Gerora, ahalbidetu zen zentsurarako moldiztegi-probak berak erabiltzea. Zentsura ofizialari zegozkion Madrileko harat-honatak Aita Anjel Uribe (†2002) historialari gernikar ezagunaren ardurapean utzi ziren.

2.5. Egutegiaren hedapena

Guztiari begiratu hau eman ostean, Arantzazuko Egutegiak barnean dituen bertute, aje, dohain eta mugak aztertzer pasatzen gintezke; hamarkadetan zabaldu duen mezua arakatzera, erabili izan duen euskara-mota aztertzer, gure herrian bete duen edo bete zezakeen hezkuntza zereginaz jardutera; baina horrek guztiak urrunegi eramango gintuzke hemen.

Hala ere, euskal egutegigintzaren analisi sakonagoak etor daitezkeen bitartean, zera azpimarratuta utzi nahiko nuke behintzat Arantzazukoaren historian: Erakunde batek, gizartearen eske eta sostenguz bultzatzen duen lanak, apala izanik ere, irabaz ditzakeen biziraupen eta zabalkundea. Ikus dezagun zenbait xehetasun berri.

2.5.1. *Ekarpen zenbakarria*

Nola labur liteke Egutegiaren historia txiki baina luzea? 60 urtetan Arantzazuko Egutegiak milioitik gora tako banatu ditu Euskal Herrian (zehazkiago, 1.103.000 ale eta 402.595.000 egun-orri)²⁵; zalantzarik gabe, irakur-maiztasun handiko euskal testuak izan dira, egunero eta familian irakurri direnak.

Denboraren harian, eguneguz egun orriak galduz joan ohi dira egutegi-tako hauek; horretarako asmatuak dira izan ere. Izaera horren ondorioz, Arantzazun

²⁵ 1947-2006. urteetako kalkulua ondoko datu eta hipotesien arabera egin da: 5 urtetan 25.000na ale = 125.000 ale (1947-1951), gehi 28 urtetan 24.000na ale = 672.000 ale (1952-1981: 1978-1979 salbu, baina bizkaierazkoa barne), gehi 4 urtetan 16.000na ale = 64.000 ale (1982-1985), gehi 11 urtetan 12.000na ale (1986-1996) = 132.000 tako, gehi 10 urtetan 11.000na ale = 110.000 ale Orotara, 1.103.000 tako-ale x 365 = 402.595.000 orri. Seguratasun osorik ez duen kalkulua da, noski.

bertan ere ez dago bilduma osorik (gipuzkerazko/batuari 1973koa falta zaio Arantzazun, baina Lazkaoko beneditarrenen bada ale hau ere; bizkaierazkoan gehiago dira eskas direnak).

Gertakari kultural eta sozial zabal honen aurrean joan bagoazenaren izan-minak jotzen gaitu: zenbait hamarkadatan (1947-1975 urte artean behinik behin) irakurlegorik zabalena izandako argitalpena da Arantzazuko Egutegi hau.

Baina ez pentsa, Santutegiaren izen-firma bati lotuta zetorrelako, Egutegia beste gabe onartua izan denik. Badago trantze txar bat ere historia honetan: takoarena lan astunegia zela eta, fraideek planto egin nahi izan zuten, eta 1978-1979etan asmazio berria atera berorren orde, egun-orritz ez, baizik asteroko orritz osatua. Ohiko irakurleek muzin egin zioten molde berriari, eta eskarmen-tuaren ondoren bi urteren buruan lehengora itzuli behar izan zuten Arantzazuko fraideek... Berriz ere urteko eguneroko lanera!

2.5.2. Azken urteetako zabalkundea

Nolakoa da gaur egun Egutegiaren osasuna? Zenbat eta nola banatzen da euskal herrietan? Esan bezala, 12.000/11.000 aleko edizioak izan ditu azken hogeita bat urteetan bederen.

Jaso ahal izan ditudan datuei jarraiki, gaur egun saltzen diren euskarazko egutegi-takoen merkatuko %40 inguru hartzen du *Arantzazuko Andre Mariaren Egutegiak*. Salneurriaren aldetik, bizimoduak oro gizartean bezala, gora egin du Egutegiak: Garate-ren arabera, 3 pezeta balio zuen 1947an; 1997an 725 pezetakoa zen prezioa, eta 2007koa 6,75 eurotan saldu da.

Banaketa geografari gagozkiola, Gipuzkoa eta inguruetan du bere bezeria ugariena Egutegi honek. 1996ko salmenta-banaketa ehun aletik gora hartzen zituzten herriak ondoko laukikoak izan ziren.

EGUTEGIAREN SALMENTAK: KOPURUAK ETA HERRIAK (1996)

1.586 Arantzazu	192 Bergara	127 Arrasate
1.822 Donostialdea	171 Elgoibar	126 Hernani
603 Tolosa	161 Beasain	113 Oiartzun
363 Azpeitia	160 Elizondo	111 Mutriku
294 Ordizia	151 Errenteria	111 Zumarraga
286 Azkoitia	141 Irun	102 Lasarte
275 Zarautz	138 Andoain	101 Zumaia
224 Oñati	138 Eibar	100 Ataun

Nafarroa Garaiko Mendialdean aski presentzia ona du Egutegiak (Elizondo 160, Lekunberri 64, Bera 55, Leitza 50, Doneztebe 44, etab.); baina Bizkaian, bizkaierazko edizioa utzi eta euskalki hartan *Euskerazaleak Alkartearen Egutegia* doan eskaini zenetik, Herrialdeko eskea guztiz ahuldu zaio Arantzazuko Egutegiari. Bestalde, Durangoko Liburu Azokan 465 ale saldu dira 2006ko abenduan.

Horietan azpimarratzekoa da, zertzelada osagarri bezala, Donostia inguruko datu hau: Donostiatik Hondarribirako tarte horretan, 523 ziren 1996an saldutakoak (laukian, Donostia/Donostialdekotzat eman direnak kontatu gabe).

Datuok aski deigarriak dira.

3. Azken oharpenak

Euskal almanaka, egutegi, urtekari eta abarrek mende eta erdiko argitalpen-historia izan dute (1848...). Euskarazko argitalpen guztien artean zabalduenak eta irakurrienak izan dira, uste litekeenez. Euskara idatziaren historiako eremu soziokultural estimagarria dira almanaka eta egutegiak. Literatura gutxi, baina euskara idatzi asko.

Egutegien hau mundu balioaniztuna da, eta gogoan hartzeko zenbait alde ohargarri izan ditu: herri xumearen euskarazko irakur-ohitura sustatu eta mantentzen lagundu du, euskal irakurlegoaren kultur informazioari halako autonomia bat eman izan dio (erbesteko eta erdarazko egutegietatik askatuz), erlijio-tasun euskalduna babestu du, Euskal Herriko pentsamendu eta ideologiaren herritartzea bideratu du, euskal erreferentzia sozial eta kulturalak sustatu ditu, eta zalantzarik gabe, euskararen batasuna/euskalkien zerbitzuan egon da.

Hortaz, interes nabaria du almanaka eta egutegien historiak, Euskal Herriko mentalitateak ezagutzeko, interes ideologiko, erlijioso eta politikoen hedapena aztertuz joateko, batez ere herri euskaldun arruntarengana hurbiltzeko.

Garai eztabaidatsu eta zailtako ahotsak eta antsiak ageri zaizkigu almanaka eta egutegietan (borroka politikoak, gerraondo latza), zentsurarik gogorrean ere hizkuntzaren ahotsa idatzita erakustean besterik ez bada. Denbora zail nahiz erosoagoetako argitalpen herritar zabalduenak egutegiok izan dira.

Baina, unean uneko giroari aurre eginez ere, hainbat egutegi hori baino gehiago izan da: iraupen luzeko lana. Eta historiarik handiena dutenak, iraunkorrak ez ezik, baita lurralde zabalekoak ere izan dira, eta zabalkunde-sare dinamikoa izan dutenak.

Egutegiak gizabanako edo talde jakinekin loturik ikusten ditugu, inoiz norbaiten bizialdi osoa hartzeraino, eta ia beti elkarte edo erakunderen baten babesean bizi izan dira (Eliza, kultur taldeak, politikariak, literatur zaleak, etab.).

Bereziki nabarmena da Eliza Katolikoko euskaltzaleek egutegietan egin duten lana, erlijiosoek (Hegoaldean) bezala diozesietako apaizek ere (Iparraldean). Arantzazuko kasuan, ohartzekoa da fraide gazteen ekarpena ere. Eliz euskalgintza orokor eskasagoaren barruan, azpimarratzekoa da eliz Erakundeek ere egutegiei emandako babesa, Baionako Diozesian bezala Hegoaldeko erlijiosoen artean (ez ikusi eginez, dirua jarriz edo espresuki babestuz). Batzuetan, zenbait elizgizon saiatuk bere kabuz eta gisara irabazita-ko garaipenak izan dira egutegiak. Aipatu dut dagoeneko hainbat izen.

Azken hogeita hamar urteko euskara idatziaren goraldi horren aurretik, eta gero parean ere, egutegiek lan duina egin dute gure sukaldeetan euskara irakur zedin, duina eta zabala, egunerokoa eta, oro har, etenik gabea.

Ikusteko dago bere horretan noiz arte iraungo duen egutegigintzak, baina bizi izandako historiak merezi du gure kultur oroimenean dagokion lekua.

ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

OHARRAK: Ondoko bibliografia honek bi xede ditu: a) Esandakoen iturriak non dauden aditzera ematea, eta b) Geroko ikertzaileei lana samurtzea. Tako gisara argitara emandakoak izartxo (*) batekin eman ditut. Liburu eta artikulak ez ezik, lan honetarako iturriak kasu bakoitzeko lekukoak ere izan dira: Iparraldean Piarres Xarriton, Jeanne Idiart, J. L. Davant, etab.; Bizkaian BBK-ko Elias Ortega, eta Martin Olazar idazlea, Mensajero-n Josu Legina; Arantzazun, Jon Zubieta, J. L. Zurutuza eta Patxi Agirre; zenbait xehetasunetarako hainbat lagunek lagundu du, gainera. Guztiei nire eskerrak. Eskerrak liburutegi edo artxibo bakoitzean lagundu didatenei, bereziki Joan Joxe Agirre Lazkaoko beneditarrari eta Joseba Etxeberria Arantzazuko frantziskotarrari.

I. Iturriak (liburutegi eta artxiboak)

Arantzazuko Liburutegia.

Baionako Euskal Museoa.

Baionako Udal Liburutegia.

KM-JU: Urkixo Liburutegia (Donostia: "Koldo Mitxelena").

Lazkaoko Beneditarren Liburutegia.

2. Euskal egutegiei buruzkoa

Bilbao, J., 1970-1981, *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco. Cuerpo C: Eusko-Bibliographia* (10 libk.), Donostia: Auñamendi.

Bilharía [= P. Lafitte], 1948, "Almanakaren ehun urtheak (1848-1948)" in *Gure Almanaka*, Baiona, 13-15.

Díaz Noci, J., 1994, *Euskarazko Aldizkari, Egutegi eta Almanaken errolda (1834-1959)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza. [Ikus 46-65 orrialdeak].

Lafitte, P., 1969, "J.-B. Etcheberry Almanakaren aita (1806-1898)" in *Gure Almanaka*. 1970, Baiona, 13-15. [Orain: Lafitte, P., 1990, *Euskal literaturaz*, Donostia: EEE, 213-215, (Urkizu, P. ed)].

Torrealdai, J. M., 1993-1999, *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa*, Donostia: Gipuzkoako Aldundia. (1993ko lehenengo liburukiak, hiru eranskin argitara emanak ditu: 1993-1994, 1995-1996 eta 1997-1998. urteetako liburuen berri emanez).

Villasante, L., 1961, *Historia de la Literatura Vasca*, Bilbo: Sendoa.

Vinson, J., 1983 [1891-1898], *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*, Bilbo: Caja de Ahorros Vizcaina.

3. Euskal almanaka eta egutegiak (urtez urte)

Ulibarri, J. P. (ed.), 1815, *Egunari eusquerazcoa erderazcotik itzuliya, Vizcai, Guipúzcoa, ta Arabaco provinciaentzat 1815 garren urteraco*, Bilbo.

[Bibliografoek aipatu izan duten lehenengo euskarazko egutegia. Ez da alerik ezagutzen. Euskara hutsean zen, nonbait.-- Albistea: Vinson 1898: 592; Akesolo, *Idazlan guztiak* I: 361-362, 375, 389; Díaz Noci 1994: 50: honek titulua aldatu egin dio].

Etcheverry, J.-B., 1848-1914, *Escualdun laborarien adiskidea*, Baiona: Lamaignère/Lasserre.

[Albistea: Vinson 1891: 241. zk.: atzerakoia omen (1848-1890etakoak. Vinson 1898k ez du ezer); Torrealdei 1993: 7-8 (1900-1911etakoak); Díaz Noci 1994: 50-51 (titulua luzeago: ...*eta conseilaria, presuna suerte gucientzat on dena. Egunaria edo almanaca*). Etxeberrri hau Uztaritzeko Gurutzeko Alabetan kapilaua zen, eta Garikoitzen bizitza idatzi zuen: ikus Villasante 1961: 196. Almanaka hau *Gure Almanakarekin* lotzen du].

1852, *Egunari berria edo conseillu oneco almanaca*, Pau: E. Vignancour.

[Albistea: Vinson 1891: 258 zk.; Díaz Noci 1994: 49].

1859, *Eusquerasco pronosticua milla zortcireun ta iruro gueiraco Vizcairaco, Guipuzcuaraco ta Aravaraco*, Bilbo: Delmas Alarguna.

[Albistea: Díaz Noci 1994: 52-53. Jose Gorosabel, argitaratzailea].

1865-1866, *Euscaldun necazarien adisquidea eta guiaria persona-clase guztientzat ona dana, au da . . .garren urterako egunaria edo pronosticoa*, Tolosa: Pedro Gurruchagaren moldiztegian.

Maisonnavé eta Larousse kalonjeak, 1877-, *Fedeco Propagacioneko urtekaria edo fedearen propagacioneco berriac urteca ematen dituen*, Baiona: Lasserre.

[Albistea: Vinson 1891: 498 zk.].

Baroja, S., 1877, *Santo Tomasco feriya. Almanaque bilingüe erderaz eta eusqueraz para el año de 1878*, San Sebastián: Lit. F. Múgica.

[Albistea: Vinson 1891: 507 zk. Elebiduna].

1878, *Almanaque bilingüe (erderaz eta eusqueraz) para el año 1879*, San Sebastián: Antonio Baroja.

[Albistea: Vinson 1891: 506. zk.; Díaz Noci 1994: 48. Elebiduna].

1879-1881, *Calendario vasco-navarro*, Bilbao: G. Pérez.

[Albistea: Vinson 1891: 514 zk.].

- 1879-1882, *Almanaca berria edo egunaria. Ilhabete gucietaco demboraren indicacionearekin eta bertce asko, erran zabar, titcho eta ichtoriorekin*, Baiona: Lespès sœurs.
[Albistea: Vinson 189I: 516. zk. eta 452. or.; Díaz Noci 1994: 47. Errepublikazalea zen, eta hainbat lan politiko argitara eman zuen Errepublikaren izaera azaltzeko (legeak, errepublikatasuna, etab.) beti argialetxe berean, baina izenburua zerbait aldatuz. Baionako Udal Liburutegian ikusi ditut: 1879, 1880, 1881].
- 1882, *Lau-buru, calendario católico para 1882. Año primero*, Bilbao: J. de Astuy.
[Albistea: Vinson 189I: 545 zk.].
- 1884, *Almanach des traditions populaires. Troisième année*, Paris: Maisonnneuve et C^{ie}. (I-25. orrialdeetan: “1884^{ren} urthetako egunaria eskuaraz emana. Calendrier basque pour l’année 1884, avec l’indication des fêtes patronales de quelques localités, par Julien Vinson”).
[Albistea: Vinson 189I: 595 zk.].
- 1884, *Almanaca berria 1885^{ro} urtheco, urtheco demboraren indicacionekin eta bertce asco, erran zabar, canta eta ichtoriorekin*, Orthesen: Goude-Dumesnil.
[Albistea: Vinson 189I: 596 zk.; Díaz Noci 1994: 47.-- Errepublikazalea omen].
- 1884-1887, *Escualdun almanac edo egunari berria 1884 urtheco*. Baiona: Lamaignère.
[Albistea: Vinson 189I: 585 zk.; Díaz Noci 1994: 50. Bonapartista zen, eta gero bere bonapartismoa samurtu egin zuen (ik. Vinson 189I: 646 zk., et infra).- Hurrengo urteetan, *Escualdun almanac* etab., urtea aldatuz, eta azken urtea Miarritzen argitara emana. Lehen urteko artikuluak J. Duvoisin-ek idatzita].
- 1885, *Almanaca berria edo escualdun egunaria. 1885 garren urtheco. Ilhabete gucietaco demboraren indicacionearekin eta bertce asko contseilu, erran zabar, titcho eta ichtoriorekin*, Donibanen: Y. B. Deluc.
[Albistea: Vinson 189I: 597 zk.; Díaz Noci 1994: 47. Errepublikazalea].
- 1885, *Almanaque Escary. Año V*, Buenos Aires: Librairie française de Joseph Escary.
[Albistea: Vinson 189I: 609 zk. Hainbat testu euskaldun du].
- 1887-1888, *1887 garren urterako egunaria*, Donostia: I. R. Barojaren semeac.
[Albistea: Vinson 189I: 625 zk.; Díaz Noci 1994: 49. Bigarren urteko titulua berdina, urtea aldatuz. Gogoan har Donostian agertu zela].
- 1887-1906, 1911, *Armanak uskara edo Ziberouko Egunaria. 1887guerren ourtheco*, Paris: L. de Soulle.
[Albistea: Vinson 189I: 626 zk.; Díaz Noci 1994: 48-49. -- 1906raino atera zen, Baionan ikusi ahal izan dudanaren arabera, baina *Euskal-Esnaleak* 1911rako aipatu zuen (*Euskal-Esnalea*, 1911, 62). Iribarnek, Zalgizeko erretorak, idatzi zituen artikulu nagusienak. Eliztarra zen oso. Lehen urtean ezik, beti *Armanaka* izan zen, *Almanakaren* orde. Baionako Udal Liburutegian daude ale guztiak, liburuki bakar batean bilduta: P. R. I23. Honen eslogan programatikoa zera zen: “Jinkoua eta herria! Zuhurtarazuna

eta lana! / Eta bizi bedi Uskalduna! Iao! Iao!”. Euskarari buruzko artikulua baditu: “Uskara eta Uskal Herria”, 1899, 36-39; 1900, 60-66; 1901, 84-90.-- “Katichima uskaraz”, 1904, 37-39. “Uskara bazterretan”, 1906, 77-79].

Eskualduna, 1887-1891, 1892-1899?; 1900, 1906, 1909, 1910; 1904-1907, 1908-1924, *Eskualdun Gazetaren Almanaka. 1888garren urtheko*, Baiona: Lamoignon.

[Albisteak: Vinson 1891: 646 zk.; Torrealdei 1993: 8.; ik. gainera: Vinson 1891: 585; Vinson-en eranskinean deus ez; Díaz Noci 1994: 50-52 eta zerrenda kronologikoa: ib., 59-65. -- Baionako Udal liburutegian ikusi ahal izan ditudanak: 1889, 1891, 1894, 1896, 1903, 1904, denak ere *Eskualdun Gazetaren Almanaka* bezala eta atzealdean *Eskualduna*-ren publizitatearekin. 1986, 3. orrialdean *Eskualduna*-rena dela adierazten da. 1903koan esaten denez (22. or.), aurreko bi urtetan ez zen argitara eman. Zabalkundeaz ematen duen datua interesgarria da; “...kazeta baino anhitz gehiago hedatzen delakotz Almanaka...” berriro idatzi zuen honetan Pasteur-i buruz (1896, 3-4). Almanaka honen eslogana: “Herrialde guzietan toki onak badira; / baina bihotzak dio: zoaz Eskual Herrira!”.-- “Laborantza gauza handi / eta botheretsua: / Hartan da lanean ari / Jainkoaren eskua, / Gizonaren eskuari / berma dadin lothua” (Zalduby Laphurtarra). Aurreko urteetarako?: ik. 1884-1888: *Eskualdun almanac edo egunari berria*. Ondoko urteetan eta XX. mendean bere segida izan zuen, *Eskualdun Almanaka* bezala 1900, 1907, 1910, 1911. urteetakoak; *Eskualdun onaren almanaka* bezala 1905-1908etakoak; *Eskualdunaren Almanaka* bezala 1909-1925etan. Artikulu interesgarri bat: “Eskual-Herria”, 1896, 42-46].

1888-1890, *1888 bisisto almanak berria edo Ziberouko eta Basa-nabarreko egunaria*, Baiona: Imprimerie-Steréotype Garet.

[Albisteak: Vinson 1891: 627 zk.; Díaz Noci 1994: 47-48. Ondoko bi urteetan *Bisisto* gabe. Berdoly-ren *Le Réveil Basque* errepublikazalearen ildotik zihotan].

Arana-Goiti, S., 1896, *Egutegi Bizkattarra [1897]*, Bilbo: Amorrortu'ren Irarkolea.

[*Obras Completas*: 983-I.015. *Lecciones de ortografía del euskera bizkainoren emanaldien barnean* zabaldua. Ez zen takoa. Albisteak: Vinson 1898: 777 zk.; Díaz Noci 1994: 49].

*Arana-Goiri, S., [1897], *Lenengo Egutegi Biskattarra. 1898 (Ormarakua)*, Bilbao: Amorrortu.

[1965, *Obras Completas*, Buenos Aires: Amorrortu, 1401-1659. Eguneroko orri bat: takoa zen. Albisteak: Vinson 1898: ez dakar; Díaz Noci 1994: ez dakar.-- Segimendu zaileko egutegi-takoa: Aranak berak edizio hau besterik ez zuen egin, baina 1910ko *Egutegi Bizkattarra*-k dioenez, urte horretakoa “III Urtealdija” zen, beraz 1907an prestatu eta 1908az geroztik agertzen ari zela pentsa liteke (1910ekoa “Elexpuru Anayak'en Irarkolea”: JU 573). Hori hala balitz, segida hau izango genuke: 1908-1910, eta 1911n *Egutegi Euzkotarra* bezala, urte horretako bezala eman nahi bada

behintzat datarik gabe JU 57In dagoena (Euzkaltzale-Bazkuna); ondoren data eta guzti, 1912koa, berriz ere *Egutegi Euzkotarra* bezala (Euzkeltzale-Bazkuna. JU 57I); 1918koa ere *Egutegi Euzkotarra* (Euzkeltzale-Bazkuna; JU 57I). Horien ondoren, Errepublikar-urteetan, berriro *Egutegi Bizkattarra* bilakatu zen (Urkixok 1898ko aleari egin zion oharraren arabera, 1932an izan zuen berrargitalpen bat Aranarenak: ez dut ikusi ahal izan), eta 1934an Euzkeltzale-Bazkunak aterata, Verdes Atxirikarenean agertu zen berriz *Egutegi Bizkattarra* hori (JU 574). Hemen aipatutako guztiak, ikusi ahal izan dudanez, egutegi-takoak ziren (1908-1909koak ez ditut ikusi ahal izan)].

Eskualduna, 1900-, *Eskualdun Gazetaren Almanaka 1900garren urteko*, Baiona: Lamaignère. [Ikus goian 1887-].

1904-1909, *Eskualdunentzat eskuarazko egunari edo almanaka berria*, Baiona: A. Lamaignère.

[Albistea: Torrealdai 1993: 7; Díaz Noci 1994: 40. orrialdekoa bera ote da?). Baionako Udal Liburutegian daude 1905-1909etakoak: P. R. I2I. Publizitate ugari eta ezberdina zuen honek].

*Euskal-Esnalea, 1908, *Euskal-Esnalearen Egundiya. 1909*, Tolosa: E. López.

[*Euskal-Esnalea* aldizkarian ikus daitezke Elkarte haren lehenengo egutegi honen albisteak: Bartzelonan inprimatuko zela kartoia eta Aldizkariaren inprimategian takoa, 1,50 pezeta balio zuela (tako eta kartoi inprimatua), dena euskaraz zegoela, euskararen sustapenerako egiten zela, zein liburu-dendetan salduko zen, euskara ikasten nola lagunduko zuen, 2.000 aleko edizioa egin zela, etab. (ik. *Euskal-Esnalea*, 1908, 155-156, 175-176; 1910, 180-181). 1910ean jakin dezakegunez, 1909-07/1910-07ko jarduerako gastuetan bi gauza agertzen dira (ik. *Euskal-Esnalea*, 1910, 211): *Egundiya* (takoa, noski) Tolosako López-enean egina (aldizkaria bera bezala), eta *Esku-Egundiya*, Viuda de Valverde-renean argitara emana, biak ere *Euskal-Esnalea*-ren enkarguz, noski: inondik ere, Torrealdai 1993: 6. orrialdean *Campion*-ena bezala ageri dena da hori, datek ez baitute bestetarako ematen, eta hurrengo urteetakoa aldizkari berean muga-tuta baitago: 1911ko *Euskal Esnaleak* dioenez (62. or.), urte horretako bertako *Euzkel-Egutegiya* takoa eta *Euzkel-Egutegi txikiya* liburuxka López Mendizabal jaunak ateratzen zituen, eta *Euskal-Esnalearen* ez da aldizkarian ageri].

*López Mendizabal, I., 1909-1936, *1910^{-garren} urterako ormarako (paretarako) Euskal-Egundiya*, Tolosa: E. López.

[López-Mendizabal-en bilduma hau, oro har *Euskal-Egutegiya* bezala eman liteke, baina gogoan har izenburua aldatuz ibili zela, eta kanpoko eta barneko azaletan ezberdin jarrita ere bai: *Euskal-Egundiya*, *Euzkel-Egutegiya*, *Euskel-Egutegiya*, *Eskual-Egutegiya*, *Euskal-Egutegiya*, *Euskal-Egutegiya*. Hala ere, guztien arteko segida segurua da; multzo on bat JU-n ikus daiteke: 1910-1911, 1913-1920, 1924-1925, 1927, 1930-1931 urteak

(JU 554). López-Mendizabalen takoa da hau. *Euskal-Esnalearenari* segida eman zion, itxura guztiz, aldizkari honena E. López-ek atera baitzuen (1909rako): 2.000 ale (segur aski X. López-Mendizabalek gogoan dituen erdi saldutako 2.000 haiek), eta ondoko hau (1910erakoa), osorik eta bakarrik López-Mendizabalena bezala ageri zaigu. Honen berriak ikus gutxienik: *Euskal-Esnalea*, 1911, 62; 1912, 27; 1913, 111; 1914, 274-275; 1916, 43; 1917, 20; 1918, 258. Tako hau *Egutegi txikiarekin* batera agertu ohi zen urtero, eta bizkaieraz ere atera omen zen behin (*Euskal-Esnalea*, 1912, 27: osorik ote?).-- Jaso nituen lehenengo albisteak: Torrealdei 1993: II. Xabier López-Mendizabalek esaten zidanez, 96-12-16, gerraurrean urtero atera zen eta 10.000 aleko edizioak egiten ziren; Díaz Noci 1994: 52-53. Arantzazun badago ale bat: *Euskal Egutegia*. 1926].

Lopez Mendizabal, I., 1909-, 1910-^{garren} urterako *Euskal-Egundi chikiya*, Tolosa: E. López.

[Arantzazun dago ale bat; liburuxka da. Lapurdiko almanaken antzera lan egin nahi duela esaten du sarreran. Urte bereko takoarekin batera atera zen. *Euskal-Esnalearen* arabera, urtero-edo atera zen. Ikus *Euskal-Esnalea*, 1911, 62; 1912, 27; 1913, 111; 1914, 274-275; 1916, 43].

*1910, *Egutegi Bizkattarra (III Urtealdija) (Ormarakua)*, Bilbao: Elexpuru Anayak'en Irarkolea.

[JU 573; takoa da. Ikus Arana-Goiri 1898].

*Euzkeltzale-Bazkuna, 1911?, *Egutegi Euzkotarra*, [Bilbao].

[JU 571; takoa da. Ikus Arana-Goiri 1898, eta Euzkeltzale-Bazkuna 1912].

*Euzkeltzale-Bazkuna, 1912, *Egutegi Euzkotarra*, Bilbao: Elexpuru Anayak'en Irarkolea.

[JU 573; takoa da. Ikus Arana-Goiri 1898].

*Euzkeltzale-Bazkuna, 1913, *Egutegi Euzkotarra*, 1914, Bilbao: Elexpuru Anayak'en Irarkolea.

[Baionako Euskal Museoa dago. Atzean euskalki ezberdinetako testuak ditu, baita Iparraldekoak ere (J.-B. Daranatz, etab. Bakoitzean, testua zein euskalkitakoa den adierazi egiten da)].

1914, *Almanak. Uskara edo Ziberouko egunaria*, Paris: Mauleon.

[Albistea: Torrealdei 1993: 6. Badu euskara eta erriente arteko arazoez hainbat berri ere. 1887-1906koaren segida izango da segur aski: ikus goian].

1915, *Euskal Egutegi Txikiya Bizkayerazkua*, Bilbo: Grijelmo.

[Albistea: Torrealdei 1993: 8; Díaz Noci 1994: 52].

* Euzkeltzale-Bazkuna, 1918, *Egutegi Euzkotarra*, Bilbo.

[Albistea: *Euskal-Esnalea* 1918, 258: hormarakoa dela esaten du, López-Mendizabalen takoarekin parekatuz. JU 571. Takoa da. Ikus Arana 1898].

- Argia, 1922-1936, *Argia-ren egutegia, 1922*. Donostia: Eneko Deunaren Irarkola.
[KM-JUn osorik eta Arantzazun (1922ko alea izan ezik) ikus daiteke. Albiste: Díaz Noci 1994: 48; Torrealdei 1993: 6].
- 1924-1981, *Gure almanaka*, Baiona: S. Sordes/Herria/Etab.
[Urtero atera zen (tarteko hutsarteren bat edo beste): 1939, 1940-1945, 1974, 1978, 1979. urteei zegozkienak. Ia beti izen berarekin agertu zen, baina inoiz berori aldatuz ere bai: 1924koak *Gure Herria. Almanaka edo urtekaria. Leben urthea* zioen (Torrealdei 1993: 9-10). (1924-1939): *Gure herria. Almanaka edo Urtekaria*. Baiona: Gure herria. Elebiduna omen (Díaz Noci 1994: 53).-- Baionako Udal Liburutegian ez dut aurkitu ahal izan, 1996-01-06an.—Guzti horren ondoren, Arantzazun aurkitu dituzten zenbaki batzuk eta KM-JUk ere baditu zenbait: hauek denak *Herria*-renak bezala agertu ziren, Lafitte-ren eskutik, noski: 1960, 1962, 1963, 1965, 1966, 1967, 1968, 1971, 1972, 1973, 1975, 1976, 1977, 1978, 1980, 1981, 1982, 1984, 1985].
- 193?, *Egutegitxo*. *Gure ama*, Taipingfo (Txina).
[Albiste: Díaz Noci 1994: 50; Bilbao 1970k aipatua. Ale eta datarik ez da ezagutzen].
- 1931, *Almanach du Courier*, Baiona: Le Courier de Bayonne.
[Albiste: Díaz Noci 1994: 48. Elebiduna].
- *Elissalde, J. (*Zerbitzari*), 1932, *Eskual-Egutegia. 1933. Oibal Magazina*, Donibane-Lohizune: Mendiburutegia.
[Donibaneko Mendiburutegia etxean saltzen zen tako hau gerraurrean, Piarres Xarritton-ek esan didanez. Euskal Museoa dago urte horretakoa. Eliz eta erlijio-tesurik ez du: dena izkirimiriak, gertakariak, etab.].
- Nekazaritza Batzordea, 1932, *Nekazaritzarako Egutegia. 1933garren urtea*, Donostia: Gipuzkoako Diputazioaren Irarkola.
[Arantzazun dago ale bat: liburuxka da, 80 orri ditu, zenbakitu gabe. Fraisoron egiten zen: ikus 74. orria. Albiste: Díaz Noci 1994: 49].
- *Euzkeltzale-Bazkuna, 1933, *Egutegi bizkaitarra (ormarakua)*, Bilbo: Verdes Atxirika'ren Irarkolean.
[Albiste: Torrealdei 1993: 7. Aipatzen den "Euzko-Idazkaltza Buruba" Euzkeltzale-Bazkuneko da, nonbait. JU 574. Ikus Arana 1898].
- 1933, *Wubuko Egutegiya*, Wuhu (Txina).
[Arantzazun dago ale bat: jesulagunena zen. Albiste: Díaz Noci 1994: 53. 1934ko egutegia da].
- 1933, *Gazteen Almanaka. 1934*, Bayonne: Imprimerie La Presse.
[Baionako Euskal Museoa dago].
- 1934, *Gauden gu eskualdun. Gazteen almanaka*, Baiona: Imprimerie La Presse.
[Albiste: Díaz Noci 1994: 53].

- *Euzkeltzale Sabindarra, 1934, *Egutegi bizkattarra*, Bilbo: Verdes Atxirika.
[Albiste: Torrealdai 1993: 6].
- 1936, *Egutegija*, Bilbo: Editorial Vasca.
[Albiste: Artea-ko Artxiboan ale bat].
- *Frantziskotarrak, 1947-, *Arantzazuko Andre Mariaren egutegia*, Arantzazu: Editorial Franciscana Aránzazu.
- *Narbaitz, 1948?, [Almanaka].
[Segurua da egutegi hau izan zela, Emakumezkoen Ekintza Katolikotik Narbaitz-ek aterata, takoa zela ere, eta Eskualdun Gazteriari eman ziola Narbaitz-ek permananta ordaintzeko balio zezakeelakoan, 1957an. 1997-01-07ko albisteak, P. Xarritton eta J. Davant-en lekukotasunak].
- Onaindia, S., 1951, *Karmen'go Amaren egutegia (lehen urtea)*, Bilbo: Gráf. Bilbao.
[Albiste: Torrealdai 1993: II].
- *Frantziskotarrak, 1952-1981, *Arantzazuko Andramariaren egutegia. Biskaiko euskeras Aita Prantziskotarrak egiña. Lenengo urtea*, [Arantzazu: EFA].
[Lehen urteko titulu desitxuratu hori hurrengo urtean zuzenduta agertu zen. 1981eraino argitara eman zen, "Ogeita zortzigarren urtea" baita 1981ekoa].
- *Narbaitz, 1950-1957, 1950, *Urthe Saindua*, Baiona.
[Diozesiko Emakumezkoen erakundetik ateratzen zuen Narbaitz-ek egutegi-tako hau. 1950ean atzeko orrialdeak testurik gabe daude; aurrealdean, besteak beste, merkatuak eta adorazione-herriak ere ematen zituen. Baionako Euskal Museoan daude ondoko hauek: 1950, 1951, 1953, 1954, 1956, 1957. 1958tik aurrera Eskualdun Gazteriaren eskuetara pasatu zen, Jeanne Idiart/Davant eta P. Xarritton-en gidaritzapean].
- *Eskualdun Gazteria, 1958-1997, [Almanaka]. Baiona.
[Izenik ez omen zuen: "Eskualdun Gazteria" eraman ohi zuen azalean: azal zenbait Gazteriaren artxiboan dago, noski, Beñat Ameztoi-k pasatuta.-- Jeanne Idiart/Davant (1997-01-07): Almanaka hau takoa zen, eta lehendik Narbaitz-ek ateratzen zuena, permananta ordaintzeko Xarritton-i pasatu zion Bikario Jeneral horrek Egutegi hau (dirua ematen baitzuen), eta Jeanne egin zen horren kargu orduan (1957an, eta beraz lehenengoa 1958koa izango litzateke. Frantziako jacetik (Frantzia 1929; Euskal Herria 1932) sortu zuten ofizialtasun osoz Eskualdun Gazteria, 1954an. Egutegiaren titulua guztiz aldarra izan du. Sarritan omonierak berak egin ohi zuen, kasik oso-rik. 1970aren inguruetan 7.500en bateko edizioa zuen, 1997an 3.500 inprimatzen ziren].
- 1970, *Urtekari*, Bilbo: Mensajero (Gero).
[Agenda zen gehiago.-- Albiste: Torrealdai 1993: II].
- *Goiz Argi/Agur, 1974-1976, *Erri-Egutegia*, Donostia: Edili.

- *Olazar, M. et al., 1981-, *Euskerazaleak Alkartearen Egutegia*, Bilbo: Caja de Ahorros Vizcaína/Bilbao Bizkaia Kutxa.
[Albiste: Torrealdai 1993: 8. cavak atera zuen lehenik, aurreko urteetan (1982-1989). 1990etik aurrera BBK-k editatzen du, Euskerazaleak-ek paratu eta Mensajero-k argitalpen-ardura duela].
- *Argia Taldea, 1992-, *Argia-ren Egutegia*, Lasarte-Oria: Argia.
Argia Taldea, 1984-, *Euskal Kulturaren Urtekaria*, Donostia: (Zeruko) Argia.
- *Elkar-Lanean, 1985, 1987, *Akademia sekretuaren egutegia*, Iruñea: Pamiela.
[Lehen albiste: Torrealdai 1993: 6. Bi urtetan eman zen argitara. Lazkaon dago].
- *2007, *Jesusen Bihotzaren Egutegia*, Bilbo: Mensajero.
[Ezin jakin izan dut gerraurrean jesulagunek honelako egutegirik atera zuten, norbaitek halakorik iradoki baldin badit ere. Bestalde, gerraosteko zinezko bere lehenengoa hau du argitaletxe honek].

4. Arantzazuko Egutegiari buruzkoa

OHARRA. Argitaratu izan diren albisteek, Aita J. A. Garate izan dute ia iturri bakartzat, eta albisteak errepikatu egin izan dira, gehienetan ezer berri handirik ekarri gabe. Artikulu honetarako artxiboetara jo da gaur egungo egoera ezagutzeko. Gogoan izan, Arantzazuko Egutegiaren izena zera izan dela beti: *Arantzazuko Andre Mariaren Egutegia*, gipuzkeraz, eta *Arantzazuko Andra Mariaren Egutegia*, bizkaieraz (lehenengo urtean izan ezik).

- Agirre, P., 1996, *Egutegiaren urteko banakuntzaren txostena*. [Argitaragabea].
- Arendui [Zurutuza, J. L.], 1977, "Atera da Egutegia", *Aránzazu*, 1977, 355-356.
- Azkarate, J. L., 1997, "Un ramo de 365 hojas" *El Correo* 1997-I-05. [Gipuzkoako edizioan, 5. or.].
- Aztiri [Alustiza, J.], 1968, "Arantzazuko Andre Mariaren Egutegia", *Aránzazu*, 1968, 274-275.
- Beristain, I., 1995, "Arantzazuko Andre Mariaren Egutegia. 50 urtez etxeko", *Arantzazu*, 1995, 8-10.
- Erredakzioa, 1996, "Arantzazuko Andre Mariaren Egutegiak jaso du I. Anton Abbadia Saria", *Egunkaria* 1996-12-28, II.
- Erredakzioa, 1997, "Anton Abbadiaren eta Arantzazuko frantziskotarren inguruko erakusketa Donostian", *Egunkaria* 1997-I-4, II.
- Garate, J. A., 1986, *Arantzazuko Amaren Egutegia*. [Argitaragabea].
- Garate, J. A., 1993, *Orígenes del Arantzazuko Amaren Egutegia*. [Argitaragabea].
- Garate, J. A., 1995, *Origen del Arantzazuko Amaren Egutegia*. [Lan argitaragabea, baina 1995-1996ko ospakizunetako artikuluak idazteko erabilia. 7 orrialde ditu, eta aurre-

- ko lanetako albisteak jaso zituen gehienbat, dena zerbait osatuz].
- Garate, J. A., s. d., *Apurkiñak, Egutegiari dagozkionak*. [Argitaragabea].
- [Garate, J. A.] Jose Urkiola, 1970, “Arantzazuko Amaren Egutegia”, *Arantzazu L*, 1970, 381.
- Gonzalez, M., 1997, “Premio a la labor de los franciscanos de Arantzazu en favor del euskera”, *El Diario Vasco* 1997-1-7. [Deba garaiko edizioan, 16. or.].
- Ibargutxi, F., 1996, “Lehen Abbadia Saria Arantzazuko frantziskotarrentzat izan da”, *El Diario Vasco* 1996-12-28.
- [Intxausti, J.], 1996, *Anton Abbadia Saria*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. [Sari-banaketako esku-agiria, euskal egutegiei eta Arantzazukoari eskainia].
- Intxausti, J., 2003, “Aita Garate hil da”, *Berria* 2003-7-23, 7.
- Iturriotz, A., 1997, “Sukaldeko laguna”, *Egunkaria* 1997-7-2, 24.
- Letona, J., 2001, “Arantzazuko Amaren Egutegia” in Intxausti, J., *Arantzazu. Euskal Santutegi bat XX. mendean*, Arantzazu: EFA, 327-329.
- Puente, M. de la, 1996, “El Calendario de Arantzazu, I Premio Antón Abbadia”, *Deia* 1996-12-28, 51.
- Zurutuza, J. L., 1996, *Arantzazuko Egutegia*. [Iraganari, egoerari eta etorkizunari buruzko oharrak. Eskuizkribu argitaragabea. 4 orrialde].

HERRIETAKO EUSKARAREN BIZIBIDEEZ: SEGURAKO KASUA*

Hizkuntzak beren hiztunen ezpainetan bizi dira, gizarteko harremanetan; hortaz, historia sozial bat dute, mila modu ezberdinetan azaltzen zaiguna. Hizkuntzarik pobreena ere errealitate eta tresna aberatsa da, bere baitan (hiztegia, gramatika) ez ezik gizartean erakuts ditzakeen aurpegietan. Hizkuntza esan egiten da, aldarrikatu, abesti edo bertsoan kantatu edo idatzi eta inprimatu. Eta hiztunen hizkuntz erabilpenak libreak, arautuak nahiz debekatuak izan daitezke, eta biziera hori nolakoa izango den gizarteko botereek, usadioek eta ahalbideek baldintzatzen dute. Hizkuntzek, bada, beren gizarteko historia dute, eta horretaz jardungo dugu datozen orrialdeetan.

Tokian tokiko hizkuntzak eta hizkerak ere bere historia izaten du, eta herri-
tik herrira aldatu ere egin daiteke historia hori, batez ere euskarak bezala aldar-
te on eta txar asko eta oso kontrajarriak bizi behar izan dituenen. Hizkuntzaren
egoerari erantzunez herri bakoitzak egin ditzakeen ekarpen sozialak ere mota
ezberdinetan ageri zaizkigu belaunen jarraian, eta ondoko beste herrienen
artean.

Euskal Herriko herri guztiek dute horretaz zer konta, eta, honetan, batzue-
tako iragan soziolinguistikoak esanahi handia izan du tokian tokiko lehenare-
kin ez ezik Euskal Herri osoan euskaraz izan duen iraganarekin ere. Eta herri
batzuen ekarria nabariagoa izan da, besteena baino. Gogora besterik ez dago:
Donibane eta Sara Iparraldean, eskola literario bat eskaini zigun hango taldea
(Axular eta bere ingurua: 1617-1643); edo Hegoaldean, antzera, Loiolatik
egin zen lana (Larramendi eta bere lagunak: 1733-1767), edo Markina eta
Markinaldea Bizkaian, bizkaiera idatziari gorputz bat segurtatu ziotenak
(Mogeldarrak, Prai Bartolome: 1745-1845). Espero zitekeen bezala, euskal

* 2003, "Segurako eta segurarren euskararen aldeko jarrera eta lanak" in Intxausti, J. (ed.), *Segura historian zehar*, Segura: Udala, 541-583.

Literatura idatziaren ekoizpenean, Hiriburuak izan dira nagusi, baina ezin dira nolana izan baztertera utzi Tolosa edo Durango (idazle eta moldiztegiekin: XIX-XX. mendeak), eta bertsolaritza zenbait eskualde giputz zinezko harrobi izandakoak (Errenteria-Oiartzun-Astigarraga; Asteasu-Villabona)¹.

Zaila gertatuko litzateke Seguran maila bereko adibiderik aurkitzen, baina herriak izan ditu, hala ere, bere idazle eta euskaltzaleak, hizkuntzaz arduratuak eta, edozein eratan ere, herriko historian badago zer azaldu hizkuntzaren biziera sozialetik. Dauzkagunak biltzen saiatuko naiz hemen.

Herriko Erakundeek hizkuntz(ar)enean azaldu dituzten joera eta erabaki batzuk ekarriko dira lehenengo, gertakari batzuen inguruan ikus ditzakegun hizkuntz jarrerak begiratu dira gero, eta, azkenik, izan ditugun herriko seme idazle eta bertsolariak ez ditugu aipatu gabe lagako.

I. Euskara, Hiribilduko hizkuntza

Berriazko hizkuntz baldintza historiko eta sozialetan bizitzea egokitu zaie Segurako euskal hiztunei, eskaintzen zitzaizkien espazioak eta gizarteak (XIII. mendean) euskara testuinguru berri batera bultzatzen zutelako, baserri-aldeetatik hirira ekarriz. Horregatik, puntu batzuk bederen azpimarratzekoak dira hemen:

- Hiribildua sortu zenetik, inguru hiritarrean mintzatu izan da euskara, Segurako herrigune-barnean, baserrietatik hirira etorrira alegia, bertarako biztanleak etorri ziren bezala (Berant Erdi Aroan beste hainbat hiribildutan gertatu zenaren antzera).
- Segura errepide nagusiko Hiribildua zenez, eta San Andrianerako aldatzarekin mugante, atzerritar anitz ikusi zuen bere kaleetan herriak, merkatari, erromes eta bidaiarien artean; beraz, hizkuntza ugari ere bai elkarren ondoan, pasaeran noski, baina baita elkarren ondoan egonaldiaren bat edo beste eginez ere.
- Hori horrela, ez dirudi aurreko mendeetako herriko euskara sekula arrisku seriotan egon denik, eta pentsa daiteke, alderantziz, egoitza bertan har zezaketen atzerritar gutxiek euskara ikasi egingo zutela, XVIII. aurreko mendeetan.

¹ Begira bedi Villasante 1961 liburuan herri-izenen aurkibidea, bertan ageri da Historia horretan herri bakoitzak duen presentzia kuantitatiboaren azterna bat. Adierazgarria da gure honetarako ere.

- Horregatik, noizbehinka jaso ahal izan diren datu txikiek diotenez (eta herri-zerbitzuetarako hautagaien hizkuntz baldintzez ari naiz), Segurako mundu ofizialean euskara ere aintzakotzat hartu beharra sentitu izan da, une ezberdinetan.

Herriko zeregin ofizialetan bazegoen gaztelania zekienik; gogora Segurak berak baieztatu zuela inguruko alderrien kasik erabateko euskal elebakartasuna, eta datu horretatik argudiatu aipatutako alderri haiek Administrazioarako izan zezaketen ezgaitasuna... (I6I4)². Hala ere, hizkuntza arteko harremanek ez zuten higatu euskara Hiribilduan arriskuan jartzeraino, eta, antza denez, herriak ia osorik euskaldun elebakarra izaten jarraitu zuen, Erdi Aro eta Aro Modernoan, horretan inguruek ere laguntzen ziotela.

Industri Iraultza ere ez zen gurera bertora iritsi, eta herriko bizi-espazioek bere osasun euskaldunean biziraun zuten. Historia luze horren ondorioz Segura eta Oria Goiena Euskal Herri osoko herri-multzo euskaldunen artean aurkitzen dira gaur egun ere. Segurak 1996an biztanleetako %88,3 euskalduna zuen, erdaldun hutsa %7a zen bitartean.

Jakina denez, Euskal Herrian eta Seguran herritarren hizkuntz ohiturak eta ofizialtasunak (legez edo beste usadio batez ezarriak) ez dira bat etorri beti. Aitzitik, Udaletxeko, Elizako nahiz beste Erakundeetako paperak bederen gaztelaniaz idatzi izan dira. Leku ofizialetako hizkuntz erabilpen mintzatueta, ordea, gauzak ez dute izan zurruntasun bera, eta guztiok dakigunez, elizetan euskara eta latina izan dira nagusi, Udaletxean eta beste Erakundeetan mintzatzailen hizkuntz trebetasunak agintzen zuen bitartean. Horrek ez du esan nahi, noski, une *politikoagoetan* norberaren hizkuntz kontzientziak edo unean uneko *komenentziak* bestelakorik ere ezarri ez duenik.

Hemen ez dugu orain deus esango Elizaren eta Segurako elizetako hizkuntz politikari buruz. Aski ezaguna da bere orokorrean (latina + herri-hizkuntza), eta orain ez dugu modurik horretaz berezikiago jarduteko. Udaletxekoaz esango dugu, bada, zerbait.

² Truchuelo García 2003: 173 (GAO, XV/2/287/2).

2. Udaletxearen hizkuntz politika

Jakina da, Administrazio publiko idatzian euskarak zein leku txikia edo ezdeusa izan duen gure historian; tokian tokiko Administrazioan arau hori zerbait malguagoa izanik ere, gure Udaletan geure hizkuntzari ez zaio eman izan ofizialtasun idatzirik apenas, nahiz eta hizkuntza mintzatuan lekuko egoera eta bertako usadio linguistikoak nagusitu izan diren³.

Egoera ofizial finkatu horren barruan, edo berorren aurka, posible zen, noski, unean uneko inguruabarrek nahiz tokiko egoerak ere jokaera berriak urratzera bultzatzea.

Horrela, teorian, Udaletxearen esku egon zitekeen herriko zerbitzuetako lanpostu ordainduetarako hizkuntz gaitasuna zehaztea. Herritar euskaldunen (eta, oro har, euskaldun elebkarren) gobernuaz ari garenez, hautapen- edo izendapen-boterredunak galde zezakeen ea herritarrentzako zerbitzu batean ez ote zen komenigarri hizkuntz gaitasunen bat hautagaiari eskatzea, Estatutua indarrean dagoenetik eskatu izan den gisara, gutxienez, nahiz eta badakigun aurreko historian testuingurua bestelakoa izan zela.

Zeintzuk izan zitezkeen, ordea, Udalak ordaindutako zerbitzuetan euskara komenigarri, edo beharreko, zuten lanpostuak? Bistan da berez pertsona arteko komunikazioan eta harremanean oinarriturik zeuden zerbitzuak zirela horiek batez ere, eta askoz gutxiago harreman pertsonalaren hori eskasago edo deus eskatzen ez zuten lanpostuetan.

Komunikazio-beharra nabaria zen zeregin jakin batzuetan: Udal Idazkaritzan, Medikuntzan (medikua, zirujaua, botikaria, osasun-laguntzailerak), Irakaskuntzan (dotrina-eskoletako katekista-irakasleen jardunean), Albaitaritzan (kale eta baserrietarako zerbitzuetan), eta zerbitzu apalagoetan (*merinoak*, ikuskariak, etab.). Eta Notariotzan nork hartuko zituen erabakiak?

Eremu horietan guztietan udal politika zein izan zen jakitea, eremu bakoitzean eta mendeetan zehar gainera, zeregin zaila da, ikerlan sistematikorik ez dugulako; baina han-hemen aurkitutako lehen albisteak —aleka bilduak, eta eremu guztietakoak ez direnak— hona ekartzea ez da lekuz kanpo gertatuko.

³ Ikus hizkuntzaren udal historiaz lehen albisteak: Euskaltzaindia 1978: 354-361. Eta bi adibide historiko: Yturbide 1908 eta Mugica 1908.

2.1. Medikuak hautatzean

Mediku eta maisuekin inoiz edo bestetan hizkuntzaren hau gogoan izan zela badakigu –baldintza bezala kontuan hartu, ordea, gutxiagotan–; hemen, oraingoz, bi eremu horietara mugatuko gara. Oro har esan daiteke, agintariak lehiaketarako eta geroko lanerako hizkuntzaren gaitasun-baldintza ezartzean baino lehiakideek mintzatzaile gisa zuten usadio edo prestakuntza adieraztean azaltzen da euskararen aipua. Lanpostua irabazi nahi duenak, euskararik dakienan –kasu batzuetan, ez beti–, euskaltasuna ere baduela esango du, gainerako bere gaitasunen ondoan.

Batzuetan, norberaren aurkezpenean aipatutako hizkuntzaren hori, gero Udaleko txosten tekniko edo eztabaida politikora pasa zitekeen. Honela, 1800eko lehiaketan, hautagaien aurkezpena egin eta bakoitzarekikoak balioestean, Alkatearen ordeaz ari zen Alkate-ordeak eta Rezusta zinegotziak bi hautagaiekiko azalpenak honela eman zituzten⁴:

Expuso el Señor Teniente Alcalde que en uso de la Comisión dada por esta N. V. a su merced y al Sr. D. Manuel Francisco de Rezusta, para los informes a pretendientes de Médico para la Plaza de esta villa, y escribió los informes de los que en primera lectura resulta, Don Manuel José de Olalde, actual Médico de Lumbreras, y descendiente de esta Villa, y por ello en justicia le corresponde la Plaza que está Bacante, *puesto que sabe el Idioma Bazcongado*; Y en siguiente el Sr. Dn. Manuel Francisco de Rezusta expuso que respecto a que en los informes resulta también por suficiente a Don Manuel de Cincunegui descendiente de esta villa, *y ser evidente su instrucción en la Lengua Bascongada, tan necesaria en este País, y a su parecer más que el Sr. de Olalde*, por lo mismo da su voto en favor del expresado Cincunegui. [Azpimarra gurea].

Lehiaketa honetan bi hautagaiek darabilte beren euskaltasunaren hau, norberaren hautagaitasuna indartzeko; bereziki Zinkunegiren kasuan ematen diren bi arrazoiak interesatzen zaizkigu: Herri honetan euskara beharrezkoa dela dio Rezusta zinegotzi aurkezleak, eta Zinkunegik euskara beste hautagaiak baino hobeki menderatzen duela (“[...] ser evidente su instrucción en la Lengua Bascongada [...] a su parecer más que el Sr. Olalde [...]). Beste lehiakideak,

⁴ SUA (Segurako Udal Artxiboa): A Sek., I. Neg., 13, 6. Esp., 365-365v (1800-10-20).

ordea, uste daitekeenez apalkiago izan arren, hizkuntzaren jabetasuna baduela frogatu nahi du. Bestalde, badirudi euskararen premia ez dela zalantzan jartzen. Bukatzeko, esan behar da 1800.ean euskara Udaleko gehiengoaren eskuetan babestuta ageri zaigula, eta irabazle atera zela momentuz.

Hogeita hamar urte geroago, mediku hautagai batek, Simon Sorondo jaunak (Tolosako auzotarra eta mediku gaztea bera), ondoko aurkezpena egin zuen bere buruaz, oso laburki baina hizkuntzarena ere aipatuz⁵:

El Licenciado Don Simón de Sorondo, profesor de Medicina, y vecino de la Villa de Tolosa, tengo el honor de acercarme respetuosamente a V.S. y ofrecerle mis servicios siempre que me contemple adornado de las cualidades y circunstancias convenientes para su Médico Titular cuya Plaza trata de proveer, según lo ha comunicado por públicos edictos.

La edad de 27 años en que me hallo; la soltería de mi estado; y *el poseer el idioma vasciüence como natural del país* son los primeros méritos que presento como recomendables a la consideración de V.S.

Concluidos los estudios preliminares. [Azpimarra gurea].

Euskara, hortaz, espresuki esanda dagoen bezala, *meritua* da S. Sorondorentzat Medikuntza-ikasketekin batera, eta Udalak gogoan izango duela espero du hautagaiak.

Handik bi urtera (1832), hizkuntzaren honetan eztabaida eta guzti sortu zen Udaletxean, arazoaz ez baitziren bat etorri zinegotziak, ez gainera behin, urte berean birritan aukeratu behar izan baitzen mediku berri bat, eta bietan piztu zen polemika. Hautagai bi zeuden, bat euskalduna, uste dugu (Juan Jose Atorrasagasti), eta bestea, erdaldun elebakarra (Balthasar Torres). Iritzi kontrajarriak agertzeko parada eman zuen horrek zinegotzien artean, baina, iritzia iritzi, “por la mayoría resultó electo de Médico del partido de esta D. Balthasar Torres”. Hautapena egin eta berehala Amankomuneko Diputatuek hartu zuten hitza, beren desadostasuna azaltzeko⁶:

Los Diputados del Común, dijeron, que respecto a que *la mayor parte de la gente no entiende de la lengua Castellana, es preciso que el Médico que haya de*

⁵ SUA: A. Sek., I. Neg., 16. Lib., 2. Esp., 248v.

⁶ SUA: A. Sek., I. Neg., 16. Lib., 4. Esp., 57-57v (1832-04-18).

nombrarse posea la lengua Bascongada, pues en lo demás es imposible que el vecindario a quien representan se halle bien asistido, y que protestan a nombre de él el nombramiento que la mayoría del Ayuntamiento ha hecho en Don Balthasar Torres, por hallarse enterados de que éste no posee suficientemente el idioma Bascongado, y que pedían se les provea del competente testimonio de esta acta.

Aunque los Diputados del Común suponen que la mayor parte de los habitantes de esta villa no entienden el castellano los Sres. Capitulares y vecinos concejantes que han dado el voto a Torres no están en esa inteligencia antes al contrario *crén que el mayor número de sus habitantes entienden el Castellano aunque no lo hablen, por que ha sido, y es común en esta villa la asistencia de la juventud de ambos sexos a la Escuela*: Están también persuadidos por informes y por el tiempo que ha servido el partido de Lazcano *el expresado Torres que posé el caudal necesario de voces Bascongadas para entender y darse a entender a los dolientes*; en esta atención, y en la del contenido de los informes que le distinguen de los demás pretendientes, ratifican apesar de la protesta el nombramiento hecho a favor de D. Balthasar Torres, y que este nombramiento se haga saber al enunciado Torres ya que a la mayor brevedad se presente en esta villa, a ejercer dicha plaza otorgando la competente [¿licencia?], por lo que se da la Comisión al Ayuntamiento particular.

En seguida acordaron, que a los Diputados del Común se les provea del testimonio que solicitan.

Asi mismo acordaron sus mercedes, que mediante la reserva que encargan algunos a los Sres. Médicos consultados, los informes originales cerrados, y sellados en un pliego entero se archiben. [Azpimarradura].

Ikusten da, bi aldeek ematen diguten egoera soziolinguistikoa ez dela berdina: gehiengoak Eskolaren erdalduntze-lana azpimarratzen du eta gatzelania ulertzeko horrek ekarri duen gaitasuna (berori mintzatzeko ohiturarik zinez sortu gabe, nonbait), eta oposizioa askoz ezkorragoa da analisi horretan, eta herritarrek oro har duten ezin ulertua azpimarratzen diote gehiengoari. Eta hain garbi zegoen hori, nonbait, ezen erabakiari aurre egiteko agiriak eskatzen dizkiote Udalari: ez daude ados izendapenarekin, eta —gaurko hizkeran esango genukeen bezala— auzotarren hizkuntz eskubidearen alde jokatu nahi dute (“[...] en lo demás es imposible que el vecindario a quien representan se halle bien asistido”).

Egia esan, Torresek, azkenik, ez zuen bere lanpostu horren alde borroka handirik egin. Berehala, Donostiatik etorri zitzaion hirian lan egiteko eskaintza, eta dimisioa aurkeztu zion Segurako Udalari. Ondorioz hurrengo Medikua aukeratu behar izan zenean (kasu honetan, Migel Cigarán), 1832ko apiril beraren 28an, herri-elkargoko Diputatu Gorrotxategik berriro ere arazoan zeukaten jarrera nabarmendu zuen⁷:

El Diputado del Común Don José Manuel Gorrochategui dijo que se ratifica en la protesta que hizo en Ayuntamiento general celebrado el día diez y ocho del mes de Abril pasado.

Edozein politika egin nahi zela ere, balioespen eta jarrera kontrajarriok argi uzten zuten, hizkuntzaren politika ohartuak bere lekua behar zuela Udaletxeko erabakietan. Hala ere, urte dezente pasatu beharko dute, zinezko hizkuntz politika baten lehen pauso formalak ematen hasteko.

Hamarkada batzuk pasa dira, azken Gerrate Karlistaren eskarmentu gogorra ere bai, Eusko Pizkundearen garaiak dira, eta Seguran geroago aipatuko dugun 1910-1911ko Euskal Jaien eztabaida politikoa iragana zen: zein da, azken buruan, Udaletxean euskarari eman nahiko zaion lekua, zeren beste herrietan ari dira urak mugitzen. Berriz ere herriko medikua aukeratu behar da, eta oraingoan hizkuntzaren honi aurrez aurre helduko zaio. Hona zer zioen 1914ko abenduaren 27ko Aktak⁸:

Por último, dando cumplimiento a lo acordado en su sesión última por la junta municipal, acordó el Ayuntamiento proveer por concurso una de las plazas médicas titulares de esta villa y de la de Cerain, que se halla vacante por renuncia del que la desempeñaba, y para tal efecto, publicar en el Boletín oficial un anuncio del tenor siguiente:

«Se halla vacante una de las dos plazas de Médicos titulares que sirven el partido compuesto por las villas de Cerain y ésta, cuyo cargo se anuncia con el haber anual de tres mil pesetas, pagaderas por trimestres vencidos. = Los aspirantes, *que deberán poseer el idioma vascongado*, presentarán sus solicitudes al Sr. Alcalde (BOG: «en esta Alcaldía»), dentro del plazo de treinta días...». [Azpimarra gurea].

⁷ SUA: A. Sek., I. Neg., 16. Lib., 4. Esp., 59 (1832-04-28).

⁸ SUA: A. Sek., I. Neg., 16. Lib., 18. Esp., 251-251v (1914-12-27).

Aipatutako iragarkiak, beraz, euskararen gaitasuna premiazko baldintzen artean sartu zuen, herrian horrela adieraziz ez ezik Probintziako Buletin ofizialetik ere deia baldintza hori barne zela eginez. Oraingoan, euskara ez zen, itxuraz, gogoan izateko balioa bakarrik, hautagaiak ekarri beharko zuen nahi-taetzko gaitasuna baizik⁹.

Eusko Pizkundeko ekimen kulturelek eta mugimendu abertzaleak hizkuntzarekiko ideia eta eske politikoak molde berri batez plazaratu zituzten. 1918-ko bihurgunera iristen ari gara, eta Segura ere garaiko Gipuzkoan eta Euskal Herrian dago, nahiz eta abertzaleen herriko presentzia artean eskasa den. Seguran, dagoeneko, ofizialki mediku euskaldunak nahi dituzte.

2.2. Maisuak hautatzean

Segurako irakaskuntzan hizkuntzen trataera zein izan zen jakiteko premiazko azterlanak falta zaizkigu oraindik; hala ere, XVIII. mendeko albisteen bat badut eskueran, P. J. Aranbururi esker eta hemen jasota utzi nahi dut¹⁰.

1754an Udalak bederatzi urterako hitzarmena sinatu zuen Bizente Zarazuarekin, herriko Eskolaren kargu egin zedin eta zeregin horretan bete beharko ziren baldintzak argituz. Hauen artean, euskararekikoak ere ageri dira, eta orduko euskaltzaleek salatutako jokaerak Seguran ere indarrean zeudela jakiteko balio digu behintzat. Baldintza haietako batek hau dio:

Item, que durante dichos nueve años haia de enseñar a los hijos de esta villa a leer, escribir y contar con toda aplicazion y cuidado y con el mismo la *Doctrina christiana en bazcuence y castellano* con sus preguntas y respuestas. [...]

Item, [Eskolan] *que los muchachos hablen en romance y si alguien hablare en bascuence se le ponga su pena y [...?] a su discreción.* [Azpimarra gurea].

Bizpahiru datu azpimarra daitezke testu hauetan:

- Euskara ez dago Eskolatik guztiz kanpoan, Dotrina emateko erabiltzen baita.

⁹ *Boletín Oficial de Guipúzcoa* LXXXIII, 1915, N° 2, 4 de enero de 1915.

¹⁰ Gipuzkoako Protokolo-Artxiboa (Oñati): 2, 2-2702. sorta (Zúñiga Segurako Notarioa), 134-136.

- Haurrak euskaldunak dira (elebakarrak, noski), eta zaila gertatzen da Eskolako gainerako elkar-bizitzan ama-hizkuntza isilaraztea.
- Gainerakoan (Dotrinatik kanpo), Eskolako jarduera arruntetik euskara erabat kendu nahi delako, zigortu egingo da euskaraz ari den haurra.
- Zigorraren neurri (anti)pedagogiko hori, onartu ez ezik lan-baldintza bezala ezartzen dio Udalak maisuari.

Gorabide sozialerako premiazkoa den hizkuntza (gaztelania) haurrei pasa beharra sentitzen du Udalak, eta segur aski garaiko giro politiko orokorragatik ere (Despotismo Argiztatuaren eta borboitarren hizkuntz politikaren barruan gaude) ontzat ematen du Eskolako hizkuntza posibleen hierarkia hori: beraz, euskararen minorizazio-prozesua Eskolan behintzat hasita dago (modu batera edo bestera, lehenagotik zetorrena).

Jokabide hau, azterketa zabalago baten barnean behar bezala lekutzeko argibide hoberik dugunean balioetsi ahal izango da gure Herri-Erakundeen hizkuntz politika hau, urte-inguru haietan eta geroxeago zenbait elizgizonek (Larramendi, Kardaberaz: 1761) eta Euskal Herriaren Adiskideek ere salatua (1772). Orduan ere ez zuten denek berdin pentsatzen, eta Adiskideetako batzuek eskatu ere egin zuten euskarari Eskolan leku ematea. Hala ere, XIX-XX. mendei itxaron beharko zitzaizkien proposamen argiagoak ager zitezkeen.

2.3. Euskararekiko jarrera politikoak (... -1910)

XIX. mende karlistako gizon-emakumeak artean indar betean zeuden XX.aren lehen hamarkadetan, baita kulturaren ere¹¹. Gerra eta Foruak galtzean (1875-1876), dakigunez, euskal gizarteak —eta karlismoak ere— kultur munduari heldu zion Euskal Herriaren tresna salbagarri izango zelakoan. Euskara ere hor, tartean, egon zen eta hizkuntzari eta euskal literaturari zegokion lana ere bai. Euskaltzaletasun karlista ezaguna da historialarientzat¹². Berariazko testuinguru horretan, bada, Segurako karlistek, hala erabakiz gero, ez zeukaten beren alderdia utzi beharrik euskaltzale ere izateko, eta hainbatentzat, gainera,

¹¹ Ikus López Antón 2000.

¹² Intxausti 1990: 115. Garmendia 1984: 425-431. Ariztimuño 1988, V: 201-205. López Antón 2000: 92-94.

lagundu beharreko eginkizuna zen euskararena, aurreko hamarkadetan bizi izandakoaren arabera¹³.

Garaiko karlista segurarren hizkuntz jarrera ez dugu oraindik aztertu ahal izan (bereziki Zurbanotarrak daude tartean, Esteban noski, baina baita Luis haren semea ere). Artxiobotan ez bada, garaiko prentsan honen aztarnarik utzi ote zuten jakitea egokia izango litzateke.

Bestalde, Segurara hurbildu edo bertan egon zitezkeen lehen abertzaleek, dena euskararen alde zuten, berriz: alderdi berriko pentsamendua¹⁴ eta herrian bertako euskara eta agian baita garaiko euskaltzaletasuna ere. Nork hartuko zuen, ordea, aurrea Segurako euskaltzaletasuna sustatu eta gidatzen?

Hurrengo gertaeren azalpenera pasatu aurretik, gutxienez aipatuta utzi nahi genuen bi tradizio politiko horien jarreraren garrantzia.

3. Eusko Pizkundeko bide berrietan

1876-1936ak –hirurogei urte– Eusko Pizkundearenak izan ziren, euskarari ere leku emanez Euskal Herriaz pentsamendu-, politika-, ekonomia- eta kultura-berrikuntza ekarri zutenak: egoera politiko-instituzional bati baliabide berriekin erantzuten ahalegindutako bi belaunen lana izan zen hori. Erakunde eta herri bakoitzak izan zezakeen hor zegokion lekua, eta Udalek eta tokian tokiko herritarrek ere bai. Testuinguru horretan, Segurako Udal eta herriari itxaro ez zuten *test* bat irten zitzaizen bidera, 1910ean.

3.1. 1910eko estropezua eta aurrerapausoa

Egia esan, badirudi –horiek dira behintzat zantzuak– kanpotik etorri zirela herrira hizkuntz politika eta kulturgintza berrietarako iradokizunak. Horretarako egokiera seinatu bat tartekatzen zen Segurako udal bizitzan:

¹³ Iztueta 1991: 232-238. Seguran badago datu bat: XX. mendeko lehen bi hamarkadetan Luis Zubiaga (†1931) zen herriko Notarioa, gero Bizkaiko Zornotzara joan zena eta beheago ikusiko dugun M. M. Zubiaga jesulagun idazlearen aita. Luis Zubiaga euskaltzale suharra zen, bere seme Gabrielelek esaten didanez. Luis Zubiaga Bizkaian Jaurerriko Batzorde karlistako lehendakaria ere izan zen gerraurre hartan.

¹⁴ Abertzaleetasunaren izaera-funtsa hizkuntzaren gain (bakarrik) eraiki ez arren, S. Arana beti agertu zen guztiz euskaltzale, eta horrelako bezala jokatu zuen bere bizitza pertsonalean euskara ikasi eta landuz, eta berau ere balio abertzale bezala juzgatuz. Ikus Atxaga 1996.

“Euskal Jaiak” deituena (*Fiestas Eúskaras*). Urte batzuk baziren hizkuntzaren aldeko jaiok urtero ospatzen zirela, betiere lehiaketa, sari, elizkizun eta jolas-joko herritarrekin, euskal kultur munduan zebiltzanei dei eginda, eta lehiaketen artean idazlanak, musika edo azienda- eta nekazari sariketak jarrita.

Urtero, Probintziako herri jakina aukeratu ohi zen Aldundiak sustatu eta babestutako Jaia antola zezan, Aldundiko batzordearekin gauzak adostuz¹⁵. Lehendik zetozen jaietara segida emanez, XX. mendeko lehen hamarkadan horrela egin zen urtez urte ondoko herrietan: Zumaia (1900), Azpeitia (1901), Oñati (1902), Irun (1903), Ordizia (1904), Donostia (1906), Elgoibar (1907), Eibar (1908), Hernani (1909), Azkoitia (1910). Aldez aurretik ikusitako egitarauaren arabera, 1911 In Segurari zegokion Euskal Jaiak antolatzea. Ohore bat zen hori herriarentzat, baina Udaletxeak eta herri osoak parte hartu gabe ezingo zen antolakuntza aurrera atera. Horra, bada: Udalak ere erabaki behar zuen zerbait, Eusko Pizkundeko haize berriekin joan nahi baldin bazuen.

3.1.1. *Lehen Udal Bilera: ezezkoa*

Aldez aurretik hartu beharreko erabakiak hartu eta egin beharreko lanak garaiz bideratzeko, Segurako Udalak 1910eko abuztuaren 5ean Bilera Berezi monografiko bat egin zuen, Euskal Jaiekikoa aztertuz. Alkatea Domingo Bereziartua zen, beronek eta zazpi zinegotziek hartu zuten parte, Idazkariarekin batera (Joan Bta. Aierbe idazlea zen urte haietan idazkari)¹⁶. Alkateak zera eman zuen aditzera:

El Sr. Alcalde explicó a continuación el objeto porque se reunía la Corporación municipal, que era de tratar y resolver lo conveniente acerca de las Fiestas eúskaras que, siguiendo el turno establecido, corresponden celebrar en esta villa el año próximo.

Hartu berriak ziren bi gutunetan Jaietarako Aldundiko Batzordeak Udalak lankidetzarako izan zezakeen jarrerari buruz galdetzen zuen, premiazko deliberramenduak garaiz har zitezen¹⁷. Hasteko, berorien berri eman zuen Alkateak

¹⁵ Urte haietan Gipuzkoako Aldundiak gidatu zuen kultur politikaren lekuaz, ikus Iztueta 1991: 285.

¹⁶ SUA: *Actas. 1906-1914*. 1910-08-05eko data: I41v-I42v. Zinegotziak hauek ziren: Migel Elozegi, Pedro Peciña, Eulogio Mujika, Pio Imaz, Luis Zurbano, Serafin Aldasoro eta Teodoro Agirre.

¹⁷ SUAn gordeta daude bi gutunok: B Sek., 3 eta 4 Neg., I. Lib., 4. Esp.: “Expediente sobre las Fiestas Eúskaras que se celebraron en 1911 en la Villa de Segura”.

Bileran, gehituz aztergaia Osoko Bilerara ekarri aurretik, Aldundiari zenbait xehetasun eskatu zizkiola, batez ere Jaien erantzukizun ekonomikoak nola banatu ohi ziren jakiteko, eta Aldundiaren erantzuna hau izan zela¹⁸:

En contestación a su comunicación del 26 del corriente, esta Comisión provincial ha acordado significarle que la Diputación costea los gastos que originan los Certámenes agrícolas a excepción del arriendo del terreno en que se efectúe el Concurso, y que asimismo se satisfacen de fondos provinciales los gastos de las funciones religiosas y de los Certámenes del Consistorio de los Juegos Florales, corriendo a cargo de los Ayuntamientos los que nacen de los festejos o números que voluntariamente agregan al programa de la Diputación y Consistorio más el indicado del terreno que debe tener una extensión de unos 500 metros cuadrados y el alquiler del local en que debe guardarse el material de la Diputación durante el año.

Hortaz, abereen lehiaketarako orubea eta urtebeterako biltegia ziren Udalak ordaindu beharrekoak, gainerako gastuak Probintzietatik ordainduko ziren, nolatan herriak berak aparteko ospakizunak berak jarri eta ordain behar ez zituen. Hau zen Alkatearen buruhaustea; hortik hasita, espero zitekeenaren kontrako bidea hartu zuen egitekoak, dena Udalaren egoera ekonomikoa oso kritikoa omen zelako (urtero 1.200 pezetako defizita, zerga-bilketaren jaitsiera, gastuen igoera)¹⁹:

[...] no procede aventurarse en gastos de la importancia que suponen los inherentes a las Fiestas de esta naturaleza. [...]. [El Municipio] tiene harto trabajo en sobrellevar las cargas de los gastos ordinarios del presupuesto.

Itxura guztiz, Bereziartua Alkatea guztiz benetan ari zen hori esatean, gogoratzuz kredituetara jotzerik ez zegoela (berrikitan jasotako ezezkoren batek erakutsi zuenez), eta zergapekoak ere jada zuten zamari ezin erantzunik zebiltzala, eta, azkenik, ez Udaletxe egokirik zegoela, ez bestelako leku egokirik eskatzen zenari aurre egiteko. Arazoa aurrera atera ahal izateko 5.000 pezetako gastuak aurreikusten zituen Alkateak.

¹⁸ SUA: *Actas. 1906-1914*. 1910-08-05eko data: 142.

¹⁹ SUA: *Actas. 1906-1914*. 1910-08-05eko data: 142.

Izan zuen Bileran Bereziartua Alkatearen proposamenak bere oposiziorik; Imaz eta Peciña Euskal Jaiak herrian ospatzearen aldeko agertu ziren, eta modu aski irmoz esan zuten beren iritzia. Aierbe Idazkariak honela laburtzen du hauen jarrera²⁰:

Los concejales señores Imaz y Peciña hicieron presente que juzgaban conveniente a los intereses del pueblo la celebración de las Fiestas Eúskaras; que el renunciar a dichas fiestas equivaldría a una excepción poco honrosa para el pueblo, entendiendo que la opinión de la mayoría del vecindario era favorable a dicha celebración y que bien merecía el hecho imponerse un sacrificio para evitar un bochorno, procurando para aquel efecto el arriendo de una heredad a falta de una plaza, al igual que lo hecho por la villa de Hernani por idéntico motivo, e intentando la contratación de un empréstito al objeto expresado.

Luis Zurbanok erantzun zion oposizio honi, esanez *bochorno* delakoa handiagoa izango zela 5.000 pezeta ordaindu eta azkenean behar zen duintasunez jaiak eraman ahal ez izatea “y que preciso era reconocer que la importancia de este pueblo no podía equipararse con la que revisten otros donde tienen lugar dichas fiestas”. (Gorago esan dugu zein herritan ospatu ziren Euskal Jaiak aurreko hamar urteetan). Gainerako zinegotziak Alkate eta Zurbanorekin bat etorri ziren, arrazoi berri bat gehituz:

[...] tenían noticias de pueblos en que hasta el presente se han celebrado tales fiestas de descontentos nacidos de haber gastado más que lo calculado al principio, precedente que debía servirnos de lección en el presente caso.

Alkatearen eta beste zinegotzien iritzi bakarraren aurrean, Imaz eta Peciña bakarrik geratu ziren, lehenengo *round* honetan (sei boto biren aurka). Eta Udalaren erabakia ondoko hau izan zen²¹:

Hacer presente a la Excma. Diputación, que, a pesar del vivo deseo de este Ayuntamiento de coadyuvar al pensamiento de aquella superio-

²⁰ SUA: *Actas. 1906-1914*. 1910-08-05eko data: I42v.

²¹ SUA: *Actas. 1906-1914*. 1910-08-05eko data: I42v.

ridad de celebrar fiestas que sin duda ejercen un beneficioso influjo en el país, la carencia de suficientes recursos para llevarlas a cabo, le colocan a este Municipio en el sensible caso de tener que renunciar de su parte al derecho de celebración de las Fiestas Eúskaras.

Aldundian zebilen Gregorio Mujika batek edo etxean bertako Idazkari J. B. Aierbek erabakia nola sentitu zuten asma daiteke, batez ere gogoan izanik orduantxe ari zela Mujika ormaiztegiarra indar betean bere *Euskal-Esnalea* eratu eta sustatzen, eta erantzuna, segur aski, ezohikoa zela Euskal Jaien historian²².

3.1.2. *Herritarren ezusteko jarrera*

Aldunditik ziurki ez zuten erabakia begi onez ikusi; baina Segurako herritarrek ere marmarra eta haserrea erakutsi zuten, ondoko hiru asteetan, Udaletzeko arduradunak eta Alkatea bera erremintzeraino. Horregatik, Aktetan ikus daitekeenez, abuztuaren 26an beste Bileran Berezi batera deitu zuen Korporazioa Alkateak. Batzarraren arrazoiak argituz hasi zen berau²³:

Dice que ante el clamoreo producido en el vecindario por el acuerdo adoptado últimamente renunciando a las fiestas eúskaras, el buen nombre de la Corporación se halla en entredicho y que preciso se hace velar por sus prestigios hollados de un modo tan indigno como innoble.

Herritarrak ez ezik Alkatea ere haserre zegoen, beraz..., alderantzizko arrazoiak bazituzten ere. Aurreko Bileran ezezkoaren alde erabilitako arrazoiak baliozkotzat eman zituen berriz ere, eta berretsi egin zituen, eta zenbait herritarren jokabidea –itsusia omen zena– salatu: “parte del vecindario, impulsada por móviles hijos de la pasión o el interés” jokatu zuela aditzera emanaz. Ez zegoen giroa, bada, txantxetarako! Zer zen, ordea, herrian gertatua? Hona²⁴:

Añade que se han recogido firmas con el ánimo de presentar a la mayoría del vecindario divorciada de la mayoría del Ayuntamiento, dándose un espectáculo nada edificante llevando una discusión local a

²² Ikus Villasante 1961: 333-334.

²³ SUA: *Actas. 1906-1914*. 1910-08-26ko data: 144.

²⁴ SUA: *Actas. 1906-1914*. 1910-08-26ko data: 144.

la prensa cuando bien podía resolverse en familia armoniosamente y para ello se ha apelado a la mentira alegando que el acuerdo del Ayuntamiento obedece a un capricho.

Udal politika ofizialaren izen ona gordetzeak kezkatzen zuen Alkatea, eta, horregatik, herrian esandakoen arrazoigabekeria eta herrian bertako arazo bat kanpoko Prentsara desegokiro eramana salatu zituen. Euskal Jaien prestakuntzari ekitekotan, herritarren bizkar joan beharko zuten zergen kontura egingo zenez, herritarren iritzia eskatzea proposatu zuen (hau da, modu batera edo bestera lehendik abian zegoen herritarren iritzi ematea ofizialki egitea)²⁵:

[El Alcalde] propone a la Corporación se abra un plebiscito entre los vecinos contribuyentes del pueblo a quienes directamente afecta la celebración o la no celebración de las fiestas, con el doble motivo: 1º de hacer así presente al vecindario las razones en que el Ayuntamiento se ha apoyado para renunciar a la celebración de las fiestas, y 2º de conocer por ese medio la opinión predominante del vecindario seguro, en la inteligencia de que de ser contraria la misma a la sustentada por la mayoría de la Corporación, se retire el acuerdo adoptado y se comunique así a la Diputación.

Luis Zurbanok ere bere jarrera espresuki argitu nahi izan zuen herritarren aitzinean, gertatutakoen aurrean bere kritika eginez eta betiere Alkateari lagunduz:

[...] dice que protesta enérgicamente de la campaña de difamación llevada a cabo en este pueblo por palabra y por escrito con la agravante de publicidad contra la mayoría del Ayuntamiento sin pararse ante la consideración del respeto que siempre deben merecer las opiniones ajenas e interesa que consten las dos manifestaciones siguientes: 1ª que al acudir el Ayuntamiento a la votación propuesta de los contribuyentes directos, lo hace no por creer que a ello le obliga ninguna razón legal, sino como un paso que da y una determinación que adopta libérrimamente, tan voluntaria como espontáneamente, y 2ª que se dé cuenta a la

²⁵ SUA: *Actas. 1906-1914*. 1910-08-26ko data: 144v.

Excma. Diputación de las razones en que el Ayuntamiento se funda para apelar a ese medio y obrar como lo hace.

Formalki, beraz, udal gehiengoak arrazoi ekonomikoengatik hartu zuen ezezko erabaki hura, eta arrasto berean segituz, Udalean erantzukizun ekonomikoa duten zergapeko zuzenen borondatea ezagutu nahi du. Udal gehiengo, bada, ez zegoen oposizioaren *trikimailuen* menpe geratzeko prest.

Imaz eta Peciña zinegotziek ere esan zuten berena, labur. Herriko esamesak betiere ezin ekidinak zirela, eta arazoaz bere iritzia emanda zeukanez, bera plebisituaren aurkakoa zela esan zuen Imazek. Peciñak, berriz, beste era batera nabartu zuen bere pentsamendua: lehendik jada herri-kontsultaren alde agertua zela, eta hartutako ezezkoaren inguruan egindako jendarteko iruzkinak ez zutela beste gabe lotsa faltarik adierazten, gaia herritarren interesekoa izanik.

3.1.3. *Herritar zergapeko zuzenen bozketa*

Aldundiak hurrengo astelehenean Segurako Jai hauen arazoa aztertu behar zuenez, eta Udaletxeak aurretik bere azken erabakia aurkeztu (plebisitua egin ondoren, noski), ez zegoen denbora galtzerik. Alkatearen proposamenari jarraiki eta Imaz jaunaren iritzia kontra, ondoko hau deliberatu zen:

- 1º. Convocar a todos los vecinos contribuyentes del pueblo que directamente responden de las cargas del mismo al escrutinio que tendrá lugar en la Sala Capitular los días de mañana y pasado mañana, al objeto de dar cuenta de la actitud del Ayuntamiento y conocer por votación la opinión del vecindario, a fin de obrar en consecuencia, revocando si preciso fuere acuerdos adoptados.
- 2º. Nombrar como vocales de mesa de escrutinio para la votación, que habrá de ser secreta, a los señores Alcalde, Elósegui y Peciña, y
- 3º. Designar la tarde del domingo próximo, después de los Oficios divinos de la tarde, para la sesión que ha de celebrar el Ayuntamiento con objeto de conocer el resultado del escrutinio, y adoptar, en su vista y consecuencia, los acuerdos oportunos que procedan.

Honela, bada, Segurako herriaren parte bat Euskal Herrian dagoeneko ohikoak ziren *Euskal Jaiak* onartzeko nahiz baztertzeko iritzi politikoa ematera deituta aurkitu zen, horretarako bere isilpeko boto librea erabiliz.

Esan bezala egin zen plebisitua, eta baita Udala bildu ere, berorren emai-

tzak ezagutu eta beharrezko erabakia hartzeko. Imaz eta T. Agirre izan ezik, Korporazioko guztiak bildu ziren horretarako, abuztuaren 28ko arratsaldean²⁶. “Herriko gehiengoaren sentierarekin bat eginik ekiteko” (Alkatearen hitzak) egindako bozketak ondoko emaitzak eman zituela adierazi zuen Bereziartua Alkateak²⁷:

EUSKAL JAIK SEGURAN
OSPATZEAREN INGURUKO BOZKETA-EMAITZAK (1910)

“Número de electores contribuyentes directos de la lista de la contribución fogueral del actual ejercicio” –191–
“Número de los que han tomado parte en el escrutinio como votantes varones” –129–
“Votaron <i>sí</i> , a favor de la celebración de Fiestas” –108–
“Id. <i>no</i> , en contra de las mismas” –21–

Ez zuen, bada, herri osoak boza eman, zergapeko zuzenak bakarrik izan ziren deituak, eta eman zezaketenetako %67,5k parte hartu zuen bozketan. Boza eman zutenetako %83,7 Euskal Jaiak ospatzearen alde agertu zen, eta %16,3 kontra. Pentsa daiteke –uste dugu– boto kritiko honetan zergapeko boto-e-maileek herriko iritzi zabalago bati arrazoia eman ez ere jokatu zutela, honela. Hortaz, Udaleko gehiengoak porrot egin zuen osorik, eta nabarmenago geratu zen beraren aurreko ezezkoa.

Emaitzari eta emandako hitzari jarraituz, Udalak ondoko erabakiok hartu zituen, Udalaren sostengu fiskala zirenen ahotsari jaramon eginez:

²⁶ SUA: *Actas. 1906-1914*. 1910-08-26ko data: 145.

²⁷ SUA: *Actas. 1906-1914*. 1910-08-26ko data: 145v.

- Aurreko ezezko erabakia atzera botatzea.
- Euskal Jaiak antolatzen ahal zena egiteko Udala prest zegoela adieraztea Aldundiari, bide batez zituen muga ekonomikoak ere ezagutzera emanaz.
- Euskal Jaien prestakuntzarako Udal Batzorde ofizialak sortzea: bat, berehala Azkoitira joango zena 1910eko Jaiak nola antolatu eta ospatu ziren begiratzeko (Alkatea, Peciña, Mujika eta Idazkaria); bigarrena, obretarakoa (Alkatea, Zurbano eta Mujika); hirugarrena, jai-ospakizunetarakoa (Alkatea, Peciña eta Agirre).

Batzorde hauek beharrezko argibide eta datuak bildu ondoren, aurrekontua egiteko txosten eta proposamenak aurkeztu beharko zizkieten Udalari²⁸. Ondoko hilabeteetan Udalak zenbait erabaki hartuko zuen, Jaiak behar bezala ahalbidetzeko: bat, nagusiena, auzotarren artean Euskal Jaietarako zerga berezi bat banatzea, guztira 3.000 pezetakoa²⁹; Mateo Mujika sermolaritarako hautatzea eta ospakizunetarako datak eta egitaraua finkatzea.

Mota guztietako eginkizunak aurrera ateratzeko, 38.928 pezetako aurrekontu orokor arrunta zuen Udalak 1911n, eta 3.000 pezetako defizita espero zenez, hori estaltzeko legezko baliabideen bidez espero zen dena kitatzea. Euskal Jaietako gastuak aipatutako zerga bereziarekin berdindu beharko ziren³⁰.

3.2. Segurako Euskal Jaiak (1911)

Arrisku handirik gabe esan daiteke, uste dugu, Segurako Euskal Jai hauek mugarri bat izan zirela, Probintziako Euskal Jaien ibileran. *Euskalerrriaren Alde* aldizkari jaio berriarekin batera, 1907an sortutako Euskal-Esnalea lagunarte euskaltzaleak lehenengo aldiz hartu zuen bere gain Euskal Jaien antolakuntza. Urte berean sortu zen, gainera, *Euskal-Esnalea* aldizkaria ere.

Une honetan protagonismo berritua hartu zuen, bestalde, Gregorio Mujikak, hurrengo hogeitau urteetan Gipuzkoako euskaltzaletasunaren sustatzaile eta gidari herritar-instituzionala izango zenak. Mujika buru-belarri ibili zen Segurako Euskal Jaien prestakuntzan. Euskal-Esnalea lagunartearen

²⁸ SUA: *Actas. 1906-1914*. 1910-08-26ko data: 145v.

²⁹ SUA: *Actas. 1906-1914*. 1910-11-13 eta 1910-11-30etako datak: 164-164v, 165v.

³⁰ SUA: *Actas. 1906-1914*. 1910-11-30.

1911ko Oroitidazkia irakurtzen duena berehala ohartuko da gertakari hark nolako pisua izan zuen Gipuzkoako Aldunditik euskalgintzan zebiltzanen artean³¹.

Nola ospatu ziren, bada, Segurako Euskal Jaiak? Egitaraua ongi eta garaiz finkatuta zegoen, Seguratik egindako proposamenei jarraituz eta Probintzian Jai haiek zuten tradizioari eutsiz. Horretarako beharrezko posta-harremana egon zen, eta bilerak eta elkarrizketak.

Itxura guztiz, gogoan eduki zen Udalaren ezezko batez eta herriko bozketa batekin hasitako kudeaketa zela hura; antolatzaileek Segura eta bertako Udala adeitasunik finenarekin zaindu zituzten, eta ondoko kroniketan ere gogo bera ageri da, batez ere G. Mujikaren testuetan. Ez zen falta izan, gainera, Probintziaren eta Udalaren arteko erakunde-lotura estuak azpimarratu eta Segurako herriari Probintzian zegokion leku seinalatua edo aditzera eman nahi izan zuen hitzaldi eta argazkirik. Hori da, behintzat, *Euskalerrriaren Alde* aldizkarian ikus daitekeena.

Euskal Jai haiek, jakina denez, gizarte-espektro zabala biltzeko xedea izaten zuten, horretarako, artea eta ekonomia, erlijioa eta erakundeak, hizkuntza eta musika, kultur ospakizunak eta jai herritarrak, etab. erabili ohi zituzten. Guk hemen hizkuntzari dagokiona aipatuko dugu espresukiago. Bost egun iraun zuten jaiak (ekainaren 22-26), eta Aldundiko agintariak bertan egon ziren 23tik aitzina, 25a arte behintzat.

Jaiotan presente egondako pertsonaia historikoetarik hona izen batzuk: Jose Maria Orbe (Valdespina-ko Markesa eta Ahaldun Nagusia), Mateo Mujika kalonjea (Idiazabalgo semea; 24ko Meza Nagusian hizlaria), L. Zavala eta Julian Elortza Ahaldunak, euskal kulturakoen artetik A. Campión, Tx. Agirre, J. Urkixo, K. Etxegarai, J. B. Larreta edo G. Mujika.

Literatur lehiaketan saritutakoen artean egon zen lehendik edo gero idazketalanean jardundako zenbait: E. Arrese, Joxe Eizagirre, I. López-Mendizabal, Joxe Elizondo, Ramon Intzagarai, eta beste. Bertsolarien saioan Pello Errota eta Gaztelu behintzat hemen izan ziren. 33 idazlan jaso zituzten antolatzaileek, lehiaketarako aurkeztuak. Lehen Sari batzuk eman gabe geratu ziren, baina Mujikak behin eta berriz aditzera ematen du hastapena bakarrik zela askoren-

³¹ Adibidez, aldera bitza irakurleak Euskal-Esnalearen 1911ko Oroitidazkian Segurakoaz esaten dena ("Memoria leída en la Junta general ordinaria celebrada por la Sociedad Euskal-Esnalea el día 21 de Diciembre de 1911", *Euskal-Esnalea* I, 1911, 310-311), eta hurrengo urtean Zarauzko Euskal Jaiak ematen den balioespena.

tzat eta hurrengoetan ere jarraitu egin behar zutela, lanak hobetuta berriz ere parte hartzen.

Garaiko albistek bereziki aintzakotzat hartzen dituztenak bilera edo ospakizun herritarrak dira (horien artean, herritar helduek ere haurren deklamazio eta irakurketa lehiaketetan erakutsi zuten interesa), eta 25eko Euskal Jai handi eta luzituak, euskaltzaletasunaren mezua pasarazteko balio izan zuen.

Irakurketa eta deklamazioan izena eman eta esku izan zuten herriko haurren oroitzapena hona ekartzekoa da, gaur egun ere segurar batzuek gogoratuko baitituzte horien artean beren aitona-amonak edo: Joxe Lezeta, Joxe Galartza, Basilio Pérez Piñeiro Deklamazioan, eta Irakurketan: Mari Paz Gantzarain, Juana Alustiza, Isabel Galparsoro, Maria Alkorta, Eusebio Imaz, Andres Mujika, Antonio Izagirre, Hilarion Rekondo³². Herritik bertatik egindako beste ekarpena, udal Idazkari Aierberena izan zen, baina horretaz aurrerago mintzatuko gara.

Euskal Jai hauetako albistek —ospatu aurretik, eta gero— orrialde anitz bete zuten *Euskalerraren Alde* eta *Euskal-Esnalearen* orrietan³³. Lan sarituek ere aldizkari hauetan aurkitu zuten jendarterako bidea. Gainerako beste Prentsak esan zuena aztertzeke geratzen da oraingoz. Dena euskararen alde eta euskaraz egin zela gogoraraziz zera idatzi zuen G. Mujikak Segurako berri eman ondoren³⁴:

Creemos que pocas veces se habrán organizado en pueblos del vecindario de Segura, festivales tan brillantes y en los que se hayan puesto en juego tan variados elementos. En la fiesta nuestra [Euskal Jai bereziki deitutakoan, Euskal-Esnaleak antolatuan: 25 arratsaldean, Plazan], celebrada en la Plaza pública de un pueblo de 1.400 habitantes, al aire libre, teníamos una muy buena banda de música, un armonium, un piano, un nutrido coro, excelentes solistas, oradores, monologuistas, lectores y tamborileros...

Hori eman zuten Segurako Jai haiek, horrela ikusi zituzten kanpokoek, eta seguru gaude segurarren gogoak ere biziberritu egin zituztela ikusi eta entzundakoek.

³² *Euskalerraren Alde* I, 1911, 625.

³³ *Euskalerraren Alde* I, 1911, 348-352, 415-416, 447-453, 479-480, 513-516, 568-582, 583-622. *Euskal-Esnalea* I, 1911, 165-167, 180-182, 229-230, 234-236, 241-243, 269-271.

³⁴ *Euskalerraren Alde* I, 1911, 635.

3.3. Zenbait erabaki xume (1915-1930)

Zalantzarik gabe, 1911ko Euskal Jaiek eta herritik kanpora ere zabaldutako haien sonak on egin zioten herriko euskaltzaletasunari, eta Udalak une batez, Probintzia eta Euskal Herrian gora zetorren Eusko Pizkundeko olatualdiaren bultzadatik at geratzeko keinua egin baldin bazuen, Jaien ondoren ez zen hori jada posible. Horregatik, 1910eko hamarkadan Segurako Udalak euskararen aldeko mugimenduko parte izan nahiko du, herrian bertan egiten dituen lanen bidez eta baita ekimen orokorragoak eratzen direnean ere.

1915ean daukagu honelako adibide esanahitsu bat. Oraingoan, ekimena Bilbotik zetorren, Aktetan esaten denez, “Estudios Vascos” zeritzan Elkarte batetik. Abian zuten, nonbait, leku-izenak biltzeko egitasmo bat, eta Segurako lana egiteko laguntza eskatzen zioten Udalari. Ez zitzaion zaputz egin, nahiz eta Probintziatik kanpoko deia izan; baiezkorako aipatu ziren arrazoiak ere adierazten dira³⁵:

Por iniciativa del Sr. Alcalde Presidente se ocupó la Corporación de la conveniencia de adherirse al movimiento renacentista del Euskera que, por iniciativa de prestigiosos vascófilos, empieza a observarse en el país; y, a este efecto, deseoso el Ayuntamiento de responder al llamamiento dirigido por la entidad denominada Estudios Vascos, de Bilbao, acordó prestarle su cooperación moral y material encargando al Secret. de la Corporación el trabajo de recopilación de los nombres y voces patronímicos y toponímicos y contribuyendo con cargo al municipio con la cantidad de 20 pesetas a los gastos que origine tan patriótica obra, lamentando que la situación del erario no permita mayor dispendio a dicho fin.

Pasarte luzexka horretan, esapide hau nabarmenduko nuke berezikiago, garaiko kultur egokiera orokorrari zegokiona: “Por iniciativa del Sr. Alcalde Presidente se ocupó la Corporación de la conveniencia de adherirse al movimiento renacentista del Euskera”. Justu, esan daiteke, 1910.eko lehen jarreraren alderantzizkoa azaltzen duela.

Proposamena egin zuen Alkatea Migel J. Eloseggi zen, eta lana egin beharko zuen Idazkaria ezaguna dugun J. Bta. Aierbe; lau zinegotzi egon ziren, gainera,

³⁵ SUA: *Actas. 1915-1920*. 1915-06-06ko data: 14.

bileran: F. Arrieta, J. Lezeta, N. Aldanondo eta L. Zurbano³⁶. Ez gaude, noski, urte haietan beste zenbait Udaletan hartu ziren erabakien tamaina emateko moduan, baina urak mugitu dira, eta atzera ere ez da geratu nahi. Gogora daiteke hemen, 1917an Errenteriako Udalak hartutako ebazpen ausartagorik: hemen, bertako lantegi-ugazabekin elkartuta, udal-administrazioan eta fabriketan euskara segurtatzeko plangintza koxkor bat egin zuen Udalak³⁷.

Euskararen aldeko norabide berean doa Seguran 1915ean liburu-erosketa ere, eta Euskal-Esnalea Elkartek eskatuta, 1916an kaleen euskarazko errotilazioa ematea³⁸, gero Primo de Riveraren Diktaturakoan kendu zena.

Primo de Riveraren diktadura garaian badirudi Seguran ere euskal lehortea izan zela nagusi; baina askatasunak leihatilaren bat ireki orduko hasi ziren berriz ere hurrengo urratsak ematen, batzuetan herria bere gisara, eta bestetan Probintziatik zetozen eskeei erantzunez. Honelako bat izango da, adibidez, *Euskal Aur Eguna* ospatzeko aukera.

3.4. *Euskal Aur Eguna* (1930)

1918-1919. urteetan Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia abian jarrita zeuden, eta ahal zuten neurrian ari ziren beren lan-egitarauak betetzen; hala ere, hizkuntzaren inguruko sustapen soziala zuzenkiago eztenkatu beharra nabaria da, Diktaturak balaztatu egin baitu abiada onean zetorren lana. 1920ko urteetan ekimen berriak sortu ziren lozorro ezarririk irteteko. Horretarakoxe sortutako erakundea izan zen “Euskeltzaleak” Elkartea (Arrasate, 1927), egoitza Donostian izan zuena eta berehala gidari, Jose Ariztimuño, *Aitzol* apaiza (1930)³⁹.

Euskeltzaleak Elkartek oso garbi izan zuen hizkuntzaren belaun-jarraitutasuna guztiz oinarritzko zutoina zela euskararen biziraupenean, eta haurren eskolatzeari bezala eskolatik kanpoko haien euskal jarduna lagundu egin behar zirela, herrietan eta familietan. Xede hori tartean zuela, Elkartek bere Euskararen Egunak antolatu zituen, euskaldunen arteko hizkuntz estimua indartzeko; era berean, *Euskal Aur Eguna* ospatzeari ekin zion (Andoain, 1929),

³⁶ Hurrengo Bilerarako, Bilboko “Estudios Vascos” delakoak eskerrak eman zituen erabakiagatik: SUA: *Actas. 1915-1920*. 1915-06-06ko data: 15.

³⁷ Iztueta 1991: 284 (114. oharra).

³⁸ Ik. *Actas 1915-1920*. 49.

³⁹ Iztueta 1991: 497-499. Bestalde, begira: Otaegi 1990: 27-43; Ugalde 1988: 49-54.

ospakuntza herritar horietara haurrak ez ezik gurasoak eta udalak ere deituz. Hauetako bigarrena Seguran ospatutakoa izan zen⁴⁰.

Lortu zuen Aitzolek Seguran lankide saiaturik. Badakigu Udalak ere zerikusirik izan zuela ospakizun harekin. San Joanetan, ekainaren 25ean, ospatu zen Haurraren Jai hori.

Jai hau prestatzera zihoazela, *Euzkadi* egunkarian eman zuen Aitzolek asmoaren berri, apirilaren 29an, “La fiesta de Segura. El niño euskeldun” zeritzan lan labur baten bidez. Jaiaren xedea, esaten digunez, haur euskal mintzatzaileraren alde gurasoak irabaztea zen⁴¹:

En Segura, los próximos días de San Juan han de darse cita los vascos que sienten la preocupación del porvenir de nuestra lengua para contribuir al esplendor del Día del Niño Vasco.

Jaiari aurrea hartuz, astebete lehenago, berriro zabaldu zuen Aitzolek Segurarako deia, Goierriko herrietatik elkartuko ziren haurrei laguntzera etortzeko esanez⁴².

Jai haien oihartzunak direla ematen du Errepublika urteetan Udalak hartuko zituen hurrekiko ebazpenak ere: Euskal Pizkundek sortu nahi izan zituen eskola-tresnen artean zeuden liburuak, euskal eskolarako lanabesak. Segurako Udalak *Txomin Ikasle* liburutik 50 ale erosi eta herriko haurren artean banatzea erabaki zuen, 1932ko otsailaren 28an⁴³.

Jakina denez, Udaletxeko Akta-liburuetatik 1933-1936. urteetakoa falta zaigu, eta une honetan ikertu ezin ditudan paperetara joan beharko da ahal denean, garai jakingarri hartako albisteak jasotzeko.

⁴⁰ Hilabete hauetako Aitzolen lan-egitaraua ezagutzeko (eta Elkartearena ere), ikus Ariztimuño 1988, I: 120-122.

⁴¹ Ariztimuño 1988, V: 19.

⁴² Ariztimuño 1930 eta orain Ariztimuño 1988, V: 30-31.

⁴³ SUA: *Actas*, 1932. 47-47v.

4. Gerratea eta frankismoa (1936-1975)

Altxamendu Nazionala zeritzanarekin gerra lehertzean, berehalako aldarre politikoa ez zen samurra izan, eta hizkuntzari ere iritsi zitzaion berea⁴⁴. Segurako Udalak ere jaso zituen horretaz Gobernu Zibilaren ebazpenak, eta euskal idazketarako ortografia berri nahi izan zuen, modu bitxi honetan⁴⁵:

Leida a seguido la orden dictada por el Sr. Gobernador Civil para la supresión de los rótulos e inscripciones públicas escritos en vascuence y de las letras **k**, **tx**, **b**, etc. del léxico moderno, ofensivas a la lengua española, acuerda la Corporación que en vista de hallarse escritas con alguna o varias letras de esa clase los de las calles y edificios públicos, se proceda a su desaparición inmediata, y que más tarde dispondrá el Ayuntamiento cuanto al respecto fuera conveniente, reponiendo o no tales rótulos con las letras de referencia cambiadas.

Hori da ezagutzen dugun erabakirik nabarmenena. Jakitekoa litzateke gauzak harago ere joan ote ziren; baina badirudi Seguran –azken batean Goierriko zoko galdu bat– hizkuntzarena ez zela sobera pozoitu, adibidez herritarrak hizkuntzaz bat-batean aldarazi ezinak zirelako eta guretik kanpo Probintzia zigortuan hizkuntzari erasotzeko plaza *aproposagorik* bazegoelako. Hala ere, Guardia Zibilak bertan zeuden (batzuetan semeek euskara ikasiz ere...), eta maisuren batzuek beren azpilana egin zuten, baina 1940etako hamarkada-erdirako, lehenengo itolarria pasatu ondoren, urak berriz euskararen alde zerbait mugitzen hasita zeuden herrian.

Euskal Herrian bestelakorik ezarri nahi izan zen arren, elizako hizkuntz usadioak beren betiko arroan joan ziren, euskaraz jardunez alegia. Bertako predikua eta Misioaldi handiak euskaraz egin ziren. Eta hori sostengu ona zen, ofizialtasun-motaren bati behintzat eusteko.

Herriko bizieran, berriz, euskaltzaletasun zuhur batek bere lana egin ahal izan zuen Seguran, eta gutxienez bi lagun gogorarazi beharko genituzke urte haietarako, biak ere kanpotik etorriak, bata apaiza eta bestea maisua. On Joan Alkortak gaztetxoekin eta antoniotar gazteekin egindako lanean, euskaltasuna

⁴⁴ Gerratean, hizkuntz politika ofiziala noraino iritsi zen jakiteko adibide bat in Intxausti 2000: 193-230.

⁴⁵ SUA: *Actas. 1936-1942*. 1936-12-11: 7v.

indarturik irten zela esan behar da, eta hizkuntzari horrek lagundu egin ziola: herriko mutilek aukera on bat izan zuten On Joanen inguruan, urte batzuetan bederen (1944-1950etan edo).

Baina euskaltzetasuna ageriago azaltzen zaigu maisu donostiar baten eskutik. Gotzon Egañak, gurean denbora gutxi egon arren, arrasto luze-iraunkorra utzi zuen belaun oso batengan: eskolan euskaratik ahal zentzua, euskal elezaharrak eta historia, euskarazko antzerkia eta, oro har, hiritik eta buru jantziarekin zetorren euskaltzale abertzalearen ahotsa ekarri zituen Gotzonek. Ez zen gutxi⁴⁶.

Hurrengo hamarkadan, gertaera berri batek jo zuen jendearen gogoan: Segura Irratia 1956an sortu zen, Arantzazuko Urteak astindu zituen asmoek lagunduta. Urte magiko horretan⁴⁷, ahots berri bat izan zuen Segurak, euskaraz ere mintzatzen zena eta herrirako eta kanporako baliozkoa gertatu zitzaiguna. On Zesareo Elgarresta apaizaren ekimena izan zen⁴⁸. Isilaldi baten ondoren (1964-1972), gure egunak arte iraun du Irrati honek, euskaraz ere lan eginez.

1960ko hamarkadan herritarrek bere hartu zuten Segurako euskaldungoaren oinarritzko zerbait eskaintzeko ekimena, Ikastolaren sortzeari zegokiona alegia. 1967ko martxoaren 28an ireki zen Segurako Ikastola, eta lehenengo sorrera-batzordean ondoko hauek egon ziren: Joxe Etxeberria, Laureano Telleria, Ixidro Arrondo, Ramon Telleria, Daniel Larrea eta Gregorio Etxeberria.

12 hurrekin ireki zen Ikastola, eta Txanbolinpe-gainean izan zuen egoitza. 1982a arte iraun zuen bere lanean, herrian eta nonahi bilatu izan ziren laguntzei esker: gurasoen kuotak, bazkideenak, Mapfre-ko aseguruak, tonbola, zozketa, taberna eta mota guztietako jaiak. 61 haur eta sei irakasmaila izatera iritsi zen Ikastola hau (Eskolaurrea eta OHOkoko hiru maila), 4 andereño zituela. Lege berria betearaztean, 1982an Herri-Eskolarekin bateratu zen Ikastola⁴⁹.

Jarri zen diruagatik eta bateratu zituen indarreatatik baino areago norberaren seme-alabak artean ziurtatu gabeko eskola-erakunde batean sartzeagatik izan zen Ikastola ekimen ausarta eta, azkenean, eraginkorra ere.

⁴⁶ Ikus J. Insaustik gogoratzen dituenak: Insausti 2002: 70, 73-78.

⁴⁷ Ikus Intxausti 1977.

⁴⁸ Intxausti 2001: 345.

⁴⁹ Ikastolari buruzko albisteak Joanita Ariztimuño andereñoari zor dizkiot. Eskerrak laguntza honegatik.

Eta gatozen beste alor batera. Talde-lanean eramandako ekimen horien ondoan, Segurak baditu, nortasun bereziko seme-alabek beren kabuz eta gisara burututako lan euskaltzale pertsonalagoak ere. Historia apala baina aipagarria da hau ere; ikus dezagun.

5. Bertsolari, idazle eta ikertzaileak

Herriak bere osoan izan duen euskal ondarearen ondoan (hizkuntza eta hiztunen hizkuntz jarrera, jokabide eta praktikaren ondoan), zenbait segurarrak kulturaren hizkuntzaren alde egindako lanak gogorarazi nahi ditugu, langileok hiru multzotan banatuta: bertsolariak, idazleak eta ikertzaileak.

5.1. Bertsolari segurarrak

Goierrri ez da izan bertsolari ezagun ugari eta handien harrobia; hala ere, badugu izenen bat bertsolaritzaaren historiara iritsi dena, eta XX. mendean batez ere egon dira halakoak (adibidez, Lazkao Txiki, beharbada, goierritarren artean handiena). Seguran ere egon da bertsolari kantatu duenik. Hemen ez dugu azalpen zabalik emango, baina izenak bederen guztion oroimenerako jasota utzi nahi ditugu: Luzuriaga, Insausti eta beste.

5.1.1. Joakin Luzuriaga, “Segurako Itxua” (1824-????)

Dakigunaren arabera, denboraz guztion aurretik datorkigun Segurako bertsolaria Joakin Luzuriaga Oria dugu. Seguran jaio zen Joakin, 1814ko urtarri-laren 15ean, eta Joakin Pablo izenak jarri zizkioten. Gurasoak: Manuel Luzuriaga, Segurakoa, eta Frantziska Ignazia Oria, Zeraingoa, ziren⁵⁰.

Zapataria izan zen Joakin, gaztetan, baina soldadutza aukeratu zuen gero ogibide bezala, eta II urte eta erdi eman zituen horretan. Baina La Habanan zegoela itsutu egin zen. Segurara itzulita Miserikordian hartu zuten. Hala ere, 1856ko martxoaren 26an Josepa Ignazia Loinatzekin ezkondu zen (emaztea ere segurarra: 1827an jaioa, eta 1861ean hila); bost seme-alaba izan zituzten. Josepa Ignazia hiltzean, “se le celebró el funeral de pobre de solemnidad” diote paperek, beraz egoera apalenekoa zen herriko familia hau.

⁵⁰ DEA, Segurako Jasokundeko Parrokia: 7. Bataio Lib., 198.

Haurrak eta bere burua aitzina atera behar eta, bigarrenez ezkondu zen, ondoko hilabeteetan, jada alarguna zen Manuela Etxarri nafar leitzar batekin. Goiko errebalean jarri ziren bizitzen. Bertso-paperak saltzeari ekin zioten, bizi-modua aurrera ateratzeko. Ferietan eta azoketan ez ezik iganderoko Meza Nagusien ondoren herrietako elizondoetan ibili ohi ziren senar-emazteok, elkarri bertsoak botatzen ere bai. Batetik bestera ibili behar horregatik, badirudi Seguratik kanpo joan zirela bizitzera, eta A. Zavalak ez du aurkitu Seguran ondoko urteetako agiririk⁵¹.

Bertsogintzaren hau, ematen du bizibeharrak ekarri ziola gure Joakini, ez berezko zaletasun edo dohainak. Horregatik eta esango dugunagatik, Zavalak galdetu ere galdetzen du “Segurako Itxua” ez ote zen bertso-paper saltzaile hutsa izango. Alegia, bereak ote ziren, egiaz, banatzen zituen bertsoak. Zalantzarako, bertsoen barne-kritikak ere iradokitzen du zerbait: batean bizkaiera kutsukoak dira, eta bestean Oiartzun-Errenteria aldekoak. Dena den, hori ere ez litzateke arrazoï guztiz erabakigarria, zeren eta jakina baita (Joxe “Aizkoeta” bera horren lekuko) bertso-munduan zer-nolako joan-etorria egon izan den euskalkien artean, eta ibili zebilenak –kasu honetan gure itsuak– tokian tokikoa ere jaso zezakeen erreparo handirik gabe.

Itsutasuna, pobrezia eta guzti, Joakin eta Manuela saiatu ziren beren umore-punta gordetzen, eta senar-emazteen artekoak planta onean eramaten: “Neure andria ez da / burutik mankia, / erderaz ere badaki / euskaldun garbia; / adiskide danian / kopeta argia, / eta etxian daukat / txit agintaria”.

Lau bertso-sorta labur utzi zizkigun “Segurako Itxuak”; horiek dira behintzat Zavalak argitaratu eman zizkigunak (1971). Hauetako lehenengoan (“Orain kanta berri bat biar nuke jarri...”) bere bizitzako pasadizo nabarmenenak ematen dizkigu (goian aipatuta utzi ditugunak); beste bi bertso andrearekin elkarrizketan kantatzekoak dira: “Segura-ko itxuak bere andriari...” dioena, eta “Bertso berri batzuk bear ditut jarri...”. Biak ere Zavalak 1874ko orri inprimatuetan jasoak. Hori da utzi digun uzta osoa⁵².

⁵¹ Zavala 1971: 115-155. Hiru bertsolariren bertsoak jasotzen ditu liburu honek: hirugarrena da Joakin Luzuriaga “Segurako Itxua”. Luzuriagaren bizitzako zertzeladak ezagutzera emateko, Zavalak liburu honetan eskaini dion biografiaz baliatuko naiz, besterik gabe.

⁵² Hona lau bertsoen izenburuak: “Bertso Berriak itxu baten gañian jarriak”: «Orain kanta berri bat biar nuke jarri...». “Bertso Berriak Segura-ko itxuak eta bere andriak alkarri jarriak”: «Segura-ko itxuak bere andriari...». “Bertso Berriak”: «Bertso berri batzuk bear ditut jarri...». “Bertso Berriak”: «Bertso berri batzuek aurtengo urtian...».

Zein zabalkuntza izan zuten bertso hauek, eta zein oihartzun sozial? Hasteko, badakigu 1874an 500na aleko argitaraldiak egin zituela, eta euskal literaturan P. M. Urruzunoren ipuinetan (1844-1923) dago beste lekukotasun adierazgarriagoa⁵³:

Bazuan Praiskok adiskide bat oso maitea, ona eta jakintsua, Aita Santuaren urrengotzat zeukana. Probintzi guziak ezagutzen zuana zan, baña alare elikio iñork igarriko nor zan. Gizon au zan Segurako itxua; gizon argia adimentuz, bada esan oi zuan Praiskok, begietako argiak burura iges egin ziola jaun oni. Itxuaren esanak artikululu fedekoak ziran Praiskorentzat. Anemarik ondo zekian Kaiser-en kañoi guziak baño indar geiago izango zuela itxuaren erretolikak Praisko menderatzeko.

Bertsolari edo paper-saltzaile, Segurako herriaren oroitzapena herriz herri eramán zuten senar-emazteek, betiere kantari: pertsonaia nagusia “Segurako Itxua” zeritzana zen, izen horrexekin bertsolari zebilena. Asko ibili zen hura orduan, eta beharbada gutxiago gaur herriko bere etxean dugun beste bertsolari bat, gorputzez sendo, ahotsez makal baina bertso-emanen ugariagoa izan duguna: Joxe “Aizkoeta”. Beroni buruz tokatzen zaigu orain bertsoa.

5.1.2. *Jose Insausti (1935-)*

Aizkoeta baserrian jaio zen Joxe Insausti dugu, oraingoz, Segurak eman duen bertsolaririk eginena, eta idatziz, oparoena. Jose Insausti Urbizu 1935ean jaio zen Seguran, aita Frantzisko segurarra eta ama Ramona zegamarragandik. Geroztik herrian bizi izan da, baserri zaharrean lehenengo eta Aizkoeta Berrin gero (1955).

Joxe “Aizkoeta”ren bertsolari-bizialdiak ondoko kronologia du: lehen saio eta lagunarteko lanak (1952-1959), gaztealdiko plaza-ekitaldi eta norgehiagokak (1960-1966), hamabi urteko isilaldia (1967-1979), helduaroko lanak (1979...). Lanbide horretako ahaleginen emaitza da, orain gutxi argitara eman dugun liburua, erakuskari antologiko bat aurkezten diguna⁵⁴.

Bere liburuan ikus daitezke bizialdiko oroitzapenak, asko eta asko bere belaunaldikoenak berak: baserria, eskola-urteak, familia, herria, herriko bertso-

⁵³ Zavala 1971: 127.

⁵⁴ Joxe Insaustiren lana, partez behintzat, argitara emanda dago: Insausti 2002. Hemendik jasotzen ditugu beraren bizitzako zertzeladak.

lari lagunak, bizitzako gorabeherak, eta ilea galdu eta buru-soiltzeak ekarri zizkion buruhaustek ere. Ez zaio umore eta filosofia onik falta.

Horrekin batera, gogoan hartzekoa da bertso-munduan bizi izan duen ibilera, lagunartean lehenik, inguruko plazetan gero, eta hainbat lehiaketetan azkenik. 1950etako lehen urteetan “emen etzegoan inñun bertso-girorik, eta nik beti uraxe buruan”, baina laster izan zuen herrian bere bertso-lagunartea: “Ontan, jaiero behintzat bertsoan egiten nuan nire lagunakin, bat edo beste poliki moldatzen ziran eta [Jexux M. Imaz zen tarteko bat] [...], orduan bertso-gose aundia zegoan Seguran, edo nobedade giñan gu beintzat”. Joxek izen berriak aipatzen ditu: Kosme Ariztimuño eta Teodoro Arrondo. Lazkao-Txiki eta Goiburu ere inguratu ziren beste herrietatik⁵⁵.

Soldadutzak ez zion kalterik egin (1957), handik zenbait urtetara sona handikoak gertatu ziren batzuekin eta zenbait apalagorekin ere topo egin baitzuen Burgosen; itzultzean, atzera, lehengoari heltzeko aukera izan zuen Seguran, hau da, amagandik Aizkoetan jasotako bertso-zaletasunarekin aurrera egiteko egokiera. 1960ko urtea erabakigarria suertatu zitzaion Joxeri. Beste segurar batek –Patxi Albisu apaizak– plazara irtenarazi eta Ordiziako lehiaketetan parte hartzera bultzatu zituen hemengo bertsolariak. Mementoz ez zen lortu arrakasta handirik, baina ez hurrengo ahaleginetarako sasoa galdu ere.

1962an Gipuzkoako Txapelketan esku hartu zuen, eta Beasaingo kanporaketan, hamabosten bat lagunetatik bigarren geratu zen Joxe Aizkoeta, Lazkao-Txikiren ondoren. 1964an, Loiola Irratiz egindako lehiaketa luzean ere bigarren gertatu zen, Mugartegi eta Lopategi tartean zirela. 1963an, azkenik, lehen saria ere irabazi ahal izan zuen Donostiako Trinitate Plazan, San Tomasetan. Norgehiagokek aurrera egin zuten, eta 1964an Gipuzkoako Txapelketako Goierriko Ekitaldian (Beasain) kanporaketako txapela irabazi ahal izan zuen, eta Eibarren hurrengo ekitaldia pasatuta, Probintziako finalera iristerik ere bai (Tolosa, Leidor antzokian). 1964-1965etan bestelako lehiaketatan ere parte hartu zuen: Zumarragan bigarren geratu zen, eta Loiola Irratian ostera bigarren, Azpillagaren ondoren. 1966ko Txapelketa ofizialari Ordizian ekin zitzaion urte hartan; lehena geratu zenez, hurrengo ekitaldirako txartela irabazi zuen, eta Hernanin Gorrotxategiren atzetik gelditzea tokatu zitzaion, eta bederatzi puntukoari zegokion Saria eraman zuen Joxek. Tolosako finalean, ordea, ahotsik gabe geratu zen bertsolari segurarra; trantze txarra izan zen

⁵⁵ Insausti 2002: 17-19.

hura, urtetarako bertsoaritzatik aterako zuena: hamabi urte egongo zen gero plazara irten gabe (1966-1979)⁵⁶.

Aurreko hasieran bezala, ostera ere Segurako lagunartean aurkitu zuen Joxek bertsoarako bere bidea. Pedro Etxezarreta eta Estanis Agirre gogoratzen ditu Joxek orduko bertso-lagun berri bezala (1979). Hasi ziren, bai, eta berriz ere Sariketak inguruetan, eta 1985ean –Joxeren hitzetan esateko– “azaina gogorra” egin zuten segurarrek, Goiburu idiazabaldarrarekin hirukotea osatuz: Euskadi Irratiko Fernando Amezketarra Saria irabazi zuten (garaiko 400.000 pta.)⁵⁷. Ikusten da Joxeren azalpenetan nolako poza izan zuen orduan bertsolariak, eta herriak ere nola hartu zituen bere bertsolari irabazleak.

Gai-sorta zabala du Joxek, bertsoetan jarria. Bere jaiotza eta ezkontzen ondoan guraso, aitona-amona edo lagun minen heriotzak, norberaren bizilekuak, eguraldi-aldarteak, Segura eta bertako gizartea eta gertakariak, maitasuna, herriko aldakuntzak, etxeko zakurra edo etxe-ondoko makatza nahiz gaitainondoa, herriko pertsonaiak, etab. Norberaren oroitzapen eta pasadizoak ez ezik Segurako herria ere protagonista da Joxe “Aizkoeta”ren bertsoetan, irakurleak pentsa dezakeenez.

Amaitzeko, esan dezagun Joxe “Aizkoeta”k hitz lauuko idazketarik ere eskaini digula bere liburuan, bertsoei bere sarreratxoak ipiniz, euskara argi eta atsegina batean. Bertsolaria eta idazlea, beraz, gure Joxe Insausti. Joxeren bigarren balio honek, hain zuzen Segurako beste idazleak ere aintzakotzat hartzera garamatza hemen.

5.2. Euskal idazleak

Euskal idazketak bere historia estimagarria du Seguran, eta kasuren batean Euskal Literaturaren Historietan agertu ohi dena. Lorpen distiratsua izan gabe, historialarien estimua izan duena, behintzat. Gipuzkera literarioaren garapenean izen merezia irabazita duen J. I. Gerriko aipatu behar da lehenik, eta XIX. mendetik hona, berriz, euskalgintzaren une jakinetan ekarpen ezberdinak baina baliozkoak egin dituztenen izenak: Astigarraga, Azpiazu, Aierbe, Lardizabal, Zubiaga eta Goena. Guztioi buruz emango dugu berri labur bana.

⁵⁶ Insausti 2002: 21-27, 233.

⁵⁷ Insausti 2002: 29, 233-243.

5.2.1. *Jose Ignazio Gerriko (1740-1824)*

Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga Seguran jaio zen, 1740an, eta bere apaiz-bizialdi osoa Mutiloan eman zuen; obra mardul bat utzi zigun idatzita, garai-ko eskakizun administratibo ofizialengatik argitara eman gabe geratu zitzaiona: *Cristau doctriña guztiaren esplicacioaren sayaquera* (horrelaxe, garai haietako ortografiarekin)⁵⁸.

Gipuzkera literarioaren maisuetako bat da Gerriko, eta Historia orokorretan bezala berari eskaini zaizkion azterlan monografikoetan haren lanaz arduratu den ikertzailerik izan da (Villasante, Mitxelena, Onaindia, Estornes Lasa, Urkizu; Arrue, Aranburu-Bidegain-Idiakez-Rezola). Hemen ez gara, hortaz, azalpen zabaletan sartuko, baina irakurleak jakin beza informazio-iturriak non dituen⁵⁹.

Gerrikoren bizitzak mugarri oso jakinak ditu: haurtzaroa eta lehen ikasketak Seguran (1750-1754), Goi-Ikasketak Madrilen (1754-1763) eta Mutiloan apaiz benefiziadu eta Bikario-ordeko bezala egindako urteak (1763-1824). Jose Ignazio Gerrikoren familiarteko xehetasunak ongi ezagutzen dira orain⁶⁰. Segurarra zen aita, Markos Gerriko Urkia (1714-1793), eta ama, Anastasia Enatarriaga Goia (1710-1775), mutiloarra. Gurasook Seguran ezkondu ziren, 1737an, eta bost haur izan zituzten, berorietan zaharrena gure Jose Ignazio idazlea. Aita, ofizioz zurgina, etxegintza-lanetan ibili ohi zen. Badirudi, 1764az gero, gurasoak eta Jose Ignazio bederen Mutiloara bildu zirela, azkenik 1776tik aurrera elkarrekin bizitzeko, hain zuzen semeak jaso zuen *Elizalde* etxean.

Aberats handiketako ia izan gabe, *familia onetakoa* zen Gerriko-Enatarriagarrena, ondasunez ongi samar hornitutako kaparea ere. Honek ez du, ordea, esan nahi ikasketa handiko jendea zenik, Jose Ignazioren amak, izebak eta arreba M^a Mikaelak ez baitzekiten sinatzen. Gizonezkoek eskola gehiago zuten, eta badakigu Markos aita Segurako Udaletxean karguduna izan zela 21 urtez (1743-1763): Ermandade Santuko Alkate, San Joan Ospitaleko maiordomo, San Sebastian Ermitako arduradun, herri-elkargoko Diputatu.

⁵⁸ Lehen liburukiko barne-azalean honela dio, hitzez hitz: *Cristau doctriña guztiaren esplicacioaren sayaquera, euscarazco platica edo doctriñetan partiturik, Don José Ignacio de Guerrico, Mutiloaco beneficiadua eguiña. Desolatione desolata est omnia: quia nullus est qui recogit cordē. Jerem. Cap. 12. v.11. Iruñeco Obispo Jaunaren baimenarequin. Lenengo liburua edo tomoa. Tolosan. Mendizabalen alargunaren moldizteguian. 1858 garren urtean.*

⁵⁹ Literaturako Historia orokorrak: Villasante 1961: 221-222; Michelena 1960: 110; Onaindia 1973: 241-244; [Estornés Lasa] 1969; Urkizu 2000: 343. Bi lan monografiko aipatu behar dira, gutxienez: Arrue 1956 eta batez ere: Aranburu et al. 1993. Azken hau da Gerrikori eskaini zaion lanik serioena.

⁶⁰ Aranburu et al. 1995: 17-37.

Lehen ikasketak Seguran egin eta mutil koskortu zen orduko (1754an edo), familiak ez zuen galdu nahi izan seme zaharrena Goi-Ikasketak egitera bidaltzeko zuen aukera, izan ere Jose Enatarriaga osaba Madrilen bizi baitzen Oñatiko kondearen artxibozain eta bertako mailegu-etxe bateko (“Sacro y Real Monte de Piedad” zeritzaneko) ofizial nagusi bezala. Han, gainera, egokiera berria eskaini zion ataundar batek, Felipe Altolagirrek: Errege Kontseilukoa zen berau eta Indietako Kontseilu Gorenekoa. Altolagirrarentzat lan eginez eta beronen babesarekin Madrileko San Isidro Errege Ikastetxean ikasteko atea ireki zitzaizkion, eta bertan egin zituen Filosofia eta Teologia ikasketak.

Argia zen nonbait gaztea, eta zintzoa. Altolagirre testamenturik gabe hiltzean, epaileak bere ondasunen ardura Jose Ignazioren eskuetan utzi zuen, honek 21 urte bakarrik zituela (1761). Erantzukizun hori zintzo bete, eta ondasunak behar zirenen eskuetan utzita, 1763an izan zuen Segurara itzultzeko unea.

Ordurako eliz bidea hartzea erabakita zeukan Jose Ignaziok, eta Mutiloan apaiz-laguntzaile gisara jarduteko bertan hutsik geratutako benefizioa eskuratzeko zereginak abian jarri zituen. Iruñeko Gotzainak 1763ko urtarrilaren 4an eman zion Benefizio hori, Lazkaoko jaunak alde zuzenetik egindako proposamenari baiezkoa emanaz (Jaun honena baitzen Mutiloako elizako Zaingoa). Jose Ignazio, bada, sorterrira itzuli zen, Segura aldera. Hurrengo urtean egin zen apaiz, Iruñean (1764), eta harrezkero Mutiloako bere eliz lanak pertsonalki betetzeko moduan izango zen. Jose Ignazioren bizitza osorako erabakia izan zen hori, Mutiloan eman baitzituen gero ondoko urte denak, 1824ko otsailaren 23an “Elizalde” bere etxean hil zen arte.

Gerriko 61 urtez izan zen Mutiloako Benefiziadu eta bertako kapilautza baten jabe; hala ere, ez zen izan sekula bertako Bikario tituluduna, nahiz eta egia den bizpahirutan izan zela Bikario-ordekoa (1776, 1786-1788, 1789 eta 1790). Bestalde, honek ez du esan nahi izen eta sona oneko elizgizon estimatua ez zenik, Mutiloan noski baina baita eskualdean eta Probintzia osoan ere, Gipuzkoako Artzapezgoko Batzarrean Diputatu izateraino (Tolosa, 1774).

Larramendiren ondoko idazle olatualdiaren ondoren, belaun eder batekoa da gure Gerriko, hain zuzen Agirre Asteasukoaren (1743-1823) ia adin berekoa, eta Gipuzkoako apaizeria diozesitarraren euskalgintzaren tradizio berriari hasiera eman ziona. Izan ere, ez da ahantzi behar, adibidez, Larramendi, Kardaberaz, Mendiburu edo Ubillos, denak, erlijiosoak zirela eta ez apaiz diozesitarak. Bestalde, Asteasu eta Gerrikoren ahalegina batez ere klero diozesitar horren eguneroko premia pastoralei zuzen-zuzendua dago, eta igandero eta beti aurrean zuen kristau-herri euskaldunaren zerbitzuan pentsatua. Hegoaldeko eta

Gipuzkoako testuinguru horretan, kasik ezerezetik jardun zutela esan daiteke, mende eta erdi lehenago axulartarrek Iparraldean egin zutenaren antzera.

Badirudi Gerrikok bere liburua 1805ean amaituta zeukala, eta, beraz, inguruan gisa bereko eredurik gabe, zeren eta Agirre Asteasukoaren *Erakusaldiak* liburua 1850ean agertu baitzen. Gipuzkoako apaizek ez zuten, orduan, igandero Meza Nagusietan euskaraz modu egokitu batean hitz egiteko sermoitegi inprimaturik, nahiz eta katekesi-lanerako langai argitaraturik bazen. Gerriko parroketako Bikario eta apaizen zerbitzuan ari da zuzenki, bere liburua idaztean (ongi azalduta dago hori, apal baina konbentzimenduz, liburuko bere erdal sarreran).

Hizlari aparta zen, nonbait, Gerriko, eta pulpitutik egin zitekeen lanaz guztiz arduratuta zegoen, eta ziur zegoen, gainera, euskaraz Mutiloan eraman zuen metodo bertsuak nonahi balio zezakeela. Euskaldunen pastoraletan ageri ziren hutsuneak ikusita, are ziurrago zegoen burututako liburuaren balioaz, nahiz eta behin baino gehiagotan errepikatzen duen, behin-behineko lana duela, beste hoberik ez zetorren bitartekoa. Horregatik saiatu zen, ez liburua idazten bakarrik, baita berorri moldiztegirako bideak irekitzen.

Gerrikok euskal prosaren historian merezi duen lekua ongi argitzeko dago oraindik, eta, betiere Agirre Asteasukoaren atzetik utzi ohi den arren, aitortu beharra dago aitzindari baten aurrean gaudela. Bestalde, herrixka ezkutu batean sartuta Probintzia osorako lanean jardun zuen aitzindaria da gure idazlea, baina, segur aski, eskueran euskarazko liburutegi polita zuena, testamentuan liburuak gogoan izan baitzituen, Segurako Bikarioari uzteko⁶¹. Besteak beste, bi xede oso gogotan izan zituen Gerrikok: prediku-premiak eta euskaldunen hizkuntz eskubidea. Honela dio bere erdarazko hitzaurrean:

Y con este mismo fin se da a luz este Ensayo aunque todabia (sic) imperfecto, de la explicación de toda la doctrina de Jesu-Cristo, repartida en ciento catorce pláticas bascongadas [euskarazkoak, alegia], en dialecto guipuzcoano, que entienden aun generalmente los Navarros, Vizcainos y Alaveses, *dirigidas a los pueblos bascongados* [euskaldunei, esan nahi du]: para aliviar el trabajo de los Párrocos, y catequistas [...] y podrán también servir particularmente para los nuevos Predicadores y confesores bascongados [berriz ere, euskaldunak], así por la dificultad en el language, como por la importancia de los asuntos; y para que los

⁶¹ Aranburu et al. 1995: 35.

paisanos amantes del bascuence dentro y fuera del País, *tengan con la lectura de sola esta obra motivo para no olvidar su lenguaje nativo*, y para saber con fundamento la Religión y ley que profesan. [Azpimarra gurea].

Garai haietarako, argitara emandako bi liburukietako Gerrikoren idazlana zinez erraldoia izan zen: hitzaurreak eta abar kontatu gabe, 1.059 orrialde, hil baino hemeretzi urte lehenago idatzita zituenak. Zer idatziko zuen apaiz segurar-mutiloak honek lehenengo lan hori berehala kaleratuta ikusi izan balu? Hau izan baitzen Gerrikoren kalbarioa, lana inprimategira ezin eramana.

1805ean bukatutako idazlana, Gerriko hiltzean (1824), artean kaleratu gabe zegoen, eta beste 34 urte behar izan ziren 1858an argitaratua izateko; ez, ordea, idazlea gauzak eztenkatzen saiatu ez zelako...

Gerrikoren argitaratzaileak eman zigun atzerapen hauen berri, erdaraz idatzitako hitzaurre batean, garaiko zailtasun, eragozpen eta zentsuraren *istorio ereduagarri* bat eskainiz⁶². Dena ez bada ere, lekukotasun historiko honetako parte on bat behintzat hona ekartzekoa da⁶³:

Por el año de 1805 [idazleak] ofreció su obra al M. I. Clero del Arciprestazgo Mayor de Guipuzcoa con una esposición que se presentó en la Congregación ordinaria del día 9 de Julio; en la cual se dio comisión [Mutiloa eta Idiazabalgo Bikarioei, hain zuzen] para que examinasen la obra con detención. [...]. La Comisión cumplió con su cometido, y presentó en la siguiente Congregación la censura de esta obra; y el Congreso [...] se convenció de la utilidad y grandes ventajas que resultarían al país bascongado de su pronta publicación.

Lehen hesia gaindituta zegoen, beraz, baina bigarrena ez zen samurragoa: Artzapezgoa larri zebilen diruz, eta argitaratzaile pribatuak beharko ziren, baina hauek ez zuten ikusi modu onik halako idazlan handia kalera galerarik gabe ateratzeko, eta Gerrikok bere originala jaso eta gorde egin behar izan zuen orduan.

Gerra Napoleondarra amaitzean (1808-1814), bideragarriago ikusi zuen, nonbait, Gerrikok argitalpena, eta Gipuzkoako Errege Korrejidoreari idatzi zion, baimena eskatuz (1817); honek Errege Kontseilura pasatu zuen arazoa,

⁶² Guerrico 1858: IV-VI.

⁶³ Guerrico 1858: v.

eta hemendik originala bidaltzeko eskatu zioten idazleari. Ez zitzaion hau batere gustatu Gerrikori, eta Erregerengana jo zuen zuzenean (1818ko otsaila). Ez alferrik!: honek Kontseilura itzularazi zuen berriro baimenaren kontua.

Une horretan Errege Kontseiluari *argi* berri bat piztu zitzaion bere burutazioetan, historiara pasatu den ebazpen harrigarria⁶⁴:

Pero S. M. mandó que se pasase al Consejo; el cual fué de parecer que se ordenase al Autor tradujera su obra al Castellano para examinarla. El M.I. Clero que deseaba vivamente favorecer con su influencia al Señor Guerrico en este negocio, apenas tuvo noticia de una providencia tan estraña, recurrió también por su parte á S.M. con una esposición enérgica, haciendo mención de la que elevó el Señor Guerrico; pidiendo no se le obligase á cumplimentar la providencia dictada por el Consejo; y suplicando se dignase hacer la gracia de favorecerle con su Real licencia para la impresión de su obra, alegando para ello poderosas razones. [Azpimarra gurea].

Berriz ere auzia Erregeren eskuetara joan zen, beraz; baina irtenbide onik ikusi gabe hil zen, azkenean, gure Gerriko. Ondoko urteetako albisterik ez da aurkitu izan Madrileko artxiboan, hala dio behintzat hitzaurrearen autoreak.

Zorionez, Gerrikoren aldeko indar tinkoena hemen bertan zegoen, Gipuzkoako Artzapezgoko apaizen artean, eta 1847, 1848 eta 1849ko Eliz Batzarretan aztertu zen liburu honen (eta Agirre Asteasukoarenaren) argitarapremia. Une hartan ez zen modu ekonomikorik izan biak batera atera ahal izateko, eta Asteasukoak hartu zion aurrea Gerrikori. Azkenik, 1858an emakume errespetagarri baten eskuzabaltasuna tarteko, kaleratu ahal izan zen Gerrikoren idazlan mardul hau, nahiz eta orduan ere beste zenbait lan labor eskuizkributan geratu zitzaizkion⁶⁵.

Gerrikoren oroitzapena honela gogoratu du berrikitan P. J. Aranburu historialariak, haren giza- eta idazle-nortasuna balioetsiz⁶⁶:

Buruz azkarra, jakinduria agirikoa, onbidetsua, apala, langilea, apaiz-obligazioez (konfesonario eta pulpituako betebeharez gain, kristau-herri

⁶⁴ Guerrico 1858: v-vi.

⁶⁵ Guerrico 1858: vi-vii.

⁶⁶ Aranburu et al. 1995: 36-37.

euskaldunari Elizaren Doktrina eta Morala ahalik argien, zehatzen eta modurik errazenean irakasteaz) biziki kezkatua, etorri handiko hiztuna, euskaltzale benetakoa izan genuen gure Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga, XVIII-XIX. mendeko segurar-mutiloarra; iragan garaietako hainbat eta hainbat apaiz bezala, elizako gaiak (dotrina, sermoi, etab.) euskaraz idatzita jartzeko zaletasunez, grinaz betea; bere aldian txit ezaguna, estimatua, maitea Gipuzkoa osoan barrena.

Gerrikoren oroitzapena ez da galdu gaurko euskaltzaleen artean, eta Lazkao Maizpide Euskaltegitik eramaten den ikerlan lehiaketari “Gerriko Iker-lan Sariketa” deritza, idazle segurar honen oihartzuna belauen berrienganaino ekarrituz. Segurarrok ere eskaini beharko genioke beraren eta geure herrian merezi duen oroigarririk.

Eta Gerriko zaharraren garaietan, hona non dugun bigarren idazle, pedagogo eta jakitun Argien Mendeko jakitun bat eta bere sorterrria beti oso gogoan izan zuena: Luis Astigarraga.

5.2.2. *Luis Astigarraga (1767-1840)*

Erabat ahantzia izan ez bada ere⁶⁷, Luis Astigarraga Ugarte segurarrak (1767-1840...) ez du izan orain arte, euskal kulturaren historialarien lanetan, bidezko aitortzarik. Ez diogu hau, noski, literatur gizona delako, hizkuntzari eskoletan –eta une hartako testuinguruan, eta inoren eskutik geroago ere– bere bultzada kulturala eman ziolako baizik.

Astigarraga nortasun zabaleko gizona izan zen: Koroaren zerbitzuan jardun zuen Penintsulako eta Ameriketako Administrazioan, Montesako Ordena Militarrekoa izan zen, Irungo Aduanetako Diruzain Nagusia, Pariseko Irakaskuntza Lagunartekoa, etab. Eta, guztien gainetik, Gipuzkoako Irakaskuntzaren hobekuntzaz biziki kezkatua.

Esanda dago horrekin zenbateko interesa izan dezakeen politikari eta pedagogo liberal euskaltzale honen biografiak. Hemen, aipatuta bakarrik utziko dut, hain zuzen etorriko den beste idazlan bat gaiaz bereziki ariko delako⁶⁸.

⁶⁷ Ikus Zalbide 1990: 226. Villasante 1978: aipu labur bat eskaintzen dio Astigarragari I61-I62 orrialdeetan.

⁶⁸ Idazlan horren lehen argitaraldiko xehetasunak: Intxausti 2008.

5.2.3. Jose Antonio Azpiazu (1800- c. 1875/1880)

Jose Antonio Azpiazu Barandiaran, Astigarraga bezala, maisua izan zen eta paisanoa: 1800ean jaio zen Seguran. Aita, Zumarragakoa zuen, eta ama, segurarra. J. I. Iztueta (1767-1845) dantza-maisu eta idazle ospetsuaren Maria Ignazia alabarekin ezkondu zen Azpiazu 1828an, Donostiako San Bizente Parrokian⁶⁹.

Azpiazuren ikasketen albisterik ez dut oraingoz bildu, baina badakigu maisua zela, eta Ataunen zegoela ogibide horrekin 1825-1828. urteetan; ondoko berehalako urteak Hondarribian eman zituen, hemen ere maisu-zereginetan, lanpostua lehiaketa batean irabazi ondoren (1829-1834) eta emaztea ere maisu-tran-lanetan bertan zuela. Iztuetaren 1845eko testamentuan Burgosko bizilagun bezala ageri zaigu Azpiazu, baina ostera ere Hondarribian maisu gisara aurki dezakegu 1856-1862etan, berriz ere lehiaketa baten bidez maisu-postua irabazi ondoren⁷⁰.

Ladislao Velasco idazle gasteiztarrak, Azpiazu hil ondoren idatzitako artikulua batean esaten digunaren arabera, segurarra ez zen nornahi⁷¹:

Profundamente versado en la lengua euskara, cuyo estudio gramatical le facilitaba su profesión de muy notable maestro, que ejerció en varias localidades del país, era, a no dudarlo, cuando lo hemos conocido hace muchos años, la representación y tradición más auténtica de ese pasado, y uno de esos últimos tipos populares cada día más raros entre nosotros.

Azpiazuk bi zaletasun berezi izan zituen, bata folklorea, Iztueta aitagi-narrebari jarraikiz, eta bestea, Aizkibel bere familiartekoarenetik zetorkiona, euskararena. Azpiazuri ezagutzen diogun liburu bakarra 1858an eman zuen argitara, Donostian, eta erdaraz dago: *Descripción de las diversiones públicas* (Azpiazu 1858).

Segurako euskara bere jatorrizko hizkuntza zuen Azpiazuk, eta Iztueta eta Aizkibelen familiartekoa zen hau Luis Luziano Bonaparte Printzeak lankidetzat hartu zuen; harro agertzen zaigu Azpiazu Printzearen hobespen honekin⁷².

⁶⁹ Azpiazuren jaiotza-urtea P. J. Aranbururi zor diogu, eta berdin, ondoren datozen datak ere. Ikus Elo-segui 1969: 205-206. Ikus, gainera, Iztuetaren familia: Garmendia Arruabarrena 1995: 181-182.

⁷⁰ Datuok P. J. Aranbururen eskutik jaso ditugu, artxibo-agirien fotokopiekin batera.

⁷¹ Velasco 1885: 419.

⁷² Velasco 1885: 420.

Bonaparteren talde hau oso zabala izan zen, eta lankideetan batzuk urtetako lan zabala egin zioten ikertzaileari, euskara bere osoan eta euskalkietan deskribatu ahal izateko⁷³. Gipuzkoarren artean Otaegi zegamarra eta Iturriaga hernaniarra egon ziren, lankiderik onenen artean. Bereziki gogoratzekoa da, gainera, Uriarte frantziskotar bizkaitarraren ekarpena, beronekin zerikusi zuzena izan baitzuen Azpiazuren lankidetzak⁷⁴.

Azpiazu, esan bezala, Printzearen lankideetako izan zen, eta ezaguna da bien artean izan zuten posta-harremana, gorde izan diren gutunetan ikus daitekeena⁷⁵. L. L. Bonapartek 219 argitalpen egin zituen Europako hamar eta gehiago hizkuntzatan, eta 219 lan horietako 68 euskarari eskaini zizkion. Lan eta dirurik franko eman zuen Bonapartek zeregin honetan.

1859an, kaleratutako obra bakar batean hartu zuen parte Azpiazuk: *Biblia eta Testamentu Zar eta Berria* [...] *latiñezco Vulgatic lembicico aldiz Guipuzcoaco euscarara itzulia*⁷⁶. Liburu honek badu orain berrikitan argitaraldi eskuragarriago bat ere (1991)⁷⁷. Aski luzea zen itzulpena, eta Aita Uriarte zen beraren itzultzailea. Zergatik eta zertan izan zuen, bada, eskurik gure Azpiazuk?

Ordura arteko lankide nagusienak gogoratuz, esan dezagun Uriartek argitarara emanda zuela Bonaparterekin beste lanik ere: adibidez, *San Mateoren Ebanjelioa* (1857), *Apokalipsia* (1858), biak bizkaieraz; *Canticum Canticorum* (1858), latinez, bizkaierazko bi euskalkitan eta gipuzkeraz (denak batera); *Apokalipsia* eta *San Mateoren Ebanjelioa* (biak: 1858), gipuzkeraz. Bide luzea eginda zetorren, beraz, Uriarte, baina bera jatorrizko euskalkiz bizkaitarra zen (Arrigorriagakoa), ordura arteko lanetan bezala gerokoetan ere giputzen baten laguntza beharko zuen, bizkaitar langile porrokatu honek. Gipuzkeraren eus-

⁷³ Obra eta lankidego hau ezagutzeko hona zenbait argitalpen: Pagola 1991; González Echegaray; Arana Martija 1989; Arana Martija 1991. Ikus Aranburu et al. 1993: 50-51 (“Bonaparteren lan-taldea”).

⁷⁴ Pagola 1993.

⁷⁵ Bonaparteren “euskal” historiarako: Vilallonga 1957. Bonaparte eta Azpiazuren arteko gutunak haren eskuizkribuen artean daude, Bizkaiko Aldundian: ms-467: *Correspondencia de... Príncipe Bonaparte...*: Proc.: BDV m/s Bnv-39, microfilm 2 C 40 (ikus González Echegaray; Arana Martija 1989: n° 467). *The Athenaeum* aldizkarian eman zuen Printzeak Azpiazuren lankidetzaren berri: Bonaparte 1862 (ikus Arana Martija 1991: 129. zenb.). Azkenik, begira Urquijo 1908-1910: gutunak, Etxenike nafarrari zuzendutak dira).

⁷⁶ Argitalpen-azalean honela zioen: *Biblia eta Testamentu Zar eta Berria aita José Antonio de Uriartec latiñezco Vulgatic lembicico aldiz Guipuzcoaco euscarara itzulia. Luis Luciano Bonaparte principeac eta don José Antonio Azpiazu guipuzcoatarac lagundurik. Londres: Strangewys and Walden, 1859, 128 orrialde.*

⁷⁷ Bonaparte 1991, IV: 309-437.

kalki-segurtasunaren bila jo zuen Bonapartek Azpiazurengana, euskalki-zuzenketak egin zituan⁷⁸. Uriartek eta Azpiazuk 1858ko udan Londresera joan behar izan zuten, Printzearekin lan- eta metodo-baldintzak zehaztera.

Hurrengo urtean inprimatu ahal izan zen Azpiazuk bere lankidetzan eman zion testua, Uriartek egingo zuen Biblia osoaren itzulpen-proiektu bateko lehen zatia zena⁷⁹, goian aipatu dugun tituluarekin. *Testamentu Zabarreko* lehen liburuetatik “Genesisia”, “Exodoa” eta “Lebitikoa” (azken hau, ez dena) jaso zituen edizio honek. 25I aleko edizioa egin zen. Bonapartek garbi esaten digunez, Uriarterena zen itzulpena, eta Azpiazuk bere zuzenketa-ekarpena egin zuen hor⁸⁰.

Bukatzeko, esan dezagun, Bonapartek hautatua izatearen ohorea izan zuela Azpiazuk, eta testu jakin bat gipuzkeraz finkatzen lagundu ziola Printzeari, beronen lankide handienen artekoa izatera iritsi gabe eta, esate baterako, K. Otaegi zegamarraren tamainako ekarpenik egiteke⁸¹. Dena den, apala izan arren, gogoan izan beharko dugu euskalaritzaren eta euskal dialektologiaren une historiko seinlatu hartan gipuzkera idatzia finkatzeko segurar honek eskaini zuen laguntza.

5.2.4. *Joan Bautista Aierbe (1859-19??)*

Segurako euskalgintza kulturalaz ari garen honetan, bada izen bat, arrazoi berezi eta elkar-osagarriengatik, nahitaez aipatzekoa dena: Joan Bautista Aierberena. Joan Bautista ez zen jaio Seguran, baina soberako merituak egingo zituen segurarrok aintzakotzat har genezan.

Joan Bautista Ataunen sortu zen eta hango Bataio-agirietako “Joan Bta. Ayerbe Aguirre” da, inondik ere. Segurako udal Idazkari izan zen (1908-1922. urteetan, gutxienez) eta bertako Udaletxeari, Segurako herriari eta beronen iraganari lotua geratu zaigu Aierberen izena. Hautapen pertsonal honegatik, dagokion lekua zor diogu gure Idazkari izandakoari.

XX. mendean Segurari buruz zerbait jakin nahi izan duen orok Aierberen lanak begiratu behar izan ditu, Gipuzkoako historialari orokorrek zekartena

⁷⁸ Villasante 1961: 261-262.

⁷⁹ Uriarteren gipuzkerazko Biblia osoa Gipuzkoako Aldundiko Bonaparteren eskuizkribuen artean dago (González Echegaray; Arana Martija 1989: 135-142, 144-151, 190. zenb.). Orain gogoan izan behar da jada aipatu duguna: Pagola 1991: I. Arana Martija 1991: 899. zenbakian ikus daiteke Uriarteren Bibliako itzulpen-lanaren kronologia.

⁸⁰ Arana Martija 1991: 899. zenb.

⁸¹ Aranburu et al. 1993: 50-55.

bildu orduko. Aierberen histori ikerketak eta euskaraz eman zizkigun literatur lanak 1911ko Euskal Jaien ondoko argitalpenetatik ezagutu zituen euskal irakurleagoak, Donostiako euskal aldizkarietan. Gregorio Mujika egon zen honen guztiaren sorreran.

Segurako Udal Artxiboan bada espediente bat, 1911ko Euskal Jaien inguruko paperak biltzen dituen, eta Mujikak Aierberi egindako eskutitz bat ageri da bertan, Aierberen orduko kezkak agertzeaz gain, zenbait euskaltzalek garai haietan izan zitzakeen eragozpenak azaltzen dizkiguna. Ikusi dugu nola Jai haietan idatz-lehiaketa bat ere jarri zuen *Euskal-Esnalea* aldizkariak. Hasiera batean, Segurako Udala Jai haiekiko nahikoa hotz agertu baldin bazen, ez zen hori Aierberen kasua, bertan parte hartzeko prest ageri baitzaigu, esku artean zituen lanekin herriko iragana goraiatuz. Baina nola idatzi behar zituen lanak? Euskaraz ala erdaraz?

Une horretan G. Mujikak eztenkatuko du gure Aierbe, lehendik dauzkanak gorabehera, Lehiaketarakoak euskaraz egin ditzan. Testua zinez interesgarria da, Gregorio Mujikak 1910-1930. urteetan egindako lanaren funtsa eza-gutzeko, eta bere harremanetan jendea euskaltzalezen nola ahalegindu zen jakiteko (*avant la lettre*, Aitzol bat izan zen Mujika Errepublik-aurreko bi hamarkada haietan); honela idatzi zion Aierberi Hondarribitik, 1911ko uztailaren 6an⁸²:

Siento realmente mucho que hayas estado dos años pensando en hacer o haciendo un trabajo sobre hijos ilustres y no se te haya presentado ocasión de darlo a conocer como tú lo deseabas. Cualquiera que hubiera organizado el Concurso, te hubiera pasado lo mismo porque me dices en tu carta que pensabas presentarlo al Certamen, si se hubieran admitido trabajos en castellano. Jamás, amigo Juan Bautista, a estos Concursos anuales se han admitido trabajos en castellano. Su objeto es propagar el vascuence. ¿Para qué trabajar en castellano? Te repito que no se han admitido.

Baina ezezko horrekin ez zen amaitu Mujikak Aierberen gain egin nahi zuen lana: Seguraz ikerlanak egiten ari zena, euskaraz idazten jar zedila nahi zuen *Euskal-Esnalea*ko zuzendariak, eta zera gehitu zion jarraian:

⁸² SUA: B Sek., 3-4. Neg., I. Lib., 4. Esp. (6 de Julio de 1911).

Lo que me extrañó mucho es tu modo de proceder porque viste que en el Certamen no figura el tema de Hijos Ilustres. ¿Por eso te enfadas hasta el punto de renegar de tu trabajo y de prometer [no] hacer nada en adelante? ¡Ay amigo mío! Estás divertido si piensas así en la vida. Hay que tomar las cosas como son y ajustarse á los hechos consumados. Tu camino no debe ser ese: debe ser otro. Ya que tu tema predilecto no figura en el Certamen, elige otro y duro con él. ¿No puedes tú hacer un trabajo sobre el vascuence de Segura?⁸³ ¿No puedes escribir mejor que nadie acaso sobre la iglesia de Segura? Seguro estoy de que en ese archivo tienes datos suficientes para hacer el trabajo.

Y no me digas, como me digiste por teléfono, que no se puede decir en vascuence retablo, arte gótico, etc. Cada uno se las apaña como puede, amigo. Si estuvieras por aquí ya te enseñaría yo libros en los que estuviera escrito todo eso. Y créeme que si eso es difícil, no es más fácil, al hablar de “Hijos Ilustres”, decir veedor general, caballero de la Orden de Alcántara, Sargento mayor, etc. [...]. Trabaja ajustándote á lo que se pide. En último caso, presenta tu trabajo sobre “Hijos Ilustres”, fuera de Concurso [Lehiaketako gaia ez zelako, noski], pero en vascuence, porque en castellano nada se admite.

Garbi zeuden bizpahiru gauza: Euskal Jaiak euskara sustatzekoak ziren, eta euskaraz egitekoak; Aierbe gai zen Segurari buruzko bere lana euskaraz egiteko. Gidari ona zen Mujika, eta zera esanez bukatu zuen eskutitza: “Haz el favor de contestar cuanto antes a mis preguntas, y procura avisarme cuándo vienes a San Sebastián”.

Mujikaren lagun-eraso dialektiko honek jarri zuen berriz ere lanean gure Aierbe Idazkaria, eta ikusiko ditugun lanak, beren apalean ere, horren emaitza izan ziren, Sail ezberdinetan saritu zizkietenak: “Segurako Eliz nagusiaren berri azalgarriak” (Mujikak iradokitako gaia) eta “Ezkonduko al naiz?”, Segurako hizkeran emandako bakarrizketa.

Aierbek hiru lan utzi dizkigu argitara emanda: aipatutako biak eta “Alperrikako damuba” bakarrizketa, aldizkari berean emana. Urte asko geroago, eta noren eskutik ez dakigula, *Hijos Ilustres de Segura*, Aierbek gaztelaniaz idatzitakoa, euskarara itzulita argitara eman zuen Gipuzkoako Aurrezki Kutxak,

⁸³ Ikusi dugunez, Euskal Jai haietara Joan Ignacio Garmendiak bidali zuen herriko euskarari zegokion azterlana, saria irabaziz: Garmendia 1911.

jatorrizko testuarekin batera (1978): *Herriko seme ospatsuak-Segura*. Ez dugu jakin ahal izan norena den itzulpen hau. Hau da Aierberen liburu bakarra⁸⁴. Aierberi Gregorio Mujika ormaiztegiarraren gutunean eta Donostiako *Euskal-Esnalea* lagunartetik iritsi zitzaion euskalgintzarako deia, eta bultzada-aldi hura baretu zenean, Segurako Idazkariak ez zuen idazten segi.

Azpiazu eta Aierberi buruz ari garela, ez litzateke zilegi izango *euskal idazleak* izan zirenik esatea, oso gutxi idatzi baitzuten, eta lan hasikinak: baina euskaltzale segurar moduan aurkeztuta utzi nahi genituen behintzat, hizkuntzaren une jakinetan eta inguruabar ezberdinetan lanean jardun zutelako; baina inola ere ezin daitezke bi horiek Gerriko edo Astigarragaren parekotzat eman.

5.2.5. *Jesulagunak: Lardizabal, Zubiaga, Goena*

Idazle segurarren artean badugu zenbait idazle kanpoko giro eta ikastegietan prestatu eta lan egin zuenik. Oro har, hau izan zen XX. mendeko erlijiosoen kasua. Alde horretatik, honelakoan artean eman behar dira jesulagun segurarren egindakoak, emandako emaitzen aldetik beren artean berdintasun handirik izan ez duten arren⁸⁵.

Lehendabizi, *Pedro Lardizabal* da aipatu nahi duguna. Familia segurarrekoa zen (jesulagunen artean segurar bezala aipatua, gainera), baina jaiotzez Lapurdiko Ziburukoa, herri honetan 1880ko uztailaren 13an sortua.

Hamabost urte bete zituen egunean sartu zen Jesusen Lagundian, Loiolan (1895), eta han-hemen egonaldi laburrak egin ondoren (Burgos, Oña, Urduña eta Manresa), 1912an Deustura bildu zen, idazle bezala lanean jarduteko (Lagundiko bere *curriculum* ofizialean *escritor* eginkizuna egozten zaio), eta luma-lan horretan jarraitu zuen Deustuan lehenengo (1912-1920) eta Burgosen gero (galde daitezke azken hiri honetara zergatik bidali zuten ere: Euskal Herriatik urruntzeko ote?)⁸⁶. Donostian hil zen, azkenik, 1928ko apirilaren 28an.

⁸⁴ Ikus Aierberen erreferentzia bibliografikoak lan honen amaierako bibliografian, "Ayerbe" izenarenean. Segurar ospetsuei buruzkoak (Ayerbe 1911-1912) 1912an aparteko edizioa izan zuten, liburu moduan (San Sebastián: Imprenta de Martín Mena y Compañía [gaztelaniaz]). Bigarren argitaraldia, euskarazko itzulpenez osatuta, askoz berriagoa da: Ayerbe 1978 (84 orrialde ditu: jatorrizkoa + itzulpena).

⁸⁵ Eskerrak zor dizkiot Aita Isidro Sans-i, Loiolako Probintziako artxibozainari, Segurako jesulagunei buruz eman dizkidan xehetasun guztiengatik. Ondoren agertuko diren data biografikoak berak jarri dizkit eskuera. Mila esker.

⁸⁶ Onaindia 1972-1990, III: 125.

Aita Pedro Lardizabal *Jesus'en Biotzaren Deya* aldizkariko lehenengo Zuzendaria izan zen (1917), eta bertan idatzi izan zuen 1920a arte⁸⁷. Lardizabalen idazle-lana aztertzeko dago oraindik, baina dena den, beraren euskal ibilera *Jesus'en Biotzaren Deyaren* inguruan jarri behar da. Eusko Pizkundeko giroan sortu zen aldizkari hau Bilbon, eta Jesusen Lagundiko gazteen emaitza izan zen, neurri handi batean, baina K. Basabe edo Lardizabal bezalako helduagoek eman zioten beren seriotasun-bermea⁸⁸. Gerotxoagoa, 1920. urteetako erdi aldera, zegamar bat ere tartean izango zen, oso langile gainera: Aita Jorke Agirre.

Nahiz eta aldizkaria Bilbon agertzen zen, lehenengo zenbakietan Segurako albisteren bat edo beste badago, Jesusen Bihotzaren jaia herrian nola bizi zen aditzera emanez eta herriko familiak izendatuki aurkeztuz. 1918an Jesusen Bihotza Segurako Udaletxean jarri zenean, ekitaldiak Bilboko aldizkari honetan izan zuen oihartzuna. Urte haietan Jesulagunak eta P. Lardizabalek berak nahikoa sarritan lan egin izan zuten Seguran (ez da ahantzi behar Zurbanotarrek ere Lagundiarekin zuten lotura)⁸⁹. Seguraz diharduen berriemate batean “gure Aita Lardizabal” bezala aipatzen da Aita Pedro.

Bilboko aldizkari horren orrialdeetan, Lardizabalek, alde batetik, atal editoriala idatzi izan zuen (hileroko “Asmoa” zeritzana), bestelako artikulua erlijiosoak eta, bestetik, “Gazi-gezak” saila. Lardizabalen lan zainduenak bizkaieraz idatzita agertu ziren.

Jesus'en Biotzaren Deyako idazleen artean dugu Lardizabalen kasik hurrengo belauneko den bigarren jesulagun segurak bat ere: *Mikel Mari Zubiaga Imaz*⁹⁰. 1903ko irailaren 29an etorri zen mundura Seguran, beste zazpi senideko familian.

Hamasei urte zituela sartu zen Lagundian, Gasteizen Batxilergoa burutu ondoren (1920). Apaiz-ikasketak amaitu aurretik, Espainian Lagundia desegitean, erbestera joan behar izan zuen gainerako ikaskideekin, Belgikako Marneffe-ra, eta 1934an apaiztu zen. Euskal Herrira itzulita (1936), hemen eman zuen gainerako bizialdia, Las Palmas eta Logroñon bizitako urte gutxiak salbu (1944-1950), lehenengo Loiolan (1950-1963) eta Donostian gero

⁸⁷ “Bera izan zan gure DEYA onen lenengo zuzendaria”: *Jesus'en Biotzaren Deya* XII, 1928, 96.

⁸⁸ *Jesus'en Biotzaren Deya*-ren inguruko zertzeladak ezagutzeko, Onaindia 1972-1990, III: 123-129; V: 145-152. Iztueta 1991: 490-494.

⁸⁹ E. Zurbanoren bi seme, Migel eta Ramon (hau, 1949an Loiolan hildakoa), jesulagunak izan ziren; horregatik, Segurako Zurbanotarren artxiboaren parte bat gaur Loiolako Artxiboan gordetzen da.

⁹⁰ “Mikel Mari Zubiaga” da liburuetan darabilen sinatzeko era, eta horrela emango dugu hemen ere.

(1963-1992), azken hilabeteetan Loiolara erretiratu. Santutegi honetan hil zen 1992ko urriaren 11n, 89 urte beteta.

Aita Zubiaga hamabiren bat urtetan irakaslea eta hezitzailea izan zen (1936-1948), eta ondoko hamarkadak eliz pastoralean eta herri-misiolari gisa eman zituen (Donostiatik batez ere). Euskara eta gaztelaniarekin batera, frantsesa, ingelesa eta alemana ere bazekizkien. Bestalde, hizlari estimatua zen.

Bere idazle-lanean, bi garai ezberdin izan zituen Zubiagak: gerraurrekoan, aldizkarietan idatzi zuen (*Jesus'en Biotzaren Deya*, *Ekin*, *Argia*, eta *Argia'ren Egutegia*)⁹¹, eta gero, bere zahartzaroan eta urtez aurreratua zelarik (70-80 urterekin), berriro heldu zion idazle-lumari, oraingoan liburuak argitaratzeko. Hemen aipatu ditugun idazle segurarreratik euskarazko libururik gehien argitara eman duena Zubiaga dugu, sei bederen kontatu ahal izan dizkiogu eta.

Liburuen tituluek berek erakusten digute Aita Zubiagak zein kezka zituen azken urtetan eta ingurutik zer eskatzen zioten⁹²: *Zorion-bidea*, *Aurrera beti!*, *Indar-iturria*, *Goizeko izarra*, *Bizitz-arrats zorionsua* eta *Maite-garraren txinpartak*. Ez dira lan erraldoiak, saiakera erlijiosoari eskainitako testu laburrak dira, baina bere giza eta apaiz esperientziatik ikasitakoa ematen argia eta atsegina da Zubiaga.

Urtetan gora joan arren, Zubiaga lanez estu ibili ohi zen, nonbait, eta testu hauetako gehienak asti eroririk gabe idatzitakoak dira, berak behin eta berriz esaten digunaren arabera⁹³. Zubiagaren lumak idazkera urduria du, perpausa oso motzekoa; ezagutzen dituen euskalkietatik guztientzakoa izan daitekeena biltzen saiatzen da idazlea⁹⁴. Idazle distiratsua izan gabe, argitasuna da bere dohainetako bat, ulerterraztasuna. Eta irakurleek eskertu egin zioten hori. (Hizkuntza txukuntzen inoiz lagundu zion Yon Etxaidek ere, berak aitortzen digunez, baina ez dakigu zenbaterainoko laguntza izan zen hori)⁹⁵.

Kristau-mezua zabaltzea da Zubiagaren xede nagusia, betiere berak ongi ezagutzen zuen bere helduaroko Euskal Herriari hitz eginez. Hainbat hizkuntza zekienez, atzerriko bibliografia aurrean zuela egin zuen lan: adibidez, Ebanjelioko "Zorionbideak" azaltzeko, ondoko hauek erabili zituen: Bover-en *Bienaventuranzas*, Lynch-en *The Sermon of the Mount* eta Staudinger-en *Die Bergpredigt*.

⁹¹ Begira, adibidez, *Jesus'en Biotzaren Deya* X, 1926, 136-141, 292-293, 363-368, 276-278, 331-338.

⁹² Zubiaga [1975] 1984³ (124 orrialde); Zubiaga 1978 (227 orrialde); Zubiaga 1979 (200 orrialde); Zubiaga 1980 (238 orrialde); Zubiaga 1982 (140 orrialde); Zubiaga 1983 (138 orrialde).

⁹³ Zubiaga 1978: 8-9; 1980: 11.

⁹⁴ Zubiaga [1975] 1984³: 11-12.

⁹⁵ Zubiaga 1978: 225.

Baina teoria orokorretatik baino berak pertsonalki euskal gizartean izandako bizipenetatik mintzatzen da Zubiaga. Horregatik, bertatik bertarako hurbiltasuna sumatzen zaio Zubiagaren prosari.

Gure artean liburu-mota honetan ikusi izan den onarpen soziala begiratu gero, Zubiagarenek nahikoa arrakasta izan zuten, eta nahikotxo ere. Idazlea bera mintzo zaigu horretaz bere liburuetako hitzaurreetan. 1974ko *Zorion-Bideak* 4.000tik gora aleko argitaraldia izan zuen eta laster agortu zen liburua, berorren bigarren edizioan esaten digunez. Batez ere Gipuzkoan saldu zen argitalpena (29 herritan), baina baita Nafarroan (14) eta Bizkaian ere (3). Bide batez, datuok Zubiaga bere predikari-ibileran nondik nora ibili ohi zen ere erakusten digute, herrien izenak izendatuki ematen baititu⁹⁶. 1980an aurreko hiru liburuak agortuta zituen, gainera, eta lehenengoa hirugarren argitaraldira zihoan jada; egilea hil eta gero ere, 1980ko *Goizeko izarrak* bigarren edizio bat ezagutu zuen (1994).

Arrakasta hori gorabehera, Zubiagak euskal irakurleko urriarekiko kezka biziak agertzen ditu: errazago da dirua baso-erdtan eman liburutu baino! Horregatik, pozik jakin zuen J. M. Barandiaranen etxean Arrosario ondoan bere liburu bat irakurtzen zutela. Zorionez, inoiz aurkitu omen zuen artzain nafar bat F. Lardizabalen *Testamentu Zarreko eta Berriko Kondaira* osorik ehunen bat bider irakurritakoa!⁹⁷.

Zubiagaren liburuak gai jakin baten inguruan buruturiko gogoeta kristauak dira, betiere herri-herriari begira landuak: zoriona, zahartzaroa, eukaristia, bizitzaren zentzu kristaua... Mendebaldeko kultura greko-erromatar-kristauean dute beren funtsa: zahartzaroz jardutean, Zizeronen *De senectute* edo Kempis-en idazkiak ditu idazleak buruan.

Inoiz, Segurako oroitzapenak ere ageri zaizkigu Mikel Mariren orrialdeetan. Gogoan du, adibidez, hamarkadatan herriko Bikario izandako Prudentzio Arrieta Bidaola segurarra, herritarren artean egindako bake-lanagatik⁹⁸.

Bukatzeko esan dezadan, jesulagunen arteko euskalgintza eten batekoa zela Zubiaga: 1920ko urteetan euskaltzaletua, Belgikan Lagundiko Ikastegietan zaildu eta hezia⁹⁹, gero frankismoak euskal kulturgintzarako bideak moztu

⁹⁶ Zubiaga 1976²: 13, 14.

⁹⁷ Zubiaga 1980: 14, 235.

⁹⁸ Zubiaga 1978: 175, 227.

⁹⁹ Ikusi ahal izan dugu Zubiagak Marneffe-tik euskaraz J. Urkixori idatzitako gutun labur bat, hango ikasle gazteei emandako laguntzagatik jaun honi eskerrak emanez (oker ez banago 1934koa da berori).

zizkiona, baina, kasu honetan, bere adin helduan eliz jardunean euskarari leialki eutsi eta zahartzaroan berriro luma-lanera itzulirik bere emaitza eman zuena. Hori dena esatean, bere lagunak zituen *Euzko Gogoako* haiek eta besteak gogorazari behar ditugu: Zaitegigandik hasi eta Aita Plazido Mujikaganainokoak.

Zubiagak ibilbide propioa bete zuen, suertatu zitzaion garaian, jatorrizko bere ama-hizkuntzarekin eta euskaldungoarekin leial jokatu.

Jesulagunen hau bukatzeko, Aita *Karlos Goena* (Segura, 1922) ere aipatu nahi nuke, eta ez mediku-psikiatra den aldetik, euskarari laguntzeko hizkuntzaren lexikoan bere garaian egin zuen ahaleginagatik baizik. Ikastolak sortu eta aurrera zihoazela, gero eta nabariagoa izan zen Zientzietarako euskal terminologia landu beharra, eta Goena medikua denez, giza anatomiako hiztegi zabala eskaini zigun 1973an, arretaz argitara emandako liburu batean¹⁰⁰, zalantzarik gabe geroko euskal hiztegi gintzan askotan begiratu izan dena¹⁰¹.

5.2.6. *Euskal kazetariak: Prentsa, Irratia, Telebista*

Euskarari, oro har, bere erabilpen sozialerako egokiera berriak sortu zaizkionetik batez ere (baina 1960. hamarkadatik hasita ere bai), segurarrak samurrago izan dute beren euskara biziiaz baliatuz herrian nahiz kanpoan lan egitea. Besteak beste, hemen espresuki segurar euskal kazetarien jardura aipatuta utzi nahi dugu (tituludunena eta titularik gabekoena).

Lehen aipua *Segura Irratiko* langileei zor diegu, urte luzetan euskaraz ere jardun dutelako. Ezin ditugu denak aipatu, baina denbora luzeagoz ari izandakoen izenak bederen ekarri nahi ditugu hona.

Irratiaren lehen aldikoak, lehendabizi (1956-1964): On Zesareo Elgarresta apaiza, bergarar segurartua, Irratiaren sortzailea eta Zuzendaria (1956-1964), eta beronekin batera Milagros Elortza eta Luzia Imaz, Josu eta Gregorio Etxeberria ere mikrofono aurrean zirela.

Bigarren aldiko hogeita hamar urteak aurten beteko dira. Zuzendaritzan elkarren segidako izenak hauek ditugu: On Zesareo Elkarresta (1972-1980), On Jose Elgarresta (1980-1998), Milagros Elortza (Zuzendari-ordea: 1998a arte), Nikolas Iparragirre (1998...), M^a Karmen Elortza (Zuzendari-ordea: 1998...).

Zuzendari eta zuzendari-orde horien ondoan, eta beroriekin batera, mikrofono-aurreko lanetan denbora luzez jardunak ditugu, eta Goierrin ahots ezagu-

¹⁰⁰ Josu Oregiren eta Ambrosi Zatarainen lankidetzan burutu zuen lana, liburuan aditzera ematen denez.

¹⁰¹ Goena 1973 (24I orrialde).

nak dira, besteak beste hauenak: M^a Jesus Telleria, Itziar Galparsoro, Iñigo Etxenike, Jose Anjel Igartzabal edo Lierni Elortza. Guztien artean jada bete dute Seguran eta Seguratik euskararen historia mintzatuaren kapitulu zabal bat, entzule leialak dituen komunikabide honen bitartez.

Eta horien ondoan Seguratik kanpo Prentsa, Irrati eta Telebistetan lan egiten dabiltzanen lanak euskalgintzari herritik egiten zaizkion ekarpena dira. Euskal Telebistan euskaraz jardundakoak dira Aitor Ugalde (1988-1991) eta Amaia Etxeberria (1991...), azken hau lehenagotik Euskadi Irratian (1988-1990) eta Herri Irratian ibili ondoren (1990). Euskal Prentsa idatzian ere aritu izan da zenbait kazetari, eta badihardute gaur egun ere: *Euskaldunon Egunkarian* Aitor Ugalde (1992-1998) eta Enekoitz Telleriaren (1998...) sinadurak ageri dira, eta *Goierriarran*, oster, Joseba Telleria da herriko albisteak jaso izan dituen.

5.3. Ikerkuntza: Pello Agirre

Segurar batzuen euskararekiko ardura ikerlanetara ere iritsi da, eta honetan adibiderik interesgarriena beharbada Pello Agirre Sarasolarena dugu (Segura, 1966).

Euskal Filologia Deustuko Unibertsitatean burutu zuen, eta Patxi Altunaren maisu-gidaritzak eraman zuen euskal testu zaharrak aztertzerara. Eusko Jaurlaritzaren beka irabazi, eta doktore-tesiari heldu ahal izan zion (1989-1993). Horretan hasita, zazpi urte eman zituen zubererazko testuak aztertzen, harik eta 1997an bere tesi hori aurkeztu zuen arte: *A. Belapeire: Catechima laburra (1696)*. Idazle horren garaiaz, nortasunaz eta obraz dihardu ikerlan honek, katiximaren edizio kritikoa eta hiztegia ere eskainiz.

Horren ondoren, Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian eman du bere ikerlanen berri, eta euskal filologiako *ASJU* aldizkari berezitan aurkeztu du beste ikerlanik ere. Liburu honetan, bera izan da herriko hizkerari buruzko lana bideratu duena, beste bi lankiderekin batera.

Halakorik eskatu zaionean, Euskaltzaindiaren *Euskal Herriko Hizkuntza Atlaseko* talde-lanetan ere parte hartu du, lan osagarriren bat edo beste egiten. Ikus daitekeenez, testu zaharrak finkatzea eta edizio kritikoa prestatzea izan dira batik bat Agirreraren filologi lanak.

Dialektologiari eta itzulpengintzari ere eskaini dizkie bere lanorduak, eta 1997tik hona Nafarroako Parlamentuan eta Gobernuan ari izan da, berorien itzulpen-bulego ofizialetan.

6. Atzera begiratu laburra

Ikusi dugun herriko euskal iraganari atzera begiratu bizkor bat emanez gero, laster ohartuko gara Segurako eta segurarren euskaltasunaren, euskaltzaletasunaren eta euskalgintzaren alde hauetaz.

Gure iragan ezagunean, Segurako herria euskalduna izan da, nahiz eta ikusi ditugun zerbitzu jakin batzuetarako kanpoko erdaldunik ere etorri den, edo bideko bere kokagune ezagunagatik gure kaleetan bestelako hizkuntzarik ere entzun den.

Baina herritarren euskara hori bere osotasunean eta egunerokotasunean ez da isplitatu herriko mundu ofizial idatzi arruntean (Udaletxea, Eliza, etab.), nahiz eta gune horietan ere euskara mintzatuak etengabeko presentzia izan duen.

Euskararen mugapen horrek ez du esan nahi, ordea, noizbehinka hizkuntzaren eskakizun ofiziala ere agertu ez denik (hautagai ziren mediku eta mai-suentzat bereziki); dena den, puntu hau oso aztertzeko dago oraindik.

Segurar gutxi batzuek Aro Garaikidearen atarian, eta abertzaletasunaren aurretik ere, euskararen balio herritar eta eskolatuaz kontzientzia goiztiarra izan zuten: horren lekukorik onenak Jose Ignazio Gerriko apaiz idazlea eta Astigarraga pedagogo eta aldi batez herriko Alkatea izan ziren.

Oraindik guztiz argitu gabe dauden zalantza batzuen ondoren (1910), Segurako udal politikan joera euskaltzale berria sumatzen da, herritarren borondateari eta kanpotik ere bazetozen haize berriei erantzunez.

Dirudienez, gerraondoak (1939-1950) ez zuen Segurako euskaltasuna bereziki eta zitalegi jo, eta, 1940ko hamarkada-erditik edo, urak hizkuntzaren alde mugitzen hasi ziren herrian, euskal giroa beste eremu batzuetan indartzen hasi zen neurrian (dantzariak, pilotariak, txistulariak, korua, etab.).

Herriko familiek ongi asmatu zuten seme-alabei beren euskaltasuna pasatzen, eta hainbat kasutan baita euskaltzaletasuna ere, gero bakoitzak bere auke-ra, indar eta borondatearen arabera garatu ahal izango zuena.

XX. mendeko euskalgintza segurarrek herrian eta herritik at lagundu izan dute: alde batetik, Ikastola eta alfabetatzea, mota guztietako euskarazko azalpenak, elizkizunen euskalduntzea (latina utzita), euskal irratigintza, etab.; bestetik, segurarrek kanpoan ikasi eta/edo bizi izanda euskaltasunaren alde egin duten lana dago (andereño, irakasle, idazle, hizlari, predikari, etab.).

XXI. mendean sartzean, herriko euskaldungoa seguru ageri da, trinkoa, eta Euskal Herriko mapa soziolinguistikoan etorkizunik ziurrenetakoa erakusten du. Zalantzarik gabe, herriaren ondare monumentalak bezala hizkuntzaren

ondare honek (euskarak) kultura berriz eta modernitatez jantzi beharko du, eskualdeko (Aizkorpe) ezaugarri linguistiko arruntak zainduz (eguneroko erabileran, adibidez) ez ezik ohiko herri-kulturari euskarazko azalpen jasoak eta programatuak gehituz.

Herritarrek, segurarrek, dute hor azken hitza, ahal delarik Seguralde osoarekin batera.

BIBLIOGRAFIA

- Agirre, P. et al., 2003, "Segurako euskara" in Intxausti (ed.) 2003, 89-111. [N. B.]
- Arana Martija, J. A., 1991, *Bibliografía bonapartiana*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Aranburu, P. J. et al., 1993, *Klaudio Otaegi (1836-1890)*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Aranburu, P. J. et al., 1995, *Jose Ignacio Gerriko Enatarriaga (1740-1824) eta bere "Cristau Doctrina guztiaren esplaciaoaren sayaquera" (1858)*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Ariztimuño, J., 1930, "El niño vasco desheredado. (De Rentería a Segura)", *Euzkadi* (1930.eko ekainaren 15ean). [Berrarg. in Ariztimuño 1988, V: 30-31].
- Ariztimuño, J. (Aitzol), 1986; 1988, *Idazlan guztiak, I: Biografia eta bere ekintzaren alderdi nagusienak; V: Euskal kultura pizkundearen eta kristau gizartegintzaren eragile (I)*, Donostia: Erein.
- Arrue, A., 1956, "Gerriko", *Egan* 1956-3/4, 33-43.
- Astigarraga, L., 1825, *Diccionario manual bascongado y castellano, y elementos de gramática. Para el uso de la juventud de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa, con ejemplos y parte de la Doctrina Cristiana en ambos idiomas. Por D. Luis de Astigarraga y Ugarte, miembro de la Sociedad de Instrucción de París, y Director de la casa de educación ó Colegio establecido en esta Ciudad con aprobación de su M. I. Ayuntamiento. Necesaria pueris, jucunda senibus. Quintil. Con licencia. San Sebastián. En la Imprenta de Ignacio Ramón Baroja. Año de 1825.*
- Atxaga, M., 1996, *EAJ eta euskara. Ehun urteko bide malkartsua*, Bilbo: Fundación Sabino Arana.
- Ayerbe, J. B., 1911, "Ezkonduko al naiz?", *Euskal-Esnalea* I, 1911, 244-247.
- Ayerbe, J. B., 1911-1912, "Hijos Ilustres de Segura. Breves notas biográficas", *Euskalerrriaren Alde* I, 1911, 562-566; II, 1912, 106-112, 150-154, 212-217, 236-240, 270-273, 307-311, 332-336 y 359-366. [Berrarg., 1978, *Hijos Ilustres de Segura / Herriko Seme ospatsuak*, Segura, Donostia: Gipuzkoako Aurrezkia].
- Ayerbe, J. B., 1912a, "Alperrikako damuba", *Euskal-Esnalea* II, 1912, 675-679.
- Ayerbe, J. B., 1912b, "Segurako Eliz nagusiaren azalgarriak", *Euskal-Esnalea* II, 1912, 33-38, 45-50, 57-64.
- Azpiazu, J. A., 1858, *Descripción de las diversiones públicas de la Provincia de Guipúzcoa y en particular de sus bailes*, San Sebastián: Establecimiento Tip. Lit. de Pío Zuazua.

- Boletín Oficial de Guipúzcoa* LXXXIII, 1915, N° 2, 4 de enero de 1915.
- Bonaparte, L. L., 1862, "The Basque Language [A letter on José Antonio Uriarte, and José Antonio Azpiazu, and their task on the translation of the Bible into Guipuscoan dialect]", *The Athenaeum* XL, 1862, 629. (London).
- Bonaparte, L. L., 1991, *Opera omnia vasconice*, Bilbo: Euskaltzaindia. (Arana Martija, J. A. ed.)
- Elosegui, J., 1969, *Juan Ignacio de Lztueta (1767-1845)*, Donostia: Auñamendi.
- [Estornés Lasa, B.], 1969, *Literatura*, San Sebastián: Editorial Auñamendi. I, 290-292 .
- Euskalerriaen Alde* I, 1911; II, 1912.
- Euskal-Esnalea* I, 1911; II, 1912.
- Euskaltzaindia, 1978, *Euskararen liburu zuria*, Bilbo.
- Garmendia, J. I., 1911, "Segurako euskeraren ichura berezia", *Euskal-Esnalea* 20-21, 1911, 269-271.
- Garmendia, V., 1984, *La ideología carlista (1868-1876) en los orígenes del nacionalismo vasco*, San Sebastián: Diputación Foral.
- Garmendia Arruebarrena, J., 1995, *Juan Ignazio Lztueta, dantzarien maisu. Miscelánea*, Zaldibia: Iztueta Fundazioa.
- Goena, K., 1973, *Giza-bizia. Iztegia. Izenez ornitutako anatomi-irudiak / Vida del hombre. Diccionario. Atlas anatómico bilingüe*, Donostia: Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa
- González Echegaray, C.; Arana Martija, J. A., 1989, *L. L. Bonaparte. Eskuizkribuak-Argitarapenak / Manuscritos-Publicaciones*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Guerrico, J. I., 1858, *Cristau doctriña guztiaren esplicacioaren sayaquera, euscarazco platica edo doctriñetan partiturik, Don José Ignacio de Guerrico, Mutiloaco beneficiadua egiña. Desolatione desolata est omnia: quia nullus est qui recógitet cordê. Jerem. Cap. 12. v.11. Iruñeco Obispo Jaunaren baimenarequin. Lenengo liburua edo tomoa. Tolosan. Mendizabalen alargunaren moldizteguian. 1858 garren urtean.*
- Insausti, J., 2002, *Beti bertsoa buruan*, Oiartzun: Sendoa, Auspoa liburutegia 276.
- Intxausti, J., 1977, "Diez años cruciales: 1954-1964" in *Torrealday 1977*, 327-390.
- Intxausti, J., 1990, *Euskara, euskaldunon hizkuntza*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Intxausti, J., 2000, "Euskararen erabilpen-debeku eta -arauak lehen Gobernu frankisten eliz politikan (1937-1940)" in *Ormaetxea et al. 2000*, 193-230.
- Intxausti, J. (zuz.), 2001, *Arantzazu. Euskal Santutegi bat XX. mendean*, Arantzazu: EFA.
- Intxausti, J. (ed.), 2003, *Segura historian zehar*, Segura: Udala. [N. B.].
- Intxausti, J., 2008, "Luis Astigarraga Ugarte, politikari eta pedagogo euskaltzalea

- (Segura, 1767 – Gasteiz, 1840) in *Ikastaria. Cuadernos de Educación* 16, 2008, II-45. [N. B.].
- Jesus'en Biotzaren Deya*, Bilbo (1917...), Bilbo: Mensajero.
- López Antón, J. J., 2000, *Escritores carlistas en la cultura vasca. Sustrato lingüístico y etnográfico en la vascológia carlista*, Pamplona-Iruñea: Pamiela.
- Michelena, L., 1960, *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid: Minotauro.
- Múgica, S., 1908, “El vascuence en los archivos municipales de Guipúzcoa”, *RIEV* II, 1908, 725-733.
- Onaindia, S., 1972-1990, *Euskal Literatura*, Bilbao: Etor.
- Ormaetxea, Tx. et al., 2000, *Txillardegi lagun giroan*, Bilbo: UEU.
- Otaegi, L., 1990, “El proyecto cultural de Aitzol” in Insausti, J. et al., *Aitzol en su tiempo*, Bilbao: Fundación Sabino Arana.
- Pagola, R. M., 1991, *Luis-Luziano Bonaparte (1813-1891)*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Pagola, R. M., 1993, *Bonaparteren ondareko eskuizkribuak: gipuzkera*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Torrealdy, J. M., 1977, *Euskal idazleak, gaur*, Arantzazu: Jakin.
- Truchuelo García, S., 2003, “Seguraren botere politikoa Aro Modernoan” in Intxausti (ed.) 2003, 155-173. [N. B.]
- Ugalde, M., 1988, “Biografía de Aitzol” in Ariztimuño 1988, I: 19-105.
- Uriarte, J. A.; [Azpiazu, J. A.], 1859, *Biblia eta Testamentu Zar eta Berria aita José Antonio de Uriartec latíñezco Vulgatic lembicico aldiz Guipuzcoaco euscarara itzulua. Luis Luciano Bonaparte principeac eta don José Antonio Azpiazu guipuzcoatarac lagundurik*, Londres: Strangewys and Walden.
- Urquijo, J., 1908-1910, “Cartas escritas por el Príncipe L. L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores”, *RIEV* II, 1908, 215-221, 655-659; IV, 1910, 233-297.
- Urquizu, P. (ed.), 2000, *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid: UNED.
- Velasco, L. de, 1885, “Lingüística y lexicología”, *Euskal Erria* XII, 1885, 419-422.
- Vilallonga, J., 1957, “Introducción a un estudio sobre Luis Luciano Bonaparte y sus trabajos”, *Eusko-Jakintza* 7, 1957, 39-68.
- Villasante, L., 1961, *Historia de la Literatura Vasca*, Bilbo: Sendoa.
- Villasante, L., 1978, “Euskal literatura idatzia” in *Euskararen liburu zuria*, Bilbo: Euskaltzaindia, 189-208.
- Yturbide, P., 1908, “Le Registre Basque de la Commune d’Ahetze”, *RIEV* II, 1908, 386-398.
- Zalbide, M., 1990, “Euskal Eskola, asmo zahar bide berri” in *Euskal Eskola*

- Publikoaren Lehen Kongresua* (1989, Bilbo), Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, I, 211-271.
- Zalbide, M., 2007, "Pedagogoa Batzar Nagusietan. Hizkuntzen azterbideak, Iturriagaren argitan", *Euskera* 52, 2007-I, 61-157. [N. B.].
- Zavala, A., 1971, *Pastor Izuela (1780-1837). Ezkio ta Segurako Itxuak*, Tolosa: Auspoa, Auspoa liburutegia I06.
- Zubiaga, M. M., 1978, *Aurrera beti!*, Donostia: Izarra.
- Zubiaga, M. M., 1979, *Indar-iturria*, Donostia: Izarra.
- Zubiaga, M. M., 1980, *Goizeko izarra*, Donostia: Izarra.
- Zubiaga, M. M., 1982, *Bizitz-arrats zoriontsua*, Donostia: Izarra.
- Zubiaga, M. M., 1983, *Maite-garraren txinpartak*, Donostia: Izarra.
- Zubiaga, M. M., 1984³ [1975, 1976²], *Zorion-bidea*, Donostia: Izarra.

2

1950.ETATIK URTEEN HARIAN

1950ekoa izan zen gerraosteko belaun berria eskolan trebatu eta euskararen etorkizunaz jite berri batez arduratzen hasi zen hamarkada. Bestalde, zenbait Ikastetxetan, neurri mugatu batean, gazteek ezagutu ahal izan zituzten gerraurreko lanak; horrela, gerraondoak Hegoaldean sortu nahi izan zuen erabateko eten hartan segidaren katebegia gertatu zen belaun gaztea.

Euzko-Gogoa (Guatemala 1950, Miarritze 1956) aldizkariak zubi-betekizunean ez ezik goi-kulturaren euskalduntzean ere xede berriak proposatu zituen, edo zaharberritu behintzat. Zaitegi da egitasmo horretan ahotsik argiena eta sakrifikuena. Hemen, zehaztasunez arakutzen da aldizkariaren ahalegin hori.

Kulturaren historian beti da zaila epekapen zehatzak ezartzea, eta frankismoaren garaiko urte haietan are zailagoa, dena aldagaitza-edo zenean. Ondoko orrialdeetan, euskal kultura idatzitari barrutik begiratuta, 1956ko hilabeteetako gertakariak elkarretaratzen dira urte-muga haren garrantzia azpimarratuta uzteko.

Orduko gertaeren artean dago, Hegoaldeko gazteek *Jakin* aldizkariaren inguruan antolatutako ahalegina, eta Arantzazun ez ezik beste eliz Ikastetxeetan ere (laterandar, pasiotar, karmeldar eta abarren artean) handik aurrera agertuz joan ziren beste aldizkariak. Honek guztiak, gainera, euskararen batasun-asmoak indartzeko balio izan zuen.

EUZKO-GOGOIA ETA ZAITEGI*

I. *Euzko-Gogoaren* lankideak

1979ko abuztuaren 17an hil zen, Oñatin, Jokin Zaitegi. Egunkari batek esaten zuenez, “aurkezpen haundirik behar ez duen izena”. Nik ere halaxe uste nuen, bestelakorik ikusi dudan arte**.

Gaurkoak gaurko eta gazteagoak gazteago, euskal lanetarako 1950/1960ko hamarraldian jaio ginenontzat, ezin ahantzizko gizona izan da Jokin Zaitegi. Orain hilabete gutxi, Jon Etxaidek nik dezakedan baino hobeki esan zuen:

Ezin gaitezke ahantzi euskaldunok Zaitegi-ri zor diogunaz. Honek, Estatu espainolaren barruan ezin egin zitekeen lanari, kanpotik ekin zion, *Euzko Gogoia* euskal aldizkaria argitaratuz Guatemala-n eta bere inguruan bilduz orduko euskal idazlerik ezagunenak. [...]. Isilpean eta kontrabanduz sartu behar izaten zen. Zenbait aldiz pakete osoak erori ziren poliziaren eskutan eta zabaltzen zen guztia ez zen kobratzen zoritxarrez. Horrela, Aita Zaitegi-k lur jota bukatu zuen eta aldizkaria ateratzeari utzi behar izan zion. [...]. Ni neu ere poliziak detenitu ninduen bi aldizkari horien [bestea «Gernika» zen] zabaltzaitzat eta kolaboradoretzat salatuz eta Martutene-ko gartzelan sartu ninduten aurrena eta gero Gasteiz-ko gartzelara esposaturik eraman¹.

* Bi ataletan egindako lehen argitaraldiak: *Jakin* 12, 1979ko urri-abendua, 120-137; bigarren atala: *Jakin* 13, 1980ko urtarrila-martxo, 96-119. Orain hemen biak batera jaso dira. Jatorrizko izenburua (“Zaitegi eta *Euzko-Gogoia*”) zerbait aldatu da: “*Euzko-Gogoia* eta Zaitegi”.

** Nire esker ona agertu nahi diet idazlan honetarako laguntza eman didaten guztiei; hogei eta gehiago dira denak, eta ez ditut izendatuko. Baina zor berezi bat dut hirurekin: Aita Joan Goikoetxea Loiolan, Maritxu Barriola andereñoa bere paper zaharretan eta Martin Ugalde bere lanetan espresuki ibili baitzaizkit datu bila. Hauei eta gainerakoei (aipatzen ditut oharretan), denei nire eskerrak.

¹ *Zeruko Argiari* eskainitako elkarrizketa: ikus Etxaide 1979.

Zalantzarik gabe, gerraondoan euskal kulturak izan duen kixoterik handietako bat izan zen Zaitegi. Utopia hutsa zirudien helburu baten alde inor gutxi bezala borrokatu zen, eta burugogorkeriaren galerak beti haren sakelaren aurka joan ziren. Urte haietan, bihotza, burua eta dirua, denak jarri zituen euskara trebatzearen alde.

Geroztik etorri ziren aldaketek ezingo dute historia hura ukatu, aldaketa bera ere ez baita osorik ulergarri aurreko datu hura ahanzten badugu.

Zaitegiren lanetatik *Euzko-Gogoari* dagokiona hartu dut hemen, aztertzeko. Uste dudanez, aldizkari hura izan zen euskara hutsean agertutako lehenengo goi-kultur aldizkaria. Ausarta izan behar zuen gizonak, frankismoak ezartzen zizkion baldintzak hautsi ezinik, erbeste urrun hartatik mundura eta Euskal Herrira kultur aldizkari bat zabaltzeko!

Azterketa honetan, lehenengo aldizkariaren lankideak aurkeztu nahi dizkiot irakurleari, gaingiroki emango diegun begirada orokor batean. Badakit, hemen aipatuko ditudanen azpitik geratzen direla, hain zuzen, arazorik suspergarrien batzuk (esate baterako: belaunaldi berezi bat ote da *Euzko-Gogoako* hau? Eta, baiezkoan, nondik datorrena? Zein tokitan lekutuko litzateke hori XX. mendeko gure kultur historian? etab.). Nahi dituenak errenkan aurkituko ditu galderak, betiere erantzunen zain.

Ondoren agertzeko uzten ditut beste atal batzuk: “Zer izan nahi zuen *Euzko-Gogoak*” (abertzaletasuna/euskaltzaletasuna bikotearen arteko gatazka praktikoen eztabaida tartean dela, adibidez), “Zer izan zen *Euzko-Gogoa*?”, “Nola zabaldu zen *Euzko-Gogoa*?”.

1949ko udazkenean orri bat heldu zen Guatemalatik Euskal Herrira: *Asmoa* zeraman izenburutzat. Euskal aldizkari baten asmoa zekarren papertxoak. Postetxeko kutxatila baten zenbakia ematen zuen, harpidedunen izenak biltzeko; idazlanentzat, ostera, “Zaitegi eta Plazaola’tar Iokin” baten helbidea. Nor zen Zaitegi hau?

Ez zen ezezaguna euskaltzaleen artean, baina, agian, ez eta ezagunegia ere, nahiz eta gerrate aurretik inoiz eta erbestean gero, izena entzuna izan². Zorionez, bere asmo hauetan ez zegoen bakarrik, eta Orixe (1888-1961) eta Andima Ibinagabeitia (1907-1967) laster inguratuko zituen beregana. Hirukote

² A. Joan Goikoetxeak esaten didanez, Marneffe-ko jesulagunen etxetik Euskal Herrira joan-etorri handiko eskutitz-trukea omen zebilen. Errepublika urteetan, hango gogoak hemengo kultur goraldiarekin lotuz. Baina, nolana ere, Euskal Herria urrun geratzen zitzaien harremanetarako. Zaitegi ez zen, bada, ezaguna hemengo kultur lagunartean.

hauxe izan zen aldizkariaren ardatz zuzendaria³, baina lemazain nagusia, zalan-tzarik gabe, Zaitegi zen. Hona, bada, haren historia, laburki emanda.

I.I. Jokin Zaitegi bere testuinguruan

Jokin Zaitegi Arrasaten jaio zen, 1906ko uztailaren 26an. Hamalau urte zituela joan zen Durangora, jesuita-ikasketak egitera. 1921ean hasten du bere erlijioso nobiziadua, 1923 arte; Loiolan jarraituko ditu ikasketak 1924-1927. urteetan. Durangon ikaskidea zuen Lauaxeta (Onaindia 1975: 146), eta laster beste ikaskide batzuekin beren euskaltzale taldea sortuko zuten: Andima, E. Urkiaga, P. Muxika, H. Gaztelumendi, I. Goenaga, Zaitegi bera eta abar ziren. Ikasturte baten aldearekin, bigarrena egiten, berriz, B. Aginagalde, R. Argarate, G. Larrañaga eta M. M. Zubiaga. Mendibururen lanei eta euskal aditzari heldu omen zieten batik bat. *Ami vasco* aurkitu zutenetik euskaltzaletu ziren osorik (1924). Zaitegik hemezortzi urte zituen⁴.

Berehala lotu zitzaizkion euskal lanari. Ikasketetan zituzten alorrei helduz trebatu nahi izan zuten euskara. Esan beharra dago orduan piztutako argiak bizitza osoan iraun zela: Andimak latinezko literatur lanen euskal itzulpena hartu zuen bere eginkizuntzat; Zaitegik, berriz, greziar literaturari heldu zion. Bion geroko itzulpenak ezagunak dira (*Unai kantak*, *Alor kantak*; *Sofokel*, *Euripide*, *Platon*).

Euskararekiko jokabidea ez zegoen, nonbait, ongi arautua Lagundian. Aita Garmendiak, Apalategik eta Estefaniak ahaleginak egiten zituzten gazteak euskaraz zaletzen eta berauen euskal gaitasuna hobetzen. Areago ere esan liteke. Erromak bidalitako Aita Boetto Bisitariak hau esan zien Oña-ko jesulagunei, aldian aldiko legezko ikustaldia amaitzean:

Hemos de estar ajenos e indiferentes a toda cuestión política, pero no a la lengua de la región en que residimos, pues la lengua de suyo no implica la defensa o la impugnación de ideas políticas, y además San

³ Aldizkariari eman zizkioten gidaritzak, jarraipenak eta lankidetzak, estatistika hutsean, garbiki erakusten du aldizkaria zenbateraino izan zen hiru hauena.

⁴ Hemen jasotzen ditudan biografia xehetasun gehienak Martin Ugalderi zor dizkiot. Argi geratzen da honezkero 1924an abertzaletu zirela gazte haiek: hemezortzi urte zituela esaten du Zaitegik (ikus M. Ugalderean); Jokinek berak idatzitakoa da hau: "Aurten [1974] 50 urte bete dira" (= 1924) (Ikus Lauaxeta 1974: 6). Villasanteren "El hecho tuvo lugar hacia 1927" esakunea, honela argituta geratzen da (Villasante 1979: 433). Ikus M. Ugaldek Zaitegirekin izan zuen elkarrizketa: *Deia*, 1977-abendua-8: 14. Irakasle euskaltzaleen izenak ez dira ahantzi behar: Apalategi, Garmendia, Olabide eta Estefania.

Ignacio la recomienda, pues tratando (Const. P. IV, cap. 8, n.3) de los medios de ayudar a los prójimos, dice: *Studeantque ad id munus obeundum linguam populi vernaculam bene addiscere*. Por la misma razón, en la regla IO de las Comunes se manda «que todos aprendan la lengua de la región en que residen». Luego, según el espíritu de nuestra vocación también en las lenguas regionales debemos tener excelentes operarios, predicadores y escritores. Deber que resalta directa e inmediatamente del fin de la Compañía; pues para obtener la mayor gloria de Dios y la salvación de las almas, es preciso conocer la lengua de aquellos a quienes queremos salvar (Boetto 1921: 18).

Bestalde, 1917tik aurrera lanean ari zen *Jesus'en Biotzaren Deya*, jesulagunek zuzendua, argitaratua eta berek gehienbat idatzia. Talde ederra zen hemen lanean ari zena: Basabe, Ormaetxea bera, Azpiazu, Goenaga, Zubiaga, eta abar⁵.

1927an Oñara joango da euskaltzale talde hau, han Filosofi ikasketak egi-tera. Filosofiako ikasketak bukatu ahala, irakasle proba egi-tera joan behar zuten jesulagun gazteek. Gaztelako Probintziak (euskaldunak horren barnean zeuden) bazituen Ameriketara bere misio lurraldeak eta hara ere joan zitezkeen, beraz, euskaltzale hauek, erabaki horretan itxuraz inolako bortxaketarik gabe. Lekukoek diotenez, ordea, hain zuzen haraxe bidaltzen zituzten batez ere beren euskaltzaletasuna agertzen zuten gehienak. Euskaltzaleentzat politika ezaguna zen hori. Aita Boetto-k esandakoak gorabehera, Ledóchowski Aita Jeneralak jokabide horrixe eutsi zion, orduan eta gero.

1929an, lehenengo bidalitakoak G. Larrañaga azkoitiarra (Caracas) eta R. Argarate urretxuarra (Barranquilla, Kolonbia) izan ziren. Urtearen azken alde-
ra iritsi zen besteentzako txanda: Zaitegi bera Venezuela-ko Mérida-ra (*Colegio de San José*), Andima Bogota-ra (*Colegio de San Bartolomé*) eta geroxeago Bucaramanga-ra, P. Muxika Kolonbia-ko Pasto-ra. Bidaliek erabaki politikotzat sentitu zuten hura: ez zen erraza ikasle batentzat Lagundian euskaltzale langile

⁵ Atal iraunkor batzuk salbu, "aldizkaria osorik geuk gazteok idatzi izan genuen amar urtetan-edo", dio Zaitegik (1974: 8). Hor bertan ikus daiteke nolako uzta zetorren 1920-1930eko urte haietan ikasle jesulagunen artean: lehenagotik Orixe eta Olabide, ondotik Iñaki Goenaga, Plazido Muxika, Guillermo Larrañaga, Andima, Erramun Argarate, Sarobe, Korta anaiak, Gaztelumendi, Zubiaga, eta abar. Horre-
xegatik tamalgarriagoa gertatu zen geroko sakabanaketa. Arazo honetan Andimaren iritzia gupidarik ga-
bekoa da: *Euzko-Gogoa* (hemendik aurrera *EG*), 1952-uztailla: 34 orria. Hain zuzen, Belokekoen jokabidea
kontrajarriz. Ikus *EG* 1952-urria: 34, *EG* 1957-ilbetza: 117.

izatea⁶. Begira zer dioen Zaitegik berak:

Hemendik [Loiola-tik] Oña-ra. Hemen euskaratu nuen Aita Laburuk idatzi zuen *Citología*: nere *Kizkiña* (zelula), eta hara lehenengo poza: Julio Urquijo jaunari bidali, eta honek RIEV-en atera! Kalteak ekarri zizkidan gero honek...⁷. Baina goazen: hemen geundela bidali gintuzten lehendabiziko Ameriketara... [...]. Euskal gaiak bihotzez hartzen genituenak beste bakar batzukin poliki nahasi eta hara bota gintuzten hiru urterako: Andima Bucaramanga-ra; Muxika (Plazido) Pasto-ra, biak Colombian [...]; ni, Venezuelako Mérida-ra⁸.

Hogeita hiru urte zituen Zaitegik Méridara iristean, eta han egingo zituen hiru ikastaro oso, Andimak bere bizitokietan (Bogota, Bucaramanga) bezalaxe. Mérida, Pasto bezalatsu, urrun zegoen; tokiz eta lanbidez ez zen batere gozoa (barnetegi bat zenez, gau eta egun bazen lanik). Jesulagunentzat ere zigortokia zen. Harako agindua zigorbidez ulertu zuten euskaltzale taldekoek eta beste. Ez zen batere motza izango erbestealdi hura. Hango hiru urteak amaitzean, Euskal Herrira ez, baizik Belgika-ra etorriko ziren (1933), Errepublika Espainolak emandako legeen arabera, jesulagunek atzerrian baitzuten beren bizitoki bortxatua.

Berriz ere elkarrekin zeuden adiskide euskaltzaleak, Marneffe-n: 1933-1937an Teologi ikasketak egiten dituen taldeak (Zaitegi, Korta, Muxika, Sarobe, Andima eta abarrek). Azkenekoz, 1935-1936an agertzen da ikasle zerrendan Andima Ibinagabeitia: ikastaro horretan edo hori bukatzean utzi zuen Lagundia. Beraz, ez dut uste Andimak Errepublika garaiko kultur taldeetan ibiltzerik izan

⁶ Makilakada nondik eta norengandik etorri zen badakigu gaur: “Arkitu genuen leengo oztopoa gure arduraduna izan genuen, Errandonea gure latin eta eladera irakaslea, alegia. Ez dut esker txarreko gizon izan nahi. Alare, egia berea zor diot: ezkenuen arengan elkarrekiko begirunerik arkitu. Salatari-aginpi-dea zeraman, eta liburuxka ura atzeman zuen (*Ami Vasco*): errudun neu egin ninduen. Ark esan zizkidan astakeriek negar onik eragin zidaten” (Zaitegi 1974: 7). Iritzi gogorra zuen Zaitegik Errandoneari buruz, eta geroko aldaketak aipatuz, honela bukatzen du: “Orrelako gizonak eguzkia nora zapia arakoak omen dira gure erritarren ustez”. Dena den, oroitzapen ederrik aski ere gorde zuen Zaitegik Loiolako lagunarte bikain hartatik.

⁷ Ikus RIEV 1933: 60-70. Artikulu hau 1933an eman zen argitara. Argitalpena ez zen Ameriketara bidaliz (1929) zigortua izan, baina inondik ere euskal lanek ez zioten Zaitegiri bizitza batere erraztu.

⁸ Loiolako Artxibategian agertzen denaren arabera, segurutzat eman behar da, Zaitegi 1929an, udazkenean edo abenduan bertan. Ikus M. Ugalde, *Deia*, 1977-abendua-8: 14.

zuenik. Zaitegi, bere aldetik, 1936an egin zen apaiz, eta 1937an Morialme-ra aldatuko da, “Hirugarren Probantza” egitera, ikasketak alboraturik eta osorik otoitzera emanda.

Teologia egiteaz gain, Marneffe-n gogor eman zen beste ikasketetara Zaitegi. “Ipurtandi” deitzen omen zioten filosofia-ikasleek, goizean goizetik eta eguerdi-arte guztian eserlektutik jaiki ere egin gabe lan egiten zuelako. Honelako bi eserialditan burutu omen zuen Benavente-ren *La Fuerza Brutaren* euskal itzulpena. Saiatu zen, gainera, ikasle gazteagoei euskaltzaleasuna txertatzen; *Mireio* erabiltzen zuen lanabes bezala euskal ikastorduetan. Halere, Marneffe-ko giroan –euskaldunak gutxiengo ttipi bat ziren eskualde guztietako espainol askoren artean– euskara arrotza zen, eta euskara ez ezik baita Euskadi ere, Errepublikarekin batera gerra egiten zuen Euskadi hura batik bat.

Ez da sobera harritzeko 1936ko gerra piztean, Ledóchowski Aita Jeneralak Lagundia Franco-ren alde jartzea (1937)⁹. Euskadi erortzean edo garai bertsean gertatu zen, hain zuzen, hori. Horra Zaitegi –jesulagun euskaltzalea edo euskaltzale jesulaguna– berriz ere gertakarien zurrunbiloan batetik bestera eramana. Batean euskaltzalea zelako, bestean jesulaguna zelako, betiere Euskadirentzat lana erbestetik egin behar¹⁰. Itxuraz leialtasun bikoitz horren gatazkak, euskaltzaleasunaren alde izango zuen bere azkena 1945ean.

Apaiztu ondoko urtea burutzean, Erdialdeko Amerikarako bidea eman zioten Zaitegiri: 1938-1939ko ikastaroa San Salvadorreko hiriburuan bete zuen, hango *Seminario Centralean*, Biblia eta Elizaren Historia ematen zituelarik.

⁹ Ledóchowski Aita Jenerala (1915-1942) ez zen nornahi. Vienako Gortetik zetorren konde-semea zen. Urte luzeak eman zituen nagusigoan eta ez zituen maite herri ttipien abertzale-mugimenduak (Katalunian eta Euskadin bederen, ez zuen burubide zuzenik izan: Aita Jose Agirre-Zeziaga lekuko). Ledóchowskiren eliz politika ere aztertu beharko litzateke jesulagun idazle multzo gaztearekin gertatutakoa ulertzeko. (Biografia labur bat: W. Gramatowski, in *Diccionario Histórico de la Compañía de Jesús*, s. v. “Ledóchowski”, 1687-1690). Lagundia Espainiatik erbestera bidalia izan zenean, euskal jesulagun abertzaleen bizitza kontraesanez bete agertzen zen, Tournai edo Marneffe-ko etxetan: jeltxide sentitzen zituzten beren buruak, baina jeltxideak ofizialki Errepublikaren alde zeuden. “Norekin zaudete, bada?: Lagundiarekin ala Errepublikarekin?”, galde ziezaiaketen Nagusi eta ikaskideek gure jesulagun abertzale erbestetuei. Lagundiaren barrutik begiratuta, onespren guztiak har zitzakeen Ledóchowskiren erabaki politikoak. Logika horren barnean, Ameriketarako bidea ezarri zitzaizen Marneffeko euskaltzale gazteei.

¹⁰ Arazo aztergarri batzuk ageri dira hemen: 1) Elizgizon euskaltzaleek nola bizi izan dituzten, nolako tenkatasunaz, beren elizartasuna eta euskaltzaleasun/abertzaleasunak. 2) Elizaren agintariak euskaltzale/abertzale horiei eman izan dien trataera. 3) Euskal abertzaleasunaren aurrean Eliza barnean azaltzen zaigun anbiguotasun teorikoa eta praktikoa. Elizaren jokabidea ez da batere monolitikoa ageri.

Hurrengo urtean gai berak eta hizkuntzak irakasten zituen (frantsesa eta ingelesa). 1940-1941eko ikastarorako Seminario berrira pasatzen da (hiriburu bereko San José de la Montaña-ra, alegia), eta beste lau ikasturteetan (1941-1945) hantxe iraungo du eginkizun beretan, lanez leporaino hartua, euskal lanetarako betarik gabe. 1944-1945eko ikastaroaren erdialdera edo (legezko paperak egiten ari zen bitartean) parroki lanari ere ekin zion, berehala Lagundia uzteko: “Lagundia utzi, eta apaiz bezala geratzeko bideak egin nituen”¹¹.

1945ean edo, bizitzaren epe berri bat hasten da Zaitegirentzat. Sekularizatu da, eta eskuak libre ditu bere gisara lan egiteko. 1945ean Guatemalara pasako da, irakasle lanetan jardunez. Diru apur bat aurreratzeko aukera sortzen zaio, *Instituto Américaren* zuzendari bezala. 1951 arte haxe izan zuen Zaitegik bere ogibide nagusia. *Instituto Américatik* bota zutenean, ikastetxe berri bat sortu zuen, *Liceo Landibar*; horretarako 17.000\$ eraldi zituen, Muyschondt sendiak emanak edo utziak¹². Izerdi eta ondasun horien gain atera zuen aurrera *Euzko-Gogoa*.

Dirutxo horiek premiazkoak ziren erabat, euskararen alde zerbait egin nahi baldin bazen. Aldizkariaren orrialdeetan ongi ikus liteke, Zaitegiren eskuzabal-tasuna. Besteak beste, honela idatzi zuen, esate baterako, Orixek, Ameriketara bost urtetan zehar ibili eta bizi ondoren:

Ioan-etorrietan eta emen egonean zearotu ditudan sosak pillan baneuzka, ba-nuke mordoskatxoa.

– «Ortarako ere bear da poliki. Nondik atera duzu guzi ori?»

– Zaitegi iaunari galde. Bera zorrak metatzen ari dala ere, nerretzat atera du lana latz eginda (Orixek 1954: 131)¹³.

¹¹ Zaitegiren San Salvadorreko lagun batek esaten didanez, Jokinek ezin zuen Lagundian bakerik idoro. Ez bakerik eta ez erosotasunik euskarari eman nahi zion zerbitzua betetzeko. Gorabehera edo istripu handirik izan gabe ere, ezin izan zuen eraman, han barnean, bere bizitzako eginkizuntzat zeukan euskal lana. Horixe burutzeko irten zen Lagunditik. Lehenago sekularizatutako jesulagun ikasleek ere euskal lanetan ziharduten: Orixek (1923), Lauaxeta (1928) eta Andima (1935-1936). Zaitegiren jesulagunetako kronologia emateko, J. Goikoetxeak Loiolako Artxibategitik eman dizkidan datuei lotu naitzaie, batzuetan M. Ugalderei esandakoak ere haietara egokituz.

¹² Urte hori (1951) ematen du Orixek: Maritxu Barriolari eskutitza, 1952ko maiatzaren 21ean; diru-kopuru horren berri ere andereño berari zor diot.

¹³ *Salmutegia* egiteko, ordea, Maritxu Barriolak ordaindu zion Orixeri. Sei hilabeteko lana zela zioen Orixek: orotara 360 dolar eskatzen zituen, berak idazten zuen gisan txofer baten soldata, eguneko bi dolar. Gero, 400 bat dolar ordaindu omen zitzaion itzulpena (M. Barriola).

Baina istorio horri ez diezaiogun aurrea har. *Euzko-Gogoa* jaio aurretik (1950), Zaitegiren euskal lan ederra atentzioa erreparatzeko adinakoa izan zen. Buru-lanetarako urterik onenak ditu Zaitegik 1945ean, berrogeiak betetzera doa. 1937-1947. urteetan euskal argitalpenek atzerrietan dute sorterrian ukatzen zaien aterpea.

Idazlanik onenak Iparraldean, edo euskaltzaleen diaspora zabalean agertuko dira. Espasa-Calpe-k lortuko du Madrilen baimenen bat edo beste (*Euskalerrriaren Yakintzaren* azken hiru liburukiak: 1942, 1945, 1947). Gainerakoan, Tours, Okzitaniako Tolosa, Vienne, Lille, Buenos Aires, Mexiko, Santiago de Chile eta abarretan aurkituko dute euskal liburuek beren sortetxea (Torrealdai 1977: 572-575).

Urte haietako liburugintzaren historia ez da egoeraren salatzailerik txarre-na!¹⁴

Euskal Iparraldean egindakoaz aparte, 1945ean bi izen agertzen dira aitzindari, literatura ederraren alorrean: Monzon Mexikon, beronen *Urrundik* han agertu baitzen, eta Zaitegi Guatemalan bere *Ebangeline* itzulpenarekin. Eta, onena dena, ahalegin horri berehalako segida emango dio autore berak. 1946an *Goldaketan* olerki bilduma eta *Sopokel'en antzerkiak* itzulpena inprimaraziko ditu Mexikon. Lurra ondua dago, bada, ahalegin handiagotan sartzeko ere, nahiz eta gerraondo luzeko elur-lore galduak izan oraindik ordura arte egindakoak. Izan ere, Hegoaldeko lau Probintzietan nahiko itxaron beharko zen, literatura ederrak bere egun-txinta urratu arte: M. Lekuonaren lana ahantzi gabe (*Iesu aurraren bizitza*, 1948) Salvatore Mitxelenak emango du poema handi bat (*Arantzazu. Euskal Poema*, 1949). Euskal letrek —isilaldia hautsi orduko— badute aski indar hegaldirik garaiena egiteko: Orixeren *Euskaldunak* 1950ean agertzen da lehendabizikoz eguzkitara. Urte honexek mugatzen du gure gerraondoko epealdi berri bat.

Zarauzko Itxaropenak (Patxi Untzurrunzagak) irmoki heltzen dio euskal egitekoari (sei liburu 1950ean), laster jaioko den “Kuliska Sorta”ri (1952) bide eginez. Orixek berak urte berean emango du halako arrakasta izango zuen Meza liburua¹⁵. Etxaniz langileak orduantxe agerraraziko ditu bere lehenengo

¹⁴ Gerrateak erabat desegin zuen, bestalde, edozein kultura bizik behar duen kultur langileen arteko harreman sarea. Gezurra badirudi ere, 1954an *Euzko-Gogoakoek* ez zekiten oraindik zer gertatu zen gerrate ondoan Barrensorero, Jakakortajarena, Loidi eta Sukiarekin. Ikus *EG* 1954: 159.

¹⁵ Liburu honek, orduko beste zenbaitek bezala, badu historiatxo jakingarri bat: M. Barriolak eskaturik (1947) egindako lana da eta 1949an bukatuta zegoen. Orduan ordaindu zitzaizkion lanaren zorrak (“Nik eskuz egiña oinbeste ordaindu zidatenean, nik betiko eskubideak utzirik”, gogoratzen du Orixek,

bi liburuxkak. Gazteagoak ere badatoz lanera: ordukoa da Etxaide-ren lehenengo lana (*Alos-torrea*), eta Mirande eta Peillen ere prest daude lankidetzarako.

Ekin minak jotako euskal idazleentzat une-unean jaio zen, beraz, *Euzko-Gogoa*.

1.2. Orixe, idazkaria

Idazketa lana eta ikastetxearen ardura tartean zirela, borondaterik onenarekin ere ez zen erraza Zaitegik bakarrik aldizkaria behar bezala zaintzea, (zailagoa oraindik *Landibar* Lizeoa sortzean), eta Andimari hots egin zion Parisa, lehenbailehen Guatemalara etor zedin. Prest zegoen Zaitegi jesulagun-kide izandakoarekin —oraingoa euskaltzaletasunaren izenean— berriz ere elkartzeko:

Andima, Paris-en zen; dei egin nion, baina ez zuen etorri nahi izan berriz Ameriketara. Aurrez izandako hura nahikoa zuen nonbait (*Deia*, 1977-abendua-8: 14).

Lehenengoan, beraz, kale egin zuen Zaitegik baina ez zuen etsi, geroago ikusiko denez. Arlotekerietatik urrun egon behar zuen aldizkari jaso bat egin nahi zuelarik, luma eta adimen jantziak bilatu zituen. Orixe deitu zuen idazkaritzara¹⁶. Deitu eta eskaintza egin, dena batera:

Orixe-ri bota nion eskaintza. Euzko Jaurlaritzako OPE-ren bidez jakin nuen Baxenafarroatik Argentina-ra joana zela, eta hartueman batzu tarteko, eta Ander Mirena Irujo bitarteko, behar zituen hileko 100 \$, etxe-bizitza eta janaria eman nizkion (*Deia*, 1977-abendua-8: 14)¹⁷.

1951: 13), eta urte berekoa da eliz baimena ere. Gero, argitalpenak eta zabalkundeak izango zituzten buruhaustek, polizia eta auzitegia tartean ibili baitziren.

¹⁶ Arrazoi asko bere alde egonik ere, zalantzarik izan zuela Zaitegik, esango nuke. Andima, adiskide mina, hurbilago zegoen, noski, Zaitegirengandik adinez (urtebeteren alde bakarrik), aiurritz eta kidetasun guztiz. “*Orixe*” omenaldi liburuan ikus daiteke Labaienek dioena (in Askoren artean 1965: 16-17).

¹⁷ Horren arabera, Orixe ez zen Europatik irten Zaitegik deitu ziolako, Ameriketara bertan jaso zuen Zaitegiren deia. Hori horrela, J. M. Aranaldek eta Maritxu Barriolak esaten didatenez, familiartea izan zen bidaiaren lehen arrazoia, aurtun Loiolan hil berria den arreba Quiton baitzegoen eta Maritxu Arana bere eskuetako iloba Argentinan. “Quito’n arrebarekin”ek ere arreba ikusi nahiari egozten dio bidai luzea.

Hego Ameriketatik itzuli handi bat eman ondoren iritsiko da Guatemalara Orixe¹⁸. Bidaia honek sekulako literatur gaiak sor diezazkiokeen Orixeri; poesia lan polita ere egin zuen gero, ibilaldi hartako oroitzapenekin¹⁹. Toki apartak dira europar baten begi eta barne-bulkadarentzat. Zer ez zigun emango Orixek oroigarri haiekin hitz lauuko lan luze bati heldu balio! Tamalez, ez dugu horrelako zorionik izan.

Erredakzio lanetarako zihoan, noski, Guatemalara, baina, agian, inprimategiko borroka elkorrak irabaztea, inoren idazlanen zuzenketa eta idazle lankide sakabanatuak goxoki eta aspertzeke biltzea, hori dena batera egitea ez zen Orixeri gehien zegokion lana.

Mathieu Gotzainak *Aitorkizunak* itzultzea iradoki zion Orixeri: “Hori egin behar dut nik; hori da nere egitekoa” errepikatzen omen zion Nikolasek Jokini²⁰. Borondate hori tartean zela, eta momentuko haserrealdiren bat

¹⁸ Noiz gertatu zen hori ez dut jakiterik izan. A. M. Labaienek ziurtzat edo ematen du 1949ko udazkenean edo negu hasieran izan zena. Bi gauza dakizkit seguru: San Salvadorra noiz iritsi zen Orixe eta, Zaitegik dioenez, Guatemalan sei hilabete inguru egon zela.

Zaitegik errakuntzarik ez badu, bidaia honen kronologian eta nondik norakoan datu hauetaraino iritsiko ginateke (ikus “Quito’n arrebarekin”, *EG* 1951: 13-16; nire eskerrak, gainera, Maritxu Barriola andereñoari, bere laguntza ere erabat funtsezkoa izan baitut): Itsasoz Bordele-Dakar-Rio de Janeiro-Buenos Aires. Hilabete iraun zuen honek, eta ia seguru 1950-1951ko neguan egin zuen txangoa. Hilabete egon zen Orixe Bahia Blanca-n, “Berraondo” etxean; agian (agian diot, puntu hau ez baitago garbi) beste hilabete eta erdi Maritxu Arana ilobarekin Buenos Airesen, irteteko paperak egiten. Ondorengo ibilaldiari trenez ekin zion, kilometro askoko txangoa: Buenos Aires-Rosario-Santiago del Estero-San Miguel de Tucumán-San Salvador de Jujuy-La Quiaca-Villazón (Bolivia)-Oruro-La Paz; hor bi gau egin zituen eta biharamunean Titicaca Lakura. Urez Puno-ra antza, eta trenez Arequipa-ra (hemen bost egun). Gero, hegazkinez, Lima-Guayaquil-Quito (arrebarekin zortzi egun: hau segurutzat eman behar da, berak esaten duenari J. M. Aranaldek eta M. Barriolak diotena gaineratuz). Hemendik Guatemalara, segurutik hegazkinez, Panaman geldialditxo bat egin ondoren (“Quito’n arrebarekin” en inprimatze-errakuntzarik ez bada). Beranduenik 1951-07-2rako Guatemalan izango zen, 1951-12-12rako Orixe San Salvadorren baitzegoen, M. Barriolari 1951-12-19an idatzitakoaren arabera, eta Zaitegik, *grosso modo*, Guatemalan sei hilabete egon zela baitio (*Deia*, 1977-12-8: 14). Inoiz irakurri dudak Txilerako bidaia, ez zuen orduan egin. Dena den, Orixeren adiskide eskutiztunek (bereziki Mokoroak eta Labaien jaunek) izango dute hemen azken hitza. [N. B.: Ikus Iztueta Armendaritz 1987, 1991, 2001; Iztueta Armendaritz; Díaz 2007].

¹⁹ Ikus Orixe: “*Euskaldunak*” poema eta olerki guziak, 1972, XXX, 513-544 orrialdeetan daude 1950-1951ko poemak.

²⁰ M. Ugaldere zor diot honen albistea (1979-10-23).

medio²¹, ez zen zaila gertatu San Salvadorrerako erabakia, alde zuzenetik pentsatua baitzegoen²².

Zaitetik, bere aldetik, honela dio:

Sei hilabete egin zituen nerekin, eta gero hark gehiago maite zuen lan bat egitera bideratu nuen: San Salvador-ko nere lagun batzuen etxean [Muyschondt sendiarekin] *San Agustin-en aitormenak* [sic]: idazten jarri zen (*Deia*, 1977-abendua-8: 14).

Ez zen etenik gertatu Zaitegi eta Orixeren artean, ez adiskidetasunean, ez eta aldizkarirako lankidetzan ere. Zuzendariak ongi ulertu zituen bi gauza: bata, Orixe ez zela idazle-buru izateko gizona, bere gisara jarduteko idazle aparta baizik; eta bestea, idazle horri profesionaltasun bat eman behar zitzaio- la, ibilaldi handiko zerbait egin zezan. Orixe, jende biltzaile baino areago zen bakarkako langile porrokatua²³.

Horrela pasa zen Orixe *Euzko-Gogoatik*. “Agur Guatemala-ri” idatzi eta Amerika utzita, 1954ko azaroaren 24an heldu zen Orixe berriro Bilbora, hamasei urteko erbestealdia bete ondoren (Aranalde 1965: 14)²⁴. Jantzera ez zekarren dotoregia, eta ez zuen maleta apainik eskuetan. Joan zenean bezain pobre zetorren Orixe²⁵.

I.3. Andima Ibinagabeitia

Ormaetxea El Salvador-a aldatu zenean, Zaitetik bigarren dei bat zuzendu zion Andima-ri Parisa. Oraingoan prest agertu zen Ibinagabeitia Atlantikoaz bestaldera joan eta *Euzko-Gogoari* heltzeko (*Deia*, 1977-abendua-8: 14). Esan

²¹ M. Barriolak horrelaxe gertatu zela esan dit (1979-II-9).

²² “Naiz Guatemala’n naiz El Salvador’en egin omen zezakenak nere bizi guziko lan aundia, Zaitegi’re adiskide batzuen etxean” (Orixe 1951: 16).

²³ *Euzko-Gogoan* behin baino gehiagotan aipatzen da San Salvadorreko Orixeren lan handia. Horretan ziharduera ere, aldizkarian kasik lankiderik emankorrena bera da. Goizero seietan ekiten zion lanari.

²⁴ Tamala da, baina badirudi oso zaila dela gure idazleen erbesteko historia biltzea, eta horrelako zerbait gertatu zait Orixerekin.

²⁵ Bidaia-txartela ordaintzeko lagunek eman zizkieten sos batzuk. Orixe beti aurkitu zituen bere lana ordainduko zioten abertzale eta adiskideak, baina kontuz ibili behar zen dirua aitzakia egokirik gabe eskaintzen (M. Barriola).

beharririk ez da: bera zen lehenagotik ere (1950etik bertatik) aldizkariak European zuen lankiderik finena, saiatuena. Aski da *Euzko-Gogoaren* edukari begiratzea, hori ongi jakiteko. Batez ere bera izan zen euskal liburugintza geriturik ikusmiratu, kritikatu eta bere berri sistematikoki ematen zuena.

Elantxobeko semea zen Andima (1906)²⁶. Hamabost urte bete eta bihamamunean jesulagun sartu zen Loiolan, aipatu ditugun lagun guztien artean. Plazido Muxika-rekin batera joan zen, ontzi berean, Ameriketara. Marneffe-n utzi zuen Andimak Lagundia, apaiz egin baino urtebete lehenago (zerrenda ofizialetan, 1935-1936ko ikasleen artean agertzen da, behintzat, azkenekoz). Berehala piztu zen gerra.

Zaitegiren ikaskide, adiskide, gogaide eta lagun estimatua izan zen Andima eta, hain zuzen, abagune larrian agertu zen idazle-buru berritarako. Aldizkariaren zenbakiak gero eta atzeratuagoak zetozen irakurlearen eskuetara, honela baitio 1953ko ohar batek:

Zenbaki onekin 1952'gko urtea bukatzen dugu. Atzerapen aundia izan du gure aldizkariak eta aurrea nolarebait artzeko, datorren zenbakia 1954'gko lenengoa izango da (*EG* 1952-II/12: 14).

Orixe, aldizkariaren idazkaritzatik urruntzea da, noski, hiru urteren buruan urtebete osoko kale hau gertatzeko arrazoi nagusi bat, eta gogoan hartu behar Lizeo berria eraiki premia (1951). Guatemalako azken bi urteetako bultzada Andimari zor zaio, inolako zalantzarik gabe. 1954ko abuztuan oraindik Paristik idazten zuen²⁷ eta 1955eko "Atarikoak" bereak dira²⁸, hain zuzen, Guatemalako azken zenbakietakoak; Europara laster egingo den "Etxe-aldaketa"ri buruzko iruzkina ere berea du.

²⁶ *Elentsu, Norbait, Idoyaga* izenordeak erabili zituen. Lehenengo horren pean idatzi zituen *Euzko-Gogoako* liburu-kritikak. Loiolako Artxibategian, 1906an (urtarrilaren 26an) jaio zela ageri da eta askotan beste datoren bat (1907) eman den arren 1906a da zuzena, hamabost urte bete zain egon baitzen Lagundian sartzeko (1921-urtarrila-27). Teologiako lehen urtearen ondotik irten zela dio Zaitegik, baina Artxibategiko datuetan oinarritu naiz hemen. [N. B.: Albiste berri osorik ematen ibili gabe, hona berrikitan argitara eman den Andimari buruzko zenbait lan: San Martin 1999, Sudupe 1999, eta batez ere gutun bilduma: Urkizu (ed.) 2000. Begira: <<http://zubitegia.armiarma.com/?i=246>>].

²⁷ *EG* 1952 [sic]-II/12, 12-14: "Paris'en Dagonillak II-53" dio "Osotasuna" idazlanaren azpian. Zaitegik: "Noizpait, Andima etorri zitzaidan, eta bi urtez aritu zen nerekin" (ikus M. Ugalde, *Deia*, 8-abendua-1977: 14).

²⁸ *EG* 1955, aurkibideetan "Tar A." bidez adierazia.

Zaitegik Andimari deitu zionean, bazekien norekin ari zen²⁹. Hau ezagutu eta adiskidetzat izan zutenen lekukotasuna jasotzea da hemen egokiena. Bizpahiru dakartzat eta denak berdinak. Batzuetan, gainera, hitz berekin mintzatu zaizkit:

«Pentsaeraz eta tratuz oso zabala zen Andima. Liberala, Bihotz zabalekoa» (Jon Urresti). «Zuzena; bere asmoetara osorik emana. Oso atsegina. Gizon gozoa zen» (M. Ugalde). «Andima, gizon jakituna eta apala genuen, ezagutzera eldu ziran guztiak maitatua» (J. San Martin). (San Martin 1968: 89).

Jokin euskal gogoz aski bero baldin bazebilen ere, benetan fede ekintzailea ekarri zuen Andimak. Hauxe da bi testiguk, ni horretarako batere bilaka ibili gabe, aho batez esan didatena: garaiko abertzaleen artean ere nabarmena zen Andimaren euskaltzaletasuna. Ikusiko ditugu geroago horren aztarna batzuk aldizkarian bertan ere.

Horixe zen, hain zuzen, haren seta: euskara. Horretan ez zuen amor emango inola ere. Horretan erabat radikala zen. «Euzko-Etxea»ko kapeilaua eusko erdaldun hutsa genuen, Aita Zabala. Andima-k ezin zuen hori jasan; bestalde, ETArek lehenengo berriak etorri zirenean eta erakunde horrek bere bazkideei euskara ikasteko bi urteko epea baka-rrik ematen ziela jakin zuenean, hau entzun genion: Ez dakit zein jende mota diren, eta berdin zait, gainera. Euskarari horrelako tokia ematen dion taldeak nere errespetoa irabazi du (Jon Urresti).

Bere asmo eta eginkizun guztien gainetik euskara zen Andima-ren lehenengo ardura. Caracas-ko «Euzko-Etxea»n lau izan ohi ginen euskal lanetan: Andima, Andoni Arozena, Bingen Ametzaga eta laurok (Martin Ugalde).

Ibinagabeitia idazlearen lanak han-hemenka sakabanatu ziren³⁰, baina lan horri ez zaio ardatzik falta. Zaitegik idazle greziarrei heldu zien bezala,

²⁹ Ez hainbeste nonbait Orixek, ondoko hau baitio “Zaitegi jauna” idazlanean: “Bigarrenean [hilean] agertzen da nik idazle bezala ezagutzen ez nun bat: Andima” (EG 1950: 8).

³⁰ Hark bere lankidetzat eman zien aldizkariak: *Euzko-Gogoa*, *Euzko-Deya*, *Gernika*, *Alderdi*, *Egan*, *Eman*, eta abar. [N. B.: Orain eskueran: Sudupe, P. (ed.), 1999, *Andimaren idazlan hautatuak*].

Andimak latindarrak itzuli zituen³¹. Ez dakigu noraino iritsiko zitzaigun haren lan-grina eta emana, bizitzak hala zigortu izan ez balu.

I.4. Lankideak nonahitik

Jokin Zaitegi bati idazle mundua erakartzea ez zitzaion, esate baterako, Lekuonari nahiz Barandiarani bezain erraza gertatuko, nik uste. Horretan, Euskadi barneko ezaupide pertsonal gehiago zuen Andimak eta areago oraindik Orixek.

Dena dela, Guatemalara lehenengo eta Miarritzera gero, aldizkarira hurbildutako idazlegoa zabala izan zen. 1955eko azken zenbakiak dioenez, 73 firma ziren lankide eta 1957an 150etan kokatzen da idazle horien kopurua, denak noski aldiberekoak ez badira ere³².

Nabarmenki, aldizkariak bi aro izan zituen: Guatemalako (1950-1955), bost urte justu hartuz (esan bezala, 1954korik ez zen agertu), eta Miarritzekoa (1956-1960), lau urteko argitalpenarekin. Jaio, ez zen erabat zahartuta jaio *Euzko-Gogo*a: batez besteko bat ateratzen bada, 1950eko idazlego lankideen batez besteko adina 46 urtean geratzen da, hurrengo urtean ia 49 urtetara igoz³³.

Lehenengo aro hartan, hala ere, adineko idazleak dira nagusi (1950): Altube (73 urte), Jemein (65), Orixe (62), Leizaola (54), Labaien (53), Monzon (46). Aldizkariaren zuzendaritzan, berriz, bi ziren batez besteko adinaren azpitik zeudenak (1950): Zaitegik 44 urte zituen, Andimak 43. Horregatik ere, langile gazte berriak bilatu zituen argitaldariak: bere hemezortzi urterekin, Peillen izan zen *Euzko-Gogo*ako idazlerik gazteena³⁴, gero Mirande (25), J. Etxaide (30) eta S. Mitxelena (31); gerotxoago, Gandiaga (24) eta J. M. Lekuona (27). Urruntasunaren eragozpen guztiekin ere, erne ibili zen zuzendaritza balore berriak inguratzen, nahiz eta banaka samar lortu nahi zuena.

³¹ Ikus *Bergili'ren Idazlanak osorik: Unai-kantak* eta *Alor-kantak* Andimak itzuliak dira; *Enearena*, Aita Onaindiak euskaratua.

³² Ikus *EG* 1955-gabonila, azalaren atzealdean. *EG* 1957-orrila: I. Artikuluaren amaieran ikus daitezke izenordeen zerrendak.

³³ Izenordekoengatik, edo urteak ezin jakin izan ditudalako, 1950ekoetatik (28) hamar ezezagunak dira niretzat. 1951n, oster, 24tatik bost dira ezezagunak. Hildakoak ez ditugu gogoan hartu (Lauaxeta, Arriandiaga, etab.).

³⁴ L. M. Muxikak ere 18 urte zituen lehenengo idatzi zuenean (1957).

Lehenengo urte haren ondotik, aro honen barnean (1950-1955) aipatze-koa da beste zenbait ere. N. Etxaniz-ek urtero eman zuen zerbait (olerkiak), bigarren urtetik aurrera; ezin dira ahantzi J. M. Barandiaran, Jautarkol, Ibar (J. M. Mokoroa) eta B. Amezaga. Tartean errakuntzarik ez badut, Jautarkol-ek eta Krutwig-ek 1952an bakarrik idatzi zuten: hark poesiak sortu zituen, honek olerkiak eta Bilbon emandako hitzaldiak.

Euzko-Gogoaren lankideen zerrenda bat egin eta beraien lan-urteak markatzen badira, zenbait ohar jakingarri egin liteke berehala: Peillenek 1950-1951. urteetan bakarrik eman zuen zerbait; Leizaolak 1950ean idazlan bat, eta gero ez du idatziko deus 1956-1957 arte. Oro har, aldizkariaren bigarren aroan bakandu egiten dira Guatemalara zihoazen idazle batzuen lanak (Altube, Jemein, Amezaga, Ibar, Jautarkol, etab.). Batez ere, nabarmenagoa da azken bi urteetan (1958-1959) lehendikako lankideen atzerakada hau (Monzon, S. Mitxelena, Etxaide bera, Iratzeder, J. M. Barandiaran 1956tik aurrerakoan, Uxola, etab.).

Hutsune horietan betelana egiteko izen berriak agertzen dira bigarren aroan, baina ez denak gazteak. Horixe da, hain zuzen, bigarren aro honen bereizgarria: alde batetik, inoiz *Euzko-Gogoan* idatzi gabeko idazle helduak biltzen dira haren orrialdeetan, baina gehienak lankidetza oso labur batekin (Lafitte, Iraizoz, Arrue, Villasante, Erkiaga: euskaltzainen arteko uhin berria edo); bestaldetik, *Euzko-Gogoan* aurkitzen ditugu geroko idazlerik sonatuenak: Aresti (1954-1955) (Guatemalan, beraz), Txillardegia (1956-1957), Joan S. Martin (1956-1959), P. Altuna (1958), M. Erdozaintzi (1958), J. Gaztañaga (1956), G. Garate (1959) eta L. M. Muxika (1957). Azpimarratzekoa da K. Mitxelenak ez zuela sekula idatzi *Euzko-Gogoan*; honen lana *Eganen* eman zen.

Beraz, puntu batzuk gogoan hartzekoak dira: idazle heldu sail batek apenas hartu zuen parte *Euzko-Gogoan*, agian, hasieran, politika kutsu bat ere bazuelako (gogora dezagun *Egan* aseptikoagoa zela), eta urteak igarotzean Hegoaldean ere aldizkari berri nahiz bizkortuak agertu zirelako (*Egan*, 1954; *Euskera*, 1956; *Jakin*, 1956). Horrezaz gain, *Euzko-Gogoak* beti izan zuen segidako belaunaldien artean zubi bat egiteko gogoia, bai 1950ean, eta argiago oraindik azken aroan. Holako zerbait gertatu zen *Eganen* ere, baina *Jakinen*, esate baterako, galdutzat eman liteke 1960tik aurrera belaunaldi zaharragoaren lankidetza. *Euzko-Gogoako* lankideen batez besteko adina 51 urtetara igo zen 1958an, nahiz eta gazte berriak inguratu; urte berean *Jakineko* lankideen batez bestekoa ez zen 25etara iristen³⁵.

³⁵ Adin-piramideak irudi gazteago ematen du oraindik *Jakinen* urte horretan. 46 lankideetatik, zortziren urteak ez ditugu ezagunak *Euzko-Gogoan* (1958).

I.5. Lankideak, oro har

Euzko-Gogoa osorik, hau da, urte guztietako bere lankideekin hartzen baldin badugu, batez besteko adina ateraraziaz aldizkariari adin bat eman diezaiokegu; honela, ondorio honetara iristen gara: *Euzko-Gogoa* 48/50 urteko aldizkari heldua izan zen; gero eta gazte gehiago bildu arren, ez zuen lortu oro har bere lankideen taldea gaztetzea, garai berean zahartuz joan baitzitzaion bere lankide leialenen multzoa. 1958ko *Jakin* mende laurden oso bat gazteagoa zen: 23/25 urte zituen; beraz, 1930-1936koan jaiotako gazteak.

*Euzko-Gogoa*ko idazlegoaren jaiotza hipotetikoa 1905-1910ean ezarri behar da. Beraz, 1930-1940ko urteetan hartu zuen luma belaunaldi horrek eta hamar urteko isilaldia gorde behar izan zuen gero, gerraondoa. Gaur dakigunez, *Euzko-Gogoa* aldizkariko lan nagusi batzuk lehenagotik idatziak ziren³⁶. Lehenagotik, baina non eta nola, gero?

Askotan aipatu izan dira gure artean *Kardaberaz Bazkuna* (1924-1936) Gasteizen, *Jaungoiko-zale* (1912-1936) elkargoa Bizkaian, Aitzol-en *Euskaltzaleak Bazkuna* (1930) Donostian. Baina, dakidanez, ez da aipatu izan, garai bertsuan hasita, ordutik bertatik, halako klandestinitate batean 20/25 urte ibili ondoren *Euzko-Gogoa*ekin argitara lehertu zen taldea. Izan ere, idazle andana hau Errepublika aurretik zegoen erbestean, Bilbo Francoren eskuetan erori baino kasik hamar urte lehenago. Horren ondorioz, apenas utzi zuen aztarnarik 1931-1936ko euskal aldizkarietan. *Euzko-Gogoa*ren jatorrizko zuztar isilduak iradokita daude aurreko lerroetan.

Hemen, geroko lanerako hipotesi bat aurreratu nahi nuke: XVIII. mendean jesulagunek euskarari eman zioten giza-aldra handi haren antzeko beste belaunaldi bat jaiotzera zihoan 1925-1935eko urte haietan. Eta, elbarria izan arren, jaiotze ere egin zen euskal mundura: batzuk (gutxienak) Lagunditik kanpora geratuko ziren eta besteak Lagundian, baina denak, esateko, erbestean. Ikasturte haietako hezkuntzaren indarrez eta irakasle zenbaitek bultzatuta, espiritu kritiko eta euskaltzale batekin lan egin zuten.

Ledóchowskik eta Francok isilarazi eta sakabanaturiko giza-multzo haren gogo eta grinaz jaiotzearen *Euzko-Gogoa*. Belaunaldi edo talde hain berezi honek historia bat merezi du, alde askotatik argi kontrajarria baitago goian izendatu ditudan beste kultur talde haiei. Aldizkari hura beste anitzek ere osatu zuen,

³⁶ J. Goikoetxeak esaten didanez, Zaitegik pilatuta zeuzkan bere ikaskideen lanak: Argarate-renak (*EC* 1950, 1952), Sarobe-renak (*EC*, "Amayur", 1950, etab.), eta abar.

baina jatorrizko ideia handik zetorren eta haiek (Zaitegik, Orixek eta Andimak) gidatu zuten portu onera.

Hemen, gehiagorik ezin dudanez, beste baterako geratzen da hipotesi hau bere osoan ongi frogatzea. [N. B.: Horretan lagunduko du P. Iztuetaren azterlanak ere]³⁷.

2. Hamar urteko lana (1950-1959)

Esandakoak gogoan, *Euzko-Gogoako* lankideak ezagutzen ditugu, eta aldizkariaren historiako kronologia ere bai. Batez ere, uste dudanez, argi gelditu zaizkigu aldizkaria sortu baino hainbat urte lehenagoko sorburuak.

Ondoren, idazlanen eta zabalkundearen berri xume bat emango dut, aurrekoaren osagarri, baina ez hizkuntzaren eta ez edukiaren balioak epaituko dituen. Hiru puntutara mugatuko naiz: aldizkariaren asmo aitortuak aurkeztu, lortu zena azaldu eta noraino zabaldu ahal izan zen erakutsi. Aldizkariaren alde ekonomikoa ez dut aztertuko.

2.1. Zer nahi zuen *Euzko-Gogoak*?

Edozein aldizkarik bezala, *Euzko-Gogoak* ere xedeak eta amestutako izankizuna behin baino gehiagotan azaldu zituen. Jaiotzean, harpidetza zabaldu nahi zen bakoitzean, edota xede haiek ukituko zituen eztabaidarik sortzen zenean, aldizkariak azken asmoak birdefinitu ohi zituen. “Irakurlearen txokoa” ere saiatu zen aldizkariaren gogoia deskribatzen³⁸.

Oso funtsezko ideia baten gain eraiki nahi izan zuen Zaitegik bere aldizkaria: *Euzko-Gogoak* kultur aldizkari bat izan behar zuen eta euskara hutsez emana, gainera. Hizkuntzari gaitasun berri bat emateko bide horretatik jo beharra zegoela uste zuen zuzendariak. Etor zitezkeen euskaldun eskolatuentzat pen-

³⁷ [N. B.: Iztueta 2001, eta <<http://andima.armiarma.com/eugo/gehi04.htm>>].

³⁸ Ezagutzen ditudan bi orri hegalariai aintzakotzat hartzekoak dira (bata 1949ko udazkenekoa, “Asmoa”; bestea, 1954an publizitate gisa zabaldua, “Euzko-Gogoa” izenburuz). Editorialak ezin dira ahan-tzi, orotara 21: 1954an, “Euzko-Gogoa ta gu” (I orrialdean), “VIII’gn Euzko Ikaskuntza Batzarraren inguruan” (49 orrialdean), “Amilbera” (73), eta editorial ordeko “Agur Guatemala’ri” (131), “Arturo Campion” (163 orrialdean, Aspaldiko-rena da); 1955ean, “Euskal Batzarrea” (I orrialdean), “Anaiberri” (33) eta “Etxe-aldaketa” (65), hiru hauek Andimak idatziak (ikus urteko aurkibidea). Miarritzeko aletan “Atarikoa” deitzen zaio editorialari: hamahiru emanalditan azaldu zen holakoren bat.

tsatua zen argitalpen berria. Iritzi eta jokabide horrekin aitzina eginez, aurreko eta garaiko abertzale baten baino gehiagoren burubideak hautsi nahi zituen. Honetan, Zaitetik eta Andimak erabat erradikal jokatu zuten. Antza, ez zen izan inolako duda-mudarik: Lizardiren ametsa (*Baña nik, izkuntza larreakoa, / nai aumat ere noranaikoa*) orduan eraman izan zen, taldean eta benetan, egintzetara lehenengoz. *Euzko-Gogoaren* jaiotza, hizkuntzaren bihurtze historiko bat ote den susmoa dut. Utziezina da aldizkariaren jaio aurreko deiaren pasarte hau³⁹:

Arrezkero, euskeraz bakarrik idatzi nai dugu, eusko-gogoaren barne-muiñetaraño eldu gaitezen: askatasunaren giltza galdu bai-dugu, euskera galdu ezker; eta bere izkera galdu dun erriak, erri berri eta zindoen artean bizitzerik ez du artze [sic]. Soñez iñoren morroi, gogoz, ordea, bere buru-yabe dan erria, inoiz ezpaita iñoren yopu izango, naizta egoe-ra lazgarriena izan.

Laster ikusiko zen zenbaterainoko konbentzimenduz ari zen hori idatzi zuena. Hizkuntza lan horren funtsa oso argi dago: *arazo nazionala* da, mintzairarena. Irakurleko irabaziari nahiz irabaztekoari dei bat egin behar zitzaionean oso argi esaten zitzaion arrazoia.

Euskararen balioztapen berri hau, taldearen ezaugarritzat, zenbateraino ikusten zen *Euzko-Gogoan* konturatzeko, aski da tesi horren azalpen teorikoa ezagutzea. *Euzko-Gogotarrek* belaunaldi berri baten kontzientzia agertzen dute. Euskal arazo nazionalari formulazio teoriko berria ematen ari direla uste dute eta beren ideia honela agertzen:

Euzko-Gogoá'ko gizaldiaren auzia Euskalerrria dugu, eta auzi orren askabidea Euskera, EUSKERA SOILIK. Orainarteko gure gizaldiek ez dute guk bezela Euskalerrriko auzia azaldu. Auzi ori, esan bear, aiek ere beren barne-muiñetan sentitu zuten, auzi orren askabidea ordea ez zuten guk bezela izkeraren gainean ezarri, euskararen gain, alegia. Ez dago besterik: gure auzia euskerak askatuko du, ez beste ezerk [...]. Gizaldi eder au *Euzko-Gogoá*'ri zor zaio, gure erriaren auzi-mauzi guztiak euskararen bitartez garbitu nai lituken gizaldi berria (*EG* 1955-5/12, 65).

³⁹ "Asmoa" orrian, 1949-udazkena.

1954an, zabalkunde-kanpaina bat egin zenean, arrazoiketa hau zerabilen, erdaraz, orri elebidunak:

El *euskera* es nuestra lengua: es la llave de oro de la Patria. El euskera romperá las cadenas que la esclavizan. No existe otro camino para la liberación. Alguien dijo: *Sin bandera y sin himno se puede crear una patria pero no sin lengua. La lengua es el alma de un pueblo y es también su sangre.* «En uno de nuestros viajes nos encontramos con un sabio extranjero y, naturalmente, nuestra conversación recayó sobre los problemas de Euskadi. Él nos preguntó:

- Los vascos hacen algo por su lengua?
- Muy poco o casi nada, le contestamos.
- Su pueblo, nos respondió, no es un pueblo entero, sino un pueblo a medias. Pueblo que no cultiva su lengua nacional, no merece vivir.

Vascos: Nosotros queremos vivir, queremos ser un pueblo entero y digno.

Vascos: Seréis capaces de negar vuestra ayuda a la lengua nacional? Consentiréis que el pueblo vasco aparezca ante el mundo como un pueblo cansado y desgastado, incapaz de luchar por su lengua y por su libertad? [...]. Pueblo que repudia su lengua nacional, no es un pueblo; y el patriota que desprecia o no ayuda al euskera no es patriota, sino un traidor a Euskadi»⁴⁰.

Pentsatzen zena ezin zitekeen bortizkiago agertu, nahiz eta azken hitz horiek gogorrak izan garaiko abertzale askorentzat. *Euzko-Gogoaren* jaiotza-une-ko gogoak puntu hauetara labur litezke: 1) euskal nazioaren zutabe nagusia hizkuntza da; 2) Errepublika sasoiko goraldiari segida eman behar zaio⁴¹; 3) erbesteko euskal langile sakabanatuak bildu egin behar dira⁴². Eginkizun hau guztia ez zen, nonbait, batere egingarria: “1949 garrenaren ondarrean agiri bat egin genun euskeraz, euskal aldizkaria sortzeko asmotan. Batek edo bestek

⁴⁰ 1954ko “Euzko-Gogoa” orria. Ikus *EG* 1956-uztaila: I.

⁴¹ 1949ko “Asmoa” orriak Orixe, Lizardi, Lauaxeta, Loramendi, Jauregi, Barrensorero aipatzen ditu, eta zera dio: “Oraindik bizirik dauden euskel idazle ta olerkariak iratzarri nai ditugu”.

⁴² *Ibid.*: “*Esuako-Gogoa-k* [sic] dei eginda gatoz guztiok. Non-naiko alderditatik. [...]. Orregatik atzerrietan barna gabiltzan euskel-idazleok oro elkartu ta *Euzko-Gogoa* deritzaken euskel-aldizkaria sortzea erabaki dugu”. S. Altube euskaltzain jaunak “Erbestetuek erbestetuei” agurra eman zuen lehenengo alean (*EG* 1950-ilbeltza: 8).

erantzun zigun gure asmoa aizatu nairik. Norbaitek zorotzat jo giñuzan”, idazten du Zaitegik 1954an (EG 1954a: I).

Lauzpabost urteko eskarmentuaren ondoren, bazekien Zaitegik idazlerik sonatuenak bilduta zituela bere aldizkariaren barrutira⁴³ eta, beraz, aipatu ditugun puntuetatik azken biak betexeak. Lehenengo hark, ordea, arazo latzagoak zekartzan berekin: hizkuntzarekiko leialtasun jatorrago bat eskatzen zioten *euzko-gogotarrek* garaiko abertzaletasunari, batez ere amodio platonikoetatik egin-tzetara iragan zedila zaletasun teoriko hura.

Nola elkartzen ziren abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna? Noraino zihoazen elkarrekin? Azken helburua markatua zegoen eta aldizkariko zuzendarien gogotan, abertzaletasunak elebakartasun batera eraman behar zuen aberria: “Euskadi dugu gure aberria ta euskera gure izkera bakarra” (EG 1954a: I)⁴⁴.

Euskarari, Euskadiren nortasunaren baitan, erabateko oinarritzotasuna aitortzen zaio *Euzko-Gogoan* eta aitorten teorikoetatik praxira iritsiz, gainera. Honetan, ausarki ere mintzatu zen aldizkaria. 1945ean VIII. Eusko-Ikaskuntza-Batzarra ospatzera zihoan (VIII Congreso de Estudios Vascos). Zaitegik aurrea hartu nahi zion etsipen antzeko zerbaitei: Oñatiko (1918) eta Gernikako (1922) Batzarren ondokoez (Gasteiz 1926, Bergara 1930) hau idatzi zuen: “Arrezkerokoak, lenengoaren itzal iñul bat baizik ez dira izan, eta euskal-ikaskuntzetan erabat antzu” (EG 1954b: 49).

Beraz, haren gardiz, Euskal Herriak azkeneko ia berrogei urteetan egindako kultur bilkurarik entzutetsuenak ere erdi hutsalak ziren. Ez zuen ezer esaten! Zergatik, ordea?

Itz gutxitan agertuko dizuegu gure erantzuna. Batzarre orietan, mai-zenik, gure izatearen erro eta gogo den euskera, lotsagarriro baztertu oi izan dutelako. Eusko-filologiaz, euskal-edestiaz, euskal-folkloreaz, gure erriaren agerkari guztietaz ekin diete, *bañan beti erderaz*. Euskerak ez du iñoiz ere batzarre orietan bere arpegi ederra erakutsi; alderantziz, nora-gabe eta eskale ibili izan da iakitun erdel-zaleen artean zapuztua ta baztertua (EG 1954b: 49). [Azpimarra gurea].

⁴³ EG 1954a, I: “[...] oraingo idazlerik bikañenak bertan egin dute batzarre”.

⁴⁴ Ikus EG 1958-orrila, 241-242: “Non-naiko errien nortasunaren ezaugarriarik nagusiena eta *garbiena*, norberaren izkera oi dugu. Egia au uka-ezina dugu, eguzkia bera baino argiagoa, noski. Egia au beste erriei buruz ontzat artzea, ta Euskalerruari buruz ezezkoan irautea, ulertezina litzake. Areago oraindik: gorrotagarria litzake”.

Pasarte honek ongi erakusten du Zaitegiren jokabideek 1979an ere duten gaurkotasuna, idatzi zenetik mende laurden bat geroago ere: “Zertarako euskeratzaz erderaz iardun? Garai ori ioana da, ta oraingo euskal-iakitun gazteek olakorik ezin dezakete egari” (EG 1954b: 49).

Editorial honek ez du euskarari buruz arduratzerik eskatzen; hori, noski baino noskiago. Harago doa: euskal jakitunek euskara erabili beharko lukete beren mintza-tresnatzat. Ez besterik. Goi jakite-mailatan euskararen normalizazio soziala eskatzea da hori, orduko bestelako hitzetan esaten bada ere.

Hau proposatzean, euskal kultur mundutxoia ezagutzen zuenez, bazuen Jokinek aurrean kontrako iritzirik ere: “Erotuta gaudela esango dute zenbait iakitun erdel-iarioek” dio, eta oraindik ere gogorkiago salatzen ditu halakoak: “Ikusi dugu zuen gurbiltasunak, zuen zuhurtziak noradiño eraman dituen gure aberri-izkera eta gure erria [...]. Zuen zuhurtzia txurikeri utsal eta ilgarria baita, gure zorotasuna berriz, euskera indaberrituko duen kemen ta oldarra” (EG 1954b: 49).

Zaitegiren kezka eta konbentzimendu hau beste gisa batean agertuko da gerotxoago. *Egan* osorik euskaraz azaltzean, ongietorrikeri txeratsuen egin zion Guatemalako euskal anaiak. Hori tarteko zela, euskaldun ikasiek behar duten euskara defendatzen du Andimaren editorialak:

Gure artean maizegi esaten digute erriarentzat, ERRI-ERRIARENTZAT alegia, idatzi bear dala; ortan ari ez geranok izkera ondutzen ari gerala ere entzun dugu bein baiño sarriago [...]. Orrezkero, guziek erribidetik soilki asiko bagiña, ez genuke iñoiz ere euskera oraingo ateka gogor ontatik atera al izango. Euskera, erriarena bezin bat ikasiena ere bada! (EG 1955-3/4: 33)⁴⁵.

Mendiburuk eta nahi izan zuten bezala, dio editorialak, ezin daiteke segi erdaraz dakiten euskaldunei erdal liburuak eskainiz, eta euskal literatura, besterik ezinean, euskaldun hutsentzat azken sendagarritzat erabiliz. Ikasiek ere euskararen lumetan behar dute hazkurria (EG 1955-3/4: 33). Aldizkaria Euskal Herrira ekartzean, beldurra eta itxaropena, biak, nahasiko zaizkio Zaitegiri

⁴⁵ Pentsamendu hori borobilduz, zera esan liteke hemen: euskararen etorkizuna ez du baserriak salbatuko eta ez da hilko industriak lurra jan diolako. Hondamendiaren arrazoiak politikoak dira (ikus EG 1954-orrilla: 73. Itxuraz, Zaitegirena da atariko hau, aurkibidean ez baitakar inoren aipurik, 1955ean Andimarekin egiten den eran).

bere baitan, eta itxaropenaren arrazoiak hortxe aurkituko ditu: idazle berriak ageri dira, euskara edozertarako egokiaraziz (“izkera baten bizi bearrerako gai guziak bear ditugu”). Dozena-erdi bat aldiz aipatzen da editorialetan euskara ikastetxe nagusirako –Unibertsitaterako– prestatu beharra. Honetan ere aitzindari zen *Euzko-Gogoa*⁴⁶. Gehiegi ez luzatzearren, ez dut hemen jasoko hainbat pasarte eder; baina, laburtuz, esan dezadan 1956an, alde zuzenetik igarri zuela, bere desiretan, ondoko urteetako euskal garapena. Uhin berriaren euskaltzale-tasun jantziagoak bihotzean ukitu zuen Zaitegi⁴⁷.

Testuinguru honetan sortu zen eztabaida jakingarri bat, *Eganen* orrialdeetatik *Euzko-Gogoara* zihoana, *Euskera* ere tartean zelarik. Umandik artikuluxka lla-bur bat egin zuen *Euzko-Gogoan Euskera* aldizkariaren aurkezpena eginez eta bere harridura azalduz:

Azkenik eskuetara zait Euskaltzaindia'ren aldizkaria: ao bete aginekin utzi nau, damurik. Zortzi idazlanetatik bi soilik euskeraz, Altube eta Lekuona euskaltzain iakintsuenak, alegia⁴⁸.

Egun –urteak joan dira– gu areago harritzen gaitu, noski, baina ez da ahan-tzi behar orduan arazo honetan ez zuela euskaltzaleen munduak gaurko heldutasunik, eta orduko euskararen gaitasun ezagatik ezinbestekotzat onartzen zela euskaltzaleen artean erdara lanabes bezala erabiltzea. Ohitura horren kontra agertu zen Umandi. Ez zuen erdal *normaltasun* hura zuzenetsi nahi eta, ene ustez, eztabaidagaiaren argigarri baino nahasleago izango zen hautabide bat ematen zuen kritikoak, hura desbideratuz: “Euskalariak baino areago euskaldun eta euskaltzaleak behar ditugu”. Ez zen hori arazoaren aurkezpen-erazorrotzegia, baina horrek azpian borborrean zekarren eskakizuna –euskara

⁴⁶ Esate baterako, *EG* 1956-epaila, 2: “Gaztedi buru-iantzi ori bere gaiak, bere kezak eta irrikak oro euskeraz adierazten asi ta euskerazko ikastetxe nagusia dukegunean, euskera biziko da zoli eta ozen”. 1960ko *Jakinen* agertutakoek berretsi egingo zuten itxaropen hori. Ikus *EG* 1957-iraila: I orrialdea, eta *Yakin* 3-4, 1960: 3. orrialdea (aldizkariaren gehigarria).

⁴⁷ Bide batez aipa dezadan hemen *Euzko-Gogoak* bere egitekoaz zuen kontzientzia historikoa: *EG* 1955-orrilla: I; *EG* 1956-uztaila: I; *EG* 1957-orrilla: 2; *EG* 1958-ilbeltza: I. Euskal idazleen belaunaldiez oro har, eta orduan garaikide ziren belaunaldiez esandakoak ikus *EG* 1957-uztaila: I.

⁴⁸ Ikus U[rrestarazu] jaunaren lana: *EG* 1956-I/2: 115 (gerraondoko lehenengo *Euskerari* buruz): K. Mitxelena-ren “Euzko-Gogoa eta Euskera” erantzuna (*Egan* 5-6, 1956: 157-163), eta gero: *EG* 1956-orrilla: I-2.

zernahitan erabiltzea— bidezkoa zen, inondik ere⁴⁹.

Koldo Mitxelena, tartean zegoenez, gauzak beren tokira ekarri nahi izan zituen. Sei orrialde beteko iruzkina idatzi zuen *Eganen*. Lanari ez zitzaion falta bere piper ona, eta luma zaluaren iaioetasuna: “Beldur naiz orratik, etsai izugarriak eta erraldoi itzalak apurtzen dituelakoan, ez ote den ardi otxan eta aize-errotekin borrokan ibilli” (Mitxelena 1956: 157). Mitxelena, besteak beste, zera nahi zuen: ikertzaileak bere aurkikunde berriak komeni den tokitara eramateko hizkuntza aukeratzean, zentzu praktikoz jokatzeari.

Munduan barrena dabilzan esku-liburuak, euskaldunen ikasbidetako, itzultzeari eta aien gisakoak antolatzeari ezin obeki derizkiot. Baiña jakintza-arloan billa ari denak ezer berririk euskeraz adierazi? Zertarako? Kontatzen dakienak ezta orrelakorik egingo (Mitxelena 1956: 160-161).

Nazioarteko beste zientzia-aldizkarien halabeharrezko jokabidea gogoratzion Mitxelena Umandiri, ohar hau gehituz: “euskal-kultura nai nuke, kultura orrek euskera mintzabide duela”. Bestalde, euskaraz letozkeen lanen eduki-kalitatea azpimarratzen zuen Mitxelena.

Eztabaida hartan kristauek ez ezik, aldizkariak ere egin zuten elkarrekin estropezu⁵⁰; horregatik, bere aldetik hartu zuen gaia Zaitegik editorial batean elkarrizketa gozatu eta Umandiren eskakizuna berretsiz.

Dena den, elkarrizketa hura bi plano ezberdinetan eramanez zela esango luke batek, batez ere *Euzko-Gogoaren* azken editoriala irakurri ondoren. Badirudi, behingoz behintzat, une hartako bi kezken lehentasun ezberdinek (hizkuntza/eduki-kalitatea) egin zutela batak bestearekin topo. Eta, azkenik, *abertzaletasuna/euskaltzaletasuna/profesionaltasunaren ogibidea* hirukoteko balioak eguneroko egintzetan elkarrekin nola ezkondu zen galdera erantzun gabe bat. Oraindik ere erantzun osorik gabe daukaguna noski.

Honaino iristean, *Euzko-Gogoaren* orrialdeetan nahiko luzatu zen eztabaida jaso behar da hemen. Abertzaletasunaren, jeltzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren arteko harremani buruzko eztabaida, alegia⁵¹.

⁴⁹ Ez dut uste Umandik alderdikieriaz hitz egin zuenik, edo, behintzat, *Euzko-Gogoatik*, lehendik ere eske hau eguzkialde guztietara zabaldua zegoen. Ikus *EG* 1954: 49; 1955: 33.

⁵⁰ Bi lantxo aldera litezke: *EG* 1955-epailla: “Anai berri” eta *Eganeko* lantxo honen lehenengo lerroak.

⁵¹ Eztabaidaren ataria *EG* 1954-epailla, 49 orrialdean dago, Gasteiz (1926), Bergara (1930) eta ondoko

Aldizkariak mahaiaren gainean jarritako galdera hauxe zen: Hizkuntzarekiko zein leialtasun mota eskatzen zitzaion euskal abertzaletasunari? Areago oraindik, gaur egungo eztabaidetara hurbiltzen den galdera: alderdi politikoak, eta berezikiago jelkideak euskararekiko praxian leialak al ziren benetan?

Zaitegiren edo Andimaren lumatik irtendako (ia seguru Jokinena da) editorialak honela dio inolako lotsarik gabe:

Gure erriak, berriz, ez du izan inoiz ere ortarako [hizkuntzaren defentsan gizontasunik erakusteko] kemenik, euskera aintzat artu eta zegokion gaindegira eramateko. Aitzitik, betidanik erakutsi izan du erri-
-elearekiko arbuiorik lotsagarriena, eta arbuio ortan darraiki oraindik ere. Abertzaletasunak, itsualdi ontatik euskotarrak aterako zitula esan edo uste zitekean. Ez ba... Gurean Jel-alderdia izan da abertzaletasunaren arrobia, baita euskeraren illobia ere. Ez noski, asmoz ta iakitez, bai ordea, bear bezelako gizontasunik ukan ez dutelako izkera-auzi latz ontan (EG 1954-5/8: 74).

Aipu hau gogorra da, baina ez dirudi, inola ere, setakeriaz idatzia izan zenik, hurrengo zenbaki batean “Irakurlearen Txokoa”k hauxe baitio: “Ondo genekigun esakera batek maiteen ditugunak naigabetuko zitula, eta ala gertatu da. [...]. Ez da goxo maiteen ditugunak iotea baiña noizipein bearrezko gertatzen da gogoz bestera ere” (EG 1954-II/12: 205). Nor zen, bada, mindu eta nahigabetutako hori? Zalantzarik gabe, Eusko Alderdi Jeltzalearen *Alderdi* aldizkaria batez ere, beronek editorial batekin erantzun baitzion *Euzko-Gogoari*: “Nor euzkeraren erailleak?”⁵².

Alderdi honela erantzuten zuen, gaur egun ere hain bizirik eta tratatua dagoen partidu politikoen hizkuntza ofizialaren auzia harrotuz:

Ez omen du Jel-alderdiak «bear bezelako gizontasunik ukan» izkera-auzi latz ontan, alderdiko ele bakartzat artu etzulako, alderkide guztiak aberri-izakera, itzez ta idatziz erabili zezaten. [...]. Nola egin zezaken Jel-alderdia, bere izkuntz soila, baldin, bere bazkide geyenak erdeldunak baziran? (*Alderdi* 1955-otsailla: 2-3).

Kongresuak salatzean. EG 1954-orrilla, 73 orrialdean, “Amilbera” idazlanean, lehertzen da gordinki. Oihartzunak, ikus EG 1954-azilla: 205.

⁵² *Alderdi* 1955-otsailla: 2-3.

Handik (1954-1955) honako urteetan ikusi eta entzun ditugunak jakinki, harritzekoa da nolako patxadaz eta ñabarduraz eman zuen *Alderdik* erantzuna: “(Euzko-Gogoak) esan nahi badu Jel-alderdiak ez duela bear ain egin, euzkera zegokion malletan ipintzeko, zuzen dago Euzko-Gogoa, baño oker dabill esan nai badu gure alderdiak gogotik euzkeraren alde alegindu ez dala”. Aldizkari jelkidea sinetsita zegoen, ez zegoela “Jel-alderdiak aurretik, barrendik edo gibebetik eragin gabekorik [euskal ekintzarik]”, eta areago zihoan oraindik editoriala: “Euzko-Gogoa bera, abertzaleen laguntasunik gabe, zer izango ote litzake?” (*Alderdi* 1955-otsailla: 2-3). Zoritxarrez, Zaitegirentzat ez zen egia azkeneko hau⁵³, eta horrexek ematen zion min *Euzko-Gogoari*.

Edozein erakunde sozialek —dela alderdi politikoa, dela Eliza, dela beste edozein antolamendu— bere iturburuetakoko funtsezko ideia bati ere saldukeria bat egin liezaioke, eta hori askotan gertatu da Historian⁵⁴. Utopia huts eta antzutan erori nahi ez bada, ordea, erakundeak beharrezkoak dira beti hizkuntzaren errebindikazioa gizartean aurrera ateratzeko. Zaitegi urduri agertzen zen desleialtasun nazional batzuen aurrean, eta euskal politikarientzat erronka bat ziren Zaitegik idatzitakoak, laido bat baino gehiago, hain talde barrutik hitz egiten baitzien hark.

Mexikoko *Euzko-Deyak* ere aintzakotzat hartu zuen. Ogoñope-k (Antonio Ruiz de Azua-k) erantzun zion Zaitegiri, beronek dioenez, “bidetsu eta neurritsu” (*EG* 1954-II/12: 205)⁵⁵. Jendea mindu bazen ere ez zen gehiegi ozpindu, oraindik ez baitzeuden nabarmenduegiak geroko bereizketa politikoak, eta betiere *Euzko-Gogoatik* ari zirenak “barnekotzat” jotzen ziren alderdian. Bere solaskideei ihardestean ere Jokinek batere berokeriarik gabe egin zuen:

Arekin [Ogoñope-rekin] gaude «euskerak, beste ezeri baiño gehiago, abertzaletasunari zor diola» diñonean. Egi ori ezin dezake inork ukatu, eta guk ere ez genun aturrekoan ukatzen. Azken-aldi auetan, ordea, abertzale askoren artean ez da ageri len-aldietako euskaltzaleta-

⁵³ Ikus ondoko pasartea: “Bigarren urtean barrena yoan goaz ta oraindik ez igazko arpidearen saririk ordaindu, are gutxiago aurtengoa. Ez uste «Euzko-Gogoa» aberats porrokatua danik” (*EG* 1951-5/6: 53).

⁵⁴ Niretzat, kasu honen adibiderik argiena Puerto Rico-ko Muñoz Marín eta beronen “Partido Popular Democrático” a izango lirake. Agian, aldizkari honen orrialdeetara ekarri beharko den historia. Arazo honetan Irlandan ere badago zer ikasirik (ikus Azurmendi 1977).

⁵⁵ Ezin izan dut ikusi Mexikoko *Euzko-Deya* hori.

sunik. Antxiñakoei negar-eragingo lizkieken gertari asko ezagutzen ditugu, abertzaleen artean gertatuak, euskarari buruzki gertatuak (*EG* 1954-II/12: 205).

Hor bukatu zen eztabaida. Gehiagorik gabe.

Editorialetan ikusten denetik, aldizkariaren zuzendaritzak ez zuen eztabaida eta euskaldunen arteko liskarretarako batere gogorik. Benetan ari zirela esango nuke, baina ohar honek ñabarduraren bat beharko du: alde batetik, euskaltzale askoren artean egindako argitalpena zen *Euzko-Gogoa* eta ezinezkoa zen lankideen arteko gizarte-gatazkak ez ispilatzea, zentsuraren aingerukeria horretan ez zen erori zuzendaria, zetozen iritzi ezberdinei toki eman baitzien; bestetik, aldizkariaren pentsamenduak bazituen habe nagusi batzuk: aldizkariak beti defendatu zituen haiek, nornahiren aurrean eta, behar zenean, kontra ere⁵⁶.

Arrazoi horiengatik aldizkariaren orrialdeetan bada eztabaidarik, aipatu ditugunak eta beste. Denborarekin, *Euzko-Gogoak* galdu egin zuen Guatemalako urruntasunak zuen inguru erromantikoa eta *lurtarragoa* edo egin zen. Euskadiko euskaltzaleek galdu egin zioten lehenengo urteetan zioten itzal hura: “Bazterretan etsai gorriak ditu gure aldizkariak, ixilean eta agerian, zoritxarrez” idazten da 1957an, editorial batean (*EG* 1957-5/6: 1). Zer gertatzen zen, bada?

Garai bateko baikortasuna epeltzen ari zaio Zaitegiri⁵⁷: frankismoak erabakita zuen, noski, aldizkaria mugan itotzea; baina Hegoaldeko euskaltzaleen artean ere aldizkariaren gidaritzak bakar hura ez da orain hain bakarra. Adinekoen artean lankidetzak berriak bildu ditu (1956), baina batzuek ez dute segida iraunkorrik izango eta gazteei harrerarik onena egiten diela ere (*EG* 1957-5/6: 1), Hegoaldean barnean sortzen dira komentu-etxe eta seminarioetako euskal mintegientzat aldizkari berriak (*Jakin* 1956, *Arnas* 1959, *Laiaketan* 1959, *Erein* 1960). Hegoaldetik bertatik egin behar zen lan⁵⁸. Azken mementoan jakin dudanez, 1956an ikusia zeukan Zaitegik euskal argitalpenen berehalako

⁵⁶ *EG* 1958-ilbeltza, I: “Guk geure iardunbidea aukeratua dugu aspaldidanik, argi ta garbi izan ere [...]. Ez omen gera bear ainbateko bigunak”. Gainerako euskal aldizkariak *Euzko-Gogoak* nola tratatu zituen ikusteko: *EG* hainbat tokitan (1950-epaila: 28, 55; 1950-orrilla: 22; 1951-iraila: 66; 1952-ilbeltza: 30; 1952-epaila: 28; 1952-uztaila: 25; 1952-urria: 28; 1954-ilbeltza: 48; 1954: 159; 1955-epaila: 1). *Gernika*, *Egan*, *Jakin*, etab. dira aipatuak eta beti, esan behar da, ongiatorritik onenarekin.

⁵⁷ Miarritzeko emanaldietan aski garbi sumatzen da hori.

⁵⁸ *Eganeko* zuzendaritzak ere horixe egiten zuen, etxe barnetik politika posibilista bat jarraituz. Badut susmorik K. Mitxelena ez ote zuen arazo honetaz iritzi oso egin bat: jakingarria litzateke 1956-1960ko urteetan euskal kultur ekintzarekiko ikuspuntuak arazo honetan kontrajarriak zeuden ala ez, eta nola.

etorkizuna: Gabon aurrean, *Jakin* jaio berriari laguntzera etorrira Arantzazun egokiturik, honelaxe mintzatu omen zitzaion F. Mendizabali: “Asmatu duzue, bildu dituzue gazteak, eta zuena izanen da geroa”. Belaunaldi berri bat jaioa zela asmatu zuen, nonbait, eta pozez zegoen Jokin, berak 1924-1930. urteetan amestutakoa hogeita hamar urte geroago egiaztatzen zela zihoala ikusita.

Garaiak hain aldakor ageri diren horretan, *Euzko-Gogoak* salatuta sentitzen du bere burua. Egiten zaizkion salaketak honela biltzen ditu Zaitegik: 1) “Batasunaren urratzaile eta alderdikari omen gera”; 2) “guk darabilgun euskera ez omen da euskera” (EG 1957-5/6: 1). Lehenengo puntuaz ari dela, zera dio Jokinek: jende-biltzaile eta lan-eragile izan dela aldizkaria, askoren lozorroak hautsiz (“Lenago il, *prudente*on bidez ibili baino” EG 1958-1/2: 1-2). Horren arabera, ezinbestekoa zen zenbait jendaila alfer eta utzi mintzea, aldizkariak piztu nahi zuen mugimendu euskaltzalea mugiaraztean. Dena den, Zaitegik berak eskatzen zien idazleei egonarriz jokatzeko:

Beste gauza bat ere, nabaitu det gure artean. Izketan ari zaizunean, oso gozo ta «korrientea» billatzen dezu laguna; baña luma eskuetan artu ta idazten asten ba-zaizu egundoko minbera ta ezten zorrotzez bustia agertzen zaizu adiskide zenduana (EG 1958-3/4: 121).

Euzko-Gogoaren euskarari gagozkiola, badago iluntasunik, niretzat behintzat, aldizkariari egiten zitzaion salaketa horretan. Zaitegiren egiaztapen hori, beranduenik, 1957ko azarokoa da. Data horretan *Jakin*, bederen, *Euzko-Gogoaren* euskara-moldetan ibiltzeko gogoz agertzen da oraindik (etena kasik hiru urte geroagokoa da); beraz, badirudi darabilgun euskararen salatariak belaunaldi zaharrekoen artean daudela, batez ere aldizkaria herri-hizkuntzatik urruntzen ari zela salatzen ziotenen artean, ikasi eta eskolatuentzat hizkera berriak sortu beharra maiz aipatu baitzuen *Euzko-Gogoak*⁵⁹.

Eztabaidak eta salaketak hor ditugula ere, benetan garrantzizkoa beste zer-bait da: aldizkariak berak egindako lana. *Euzko-Gogoa* egiaz zer izan zen jakin beharko genuke baina artikulua hau luzeegi doanez, oso kanpotik datu batzuetara mugatuko naiz.

⁵⁹ Gogoan har arestian arazo honetaz jaso ditugunak. Aztertzekeo litzateke orduko (1954-1960) eta gaur egungo (1968-1979) herri-hizkuntzaren defendatzaileen arteko hurbiltasuna edo urruntasuna.

2.2. Zer izan zen *Euzko-Gogo*?

Aldizkariaren edukiaz deus guti esango dut hemen, datu batzuk besterik ez, argitalpenaren historiako zenbait gertakari bitxi bere lekuan uzteko.

*Euzko-Gogo*aren bizitza 1950etik 1960 arte luzatzen da. Lehenengo begiradan bestelakorik badirudi ere, halaxe da. Teorian hamaika urteko bizitza izan zuen, eta teorian, diot, bederatzi urtetako aleak bakarrik azaldu baitziren.

Irten eta berehala (hilabetekaria izan nahi zuen), atzerapenak sumatzen dira. Laster bihilabetekaria bilakatuko da eta azkenik atzerapena hainbestekoa zuelako, urtebete oso baten hutsunea ontzat emanda, 1952korik gabe utziko da zenbakien zerrenda.

Orotara, 3.658 orrialde biltzen ditu *Euzko-Gogo*aren bilduma osoak, 44 emanalditan (ez zenbakitan) banatuak. Emanaldirik gehien biltzen duen urtea, lehenengoa da; gutxiena, berriz, Guatemalako azken urtea (1955). Nolanahi ere, zabal-altuz eta orrialdez oso ezberdinak izan ziren Guatemalakoak eta Miarritzekoak: 30 x 22 cm eta 18 x 13 cm. Egia esan, Guatemalakoetan ere ez dago berdintasunik. Behin Miarritzen zenez geroztik, saiatu zen aldizkaria beti 120 orrialdeetara iritsi eta mugatzen, baina zenbaki bereziren batean oso luzatu zen arau hori: Olabide-ri eskainiak 271 orrialde izan zituen.

Guatemalako garaietan, urtez urte, orrialdeak urrituz joan ziren (332/324/252/210/144), baina Miarritzeko aroan, 1956aren ondoren, gehituz joango zen, harik eta 1959an, urte erdia eman ondoren, hil zen arte⁶⁰. Aldizkariaren segida kolpeka bete zela esan behar da. Esate baterako, 1957ko urte naturalaren barnean zortzi zenbaki argitaratu ziren, bakoitzak 120 orrialde zituela (orotara 960): erdiak 1956ko atzeratuak, eta horrelatsu jarraiki zen harik eta 1958an zenbakiak eguneratu ziren arte; hala ere, 1959ko bi aleak, azkenak, berandu agertuko dira. *Euzko-Gogo*aren sorta ixten duenak honela dio: *imprimé en juillet 1960*.

⁶⁰ Testu-masa ikusi gabe geratzen zaigu hemen. Bi aroen alderaketa bat interesgarria izan liteke eta, zer esanik ez, idazleen lan kopuruak elkarrekin konparatzea.

Euzko-GOGOA: EDUKI KOPURUA, URTEZ URTE

Urtea	Inprima-unea	Non	Emanaldiak	Or.
1950	--	Guatemala	7	332
1951	Atzeratuz	Guatemala	6	324
1952	Urtebeko atzerapena	Guatemala	6	252
1953	--	--	--	--
1954	Garaiz	Guatemala	5	210
1955	Atzeratuz	Guatemala	3	144
1956	Lau ale, 1957ko martxoaz geroztik	Miarritze	6	720
1957	Atzeratuz	Miarritze	5	672
1958	Eguneratuz	Miarritze	4	708
1959	Atzeratuz (1960ko uztailean hil)	Miarritze	2	296
Orotara	3.658 orrialde	<i>Guatemala</i>	<i>5 urte-aldi</i>	<i>1.262</i>
		<i>Miarritze</i>	<i>4 urte-aldi</i>	<i>2.396</i>

Gogoan har Guatemalako eta Miarritzeko zenbakiak, esan bezala, neurriz guztiz ezberdinak zirela.

Euzko-Gogoak erabili zituen gaiak ugariak eta nahiko mota ezberdinetakoak izan ziren. UNESCOren sailkapenetik egokituta, ondorengo laukia moldatu dugu eta bertan ikus daitezke zeintzuk diren erabilienak.

Zalantzarik gabe, Literatura eta hizkuntzari dagozkie orrialderik gehienak: %57,48 eta %14,43, orotara aldizkariaren %71 egiten dutela. Gainerakoa oso barreiatua dator: Soziologia, Historia, Natura-Zientziak eta abar. Dena den, horixe zen aldizkariaren asmoetako bat: gai denak eta ezberdinenak erabili, eta denak euskaraz maneiatu. Egia da gogo hori ez zela bete osorik. UNESCOren sailkapenaren arabera, puntu aski ukitu gabe geratu ziren (Ekonomia, Zuzenbidea, Zientzia militarrek, Matematika, etab.); hala ere, aldizkariak eka- rri zituen entsegu berriak ordura arteko mugak garbi hautsi zituen, lankideek zekarten aurreprestakuntzaren esparruan, noski.

Ehunekoak honela geratu ziren aldizkariak bere bizitza amaitzean⁶¹.

⁶¹ Kalkuluak ez dira egin testu-masa letraz letra jasoz, orrialdez orrialde begiratuz baizik. Hala ere, hurbilketa fidagarria dela uste dut, errakuntza tarte eskasekoa, alegia.

GAIEN EHUNEKOAK

Sailak	%
Atarikoak	1,03
Aldizkarikoak	4,68
Literatura	57,48
Olertia 10,70	
Kontakizunak 12,02	
Antzertia 19,50	
Kritika 15,26	
Linguistika	14,43
Soziologia	4,15
Historia	5,86
Erlijioa	4,71
Arte ederrak	1,59
Filosofia	3,35
Etnologia	1,47
Natura-Zientziak	0,94
Psikologia	0,26
Beste	0,05
	%100

Euskal tradizioari begira, nabarmena da *Euzko-Gogoa* nola aldendu zen erlijio-gaietatik (%4,71 bakarrik)⁶²; sekularizatze prozesu batera bultzatu zuen, beraz, euskal kultura. Esan gabe doa, *Euzko-Gogoak* Eskolastika edo Neoeskolastikaren lurretan zeuzkala bere pentsamendu filosofikoaren zuztarrak, baina garai haietarako —hainbat apaizek edo apaizgai izandako jarraitzaile leiallek egindakoa izanik— harrigarri da hainbesteko sekulartasun hori. Zentzu honetan, orrialdez orrialde begiratu ez badut ere, *Jakinen* lehenengo urteak

⁶² Historian eta Filosofian, esate baterako, erlijio-gairik ere aurki liteke, baina ez dut uste, dena batera bildurik ere, %10era iritsiko litzatekeenik.

(1956-1964) askoz eliztarrago agertzen zaizkigu; alde horretatik, badut susmorik *Eganen* paretsuan geratzen zitzaigula urte haietan *Euzko-Gogoa*.

Soziologiaz jaiotza-urtetik bertatik kezkatu zen aldizkaria (45en bat orrialde), hala nola Historiaz (27ren bat), eta Arte ederrak ere (musika, pintura...) nahikoa zaintzen dira. Ondoko urteetan beheraka etorriko dira sail horiek. Filosofia, ostera, gora doa, orrialdeak ugarituz.

Sailetan banatutakoa arakutzen bada, honela agertzen dira idazleen interesak: Soziologiaz idatzi zuen saiatuena Argarate izan zen (“Euzko-langilliei oyuak”, 1950 eta 1952). Beste jesulagun batek idatzi zuen Historiaz, Sarobe-k: “Euskalerrria Yesukristo’ren garaian Strabon’aren arauz” (1950). Bi lan hauek lehenagotik jasotakoak, inondik ere. Miarritzeko aleak ere aberatsak dira lan historikoetan: Heraldika (Kerexeta: “Mazmarroiztia”), Gipuzkoaren Historia (Lekuona), Foruak (Lekuona), Bibliografia (Altzola), Antxieta misiolaria, Etxahun (Etxaide), Qumran-go bilakuntzak (Gaztañaga), etab. Bingen Ametzagak Plinio gazteari buruz jardun zuen (1951).

Erljio alorrean batik bat Zaitegik berak egin zuen lan. Aldizkarian agertu zen parte on batez geroko *Bidalien Egiñak*; lehenengo urteetako aurkibidean aparteko saila dago “Idazti-Deunak” dioena. Arte ederretatik, Andimak erabili zituen musikari zegozkion batzuk: Bach, Verdi, etab.; Kerexetak beste batzuk: Chopin, Erromantikoak, etab.; Etxaidek eresi zaharrak. Arte plastikoek ere izan zuten tokirik aldizkarian: Zubiaurretarrak (Zaitegi), arte abstraktua (Errezola), etab. Euskaraz estetikari buruz eman diren lanetatik jakingarrienetako bat aldizkari honetantxe agertu zen: Orixeren “On eta eder”, “Egi eta eder”, “Antza eta eder” (1951-1955).

Bide horri jarraikiz, ikustekoa da Filosofiaz idatzitako lan-zerrenda, batzuetan pentsamendu klasikoa, eta moderno ere, euskaraz eman nahiz; bestetetan (bereziki Orixek) geure hizkuntzatik bertatik Filosofiara pasaz. Zaitegik, sofistak, Sokrates, Platon, Parmenides, Pitagoras landu zituen, baina baita Heidegger ere; Nietzsche ere ez zen ahantzia izan eta Spinoza, Kierkegaard, Unamuno eta existentzialistak ere han daude, Lafitte, S. Mitxelena eta besteren eskutik. Orixek Filosofiaren Historiari baino gehiago helduko zien arazoei: “Izatena ta gertatzena” (EG 1954-3/4), “Noizko-nongoak” (EG 1955-1/2).

Kezka intelektual horien gaitetik, euskararen arazoa da nagusi aldizkarian, Literaturatik, Linguistikatik nahiz Soziolinguistikatik begiratuta. Behin edo beste guretzat nahiko bizantziarrak diren sasi-arazoak ere hantxe aurkituko ditugu. Irteten ziren liburuen kritika Andimak egiten zuen arrunki “Idazti berriak” sailean eta bertan ikus daiteke garaiko idazlan multzo on bati buruzko kritika, Labaienek edo Zeletak horretan ere noizbehinka laguntzen zutela.

Euskal Literaturaren Historiari arduraz begiratu zitzaion, lehenengo aletik bertatik. Zaitetik aztertu zituen “Aitzol’en gizaldia”, “Loramendi”, “Barrenso”, “Lizardi’tar Xabier”, etab., Rabelais edo Staël ere gogoan zituela. Joanes Etxeberri, Pello M. Otaño, Irazusta, Azkue, Lafon, Prai Bartolome, Añibarro, Ubillos, Uriarte, Arrese Beitia, Olabide, etab., banaka aztertu ziren; beste batzuetan, taldeka hartzen dira autoreak: idazle frantziskotarrak (Villasante) edo jesulagunak (P. Etxeberria), “Gure olerkariak” (Leizaola).

Itzulpenek toki seinalatua dute aldizkarian. Antza, erbestealdiak Literatura berriekin harremanetan jarri zituen gure idazleak. Jakina da, Zaitetik erraztasun handia zuela hizkuntzetarako (frantsesa, ingelesa, grekoa, latina, hebreera, etab.). Olertian eta antzertian egin zen lanik gehiena: Mirandek olerkari zeltikoak, Poe eta beste itzuli zituen. Goethe (Labaien), Shakespeare (Ametzagaña), Verlain eta Baudelaire (Aresti) izan ziren itzultitako beste poeta batzuk. Andimak eman zituen Bergili-ren “Unai-kantak” (1954-1955), zatika-zatika.

Hitz lauzko literatur itzulpen luzeagoak ere egon ziren. Antzerkia eta saiakera dira aipagarrienak: Benavente-ren “La fuerza bruta” (1950), Shakespeare-ren “Macbeth” (1957) eta “King Lear” (1958), etab. Saiakera munduan Bingen Ametzaga-k itzuli zuen Kikero-ren “De Amicitia” (1952-1954). *Euzko-Gogoako* itzulpenen azterketak interesik franko izan lezake guretzat: lankideen literatur gustuez berriren bat jaso liteke hortik, eta batez ere aldizkarian erabilitako itzulpen-sistemak ezagut genitzake; gaur darabiltzagunetatik urrun zeuden, noski, itzultzaile haien irizpideak.

Berriro poesiara gatozela, estatistika hauek bildu ahal izan ditugu⁶³: 17.535 bertso-lerro eman zituen aldizkariak. Berrogeita hamabostean eman zuen olerki sortarik aberatsena, eta onena ere baietz esango nuke: 3.664 bertso-lerro, hau da, aldizkarian agertutako olertiaren %20. Urte horretako Guatemalako azken alean eman ziren, lehentxeago aldizkariak berak eraturiko lehiaketara etorritako poema sarituen atalik onenak. S. Mitxelenak irabazi zuen sariketa, aspaldidanik bukatuak zeukan poema luze batekin, hain zuzen, *Arantzazu, euskal-sinismenaren poemaren* hirugarren parte argitaratu ezinarekin: “Bizi nai”.

Olerkaririk emankorrenak ondoko hauek izan ziren, eta orotarik %65 berek eman zuten, lauren artean ia %40.

⁶³ Eskerrak eman behar dizkiet Mila eta Pili Larrea andereñoiei, hemen eta lan honetako beste kalkuluetan eman didaten laguntzagatik.

OLERKARIRIK EMANKORRENAK

Olerkaria	Lerroak	%
Salbatore Mitxelena, <i>Egarin</i>	2.078	11,85
Nemesio Etxaniz, <i>Amillaitz</i>	1.975	11,26
Nikolas Ormaetxea, <i>Orixe</i>	1.415	8,06
Balendin Aurre-Apraiz, <i>Aurraitz</i>	1.400	7,98
Iñaki Olabeaga	691	3,94
Jon Mirande	655	3,73
Jokin Zaitegi, <i>Udalaiitze</i>	644	3,67
Polikarpo Iraizozkoa, <i>Irisarri</i>	526	3,___
Xabier Diharce, <i>Iratzeder</i>	480	2,73
F. Zerio, <i>Biurko</i>	426	2,42
Luis Jauregi, <i>Jautarkol</i>	420	2,39
Jon San Martín, <i>Otsadar</i>	364	2,07
Jaime Kerexeta, <i>Arantzibia</i>	354	2,01
Olerkietako %65,11		

Euzko-Gogoaren olerkari-lankidegoaren lanak hamar urte betetzen ditu, eta *Eganekoarekin* batera halako batasun bat suma liteke hor; berehala berrikuntza ekarriko duen belaunaldia da, eta aurrekoekin zubi gertatzen zaiguna.

Literaturaz gain, euskaldunon artean hain sarritan agertzen den kezka erantzunez, *Euzko-Gogoan* hizkuntzari buruzko eztabaidak agertzen dira, eta ezin liteke itxi edukiari dagokion atal hau horretaz zerbait esan gabe. Aldizkariaren bataio-orduan bertan hasi ziren eztabaida hauek: *Euzko-Gogoa* behar zuen izan aldizkariak ala *Eusko-Gogoa*, s-z? 1951n Jemein eta Orixeren artean piztu zen arazoa, Zaitegi ere tarteko zela⁶⁴.

Gramatikariek leku zabala aurkitu zuten *Euzko-Gogoaren* orrialdeetan: Altube, Orixe, Oiartzabal, Jemein, Etxaide, etab. Hizkuntzari eta elkarri arta-jorriarik asko egin zioten, ez baitira ahantzi behar Orixe eginkizun hauetarako

⁶⁴ Jadarkak: EG 1951-epailla: 31; 1951-iraila: 49; 1951-azilla: 5. Orixe: EG 1951-epailla: 34; 1951-azilla: 12. Zaitegik: EG 1951-epailla: 33. Berritri Jadarkak: EG 1952-epailla: 25.

zituden etorria eta jarioa. Altubek zenbakiz zenbaki, bere “Erderakadarik txarrenak” eman zuen, 1950etik hasita. Orixek, ostera, aditzari eman zion leku on bat, Oiartzabal-ekin lankidetzan.

Esandako hauekin agian irakurlea gehiagoren egarritan dagoke. Hala balitz, aldizkarian bertan izan ditzake asegarriak, aiez ale orrialdeak begiratzuz eta bere aztergaiak bilatuz.

2.3. Aldizkariaren zabalkundea

Idazlegoak egiten du, egin, aldizkaria, gero zabaldu egin behar da, ondoren irakurlea topa eta azkenik, ahal denean, honi ordainarazi egin behar zaio.

Esandakoekin alde zuzenetik pentsa litekeenez, *Euzko-Gogoia* 1969an hil zenean, ez zen izan idazlegoaren zahardadez. Bestelako arrazoiak nagusitu ziren: itxuraz, *Euzko-Gogoak* zabalkunde arazoa ez zuen sekula ongi askatu. Irakurle goa, irakurle leialen kopurua, ez zen inoiz halako multzo zabal batera iritsi. Guatemalatik irtenda, beste lantegitako diru-iturriak itxi zitzaizkionean (gogora *Landibar* ikastetxea), ez zuen luzaro iraun, bere baitatik zeuzkanekin ez baitzen posible.

Munduan barna lurralde asko eta ezberdinetara zihoan *Euzko-Gogoia*. 1950ean zerrenda hau ematen zen aldizkariaren orrietan, zabalkundearen handia adieraziz:

Argentina	Peru	Ingalaterra
El Salvador	Txile	Italia
Estatu Batuak	Uruguai	Suedia
Guatemala	Venezuela	Txekoslovakia
Kolonia	Belgika	Egipto
Kuba	Bulgaria	Filipinak
Mexiko	Danimarka	Israel
Nikaragua	Espainia	Txina
Panama	Frantzia	

Zabalkunde ikusgarri honek, ordea, ahulezia bat estaltzen du: irakurleak ez dira asko, toki gehiegitan banatuak baizik. Horregatik ere, kobrantzak ez dira, beraz, batere errazak. Bigarren alean ikusten dugunez, han-hemenka badira zabalkundeaz arduratuak: Peli Irizar, Parisen; A. Arozena, Caracas-en; Galindez, New York-en, eta abar.

Harpidedunak bildu behar zituen aldizkariak. Lehenengo sei hilabeteren ondoren, ezagutzen dugun harpidedun zerrendan 36 lagun agertzen zaizkigu, 1951ko urtarrilean hamaika gehiago (EG 1950-7/8: 45; 1951-I/2: 40). Jelkide sail bat dago⁶⁵, eta Ameriketako zenbait “Euzko-etxe” (Venezuela, Mexiko). Eusko Gobernuak ere ez zuten entzungor egin, “Euzkadi’ko Jaurlaritzaren Ordezkaritza” (Baiona, New York), “Eusko-Alderdi-Jeltzalea” (sic) agertzen baitira. Kultur etxe batzuk ere aipatzekoak dira: “Sociedad de Geografía e Historia” (Guatemala), “The National Library of New York”, “Harvard University”, eta beste. Euskal Herri barneko hegoaldekorik apenas: Gipuzkoan bi aipatzen dira (bata, J. Etxaide).

Lehenengo urtea aurreratzean aldizkariak bi arazo zituen: 1) “irakorlarekin ezin burutu dugula” eta 2) “laguntzarik ez degula arkitzen”⁶⁶. Harpidedunen premia eta kobratu ezinak behin eta berriz errepikatzen dira, hartzaile gehienek ez zuten ordaintzen aldizkaria 1951n:

Bigarren urtean barrena yoa goaz ta oraindik ez igazko arpidearen saririk ordaindu, are gutxiago aurtengoa. Ez uste «Euzko-Gogoa» aberats porrokatua danik (EG 1951-5/6: 53).

Euzko-Gogoa saiatu zen bere euskal deiak samurtzen eta harpidetzaren erakarmena indartzen, bide batez euskal liburuak dohain eskainiz:

«Euzko-Gogoa»ren aldeko arpidedunak «Ebangeline», «Goldaketan», «Sopokel'en Antzerkiak» utsean eskuratu ditzakete [...]. Iru idaztiotatik bat saritzat yasoko du, norberak aukeratua (EG 1950-II/12: 31; 1951-5/6: 64).

Aldizkariaren inguruan euskaltzale asko eta abertzale gehiago zen ez ikusiarrena egiten zuenik. Andimak bortizki salatzen zituen atzerrietako euskaldun

⁶⁵ Jelkideak (Irujotarrak, Belaustegigoitia, Galindez, Ugalde, Agirre Lehendakaria eta) kasik gehienak, denak ez bada. Agirrek honela zioen: “Poz pozik artu nuan argitaldu dozun «Euzko-Gogoa». Guatemala'n eta euzkeraz! Zelako adibidea euzkaldun guzientzako. Artu zazu nere zorion bero beroena eta danen ixenian ezkerak” (EG 1950-epailla: 32).

⁶⁶ Bide batez bada ere, azpimarra dezadan hemen *Euzko-Gogoa* biziki txukun agertzen zela. Ez zuen ia irarrutsik izaten, eta toki berean esaten zaigunetik badakigu hori nola lortu zen: denbora asko galduz (“egunak eta illabeteak atzeman arte zenbaki bikoitzak aterako ditugu”). EG 1950-uztailla: 45. Ikus baita EG 1954-ilbeltza: 47 ere.

tripazain arlote eta axolagabeak. *Euzko-Gogoaren* hirugarren urtea betetzen ari da eta aski denbora igaro da erantzunak eta diru-laguntzak jasotzeko. Harpidedunek ere ugalduz joan beharko lukete. Begira zer idazten duen Ibinagabeitiak (1952):

Ezagutzen ditut zenbait arroputz eta okitu, euskaldunak geo, Ameriketa'ko lurralde aberats baten oparo bizi diranak. Donostia'tik, Yainkoak daki zenbat diru emanda berreun kilo angula eraman dituzte, egazkiñez, beren sabel borobillak kontsola beharrez. Bejon dizuela, bañan ez esan euskotar eta abertzale zeratenik! Ba al dakizu, irakurle, Venezuela'n zenbat Euzko-Gogoa saltzen diran? Ale bakar bat. [...]. Uste alduzu, irakurle, aberats okituenak [...] ezertxotan lagundu digutenik? Alkegarria, bañan iñork ere ez digu ezertxo biali, Euzko-Gogoi berean iraun-erazteko. Ori gero, idatzi diegula, Yainkoak daki zenbat kostata laguntasuna eskatuz. Izenak ere, saldoka yarriko nituke. Bañan, nagoen ixilik oraingo ontan. Egunen baten, izenok ere aizeratuko ditugu (*EG* 1952-3/4: 61-62)⁶⁷.

Hilabeteak joan, hilabeteak etorri, egoera ez zen sobera arintzen. Horregatik, 1954an, beti bezain gaizki zebilelako, dei eupada zabal bat bota zuen aldizkariak, baina itxaropen handirik gabe (*EG* 1954-1/2: 47)⁶⁸. Hala ere, etsi ezinik, dei eta dei ari zen Andima-ren luma aldizkariaren orrialdeetatik.

Euskal jendearen hozkeriaz norbaiti segurtasunak eman beharrean aurkitzen da propaganda kanpainaren ondoren, zenbaitek uste baitu abertzaleen bihotz bero eta esku zabalei zor zaiela *Euzko-Gogoaren* lana:

Abertzale ta jelkideengandik eskura dugun laguntza utsaren urren-goa izan da zoritxarrez. Mexiko ta Venezuela'ko abertzale, jelkide ta

⁶⁷ Hitz horietan ez da geratzen luma haserretua, eta gogorragoak ditu gerotxoago, hor bertan. Ikus baita *EG* 1954-1/beltza, 47 orrialdea ere, euskaldunen utzikeria tripazain eta ardozalea salatuz: “Naiago dute esteak eta gibela erre «Euzko-Gogoa»-ri lagundu baño [...]. Zer esan ordea diru itsasoan igari bizi diran euskal-aberats orietaz? Ez digute oraindik auxe ere lagundu”.

⁶⁸ Publizitate orria gaztelaniaz eta euskaraz idatzia zihoan. Behingoz erdaraz (euskal “amerikanoei”) zer esaten zen ezagutzeak badu interesik (1954an gaude, berriz diot): “Solo [Zaitegi], en medio de la indiferencia glacial de los vascos —quienes no se han dignado prestar la más mínima atención a esta magnífica empresa (de *EG*)—, la ha mantenido con su esfuerzo personal y su dinero, -Vascos: no podemos permanecer indiferentes por más tiempo”. Gisa guztiz, orri hau Andimak idatzia dela esango nuke.

euskaltzaleen artean bospaseik bakarrik ordain izan dute beuren arpide -saria (EG 1954-II/12: 205)⁶⁹.

Han-hemenka harpidedun-biltzaileak eta kobratzaileak aurkitu zituen *Euzko-Gogoa*: Batiz karmeldarra Kolonbian, M. Ugalde Caracasen, E. Arregi Argentinan, eta Eibarren taldetxo bat. Urte-sariaz aparte, norbaitek bestelako laguntzarik ere eman zuen. Hala ere, oro har, 1954ko publizitateak ez zuen fruitu oparorik eman: “Zabalkunde ostoak mundu guzian edatu genitun, oparo edatu ere. Oso gutxi erantzun digute...” (EG 1955-3/4: 64).

Euskal lanen zabalkunde arazo hau ez zen *Euzko-Gogoa*rena bakarrik, orduan eta gero, gure egunetara arte, luzatu den borroka baizik. Ofizialki ezarritako legezko eragozpenen ondoan, euskaldunen utzikeria tartean zebilen. Aldizkari honetan bertan idazten zuen Zeleta-k bazekien garaiko liburugintzaz zer bait. Honela kontatzen du *Bizi* liburu itzuliaren istorioa:

Euskera egiten dan erri bakoitzean, gutxienez bost iyeki salduko ziralakoan, *bost milla* liburu egin zitun gure idazle argiak [Tx. Irigoien-ek]. Uste bezela, bost'eko liburu sortak banatu zituan erri bakoitzera, uriko apaiz euskaltzalienai utziaz eliztarren artean banatzeko ardurea [esan beharra dago hemen, apaiz-apaizgai, fraide-fraidegai eta mojen artean entzute handia zuela liburu hark].

Iru-lau illabete geroko [sic], idazki bana zuzendu zuen, *uste izaneko apaiz euskaltzale laguntzalleai*, oarraraziaz unuzkero aisa salduak izango zituztela lenbizi bialduak eta aien txindia igorriaz eska zezatela beste sorta bat...

Dozenerdira etziran iritxi, saldutakoen edo bialitakoen txindia biali ziotenak, eta bi bakarrik, berriz iyekiren bat edo beste eskatu zituztenak (EG 1955-3/4: 53).

Garai haietako euskaltzaletasunaren indarra neurtzeko test polita gertatzen zaigu gaur datu hori. *Biziren* itzultzaileak, Irigoien apaizak, bigarrenez idatzi zien bere ustezko lankide euskaltzaleei. Eta oraingoan zer? Beste bakar batek

⁶⁹ Ikus EG 1950-uztailla: 45, EG 1955-epailla: 63. Honek bereziki 1950-1955etarako balio du, eta abertzale batzuen salbuespenak oso gogoan hartu behar dira. Miarritzeko lana, berriz, (1956-1960) Sota jaunak lagunduta egiten ote zen susmoa omen zuen A. A. jaunak. Ene ustez, berriz, [eta *DEI*ako lanean ikus liteke] Zaitegiren txanpenez egin zen Miarritzekoa, eta orduan ere abertzaleen zabarkeriaren kontra ez ezik, baita euskaltzaleen utzikeria jasanez ere.

erantzun zion, ale pare bat saldu zuela esanez eta dirua bidaliz. Liburua erabateko hondamenditik salbatzeko, Zeletarengana jo zuen autoreak. Seiehun esku-titz bidali ziren, orduan: 250 gipuzkeraz, 250 bizkaieraz, 100 nafarreraz. Erantzuteko gutun-azal eta zigiluaz zihoan dena:

Amarretik gora etziran izan, erantzunak; eta berak aitzakiak jarriaz *uri artan euskeraz irakurtzeko zaletasunik eztegora, liburua polita zala, baña euskera ulergaitza dela... liburua eskoladunentzat idatzia dela...* eta abar. Beste batzuk, ezer erantzun gabe, lenbizitik jasoriko liburu-sorta ostera itzuliaz gelditu zitzaizkidan, eta geien-geinak deus esan gabe (EG 1955-3/4: 53).

Hala ere, Zeletak –liburu-dendari euskaltzalearen zuhurtasunez beteak– ez zuen inor koldartu nahi; baina bai ameslariak errealitate elkorreka ekarri, *Euzko-Gogoara* berri horiek bidaltzean. Begiekin ikusten zen uzta urriaren gainetik, geroari begiratu behar zitzaion itxaropena galdu gabe: “Gure esanen’gaitik, etzaitzake mindu, ez adoregetu, ez aspertu. Zuen lana, benetan zaigu atsegin, egizko euskaltzaleoi. Ondoreak esango du, *zenbat balio izan duan*” (EG 1955-3/4: 53)⁷⁰. Hain zuzen, *ondorea*, isil-isilik bazetorren, itxuraz hain geldia ageri zen Euskal Herri zaharraren kolkotik; esate baterako, Eibartik hartu ziren J. S. M. eta I. L. jaun ezkutuen urte-sariak, Joan San Martin eta Imanol Laspiur-enak alegia. Harpidedun ordaintzaile hain gutxi izanik sigla gutxi hauei ahalegin ikaragarriarik gabe antzemateko gauza gara orain... Ironiari ere ematen zitzaion halako tokitxo bat: “Euskal aldizkariak, beste edonongoak bezela, ez dira aize-tik bizi. Euskerazkoak ere ordaindu egin bear dira, naizta euskaldun lukur zenbaitek besterik uste” (EG 1954-9/10: 132).

Buruhauste eta itxaropen horiekin bukatu zen Guatemalako aroa. Zein aldaketa ekar zezakeen Miarritzera egoitza aldatzeak? Hasteko, aipatu behar da aldizkariak laster sumatuko zuen arriskua: Bidasoako muga eta frankismoaren zentsura politikoa. 1954ko azken aleak salatu zuen zentsura horren jokoa eta 1960an aldizkaria itoko zuten arrazoiak bat hortxe agertzen da garbi:

Banako hau erdi iasota geneukala berri samiñenak iritsi zaizkigu Donostia’tik. *Uri hartako zentzurak “Euzko-Gogoa”ren 5-8’gn. zenbakia gorde ta arpidedunei bat ere eman ez egin du. Arrezkero beste banako bat igorri dugu 9-10’gna alegia. Oraindik ez dakigu zer gertatu zaion. Dana dala, gure*

⁷⁰ Zeleta, Donostiako Begoña liburu-dendaren jabea zen, oker ez bagaude.

aldizkaria Euskalerriko arpidedunen eskuetara irixten ezpada, erabaki garratzak artu bearrean arkitzen gera. *Gure asmoa ta biotza Euskalerrian dauzkagu eta gure lana an sartuko ezpada alperrik ari gera aldizkaria ateratzeko lerrenak egiten. Beraz gerturik gaude Euzko-Gogoa bertanbera uzteko* (EG 1954-II/12)⁷¹.

Eta erronka botatzen zien aldizkariak irakurle-idazleei: “Gure idazle ta arpidedunen iritzia iakin nai genuke [...]. Erantzunik bialtzen ezpadiguzute *Euzko-Gogoa*’ren eriotza onartzen duzutela erabakiko dugu! Erantzun len-bait-len zuen eritzia emanaz. *Bitartean ez da Euzko-Gogoa agertuko!*” (EG 1954-II/12)⁷². Hautabide horretan, irakurleek poliki erantzun zuten, aldizkariaren zuzendaritza aurrera bultzatuz⁷³.

1956. urtea harremanak berritzekoa izan zuen Zaitegik. Andima Caracas-a joana zen, zuzendaria Euskadira itzultzean. Bazirudien adiskide berriak bil zitezkeela; hilabete batzuetan ez dago apenas aldizkariaren orrialdeetatik dei larririk zabaldu beharrik. Baina *Euzko-Gogoak* ez zuen, noski, bere burua ordaintzen: “Bi edo iru arpidedun zintzo kendu ezkerro, besteak oro iaramonik ez dizue egiten. [...]. Ta arpidea ordaindu gutxiagok oraindik”, idazten da 1957an berriz (EG 1957-ilbeltza: II9).

Zaitegi jabetzen da *impasse* batean dagoela bere lana, Ameriketatik etortzeak bakarrik ez duela funtsean deus aldatu. Euskal kulturaren lagunartetxoa susper-tu beharra dago. 1956an Euskal Herrian kultur lanen mundua berritzen ari da⁷⁴. Hegoalde barneko kultur langileek biltoki berriak dituzte (*Egan, Euskara, Jakin*, etab.), eta ez dute estatu arteko mugarik irakurlearengana iristeko. Irakurle zenbaitek hain txalotua duen *Euzko-Gogoak*, gerraondoko lehenengo hoge-i urteetan berritutako euskal irakurlegoa ezagutu beharra dauka. Horregatik, itaunketa bat zabaltzen da aldizkariaren orrialdeetatik (EG 1957-epaila: II7)⁷⁵.

⁷¹ 1954-II/12, atzealdeko azalaren barrualdean. Zentsura frankistaz zer jakinik badago, noski. Ikus, esate baterako, *Zeruko Argian* (1979-apirilla-29) Etxaidek dioena (21 orrialdean). [N. B.: Torrealdai 2000].

⁷² 1954-II/12, atzealdeko azalaren barrualdean.

⁷³ EG 1955-I/2: 29; 1955-3/4: 52, 63; 1955-5/12: 139-140; Miarritzeko, 1956-ilbeltza: II6-II8; 1956-epaila: II7-II9; 1956-orrila: 120; 1956-uztailla: II9.

⁷⁴ Ikus neure oharrak, in Torrealdai 1977: 354-356.

⁷⁵ Ikus, gainera, 1957-orrila: II6-II7 orrialdeetan bigarren itaunketa. Lehenengoa aldizkariarekiko iritziak biltzera zuzendua zegoen; bigarrena, aitzitik, euskaltzaletasunaz ari da. Bai batean eta bai bestean, galderek —eta areago, aztertzerik balego, erantzunek— urte haietako kezken berri ematen digute.

Iritzi-bilaketarekin diru-bilketa zirikatzen dute irakurle batzuek. “*Euzko-Gogoa*” ren aldeko atabaka deitu zioten ekintzari, zehaztaperen bat eman nahirik. Hasi ziren txanponak etortzen: bakoitzak “urteko edo ileko egun beteko irabazia” eskaintzen zuen; baina laster atertu zen, nonbait, laguntza hori, bi aldiz aipatzen baitira “Bizkaiko abade gazte batek” eta “Bilbo’ko euskaltzaleek” bidalitako 500na pezetak. Apenas dagoen beste laguntza pare bat aipatzerik (EG 1957-epaila: II9; 1957-orrila: II9). Eta hor bukatu zen *Euzko-Gogoaren* eskale-bizitza⁷⁶.

3. Tradizioaren eta moderniaeren artean

Esan dugunaren arabera, Jesusen Lagundiko hezkuntza-moldeak hezitakoak izan ziren *Euzko-Gogoaren* sortzaile eta gidariak, eta horrek berez zituen ahalbide eta mugen barruan eraman zen gehienbat aldizkaria. Horregatik, Lagundian bere lerro nagusietan indarrean zegoen aspaldiko *Ratio Studiorum*ak, Europan emaitza estimagarriak emandako ikas-egitarauak (1599...), hezi zituen Zaitegi, Orixe eta Andimaren gogo-bihotzak. Hori da, historia hau irakurtzean, lehenik aintzakotzat hartu behar dena.

Baina, bestalde, garaiko euskal pentsamendu, kulturgintza eta eske soziopolitikoetara irekita zeuden ikasleak ziren 1910-1936. ikasturteetan beren hezkuntza jaso zuten jesulagun gazteak (gogora bitez gazteek idatzitako *Jesus'en Biotzaren Deya*, jada 1917tik aurrera, edo 1924. urtekoaz esan duguna).

Kultur joera politiko ezberdin eta kontrajarriak ageri dira orduan Euskal Herriko Lagundian: horren lekuko dira Estefania eta beste irakasle euskaltzaleak, Boetto Bisitaria, I. Errandonea edo Ledóchowski Prepositu Jenerala. Hor parean, ez dira ahortzi behar Errepublikaren politika erlijiosoak, Gerrate Zibileko triskantzak, eta lehenagotik eta gero, 1962a arte, Euskal Hegoaldeak ez zuela Lagundian berariazko Probintzia erlijiosorik izan, eta Gaztelakoaren baitan zegoela.

Egoera eta gertari horiek guztiak tarteko zirela eta *Euzko-Gogoako* sortzaileak Lagundiko seme izaki, bertatik irtenda egin ahal izan zuten euskal aldizkari hau.

⁷⁶ J. Etxaidek esaten didanez, *Euzko-Gogoaren* heriotza ez zen muga ezin pasatzeagatik bakarrik gertatu (gehienetan hori soilik aipatu bada ere), zabaldutako aleen ordainketak ez eginak garbitu zuen *Euzko-Gogoa*.

Aldizkariak, bere gai eta testuak hautatu eta lantzean, funtsezko hiru alde zaindu behar izan zituen, alde batetik euskal kultur munduari proposamen gisara aurkeztuz eta ahal izan zuen heinean berori defendatuz:

- 1) Mundu literario klasikoari eman zion lehentasuna, euskarari literatura eder horrek etorkizun soziala irabazi eta segurtatuko ziolakoan. Ideia bera ikusten dugu Aitzolen idazkietan ere, edo Ibar-engan (*Genio y lengua*, 1935).
- 2) Goi-irakaskuntzarako lehen testuak sortzen saiatu ziren aldizkariaren sortzaileak: Orixek estetikaz jardun zuen, adibidez, eta Zaitegik sekulako ahalegina egin Apaizgaitegian zientzia biblikoaz latinez eman behar izan zituenak euskaraz aurkezten (*Bidalien egiñak* horren lekuko)⁷⁷. Baina aldizkaria bere osoan ez zen sobera ibili gaindegi horietan.
- 3) Kulturarako euskal hizkerarekiko arduraren handia izan zuen *Euzko-Gogoak*, eta terminologian euskararen tradizioaren harrobiari guztizko lehentasuna eman zion, mailegu bidezko ekarpenak hutsean utzita. Aldizkariko gidariek landu zuten euskara eskolatuagoak etorriko ziren belaunen itxaropen eman zuten.

Euskarazko kulturgintza modernoaren abiapuntua izan zen *Euzko-Gogoa* bere xede eta helburuetan, eta horrek segida eutsia izan du; baina 1960tik hona bestelako hizkera moldeak joan dira gorputz hartzen, aldiari aldiko saioak berrikusi, zuzendu eta osatuz goazela, orduan ez zeuden lanabes eginagoak dagoeneko eskueran ditugula.

⁷⁷ Horrelako lanen nondik norakoak ezagutzeko, irakur bedi Orixek liburu horri eman zion "Itz-aurrea" (Zaitegi 1955: I-7).

BIBLIOGRAFIA

- Altuna, P. (ed.), 1990, *José M^a Estefanía Zabala, S. I. (1889-1942). "Maestro de vascos"*, Bilbao: Mensajero. [Estefaniaren egunkaria, ikasgelako langaiak eta olerkiak].
- Aranalde, J. M., 1965, "Orixe zanaren bizialdia" in *Askoren artean*, 14.
- Askoren artean, 1965, "Orixe" omenaldi, Donostia: Izarra. [Euskaltzaindiaren ardurapean argitaratua].
- Azurmendi, J., 1977, "Irlanderaren paraderoa", *Jakin* 1, 1977, 100-116.
- Boetto, P., 1921, *Memorial del R.P. Visitador Pedro Boetto a la Provincia de Castilla*, Oña: Imprenta privada del Colegio.
- Etxaide, J., 1979, "Yon Etxaide: garai ilunetan idazle [E. Garmendiaren elkarrizketa]", *Zeruko Argia* 827, 1979-4-29, 21-22.
- Euzko-Gogoa* [Zaitegi, J.], 1954a, "Euzko-Gogoa ta gu", *Euzko-Gogoa*, 1954ko urtarila-otsaila 1/2, 1.
- Euzko-Gogoa* [Zaitegi, J.], 1954b, "VIII'gn. Eusko-Ikaskuntza-Batzarraren inguruan", *Euzko-Gogoa*, 1954ko martxoa-apirila 3/4, 49.
- Euzko-Gogoa* aldizkaria, 1950-1952; 1954-1959.
- Ibinagabeitia, A.: ikus Urkizu 2000.
- Ibinagabeitia, A.; Onaindia, S., 1966, *Bergili'ren Idazlanak osorik*, Bilbao. [*Unai-kantak* eta *Alor-kantak* dira Andimak itzuliak].
- Iztueta Armendaritz, P., 1987, *Nikolas Ormaetxea "Orixe" (1888-1961)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritz. [N. B.].
- Iztueta Armendaritz, P., 1991, *Orixe eta bere garaia*, Donostia: Etor. [N. B.].
- Iztueta Armendaritz, P., 2001, *Erbesteko euskal pentsamendua. Bi belaunaldikoen lekukoak: «Euzko-Gogoa» eta «Zabal»*, Donostia: Utriusque Vasconiae. [N. B.].
- Iztueta Armendaritz, P.; Díaz Egurbide, J. (ed.), 2007, *Jokin Zaitegiri egindako gutunak*. Donostia: Utriusque Vasconiae. [N. B.].
- Lauaxeta, 1974, *Olerkiak*, Donostia: Etor.
- Mitxelena, K., 1956, "Euzko-Gogoa eta Euskera", *Egan* 5-6, 1956, 157-163.
- Onaindia, S., 1975, *Euskal Literatura*, Donostia: Etor.
- Orixe, 1950, "Zaitegi jauna", *Euzko-Gogoa*, 1950eko maiatza-ekaina 5/6, 8-9.
- Orixe, 1951, "Quito'n arrebarekin", *Euzko-Gogoa*, 1951ko martxoa-apirila 3/4, 13-19.
- Orixe, 1954, "Agur Guatemala'ri", *Euzko-Gogoa*, 1954ko iraila-urria 9/10, 131-132.

- Orixe, 1972, “*Euskaldunak*” poema eta olerki guziak, San Sebastián: Auñamendi.
Ormaetxea, N.: ikus Orixe.
- San Martin, J., 1968, *Escritores euskéricos*, Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.
- San Martin, J., 1999, “Andima Ibiñagabeitiaren euskaltzaletasuna”, *Jakin* 112, 1999, 95-100. [N. B.].
- Sudupe, P. (ed.), 1999, *Andimaren idazlan bautatuak*, Donostia: Elkar]. [Ikus <<http://zubitegia.armiarma.com/?i=246>>]. [N. B.].
- Sudupe, P., 1999, “Andima Ibiñagabeitia (1906-1967)”, *Jakin* 112, 1999, 85-93. [N. B.].
- Sudupe, P., 2011, *50eko hamarkadako euskal literatura, I: Hizkuntza eta ideologia eztabaidak*, Donostia: Utriusque Vasconiae. [N. B.].
- Torrealdai, J. M., 2000, *Artaziak. Euskal liburuak eta Francoren zentsura (1936-1983)*, Zarautz: Susa. [N. B.].
- Torrealdai, J. M., 1977, *Euskal idazleak, gaur. Historia social de la lengua y literatura vascas*, Oñati (Arantzazu): Jakin.
- Ugalde, M., 1977, [Zaitegirekin elkarrizketa], *Deia*, 1977-abendua-8.
- Urkizu, P. (ed.), 2000, *Erbestetik barne-minez. Gutunak 1935-1967*, Zarautz / Iruñea: Susa. <<http://www.susa-literatura.com/cgi-bin/liburuak.pl?lib=best09>> [N. B.].
- Urrestarazu, A., 1956, “Euskera. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak I, 1956”, *Euzko-Gogoa*, 1956ko ilbeltza-otsaila I/2, 115.
- Vélez de Mendizabal, J. M., 1981, *Iokin Zaitegi*, Arrasate: Autore-editore. [N. B.].
- Villasante, L., 1979² [1961], *Historia de la literatura vasca*, Oñati (Arantzazu): Editorial Franciscana Aránzazu.
- Zaitegi, J., 1933, “Kizkiña”, *RIEV* 24, 1933, 60-70.
- Zaitegi, J., 1955, *Bidalien egiñak*, Zarautz: Itxaropena.
- Zaitegi, J., 1974, “Urkiaga ta biok” in *Lauaxeta*, 5-10.

Izenordeen Azalpena

Izenorde hauek argitzeko laguntza askorengandik jaso dugu. Denei eman nahi dizkiet nire eskerrak, baina berezikiago –hain zabala izan baita berauek eskainitako laguntza– J. San Martini (liburuan eta pertsonalki emandakoengatik), J. Bilbao-ri (*Bibliographian* dituenengatik), Nikolas Altzolari eta Xanti Onaindiari beren argibideengatik, eta Karmelo Etxenagusari hain eskuzabalki bidali dizkidanengatik. Hala ere, irakurleak ikusiko duenez, ezin izan dut harago iritsi eta ilunpean geratu zait hainbat izenorde. Honetaz kezkatuek iradoki didatenez, hemengoak eta gainerako euskal al-dizkarietako izenorde guztien gain lan egitea ez litzateke batere kaltegarri gertatuko geroko azterlanetarako.

A.: Gillermo Larrañaga, S. J.	Arymbat Aita: (Belokeko beneditarra)
Abalegiko P.: F. Etxeberria Tolosa, S. J.	Aspaldiko: Antonio M. Labaien
Abandotarra: Jon Abando (?)	Atarpe: ?
Abeletxe: Manuel Ziartsole	Ātar Yok: Jokin Arostegi
Abendats: Salvatore Mitxelena	Aurraitz: Balendin Aurre-Apr aiz
A-Bi: Andoni Arozena	Axeriko: ?
Agerrekoa: Balendin Aurre-Apr aiz	Azkoiti: Gillermo Larrañaga, S. J.
Aitzarte: Gaizka Barandiaran, S. J.	B(errospe): Manuel Lekuona
Aitzorrotz: ?	Basati: Anbrosio Zatarain Etxebeste
Aizkorri: Felix Bilbao, O. F. M.	Belandia: Zeferino Jemein
Aldapeko: Jon Etxaide	Berrospe: Manuel Lekuona
Amayur: Frantzisko Sarobe, S. J.	Bitañõ: Nikolas Altzola
Ameslari: Antonio Sorarrain	Bitargi: Jaime Kerexeta
Amillaitz: Nemesio Etxaniz	Biurko: Faustino Zerio
Andoze'ko Txomin: Txomin Peillen	Bordari: Fernando Artola
Antxeta: Gotzon Egaña	Bordatxuri: J. Inazio Goikoetxea
Arabagu: Txomin Jakakortajarena	Edozein: A. Irigoyen
Aranargi: Gaizka Barandiaran, S. J.	Egarin: Salvatore Mitxelena
Arantzibia: Jaime Kerexeta	Elantxobe: Andima Ibinagabeitia
Ariztieta: ?	Elentxun: Andima Ibinagabeitia
Arrasate: Jokin Zaitegi (?)	Eneko Mitxelena: Justo Garate
Arratetiko bat: Toribio Etxebarria	Errexil: ?
Arritokieta: Julene Azpeitia	E'tar N.: Nemesio Etxaniz
Arteaga: Lorentzo Arteaga, O. C. D.	Etxaitar: Jon Etxaide
Artzai: Jokin Zaitegi	Etxakin: Klaudio Errazti

- Etxegoiena:** ?
Etxetxo: Jokin Zaitegi
Euskaltzaleak: ?
Gar: ?
Gazteiztarrak: Andoni Urrestarazu
Gaste'k: ?
G.E.A.: (Xabier Peña: ez)
Goiria: Jose Antonio Goiria
Gotzon: Gotzon Urrutia
Ibalan: Antonio M. Labaien
Ibar: Justo M. Mokoroa
Ibargi: Antonio M. Labaien
Ibartzabal: Jokin Zaitegi
Ibiltari: Frantzisko Etxeberria, S. J.
Ilaunbe: ?
Iradí'tar Adaro: Gotzon Egaña
Iratzeder: Jean D'Ihartze
Irisarri: Polikarpo Iraizozko, O. F. M.
 Cap.
Iru-garate: Joan Goikoetxea, S. J.
I'tar Xabier: Xabier Irisarri
Ithurralde, P.: Piarres Lafitte
Ixilki: ?
Izarraitzepe: Migel Juaristi (?), O. C. D.
Izurtza: Jokin Zaitegi
Jadarka: Zeferino Jemein
Jautarkol: Koldobika Jauregi
Jon Andoni: Jon Andoni Irazusta
Jon Chacho (sic): Jon Mirande
Jose Errota: Jose Manuel Garaialde,
 O. F. M.
Julibe: A. Jauregi
Langile Batek: ?
Laztarri: Imanol Laspiur
Lizarrazpi: Manuel Lekuona
Lizarribar: ?
Maitale: Imanol Laspiur
Menditarrak: Telesforo Monzon (?)
- Michel Bihar:** ?
Miren A.: Miren Arrate Ibartutxi
N.A.G.: Nikolas Antzola
O'dar M.: Martin Oiartzabal
Oianburu: Joan M. Lekuona
Orbelaun: Bitoriano Gandiaga
Orix: Nikolas Ormaetxea
O. tar. O.: Orix eta M. Oiartzabal
Otarri: Santiago Onaindia
Otea: Telesforo Monzon
Otsabio: ?
Otsalar: Jon San Martin
Oxinondo'ko Txoria: Nikolas Altzola
Pasionista batek: Pio Zarate eta beste
Sabiaga: Manueel A. Apalategi, O. F. M.
 Cap.
Sagar-Erreka: Engratzi Iñurrieta
Satarkol: Koldobika Sarasola
Sorginpikoeta: Jose A. Astigarraga
Talaimendi: Salvatore Mitxelena
Txillardeggi: Jose L. Alvarez Enparantza
Txintxarri: Luis Sagastume
Tx'tar Txabi: ?
Tx.: ?
Uarrain: Jon Etxaide
Udalaizpe: Jokin Zaitegi
Ugarrieta: Jose Luis Ugarteburu
Urizar: Jokin Zaitegi
Utarsu: Sorne Untzueta
Utsa: Frantzisko Etxeberria, S. J.
Uzturre: Josu Insausti
Xabier: Jose Agerre
Xalokin: Bizente Batiz, O. C. D.
Zaloña: Agustin Miner
Zelai: Jon Etxaide
Zeleta: Joan Garmendia Kortadi
Zubero'tar A.: Lino Akesolo, O. C. D.

1956: URTE MUGARRI BAT*

[N. B.: Bai, mugarrria izan zen 1956ko urte hura, gure euskalgintzaren ibileran], epe baten ataria dela esan liteke, beldur handirik gabe; asko eta esanahitsuak izan ziren hamabi hilabete haietan sortutako kultur gertakariak.

Erlatiboki betiere, baina ordura arteko gerraondo urterik oparoena gertatu zen hura euskal kulturarentzat: 1956. Liburu, aldizkari eta bilkura sonatuak elkarren gain hasten dira biltzen, Euskal Herri barnean eta erbestean. Lehendik bizirik zeudenek gorakada nabarmena dute, eta luma berriei leku emateko argitalpen berriak jaiotzen dira. Gerraurrekoak berriro ere irakurlegoaren eskuetara eraman nahi dira.

Karmen'go Amaren Egutegia (1951) 1956an bihurtu zen aldizkari (*Karmel*), Xanti Onaindia-ren irudimen “administratiboak” halaxe nahirik. Ezin, bada, sortu euskal aldizkari berririk; baina zergatik ez atera urteroko egutegia hainbat hilerokotan banatua? 1962 arte iraun zuen zutik asmazio polit honek. Hemen eman zituen batez ere Orixek bere lantxo laburrak, hizkuntzaren bihurtze berriari korrante berriei aurpegi emanez.

Egan aldizkariak seitan biderkatzen ditu bere orrialdeak, 1954/1956, ia bostehunetara iritsiz, aldizkari batengan horrek esan nahi duen indar guztiarekin. Goraldi honek ederki asko eutsiko dio lortutako gailurrari, urte hauetako (1956-1963) batez bestekoak 455 orrialde dituela. *Eganen* bizitza osoko (1948-1977) orrialde-kopuruaren (7.423) erdia baino gehiago (4.097 orrialde) eman zen urte haietan. Ikasle euskaltzale anitzek puntarik punta irakurtzen genuen. Orrialde haietatik zetorren maisutasunak bazuen, gainera, euskaltzaleon artean gutxitan aurkitu izan den kritika-lana (K. Mitxelenarena batez ere): arduraz egina, serioa, zurikeriarik gabea.

Guatemalako *Euzko-Gogoa* urrunak Euskal Herriratzea erabaki du, eta orain, barnean beste aldizkari lehiakideak izan arren, hil arte (1960) lankidego zaba-

* *Jakin* 21, 1981, 35-48.

la eta emankorra bilduko du Miarritzen (EG 1980-13: 105-107). Berrikuntza duen beste aldizkaria *Euskera* da, hain zuzen. Esaterako, gerraondoko lehenengo ale trinkoa hilabete haietako lanekin betetzen da, eta hauek Altube, Mokoroa, Barandiaran, Lekuona, Villasante, Altuna, Zabala, Txillardegi, Gandiaga, Urrestarazu eta abarrek izenpetuak dira. Hortxe biltzen ziren, gainera, Euskaltzaindiak 1941az geroztik izandako bileren agiriak ere.

Urte hartako liburu-argitalpenak ere gogoangarriak dira, eta ikus daitekeen, toki nabarmena dute berrargitalpen eta itzulpenek: Lizardi, *Biotz-begietan*; Kirikiño, *Abarrak*; Agirre, *Garoa*; Mogel, *Peru Abarka*; Orixé, *Agustin Gurenaren Aitorkizunak*; G. Barandiaran, *Ilias'ena*.

Urte hartan, ordea, batez ere bi gertakari nagusiren inguruan biltzen dira euskaltzale eta abertzaleak. Gertakari horiek elkarren segidan eraturako bi Biltzar izan ziren, baina ehunka kilometrotan elkarrengandik banaturakoak: bata Arantzazun eta bestea Parisen. Lehenengoa, Euskaltzaindiaren deiari erantzunez ospatu zen, “Arantzazuko Urtea”ren karietara; bigarrena, Eusko Jaurlaritzak hots eginda inguratu zen jendea. Euskaltzaindiarenak euskara eta beronen etorkizuna zuen gaitzat; Parisekoak, ostera, lau sail izan zituen, politikari, sozio-ekonomiari, kulturari eta “Munduko euskaldunei” buruz zihardutenak. Zer esanik ere ez dago, Arantzazukoan ez zegoela politikaz hitz egiterik; Parisekoan, aitzitik, horixe zen oren ardatza.

I. Euskaltzaindiaren Biltzarra: Arantzazu (1956)

Euskaltzaindiaren “Euskaltzaleen Biltzarra” irailaren 14, 15 eta 16an bildu zen. Villasantek eman zien ongietorria batzarkideei (*Euskera* I, 1956: 165-169) eta A. Arruek azken agurra, amaierakoan (*Euskera* I, 1956: 300-301). Tartean, hitzaldi eta komunikazio-sail batek, hitzaldi ondoko eztabaidak ahanzteke, bete zituen jardunaldiak. Batzarkideak ugari izan ziren, nolnahi ere ehundik gora (Pariseko Batzarrean “eundaka, eundik gora beñepein” izan ote ziren ere aipatzen du Hernandorenak. Batzarkide haien artean zabaldu zen lehenengoz *Jakin* aldizkaria.

Hiru egunetako mintzaldiak, eskierki, bi sailetan bana ditzakegu: a) batzuek beren *bilketa-lanen* azalpena egin zuten (Altuna, Izagirre, Mendizabal, Gandiaga, Zabala, Barandiaran); b) besteek hizkuntzaren etorkizunari buruz hainbat gogoeta eskaini zuten (Txillardegi, Villasante, Mokoroa *Ibar*, Urrestarazu). Hemen, gurerako interesgarrienak bigarren hauen hitzaldiak dira, baina azpimarratu behar da, orduan aurkeztu zela harrezkero halako segida izan duen

Zabala-ren bertso-bilketaren asmoa ere. Hau ere, esan liteke, asmo mugarria izan zen.

Urrestarazu eta Txillardegi ez ziren Biltzarrean egon, baina “Euskera eta Euskal-kulturari buruz” eta “Karta idigia” komunikazioak bidali zituzten (*Euskera* I, 1956: 294-298; 245-250). Villasantek “Gure eginberrak” mintzaldia eskaini zuen (ibid.: 257-268), eta Mokoroak –halaberrez erdaraz– “De vida o muerte” (ibid.: 274-282). Jardunaldi hauen ondoko eztabaidetan parte hartu zutenak ere gogoratzekoak dira: Mitxelena, Agirretxe, Zeleta, Erkiaga, Intza, Omaetxebarria, Agirre. Ez ziren, antza, eztabaida denak osorik jaso; baina nahiko argibide ere bil liteke hango giroa ezagutzeko.

Gerraondoan euskaltzaleak jendaurre irekian lehenengo aldiz bildu ziren honetan, hizkuntzaren hil edo biziko arazo larriari begira jardun zuten. Harrigarriro garbi azaldu zuen hori Ibar-ek, bere esan-modu laburbilduan: hizkuntza salbatzeko zer behar zen bazekiten euskaltzaleek; berdin, bazekiten ezinaren muga hurbila non zeukaten. Horrela, bada, premiazkoa zen orduan bertan egintzarri ziren xedeak hautatu eta egintzetara eramatea:

Nuestro idioma vasco [...] está condenado a muerte de asfixia mientras tenga impedido el libre acceso a la radio, a la prensa diaria, la escuela, el teatro, el cine... [...]; y mientras, por el contrario, toda la imponente maquinaria informativa del mundo moderno se ocupe sistemáticamente en saturar nuestra atmósfera de castellano o francés. [...] mientras dure el actual estado de cosas en orden a nuestra lengua, no está en nuestra mano el *organizar* la verdadera defensa del Euskera.

Y, descartada así, por fuerza mayor, *la única forma racional y eficaz* de salvar la *vida* de nuestra lengua, no nos quedará, entre tanto, a sus defensores otro recurso que el de cada día más precarios *expedientes*.

Con todo, [...] ninguna traba nos habría de impedir, seguramente, *organizar y llevar a cabo* ahora mismo cierta vasta *operación de salvamento indirecto*, de incalculable alcance [...].

El objetivo inmediato de la operación sería lograr el inventario más completo y manejable posible de nuestra lengua en su vocabulario, locuciones, folklore y producción literaria (Ibar, *Euskera* I, 1956: 274-275). [Azpimarra gurea].

1981eko erpinetik begiratuta, benetan distiratsua agertzen zaigu gogoeta hau, ahots profetiko bat dela esan liteke, batez ere asmoari Ibarrek eman nahi zion erakunde-proposamena gogoratzen badugu. Garaiko euskaltzaleen biltzar hark

eta asmoaren berri jakin zutenek –hau da, Euskal Herriko indar sozial abertzaleek–, ez zuten ulertu edo ez zuten indarririk izan ongi konprenitua egintzetara eramateko. Hitzaldi eder bat izan zen, eta ez zen deus gertatu. Asmo handitxo zela esan zuen urliak, eta Txillardegik eskatzen zuen praktikotasuna (*Euskera* I, 1956: 248) Ibarren *errealismo utopiko* hartantxe egon zitekeenik ez zen sumatu.

Ibarren bilketa-proposamen honek, ordea, ezinarekin berehala estropezu egin bazuen ere, Biltzar hartan egin ziren proposamen berri batzuek bazuten beren baitan geroaren halako promesa bat, batzuegan orduantxe bertan lortzen ari zena (Peillen, Mirandé –batzarkidea hau–, Txillardegi...) eta zenbaitengan laster garatzekoa. Hizkuntzari balio praktikoa eta funtzionala eskatu behar zitzaiola esaten zuen tesiaz ari gara. Euskara, kultura modernoaren zerbitzuan jartzean ikusten zen funtzionaltasun hau. Ideia honetan bat zetozen, elkarrekin, Villasante eta Txillardegi ez ezik Ibar eta Urrestarazu *Umandi* ere, eta eztabaidetan ikus daitekeenez, Biltzar osoa (Orixeren geroko erreparoa ez dira han nabari, egon ere ez zen bera han egon, baina bai Orixe-zale ugari).

Gaur egun hain buruan dugun hitz bat aipatu zen, eta eginkizuna noski, funtzionaltasun moderno horren azken xedea definitzeko, *normalizazioa*. Ez dago argitu beharrik ere, gaur egungo lan hau eta asmo orokor hura ez direla alkantzu berekoak; baina bai arauen aldetik kidekoak: “Literatur-izkuntza normalizatua, unifikatua, tink ezarria eta aldakaitz biurtua”, eskatzen zuen Villasantek (*Euskera* I, 1956: 267).

Hizkuntzak, arautua izateaz gain, “osotua” izan behar zuen praktikotasun eroso bat lortu nahi baldin bazen. “Osakuntza aundia bear du euskerak gaurko bizikeran gai izateko” (Txillardegi, *ibid.*: 247). Hizkuntzaren larritasunik handienak bultzata egiten ziren Batzarrean eskeak: erlojuaren kontrako ekintza bat zen euskararen salbamendua. Estutasun horretan plangintzarik onena ere, denboran sobera luzatzeko baldin bazen, ez zen egokia izango salbamendu hura lortzeko:

Aresti jaunak adierazi du berrogei urteko bizia ematen diola euskerari Bizkaian oraingoa bidetik jarraitu ezker eta Mokoroa jaunak azaltzen duen egitamua aundiegia dela, diru ta denbora geiegi bear litzake-la betetzeko (*Euskera* I, 1956: 282).

Mokoroaren ustez, ikusi dugu, ezer handi eta erabakigarriarik egitea ezinezkoa zen urte haietan, egiazko salbabiderako sendagarriak ukatu egiten zitzaizkigulako. Bigarren mailako hautabide ordezkagarria eta lagungarria bakarrik zen, beraz, haren proposamena: bilketa-lana, etorriko ziren garai berrietarako hizkuntzaren trebakuntza berme hobez egiteko laguntza zen.

Hala ere, presaz zetozen jende gazteek, arnasestuka, hizkuntzaren funtzionaltasuna aipatzen zuten behin eta berriz, hil edo biziko zeregin bezala:

Mintzaera bat bizi dedin, beti baña gero ta areago, kulturazko mintzaera izan bear; ezinbesteko baldintza. [...]. Guretzat bederik, izkuntza bat kulturazkoa dala esateko, izkuntza ori Munduan erabiltzen eta erabilliko diran giza-adimenaren ezagupide guztiak ikasteko, irakasteko, adierazteko ta edatzeko bide izan bear. Orrela dira gaurko ontan ezagutzen ditugun kulturazko-mintzaera guztiak. Orixe bada, gure xederik aundiena: Euskera, kulturazko-izkuntza biurtzea, orain ezpaita (Urrestarazu, *Euskera* I, 1956: 295).

Bilketaren balioa eta betekizuna ukatu gabe ere, eguneratu, trebatu, gaitu egin zitekeen hizkuntza: egiteko handi hori bideragarria zitzaien 1956ko euskaltzaleei, eta horretarako ez zegoen libertatearen egun distiratsuaren zain egon beharrik. Lanari bertan behera ekin behar zitzaion, askatasun-orduak jotzean trebe eta prest topa gintzan. *Hizkuntzaren trebakuntza modernoa* zen martxan jarri behar zena:

Egunen batean, Yainkoa'k daki noiz, gure Erri'aren eskuetan izango da gure ikasketa guztiak antolatzekeo almena, ta ordurako egitaraua gerturik eukitzea dagokigu; bai ta lendik bete al litezken bide-zati geienak. Gramatika ta beste liburu asko bear izango ditugu beti, ta oso egokia da lenbailen astea antolatze ori (Urrestarazu, *Euskera* I, 1956: 296).

Pariseko Eusko Jaurlaritzaren ingurutik zetorren, noski, iradokizun hau: egunen batean, nahitaez bete beharke zen politika linguistiko baterako tresneria prestatzeko premia adierazten zuen Umandik. Isilpean, eta ofizialtasun guztietatik kanpo, geratzen ziren lanok izan zitezkeen, azkenean, praktikoena. Zentzu honetan, Txillardegik izpiritu praktikorik eza salatzen zuen: “egite-gizonak bear ditu euskerak bere orretan”, “izpiritu pratikurik ez dugu”, “arreta aundiagoa jarri bearke gure aurrerakoan eginkizun pratikuak asmatzen, guztiz bearrezkoa bai-da au euskeraren salbaziorako”. *Praktikotasuna, egite-gizonak, ekintza*, euskaltzaleek beharke zituzketen sendagarriak hauek ziren, Txillardegiren ustez: “Egin ditekena egin, eta ezin ditekena aaztu: ez dago onetaz beste aukerarik. Eta gaur, nere ustez, bitara bil ditzakegu egin ditezken gauzak: 1.º) Gutxiengo edo minoria bat gertu. 2.ª) Euskera gaitu, batu ta osatu” (*Euskera* I, 1956: 249).

“Euskera gaitu, batu eta osatu”: Txillardegik hori horrela idazten zuen hartan, oraindik belaunaldien arteko etena obratu gabe zegoen. Erdalkeria, garbizalekeria...: hori dena betidanik izan dugun eztabaidagaia zen, baina orduantxe zihuan belaun berria hizkuntzaren *modernotasun praktikoa* gauzatzeko ekimenak abiaraztera. Krutwigek lapurtera klasikoaren eta grekoaren aldeko proposamena egitean, artean mundu teorikoegi batean zeuden gauzak; Biltzar hartako Villasanteren hitzaldia askoz ere egingarriago gertatzen zen entzuleentzat. Eta proposamen-molde hark *gazte langileak* zeuzkan, gainera, atzetik.

Euskaldunok autokritika pizka baten bearrean ba-gerala deritzat. [...]. Poulain jaunak, bere liburu ospetsu batean auxe idatzi du: *Pedid a un sabio que exprese las profundidades del Cálculo infinitesimal con el vocabulario de los niños o de los pastores*. Ori argi dago, ezin ditekean gauza da. Parkatu, jaunak, baiño guk oben ori ez al dugu maiz egiten? Erri-euskeraren itzekin nai dugu dena esan dedin ta dena adirazi dedin, ta jakiña, ori ezin ditekean gauza da. Iñungo erri-izkera arruntean arkitzen ez tiren kontzeptu eta itzak, gurean ere ez arkitzea, ezta batere arritzekoa; aitzitik gauza normala da. Gaztelako erri-izkerak ere, jatorriz, asieran, etzitian orrelako kultur-izenak, baiño etxeratu bearrean arkitu zan, eta ala biurtu zan kultur-izkuntza landu aberatsa. [...]. Erria eredugarri ta ispillu zaigu milla gauzetan, eztut ukatzen, baiña ez ditzagun gauzak bere neurritik atera (Villasante, *Euskera* I, 1956: 257, 260-261).

Jakintza eta kultura gure euskararentzat irabazi behar direla gogoratuko digu Villasantek berak, eta hori ez da luxua, apaingarri bat. Hortxe dago jokoan hizkuntzaren bizia bera ere: “Kondaira lekuko, bi izkuntza nor-geiagoka jarri diren guztietan, jakintza ta kultura noren alde egon diren, arena izan da betiere garaipena. [...] kontzeptuak, nozitoneak, izenak eta itzak. Oiek eztitugun artean, eztugu aurrerapenik egin al izango” (ibid.: 260).

Horrela, batasunaren bila, kultur edukien bila, euskal hitzen bila... hurrengo hogeita bost urteetako eztabaida nagusientzat galderok mahai gainera ekarri dira, bada. Badirudi euskaltzale askok ez zuela oraindik modernotasunaren premia esturik nabaritzen, baina batzuen ustez (eta ez ziren hauek ondoko urteetan langilerik eskasena izango), horixe zen hizkuntzarentzat hordagorik larriena.

Gerora, hitz berrien kontuetan hain jokabide ezberdinak eramango zituzten Urrestarazu eta Villasante bat zetozen terminologia berezituaren beharra aitortzean. Hitz egokien faltaz, ez zegoen euskaraz gure hizkuntzaren gramatikarik idazterik, eta beste edozein kultur alorretara jota ere, betiko leloa entzun behar,

bitzak falta zaizkio hizkuntzari, eta horrela gauden bitartean ez dago inolako irtenbiderik:

Gramatikari buruz lendabizi egin bear dana, beste gaietara gero edatu liteke, bear dan neurrian: Lojika, Kondaira, Kontuak, Geografia'rako eta abar, guziak beren lerroan (Urrestarazu, *Euskera* I, 1956: 296).

Euskera utsez euskal Gramatika bat idazteko, oztopo edo eragozpen aundi bat arkitzen duela idazleak: gramatika-gaietan erabilli bear den terminologiaren falta edo eza. [...]. Eta gramatikaz landara, beste jakintzetan motxago oraindik aurkitzen gera (Villasante, *Euskera* I, 1956: 258, 260).

Batzarrak bere erabakietan jaso zuen kultur hizkuntzarako hiztegi bat sortzeko asmoa, baina lehenengo epe batean, idazlegoaren esku geratu zen hiztegi berezituak lantzea:

Badaki batzarreak zenbait kultura-sailletan itzen eskas gabiltzala. Geroago, bear den garaiean, Euskaltzaindiak bere erabakiak ar ditzan, euskaldun ikasi guztieri eskatzen zaie, orretarako egokiera dutenean, gai oriek, bai itzez eta bai izkribuz, euskeraz erabiltzeko, erderara jo gabe, naiz ta nekagarriago izan (*Euskera* I, 1956: 298-299).

Eginkizun hauen atarian, ordea, berehala agertu ziren galderak. Lehen-lehenik hauexek: 1) Nondik hartu behar ziren hitz berrien erroak? Nahitaez geure ohiko euskararen harrobitik hartu behar ziren, ala zilegi zen nazioartean erabiltzen ziren erro grekoetara jotzea? 2) Nork edo zerk emango zion hitz berri bati bere zilegitasuna? Usadioak, onarpen sozialak, ala Euskaltzaindiak nahiz beste Elkargoren batek?

Hitzen etimologiari gagozkiola, garbizaletasun batzuen itsumena salatu zuen Villasantek (ibid.: 259), eta kanpotiko hitzei diegum beldurra uxatu nahi zuen:

[Greziera], bakarrean, eta kultur-influxu gabe arkitzen zanez, lan ori [dena bere harrobitik sortzea, alegia] egin al izan zuen. Etorri ziren urrengo erromatarrak, eta auek griegoen kulturaz arkitu ziranez, ortik eskubeteka artu bear izan zuten, eta ala landu zuten beren izkuntza. Eta Europako nazione eta izkuntza berriak berdin. Eta gu ere kasu onetan gera. Egiñik dagoen kultura baten aurrean aurkitzen gera; [...]. Kontzeptu oiek, kanpotik ekarritako itzekin edo euskal sustraiezkoekin

bear ote diran adirazi, ori beste auzi bat da. Bearbada batzuetan bide bat, eta besteetan beste bat jarraitzea izango da onena (Villasante, *Euskera* I, 1956: 267).

Villasanteren tesi hau, bere eklektizismo eta guzti, garaiko euskaltzale gehienentzat entzutea gogorra zen; hala ere, batasunaren arazoarekin nahaspilatzean, gerora gertatuko zen alde baterako nahiz besterako atxikimendu elkorturik ez da eztabaidatan sumatzen, nahiz eta Mokoroak batez ere garbizaletasunari eutsi beharra espresuki azpimarratu (*Euskera* I, 1956: 273). Hona Erkiagaren jarrera zalua: “Aita Villasantek esan duan bezala, erderari kalte edo gaztelaniari kalte egin ezpadio beste izkuntzetako itz oiek artzeak, euskerari ere, bear-bada, askok uste duten beste kalte ezlioike egingo” (*Euskera* I, 1956: 268).

Hain irristakorra agertzen zen lexiko-berrikuntza honetan gidari baten bila joaz, Euskaltzaindia aipatzen zen Biltzarrean behin eta berriz (*Euskera* I, 1956: Txillardegi, 249; Erkiaga, 268; Villasante, 268; Urrestarazu, 296); halere, batzarkideen artean ez zen mintzairaren modernotasunerako Euskaltzaindiaren egitekoa definitu, ezta betekizun horretarako lan-prozedura erabaki eta eman ere. Asmoak eta gogoak azaldu ziren, baina lan-plangintza bat Biltzarraren erabakitzat proposatu gabe; beharbada, biltzar batetik espero zitekeena ez zelako, hain zuzen. “Bein-beiñeko arau batzuk, zuzenbide bezala, Euskaltzaindiak emango balitu [...] bearbada ezlirake alperriko” komentatzen zuen Villasantek (ibid.: 268), arazo historiko luzea eta arriskugarria zegoela gogoratzen baitzuen euskaltzain honek. 1930eko iritzi-ezberdintasunak aipatzen zituen, Euskaltzainditik eskain daitekeen irtenbidearen alde on eta txarrak honela laburtuz:

Euskaltzaindia ere, nik uste, bildur da arazo ontan eskuak sarturik ez ote duen bere larderia ta izena arriskuan ipiñiko. Len ere izan zan eztabaida Euskaltzaindiak itz berrien sortzalle izan bear duen ala ez (1930), eta ezetzaren alde zeudenak uste dut gelditu zirela gailien. Auen aburuz, idazleek bear dute bidea urratu. Gaiak euskeraz erabilliz, sortuko du batek itz aukerako bat, beste batek beste bat, eta ala, berez bezala, poliki-poliki, sortutako itzaren balioak eta egokitasunak egingo du berau zabaldu ta finkatu dedin. Eta Euskaltzaindiak orduan, eta ez lenago, au da, zabaldurik ta onarturik daudenean, itzok bere egingo ditu, eta izkuntzan sartuko. Bide ziurra eta zuurra, noski, baiño luzea, luzegeia bearbada (Villasante, *Euskera* I, 1956: 259).

Jendaurre euskaltzale zabal baten aitzinean eztabaidagaitzat, beharbada orduantxe eman ziren, lehenengoz, hizkuntzaren kultur eskakizun berriei erantzuteko irizpide berriak. Libreki eta garbizaletasun gogortu baten ortopediarik gabe aztertu nahi zen arazoa. Bertan behera izan ez bazen ere, ikusiko dugu han esanak argitaratzean, nolako eragina izango duten haiek belaunaldi gazteagan.

Euskaltzaindiaren Biltzarrean, gerora idazketa-berritzaile eragileena izango zen Euskal Herri barneko idazlegoa mintzatu zen, edo horiexena izan zen han entzun zen ahotsa. Baina haraino, Arantzazuraino, iristerik izan ez zuten erbeste hainbat, ordea, Parisen bildu ziren astebete geroago eta hango beste Batzarrean euskararen egoeraz eta etorkizunaz hitz egin zuten.

2. *Euskal Batzar Orokorra: Paris (1956)*

Batzar hau Parisen ospatu zen, 1956ko irailaren azken astean (irailaren 23tik urriaren 1era). Agirre Lehendakariak oso garaiz deitu zuen Batzarrera, 1955eko urtarrilean. Deiarekin batera, asmoaren argibideak ematean, honela azaltzen dira Batzarraren zergatiak:

El Gobierno ha estimado que ha transcurrido desde su proclamación el tiempo suficiente que aconseja la organización de una asamblea de la amplitud de la que en su día se reunirá en Paris.

Hemos vivido años de inquietudes y de turbaciones. Desde 1936 hasta hoy ha surgido una nueva generación cuyos sentimientos y opiniones es del más alto interés conocer y pulsar (*Euskal Batzar Orokorra / Congreso Mundial Vasco, 1956 Paris. 25 aniversario*, [1981], Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 13).

Ukitu beharko ziren gaien artean, hizkuntzarena zegoen: “Hay que examinar, además, el presente para estudiar la táctica mejor que ponga tope a la desvasquización del País” (ibid.: 15). Batzarrak bere Kultur Sailean aztertuko zuen gai hau, eta alde zuzenetik bidalitako galdeketetan lehenengo puntua hauxe zen (ibid.: 46-47). Egoera beltz batean itoa ikusten zen hizkuntza:

Arrojado [el euskara] de la escuela y de la prensa diaria encerrado en los límites de uso doméstico, impedido su acceso a los medios de expresión con los que la técnica moderna llega hasta el interior de los

hogares, el acoso a la lengua vasca es de tal naturaleza que obedece a un premeditado plan de exterminio (*Batzar Orokorra* 1981: 48-49).

Egoera aztertzeko mundu zabaleko euskaltzale asko bildu zen Parisen. Ez zen gehiegi Euskadi barrutik joandakoa; barnekoetatik, gogora ditzagun *Ekin* taldea, Ibalan (A. M. Labayen) eta bat edo beste. Lehendakariaren agurra hitz hauekin hasi zen: “Batzar Nagusi onen asieran bear-bearrezko dot euskeraz itzegitea” (ibid.: 55). Kultur Sailerako aukeratutako alorrok hamar izan arren, euskarak bildu zituen komunikaziorik gehienak: 44tik 30 bat gutxienik. Oso balio ezberdineko lanak dira. Aipa ditzagun interesgarrienak: FEVA (Federación de Entidades Vasco-Argentinas), Amezaga, Krutwig, Umandi, Ekin, Zaitegi, Hernandorena eta abarren lanak edo eztabaidak argigarriak dira garaiko planteamenduak eta iritziak ezagutzeko.

Etengabe entzuten da euskara amildegian behera doan albistea komunikazioetan eta eztabaidetan. *Ekin* taldeak honela definitzen du, esate baterako, gazte-jendearen hizkuntz jarrera:

La casi totalidad de los vascos de menos de 30 años hablan mejor el español que el euskera, porque piensan en erdera. La creencia de que el euskera no sirve para nada es general. La inmensa mayoría de los vascos colaboran en la muerte de nuestra lengua. El euskera está al margen de la juventud vasca y en estado francamente agónico (*Batzar Orokorra* 1981: 355).

Egoera orokor beltz horren ondoan, Zaitegik gazteria aurrerazale berri baten testigantza zekarren, berak Arantzazun, Lazkao eta Donostian ezagutu-tako alderdi-txartelik gabeko gazteria batena:

Egia esan, euskera il zorian dago. Ori ezin ukatu. Ala ere ba-dator gaztedi berria, euskal-mistika berriz yantzi eta berritua [...]. Arkitu izan ditut barnean, Arantzazu'n [...] berrogeitamar gazte, fiñak, ikasiak egunero une orotan euskera zaintzen ari diranak; ikasleak era berean. Ara yoan nintzan, itzaldi bat ematera [...]. Lazkao'n ba-dira beste berrogetamar gazte, egunero beren artean euskeraz bakarrik ari diranak: konbentu ortan sartzen diran erdaldunak euskera ikasi bearra dute: orain ogei urte orrelakorik ez genun (*Batzar Orokorra* 1981: 393).

Gure egunotatik begiratuta, bai *Ekinek* eta bai Zaitegik arrazoi zutela aitor-

tu behar: euskara maldan behera zihoan, baina itxaropen berrien zantzuak ere senti zitezkeen urte haietan.

Hizkuntzaren salbamendurako bide berriak urratu beharra gogoratu zen zenbaitetan. B. Estornes Lasak eta Hernandorenak, adibidez: [B. Estornes] “considera fracasados todos los ensayos” (*Batzar Orokorra* 1981: 334); “yo digo que los métodos que hemos empleado hasta ahora, para sostener el vascuence, el euskera, han fracasado totalmente” (ibid.: 420). Hernandorena jarrera oso kritikoz agertu zen eztabaidakoan, eta *norberaren erantzukizunari* dei egiten zion, azken arma bezala. [N. B.: Oro har, ikustekoa da, gainera: Lasa Bergara, X., 2008, *Begi kolpea. Teodoro Hernandorenaren biografia*, Zizurkil: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, 708-721].

Emen presentatu diran lanak, bat edo beste kenduta, dana zait betiko lelua... Dana zait betiko kantua... Denak zaizkit belarri batetik sartu eta bestetikan ateratzen diran itzak... Dena zait liburu edo rebista bat iriki eta ura isten dezutenerako aztutzen diran leluak... Gaizki esateko, eta barkatu zazute, neri iduri zait betiko adar jotzia...

Gauza gogorra da, baño ogeitamar urte oietan, jaunak, entzuten ari naiz, ogeitamar urte oietan, gurasoak dirala, aurrak dirala, apaizak dirala, monjak dirala, eskolak dirala... beti kanta bat, betiko musika bera...

Jaunak, ogeitamar urte oietan besterik ez dugu entzuten... eta ogeitamar urte oietan euskera amilka dijuakigu goitik-bera musika orrekin.

Eta musika onek orrela segitzen badu, laixter ez musika ori, laister abestu bearko diogu euskerari beste musika bat: R.I.P. Amen.

Jaunak, arrazoi oiek frakasatu dute: beste bide bat billatu bear dugu (*Batzar Orokorra* 1981: 386).

Hain zuzen, Zaitegik proposatzen ziona, Hernandorenak ongi ulertu gabea, benetan bide berri bat zen: kultura euskararen lagungarri, eta ez etsai, bihurtzea, alegia. Zaitegiren ustez, *elite* gidariak salba zezakeen hizkuntza (*Batzar Orokorra* 1981: 393; *Euskera* I, 1956: 263, Broussain-en iritzia), eta hori jaiotzear zegoen Euskal Herrian. Baina Zaitegik bere itxaropena topatu baldin bazuen, Hernandorenarentzat –Arantzazun Arestirentzat bezala– itxaropenak, berandu izan aurretik gainera, ahalik lasterren obratzekoak ziren, euskararen kinka larria epe erabat laburrean erabakitzekoa zen:

Jaunak: Neri esaten didate pesimista naizela. Nola nai dezute ez izatia? Bizian emen igaro diran gizonetako batek esaten zuen: «Ogei urte

buruan euskera galdua da». Besteak: «Ola segitzen badegu emendik berrogeitamar urtera ez da euskerarik entzungo» (*Batzar Orokorra* 1981: 387).

Etorkizun ezkor horren aurrean, Hernandorenak norberaren erantzukizuna gogoratzen zuen bezala, beste zenbaitek salbamendu-plangintza bati heldu nahi zion: FEVAK, Amezagak, Umandik, Estornesek, Krutwigek, eta abarrek. FEVAK ohar hau egiten die politika-gizon eta euskaldunei, denen hizkuntza zabarkeria salatuz, eta jokabide horren azken hondamendia erakutsiz: “no vayamos un día a encontrarnos con que la victoria política nos lleve a conseguir la libertad de un pueblo que ya no existe” (*Batzar Orokorra* 1981: 345). Arrisku hori saihesteko, erakunde bat eskatzen du FEVAK: plangintza bat egin behar da, eta, horrentzat, hori egintzetaraino gidatuko eta bultzatuko duen batzorde eragile iraunkorra. Plangintza horren zirriborro bat eskatzen zuen FEVAK, B. Amezagak egiten zuen gisan (*Batzar Orokorra* 1981: 343). Honek idazkaritza baten ideia ematen du, gainera: “Es preciso agrupar a unos pocos de nuestros hombres mejor preparados para que puedan vivir las 24 horas del día sin otra preocupación que la que con creces han de hallar en la titánica labor que se les encomienda” (*Batzar Orokorra* 1981: 343).

Urte haietan, batek baino gehiagok aipatuko zuen idazle-etxe baten beharra. B. Estornesek “un equipo de trabajo” eta “algo que tenga las características de una herramienta de realización” aipatzen zuen (*Batzar Orokorra* 1981: 334); Zaitegik, berriz, bere bizkar daraman Euskal-Idazle Alkartasunaren asmoa: Baionan etxe bat irekiko dute berak eta Jakakortajarenak. Euskal Herriko idazleen elkargo bat eratuko da, hainbat aldizkariren arduradun izango dena eta “datorren urtean [...] udako euskal-ikastaroa egingo dugu, illabete edo illabete t’erdiz. Guziok opa dugun Euskal-Ikastetxe Nagusi’aren asikin bezela”; Iparraldeko argitalpenen zerbitzuan, inprimategi bat sortuko da. Hori dena obratzeko langileak badaude; falta, dirua falta da (ibid.: 404. Ikus gainera 361. orrialdea). Estornesek ere argitaletxe baten premiari begiratzen zion gehiago (Geroko *Auñamendi* argitaletxea, noski). Umandik Eusko Ikaskuntzaren berpiztea eta indartzea ikusten zuen erakunde-irtenbiderik onena, horretarako Eusko Jaurlaritzak beharrezko laguntza emanik. Horren barnean idazkaritza iraunkor batek eramango zituzkeen euskararen kulturgintzako gidari-lanak (*Batzar Orokorra* 1981: 349).

Salbamendu-plangintzarako Eusko Jaurlaritzari laguntza eskatzea, behin baino gehiagotan berritzen da. Batzarrean Monzonek Gobernuaz esana ikusi dugu arestian, baina ez da bera bakarrik. Villanuevak Mexikotik bidaltzen duen

komunikazioan euskararen eskubideak suharki azpimarratu ondoren (liburuan agertzen den eskerik gogorrena, noski), honela bukatzen du: “El Gobierno Vasco tiene la obligación de aportar los fondos necesarios para el estudio y el resurgimiento del idioma vasco” (*Batzar Orokorra* 1981: 339). Krutwigek Jaurlaritzaren egitekoei hamar urteko epea eman die: “El Gobierno Vasco deberá cuidar de que en un plazo de 10 años la enseñanza se dé enteramente en euskera. También cuidará de que en los seminarios católicos sea el euskera el vehículo de la enseñanza” (*Batzar Orokorra* 1981: 346). Hernandorenak, zuzenkiago, Gobernuko gizonen ere kontuak eskatzen dizkie, hizkuntzarekiko bete-kizunak nola gordetzen dituzten galdetuz:

Eta barkatu orain zuzentzen banaiz Gobernuari: esango diot, errespeto guztiarekin, baño zindo: guk bear deguna da, Gobernuko gizonak berak, Gobernuko gizon bezela, aita bezala, guraso bezela, guk jakin bear degu nola jokatzten duten berak, bakoitzak berak (*Batzar Orokorra* 1981: 387).

Politika linguistikoaz esandakoen ondoan, anitzetan aipatu zen Pariseko Batzarrean hizkuntzaren beraren gain egin zitekeen lana: hizkuntzaren batasun-beharrak (FEVA, 360. or.; Krutwig, 346. or., etab.), testugintzaren premia (Amezaga, 343. or.; Umandi, 336. or.), hiztegi berezituak, etab. FEVak hau eskatzen zuen:

Debe irse inmediatamente a la preparación de la terminología filosófica, científica, técnica y también a la confección de un Diccionario General de la Lengua Vasca [...]. Todas esas iniciativas y las que surgieran de los congresistas deben ser puestas en marcha desde este momento. La Academia Vasca debería encargarse de la realización de estos planes [...]. Si eso no es factible, las Comisiones ejecutivas que surjan del Congreso deben iniciar esos trabajos (*Batzar Orokorra* 1981: 345).

Batzar hartako ideia-bilketa hau burutzeko, esan dezagun, aldizkariaren munduan *Euzko-Gogoari* eman nahi izan zitzaizola bultzada bat. Hain zuzen, orduantxe aldatzen zen Guatemalatik Iparraldera, eta ikusi dugu nola sortu nahi zen berorren inguruan, idazle-etxe eta elkargo bat. Pariseko aldizkari-asmoak *Euzko-Gogoarekin* bat zetozen: Argentinako lau Euskal Etxek aldizkari horren inguruko proiektua lantzeko komunikazio bat bidaltzen dute. *Euzko-Gogoatarren* Baionako etxearen xedea honela laburbiltzen zuten: “En ella se trabajaría por la unificación del idioma su adaptación a la ciencia, etc.” (*Batzar Orokorra* 1981:

361). Zaitegik berak egin zuen bere ideien azalpena, Lopez Mendizabalen iritzi ona lagun zuela (*Batzar Orokorra* 1981: 403-404). Irakurgarria da, *Euzko-Gogoaren* lanaren zentzua neurtu nahiz, Hernandorena eta Zaitegi Guridi jaunek izan zuten eztabaida (*Batzar Orokorra* 1981: 385-400). Ordura arte egindako bidegatik eta gerorako eskaintzen zuen zehaztasunagatik, aldizkari honen egitaraua izan zen, nik uste, bilera hartako *vedettea*.

Kulturako/Kulturari buruzko eztabaidak amaitzean, Zaitegik irakurri zuen han bildutakoen erabakia (*Batzar Orokorra* 1981: 400). Batzarkide guztiek hobe kiago ezagutu zutena noski, erdal itzulpena izan zen. Kultur Sailaren erabakietan, hau da euskarari buruz agertzen zaiguna:

Al considerar la situación crítica que la vida del Euzkera atraviesa en la propia Euzkadi debida en parte a la desidia de quienes más interés debieran tener en conservarla y, dándose cuenta de lo urgente de la preparación de un plan de defensa rapidísima de nuestra lengua, la Sección Cultural recomienda la inmediata constitución de una comisión que, reuniendo las iniciativas expuestas en este Congreso, organice dentro del cuadro general del fomento de la cultura vasca, con carácter de prioridad, un programa efectivo para la salvación de la lengua vasca. Esta comisión, una vez formada, debe tener vida autónoma en razón exclusiva de su mayor eficacia (Resolución adoptada a propuesta de la Sección Cultural, 477. orrialdea).

Parisen hartutako erabakiok nola bete ziren, edo Zaitegiren asmoek lau urteren buruan nola eta zergatik pot egin zuten, hori dena aztertzeke geratzen da. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak argitara berri duen dokumentazioari esker, ederki aldera daitezke Euskaltzaindiaren inguruko indarrek eta Parisen bildutakoek nolako kidetasunak eta aldeak dituzten. Dena den, 1956ko kultur giroko kezkek lur gozoa zuten eliz ikastetxeetako gazteriarengan, ekintza berriak pizteko: hizkuntz batasuna, kultur hizkera modernoaren premia, talde-lanaren beharra, plangintza gidatu baten egarria... Horiexek dira belaunaldi gaztearen ekintza-banderak.

3. Literatur kritika

Pariseko nahiz Euskaltzaindiaren Biltzarreko ideia eta asmoen ondoan, urte hartan badago gazteok oso arretaz irakurri genuen zer bait eta, zuzen ala oker,

ulertzen saiatu gina. Mitxelenak *Eganen* eskaintzen zuen kritika-lanaz ari naiz. Kritika hura izan zen (Txillardegiren lanekin batera), Olabide, Orixe, Zaitegi eta *Euzko-Gogoaren* ordura arteko joera nagusiari aurpegi emanez, gure artean zenbaiti begiak ireki zizkiona eta, esan ere, zerbait esateko ausardia eman ziguna. Handik honako bidea begiratuta, eta gaur egun euskarak dituen erdarakada-arrisku batzuk ondoan ditugula, errakuntza handirik gabe honako hau esan genezake: kritika haietan aiseago ikusi genuela aurreko autoreengan kritikagarri zen alde txarra, beraien baitan biltzen zen hizkuntz ondare aberatsaren balioa baino. Hala ere, esan liteke 1960 inguruko gogoeta kritiko hark ahalbidetu zuela geroko euskal argitalpen-kopururik handiena. Bide berri bat seinalatu zigun.

Ekar ditzagun hona idazlan haietako ideia ardatzak. Lehenik, euskal literaturaren tradizioa aintzakotzat hartzera deitzen zuen Mitxelenak: 1954koa da *Geroren* kritika eta 1956an eman zituen argitara *Peru Abarka*, *Garoa* eta *Biotz-begietan* liburuei buruzko idazlanak; beraz, alde batetik, gipuzkeraz kanpoko bi euskalkitako obra klasiko handiak eta, bestetik, Eusko Pizkunde hurbilagoaren barneko bi obra nagusi. Tradizio zaharrari egin nahi zitzaion muzin gaiztoa salatzen zuen kritikariak, esate baterako, Olabideren lana aztertzean (Ikus Mitxelena, 1972, *Idazlan bautatuak*, Bilbao: Mensajero, 347. orrialdea). Badugun literatur tradizio zaharrari begiratu gabe, euskararen *eredu* berri bat sortu nahia, ahalegin desbideratua iruditzen zitzaion, edo, gutxienik, hizkuntzaren gihar bizi eta sozialik gabea:

Saio hizkera, hots, euskara esperimentalak, deritzat Olabideren hizkerari, bide berri batetik abiatuz gero noraino hel litekeen antzemateko sortua edo. Horretarako, bihar-etzitako euskaldunei begira, ahaztu egin behar nora-ezean, gutxi edo gehiago, gaurko euskaldunak, atzokoak ez ezik (Mitxelena, *Idazlan bautatuak* 1972: 343).

Olabidek eta beronen joerek emandakoa *bizkuntz eredutzat* hartzeak beldurtzen zuen Mitxelena (gogora *Ilias'enari* egindako kritika). Autorea, bere ahalegin eta lanetan, benetan miresten bazuen ere, ez zuen uste hizkuntz eredu ona izan zitekeenik, inola ere: “Hitz batean eredutzat hartzekoa dugu Olabide. Giza-eredu jatorra dugu, gutxi bezalakoa [...]. Hizkuntz eredutzat, ordea, gidari segurutzat, inola ere ez” (ibid.: 351).

Zer esanik ez, Orixerri beste jatorrasun bat ikusten zion Mitxelenak, *Aitorkizunak* arakatzean (*Idazlan bautatuak* 1972: 354). Begiramen eta mireспенik osoenak zizkion itzultzaileari, baina kritikariak ongi ikusi zion arriskua ere

idazmolde hari, hain zuzen Orixeren irakurle gazteek sentitzen zutena (hauxe izan zen *Jakinek*, geroxeago, eredu berrien bila jotzeko arrazoietako bat):

Itzulpena laburra eta trinkoa da, latina baino areago. Trinkoegia, ene ustez. Laburtasunak merezi ote du horrenbeste opari? Argitasunak eta erraztasunak balio dute, gutxienez, laburtasunak adina. Hau bezalako liburu batean, batez ere. Inolako oharrik ez daukalarik, aurkituko du irakurleak franko eragozpen, hizkuntzaren aldetik oztopo-biderik ez duela ere. [...]. Mintzaera lasaiagoa izan dute, ordea, Orixe baino lehenago izan ditugun prosa-maisuek (*Idazlan hautatuak* 1972: 355-356).

Norabide hauekin, eta Axularren alde ari zelarik *garbizaletasun antzua* aipatzean (*Idazlan hautatuak* 1972: 164), edota Maisu Juan kaletarrak goxoki mintzatzean (ibid.: 168), kritikariak arnasbide berri baten esperantza irekitzen zigun gazte hasiberriei. Luma gazteek, bestalde, lanari ekitean, hizkeraren balio beregaini baino areago, hizkuntzaren funtzionaltasun sozial eta kultur emaileari begiratu nahi zioten. Hor ere hurbiltasun nabaria dago irakurle haiekin:

Axularren azalaz, hizkeraz, nahikoa eta gehiago esan da. Gatozen mamira. Ez zen Axular «euskara lantzen» ari: besterik zeukan buruan. Eta gizonak –beti bere buruari begira egon gabe– besteri laguntzen dionean bere burua jasotzen duen gisa, horrelaxe lantzen dira hizkuntzak ere: gauza eder, behar, jakingarriak adierazteko *bide* bihurturik (Mitxelena, *Idazlan hautatuak* 1972: 165). [Azpimarra gurea].

Kultur giro honetan eta historiaurre honekin jaio zen *Jakin*. Jaiotetxe barneko historiatxoak ikusi dugu, ez osorik. Kanpokoari ere eman diogu begiratu bat. Guztiokin argiago geratzen da, hala uste dugu, aldizkariaren ingurumaria, eta konprenigarriagoa gertatuko da beronen historia.

JAKINEN HISTORIAURREA: ABERTZALETASUNA ETA EUSKARA *

Jakin aldizkaria 1956an jaio zen eta berau sortu edo lagundu zuten gazte eta ez hain gazteek, tradizio eta ingurune bati erantzuten ziharduten. Txikitatik jasotako historia baten eraginez eta garaiko beharrian eta ahalbideei irtenbide berriak eskaintzeko asmoz eman zuten pauso hura. Hogeita bost urte geroago ko belaunaldiari orduko arrazoien berriemate bat zor diogu.

Aipa dezagun, bada, urte haietako zenbait datu politiko eta kultural, ekin-tza haren zentzua ulergarriago izan dadin; izan ere, harritzekoa baita (geroago ikusiko dugu hori) 1956an eta berehalakoetan zenbat zeinu berri biltzen den.

I. Gerraondo politikoaren mugarriak (1937-1953)

Ia berrogei urteko gerraondo luzeak (1937-1975), epealdi oso ezberdinak izan zituen bai politikan eta bai kulturagintzan ere. Xehetasun gehiegitan galdu gabe, 1956-1960. urteetan ezar dezakegu mugarri bat: belaunaldi berria orduantxe agertzen da plazara, gerratea apenas bizi izan duena. Euskal abertzale-tasunaren bihurtze historiko batean gaudela pentsa liteke, beraz.

Lehenengo gerraondoa (1937-1946), gerrak erbesteratu zituenentzat itxaropenaldia da. Armaz bantzatuak izan dira, eta galtzaileak direna ondotxo dakite atzerriratu behar izan dutenek. Hondamendiari gaina hartuz, ordea, garaipen handiago baten itxaropena darraio: Munduko II. Gerratea amaitzera doa eta abertzaleak, behingoz bederen, irabazleekin batera garaitzaile gisa agertzen dira. Euskadiren askapen-kanpaiak, ustez, berehala joko du ordua, eta Eusko Jaurlaritzak sekula baino itzal handiagoa duenez, abertzale eta euskaldunon artean ez ezik Espainian eta nazioartean ere, laster eskuratuko den bote-

* *Jakin* 21, 1981, 19-34.

reaz jabetzeko Baionako Akordioa lortuko da denen artean: PNV-EAJ, ANV-EAE, Mendigoizaleak, PSOE, PC, *Partido Republicano Federal*, *Izquierda Republicana* (1945-03-17).

Akordio horren argitan gidatuko dira abertzaleen ahalegin politikoak. III. Reich-a erori da (1945-06-09) eta nazioarteko oreka berri bat sortu nahi da, faxismoa itoz eta harremanak molde berrietan emanez: NBE jaiotzen da San Franciscon (1945). Bakealdiak garaileen ideal demokratikoak ekarriko ditu, diotenez. 1946ko abenduaren 13an, Erregimen frankista isolatzea erabakitzen da NBE: Madrilgo enbaxadak hutsik gelditzen dira. Nazioarteko harremanak eten zaizkio frankismoari.

Eusko Jaurlaritza eta abertzaleak, itxuraz laster datorkeen aldakuntzaren zain-zain daude. 1945-1947. urteetan, pentsatu ere pentsatzen da Errepublika garaiko instituzio politikoetatik itzalik handikoena Eusko Jaurlaritza ez ote den. Badirudi, inoiz ez bezala, orduantxe asmatu dutela euskal politikariek etorkizuna ongi antolatzen: “[...] la realidad ha demostrado que el camino seguido ha sido el más eficaz, hasta ser hoy el problema de España un asunto internacional que necesita solución” (Eusko Jaurlaritza, Baiona 1946-VIII-26). Zinez, etorkizuna baikorki begira litekeela ematen du.

Besteen eskuetan, eta ez abertzaleenetan, zeuden baldintza gehiegi aurkitzen da, ordea, planteamendu politiko hartan. Baldintza haietatik bi, behintzat, nabarmenak dira: alde batetik, xede haiek lortzeko, aliatuen arteko harremanak eta batasuna funtsezkoak dira eta, bestetik, ikusi egin beharko da Francori zein maniobra-tarte geratzen zaion. Egia da, 1945ean Francok ez duela nazioartean erosotasun handirik, baina –aliatuen artean zer gertatuko ere– ari da ahal duentxoa egiten: aurpegia garbitu nahiz, *Fuero de los Españolesen* aldarria egiten du (1945) eta diktadura ere aldatu egiten da *Ley de Sucesión* (1947) haren bidez, erregimena teorikoki monarkia bilakatzen delarik.

Eta, bat-batean, Gerrate Hotza erortzen da Europa eta munduaren gain: mundua bi taldetan banatzen da. Aliatuen arteko itxurazko batasun irmoa oso ahula ageri da. Komunismoa/antikomunismoa bikotearen inguruan ardaztuko dira nazioarteko harreman politikoak: alderdi kristau-demokrata batek gidaturiko Eusko Jaurlaritza, sare horretan hartua aurkitzen da. Gero eta estuagoa da abertzaleentzat nazioarteko politikaren probalekua. Eta, hain zuzen, nazioarteko koituntura hari lotuta ikusi ohi ziren ordura arteko itxaropen politikoak!

Oraindik ere, barneko Erresistentziak oso bortitz dihardu ekinean (1947, 1951 eta 1953ko grebak), baina gertakari larriak dira nazioartean bata bestearen gain datozenak: Koreako Gerratea (1950); NBERen aholkuz, enbaxadoreak Madrila berriz itzultzea (1950); Eusko Jaurlaritzari Frantziako Gobernuak

kendu egiten dio bere etxea (1951); Estatu Espainola UNESCON onartua da (1952); Vatikanoarekin Konkordatuaren izenpetzen da (1953) eta AEBrekin Laguntza-Tratatuaren (1953), Miterrand-ek itxi egiten du Mugerreko Euskadi Irratia (1954). Hiruzpalau urteren buruan uretara joan dira itxaropen-arrazoirik bizienak: 1955ean, Espainia frankista NBEN sartu zen.

Nabarmena da, beraz, estrategia politiko berri baten beharra, abertzaletasunari segida eman eta ekintza bulartsu bat sustatu nahi bada. Ondorengo urteak, bada, bereziki gogoeta politiko eta kultural batera zuzenduak izango dira (1954-1960), bai PNV-EAJren barnean, bai politikara berehala iritsiko den belaunaldikoen artean: Xabier Landaburuk eta Federiko Krutwig-ek toki berezia izango dute gogoeta horretan.

Aldakuntza hori dena gertatzen den garai berean mokoz moko segitzen dute, noski, frankismoak eta Eusko Erresistentziak, baina martiri politikoak gorabehera (1953) Erregimenak berean irauten du, inoiz baino tenteago eta lagun demokrata gehiagorekin. Ekintza politikoa moteldu egiten da; Eusko Gobernuaren itzal morala handia da, baina nora ezean ez ote dabilen galdetzen du belaunaldi berriko zenbaitek. Eta ez da falta abertzaletasunaren santutegian bertan, horrelako galderaren bat: gogora Monzon-en Kontseilari-dimisioa (1953). (Ikus *Euskal Batzar Orokorra*, 186-193 orrialdeak). Jelkideetatik at, jaioko ez jaioko dabil *heterodoxia* politikoa: ekintza politiko eta kultural biziago baten egarri den mugimendu gaztea.

2. Proiektu politiko berriak? (1954-1956)

Gerra bat galdu zen (1937), beste handiago bat aliatuei lagunduz alferrik irabazi (1945); itxaropen berriak piztu ziren (1946-1949) eta lagun izandakoen eskuetan itzali (1950-1953); aurrerantzean, baikortasun politiko zenari parentesi bat jarraituko zitzaion (1954-1960).

Abertzaletasun jelkidearen barnean, ekintzak gogoetari egiten dio toki. Gogoeta politikoak eta kulturagintzak berak ere leku nabarmenagoa izango du orain jelkideen artean. Testuinguru politiko berriak, asmo zaharrentzat proiektu politiko berri bat eskatzen du.

Erbesteko Eusko Ikaskuntzak 1954an ospatuko du, Baionan, bere VIII. Batzar Nagusia. Eusko Jaurlaritzak kezkatu dago, gazteak eske baitatoz gero eta urduriago (*Ekin* taldea), eta ez dago apenas zer emanik, ez teoria politikotan, ez eta ekinbide berri batetarako plangintzan ere. Horregatik, Jaurlaritzak epe egoki batez eta garaiz deitzen du euskotarren biltzar nagusi batera, Parisa

(1956). Mundu osotik biltzen da jendea, aldez aurretik prestatuturiko lanak eta proposamenak aztertzeraz. Arrakasta zabaldu du bilkurak, baina dagoeneko sumatzen zen gazteria berria urrunko geratu zen.

Politika berri baten azalpen teorikoen premiaz arduratuta zeuden, gazteria ez ezik, amerikarren liluramendutik irten eta urrunduz zihoazen Eusko Jaurlaritza eta EAJ ere. Xabier Landaburu eta F. Krutwig izan ziren azalpen teoriko berri edo berritu horiei izena eman zietenak: *La Causa del Pueblo Vasco* (1956) eta *Vasconia* (1962). Landaburuk kristau-demokraziaren garai haietako itzala (Adenauer, De Gasperi, Schumann...) zekarren, eta kultur gutxiengoentzat Europa berrituaren mezua, itxaropen galduen (Amerika salbatzailearen) truke, horrela proiektu amesgarri bat eskainiz. Gaur garbi dago obra haren garrantzi historikoa: EAJren ideologiaren eguneratze bat zen; iragandako ahalegin politiko galduetara buruz etsipenez bete agertzen zen; gazteriaririk irekia eta zuzendua zegoen; baina —hala diote kritikoez— etorkizunerako estrategia politiko berri baten eskaintza praktikorik ez zekarren. P. Letamendia *Ortzik* eta E. López Adan *Beltzak* honela ikusi dute Landabururen ekarria:

Esta obra —aunque de carácter oficioso y no oficial— debe ser tenida muy en cuenta; al ser la última elaboración teórica del nacionalismo vasco tradicional, puede ser considerada la ideología del PNV en vigor hasta la fecha (Ortzi 1975).

He aquí un libro clave para comprender el estado de espíritu de los nacionalistas del PNV en aquellos años negros de inactividad y desesperanza. El autor muestra con claridad su desconsuelo ante la traición hecha por los americanos a Euzkadi y a la causa de la democracia; dirige su libro a la juventud de Euzkadi, [...], y lo hace en un tono extremadamente conciliador, historicista y teórico. [...] Sin embargo, [...] ninguna línea política destinada a una actividad inmediata y popular en el interior es propuesta (Beltza 1977).

Bai Landabururen lana eta orobat Krutwigena, itxaropen-bila egindakoak dira. Bi obra hauen argitalpenen artean sei urteren aldea dago (1956/1962), baina biak dira, abertzaletasunaren barnean jasaten zen etsipen berari erantzunez moldatutako pentsamenduak: erritmo eta ideologia ezberdinez mamituak izan arren, politikarien orduko ataka estuari irtenbide zabalago bat bilatu nahia azaltzen dute. Zentzu honetan, aurreko hamarkadaren eskarmentu gaiztoari buruz egindako gogoetak dira biak. *La Causa del Pueblo Vasco* eta *Vasconia* hain

desberdinak suertatu baldin baziren, ez zen halabeharrez baizik gertatu: garai haietako krisi politiko-ideologikoak erdibitu zuen, hain zuzen, euskal abertzaletasuna bi partetan. Orduan gutxi batzuek sumatzen zuten krisi hura benetako eta sakona gertatu da.

Jakinen jaiotza eta, berehala, bere barneko nahiz inguru hurbileko gorabeherak krisi hura islatzen dute euren kultur lanetan. Apurka-apurka argiagotuz joan ziren asmoak *jakindarren* artean eta baitan. Berrikuntza hau aldizkariaren barnean bi mailatan ikusiko da, batez ere: a) moderno-kutsu bat dakarten aztergaiak ugarituz, eta b) euskarari molde berriko irtenbideak bilatuz. Aldizkariaren jaiotza-urtea ez zen ausaz suertatu, garaien beharrianek eraginda baizik.

3. Abertzaletasun berrituaren hizkuntz eskakizuna

Eraginkortasunez edo eraginkortasunik gabe, baina euskal abertzaletasunak beti izan du bere baitan hizkuntzaren eskea; izan ere, argia baitzen datu objektibo horren esanahia. Hala ere, ez du beti era berean azpimarratu hizkuntzaren naziotasun-balioa. Berezikiago Campión-ek emango zion lehentasuna hizkuntzari:

La lengua es, pues, el núcleo del concepto de nación en Campión. No es que rechace las tesis basadas en la raza, que proporcionan un criterio de distinción aplicable a los vascos. Pero es la lengua lo que constituye la posibilidad de que un pueblo, ya diferenciado por la raza, adquiera a través de su conciencia histórica la seguridad del ser nacional (Elorza 1978: 45-46, 129-131).

Abertzaletasunaren hegala kulturalak gogorki eutsiko dio (eta ahal duenean indartu ere bai) lehentasun horri. Eleizalde, Landeta edo Aitzolengan nabari da naziotasunean hizkuntzari ematen zaion pisua (Elorza 1978: 316-322). Politikoez errazkiago ahanzten zuten hori, beren teoriarik lehenik eta praxiarik sarrienik. Nolanahi ere, harrigarria da nola jasotzen zuen Irujok tradizio euskaltzalearen oihartzuna euskal instituzio historikoen azterketa juridiko baten atarian:

La lengua de la raza constituye la primera institución de la vida vasca, la más digna de cariño y atención, y al igual que Dechepare hace cuatro siglos, el Padre Urrutia, recientemente, aquí, en Londres, nos arengaba a todos para que no demos quietud al ánimo ni nos sintamos satisfechos

sólo con ostentar apellidos euskéricos, sino que debemos llevar nuestro idioma nacional a la familia, a la cultura, a la iglesia, a la calle y al mundo. – El euskera es la primera de nuestras instituciones [...]. La segunda entre nuestras instituciones es el derecho (Irujo 1945: 15).

1950-1960. urteetako politika-tristurak areagotu baizik ez zuen egin hizkuntzaren aldeko baieztapena. *Jakinen* inguruko lankideek zekarten hizkuntz grinaren nondik norakoa, korrante historiko horren barnean agertzen zaigu; baina, inondik ere, urte haietako eskakizun politikoek inposatuko dute euskaltzaletasunaren leherketa bortitzago bat, *hitzetan* eta *egintzetan*. Izan ere, ez baitzen hura hitzen arazoa bakarrik. Euskaltzaletasunaren baieztapen berria errazki ikusten da, heterodoxia politiko-ideologikora joango direnengan ez ezik (Krutwig, Txillardeggi, etab.), baita jeltxide politiko (Agirre, etab.) edo gerraurreko euskaltzale jeltxidezaleengan ere (Zaitegi, Ibinagabeitia, Umandi, etab.). Ezin uka, euskaltzaleagotze hau, politikari helduengan batez ere, nazioarteko euskal politika hondatuaren etsipenak eragina ere badela. Aberria askatzeko lehenetsuna etxe barneko indarrei eman behar zaie: herri baten nortasuna dago arriskuan, eta nortasun horren zutaberik zindoena hizkuntza da. Lilura-galtze politiko bati, hizkuntzaren itxaropenarekin erantzuten zaio (Agirre Lekube 1981, II: 847-894):

[...] hemos cometido errores de perspectiva que han privado a veces a nuestra acción de la tensión y dinamismo que son necesarios en los momentos decisivos. Entre estas equivocaciones, la que aparece a primera vista es nuestra excesiva atención hacia el mundo exterior esperando que nuestros problemas pudieran ser resueltos por las potencias democráticas sin que se exigiera de nuestra parte esfuerzo fundamental (1952).

Idea bera errepikatzen du Agirrek *Euskal Batzar Orokorren* (1956) ondoren. Lehendakariaren deietan, euskararen balio nazional askatzailearen ideia nagusituz zetorren. Kasik urteroko “Gabon-deietan” adierazten du Agirrek hizkuntzarena, zeregin politiko eta nazional lehenena bezala.

Ondorioz, badirudi, ekinbide politikoak eskatzen zion praktikotasunaz gain naziotasunaren ikusmolde *teoriko* berriztatu batera igaro nahi duela Agirrek: naziotasunaren funts bereizgarriena hizkuntza da. 1940an eta 1947an azpimarratutako ideiak (Agirre Lekube 1981, II: 26-27, 738, 748) *leit motiv*, etengabe berrituak, bihurtzen dira behin eta berriz ondoko urteetan (1981, II: pass.):

Orra or euzkera, gure etsaiari min geien ematen dion izkillu zorrotza, eta darabilgun burrukarako aukera-aukerakoa gañera [...]. Orra euskal burrukarako guda-landa eder ta muga-gabea (1951).

[...] gure etsaiak garaitu ta beren asmo kaltegarriak betiko austeko izkillu egokienak eskuartean dauzkagula [gogora]. Izkillu guzietan egokiena ordea, Euskera. Benetako abertzale baginake ez litzake euskotar bat be euskera jakin gabe egon bear (1952).

Bitartean sendotu daiguzan geure oiturak, geure izkuntza eta eskalduntasuna. Itz baten esateko, indartu daigun geure ‘nortasuna’. Euskaldundu daiguzan geure buruak eta inguruetako geure anaiak euskaldunduten be gogoz ekin daiogun (1952).

Gure gogo orri eusteko ta zabaltzeko, ba-dakizute, euskera da bide bakarra; beraz, euskera galtzen bada, gure gogoa ere galduko da, bai guretzat, bai gure Erria'rentzat (1953).

Al grito de alarma que el mensaje del VIII Congreso de Estudios Vascos encierra denunciando la gravísima situación de nuestro idioma nacional, asfixiado por la persecución y por nuestra desidia, debemos responder todos con el propósito firme de ser en el futuro vascos integrales [...]. Nuestra determinación debe ser tanto más firme cuanto que nuestro país se encuentra sometido a un régimen [...] que por su propia naturaleza persigue nuestra desintegración nacional y la pérdida de nuestro propio ser (1954).

Hizkuntzarekin batera gure nortasun nazionala galtzearen arriskuaz kontzientzia argia zeukan Agirrek (beste arazo bat da garai haietako gazteek eta ez hain gazteek zer ikusten zuten hainbat abertzale erdi euskaltzaleren bizitzetan)¹, eta frankismoak hizkuntza nola zapaltzen zigun bortizki salatu zuen (1954) UNESCOren aurrean (1981, II: 881-882. Beltza 1977: 133-136): “la

¹ Zenbait euskaltzale suharren artean, halako salakuntza isildu bat sumatzen da: “Eusko Jaurlaritzak ez dio euskarari behar hainbat laguntzen, euskal kultura ez du laguntzen”. *Euzko-Gogoatarren* artean bazegoen horrelako zerbait. Monzonek 1952an Kontseilaritza utzi zuenean horixe zuen bi arrazoitatik bat: “Y tengo que decir con toda verdad y con toda claridad que hasta ahora, creo, que de todos los medios de que ha dispuesto el Gobierno Vasco que han sido cuantiosos [...], honestísimamente empleados teniendo siempre en cuenta las necesidades y el bien del país, no ha habido una atención suficiente, un sacrificio suficiente porque es sacrificio, al mantenimiento, al robustecimiento de las características nacionales de nuestro país y me refiero principalísimamente a la lengua vasca” (Ikus *Euskal Batzar Orokorra* 1981: 189-190).

persecución de la lengua y de la cultura vascas se extiende desde la cuna hasta la tumba”. Urte hartako “Gabon-agurrean”, euskaraz eta espainieraz, salakuntza berarekin erasoko du Lehendakariak (1981, II: 883-884).

Agirrek zabaldu zuen pentsamendua gisa sistematikoagoan biltzen da Landabururengan (Ortziren ustez, honetan ere Héraud-i jarraikitzen zaiola. Ikus Ortzi 1975: 273).

Nazio-ezaugarrien artean ondoko hauek nabarmentzen ditu Landaburuk (1956: 121-122, 127-128, 139-140): arraza, hizkuntza, historia, zuzenbidea eta instituzioak, kultura, kontzientzia eta aginte-gaitasuna. Landaburu bera, Gasteiz erdaldunean jaioa izan arren (1907), euskara bultzatu nahirik sortutako “Baraibar” taldearen eragile izan zen hiriburu hartan, Errepublikakoan. Abertzaletasun jeltkideak hizkuntzari benetan lagundu ziola uste zuen autoreak (1956: 83). Euskarari buruz hau idazten zuen: “Elemento característico de nacionalidad, y sin duda el más expresivo, es también el que más se resiente de los ataques exteriores” (1956: 122).

Landabururentzat ere, ordea, euskara zaila zen ikasteko, eta bere etorkizunaz batek baino gehiagok izan zitzakeen zalantza gogoratzen ditu. Dena den, Landabururentzat bereizgarri oinarritzkoenak arraza, hizkuntza eta psikologia dira, eta atzetik datoz geografia eta historia (1956: 134). Jeltkidesan ofizialak egin nahi du zerbait euskararen alde, baina badirudi ez duela asmatzen erabaki politiko programatuak bultzatzen. Bien bitartean, esate baterako, hark oso berea izan dezakeen *Euzko-Gogoa* ahaleginetan ari da, lanak eginez eta bere ideiak barreiatuz (Ikus Intxausti 1980: 98-103). Ideiak ideia, eta esanak esan, euskaltzaletasun berriak definizioak garbi nahi ditu, bai, baina ekintzetaraino iritsi nahi du, gainera.

Zer pentsa gaur garai horretako jeltkideen eske teorikoaren eta jokabide praktikoaren arteko aldeaz? Horren kritika, barnetik ere bai (geroago ikusiko dugu zerbait), baina batez ere ikuspuntu heterodoxo batetik egin zitzaion talde jeltkideari.

1950az geroztik, abertzale euskaltzale berrien artean gero eta ozenago entzuten zen abertzale erdaltzaleen teoriari eta praxi linguistikoei egiten zitzaion kritika. F. Krutwigek Villasante Euskaltzaindian sartzean emandako erantzun-mintzalditik hasita (1952) *Vasconia* agertu arte (1962), abertzaletasunak hizkuntzaz zuen balioespen teorikoaren kontzientzia eta sentiera aldatuz doaz, eta ondorioz, abertzale gazteen hizkuntzarekiko kontzientzia berrikuntzak praxi euskaltzalearen goraldia dakar abertzaleen barnean.

Arestian jasotako Irujoren pasartea eta Campión eta beronen segitzaileak aintzakotzat hartuta ere, azpimarratzekoa da Aita Iberoren eta Krutwigen beste

bi pasarte hauetan bi tesi kontrajarriak nola ispilatzen ziren. Erdaldun jeltkide askorentzat oso baliagarria izan zitekeen Iberoren teoria hau: “Cuáles son las (propiedades) que esencialmente constituyen la nacionalidad? –*En primer lugar, la sangre, raza u origen; en segundo lugar, la lengua*” (Ibero 1906, 2. galdera). [Azpimarra gurea].

Egun argitan zegoen, erdaldun jeltkide askoren artean teoria honek nola jokatzaren zuten kontzientzia lasaigarri bezala; hau da, hizkuntzarekiko zabarkeria ez zela, azkenean, euskaltasunaren kontrako bekaturik larriena, bazegoela mintzairaz kanpo, zerbait funtsezkoagorik ere. Euskararekiko utzikeria ez zegoen Iberoren teoriekin orduan, historikoki, sendatzerik. Euskaltzaleek, nahitaez, indartu beharra zuten hizkuntzaren eskakizuna. Horregatik, Krutwigek itzulipurdikatu egingo du, geroxeago, Iberorena. Honela:

Lengua. Este es, sin duda, el factor más importante, tanto que se ha llegado a decir que allí donde se habla una lengua diferente existe una nacionalidad diferente (Krutwig 1962: 21). Los mayores tesoros de un pueblo son su idioma y su espíritu (Krutwig 1962: 518).

Jeltkide benetan euskaltzaleek aisago onartzen zuten urte haietan bigarren tesi hau, Iberorena baino. Jeltkideengandik gero eta urrunago, korronte abertzale berriak bortizki eraso zion abertzalego ez-euskaltzale biziari. Baina euskaltzaletasunaren mugak (zerbait ikusi dugu) ez datoz bat alderdi eta ideologia sozialekin. Harritzekoa da zein antzekoak diren Agirrek eta Krutwigek darabiltzaten argudioak: hizkuntza/naziotasuna, familia/ama-hizkuntza, hizkuntza/askapen nazionala... (Ikus 1950 ondoko Agirreren “Gabon-agurrak” eta *Vasconia*, 519-520, eta geroagokoa: 24-25).

Aranaren arraza-lehentasun teorikoei gupidarik gabe ekiten die Krutwigek (1962: 26-27), baina, batez ere, jasan, ezin jasan ditu hainbat jeltkideren itxurakeriak eta abertzaletasun ahoberoak.

Ondorengo pasarte hau idaztean, ez dirudi Krutwig inoren *teoriak* arbuia-tzen ari denik, *jokabideak* itsusten baizik. Hizkuntzaren balio nazionala neur-tzean, kideko asko aurki zitzakeen autoreak jeltkideen artean ere, baina ez zegoen prest hainbaten burubide zuri hura isiltzeko:

Lamentablemente el nacionalismo jeltkide y su apéndice llamado «Acción Nacionalista Vasca», no dieron nunca a la lengua vasca la importancia que ésta se merecía [...]. Su infame conducta con respecto del euskara es tal, que han llegado los seguidores del nacionalismo jelt-

kide a convertirse en los más abominables enemigos de la lengua vasca. Han llegado a desvirtuar el sentimiento nacionalista vasco, de tal forma que ante los ojos del pueblo inculto, han presentado como posible una solución monstruosa, de que se pueda ser nacionalista vasco sin atender debidamente al euskara (1962: 25-26).

Abertzaletasun historikoaren hizkuntzarekiko utzikeria edo ezina salatzean eta arazoari formulazio berria ematean, *Euzko-Gogoako* zenbait salaketarekin bat dator autorea eta, zalantzarik gabe, sentiera berri baten ahotsa gertatzen da, hemen darabilgun arazo honetan.

Agian, nahiko argigarria da Landaburuk hizkuntzari eskaintzen diona eta Krutwigena alderatzea (1962: 33-55). Bi tonu ezberdin direla oso nabari dago, Txillardegiren 1961eko mintzaldi sonatuaren sarreran topatzen dugun tonu bera (Beltza 1977: 151-152). Bide beretik, Txillardegik geroago (1966) azpimarratuko zuen hizkuntzaren balio politikoa erakutsi nahiz: “Erresumaren lehen instituzioa gaur hizkuntza da”. Ekin taldearen eskea hori zen (1952-1953) (Beltza 1977: 94). Gogoan duzu, irakurle: hauxe bera idatzi zuen Irujok 1945ean.

Honaino, politikan eta kanpoko kultur giroan ikusitakoak argigarri dira, noski, eliz ikastetxeetan jaio zen euskal loraldia esplikatzeke, baina eragin handiagoa izan zuen zerbait ere badago komentu-etxe eta Seminario haietan: gerraondoa luzatu ahala, euskal urak beren historiarioa egiten ari dira, eta etxe barneko lan hauxe izango da bere garaian kanpora lehertuko dena.

4. Eliz ikastetxeetako kultur giro hurbila (1950-1956)

Hemen gogoratuko diren datuek batez ere frantziskotarren arteko giroa agertzeko balio dute. Beste eliz ikastetxeetan gertatua ezagutzeko eta denen arteko indar erlatiboa jakiteko, ikus beza irakurleak ikastetxe haietako euskal lanei eskaintzen zaien artikulua². *Jakinen* jaiotza hurbilagoetik erakutsi nahirik mugatzen dugu honela atalburu hau.

² Artikuluak “Eliz ikastetxeetako aldizkariak” du izenburutzat eta lan hau (“*Jakinen* historiaurrea”) argitaratu zen *Jakin* aldizkariako ale berean aurkituko du irakurleak: *Jakin* 21, 1981, 49-71. Bertan, eliz ikastetxeetako kultur giroa eta bertako aldizkariak aztertzen dira, era berezi batean [Paulo Iztuetak] *Gure Lzarra* frantziskotar gazteen barne aldizkaria.

Berehalako politika-helburu handi eta distiratsurik ezak, kulturara eramango du abertzale gazteen parte handi bat; gure naziotasunaren kultur bereizgarririk baliozkoenari helduko dio. Eliz ikastetxeetako gazteria hori, gainera, alfabetatua da, abertzaletasunaz kontzientziatua, eta lanerako ere bizimoduz teilape berean elkartua. Alde anitzetatik mugatua bazegoen ere (esate baterako, ekintza politiko zuzena debekatua zuen, kultur harreman-modu asko ezinezkoak zituen), beste baldintza horiek lagungarri izan zitzaizkion seminario eta komentu-etxeetan bizi zen gazteria hari.

Alde askotatik zetozkion honi iradokizunak: a) gerraurreko literatur tradizioetik (ikastetxeetako liburutegi aberatsak han zeuden); b) ugarituz ari ziren euskal argitalpen berrietatik (Orixeren lan beteak, berrargitalpenak: *Gero* eta *Kresala* 1954an); c) norberaren familiartetik (ikasle gehienak herri eta herrixka euskaldunetakoak ziren, ez hiri erdaldunduetakoak); d) irakasleen artean euskaltzaletasunari eutsi ziotenengandik (frantziskotar euskaltzale zaharrek ez zuten erbestealdi luzerik jasan eta irakasle-lanetara itzultzeko aukerarik ez zitzaien ukatu); e) geroko apaiz-eginkizunek ezarrita, halabeharrez, noizbait ere berriro ziren euskal ikastaroetatik...

Filosofi urteetan *Etika* ikasi behar da, eta Aita Santuen irakaskizun sozialak: hark eta hauek herrien eta langileriaren eskubideak aztertu ohi dituzte. Noizbehinka eskuratu ohi diren *Euzko-Deiak*, *Alderdik*, edo OPEK —norberaren eskarmentua gutxi balitz— behin eta berriz erakusten dute nolakoa den hizkuntzaren aurkako jazarpena:

La lengua vasca ha sido proscrita de todos los usos oficiales y de la enseñanza en todo el País Vasco.

«El juez o el cura, obedeciendo instrucciones recibidas, niega a los padres el derecho de poner a sus hijos nombres vascos... En las iglesias en que el culto público interno se hacía en euskera porque los fieles no hablaban otra lengua, fue proscrito el idioma vasco, autorizándose sólo su uso antes de las ocho de la mañana... Los franquistas no toleraron la presencia del euskera ni en las tumbas y panteones de los cementerios vascos. Por decisión de las autoridades militares y civiles fueron tapadas con cal y cemento, o borrados con cincel o martillo, los nombres e inscripciones en lengua vasca... La consecuencia de toda esta persecución bárbara es que los límites lingüísticos del euskera van estrechándose y reduciéndose de una manera alarmante. El dialecto roncalés ha desaparecido totalmente. Según cómputo del Congreso de Estudios Vascos de Biarritz, el número de vascos que hablaban el euskera era de

700.000; en 1954 la cifra había bajado a 525.000» (Itarko) (Ortzi 1975: 289-290).

Beraz izan beharko zukeenaren (Etika) eta izan halakoxea zenaren (Soziologia, Politika) arteko aldea jasanezina zen. Bidegabekeriaren eztenak eragiten zuen beste ezerk baino mingarriago.

Eskierki literatur tradizio etenak martiriaren itzal eta izen ona zuen. Zenbat eta gehiago ezkutatu, orduan eta gomutagarriago. Lauaxeta edo Olabide hilak; Barandiaran eta Jakakortajarena erbesteratuak, Lekuona eta beste hainbat erdal herriratuak. Seminario eta fraide-etxe guztietan baziren zigortuak izandako euskaltzale ezagunak, eta lehentxeago edo geroxeago berriro ikastetxeetara, edo gertura bederen, itzuliak. Hauen geletan topa zitezkeen gerraurreko edizioak (Azkue eta Altuberen gramatika-lanak, Lizardiren idazlanak...). Inoiz zorte hobegoko ikastetxerik ere bazen: komentuko biblioteca izaten zen holakoetan altxorrik onena.

Kuliska Sorta eta *Euzko-Gogoa* etortzen hasi zirenetik arnasaldi ederra hartu genuen (1950). Liburuetan baino ere errazkiago ikusten zen aldizkarian eguneroko ekina. Hura lan jasoagoa iruditzen zitzaigun, jite berri batekoa: ahalegin ideal bat bezala agertzen zen. Maila apalagoan, 17-22 urteko ikasle gazteok bagenituen hurbilagoko ereduak eta lan-aukerak ere.

Zenbait erlijioso-elkartek bazuen kristau-herriarentzat bere euskal aldizkaria: *Aránzazu* erdi-euskalduna frantziskotarrek (1921), *Karmel* (Egutegia) karmeldarrek (1951), *Zeruko Argia* kaputxinoek (1919an, eta berriro 1954an). Eginkizun hauetatik batzuk, *Egutegiak* esate baterako, gazteon gain geratzen ziren. Aukera polita zen norberaren lantxoak plazaratzeko, eta lankide gaztearen poza ez zen txikia izaten zerbait izenpetuta argitaratzen bazioten.

Gerraondoan nahiko garaiz hasitako argitalpen-tradizio txiki bat zegoen frantziskotarren artean, horretarakoxe balio zuenari idazle-ofizioa ikasteko aukera emango ziona. Garai haietan laurogei edo ehun gazte ziren, hamaseitik hogeita lau urte artekoak, elkarrekin Filosofia edo Teologia ikasten zutenak, Nafarroako Erriberrin eta Arantzazun.

Gerraondoan, berehala eskuak libre izan zituen apaiz euskaltzale zenbaiten ahaleginei esker, hiruzpalau aldizkari sortu ziren urte haietan: *El Maestro de los Tercios* (1944-1949), *Arantzazu-ko Amaren Egutegia* (1947-gaurdaino), *Anaitasuna* (giputza, 1950; bizkaitarra, 1953), *Goiz-Argi* (1959). Hauetan guztietan idazten zuten —hau da ongi azpimarratu nahi dena— frantziskotar ikasleek, eta sarritan zuzendaritzetatik eskatzen zitzaaien lankidetzari hori. Aldizkari-multzo haren eragile eta zuzendariak ezagunak dira: J. A. Garate (*El Maestro*, 1944

-1949; *Anaitasuna-G*, 1950-1955; *Goiz-Argi*, 1959-1964 administrazioa, 1964-1976 zuzendaritza), Imanol Berriatua (*Anaitasuna-B*, 1953), biak urte berean jaiok (1914).

Ez zeuden bakarrik horiek, belaunaldi bereko beste luma batzuk ere lanean ari ziren; 1950ean hogeita hamar bat urte zituztenak: D. Garmendia (1908), K. Izagirre (1913), K. Zubizarreta (1912), J. Alustiza (1913), S. Mitxelena (1918), E. Agirretxe (1920), L. Villasante (1920), K. Iturria (1923)... Aldizkarien lemazain, eragile nahiz idazle bezala gerraondoan errauspeko su isilari haize ematea suertatu zitzairen. Memento horretan, 1949an, egokiera berri bat datorkie frantziskotar euskaltzaleei: Aita Pablo Letek hartu du nagusigoa bere eskuetan, eta frantziskotarren artean elkartuta eta zain-zain Arantzazun zeuden indar euskaltzaleek aukera ederra izan zuten.

Dena den, orain azpimarratzen ari garen frantziskotarren euskal ekintza ez da neurritz kanpo ikusi behar, baina gogoan hartzekoa da euskal kulturaren abiaune berri baten barruko ahalegina dela, bere argi eta itzalekin, noski:

- a) 1960 arte edo, fraide arteko gutxiengo euskaltzale baten lana izan zen (horregatik ere ematen ditugu protagonisten izenak).
- b) Ekimenak behetik hasi ohi ziren, gehienetan, zenbait nagusiren kontra edo beraien tolerantziarekin.
- c) Urteetan (1939-1949) beldurra zen nagusien lege, baina gero eta gehiago arriskatu ziren beheko ekimenak espresuki edo isilduz babesten: legezko baimenik gabeko argitalpenak (*Jakin*), eranskin gisa asmatutako aldizkariak (*Anaitasuna-B*, *Goiz-Argi*), etab.
- d) Ekintza berri batzuk goitik (Mitxelenaren lanak) edo talde bilera ofizialetatik sustatuak ere izan ziren (*Anaitasuna-G*, *Astea*), batez ere 1949az geroztik.
- e) Eskierki, ez zen sekula falta ekintza jaiok berrien ondoan nagusi oztopo-jartzailereren bat.
- f) Euskaltzale eragileak babes handirik gabe sentitzen ziren.

Oro har, eta inguruetan gertatzen zenari begiratuta, 1950-1960. urteetako Kantauriko frantziskotarren Probintziaren (bere komentu-etxeak Euskal Herrian, Gaztelan eta Ameriketara ditu, eta ez da, gutxiagorik ere, osorik euskalduna) euskal politika positibotzat eman behar da, bere punturaino erlatibizatuz. Gerra-galtzailearen arrazoiak eta irabazleen kontzientzia txarrak poliki lagundu zuten instituzio-barneko euskaltzaletasuna. Seminarioetan gertatzen zenaz ere jakin beharko litzateke euskararekiko zapalkuntza/libertateak nola

desorekatzen ziren. Izan ere, orrialde hauetan, gertatu zen zerbait positiboren zergatia bilatzen dugu, eta ez, egin beharko ziren eta bide-erdian geratutako askoren ezin jaioa: zapalkuntzaren indarra eta eraginkortasuna ere ezagutu behar lirateke egiaren osoaz jabetzeko.

Ekintza berri baten mistika sortu zen: Arantzazuko eliz berrikuntza (lehen harria 1950ean) handikiro moldatu nahi izan zuen, baina elizaren eraikuntza ez ezik kultur berrikuntza bat ere bultzatu zuen. Berrikuntza horretan, idazlanari toki bat eman zitzaion: orduantxe kaleratu zen Mitxelenaren *Arantzazu. Euskal Poema* (1949) eta berehala, Leteren aginduz idatzitako *Ama-Semeak* (1951) ere. *Anaitasuna* biak ere olatu berean etorri ziren. Villasante laster sartuko da Euskaltzaindian (1952, maiatza). Hiru urte pasatxotan baizik ez zen izan Lete frantziskotarren nagusi, baina Bermudetan hegazkin-istripuz hil zenean, inoiz gutxitan bezala sentitu zen ezbehar hura (1952, abendua).

Ezbeharra gorabehera, aspertzeke segitu zuten euskaltzaleek ekintza berrien gogoz. Herrietako apaizen artean egindako inkesta baten ondoren, ahaleginetan ziharduten aldizkarien ondoan. *Astea* deituriko astekari bat sortu nahi izan zuten (1955-1957) Villasante, Agirretxe, Omaetxebarria eta abarrek. Asteroko hura ez zen bideratu, *Zeruko Argia* astekari bilakatzeraz zihoala jakin zelako.

Une hartan, inguru kulturala lagungarri dute (Oteiza, Basterretxea...) Arantzazuko gazteek. Urte haietantxe ari da B. Gandiaga (1928) bere ikasketen azken urteak egiten (1951-1954), eta 1954an irabaziko du bere lehen saria. Ez diezaiogun, ordea, garaia aurrea har.

Euskal Herriko Eliza osoari begira, aldakuntza handi bat dugu urte horietan: Gasteizko Elizbarrutia hirutan banatzen da, Gasteiz, Bilbo eta Donostia (1949). Elizbarrutietako apaizgaitegi berriak jasoko dira: gerraurreko kardaberrazarren espirituak Donostian eta Derion aurkituko dituzte kokalekuak; ez, noski, nahi bezain erosoak, baina bai, denen bultzadaz, indartuz joan diren erdigune kulturalak. Hemen ez dugu historia hau aztertuko, zuzenean une honetan darabilgunari ez dagokiolako, baina esan dezagun, bederen, gerraurreko tradizio bati segida emanez ekingo ziotela euskal lanari.

Ez ziren ezerezaren gain agertu Lekuonatar gazteak, M. Atxaga, J. M. Aranalde, L. Dorronsoro, J. Gaztañaga, etab. Donostian; J. Kerexeta, M. Zarate, etab. Bizkaian.

Ikasleen eraginez eta eginez sortu zen *Jakin*, eta horrela gertatu zenean, aurreko urteetako hainbat lanen garapen logikoa baizik ez zen izan: ikasleei *eskatu egiten zitzaien idaztea* eta lantxo llaburrak argitara emateko aukera eskaini, idazle-premia zuen plataforma baitzen aipatutako aldizkari-multzoa.

El Maestro de los Terciarios hura lau orrialderekin hasi zen (1944) eta zortzirekin bukatu (1949): lehenengotan erdia bakarrik zen euskaraz eta bukaeran ia dena (sei orrialde). Erriberakoena ez ezik Alfaro eta Lermako hirugarrendarren albisteak ere euskaraz ematen zituen... Garate bere zuzendariak gorde digun bilduman ikus daiteke, errenkadan, zenbat teologo ikaslek idazten zituen artikuluxka haiek. Egia esan, ez zen nahitaez luma finegirik behar eginkizun hartarako, eta eskarmentu handiegirik gabeko zenbaitek babes erosoa topatu zuen orrialde haietan. Betekizun bertsua konplitzen hasi zen *Egutegia* ere (1947): oso idazlan laburrak behar ziren, edonork aise idaztekoak, eta atzetik zuzentzaile hobeagoren baten segurantza zegoen, gainera. Ehunka orritxo zirenez gero, gaiez gai sailkatuta banatzen zen lagunartean lana. Bestalde, *Egutegiaren* zabalkundea erabatekoa zen: lehenengo urtean 40.000 aleko edizioa egin zen Gipuzkoarako, eta hamabost mila geratu ziren saldu gabe. Handik aurrera, 25.000 aleko argitaraldiak inprimatzen ziren, eta dena saldu. Frankismoaren menpean, hau zen milaka sukaldetan eguneroko irakurgaia (1960: 16.000). Irakurle leialak eta atxikiak zituen *Egutegiak*. Ikasleek bazekiten, lana hain apala izanik ere, hain mugatua, ez zela alferrikakoa han emandako izerdia. Hala ere, Egutegiko hura urtean behingo ekinaldia izan ohi zen, eta idazlegaien trebakuntzak segida hobea eskatzen zuen, etenik gabeko maiztasuna alegia. Horretarako parada hilerokoetan topatzen zen.

Aránzazuk zer bait laguntzen zuen, baina Hirugarrendarren Anaiarteari zuzendutako argitalpenek ematen zuten aukerarik onena, *Anaitasuna* biek batez ere, eta Arantzazuko apaizgaiei bakarrik ez, baita beste etxe batzuetakoei ere. Iruñetik idazten zuten Apezetxeak, Gardek, eta abarrek. Zabalkundea ere estimagarria zuen, Gipuzkoakoan behintzat: hasieran 15.000 aleko kopurua aipatzen da (1950, otsaila); gerora, bere puntuan kokatu zenean (1953, urtarrila), 7.000 zirela esaten da. Hileroko hau, aipatutako besteak bezala, erlijioso zen, baina behin baino gehiagotan gogoratu zuen herrietako Anaiarteetan balio kultural batzuk zaindu beharra: esate baterako, herri bakoitzekoak liburutegi bat sortu beharra zuen (“I. Anaidi bakoitzak jarri beza *liburutegi bat*, 2. Junta berriak izendatzean, *liburu-zaitzalle bat izendatu bedi*”), eta argitara berriak ziren liburu batzuk ematen zituen Agirretxek zerrendan (1954, 139, I). PPCren liburrak argitaratu zituen aldizkariak: itzulpenak frantziskotar ikasleen ardura-pean gelditu ziren. Urte beretan, (1954 eta 1956. urteetan), Hirugarrendarrentzat zen aldizkari erlijioso hark euskal literatur sariketen propaganda egiten zuen; dei haiek kanpaina baten antza ere badute: sei zenbakitan ematen dira (1954) “Gure euskal Sariketa” ren berriak. Honela banatu ziren jasotako lan lehiakideak: 18 olerki, 6 antzerki eta 2 hitz lauho saiakera. Olerkien sailean teologo

ikasle bat izan zen irabazlea, Bitoriano Gandiaga, eta Bordari bigarrena. Horrezaz gain, liburuen aurkezpenek edo euskal bileraren baten albisteez ere izaten zuten tokirik. *Jakinen* sortzaile guztiek idatzi zuten *Anaitasuna* haietan (I. Bereziartua, I. Bastarrika, S. Berasaluze...).

Kanpoko argitalpenetarako zeregin hauek gazteen lumak eskolatzeko intergarriak izanik ere, bazegoen (beti, baina batez ere 1950etik aurrera) beste zerbait, norberarentzat lehenengo probaleku serioa gertatzen zena: Nafarroako Erriberrin filosofi ikasleek sortutako etxeko aldizkaria, *Gure Izarra* (1950-1974), hogeita bost urte bete arte iraun zuena. Ikasturteko ikaskizun-lanak jasoz idatzitako urtekari kulturala zen berau. Hauxe zen lanik apainena, zainduena eta jasoena, baina bestelakorik ere izaten zen, esan dezagun, idazketa hutserako, gelaz gela elkarri pasatzen genizkion kaierrak.

Gure Izarran zailduta iristen ziren gazteak Arantzazuko lanetara (Iztueta 1981). Gogoan har dezagun, idazlan haien xede nagusia edozein ikaskizun akademiko euskaraz landu ahal izatea zela, hau da, orain arte izendatu ditugun frantziskotar aldizkarietan egiten ez zen zerbait, eta nolana ere, *Euzko-Gogoaren* helburuen parekoa zen lana. Beraz, lehenengo jakindarregan, *Jakinen* aurretik, *Gure Izarraren* eskarmentua dago.

Gure Izarrako ahalegin haietara iritsi aurretik, fraidegai mutiko koskorrek seminarioko lehenengo urteetan izan ohi zuten euskal hezkuntza gogoratzea egoki da hemen. Hamar-hamabi urterekin ikasketak hastean, Arantzazuko mutikoei ez zitzaien (1950 aurretik) lehenengo bi ikasturteetan euskararik irakasten, eta hurrengo hiruretan astean ordubete bakarrik. 1961ean Gandiagak esaten digunez, sei urtetan astero ordubete ematen zen. Hala ere, alde onik ere izan zuten: esate baterako, gerraurreko "Zabalkundea"ren *Garoatik* ale bana eman zitzaion ikasle bakoitzari 1950ean. Hortixe hasi ginen euskal literatura ederra zuzenean ezagutzen. Adinera iritsi orduko, *Egan* eta *Euzko-Gogoa* aurkitu genituen eta gerraondoko lehenengo berrargitalpen ederrak.

1950az gero, literatur lanak hegaldi garaia goa erakutsi zuen. Gehientsuenok irakurrita genuen Ibar-en aspaldiko *Genio y lengua* (1935) eta handixe ikasita genuen hizkuntzarentzat literaturak duen salbabide-balioa. Txikia zen liburua eta erdaraz zegoen, gainera, baina estimurik handiena irabazi zuen gure artean. Horregatik, ez da batere harritzekoa gure gozamina Lizardiren *Biotz-begietan*, gerraurreko edizio horizta eta txikiago maitagarri hartan, isilka-misilka irakurtzen genuenean... Eta zer esan poema-mirari berriez: Salvatore Mitxelenaren *Arantzazu. Poema* (1949), Orixeren *Euskaldunak* (1950), Labaienek eman zion lagungarri eta guzti, eta Onaindiaren *Euskal Milla Olerki Eder* (1954). Honek jo eta pasa egiten zituen gure amets guztiak: berau zen euskal literaturaren frogar-

rik onena, hizkuntzaren zapaltzaile ooren kontra. Egia da baikorregiak eta xaloeziak ginela gure uste eta iritzietan, baina halaxe sentitzen genuen eta hortixe bizi ginen. *Euzko-Gogoaren* Guatemalako azken aleak benetan hunkitu gintuen bere olermen oparoarekin (1956). Mitxelenaren *Bizi nai* hura, N. Etxanizen olerkiak eta Aurraitzen-en lana zinez gustagarriak izan ziren guretzat. Oraindik poesi molde berriak ez ziren ageri, baina enbor zaharraren gerraondoa gerraurreko onenarekin aldera zitekeela pentsatzen hasi ginen.

Prosa ere ez zen baztertzekoa. Hura gozamina *Gero* (M. Lekuonaren edizioa) eta *Kresala* (1954), aurkitu genituen! Beharbada, euskaraz obratu diren itzulpen-asmorik handienak oraindik ere ordukoak ditugu. Orixe bortizki lehiatu zen San Agustinen *Aitorkizunak* euskaraz ematen (1956), eta hil baino lehentxeago, bere bizitzan egindako obra osoari begiratuz, lanik onentzat jotzen zuen Orixek berak:

Besterik ez ba'da ere, ezin esan, S. Agustiñ'ek euskerari on aundia egiñen ez dionik. Gaurkotik au gelditu diteke, Biblia leku, euskal-libururik bikaiñena (*Agustin Gurenaren...* 1956: 5).

Euskerari begiratuta, *Aitorkizunak* [nere lanik onena]; ori aztertuko dute geienik *euskera sakonago* ikasi nahi dutenak (*Karmel*, 1960 iraila, 159).

Hori eta Gaizka Barandiaranen *Ilias'ena* (euren lorpen hain desberdinekin) aipatu beharrekoak ditugu, Zaitegi eta Ibinagabeitiaren itzulpen klasikoekin batera: prosa landuari bultzada handi bat eman zitzaion, lehenagotik zetozen eginahalei nolabait ere gailur berria emanez.

Aipatu hauetxek, hain zuzen, *Jakinen* aurreko gaztetxoek irakurri, ez genituen gehiegi irakurtzen; ulertu, berriz, ezer gutxi, baina miretsi, bihotzez eta begi zabal handiz miresten genituen eta kritika-txintik ere ez genuen egin, geroxeago "errebolta" lotsagabeki sortu zen arte (1959). Haiek ziren guretzat benetako nahiz ustezko obra maisuak. Ustezkoak diot, zeren hamasei-hogei urteko gazte erdi-eskolatuok ez baikenituen sobera konprenitzen; beste batzuk, bai, hobekiago ulertzen genituen, baina heterodoxiarako edo okerragorako bide samurragoak ziren hauek: Jon Etxaideren *Joanak Joan* (1955) eta, gerotxoago, Txillardegiren *Leturiaren Egunkari Ezkutua* (1957) edo S. Mitxelenaren *Unamuno eta Abendats* (1958).

Kanpoko liburugintzatik zetozkigun eztenkadak ziren horiek, eta irakurmina zutenentzat bazka zapoetsua. Azken ereduak ziren, betiere urrunak, baina ereduak segitzaileak eskatzen ditu, eta kazetaritzaz gain (lehen aipatu dira

aldizkarietako lanak) liburu-lanak ere izan zuen tokirik filosofo eta teologoen artean. Jakindarren aurretikoko ikaskideentzat horretarako egokierarik erosoena sariketak izan ziren: Etxaidek bere eleberria saritua izan zuen hartan “Itunbe”ri (J. Iturria, I. Untzurruntzaga, S. Berasaluze) eman zitzaion bigarren saria eta, bide horretatik, kaleratu zen lan hori: Hugo Wast-en *Bide izkutua* (1956). Orobat, Sorarrain-Galarraga-Garaialderen *Elezarrak* (1955). Ez ziren, hala ere, ikasleen lehenengo liburuak; ordurako Sorarrainek bi zituen argitara emanak (1950, 1955). Urte haietan ari zen F. Bilbao ipuinlaria ere (*Ipuin Barreka*, 1959) bere lanak ontzen. Posible zen, beraz, eta eskuragarria garaiko euskal ingurune sozialean preziatua zen luma-lanari ekitea!

Etxez kanpotik eta etxe barnean idazle-ofizioa ikasiz joateko eragina ez zitzaion gazteriarri falta. Garai haietako argitalpenek gure baitan sortzen zuten zirrara, hogeita hamar urte geroago modu ulergarri batez agertzea ez da batere erraza. Gerraondoko isilaldia, gutariko askorentzat, bizitza osokoa gertatzen zen. Azken hamarkadan (1944-1956) jasotako bizipenek zera erakutsi zieten gazteei: kazetari-lan edo literatur idatzien ondoan ikasgai akademikoak ere kalera zitzaketela euskaraz, horretarako bidea urratua zegoela, alegia.

BIBLIOGRAFIA

- Agirre Lekube, J. A., 1981, *Obras completas de José Antonio de Aguirre y Lecube* (2 libk.), Donostia: Sendoa. [Argitaraldi hau Martin Ugalde'ren ardurapean].
- Agustin, Santua, 1956, *Agustin Gurenaren Aitorkizunak* (Nikolas Ormaetxea Orixe'k euskeratuak), Zarautz: Itxaropena.
- Beltza, 1977, *El nacionalismo vasco en el exilio : 1937-1960*, San Sebastián: Txertoa.
- Elorza, A., 1978, *Ideologías del nacionalismo vasco: 1876-1937 (de los "euskaros" a Jagi Jagi)*, [Donostia]: L. Haranburu.
- Euskal Batzar Orokorra / Congreso Mundial Vasco, 1956 Paris. 25 aniversario*, [1981], [Gasteiz]: Eusko Jaurlaritza.
- Ibero, Evangelista de (O. F. M. Cap.), 1906, *Ami vasco*, Bilbao: Imp. de E. Arteché. [Ondoko urteetan izan zituen argitaraldiak liburu honek: 1906, 1907, 1930, 1932, 1957, 1958an euskaraz, 1963].
- Intxausti, J., 1980, "Zaitegi eta *Euzko-Gogoa* (II). Hamar urteko lana (1950-1959)", *Jakin* 13, 1980, 96-119.
- Irujo, M., 1945, *Instituciones jurídicas vascas*, Buenos Aires: Editorial Vasca Ekin.
- Iztueta, P., 1981, "Eliz ikastetxeetako aldizkariak", *Jakin* 21, 1981, 49-71.
- Krutwig, F., 1962, *Vasconia*, Buenos Aires: Norbait.
- Landaburu, X., 1956, *La Causa del Pueblo Vasco (razones de una actitud, posibilidades de actuación)*, París: [s. n.].
- López Antón, J. J., 1998, *Arturo Campián entre la historia y la cultura*, Pamplona: Gobierno de Navarra. [N. B.].
- Orixe: ikus Agustin.
- Ortzi, 1975, *Historia de Euskadi: el nacionalismo vasco y ETA*, [Paris]: Ruedo ibérico.
- Sudupe, P., 2011, *50eko hamarkadako euskal literatura, I: Hizkuntza eta ideologia eztabaidak*. Donostia: Utriusque Vasconiae. [N. B.].

JAKIN (1956), AURREKO ETA BEREHALAKO TESTUINGURUAN*

Orain berrogeita hamar urte, 1956ko udazkenean jaio zen *Jakin*, eta urte-modu hartako euskal bizitza kulturalari begiratu bat ematea dagokit.

Orain hogeita hamarren bat urte egin behar izan nuen gauza bera¹, baina handik hona idatzitakoa (guztia ez bada ere) gogoan hartuz egingo dut orain-goan. Izan ere, ez da falta garai hartaz azterlanik: hauetako batzuk euskal kulturari orokorrean dagozkionak izan dira²; besteak, berriz, Erbeste kulturala aztertu dutenak³, eta, azkenik, baita *Jakin* aldizkariaren historia arakatu digutenak ere⁴.

* *Jakin* 158, 2007, 53-76.

¹ Ikus neure orduko lantxoak: Intxausti 1977. [N. B.: Liburu honetan bertan aurreko idazlanean, “*Jakinen* historiaurrea”].

² Iztueta 1991. Liburu honetako laugarren eta bosgarren zatietan biltzen da euskararen garaiko historia kulturala: 751-1020 orrialdeak. Euskal Literaturaren historia orokor berriek ere albiste franko dute, adibidez bertsoarritza (J. R. García), olerkia (I. Aldekoa), eleberria (M. J. Olaziregi), saiakera (X. Altzibar) eta antzertiari buruzko (P. Urkizu) atalburuetan: Urkizu 2000b. Gainera, Intxausti 1985; bertan ikus daitezke: Iztueta, P., “Euskararen adierazpen sozialak gerraondoan (1937-1984)”, 392-403; Otegi, K., “Euskal sorketa literarioa (1939-1984). Hurbilketa deskriptiboa”, 434-448. Orobat Sudupe 2000b. Garaiko arazo larrienak ezagutzeko, osagarri ona izango da Orixe 2006. [N. B.: Geroago argitaratua: Sudupe 2011].

³ Iztueta 1991: 794-810, Hegoaldeko albisteak ere tartean direla; Iztueta 2001a; Urkizu 2000a. Apaolaza et al. 2000; bi liburukitako lan honetatik, interes hurbilagoa izan dezakete hemen ondokoak: Sudupe 2000a, Aulestia 2000 eta Amezaga 2000 lanek. Hauxe gain, begira lan horretan hauek ere: B. Amezaga (Irujo 2000), I. López-Mendizabal (Urkizu 2000c), M. Ugalde (Beti 2000 eta Etxeberría 2000) edo T. Etxebarriari (I, 31-59; II, 43-60) eskainitako idazlanak ere aipagarriak dira. I. López-Mendizabal-ek badu bere biografiatxoak: Tellería 1999.

⁴ *Jakin* aldizkariaren zenbaki monografikoa: *Jakin* 1981. Iztueta 1991: 950-969. Paulo Agirrebaltzategik *Jakinen* argiraratutako bi artikulua daude, gainera: Agirrebaltzategi 2006 eta Agirrebaltzategi 2007.

Lehen urte haietako *Jakinen* historia errealitate mugatua da, noski, gizarteko barruti jakineko lana, baina ez da historia isolatua, inondik ere, eta aldatuz datorren euskal kulturako azalpen aski adierazgarria gerta daiteke. Eta, agian, lagun lezake, gainera, urak bere orokorrean nondik zihoazen so egiteko. Dena den, ez naiz azterlan sakonago eta zabalagoetan sartuko, eta bizi izandako garai haien lekuko bezala ere jardungo dut hemen.

I. Bi hamarkada kontrajarri: 1940koa eta 1950ekoa

Hasteko, esan dezadan frankismoko lau hamarkadak ez zirela izan mortu eta hilak, gorabehera eta aldakuntzarik gabekoak (1936-1975); hau da, bote-redunek ez zuten beti berdin zapaldu edo mugatu, gidatu edo sustatu, eta euskal gizarteak molde ezberdinetako erantzun eta ekimenak izan zituen denboraren harian, alderdi politiko kontrajarrien aldetik ere. Begi bistakoa da hori.

1940etako gerraoste gordinena izan zen, eta horren barruan euskarazko produkzioak ez zuen lekurik izan Hegoaldean, harik eta 1947-1949etan zerbait-zerbait mugitzen hasi zen arte⁵. 1950eko hamarkadan berritasun nabari eta jakineko batzuk behintzat ezagutu genituen; horien artean bat, *Jakin* aldizkariarena bera. 1960ko hamarkada oso bestelakoa da: ikastolak datoz, Irratia ere bai, astekariak, kanta berriaren lehen pausoak, argitaletxe berriak, etab.

1950eko hamarkadan, badirudi euskal kulturgintzan Erbesteak eta Barruak elkarri begiraturaz eta elkarren lehian ariko direla, urruntasun geografikoaren gaintik hurbiltasun soziokulturala bilatuz, batzuetan hala nahi izan zelako eta bestetan parean gertatu zelako, gehiago gabe. Ikus dezagun xehetasun gehiagoz.

Hamarkada batetik besterakoan, ez gaude, noski, bat-bateko bihurgune hertsian, baina bai bihurgune mantso eta kalkulatu batean. Estrategia politiko eta kulturalak aldatzera doaz, apurka-apurka.

Erbesteak eratutako kultur produkzionik zabalena, Buenos Airesen, *Ekin* argitaletxetik zetorrena zen (1942...)⁶. Zoritxarrez, urrun egoteaz gain, Hegoaldera sartzeko bidezidor bihurriak bilatu behar izaten zituen honek.

⁵ Liburuei dagokienez, ikus Torrealdai 1977: 572-575.

⁶ *Ekin*en sortzaileetako batek, A. M. Irujok, eman zuen argitaletxe honen berri, Eusko Ikaskuntzaren 1954ko Kongresuan: Irujo 1954.

II. Mundu Gerra amaitu eta Gerrate Hotzera pasatu aurretik ere, Erregimenak komenigarri ikusi zuen euskal kulturari (oraindik gaztelaniaz bakarrik) leihatilaren bat irekitzea, segur aski sistemaren barruko zenbait kritikoagok premiazkoa ikusten zuelako eta aurpegia zerbait garbitu beharra zegoe-lako. Une horretan jaioko da Donostian Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko *Boletín* zeritzana (*RSBAP*, 1945), bizitza luzekoa eta garrantzizko historia egin duena⁷.

Gogora dezagun nortzuk dituen *Boletín* horrek lehen urteetako lankideak, nortzuk eta zein koloretakoak.

Lehenengo, noski, Erregimenekoak edo berorren hurbilekoak daude: Erregimenetik datozen J. M. Areilza (1945), J. L. Banús Agirre (1945)⁸, A. Tovar (1945)⁹ eta J. Berruezo (1945)¹⁰ edo J. Urkixo karlista (1945)¹¹, nahiz M. Ciriquiain-Gaiztarro (1945). Bestalde, ez da falta jende libreagorik: F. Arozena (1945), J. Caro Baroja (1945), J. B. Merino Urrutia (1945). Horra datoz laster tradizio abertzalekoak ere: Jesus Elosegí (1946), A. Irigarai (1946)¹², Justo Garate (1947), Jose Artetxe (1948), I. M. Barriola (1948), Manuel Lekuona (1948), Aita Donostia (1949), eta are nabarmenago: K. Mitxelena (1949), Jesus Galíndez (1951), Antonio M. Labaien (1951).

Idazleon historia pertsonalak ezagutzen dituenak badaki, berorien aldizkari-riko presentziak zer esan nahi zezakeen: Hegoaldean hurbiltasun kultural berriak jaiotzeaz daude, gehienetan konbentzimendu politikoetan dimisiorik eman gabe. Gerrako garaituetako batzuk, bederen, onartu dute Aldundi frankistak abiarazi duen kultur aldizkari berriaren baliagarritasun kultural posibla.

⁷ Irakur bedi “Nuestro propósito”, hasierako aurkezpena: Karlos III.aren garaiak, gure herriaren kato-likotasuna, Adiskideen tradizioa, etab. gogorarazten dituen atarikoak da (*RSBAP* 1945). Ikus, gainera, “¿Qué vamos a hacer?” (Conde de Superunda 1945). Inondik ere Areiltzaren pentsamenduaren oihartzuna da berau: xedeen artean “difusión de la cultura en el mejor servicio de Dios y de España” aipatzen du Kondeak.

⁸ Banús-en lanak ondoko gaia zuen: “Viejas Ordenanzas de Construcción de San Sebastián” (*BRSBAP* I, 1945, 185-194).

⁹ Tovar-en idazlana zera da: “Notas sobre el vasco y el celta” (ibid.: 31-39).

¹⁰ *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* (Auñamendi), Bengoetxea, A., s. v. “Berruezo Ramírez, José”.

¹¹ Urkixok beste lan hau eman zuen: “M. de la Chaveaussière, junior, amigo del País y de los vascos. La boina. El texto en vascuence de Rabelais” (ibid.: 7-23).

¹² Irigarairi biografiatxo bat *Bidegileak* bildumak eskaini dio: Diez de Ulzurrun 1999.

Aldizkari-harpidedunen zerrendak ezagutzen ditugu, eta kopuru polita zen horiena: 1945eko izendegiak erakusten duenez, 580ren bat harpidedun izan zuen urte hartan, eta 1949ko albisteetan gora egiten du kopuruak: milaren bat harpidedunetara edo iristen ari zen *Boletín*-a¹³, hutsarte kultural nabaria zer bait betetzera zetorrelako, noski.

Dena den, artean (1945), dena erdaraz dago.

Azken gerrate karlistaren ondoren bezalatsu, badirudi kultur bideei ekin beharko zaiela gerra zibil galduaren ondoren eta guretzat hutsala gertatutako den Aliatuen garaipenaren biharamunean.

Testuinguru politikoa berria da Europan eta munduan. 1945ean aliatuek irabazi dute beste gerra handia, baina Francok bere eserlekuan jarraitzen du, aurkarietzat aldakuntzaren itxaropenak gero eta urriagoak direla. Estatu Batuek onartu dute Erregimenaren lankidetzeta, Espainiaren nazioarteko politikari atak irekitzen dizkiote iparramerikarrek (1950), Vatikanok Konkordatua sinatu du (1953) eta Espainia onartu dute NBEan (1955). Gerrate Hotzean gaude.

1940ko hamarkada amaitzean zantzu berriak suma daitezke: Arantzazukoek lortzen dute beren *Egutegia* argitara eman eta milaka ale banatzea (1947), Lekuonak heldu dio berriz bere idazketari (*Iesu aurraren bizitza*, 1948); bestalde, S. Mitxelenak molde berriko saioak egingo ditu bere *Arantzazu* poeman eta historian (1949, 1951). Baina, batez ere, ikustekoa da hamarkada hura itxi orduko nola berreskuratzen duen euskal kulturak, aspalditik iragarritako poema handia (Orixeren *Euskaldunak*, 1950), eta urte berean baita garaian guztiz praktikoa eta noblea zen *Meza-Bezperak* liburua ere (1950) (ertzak urreztatuta zituen!). Esan daiteke, bi liburu hauetan dutela beren lehenengo hitzordua aurreko belaunaldiak eta garaiko gazteek.

Laster, hogeiren bat urte beteko ditu gerra ezer gutxi ezagutu zuen gazteria batek, baina haren oroitzapen isildua gogoan duenak. Euskaltzalea da gazte hori, eta badaki gurasoekin bidegabekeria latzak egin zirela.

Aurkako arrazoiengatik, euskal Erbeste politikoak eta Erregimen frankistak ere molde berri batez begira dezakete edo behar dute euskal kulturarekikoa, nahiz eta azken xedeak, alde batean eta bestean, zinez kontrajarriak dituzten.

1950eko hamarkadan euskal Erbeste politiko-kulturala ekimen berrietan sartuko da: Eusko Ikaskuntzak Kongresuak antolatuko ditu (Miarritze, 1948;

¹³ BRSBAP I, 1945, 467-481; V, 1949, 513-530.

Baiona/Uztaritze, 1954) alde batetik¹⁴, eta Jaurlaritzak I. Euskal Batzar Orokorra (*I Congreso Mundial Vasco*) bilduko du geroxeago (Paris, 1956-09-23 / 1956-10-01)¹⁵.

Erregimenak, edo berorren ildoko zenbait disidentek, euskarazko kulturari tartetxo bat bederen eman diezaiokeela uste du, nonbait. Nazioartean jada lortu duen segurtasun berriak, batetik, eta kanpoko euskal salakuntzei aurre egin nahiak, bide zerbait liberalagoak urratzera eramango du.

Hemen eman daiteke, segur aski artean euskalgintzatik kanpo ageri zaigun, baina pisu ideologiko-kultural handia izan zezakeen *Conversaciones Católicas Internacionales de San Sebastián* deitua (1947-1959). Urtero ospatu ziren Europako intelektual katoliko demokraten topaketa hauek, Karlos Santamariaren gidaritzapean, eta 1950eko hamarkada bete-betean hartu zuten. Garbia zen hor katoliko liberalen ahotsa, eta bere aldizkaria ere izan zuen (*Cuadernos*); Kontzilio-aurreko Europako buru katolikorik argienak pasatu ziren elkarrizketa haietatik, eta prentsan haien oihartzuna handia zen nazioarteko aldizkari katolikoetan, eta baita Espainiako egunkarietan ere. Ikerlanak dauden puntuan egonik, zaila da jakitea zein pisu izan zuten euskaltzaleen artean, nahiz eta badakigun Santamariak bere sustapen eta antolakuntza lanetan zebilela, aber-tzaleak ere aintzakotzat hartu izan zituela¹⁶.

Zenbait politikari eta intelektualek, gerra pasatua dela eta utzitako zaurien ondorioak leundu egin beharko direla uste du. Hezkuntza Ministerioan Ruiz Jiménez dago, hain zuzen Tovar Salamancako Unibertsitateko Errektore den urte berberetan (1951-1956). Giro berritze horregatik ere sortu ziren, noski, Salamancako “Cátedra Larramendi” hura (1952)¹⁷, eta Donostiako Urkixo

¹⁴ Larronde 2003a eta 2003b. Berorietan ikus daitezke garaiko kultur kezka nagusiak eta Erbestearen Kongresuko ekarpenak. Larrondek bi edizioei egin dizkien sarrerak gogoan hartzekoak dira.

¹⁵ Batzar haren 25. urteurrena ospatzean kaleratu zituen Eusko Jaurlaritzak orduko txosten eta aktak: *Euskal Batzar Orokorra / Congreso Mundial Vasco: 25 aniversario*, 1981.

¹⁶ Elkarrizketa haietaz ikus Jakin Taldea 1994; Nazioarteko Elkarrizketa Katolikoei buruz: Intxausti 1994.

¹⁷ Euskaltzaindiak 1947an (goiz eta garaiz, beraz) izendatu zuen Tovar urgazle, J. Vallejo eta A. Bausani Unibertsitate-irakasleekin batera. Badakigu Salamancan euskarari buruzko ikastaroa eman zuela 1947-1948 negualdian (*Euskera* I, 1956, 328-329). Tovarrek gurean izandako lekuaz, gertutik zerbait zekien eman zuen iritzia: “Aldi luze bezain tristea ezagutu dugu batzuek, debekuz eta oztopoz betea, eta Tovar genuen orduan etxean nahiz atzerrian izan genitzakeen laguntzaile bakanetakoa” (Mitxelena 1988a: 87). Ikus daiteke, gainera: Yrizar 2001: 87-101.

Mintegia, bere *Anuario* eta guzti (1954)¹⁸. Gerraurretik zetorren zenbait ikertzai-
le ere hurbilduko zen, orduan, Donostiara, J. M. Lakarra nafarra, adibidez¹⁹.

Bien bitartean, euskal Erbeste kulturala berean ari da, Mexiko, Caracas edo
Buenos Airestik. Iparraldea ere ez dago geldirik, eta iristen dira, tantaka bada
ere, euskararen eta euskal kulturaren azalpen berriak, aldizkariak bezala libu-
ruak ere. Ale gutxi sartzen dira barrura, baina datozen gutxi horiek eskuz esku
doaz, bereziki Ikastegi eliztarretara heltzen direnean. Dena den, txikia eta erdi
ezkutua da irakurlego hori.

Politikariak ari dira, noski, beren isilpeko aldizkarietan: *OPE* berri-emailea
(Oficina de Prensa Euzkadi), *Euzko Deya* guztiak, etab. Baina aldi berean,
1950eko horretan kultur aldizkariak ere beren lekua hartuko dute, eta ez
Erbestean bakarrik baita Iparralde-Hegoaldeetan ere; lehenengoak gaztelaniaz
edo frantsesez datoz: *Euzko-Yakintza* (Baiona, 1947), *Boletín del Instituto Americano
de Estudios Vascos* (Buenos Aires, 1950)²⁰.

1950eko hamarkadak bestelako berritasun ausarta dakar euskal kulturara,
Erbestean bezala Hegoaldean ere: euskarazko kultur aldizkari erdi- eta goi-mai-
lakoena. Bi izen dira aipatzekoak:

- Bata Ameriketako *Euzko-Gogoa* (Guatemala, 1950-1955; Miarritze, 1956
-1959).
- Bestea bertakoa, *Egan* (Donostia, 1948, 1954...).

Berritasun nabaria da hau, kultura jaso eta eskolatua euskaraz ere egin dai-
tekeela baieztatzen diguna. Esperientzia berri hau ezinezkoa zen 1940ko
hamarkadan, baina egingarria gertatu zen hurrengoan.

Erbesteak hartu zuen ahalegin honetan aurrea. Erbesteak orokorrean baino
gizon eta lagun-talde jakin batek, *Euzko-Gogoan* Zaitegi baita lehenengo, eta hura
bezala, batez ere Lagunditik ateratako jende eskolatua (Orixe, Andima,
Argarate, etab.)²¹.

¹⁸ *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, San Sebastián: Real Sociedad Vascongada de Amigos del País. Lehenengo zenbakiko sinatzaileen artean daude ondokoak: Tovar, Bidegain, Mitxelena, Larrinaga, Lafon, Irigarai, Gifford, P. Irizar.

¹⁹ Lakarraren hitzaldiak argitara eman ziren hurrengo urtean: Lacarra 1957.

²⁰ Instituto Americano de Estudios Vascos delakoaz, begira Iribar 1954.

²¹ *Euzko-Gogoaren* historiaz bi lan aipatuko ditut hemen: Intxausti 1979-1980. Lan zabalagoa da beste hau: Iztueta 2001b.

Horrelako jatorria ez duen hainbat lagun ere ingurura biltzea lortu zuten, gainera: lehenengo urtean bertan, J. Mirande, T. Monzon, J. M. Barandiaran, Iratzeder, G. Urrutia, A. Zatarain, N. Tauer, etab. Guztiak ere libertate-usaina du, eta leialtasun abertzale politikoen aurpegia ez du mozarrotuko *Euzko-Gogoak*. Amerikan jaioa izanik ere, *Euzko-Gogoak* ia bere bizialdiaren erdia Miarritzen eman zuen (1956-1959), Euskal Herrian bertan, beraz, baina zorigaitzeko muga-hesia tarteko zela.

Euskarazko *Eganen* kasua oso bestelakoa da. *BRSBAPen* eranskin bezala agertu zen lehenengo (1948); hortaz, Euskalerrriaren Adiskideek eraman zituzten orduan formalki orrialde haiek. Lehenengo ibilaldiko *Egan* elebidunean (1948-1952), erdal idazle ezagun batzuk baditugu: 1948an bertan, Blas de Otero, J. M. Azaola, G. Celaya, M. Ciriquiain-Gaiztarro, eta euskal lanetan M. Lekuona, K. Sagartzazu eta Salvatore Mitxelena ageri dira. Urte horietan idatzi zuten, gainera, Emeterio Arrese, Jose Agerre, Julian Alustiza, Jautarkol (Luis Jauregi), Orixe edo Xanti Onaindiak.

Bost urte geroago (1953), urte horretako zenbaki bakarra erabat euskaraz agertu zen, eta Julio Urkixo Mintegiak bere ardurapean hartu zuenetik (1954), aldakuntza adierazgarri baten aurrean geunden. Aldizkariaren asmoak birdefinitu egin ziren orduan, “Asmo berri” editorialean, jada erabat euskarazko kultur aldizkari bihurtzea erabaki baitzen:

Kalera begira ari nahi dugu, baserrira begira baino gehiago. Eta, kalean, gure gisako ikasi edo erdi ikasientzat. [...] Berdin zaigu hizkera hemengoa edo hangoa izatea, euskara –izenez eta izanez euskara– baldin bada (Mitxelena et al. 1988: 92).

Une hartako eta ondoko gidariak ezagunak ditugu beren izen-abizenekin: Antonio Arrue (1903-1976)²², Aingeru Irigarai (1899-1983) eta Koldo Mitxelena (1915-1987). 1954-1955. urteetako emaitza ez zen izan handia, artean beharbada euskal idazleen indarrak *Euzko-Gogoan* eroso zebiltzalako.

²² A. Arrue-ren biografia laburrak: *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*: Anaut, B., s.v. “Arrúe Zarauz, Antonio”. Gerrako Batzorde karlistako lehendakaria izan zen (1937), berehala Gipuzkoako *Comunión Tradicionalistaren* buruzagia hamabosten bat urte, eta Alderdi horretako Batzorde Nazionaleko kidea. Frankismoko Gortetan, Juan Carlos erregegaiaren hautapenaren aurkako botoa eman zuen (1969-07-22). [N. B.: Euskaltzaindiak argitara dio idazlanen antologia: Arrue 2008].

Garaiko gazte euskaltzaleok adi-adi geunden *Euzko-Gogoari* zein *Egani*, aldizkari bakoitzak baitzituen bere xarma eta erakarmena, elkarren osagarri edo kontrajarriak zirenak²³.

Bestalde, 1950eko hamarkadak bestelako berritasunik ere ekarri zuen euskaltzaleon mundura: Euskaltzaindia abiaraztera zihoan Krutwig (Kintana 2000: 4-5), artean bizirik zegoen Azkue jaunaren ondoan (†1951). Euskaltzain berriak izendatuko ziren, urratsez urrats: besteak beste, Krutwig (1947), P. Lafitte (1949), M. Lekuona (1950), L. Villasante (1951), K. Mitxelena (1952), A. Arrue (1954), etab. Eta Eladio Espartza karlista nafarrari ere eman zitzaion bere lekua.

Oso apalki izan arren, liburugintza ere suspertzen ari zen, kopuruz zerbait, baina batez ere lekukotasunez, euskal literaturaren historia gure eskuetan jarriz, bertantxe eta bero-bero. Euskal Literatura bat izana zela jakin eta sentitzeko parada izan genuen, bi liburutako orrialdeetan: Axularren *Gero* ekarri zigun M. Lekuonak (1954)²⁴ eta urte berean S. Onaindiak *Mila euskal olerki eder*. Ordudanik, ez zen liburutegi handirik behar, iragan hori barrundatzeko. Pribilegiatu batzuk, gainera, aukera izan genuen J. Mokoroa, *Ibar-en Genio y lengua* (1935) irakurtzeko.

Iragana berreskuratzen edo ari ginen, beraz. Idazle berriak ezagutzeko, oster, Zarauztik zetorren notizia: Patxi Unzurrunzagaren Zarauzko Itxaropena argialetxetik, hain zuzen²⁵. 1949an hasia zen uzten ziotena egiten, eta 1952an *Kuliska Sortari* ekin zion. Batzuetan lan xumeak, baina inoiz edo beste baita mardulago eta berritailerik ere: ez da ahaztekoa Jon Etxaideren *Joanak Joan* (1955). Belaunaldi berriko idazlana zen hau, eta literaturan ere guri itxaropena piztu ziguna²⁶.

²³ Bi aldizkarien arteko estimu eta hurbiltasuna ez dakit norainokoa izan zen, bateko nahiz besteko zuzendarien artean; baina elkarren errezelarik bazutela ere uste daiteke, *Eganek* 1956an argitara eman zuen Mitxelenaren hura irakurrita: Mitxelena 1988b, VIII: 125-132.

²⁴ Ikus edizioaren aurkezpena: Mitxelena K., 1954, "Axular. *Gero*", *Egan*, 1954-2/4, 39-41. Orain in Mitxelena 1988b, II: 39-42.

²⁵ Patxi Unzurrunzagaren albisteak: Unzurrunzaga 1999.

²⁶ Ikus Mitxelenaren aurkezpen-kritika: "gaurko prosak dituen maisuen artean" jartzen du Etxaideren idazlana, eta zera gehitzen du: "euskaltzale guztiok poztu gaitu *Joanak joan-ek*" (*Egan*, 1955-5/6, 69. Berrag. in Mitxelena 1988b, II: 55-58). Horrek ez du esan nahi, ordea, eleberririk Mitxelena kritikaria asebeste zuenik: idazlea bikaina da, nobelagilea ez hainbeste, dio honek. Gazteok ez genion erreparatu gehiegi eskastasun horri. Etxaideren ibilaldia ezagutzeko, laburki, Beola 1998.

Kultur aldizkaritan nobedade handiena *Euzko-Gogoa* hamarkadaren erdi aldera (1956), Guatemala utzita, Miarritzera etortzea izan zen. Aurreko urtean etorrita zegoen Orixe ere, eta *Egan* sortu berriak ongi etorria eman zion idazle handiari, “Orixe gure artean” zioen artikuluan²⁷.

Bazirudien, bada, argitalpen-alarrean garai berriren baterako leihoak irekitzen ari zitzaizkiola euskarazko kulturari.

Aurrekari horien ondoren, argitalpen alorrean hurrengo urteak berritasun anitz metatuko du bere hamabi hilabete laburretan, ikusiko dugun bezala.

2. 1956ko euskalgintza-ekimenak

Urte hasiera hartan ez zegoen, artean, guretzat Txillardegirik edo Aresti ezagunik, eleberrian nahiz olertian²⁸. Saiakerak bazuen lekurik, aipatutako aldizkarietan, baina aurreko belaunaldikoen eskuetatik zetorren, ia osorik.

Aurreko urtean pauso ederrik eman da argitalpenetan, noski: *Amabost egun Urgain'en*, edo Zaitegiren *Bidalien egiñak*²⁹ eta aipatutako *Joanak joan*, edo Iparraldean *Katalinen gogoetak*.

Baina 1956ko urtea da literatura eta kulturazko euskalgintzan muga berria marraztuko duena, egingo diren argitalpenei esker, zenbait ekimen sozial tarteko dela, eta udazkenean *Jakinek* berak ere hurrengo urratsak iradokitzen dituelarik.

2.1. Argitalpenak

Euskal liburugintzak entsegu ausartak egin zituen kultura eskolatuan. Kopuruak zerbait gora egin du, baina eskuetara datozkigun aleak, balio berezi-berezikoak dira, batez ere gazteontzat.

Aurreko urtean bezainbat izan gabe, 1956an, ostera ere iraganeko obrei dagokien ekarpena dago, prosan bezala poesian. Literatura zaharretik, *Peru Abarka* izango da kaleratuko dena; bere hirugarren argitaraldia du (aurrekoak:

²⁷ Mitxelena 1988d. Laster, Orixe Euskaltzaindian sartzean azaldu zuen Mitxelenak, hein batean bederen, idazle honekiko bere estimua: Mitxelena 1988c.

²⁸ Nahiz eta Arestiren lehen lanak 1954tik datozen: *Zeruko Argia*, *Egan*, etab.

²⁹ Gogora dezadan Zaitegiren *Bidalien egiñak* Zarauzko Itxaropenak eman zuela argitara, 1955ean. J. Zaitegiren biografia ezagutzeko: Vélez de Mendizabal 1981; Sudupe 2000a.

Durango, 1881 eta 1904)³⁰. Gerraurreko balioei ere emango zaie lekurik, hiru liburu ezagunekin: Bustintzaren *Abarrak* eman zen argitara (partez), Lizardiren *Biotz-begietan* eskueran izango dugu, berriro, eta Agirrerren *Garoa* ere jarriko da kalean³¹. Ez da uzta handia, eta okerrago oraindik: ez dago literatur produkzio originalik.

Itzulpengintza da, ordea, biziki bizkorra agertuko dena, burutzen diren lanen tamainagatik baino gehiago gainditu behar izan den erronkagatik. Altu jarri zen langa klasikoen eta pentsamenduaren munduan, baina ez da asebeteko lanik lortuko. 1956an bi dira gogoan hartzeko ditugun itzulpen handi horiek: Orixek eskaini zuen *Agustin Gurenaren aitorkizunak* (Zarautz: Itxaropena), eta G. Barandiaranek itzulitako *Iliasena* (Gasteiz), biak ere kritika-modu ezberdinak jaso eta garaian begi zoliz begiratu zirenak. Berriz ere, Mitxelena da horren lekuko³².

Kritikaren arabera, badirudi kulturaren gora eraman nahi genuela hizkuntza, baina hiztun-idazleek hainbestetarako indar edo gaitasunik ez zutela³³. Esan daiteke neurri handi batean kale eta pot egin zutela azken bi ahalegin horiek, eta zenbait gazteri begiak irekiarazi zizkigutela. Berehalako batean, bi horien kritikari, Olabideren *Biblia* itzulpenari egindakoa gehitu zitzaionean, zalantzararako toki gutxi geratuko zitzaigun batzuo.

Bi liburu haiekiko K. Mitxelenaren kritikak eta, berezikiago, hiru urte geroago Olabideren *Biblia* itzulpenari egindakoa (1959), erabakigarriak gertatu ziren niretzat. Olabideren ekarpena eta beronen lekua zein zen jakiteko (Altuna 2001 eta Iztueta 1991: 991-1000). Mitxelenak garbi utzi nahi izan zuen zein irizpide nagusirekin jokatu beharko zen premiazko euskara-eredua hautatzean, zer ez zen inondik ere egin behar eredua finkatzean eta etorkizuneko hizkuntzaren batasuna lantzean. Horiek horrela, lauzpabost ereduaren aurrean aurkitu ginen gazteok, 1959an:

I) Garbizaletasun sabindarra (gugandik urrun sentitzen genuena).

³⁰ Aldizkarietan emana izan da, atalka: *Beti bat*, 1880 eta *Euskalzale*, 1898. Ikus Villasante 1979: 211.

³¹ Dena den, Arantzazun (argitaraldi honi itxaron gabe), eskuetan izan genuen Seminario Txikian geundenok *Garoa* (1950), Zabalkundeak egindako gerraurreko edizioan. Gogoan dut oraindik, ikastaroaren erdian nola eskuratu zizkigun irakasleak (Karmelo Iturriak?) liburu haiek, ongi ulertzen genuen euskara txukun batean idatziak, eta maite genuen gure herrietako bizimodua idealizaturik erakusten ziguna.

³² Irten orduko eta urte berean egin zien bere kritika: Mitxelena 1956a eta Mitxelena 1956b.

³³ Beti uste izan dut (eta beharbada uste okerra da), G. Barandiaran itzulpengintzan ez jarraitua, Mitxelenaren kritika bortitz honi egotz dakiokela.

- 2) Jesulagundar tradizioko euskara dei genezakeena (*Euzko-Gogoa*), nahiz eta beronek ere ez zuen lerro bakarra (Olabide / Orixe); baina, artean, gazteongan erakarmen bizia zuena.
- 3) Gerraurretik Diozesiek landutako ereduak (Lekuona, Baltzola, Ibargutxi, Intza: alor pastoralerako egokiro landua).
- 4) Krutwig/Villasantek proposatu (1552) eta landutako lapurtar klasi-koarena (Villasantek berak ere jada utzia zuena).
- 5) Mitxelenak *Eganetik* iradokitzen zuena (baina artean sobera zehaztu gabe eta batez ere terminologia arazo larria ukitzen ez zuena).

Jada 1958an nabarmenki kontrajarrita ageri zitzaizkigun bi aldizkarietako ereduak. *Eganekoa* hobetsiko zen *Jakinen* (1959...), teorian baino praktikan areago, betiere geure gisara hiztegi-modernitateari bide libreagoa emanez. Euskal hitzen euskaltasuna definitzeko Euskaltzaindiak emandako irizpide-agi-riak berretsiko zuen zahar-berria zen bidea (Euskaltzaindia 1959)³⁴. Baina aurrera baino lehen, begira dezagun besterik zer den 1956ko urte hartan.

1956ra itzuliz, ezagunak ditugun bi aldizkari handietan berrikuntza eta aldakuntza nabariak aurkituko ditugu: *Euzko-Gogoa* jada *etxera* etorri da, eta formatu txikiko 720 orrialdeko testu-masa eskainiko du, Hegoaldeko sinadura berriekin (E. Ezkiaga, Garmendia “Zeleta”, Aurraitz, J. Agerre, L. Villasante, I. Bereziartua, S. Berasaluze, Lafitte “Ithurralde”), eta *Eganek* aurrerapauso luzea eman zuen: 1954ko 79 orrialde haiek, 1956an 484 bilakatu ziren. Norbaitek lan egin zuen, beraz.

Baina kultur aldizkaritan, beste bi ekarpen eman behar dira zerrenda hone-tan: Euskaltzaindiaren *Eusker*a aldizkaria agertu zen berriro, gerraondoan lehe-nengoz, horrela Erakundearen izanberritzearen lekuko gertatuz (eta 1941az geroztiko aktak eskainiz). Agerien zegoen lan berrietarako gogoak. Lanen sinatzaileak aipatzekoak dira hemen: Altube, Tovar, Villasante, Mokoroa, Txillardegia, Lekuona, Bouda, Lafon, Mitxelena, etab. Euskalari atzerritarrek presente daude, gerraurrekoren bat edo beste ere bai, barruko gazteagorik ez da falta.

Halako babes handirik gabe, urte horretan jaio zen *Karmel* aldizkaria ere, S. Onaindiaren eskutik, gaur egun arte iraun duen aldizkaria, eta bere aurrekariak *Karmengo Amaren Egutegian* zituena. Datua interesgarria da, ordena erlijiosuetako euskaltzaleen gogoak eta indarra ere erakusten baititu.

³⁴ Hitz mailegatuei buruzko irizpideak Bilboko Bileraren arrastoan finkatu zituen Euskaltzaindiak (1958); Euskaltzaindia 1959.

2.2. Hizkuntzaren aldeko ekimen sozialak

Hizkuntzaren inguruko jendearen elkartzea ez da aldizkari eta argitaletxeetan bakarrik egiten 1956an; euskaldungoak gero eta premiazkoago ikusten du, euskaltzaleak, euskalariak eta hizkuntzaz arduratu oro elkarretaratzea, elkarrekin lanean jartzea.

1956ko data honetan, bi Bilerak Nagusi aipatu behar dira. Euskal Akademiaren aldizkaria ez ezik gerraosteko lehen Biltzar irekia ere egingo da urte horretan: euskalariak eta euskaltzaleak, denek, izango dute jendaurreko plazara inguratzeke aukera, euskararen Erakunde ofizial horrek deituta. Hilabete bakar baten buruan (1956ko irail-urrietan) Erbesteak bezala Hegoaldeak euskal kulturaren eta hizkuntzaren inguruan beren gogoeta irekia egiteko parada izan zuten: Arantzazun 1956-09-14/16an eta Parisen astebete geroago (Euskaltzaindia 1956).

Parisekoan, Euskal Herria bere balio kultural guztiakin begiratu nahi izan zen, hizkuntzaren egoera ere gogoan hartzen zela. Ez dago ikusi besterik zein idazlan aurkeztu ziren, eta berorien aurkezpenen ondoko eztabaidak nolakoak gertatu³⁵. Dena den, Paris urrun zegoen, artean, Hegoaldean bizi ginen gazteontzat.

Arantzazuko Batzarrak beste gisa batean lagundu zituen euskararen aldeko lanak eta itxaropenak: hasteko, irekia eta baimendua zenez nornahik izan zuen hara joateko egokiera (erbesterratu politikoek ez hainbeste), eta gero, bertan esan eta gertatutakoen berri jakiterik ere egon zen, Pariseko hura erdi isilduta eta urrun geratu zitzaigun bitartean.

Gogora ditzagun Arantzazun erabilitako gaiak: euskal dialektologia (Altuna, Gandiaga, K. Izagirre), bertsoaritza (A. Zavala), hizkuntzaren egoera-erorkizunak (Villasante, Txillardegui, Ibar, Urrestarazu). Egoera politikoari buru egiteko babesak ere bilatu zen, eta J. M. Lojendio eta Arrue tartean daude; hain zuzen, azken honek egin zuen itxierako hitzaldia.

Arantzazuko fraide gazteek garbi ikusi zuten bazegoela gizartean lagunarte euskaltzale bat, euskal idazlanak jasotzeko prest zegoena, prest eta irrikatzen. Inoiz ez bezala, euskaltzale haien artean ibiltzeko egokiera izan zuten Batzar horretan. Ez ziren asko, baina bai leialak eta lagun onak izan zitezkeenak. Gazteek Santutegian bertan ezagutu zituzten Batzarrean bildutakoak.

³⁵ Ikus hainbat pasarte aipatutako *Euskal Batzar Orokorra / Congreso Mundial Vasco: 25 aniversario* argitalpenean. Batez ere Monzon, Zaitegi (Guridi) eta Krutwigen ekarpenak. Ikus Iztueta 1991: 969-981. "54 txostenetatik, 29 hizkuntza eta literaturari buruzkoak dira" (Iztueta 1991: 976).

Aukera hartaz baliatu beharra zegoen, Ikastetxe eliztarretan gora zetorren euskaltzaletasunari bide emateko.

2.3. *Jakin*: elkartasunen emaitza

Aurreko lerroetan euskal kulturako zenbait ezaugarri aipatu dut, datu orokorrak, eta eliz munduaren kanpotik zebiltzanak, nahiz eta sarritan tartean elizgizonik ere egon zen.

Eliza aipatzean, maizegi sartzen dugu dena zaku berean, baina gogora deztan hemen Eliza Katolikoaren barruan, Diozesiek eta Erlijiosoen munduak ez zutela, ez orduan eta ez gero, buruzagitza bat bera izaten.

Erregimen frankistaren barruan Diozesiak eta Gotzainak dira zuzenean eta gertutik Gobernuak begira ditzakeenak; Konkordatuak ere badu horrekin zerikusirik. Baina Erlijiosoen Erakundeek beren Nagusiak hautatzeko eskubidea osorik eskuetan dute, teoriarik bederen. Erregimenaren ardura larriena Diozesietako egiturak kontrolatu eta Seminarioak eskuetatik ez galtzea da.

Erlijioso-Erakundeena, ostera, zeharbidez egingo du, eta denbora pasatu ahala, Erakunde bakoitzeko indarrek are eta askatasun handiagoz erabakiko dute etxe barneko kultur politika. Nabaria da hau karmeldar eta frantziskotarren artean, adibidez. Jesulagunek 1960ko hamarkadan eraiki zuten beren Loiolako Probintzia, Euskal Hegoalde osoa besarkatuz.

Frantziskotarren artean gertakari bikoitza azpimarratuko nuke: Nagusien kultur politika nabarmenki aldatzen da, Paulo Lete probintzialarekin (1949-1952)³⁶, eta aldi berean ikasle gazteek idatz-ekimen berriak hartzen dituzte, irakasleriaren laguntzarekin, lehenengo Erriberriko Filosofia Ikastetxean (*Gure Izarra*, 1950) eta berehala Arantzazuko Teologia Ikastegian (olertia, itzulpen literarioak, sorkuntza)³⁷.

Horren guztiaren ondorioz, 1940ko hamarkadan, artean, estali eta erdi gordean zebiltzan idazle frantziskotarrak argitara etorriko dira, batzuk hurren-

³⁶ Paulo Leteren soslai pertsonala egiteke dago: apaiztu eta berehala Kubara joana (1927), bizitzera ez zen itzuliko Penintsulara 1949a arte, eta orduan Probintzia osoko Nagusi aukeratua izan zelako. Etorri bezain laster, Salvatore Mitxelenaz baliatu zen euskal kulturari bere lekua ematen hasteko (*Arantzazu* poema, 1949; Arantzazuko euskarazko historia: *Ama-emeak Arantzazuko kondairan*, 1951); biak Leteren erabakiz argitara emanak, azken hori gainera haren mandatuz idatzitakoa.

³⁷ Arantzazuko ikasle teologoaren artean, *Jakimen* aurreko lumak dira Kuliska Sortan eta beren gisara agertuko direnak: A. Sorraín, J. M. Garaialde, J. Galarraga, I. Unzurrunzaga, S. Berasaluze, J. M. Astigarraga, F. Bilbao, J. Iturria, etab. Eta B. Gandiaga 1950-1955. urteetan.

go mende-erdian goreneko sinadura izango direnak (L. Villasante, S. Mitxelena edo B. Gandiaga, K. Izagirre dialektologoa ahantzi gabe)³⁸. Hauen egitekoa ez da beti gazteekiko zuzeneko irakaslana izango, baina gizartean lortuko duten itzalak (sariak, izendapenak, estimua...) komentu barruetan ere indar egingo du, Fraideartean eta Nagusiengan. 1950az geroztik fraide euskaltzaleek errespagarritasun osoa irabazita dute, eta miretsi ere egiten da haien lana.

Aldi berean (1950-1955), Arantzazuko Basilika berria Euskal Herriko proiektu artistiko handi bilakatu zen, garaiko nabarmenena; eztabaidatua zelako ere etorkizun berri baten ikurra izateraino. Esan dezagun, Oteiza zigortua kultur askatasunaren bandera ere bilakatu zela. Historia hori ikerturik dago, eta merezi du aintzakotzat hartzea³⁹.

Jakinen beraren bezperako kontuak dira hauek, hain zuzen “Arantzazuko Jubileu-Urtean” beren gailurra izan zutenak, musika- eta olerki-sariketa eta guzti (1956). Nolabait esateko, Arantzazuko Andre Mariaren *arrakasta soziala* handia izan zen urte hartan. Ez da gaur erraza hori dena ulertzea, baina halaxe ziren orduan gauzak⁴⁰.

Arantzazun ikasten ari ziren 20-24 urteko gazte haiek bazuten, bada, inguruak *lardaskatzen* hasteko gogo eta modurik, are gehiago *Gure Izarra* aldizkarian egindako lana (etxe barruan ezkutatua) zinez itxurosoa zela jakinda. Nafarroako Erriberan egindakoak ez zeukan zergatik ez aurkitu Arantzazun bere segidarik.

Bestalde, 1950-1956 urteak dira, segur aski (artean, Kontzilio eta horrelakorik gabe), harremanen mailan bederen Arantzazuko Fraidearteak bere osoan (apaiz eta ikasle) izan zuen lehen irekiera modernoaren garaia. Eta ez alferrik.

Hortik, sortzen da, uste dut, *Jakin* aldizkariari balio erantsi bat emango diona, zera erabakitzean: sortzeko zen aldizkaria ez zela Santutegiko ikasleena bakarrik izango, eta ahal zelarik, Euskal Herri osoko Ikastetxe eliztarretako ikasleen lankidetzara ere bilatuko zela.

³⁸ Ezin da hemen ahantzi 1950. hamarkadako Arantzazuko liburugintza (idazle frantziskotarrena eta EFA Argialetxearena): Torrealdei 2003 (600-604 orrialdeak bereziki) eta Guerra 2003 (569, 575-578 orrialdeak bereziki).

³⁹ Eraikuntzaren historia ezagutzeko: Pagola 2005. Lorpen artistikoak ezagutzeko: Monforte García 1994. Fraideartean guztiak izan zuen eragina barrundatzeko, Santutegiko komentu-kronika begiratu behar da.

⁴⁰ Urte hartan hasi zen, bestalde, tokiko euskal irratien garapena; Segura Irratia (1956), eta ondoren Bilboko Herri Irratia (1959), Arrate Irratia (1959), Loiolako Herri Irratia (1961) eta Donostiako Herri Irratia (1962). Xehetasun gehiagotarako, ikus Beloki 2003 (620-624 orrialdeak bereziki).

Bateratasun horren ideia eta asmoa erabakigarriak gertatuko ziren berehala, aldizkariaren nortasuna definitu, hedapen soziala segurtatu eta hizkuntzaren batasunean ere eragile izateko. Gainera, ekimen hau laster eredugarri eta eragile gertatu zen Ikastetxe eliztarretako euskaltzale-taldeentzat⁴¹, euskal lanetan zebiltzan onenei (edo ausartenei) gizarte osorako plaza zabalago bat eskaintzean, bide batez Etxe bakoitzeko kultur ekimen euskaltzaleak zuzenetsi eta bideratzen lagundu baitzuen Ordena edo Kongregazio bakoitzean.

Jakin aldizkaria (beste gisa batean baina *Euzko-Gogoa* edo *Egan* zirena baino areago, nik uste) lantalde bilakatu zen, hau da, eliz ikasle euskaltzaleen bilgune, baina ez idazkien bidezko lankidetzara eramateko bakarrik, baita laster eratuko ziren *jakinlarien* bileretan parte hartuz ere. Denon ahuldadeari aurre egiteko premiazkotzat geneukan lagunarte-batasuna indartzea, komentu-etxe bakoitzeko ikasleriaren barruan eta Probintzia erlijiosoetako Nagusien aurrean. Jendeak pertsonalki elkar ezagutzeko balio izan zuten bilerek, eta bestalde, lan idatzirako batasuna bultzatzen ahalegindu ziren urteroko topaketa haiek.

Bilerek eta etxe-arte idazketa-elkarlanek une hartako gazteria euskaltzale, eskolatu eta han-hemen lekutua bata bestearekin harremanetan jarri zuten. Hori uste dut izan zela gerorako lorpenik emankorra. Elkar ezagutu genuen, elkarren lankide izan ginen, elkarri lagundu genion gure euskarazko kultur idazlana aurreko belaunaldiari eta euskaltzale orori aurkezten. Horren arrastoan, edo horren ondoan, sortu ziren protagonismo berriak ez ezik Ikastetxe eliztarretako barne-kanpoko euskal aldizkariak (*Laiaketan* pasiotarra, 1959-1969; *Arnas* sakramentinoena, 1959-1967; *Erein* laterandarrena, 1960-1966; *Gogoz* karmeldarrena, 1965-1968).

Data horietan ikusten denez, gero 1968ko iraulketak moztu zuen kimu berrion talde-etorkizuna (adibidez, Nobizio-etxeen itxierak 1968koak dira batik bat), baina baita, aldi berean, barreiatu ere Unibertsitate (Bartzelona, Madril, Valladolid, Deustua, Paris, Leuven, Erroma) eta komunikabideetan (Prentsa eta Irrati) gazte euskaltzale ongi alfabetatuak, euskal kulturgintza bizkortuan (eta bizkortzekoan) aurreko belaunaldiari erreleboa hartu eta bide-urratzaile izango zirenak.

Horren aurretik, Ikastetxeen arteko gutxieneko loturak korapilatzea lortu zen orduan, ez modu formalegian, baina bai era praktikoan. Eta gure arteko hizkuntz eredu arautzen hasteko tresna egokia gertatu ziren bilerak, eta bi urrats jakingarri eman genituen: bata, aldizkarirako bertarako idatzarauak abia-

⁴¹ [Iztueta] 1981: 58.

razi ziren eta hein batean finkatu ere, eta, bigarrena, han barruan sumatutako batasun-premiak beste zerbaitetara eraman zuen lankide-taldea, Ikastetxe eliztarretatik kanpo ere abiatu nahian ageri ziren batasun-proposamenak begiratu, onartu eta sustatzera.

Horrela, 1964ko *jakinlarie*n bilera zuzenean lotu zen Baionara zenbait idazle-keituta bildutako Batasun Bilerarekin (1964), ikasleen artean Arantzazun landutako proposamenak hara eramateko eta Baionako erabakiak aldez aurretik ere onartutzat emanez. Taldearen izenean, Bilera hartan egoteko parada izan nuen⁴².

Handik aurrera, elkartasun berriak sortu ziren aldizkariaren inguruan, unerik egokienean (bide-zati bat jada urratuta zegoenean, baina artean 1968ko ezteandaren aurretik, esan nahi dut). Torrealdaik eratutako lantalde eliztar-sekular berria da horren lekuko. Bere jatorria ukatu gabe, aldizkaria kaletartu ez ezik hiritartu egin zen eta, nolabait, modernitate sekularrari heldu zion (zuzendaritza, lankidego eta edukietan); berehalako eta geroko luma ezagun zenbait bildu zen *Jakinera* orduan: K. Santamaria, R. Arregi, I. Sarasola, X. Kintana, R. Camblong, J. A. Letamendia, etab. Nahikoa da 1965-1968. urteetako lankide-zerrenda begiratzea.

Hortaz, laster hustuko ziren Seminario eta Ikastetxe eliztarretako idazle-harrobi sakabanatuek ez zuten utziko *Jakin* erabat lankiderik gabe, *paisanoek* edo *paisanotuek* jada eskubide aitortua baitzuten aldizkarian norbait izan eta beren hitza esateko.

Hortik aitzina, kalean bizirik dauden arazoak ukituko ditu aldizkariak, eta horien artean Euskara Batuarena (Ermua eta Arantzazu, 1968).

3. Ondorioak

Zenbait puntu gutxitan laburtuko dut euskal kulturaren garapenean berrogeita hamar urte betetzen dituen *Jakin* honek jaiotzean izan zuen testuingurua.

Aldizkaria ez zen aurrekaririk gabe sortu, eta gutxiago sortu eta garaiko euskal kulturaren txertatu. Komentu barruetan eta kanpoan izan zituen aurrekari horiek. Komentuz kanpokoen artean daude, alde batetik, aldizkariak (kulturalak eta politikoak) eta bestetik, liburuak, geure iragan kulturalaren oroitzapena izanberritu zigutenak eta kultur jomuga jasoagoak proposatu edo egikaritu.

⁴² Baionako arauak berehala bildu zituen aldizkariak: *Jakin* [Zuzendaritza] 1965.

Erdi- eta Goi-Irakaskuntzako ikasle gazteriarik zabalena eta jasoena biltzen zuten Seminario eta Ikastetxe eliztarretako kultur giroa zerbait lasaituz joan zen 1950etan; ez denetan noski, eta ezta beti maila berean ere. Horietako euskarazko alfabetatzearen historia egin gabe daukagu oraindik, baina jakina da zenbait kasutan euskararen irakaskuntza leku ofizial edo ofiziosoren bat hartuz joan zela, 1950etik aurrera (kasu aurreraturen batean edo bestean baita lehen-txeagotik ere).

Bestalde, Unibertsitaterakoa artean oso gutxirena zen, eta gutxi horien artean ez bereziki euskaldunena; bestalde, euskarak ez zuen berorietan inolako lekurik, lan-tresna bezala. EHU sortzeko zegoen, gainera (1980), eta Deustua (1886, 1956, 1963) eta "Estudio General de Navarra" hura (1952, 1960) beste orbita batean zebiltzan.

1950eko hamarkada hartan Euskal Erbesteak bezala Barrualdeak lagundu zuten, euskarari bere kultur betekizun modernoak bilatzen (orduan, Letra eta Humanitateetan ari zela). Baina Erbetea eta Barrualdea, artean, aldendurik ageri ziren, geografiaz urrun zeudenak belaunaldiz ere tarte eginez joango ziren, 1955-1960etan etena gertatu zen arte, hizkuntz eredu eta kultur modernitatea modu kontrajarrian definitu zirelako.

Eten horretan, lehenengo batean, gehiago aipatu ziren ezin konpondu linguistikoak, ideologikoak baino; baina aurrera egin ahala hizkuntz eredu eta ezik kultur proiektuan ere gero eta alde handiagoak agertu ziren.

Bestalde, 1959-1961etako hizkuntz ereduaren *Jakineko* hautapenik gabe, indar gazte haiek askoz zailagoa izango zuten, sakabanatuta, Euskara Batuaren proposamena onartuz joatea, eta berorri etorkizuna segurtatzea. Horrela, jakindarren eredu-hautapenak eta arau-gogoak, Baionako batasun-proposamenak (1964) eta Gerediagak deituriko Ermuko Euskal Idazleen bilerak samurtu zuten Euskaltzaindiaren Arantzazuko Batasun Batzarraren egitekoa (1968).

Jakin aldizkaria eta taldea, zalantza batzuen ondoren (1956-1958), ongi txertatu zen euskararekiko proiektu berrian (1959...)⁴³, Euskaltzaindiaren proposamenei eutsiz eta beroriek zabalduz, eta urrats berriak emateko proposamenak landuz. Hizkuntza estandarren eta hizkera modernoaren jomugari lehentasuna eman zitzaion 1950etako azken urteetatik aurrera, maileguen hartzeari lotsa eta beldurra galduta.

⁴³ Premiazko sentitzen zen diziplina orokor bati jarraituz, *Jakinek* aldeztu aurretik onartu zituen Baionan (1964, abuztua) eta Arantzazun (1968, urria) biltzeko ziren Batzarren arauak. Garaiko testuak dira horren lekukoak.

Jakini buruz ari naizenez, ezin naiteke hemen batasunaren historia zabalagoa egiten hasi: azkenean protagonista nagusia Euskaltzaindia bera izan zen, eta gogora ditzadan G. Aresti eta Txillardegiren lanak, eta horietako bakoitzak zuen inguruko lagunartea, aipatutako Bileretan oso presente egon zena. 1970ean eman zuten argitara Aresti eta X. Kintanak *Batasunaren Kutxa* (Aresti; Kintana 1970), jada batasun-bidean bigarren une batean sartzen ginenean.

Oro har, *Jakineko* hobespen horiek ez zuten atzetik garapen teoriko handirik, baizik eta taldearen eta norberaren lanen bidez, inguruko proposamenak behatuz eta erabaki praktikoz eramandako burubidea izan zen. Saioen eta lanaren poderioz eta denen arteko elkarrizketan finkatu zen gizartean eredu.

Eliz munduan⁴⁴, burubide hori ez zen izan Arantzazukoa eta Arantzazutik sustatua bakarrik, baizik eta lankidego aski zabala bildu zen ahalegin berean edo bertsuan Ikastetxe eliztarretatik, betiere kultura eskolatuari euskarazko bidea ahalbidetzeko. [N. B.: Herritar sekular gazteak ere urte hauetan ari dira bide-urratzen: Gabriel Aresti, Txillardegi/Euskal Idazkaritza, Rikardo Arregi, Xabier Kintana, Iñaki Beobide, Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola eta abar].

Zientzia positiboena geroago etorriko zen: gazte euskaldun euskaltzaleak Goi-Irakaskuntzan sartzean, Ikastolak berea egin eta hizkuntzarekiko herritarren kontzientzia biziberritzean. Hurrengo hamarkadatik aurrera (1965...) indartuko zen hori dena. Horren aurreko hamarkadan (1955-1964), gizarte zibilaren borondate eta erabaki euskaltzale ekintzailea orokortzeko zegoen, artean, bere orokorrean.

Jakinen zeregina izan zen (barruko zuzendaritzan, lankideen artean eta beste Ikastetxeetako euskaltzale-taldeetan) Ikastetxean ikasitakoa euskaraz emateko gogoia sustatu eta idatzitako lanei gizarterako bidea ematea, horretarako ikasleen eta Nagusien arteko elkartasun orekatu eta praktikoa zainduz.

⁴⁴ Kultura eskolatuaz ari naiz, ez Elizak bere ohizko zereginetan zerabilen euskarari buruz (liturgia, predikua, dotrina, etab.).

BIBLIOGRAFIA

- Abellán, J. L. et al., 2000, *Memoria del exilio vasco. Cultura, pensamiento y literatura de los escritores transterrados en 1939*, Madril: Biblioteca Nueva.
- Agirrebaltzategi, P., 2006, "Jakín Kultur Taldea", *Jakin* 2006, 156, 15-39.
- Agirrebaltzategi, P., 2007, "Jakín aldizkaria. Debeku eta oztupo administratiboen historia: 1961-1977", *Jakin* 162, 2007, 71-93.
- Altuna, P., 2001, *Raimundo Olabide (1869-1942)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Bidegileak 22.
- Amézaga, E., 2000, "Diáspora del 36. Nómina de Prensa y periodistas vascos en Ultramar" in Apaolaza et al. 2000, 281-314.
- Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" I*, 1954, Donostia: Real Sociedad Vascongada de Amigos del País.
- Apaolaza, X. et al. (ed.), 2000, *Hirurogei urte geroago: Euskal Erbesteratuen kultura / Sesenta años después: La cultura del Exilio vasco (2 libk.)*, [Donostia]: Editorial Saturrarán.
- Aresti, G.; Kintana, X., 1970, *Batasunaren kutxa*, Donostia: Lur.
- Arrue, A., 2008, *Antonio Arrue: Idaztiak eta Hitzaldiak*, Bilbo: Euskaltzaindia. (Zavala, A. ed.). [N. B.]
- Aulestia, G., 2000, "Euskaldunak Ameriketako Unibertsitateetan" in Apaolaza et al. 2000, 255-280.
- Beloki, J., 2003, "Arantzazutik. Irrati eta Telebista-emanaldien historia laburra" in Intxausti 2003, 607-631.
- Beola, A., 1998, *Jon Etxaide (1920-1998)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Bidegileak 13.
- Beti Sáez, I., 2000, "Martín de Ugalde: un humanista en el exilio" in Apaolaza et al. 2000, II-2, 489-497.
- Conde de Superunda, 1945, "¿Qué vamos a hacer?", *BAP I*, 1945, 73-76.
- Diez de Ulzurrun, E., 1999, *Aingeru Irigaray Irigaray (1899-1983)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Bidegileak 15.
- Etxeberria Ramírez, I., 2000, "Exilioa eta Martín Ugaldere ipuingintza" in Apaolaza et al. 2000, II-2, 498-516.
- Euskal Batzar Orokorra / Congreso Mundial Vasco: 25 aniversario*, 1981, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Euskaltzaindia, 1956, "Euskaltzaleen Biltzarra Euskaltzaindiaren itzalpean", *Euskera I*, 1956, 163-304.

- Euskaltzaindia, 1959, "Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz", *Euskera* IV, 1959, 214-217.
- Guerra, J.A., 2003, "Arantzazu, centro de actividad literaria de 1936 al 2000" in Intxausti 2003, 565-591.
- Intxausti, J., 1977, "Diez años cruciales: 1954-1964" in Torrealдай 1977, 327-328, 351-358, 377-390, 401-402.
- Intxausti, J., 1979-1980, "Zaitegi eta *Euzko-Gogoa* (I): *Euzko-Gogoa*-ren lankideak" eta "Zaitegi eta *Euzko-Gogoa* (eta II): Hamar urteko lana (1950-1959)", *Jakin* 12, 1979, 120-137; 13, 1980, 96-119.
- Intxausti, J. (zuz.), 1985, *Euskal Herria. II. Errealitate eta egitismo*, Arantzazu: Jakin.
- Intxausti, J., [1994], *Nazioartetik Donostiara. Conversaciones Católicas Internacionales de San Sebastián (1935. 1947-[1958]-1959)* <<http://www.karlossantamaria.com>> [N. B.].
- Intxausti, J. (zuz.), 2003, *Arantzazu. Ikerlan eta saiakerak XX. mendeko historiaz*, Arantzazu: EFA.
- Iribar, M.-N., 1954 "El Instituto Americano de Estudios Vascos" in Larronde 2003b, 123-125.
- Irujo, A. M., 1954, "La editorial vasca *Ekin* de Buenos Aires" in Larronde 2003b, 113-115.
- Irujo, X., "Vicente Amezaga Aresti y la divulgación de la cultura vasca en el exilio" in Apaolaza et al. 2000, II-I, 477-516.
- [Iztueta, P.], 1981, "Eliz Ikastetxeetako aldizkariak", *Jakin* 21, 1981, 49-71.
- Iztueta, P., 1985, "Euskararen adierazpen sozialak gerraondoan (1937-1984)" in Intxausti 1985, 392-403.
- Iztueta, P., 1991, *Nikolas Ormaetxea "Orixe". Idazlan Guztiak V: Orixe eta bere garaia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Iztueta, P., 2001a, *Erbesteko euskal pentsamendua. Bi belaunaldikoen lekukoak: "Euzko-Gogoa" eta "Zabal"*, Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Iztueta, P., 2001b, "Kristau pedagogia klasizista: *Euzko-Gogoa* (1950-1959)" in Iztueta 2001a, 13-148, 229-256.
- Jakin* 1981, 25 urte euskal kulturaren [Gai nagusia], *Jakin* 21, 1981.
- Jakin* [Zuzendaritza] 1965, "Baiona'ko Biltzarraren Erabakiak", *Jakin* 18, 1965, 20-28.
- Jakin Taldea, 1994, *Karlos Santamariaren lana eta pentsamendua. Bilketa eta azterketa*, <<http://www.karlossantamaria.com>> [N. B.].
- Kintana, X., 2000, *Federiko Krutwig Sagredo (1921-1998)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Bidegileak 15.
- Lacarra, J. M., 1957 *Vasconia medieval. Historia y filología. Conferencias pronunciadas los días*

- 10 y 11 de Enero de 1956, Donostia: Diputación Provincial de Guipúzcoa.
- Larronde, J.-Cl. (ed.), 2003a, *Eusko Ikaskuntzaren VII. Kongresua* [Miarritze, 1948] (2 libk.), Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Larronde, J.-Cl. (ed.), 2003b, *Eusko Ikaskuntzaren VIII. Kongresua* [Uztaritze, Baiona, 1954], Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Mitxelena, K., 1956a, “[Aipamena] Agustín Gurenaren Aitorkizunak”, *Egan*, 1956-5/6, 142.
- Mitxelena, K., 1956b, “[Aipamena] Ilias’ena”, *Egan*, 1956-3/4, 102.
- Mitxelena, K., 1988a, “Antonio Tovar oroitzapenetan (1911-1985)” in Mitxelena 1988b, VIII: 84-88. [Jat. ed., 1986, *Euskera* 31, 1986-I, 249-252].
- Mitxelena, K., 1988b, *Euskal idazlan guztiak*, [Donostia]: Euskal Editoreen Elkarte. [II, VI eta VIII liburukiak].
- Mitxelena, K., 1988c, “Nikolas Ormaetxea Euskaltzaindian sartzean” in Mitxelena 1988b, VI: 97-106. [Jat. ed., 1958, *Euskera* III, 1958, 36-43].
- Mitxelena, K., 1988d, “Orixe gure artean” in Mitxelena 1988b, VIII: 51-52. [Jat. ed., 1954, *Egan*, 1954-2/4, 3-4].
- Mitxelena, K. et al., 1988, “Asmo berri” in Mitxelena 1988b, VIII: 91-92. [Jat. ed., 1954, “Asmo berri”, *Egan*, 1954-I/2, 1].
- Monforte García, I., 1994 *Arantzazu. Arquitectura para una vanguardia*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Orixe, 2006, *Gutunak (1917-1961)*, Donostia: Utriusque Vasconiae. (Paulo eta Ibai Iztuetak prestatua).
- Otegi, K., 1985, “Euskal sorketa literarioa (1939-1984). Hurbilketa deskriptiboa” in Intxausti 1985, 434-448.
- Pagola, M., 2005, *La Nueva Basílica de Arantzazu. Su construcción y financiación*, Arantzazu: EFA.
- RSBAP, 1945, “Nuestro propósito”, *BAP I*, 1945, 3-6.
- Sudupe, P., 2000a, *Iokin Zaitegi (1906-1979)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza, Bidegileak 20.
- Sudupe, P., 2000b, “Euskal kultura gerraondo minean” in Apaolaza et al. 2000, 225-246.
- Sudupe, P., 2003, “Andima Ibiñagabeitia: abertzaletasun berria” in Apaolaza, X. (ed.), *Herri bat bidegurutzean* (Aktak, “Euskal Erbestertuen Kultura”, 2000, Donostia), Donostia: Saturrarán, 89-105.
- Sudupe, P., 2011, *50eko hamarkadako euskal literatura, I. Hizkuntza eta ideologia eztabaidak*. Donostia: Utriusque Vasconiae. [N. B.].
- Telleria, X., 1999, *Ixaka López-Mendizabal (1879-1977)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza, Bidegileak 16.

- Torrealdai, J. M., 1977, *Euskal idazleak, gaur. Historia social de la lengua y literatura vascas*, Arantzazu: EFA (Jakin).
- Torrealdai, J. M., 2003, "Fraide frantziskotarren euskarazko liburuak" in Intxausti 2003, 593-606.
- Unzurrunzaga, I., 1999, *Patxi Unzurrunzaga (1906-1984)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Bidegileak 16.
- Urkizu, P., 2000a, "La cultura del exilio vasco en eusquera" in Abellán et al. 2000, 99-145.
- Urkizu, P. (zuz.), 2000b, *Historia de la literatura vasca*, Madril: UNED Ediciones. [Bertsolaritza: J. Garzia; olertia: I. Aldekoa; eleberria: M. J. Olaziregi; saiakera: X. Altzibar; eta antzertia: P. Urkizu].
- Urkizu, P., 2000c, "Ixaka López Mendizabal (1897-1977)" in Apaolaza et al. 2000, II-2, 347-354.
- Vélez de Mendizabal, J. M., 1981, *Iokin Zaitegi*, Arrasate.
- Villasante, L., 1979² [1961], *Historia de la literatura vasca*, Oñati (Arantzazu): Editorial Arantzazu.
- Yrizar, P., 2001, *Memorias de un vascólogo. Mis relaciones con lingüistas y colaboradores*, Madril: Real Sociedad Vascongada de Amigos del País.

3

MODERNITATEAREN HALABEHARREZ

Hizkuntzen normalizazioak unean uneko modernitatea eskatu ohi du, mintzatzaileak kultur molde berrituera pasatzean hizkuntzak premiazkoak dituen eguneratzeak lortzea. Garai berrietara egokitzea, alegia.

Eguneratze hori modu gutxi-asko programatuan egin daiteke, herriko talde aurrelariak gidari direla, edo agintari eta horrexetarako erakundeen gidaritzapean. Gurean era bateko nahiz besteak izan ditugu, eta orokorrean kultur eragileak, idazleak, artistak eta herri euskaldun osoa. Eta ez behin edo bestetan gatazkarik gabe.

Hemen bi adibide aukeratu dira normalizazio prozesu horretara hurbiltzeko, UZEiko terminologiari buruzko eztabaida eta J. A. Iribarren babes ekonomikoak eremu horretan emandako emaitzen historia.

Euskararen modernitatea eraikitze honetan, euskarazko kultura ekoiztean hainbat langile fin eta leialen biografiak ekar zitezkeen hona, banan-banan baliozkoak izan direnak, eta egon ere egon dira, ez sobera, baliabide ekonomiko pertsonalak jarri dituztenak. Hemengo bi idazlanek presentzia zabalagoaren balioa azpimarratu nahi digute.

TERMINOLOGIAZ (1981)

[N. B.: Ondoren datorren testu hau Euskal Herriko hainbat egunkaritan argitaratu eman zen 1981eko azken asteetan, atalka emanda, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Hemen euskarazkoa jaso dugu. *Deia*, *El Diario Vasco*, *Egin*, eta *El Correo* egunkarietan eta *Anaitasuna*, *Argia* eta *Herria* aldizkarietan eman zen osorik edo laburtuta.

Ji zuzendariaren gidaritzapean UZEIko teknikari-taldeak prestatu zuen agiria, sortutako eztabaidan bere buruaren zuzeneko aurkezpena eskaintzeko. 1977-1978etan sortuta, UZEI 1981era bitartean eratutako lantaldeen berri eman nahi zuen, eta era berean kaleraturiko lanen albiste orokorra eskaini.

K. Mitxelena jaunak 1981eko urriaren 23an Donostian emandako hitzaldi baten ondoren Prentsa pasatako informazioen ondorioz piztutako eztabaidari erantzuten dio agiriak, nahikoa luzea izan zen eztabaidari.

Mitxelenaren hitzaldi argitaratuak “Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia” zuen izenburutzat. Lehenengoz *Muga* aldizkarian kaleratu zen (*Muga* 19, 1981, 4-19). Orain eskura dauka irakurleak ondoko liburuan: Michelena, L., 2011, *Obras Completas*, Donostia / Gasteiz: Gipuzkoako Aldundia / Euskal Herriko Unibertsitatea, XIV, 225-240.

Gaur egun UZEIN dago guztiaren berri ematen duen Prentsa dosierra. Bestalde, J. Azurmendiren balantzeak terminologiaz jardutean normalizazioaren erantzukizun eta zama ezberdinak gogoratu zituen: “UZEI auzitan edo normalizazio bideak auzitan”, *Jakin* 23, 1982, 77-120.

Euskarazko terminologiaren arazoa jarri zuen mahai gainean eztabaida hark, eta zeharbidez euskararen terminologiarako premia-erantzukizunak izango ziren politika eta erakundeena.

Eginkizuna, gisaren batean, garbizale-mordoilokerien eztabaiden azpizoruan ere ageri zena da. Haietatik honago, gogora daiteke batez ere Erbestearen Pariseko Biltzarrean, jada 1956an, egiteko horretarako lan-plangintza egoki bat eskatu zela].

I. UZEIren terminologia lana

I.I. Hauxe da UZEI

Eztabaida bizia erabili da prentsan azken asteotan, gure Erakunde hau dela eta. Irakurle asko erdi galdua gertatu da agian, informazio garbirik ezean, arazoaren funtsa asmatu ezinik.

UZEIekin batera beste Erakunde eta Talde batzuk ere behin baino gehiagotan aipatu eta ukitu izan dira. Ez da harritzekoa; ezin baitaiteke UZEI bereiz, azken hamar-hamabost urteotan zientziaren, teknikaren, administrazioaren eta irakaskuntzaren maila eta alor guztietara euskara eramaten ahalegingindu den mugimendutik, eta bereziki, proiektu horren bidetan, lanean diharduen hainbat Erakunde eta Talde konkretutatik.

Artikulu honen eta ondorengo bidez, UZEI Erakunde eta Lantegiaren berri eman nahi dugu, horren asmoak, lanak, irizpideak eta jokabidea azalduz, eta eztabaidan dabilen zenbait punturi buruz geure iritzia eskainiz. Etxe honek ez du inolako eztabaida mingarri eta elkorretan abiatzeko asmorik.

Gure ustez, polemika horrek badu maila bat baino gehiago: a) Bata, *teknikoa eta metodologikoa* da, hizkuntzalarien, jakintza-alor bakoitzeko adituen eta hizte-gigileen artean aztertzekoa. Ez egunkariak eta ez kultura orokorreko aldizkariak dira horretarako egokiak. Zalantzarik gabe beharrezkoa du UZEIren lanak maila horretako kritika sistematikoa; horren zain gaude. Horretarako bidea ireki nahi genuke. b) Bestea, *soziala eta kulturala* da. Gure hizkuntza-kulturen bizitzaz eta etorkizunaz arduraturik dabilzan guztiek dute hitza hemen. Ez da erraza sarritan bi mailen arteko mugak zehaztea: *bigarrenaren ikuspegitik doaz bereziki artikulu hauek*.

Garbi dago, bestalde, kultur eta hizkuntz politika orokorraren arazoak nahasirik dabiltzala hor: baina UZEIk ez du maila politiko horretan sartu nahi.

Badu UZEIk txosten luze bat landua: "UZEIren historia eta gogoeta" (1981, urtarrila), 232 orrialde ditu. Bertan azaltzen dira Erakundearen asmoa, irizpideak, lana, finantzaketa, harremanak, etab. Txostena ez da ezkutukoa, eta dago-kien hainbat Erakunde eta lagunen eskuetan dago aspalditik. Hortixe atera dugu, hain zuzen, hainbat berri artikulu hauetarako. UHG siglaren bidez adieraziko dira aipamenak.

I.I.I. *Historiaurrea eta ingurua*

1977an sortu zen UZEI, une hartako inguru sozial eta politiko konkretuaren barruan. Baina ez dugu uste batez ere hor bilatu behar denik UZEIren sorreraren

gakoa. Aspalditik euskal kulturaren munduan heltzen eta lantzen ari ziren asmo eta proiektuen fruitua da zuzenean UZEI.

1973an bildu zen lehen aldiz UEU (Udako Euskal Unibertsitatea). Orduetik hona urtero bildu da. Euskararen normalizazio kulturala izan du bere asmo nagusien eta funtsezkoena: hau da, kultur alor eta maila guztiak euskaraz erabiltzea, eta horrela euskara tekniko-berezitua bera –lexikoa eta hizkera– normalduz joatea.

Euskararen normalizazio *kulturala*, horren forma batu eta estandarizatuaren gainean eraikitzen da. Hain zuzen ere, euskararen batasun-bidearen ondorio bezala abiatzen da horren *normalizazio kulturalaren* mugimendua. Hor barruan ulertu behar da UZEIren sorrera ere.

Jakin taldearen proiektua izan zen zuzenean UZEI. 25 urteko historia du, ordea, *Jakin* aldizkariak. Eta lehen zenbakitik hasita, euskarak *kultur-joera eta kultur-ats guzi-guzietan murgildu* beharraren kezka agertzen zuen, eta aldizkariak berak *edotariko gaiak* erabiltzeko erabakia azaltzen. 8. zenbakian (1958an), berriz, aurkezten du Urrestarazu, *Umandik* berak Hiztegi tekniko-berezituen premia: “Teknika-itz bildumak beharrak ditugu; irakaskintza gai guzietarako; lanbide orotarako; erti eta kulturazko mota denetarako; banaketarako; zuzentzari buruzko guzietarako; jolas eta kiroletarako... Itz batez, biziarekiko den guzirako”. Bide horretatik erabaki zuen *Jakinek* 1972an –orain dela hamar urte– lan horri sistematikoki ekitea. Lehen fruitua, *Natur Zientziak Hiztegia*, 1976an kaleratu zuen. *Aranzadiko* bost lagunek jarri zuten gaiaren aldetikako ardura eta lankidetzeta nagusia; *Jakinek* euskarari buruzkoa. Bi taldeen elkarlana, beraz.

1972-1973an eratu zen *Elbuiar* taldea, zientzia zehatzak euskaraz lantzeko. Hasiera-hasieratik bideratu zituen bi asmo hauek: beren alorreko literatura berezitutik lexiko teknikoa biltzea eta *Elbuiar* izeneko aldizkaria argitaratzea. 1974ean agertu zen lehen zenbakia. Ordurako, *Jakinekin* batera, Fisika-Kimika hiztegia –gero UZEI bitan atera duena– programatua zuen.

Normalbide honetan ez dago ahazterik zenbait Fakultatetan jardun ziren Euskal Kultur Talde eta Mintegiak, Unibertsitatean euskarazko irakaskuntza –eta ez euskararen irakaskuntza bakarrik– abiatzeko garrantzi handia izan baitzuten.

Euskararen normalizazio kulturalaren mugimendu aspalditiko eta zabalaren haritik etorri eta horretarako hainbat proiektu eta ekintzen baterakuntza bezala sortu zen, bada, UZEI. Sail berezitudan euskararen normalizazio-lanean ari ziren hainbat talde eta erakunderi koordinazio-bidea ematea eta beste hainbat sortu eta eragitea zuen bere asmoa.

I.1.2. *Asmoa eta proiektua*

“Jakintza-sail eta lanbide-eremu desberdinetan euskararen normalizazio lexikalerako zenbait oinarri jarri nahi dituen zerbitzu-ikastetxe” bezala definitzen du UZEIk bere burua (UHG, 2.I.). Euskal Unibertsitateari begira eskaini nahi du zerbitzu hori: “UZEI, euskararen normalizaziorako erakunde bezala definitzen delarik, mugaezineko normalizazio honen esparruetan Unibertsitate mailan kokatzen da. Gaur dugun behin-behineko egoeran, Unibertsitate aurreko irakas mailetan ere zeregin berezia izan dezake” (UHG, I.5).

Bere zerbitzua konkretatuz eta aipaturiko *oinarriak* zehaztuz, Unibertsitatea euskalduntzeko *azpiegitura* lantzea hartzen du eginkizuntzat: “Esandako helburu nagusi horietarako egiteko bazterrezina da, UZEIrentzat, Unibertsitate euskaldunaren azpiegitura lantzea: azpiegitura bibliografikoa; azpiegitura hizkuntzazkoa; azpiegitura pertsonala. Ardatz horren erdigunea *Hiztegi berezituak* dira, hiru dimentsiotako azpiegiturak biltzen dituztenak” (UHG, I.4).

Hala ere, eta euskararen gaurko normalbide osoari begiratuz, Unibertsitatetik eta irakaskuntzatik kanpora bere egitekoa zabaldu beharra aurkitu du UZEIk, gizarte –eta lanbide– sektoreen eskabideei erantzuteko: “Begi bistakoa da euskararen normalizazioa lortu nahi badu, bere lanak gizarteko beste alor eta maila guztietara hedatu behar dituela. Horregatik, helmuga horretara iristeko premiazko zabalkunde-lanak burutzen saiatuko da, batez ere eske sozialei erantzunez” (UHG, I.5).

I.1.3. *Erakundea*

Instituzio konkretua da UZEI, Donostiako Parte Zaharrean, Esterlines kalean du bere lantegia. “Irabaz-asmorik gabeko Elkargoa” da, baina lantalde profesionala babesteko asmatua. Hamabost langile lanegun osoan ari dira bertan, eta orduka beste batzuk. Lantegi honetatik organizatzen, gidatzen eta koordinatzen dira kanpoan orduka lan egiten duten beste hainbat talde eta lankide.

Sailka edo departamentutan eraturik dago UZEI: batzuk orokorrak eta besteak berezituak. Zenbait arrazoiengatik –finantzaketa-arazoa funtsean– behar-ko litzatekeen sail-banaketa osoa eta egokiena egiterik ez da izan oraindik.

UZEIko SAIL BEREZITUAK (1981)

Natur Zientziak	Filosofia	Zuzenbidea. Administrazioa
Medikuntza	Historia. Geografia	Ekonomia. Enpresa. Banka
Fisika. Kimika. Matematika	Artea. Hirigintza.	Politika. Soziologia
Teknologia	Eraikuntza	Kirolak
	Hizkuntzalaritza.	
	Literatura	
	Erljioa	
	Psikologia. Pedagogia	

Sail hauek lehenestean, premia eta bideragarritasuna izan ditugu batez ere gogoan. Sail horietan azken lau urte eta erdian burutu diren edo bideratzen ari garen hiztegiak ondoko hauek dira:

UZEIren HIZTEGIAK ETA HIZTEGI-GAIK

Argitaratuta	Bukatuta	Lantzen	Asmotan
Fisika	Tecnologia mekanikoa	Filosofia	Merkatalgoa
Kimika	Hizkuntzalaritza	Medikuntza	Geografia
Psikologia	Artea	Historia	Pedagogia
Politika	Administrazioa	Erljioa	Zoologia
Ekonomia	Trafikoa	Literatura	Komunikazioa
Enpresa		Botanika	Soziologia
Matematika (berehala)		Zuzenbidea	
Kirolak (I. maila)		Banka	
		Hirigintza	
		Eraikuntza	

Baina UZEIren lana ez da inola ere Hiztegegintzan agortu. Bestelako zenbait ekintza nagusi aipatzekoak dira:

1. *Ikastaroak*. Berrogei bat ikastaro eman ditu UZEIK, hainbat lekutan, bere barruko lanaren osagarri eta luzagarri bezala. Hauen artean sar daitezke Unibertsitateko zenbait sailetan zuzenduriko mintegiak ere.

2. *Euskal Lexikologiazko ikerkuntza*. Bere hiztegegintzaren oinarriak finkatzeko lexiko-sorkuntzarako bideak landu ditu; era berean sortzen zaizkion arazo lexikografikoei ere sistematikoki erantzunaz joan da. Hurrengo artikuluetan azalduko ditugu gure irizpideak. Esan beharra dago, hala ere, UZEIren hasieran bertan hiru egunetako ordu luzeak sartu zituztela 25 bat lagunek, oinarrizko irizpideak aztertzeko eta erabakitzeko. UZEIko lankideez gain beste hainbat hizkuntzalari eta hiztegegilek hartu zuen parte bilera haietan.

3. *Kontsultategia*. Toki askotatik (enpresa, bulego, udaletxe, jatetxe, denda, lantegi etab.) eta hainbat eratako kontsultak (errotuloak, iragarkiak, jatetxeetako janariaren izenak, agiriak, isun edo multak, lantegietako abisuak, fakturak eta beste) etortzen zaizkio UZEIri. Batzuetan hitz soilak galdetzen dira, beste askotan esaldiaren egiturarekin, sintaxiarekin zerikusi handiagoa dutenak. Emandako erantzunak 8 fitxategi handitan bildurik eta ordenaturik dauzkagu (9.000 fitxatetik gora).

4. *Itzulpen-zerbitzua*. Testu bereziak bakarrik itzultzen ditu UZEIK: hau da, beren edukiagatik edo izango duten hedaduragatik euskararen azpiegitura berean eragin handia izango dutenak.

5. *Udaletxeetako itzultzaileen koordinazioa*. Zerbitzu hau behin eta berriz eskatu izan zaigu. Betiere, gure Zuzenbideko Hiztegiarekin eta beste hainbatekin lotuta ikusi izan dugu hori. Azpiegitura eta koordinatzeko bidea eskaintzen du UZEIK hemen ere.

Horixe da UZEI, ez besterik: Euskararen *normalizazio kulturala* bideratzeko instituzio eta lantegi bat, horretan diharduten hainbat lagun eta lankide koordinatzen dituena –UZEIren bat– beharrezkoa dela uste dugu, normalizazio hori aurrera eramango bada. Horretantxe saiatzen gara.

2. Zergatik eta zertarako UZEIren hiztegiak?

UZEIri egin zaion kritikan berak egin dituen hiztegiak astindu dira batez ere. Beraren fruiturik nabarmenenak, ez bakarrak, hiztegiak izan direlako, beharbada horregatik izango da.

Kritikariek, funtsera etorrira, puntu haxe oinarriztat ematen dute: horrelako hiztegiak ez dira oraindik beharrezkoak. Oraina eta geroari buruz hain erabakigarria den arazo honetan UZEIk zer pentsatzen duen azalduko da hemen.

2.1. Premiak hor daude

Abia gaitzen egiaztapenaren mundutik: batetik, euskara ikasten eta euskaraz alfabetatzen ari direnen kopurua handituz doa; bestetik, euskara sartu-bidean dago irakaskuntzan eta, oro har, gizarte-bizitzako maila desberdinetan, egunetik egunera fermuago sartzen ari ere. Ez bide du, beraz, inork ukatzen premiak hor daudela eta, ondorioz, samaldan datozkigun eskeak ugarituz doazela. Begi-bistako errealitate hori, honezkero, ageriegia dateke ez ikusiarena eginez ukatua izateko. UZEIra datorren eskearen eta berak eskaintzen dituen zerbitzuen organigrama, hortxe dago lekuko.

Azken urteotan gure herrian mamitu diren faktore bereziki soziopolitika eta kulturalen eraginez hedatu da euskararen eremua eta, zentzu honetan, gure herriaren etorkizun politikoa eta, berarekin batera, hizkuntzarena lotu-loturik doaz, inoiz baino lotuago joan ere. Une historikoa dugu gure hau.

Horregatik, euskararen gizarteratze-abiada garaiz bideratzen ez bada eta, bidenabar, prozesu honek gorabideari eusten ez badio, haren eragina gero eta ahulagoa izango da euskal gizartean eta lege soziologikoek heriotzara kondentatuko dute. UZEIk, euskararen geroan sinesten duelarik, jadanik eginda dauka beraren aldeko apustua.

Euskara aurrera bultzatu nahi badugu, tradizioan finkaturiko hizkuntz berezitasunak (gramatikalak, lexikalak, morfosintaktikoak, fonologikoak, etab.), hizkuntzaren sakoneko egitura osatzen duten elementu horiek hain zuzen, arduraz ikertu eta zaindu beharrekoak dira. Eta honek, noski, euskararen geroa lehenean oinarriztera garamatza. Lehena eta geroa normalizazio-prozesuaren abiapuntuan bertan inplikaturik daudenez gero, bi erreferentzia puntu horiek behar bezala ez koordinatzetik sor liteke desorekarik. Hala ere, arriskuak arrisku, ezin egin daitekeena zera da: tradizioa zaindu beharrenez beharrez, prozesua bera geratu edo balaztatu.

Euskararekiko gizarte-eskeak gainezka pilatu zaizkigun une honetan, hizkuntzaren tresnak oraindik kamutsak baldin badira eta, hizkuntzaren egoera halakoxea delako hain zuzen, geure lana geuk nahi genukeen perfekzioz egitera heltzen ez bagara, UZEIk ez duke horretan beste inork baino erru gehiago. Eta erantzukizunak inori eskatzekotan, gure ezbeharren historia zakar bati eskatu beharko zaizkio eta ez, ezta inola ere, euskararen normalizazio-prozesu honen barrutik une-uneke eta gerorako erantzun egokienean bila dabiltzanei.

Lehenik alor berezietan ziharduten talde eta indar barreiatuak bildu, goraka zetorren prozesua beretu eta plangintza orokor bati begira talde-lanak koordinatu, horixe besterik ez du egin UZEIk. Asmatu, ez du deus berririk asmatu.

2.2. Hiztegi berezitu eta sailkatuen beharra

UZEI, beste zenbait jardueraren artean, hiztegi berezituak egiten ari da. Beharrezkoak al dira? Horixe da kritikak egin dion galdera nagusia.

Kritika batek ez du uste hiztegi hauek oraingoz beharrezkoak direnik, gaurko beharrei erantzuteko aski bailirateke maila apalagoko lanak. Funtsezko arrazoiak bi dira: lehenengoa, ez daukagula oraindik maila horretako lanak taxuz burutzeko talde gaiturik; bigarrena, Hiztegi teknikoei ekin aurretik oinarrizko hiztegi arrunta finkatu behar dela.

2.2.1. *Honelako hiztegien beharra sozialki justifikaturik dagoela uste dugu*

Hori frogatzeko, aski da, BBBko 3. mailako filosofian adibidez, zenbat hitz tekniko erabiltzen den erreferentzia puntutzat hartzea: batez beste, 5.000 hitz teknikotatik gora atera ditugu hustu diren testuliburuetatik. Beste sailekoetatik ere antzeko kopurua atera da. UZEIk lantzen dituen lexikoak 5.000tik 8.000 hitz eta hitz-kate bitartekoak baitira, lexiko horiek doi-doi betetzen dituzte aipaturiko irakaskuntza maila horretarako beharrak. Oinarrizko material hori falta delako, Ikastoletan BBB mailako gai gehienak espainieraz ematen dira. Hori da egia.

2.2.2. *UZEIren lankidetzaren profesionalak osatzen dute*

Beren lanak euskarak lantzen dituen gaur bezainbat talde profesional ez da sekula ezagutu. Talde profesional bakoitzak metodologia jakin baten arabera lantzen du bere saileko hiztegia eta han eta hemen argitaratutako hiztegi berezituak erabiltzen ditu bere lanerako. Ehunka hiztegi berezitu aztertu ditugu, bereziki alemanak, ingelesak, frantsesak, katalanak eta espainolak. Lexikografiaz arduratzen diren nazioarteko zenbait erakunderekin ere harremanetan gaude. Harreman hauetan dagoeneko ikusi ahal izan dugunez, kanpotik jasotako espe-

rientzietatik asko ikasi beharko du UZEIK; baina, gurea hain kasu berezia ere izaki, urte batzuk barru zerbait irakastekorik ere izango du.

Ez dugu uste, bestalde, Estatu nazionalen arrimoan gauzatu diren hizkuntza modernoak eredurik baliagarrienak zaizkigunik gure kasurako, hain zuzen ere Estatuaren babesa falta izan zaionaren kasu espezifikoa baita euskararena. Ereduak bilatzekotan, hobe genuke beste nonbait bilatzea, agian hebreeran, txekieran, soumieran edo zapalduak izan direnen artean. Eta horiek ere ez dira erabat baliagarri, horiek ere Estatu baten jabe baitira. Horregatik, euskarari ezin eskatuko diogu ingelesari edo alemanari, adibidez, eska geniezaiekeen heldutasuna.

2.2.3. *Oinarrizko hiztegia, teknikoan aurretik joatea ez da derrigorrezkoa*

Euskararen iraganari begira egindako azterketa sakonak ere behar ditugu lanerako. Pozik hartuak izango dira hain zain gauden eta hain desiratuak diren oinarrizko hiztegi arauemailea eta historikoa, ez baitugu zalantzan jartzen argigarri eta aberasgarri izango zaizkigunik. Hala ere, esan dezagun garbiki, ez da arrazoirik ikusten UZEIK, harik eta hiztegi horiek argitaratu arte, bere hiztegin-tza teknikoari uko egin diezaion. Hiztegi teknikoek oinarrizkoen esanera egon behar dutela esateak biribilegia dirudi, gehiago erlatibizatu gabe, itsu-itsuan onar dezagun (Katalunian, esaterako: Pompeu Fabra, 1932; Alcover Moll, lehen bi tomoak 1926-1935 eta azkeneko zortziak 1949-1962).

Lehenengo. Oinarrizko hiztegia, tradizionala nahiz modernoa, aztertu ohi ditugu. Larramendi, Azkue, Lhande, Tornier-Lafitte, Retana, Plazido Muxika, Ibon Sarasola (behin-behinekoa), Luis Villasante (Axular) eta abarren hiztegiak kontsultatu ezinik ez dago eta guztiz baliagarri gertatu zaizkigu. Lan hauek ez dauzkagu baztertzeke, noski. Bestalde, hiztegiei dagokienez, materialik funtsezkoena autore horietan biltzen baita, iturri horietaz baliatu gara batik bat. Funtsezko material hori historikoki oinarritzen eta puntualki hobetzen bada ere, ez dugu espero ikerketa horietatik orain arteko hiztegien edukia, are gutxiago teknikoena, funtsez aldatzeko adinako ekarpenik; hiztegi horietan nahiz literaturan datozen hainbat hitz tekniko, gure lanean egiaztatu ahal izan dugunez, ezer gutxi balio dute askotan.

Bigarren. Hizkuntzalariek, hizkuntzari barne-triskantzarik gerta ez dakion, beraren normalizazio-prozesuari alto bota eta itxaroteko eskubidea balin badaukate, ez dukete eskubide gutxiago Euskal Herria euskalduntzeko aukera eginda daukateneke. Eta maila honetan arrazoi linguistikoek adina balio dute soziologikoek. Hori gutxienik. Eta lehen, batasunerakoan, arrazoi soziologikoak nagusitu baziren, zergatik ez dira mantendu nahi orain? Ez da ahantzi

behar sistema martxan dagoela, zorionez egon ere, eta egunero soluzioak eskatzen ari dela irakaskuntzan, administrazioan, komunikabideetan, etab... eta ez dela soluzioa oinarritze teknikoaren beharraren izenean prozesu linguistikoa bakarrik ez, baizik eta, batez ere soziologikoa den hori geraraztea. Base sozialak aukera hori egin badu, UZEI poztu egingo da gehienez, ez damutu.

Hirugarren. Hiztegi teknikoetan, gainera, hizkuntzalariek bakarrik ez, gaian profesionalak direnek ere badute beren hitza, eta hauek bereziki. UZEIK, hiztegi teknikoak lantzean, orain arteko hiztegegintzari ekarri dion emaitza berria, hain zuzen, hauxe da: gaian adituen lankidetzak. Hizkuntzalariak batetik eta profesionalak bestetik, bakoitzak bere alorreko argitasunak eskaintzen dituelarik, elkarren lehian baino gusturago ikusiko genituzke batak bestea laguntzen, gure herri hau ez baita jende gaitutan aberatsegia dauden bakarrak zapuzten ibiltzeko.

2.3. Hiztegien behin-behinekotasuna

Gure hiztegiak behin-behinekoak direla diogunean, eta puntu hau behin eta berriz aitortu dugu, ez dugu bezeriarekin konplitzeko hitz hutsak saldu nahi izan. Gure lanaren halabeharrezko mugak inork baino hobeto ezagutzen ditugulako, horrexegatik genion geure txostenean honako hau: “UZEIKo Hiztegiak, oraindik, beren lehen mailan daude, geroago batean edukiz eta hizkuntzaz jasoagoak eta jantziagoak emateko itzaropenez. Hala ere, gaurdaino egindakoak hastapeneko zimentarri bat dira hartara iristeko” (UHG, 3.5).

Egia da, hein batetan bederen egia, merkatura doan produktuak bere ukitua uzten duela bezero-eroslearen baitan: produktua sozialki onartua den neurrikoa, hain zuzen ere. Baina horrek ez bide du ezer frogatzen UZEIK bere hiztegi guztiei aitortzen dien behin-behinekotasunaren kontra. Horrelakorik gerta ez dadin nahi bada, bide bakarra geratzen da: hiztegiak ez egitea edo, zehatzago, eginda gero ez argitaratzea. Kritikak hori nahi badu, ez daukagu zer frogaturik.

UZEIK, bestalde, kritika behar du eta eskatzen: etxe-barruko kritika, talde bereziarena eta edonorena. UZEIK beti jarri du kritikarien eskuetan behin-behineko lexiko-zerrenda, argitaratu aurretik kritikatu izan zedin. Jokabide hau lege izan da gure artean.

UZEIren lana, nola ez!, kritikagarria da eta kritikatu beharrekoa; baina berak dituen milaka hitzetatik han-hemen ehizatutako hitz solte batzuk hartu eta horiek osotasunaren erreferentziarik gabe kritikatzeari kasuistika antzuan jardutea deritzogu, are gehiago kritika bera kritikatu bezain eztabaidagarria denean. Kritika bai, betor, beharrezkoa dugulako, baina lana bere osotasunean hartuta eta barrutik aztertuta.

3. UZEiren hiztegiek zer balio dute?

E. Knörrek jarri du galdera (*Deia*, 1982-I-29). UZEiko langileok ez gara zuzenean horri erantzuteko egokienak. Hor daude Hiztegiak, edonoren kritikari irekita. Baina horretarako azpiko irizpideak eta metodologia ezagutu beharra dago. UZEik darabiltzanak azalduko ditugu hemen.

Gure hiztegi-lana bideratu genuenetik, metodologia landuz, tresnak hobetuz, lexikologia eta lexikografia arazoak sakonduz eta irizpideak zehaztuz eta zuzenduz etorri gara. Etengabe ikasten ari gara.

3.1. Testua eta lexikoa batean

Hiztegiok esku artean eduki dituenak ondo daki, horietako gehienek –oinarrizkoek– bi atal nagusi dituztela: Gaiak eta Lexikoa. Lehenengoa testua da, non, hiru maila ezberdinetako artikulutan, Hiztegiaren alorreko gai handienak eta kontzeptu nagusienak azaltzen baitira. Bigarrena, hitz-zerrendak dira. Erdi bana hartzen dute gutxi gora behera bi atalok Hiztegi bakoitzean.

Hauxe da Hiztegiaren egituraren arrazoiak: lexikoa testuaren gain landu, erabaki eta finkatu behar dela, horren barnean egiaztatzen baita hitzaren balioa eta egokitasuna. Gure hiztegi-gintzaren oinarri-oinarrizko eta hasiera-hasierako irizpidea da hori: “Hitz-zerrendak beti ere frogategia testu jarraituetan du: zerrenda horiek, ahal den guztietan, idazlanetan erabiliak agertu behar dute kalera. Hitz baten balioa testuinguruaren baitan frogatu behar da. Lexikoaren baliagarritasuna erabilera praktikoan ikusiko da garbi, ez zerrenda gorritan” (UHG, I.1.21).

Ez dugu uste gure Hiztegiok hitz-zerrenda soilizat inola ere hartzerik eta juzgatzerik dagoenik. Orain arte UZEik egitura normal horrekin argitaratu dituen sei hiztegien artean 2.000 orrialdetik gorako testu-masa osatzen dute.

Zerrenda-itxuran landu diren bakarrak Zirkulaziokoa, Enpresakoa eta Administrazioakoa izan dira. Eta hori, horrelaxe eskatu zitzaigulako. Hala ere, horrek ez du esan nahi zerrenda horietako hitzak bakoitza bere aldetik eta inolako testuingururik gabe sortuak direnik. Esate baterako, *Ley de Régimen Local*etik hitzak husten direnean eta euskaraz jartzen, hitz bakoitzak du bere testuinguru zehatza eta ondo finkatua. Zirkulazio-kodetik ateratzen denean, beste horrenbeste.

Dena dela, gure iritzia argi dago: gai hauetan eta bestetan asko idatzi eta etengabe erabili beharrekoa da euskara, hizkera teknikoarekin batera, lexikoa zehaztuz, mamituz eta finkatuz joateko.

3.2. Lexiko teknikoaren berezitasunak

“[...] Edozein erabaki lexikal hartzekoan UZEIk kontutan hartu behar du, Hiztegi berezituak egiten ari bada, zientzia-tekniketako terminologiaren ezaugarriak ezin ahantz ditzakeela, hots, eraberdintasuna (uniformetasuna), zehaztasuna, laburtasuna” (UHG, 2.4.20). Horiek ez dira kontutan hartzeko oinarrizko irizpide bakarrak noski, baina bai behinenak, lexikologia teknikoan adituei jarraiki.

Horregatik, “UZEI [...], zientzi munduak behar eta galdatzen duen terminologia zehatza, esanahi bakarreko eta desberdindua kontuan eduki beharrean dago eta eduki ere badauka, eta badaki elementu horien artean oreka bat lortu behar duela” (UHG, 2.4.22).

Hori da bidea. Jakina, ez dugu uste gure Hiztegien bidez helburura iritsi garenik. Sarasolarekin bat etor gaitzke honetan: “Tamalgarria da beharbada, baina ezin dugu amets egin urte pare batean euskarak alor guztietan erdaren zehaztasuna lortuko duela”. Urte bi baino gehiago darama UZEIk lanean: denon artean bidea irekiz bagoaz, helmuga gero eta hurbilago izango da. Baina orain ahal dena egiten saiatzen ez bagara, sekula ez dugu pausorik aurreratuko.

3.3. Lexikoaren sorkuntza UZEIn

Hiztegi tekniko-berezituak lantzeko, lexikografiari eta lexikologiari buruzko ikerkuntza sakondu behar izan du UZEIk; horretarakoxe barruko sail berezi bat antolatzen ari da orain. Hiru eginkizun nagusi ditu sail horrek: a) munduan zehar Lexikografia tekniko-berezituari buruzko eskarmentua biltzea; b) lexikologia teorikoa sakontzea; c) UZEIren lanetarako euskal lexikologia aplikatua aztertzea, eta une bakoitzean hartu beharreko erabakiak proposatzea.

Lexiko tekniko-berezituaren sorkuntza da noski UZEIren arazo nagusia. Mitxelenak berak dioenez, ukaezinezko da “la necesidad evidente que tenemos de nuevas palabras, fabricadas o tomadas a préstamo o adoptadas a nuevos usos”. Baina berehala agertzen ditu berak UZEIren lan eta irizpideei buruzko susmoak, zalantzak eta beldurrak.

Irizpide orokor eta oinarrizko bezala, hiru iturri hauek erabili behar direla uste du UZEIk: a) euskal tradizioko hiztegia; b) hizkuntz arteko terminologia internazionala; c) euskarazko hitz tradizioaletatik eratorritako hitz berriak. Hirurak konbinatu beharra dago, euskararen *normalizazio kulturala* lortzeko. Baina iturri bakoitzak bere arazo handiak ditu lexikologia aplikatuan: guztiak zehaztuz eta argituz, erabaki konkretuak hartu beharra dago, ordea. Hiztegi gintzako problema berrien arabera, bere irizpideak zehazten eta zuzentzen saiatu da UZEI

eta Lexikologia aplikatuaren hainbat kapitulu nagusi sistematikoki lantzen, bereziki: Hitzen eratorpena, Hitz-elkarketa, Zabalkuntza semantikoa, Berrezarpen lexikala eta Berrikuntza fonologikoa. Kapitulu horiei guztiei buruzko liburu bat aski aurreratua dauka UZEIK, *Lexiko-sorkuntzarako bideak* izenekoa.

3.4. Lexiko-bilketa

UZEIRI egin zaion zenbait kritikatan puntu hauxe nabarmendu da: horrelako hiztegiak egiteko behar den lexiko-husketa. “Lo primero que hay que recoger [...] son los términos vascos atestiguados” (Mitxelena); “hiztegitantza berezituetan barrena abiatu nahi duenak gai bakoitzari buruzko lan guztiak aztertu behar ditu” (Sarasola); “Euskal hiztegien husketa eta hitzen bilketa eginak ez ziren garaikoak dira hauek” (Knörr).

Ondo jabeturik gaude hasieratik bertatik premia horretaz; eta gure ahalegin handientxoena hortxe jarri ditugu; hala ere, dena agortu gabe daukagula aitortzeko lotsarik ez dugu.

Dena dela, hona hemen zenbaki batzuk, aski nabarmenak, gure ustez. Hiztegi bakoitza lantzeko hustu diren [1977-1981] euskal liburu-artikuluetatik ateratako fitxak zenbat izan diren jakiteko:

JASOTAKO ERREFERENTZI TXARTELAK (1977-1981)

Hiztegi-eremuak	Txartelak
Natur Zientziak	20.000
Fisika, Kimika, Matematika, Tecnologia (<i>Elbuzar</i>)	53.000
Politika	20.000
Psikologia	5.000
Ekonomia	6.000
Filosofia	10.000
Artea	4.000
Zuzenbidea	10.000
Medikuntza	6.000
Erljioa	10.000
Historia	6.000
Kirolak	3.000
Denetara	153.000

Gainera beste 12.000 baditu, azken hogeita bost urteotako hainbat aldizkarian erabilitako *kultur hitzak* jasotzen dituztenak.

Ehunka artikuluz gain, 550 liburutik gora eta hainbat lexiko eta hitz-zerrenda partzial irakurri eta hustu dira.

“El diccionario se hace en principio sobre textos orales y escritos” dio Mitxelenak. “En principio” bat gatoz berarekin, ondorioz, horixe egiten saiatzen gara. Lexikoaren finkabidea ondoko hau dugu, eta hiru aldetatik biltzen da UZEIko Hiztegietan ematen den lexikoa: a) hiztegirako landuriko gai eta artikuluetatik; b) erdarazko hiztegi eta testuetatik; c) euskal literaturatik. Ez da egia beraz, UZEIk, erdarazko zerrenda bildu eta hori euskaraz jarri besterik ez duela egiten.

Nahiko landua daukagu gaur egun Hiztegietako lexikoa finkatzeko prozesu normala: 1) oinarrizko lehen zerrenda behin-behinekoa eskaintzen zaie artikulugileei, beren lanak idaztean frogatuz, kritikatu eta osatuz joan daitezten; 2) hiztegiaren zuzentzaileak, artikulua zuzenduz batera, eta bestelako iturriak ere aztertuz, zerrenda burutu eta euskal formak bateratzen ditu; 3) zerrenda osoa UZEIko langileen, Hiztegiko artikulugileen eta kanpoko beste hainbat gaituren eskuetan jartzen da, kritika dezaten; 4) kritikak jaso eta sailkatu ondoren, Hiztegiko kontseiluak, lexiko osoa erabaki eta finkatu egiten du, hitz eta unitate lexikal guztiak banan-banan aztertuz. Erabaki horien arabera, berriro irakurri eta zuzentzen ditu Zuzentzaileak Hiztegiko artikulua guztiak.

Chapuza apresurada ote da hori? Egia da, sarritan gure lankideen eta kontseilarien aldetik kritika sakonagoak eta zabalagoak nahi genituzkeela. Baina argitaratu ondoren ere, irekita gelditzen da Hiztegia, irakurleen eta erabiltzaileen eskuetan, beren kritikak UZEIra bidal dituzten. Jabeturik gaude, eta hamaika bider aitortua dugu gure orain arteko Hiztegiak behin-behinekoak direla.

Horregatik, Hiztegi tekniko-berezituen didaktikarako gidaliburuak prestatzen ari gara orain. Horien asmoa hau da: Ikastaro berezien bidez, alor bakoitzeko adituak eta jakitunak beren espezialitateko lexiko-hizkerez jabetuz batera, hiztegiok kritikatzeari eta frogatzeari, gerora Hiztegi finkatuagoak prestatuz joateko.

3.5. Euskara/Erdarak

Eleaniztunak dira UZEIren Hiztegiak. Hasieratik bertatik zegoen argi gure irizpidea: euskal lexiko tekniko-berezitua ez zela gatzelaniari begira bakarrik landu behar eta bai frantsesari begira ere, Iparraldeko euskaldunak ere oso kontuan eduki behar zirelako. Horregatik, euskararekin batera beste bien balioak jarri genituen.

Baina berehala gehiago zabaldu genuen irizpide hori; eta ingelesa eta alemana ere oso kontuan hartu beharrekoak zirela ikusi genuen, euskal lexiko-sorkuntzarako. Bata, gaurko zientzien eta teknikaren munduan duen eraginagatik; bestea, euskal hitz berriak eratzeko eta horien zeri egin behar dioten erreferentzia ikusteko bide egokiak eskaintzen dituelako sarritan. Uste dugunez, lehen aldiz egiten dira euskal Hiztegiak, sistematikoki beste hizkuntza moderno horiekin batera landuz. Horretarako, beste lankideen artean, Hezkuntzaz (sarritan Hizkuntzaz eta izatez ere bai) ingeles edo aleman diren lagunak ditugu, euskaraz ere ondo dakitenak gainera. Hiztegi bakoitzeko Zuzendari-Zuzentzaileekin batera egiten dute lana horiek. Areago, une honetan, erdarak gure Hiztegietan lantzeko eta lexiko tekniko-berezituak lantzen dituzten nazioarteko erakundeekin harremanak estutzeko Departamentu berezi bat antolatzen ari gara UZEI barruan.

Hiru puntutan azaldua du UZEIk arazo horri buruzko bere irizpidea: “a) inguruko hiruzpalau hizkuntza aztertzean, nekezago eroriko gara gaztelaniakeriatan; b) hitz-sorketarako iradokizun aberatsagoak jasoko ditugu (alemana, esate baterako, maiz asko lagun hobea dugu, gaztelania baino); c) hizkera teknikoen premia nazioarteko ibilbidea erraztu egiten zaie euskarari eta espezialistei” (UHG, I.I.19).

Hala ere, aitortu beharra daukagu zenbait kasutan, frantsesaren eta gaztelaniaren erreferentziak konkretuegiak edo biziuegiak direlako, ez daukagula hortik ihes egiterik ahaleginak egin arren.

Bestalde, grekera eta latina ezinbestekoak gertatzen dira kultura modernoko eta gaurko zientzietako terminologi piloa sortzeko. Ez dugu uste euskara normalduak horietarik ihes egin behar duenik.

Zer balio dute UZEIren Hiztegiek? Neurri on batez behintzat, eta funtsean, berak darabiltzan irizpideek eta metodologiak balio dutena. Hortik aurrera, langileen gaitasunaz gain, finantzaketa-oinarria eta lanaren antolaketa egokitu behar.

4. UZEIren giza-kapitala

UZEIk zein irizpideren arabera lan egiten duen esanda dago aurreko lerroetan. Lana nola egiten duen, zenbat jende dabilen, lankideen prestakuntza nola den eta zertan diharduen esango dugu, kritikatuak izan diren puntu horiek azaltzen saiatzeko. Galdera laburtu beharrez, honela labur genezake: UZEIk zer jende dauka eta zer egiten du?

4.1. Talde-lanen koordinazioa

Talde-lana izango da beharbada UZEIREN jokabidea hobekien zertzen duen elementua, bera baita, azken-azkenean, eskaintzen dugun produkzioaren bermatzailerik ziurrena eta gure izatearen beharra sozialki justifika dezakeen froga nagusia.

Zergatik talde-lana? Erantzuna ezin errazagoa da: batetik, hiztegi berezituak espezialistek egin beharrekoak direlako eta, bestetik, horrelako lan batek, pertsona bakar baten ahalmenak gainditurik, talde-lana eskatzen duelako.

Oinarrizko irizpide hori kontuan harturik, hiztegi bakoitzean parte hartzen duten lankideak zientziaren alor horretan espezialista direnak, eta ahal den neurrian, euskaraz dakitenak dira. Honela, zientzi sail bakoitzean ari diren espezialistak elkarrengana biltzen direlarik, talde berezituak jarraiko helburu bikoitz hau lortzeko bidean jartzen dira: zientzia honetako lexikoa finkatu eta euskarazko material berria sortu eta, horrekin batera, normalizazio-prozesuan barneratuz beren burua prestatu.

Talde berezituak zerbait gehiago ere badira, eta hauxe bereziki: beren zientzi saileko kolektibotik datorkien onarpen sozialaren isla. Erabakiak gutxi batzuk eta intzidentzia sozialik ez dutenek hartzen baldin badituzte, bistakoa denez, gizarteak ez ditu irentsiko; aldiz, espezialisten talde batek hartzen baditu eta beren eguneroko lanetan erabiltzen baditu, orduan gizarteak pixkanaka-pixkanaka bereak egingo ditu.

Zientzia desberdinen arabera sailkaturiko euskara teknikoaren gizarteratzea, beraz, talde-lan berezituak beren artean eta beren inguruan sortzen duten dinamika sozialaren bidez doa obratuz eta orain arte pentsaezinezkoak ziren ahalbide berriak gorpuztuz.

Euskal Herri osoan zehar zabaldurik dauden eta lanean diharduten talde sailkatuak sustatu, koordinatu, oraindik urratzeke dauden alorretan talde berriak sortzen edo biltzen ahalegindu, horixe da UZEIK egiten duena, talde desberdinen koordinatzaile den aldetik eta kanpora begira. Barrura begira, bereziki lexiko-arloan, sail desberdinetako hiztegi berezituaren emaitza kolektiboari darizkien interferentzia lexikalak detektatu eta kontrolatzea ere berari dagokio, interferentziak, zientzi sail batetik bestera, ezinbestekoa baitira askotan. Eta horrelakoetan guztiz baitezpadakoa da globaltasunaren erronka oso begibistan edukitzea.

Hiztegiak, talde-lanari esker, lankidetzazabal baten bidez eginak dira:

LANKIDE-KOPURUA, EREMUKA (1977-1981)

Jakitate-eremuak	Lankideak
Fisika	14
Politika	30
Kimika	20
Psikologia	18
Ekonomia	27
Matematika	13
Teknologia Mekanikoa	8
Hizkuntzalaritza	26
Arteak	27
Medikuntza	23
Filosofia	31
Literatura	23
Erljioa	16
Zuzenbidea	27
Botanika	27
Historia	40
Kirolak	27
Administrazioa. Zirkulazioa	57
Banka	9
Zoologia	1
Hirigintza. Eraikuntza	5
Geografia	1

Hiztegi, testu-liburu eta abarren idazketa eta zuzenketan parte hartu dutenak 450 lankidetik gora dira gaur egun; eta lankidetza horren barruan, hiztegi guztien trataera linguistikoa aztertuz, hizkuntzalari-andana batek dihardu etengabeko lanean UZEIrekin batera.

4.2. UZEIren profesionaltasuna

Nolabaiteko profesionalak garelako bota zaigu aurpegira. Garena gara; ez gehiago eta ez gutxiago. Eta gure pittintxo hori agertzeko lotsarik ez baitugu, esan dezagun UZEI zer irizpidez baliatu den bere profesionalak inguratzeko orduan:

4.2.1. *Jakintza-sail batean gaitua edo espezialista izatea*

Edozein terminologia teknikori dagokion zehaztasuna gordeko bada, behar-beharrezko gertatzen da kontzeptuen esanahi zehatzaz ongi jabeturik egotea. Eta zehaztasun hori espezialistek bakarrik eman diezagukete. Bada hiztegin-tza tekniko maila bat, maila guztiz espezifikoa dena eta espezialistari zuzenean dagokiona, eta berari bakarrik.

4.2.2. *Euskaraz jantzia izatea*

Bai gaia eta bai euskara, biak ongi menderatzen dituzten lankideak bilatzen ahalegindu gara. Eta hautaketan asmatu ez badugu, ez da izan alderdikeriak itsutu gaituelako, edozein hautaketak subjektibotasuna berarekin daramalako baizik.

Euskaraz jantzia baina gaian pattal dagoen lankide tipikoaren kasua erabaki beharra tokatu zaigunean, espezialistari eman zaio lehentasuna, nahiz eta honek euskara ez jakin. Horrelakoetan itzulpenak egiten dira. UZEIKO lankideen zerrendan euskaraz ez dakitenak ere ikusten badituzue, arrazoi horrexegatik izan da.

Beste kasu batzuetan, euskararen arazoa espezialistaren eta euskara-arduradunaren artean konpondu da, zeren, gaian espezialista denak gaia euskaraz emateko adina ez badaki ere, euskaraz emandakoa kontrolatzeko gauza izaten baita.

4.2.3. *Taldean lan egin eta euskal kulturaren dinamikan sartzeko gogoa edukitzea*

Honela, lanerako prest zeuden zientzia bakoitzeko espezialistak, alfabetatuak edo erdi alfabetatuak, bilatu, animatu eta lanean jarri ditugu. Idazten idatziz baizik ikasten ez den bezala, gai teknikoei buruz euskaraz idatziz baizik ez da ikasten.

Taldeko lan-prozedura erabat premiazkotzat daukagu, talde-lagunen jakeak elkarren osagarri izan daitezen eta instituzioaren zerbitzuez ere (lexikografia, etab.) hobeki baliatzeko modua egon dadin.

Hiru irizpide horien arabera osaturiko UZEI kolektiboaren emaitzak oraindik heldugabeak baldin badira —eta gure hiztegiak behin-behinekoak direla diogunean horixe aitortu nahi dugu funtsean—, euskal kulturaren gaurko egoerak giza-kapital gaituagorik eskaintzen ez duelako izango da eta ez agian, aditzera eman zaigun bezala, langabezian leudekeen peoiek UZEIREN lan-kalitatea murriztu dutelako. Hala ere, eta hau ere esan beharra dago, UZEIK bere lana hobe lezake, baldin jadanik programaturik daukan plangintza zabalerako ateak irekiko balitzaizkio, horrela gure barruko autokritikei ere erantzuteko baliabideak emanez, noski.

4.3. Lanen originaltasuna

UZEI itzultzaile-fabrika dela idatzi da. Ez dakigu zein iturritan oinarriturik dagoen esan hori, egia oso bestelakoa baita. UZEIren hiztegiak zein neurritan diren originalak, ondoko datuok frogatzen dute hobekien.

HIZTEGI-ARTIKULUETAKO JATORRIZKO HIZKUNTZAK
(EUSKARA/ERDARAK)

Hiztegiak: argitaratu/burutuak	Orrialdeak	Euskaraz	Erdaraz	Lanak
Fisika (argit.)	378,0	13	-	13
Kimika (argit.)	379,5	21	-	21
Ekonomia (argit.)	396,5	12	5	17
Politika (argit.)	819,0	24	4	28
Psikologia (argit.)	431,0	9	5	14
Hizkuntzalaritza (bukat.)	472,0	14	3	17
Teknologia mekanikoa (bukat.)	683,5	6	-	6
Matematika (bukat.)	516,0	11	-	11
Medikuntza (bukat.)	575,5	23	-	23
Arteak (bukat.)	417,5	20	5	26
Filosofia (bukat.)	713,0	21	-	21
Artikuluetakoko jatorrizko hizkuntzak (%)	5.781,5 --	174 %88,32	23 %11,67	197

Taula horretan jadanik argitaraturik eta bukataturik dauden hiztegietakoko datuak bakarrik biltzen dira, guztira 11 hiztegitakoak, nahiz eta lantzen eta egin-asmotan daudenak gehiago diren.

Hamaika hiztegi horietako testu-masa 5.781,5 orrialdetako da, eta berorien idazketan parte hartu duten 197 lankidetatik 174ek beren artikuluak euskaraz idatzirik bidali dituzte eta 23k bakarrik erdaraz. Hori bera ehunekotan emanda: %88,32 euskaraz idatzia izan da eta %11,67 erdaraz.

UZEIko lankide gehienek, beraz, euskaraz idatzi dute. Itzulpenari uzten zaion lekua oso murrizta da eta, irizpidez hitz egiterakoan esan dena ontzat hartzen bada, justifikatua.

5. UZEI, ala euskararen normalizazioa da arazoa?

1977ko udaberrian UZEIren egitasmoari bere azalpen idatzia eman zitzaionetik proiektu horren ahalbide ekonomikoak lantzeari ekin genion. Egiteko hau beti zaila izanik ere, krisiagatik, ez zen huraxe laguntza-eske ibiltzeko egozierarik erosoena. Eta handik hona ere handia izan da krisiaren larria.

UZEI Kultur Elkargoa da eta, bere arautegiaren arabera eta urteroko jarduerak erakusten dutenez, diru-etekinik gabeko Elkargoa da. Ez dezake irabazirik bana, eta defizit batekin bukatu du bere jardunaldi bakoitza. Euskararen aldeko bere lanak, etengabe eskean ibiliz, atera ahal izan ditu UZEIk.

5.1. Irabazirik gabeko lana

Lan hauek, beren oinarritzotasunagatik (ikerketak aplikatu baten maila dute gehienetan), ezin dute oraingoz beren burua ordaindu, diru-laguntza bidez bakarrik da egingarria UZEIren gaurko lana.

Hala ere, lanak burutu ahala, ondorengo pauso berriak samurragoak ere izan litezke, gizartetik datorren eskea indartuz doan neurrian. Hala nola lan-ordainduetatik jaso ahal izan duguna gehituz dator urtez urte, hein apal batetan bada ere: 1977/1978an, aurrekontuaren %0,48; 1979an, %16,62; 1980an, %18,38; eta 1981ean, %24,98. Datu hau interesgarria da, batez ere honegatik: euskarari buruz gure gizarteak egiten duen balorazio ekonomikoa aldatzen ari dela adierazten digulako. Hizkuntzaren normalizazio sozialaren egitekoa gero eta biziago sentitzen da, eta horretarako, UZEIren lanak baliozko tresna bezala ikusi dira.

Baina, uste dugunez, zerbitzu publiko baten zentzua gorde behar du betiere UZEIk, eta auto-finantzaketa ez dezake har, beste gabe, helburu nagusitzat. Izan ere, ikusmolde ekonomiko hutsak ekar dezakeen desbideratze kulturalaren arriskua ezin da ahortzi, gure kasuan.

5.2. Zer eman du UZEIk euskal kulturari

Hogeita hamar bat instituziok pare hartu du UZEIri zutik eusten. Hemen denak ezin aipatu ditugunez, ez gara bereizketak egiten hasiko baina gogora ditzagun, eskierki, Euskal Erakunde Publikoak, Aurrezki Kutxak, Bankuak, Industriak, Ganbarak, eta abar.

Laguntza hauek oso ezberdinak izan dira. Batzuetan Fondo galdutzat emanik lagundu dute, asmoaren zentzua, oro har, ontzat eta fidagarritzat eman dutelako; bestetan, eginkizun edo proiektu batzuk ordainduz.

Diru-bilketak bi ekinaldi handi izan ditu: a) lehenen urtekoa, eta b) 1979-ko udaberrikoa. Tarteka-marteka, han hemen atea joaz osatu dira ekintza haiek. Eta urtero eskea berrituz.

Orain arte, urtez urte bildu dena honela banatzen da: 1977/1978, 12.771.038 pta.; 1979, 18.108.893 pta.; 1980, 21.619.713 pta.; 1981, 35.273.436 pta. Kopuru hauek hiru iturri izan dituzte: a) laguntzaileen ekarpenak; b) egindako lanen ordainketak; c) bazkideen kuotak.

Agian, diru hori dena askotxo ez ote den pentsa dezake norbaitek, guk ezetz uste dugu; pobrezia ikaragarri bat izan dela deritzogu. Zergatik ordea? Iritzi honen gure arrazoiak hauetxek dira, bereziki: a) Ehunka lankideren lana ordaintzeko izan da hori. b) Ordainketa horiek benetan apalak izan dira, eta dira (lan-postuen balio-neurketaz arduratzen diren teknikoek kalkulatu izan digutenaren oso azpitik dabilta soldatak eta beste ordainketak). c) Eske sozialak eta jende ikasiak berak eskaintzen dituen lanerako ahalbideak ezin izan ditugu koordinatu. Ditugun muga ekonomikoengatik, lan-gogo asko, eta inoiz oso onak ere bai, galtzen ikusi ditugu gure inguruan, eskatzen zitzaigun koordinazioa emateko ahalmenik ez genuelako. Horretarako, langile-talde finkoa indartu beharko litzateke. d) Hiztegieta bagatoz, lan hau hobetuz eraman nahi bada, aurrekontuek oraindik gorago joan beharko dute.

Hemen, eta oso garbiki, esan beharra dago zera: a) euskararekiko eske soziala, lexiko-normalizazioan bertan ere, UZEIren lanen dezente aurretik doa (ez dugu guk beharizan hori asmatu bideratu baizik); b) baina normalizazio-eskean ez ezik, indarrean ere, guk baino askoz gehiago eman dezake gaur egungo euskal kultur munduak, erabat premiazkoak dituen koordinazio eta erakundeak (programatuak eta libreak) ematen bazaizkio. UZEI ez da aurrerazale burubero bat izan, herrenka, ozta-ozta eta ezin erantzunik ibili den erakunde bat baizik.

Koordinazio programatua eta librea aipatu ditugunez, komeni da, hitz horien azpitik dagoen kultur harremanen arazoa aipatzea.

5.3. UZEIren harremanak

UZEIren jaiotzatik bertatik harremanen mundua ahalik garbien eraman nahi izan dugu, eta hiru mailatakoak izan dira bereziki: ekonomikoak, politikoak eta kulturazkoak. Ekonomikoez zerbait esan da, eta beste biak ikusiko ditugu orain.

Harreman politikoak modu erabat irekian eta pluralistan eraman nahi izan dira. Horregatik, asmoa alderdi ezberdinetako jendeari azaldu zitzaion (1977); geroago ostera ere berritu ziren harreman haiek. Aurrera joaz, geroko lanetan eta taldeetan zuzendaritzak ez dio begiratu sekula ere inoren karnetari (hain

zuzen, alderdi guztietakoak deitzeko izan ezik). Pluralismo politiko hau benetan eredugarri izan dela uste dugu UZEIN. Gero, praktikan, gure taldeetan politika edo ideologi presentzia nola banatu den, hori beste arazoa da: euskal kulturaren ispilu gara horretan ere, eta UZEIK alferrik bortxatu nahiko luke errealitate hori. UZEIren lanak dituen ikuspegi tekniko eta nazionalengatik gure hau guztiontzako topaleku erosoak izan zitekeela uste izan dugu. Neurri on batean xede hori bete da, eta, erosotasun bera lortu ez dugun egokieretan, asmo hori, oraindik ere, ez dela helburu utopiko bat pentsatu nahi genuke.

Kultur munduarekiko harremanak. Lanerako programa bat, erakundearen efikazia eta harreman libre eta erosoak, hori dena elkarrekin uztartzea erraza ez bada ere, ahalegin horretantxe saiatu gara beti. Bestalde, gure koordinazio-betekizuna modu zalu eta malgu batez eramaten ahalegindu gara.

Kultur jendearekiko harreman honek, kasu ezberdinak ditu: banakako lankideak, talde lankide eginak, UZEIK berak sortutako talde berriak. Taldeetara biltzeko eskatu diegu beti banakako lankideei; lehendik lanean ziharduten talde eginei, eskuratu ditugun ahalbide urriak eskuzabalki eskaini nahi izan dizkiegu, inolako azpijanik gabe eta talde bikoiztuak sortzen ibili gabe. Talde horiengandik izan dugun erantzuna ere halakoa izan da: beren lan-tresna bezala hartu dute UZEIKo lantegia.

Geuk sortu edo geure inguruan jaio diren lantalde berrietara baldin bagatoz, berriz, hauxe da –lankidegoaren gainerako harreman-sare osoaren ondoan– UZEIren ekarpenik onena eta ederrena (Hiztegitza guztia baino areago, noski). Ikastolek, beste gisa batetan, urte batzuk lehenago ekarri zuten kultur indarren biltze hura da, beharbada, orain beste eginkizun batzuetarako UZEIren inguruan gertatu den elkarganatzearen pareko.

Oro har, UZEI aski garrantzizko pausoa izan dela esango genuke; maila ezberdinetako ikasiak bildu ditu, elkarren osagarri; plangintza egingarri baten efikazia eman die taldeei; kulturak behar duen ekimen libreari bere esparrua utzi dio, ahal zuenetan lagunduz.

UZEIren *monopolioa* aipatu da: erakunde-bakartasuna horrela definitu nahi bada, bego. Baina hitz horrekin, errealitatea argitu baino desitxuratu gehiago egiten delakoan gaude. Historikoki eta sozialki talde askoren koordinatortarako jaio eta bizi den erakunde da gurea. Eginkizunak berak eskatzen du bat-izate minimo bat. Bestalde, normalizazioaren azpitik dauden erakundezko benetako arazoentzat irtenbideak ondoko bi galdera hauen erantzunetatik espero ditugu: a) Normalizatorako Erakunde bakarrak (edo ezberdinek, baina koordinatuek) nola egon behar du(te) botere publikoaren eskuetan? b) Euskal Herrian eta gaur egun, gaudenetan gaudenez, funtsezko Erakunde hori eta gizarteko

normalizazio-indarrrik dinamikoenak nola giltzatuko dira elkarrekin? Erantzunak ez daude, noski UZEIren baitan.

Kultur dinamika soziala eta Instituzio Publikoen erabakiak non eta nola elkarretaratu deliberatzea ez da UZEIren lana, baina Euskal Herriarentzat arazo nazional astuna, eta benetan arriskuz betea, gertatuko da.

5.4. Instituzioak

Euskararen arduradun dugun erakunde akademikoaren (Euskaltzaindia) eta Erakunde Publikoen aurrean UZEI behar zen begiramenduz jokatu duela uste dugu.

Euskaltzaindiaren erabakiak ahalik ongien onartu ditugu, eta, inoiz (berrikitan bezala), onarpen horregatik desegokiro erasoak izateraino. Hondarribiko agirira (1981-abendua-29), zer esanik ez, erabat ontzat ematen dugu: a) saiatuko gara haren gramatika-arauak egintzetara eramaten (nahiz eta behin baino gehiagotan leialtasun hau diru eta lan asko kosta); b) saiatuko gara hark eman ditzakeen lexikologia arauak ere onartzen; eta azkenik, c) prest gaude, horrelakorik eskatzen bazaigu, lankidetzazabal baterako prozedurarik egokienak bilatzeko.

Euskal Herriko Erakunde Publikoetan ezaguna da UZEIren jarrera: a) bildu den lankidego sozial zabala eskaintzen dugu; b) laguntza eske gaude, ustez betekizun publikoa daramagulako; c) betekizun horri, nolabait ere, nortasun publikoa dagokiola uste dugu guk, eta arazo honetan Erakunde Publikoen esanetara gaude.

“Euskal gizarteari egiten diogun proposamen bat bezala ikusten ditugu UZEIko lanak (eta beronen antolamendu soziokulturala). Proposamen hori, inork instituzionalki indartzekotan, Gobernuari eta Euskaltzaindiari dagokie egitekoa, hari bere eragin politikoarekin, eta honi, bere erabaki akademikoekin; sozialki, berriz, profesionalei eta euskaldun bakoitzari egiten zaien eskaintza da UZEIren lana” (UHG, I.5.4.).

Funts-funtsean, esango genuke, arazoa ez da UZEI, Euskal Herriaren hizkuntza nazionalari normalizazio-irtenbidea noiz eta nola emango zaion baizik.

6. [N. B.: Hogeita hamar urte geroagoko ondorio bat]

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da 2001az gero eta, ordutik, doankontsulta daiteke <www.euskadi.net/euskalterm> helbidean. Terminologia

Banku Publikoa UZEIK 1987an sortutako bankuaren oinarrian eratu zen eta, egun, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) kudeatzen du.

Hizkuntza eroso eta erraz erabiltzeko, baliabide eta tresna egokiak behar-beharrezkoak dira. Bizi diren hizkuntzak etengabe aldatzen dira, eta beraz, hizkuntzaren modernizazio- eta eguneratze-prozesua ez da inoiz amaitzen. Prozesu horrek bi arlo nagusi ditu: sorkuntza eta kontsumoa. Helburu horri jarraituta, azken urteotan EUSKALTERM elikatze eta eguneratzeko hainbat kontratu bideratu ditu Eusko Jaurlaritzak. Azken kontratua amaitu zenez, kontratu berria jarri zuen abian HPSk eta 2009ko abuztuaren 12an argitaratu zen iragarkia EHAAN (153 zk.).

Bankua publikoa denetik, EUSKALTERM mantentzeko lanak HPSk eta IVAPEk finantzatzen dituzte, sinatutako hitzarmenen bidez: HPSk %70 eta IVAPEk %30. Kontratu berriaren adjudikazioaren prezioa 1.241.200 eurokoa (BEZ barne) izan da eta kontratuko lanak hauek dira:

- Hiztegi berriak egin.
- Bankuko termino zaharrak eguneratu.
- Terminologia Batzordearen erabakiak integratu.
- Informazio-iturriak eta bankuko informazioa kudeatzeko beharrezkoak den informazioa hornitu.

UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroari esleitu zaio 2012ko abenduaren amaiera arte indarrean egongo den kontratua. Aipatu bezala, EUSKALTERM erabilera publikoko terminologia bankua da, Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina. Euskal terminologiaren normalizazioari eta zabalkundeari ekin eta eusteko, HPS eta IVAP EUSKALTERM etengabe elikatzen eta zabaltzen ari dira, eta lan hori Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planetan jasotako metodologia eta irizpideak jarraituz egiten da. Terminologia Batzordeak gomendatzen duen terminologia, hortaz, EUSKALTERMEN kontsultagai dago. Banku Publikoa tresna garrantzitsua da euskarazko terminologia berezitua behar duen edonorentzat. Horren isla da jasotzen duen kontsulta kopurua, adibidez, aurten [2009], uztailean 600.000 kontsulta inguru jaso zituen]¹.

¹ Zazpigarren puntu honetako testua, hitzez hitz, Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren *Euskararen Berripaperatik* jaso da (*Euskararen Berripaper*a 205, 2009ko urria, 1).

JOXE ANJEL IRIBAR EDO KIROL EUSKARAREN LEHEN PASADIZO ETA IBILERAK*

Jaun-andreok: Egun on!

Gipuzkoako Aldundiak euskal omenaldi bat egin nahi dio Joxe Anjel Iribar-i, gure belaunaldian, eta geroztik, hain maitea eta miretsia izan dugun kirolari eta gizonari.

Euskal omenaldia: hau da, berak izan dituen euskal kezkek eta bere gain hartu dituen euskalgintzako zereginak gogorarazi nahi dizkigu Aldundiak, eskueran dugun 25 urteko omenaldiurrenaren kariatara.

Orduan, modu batera edo bestera, tartean izan ginenok ziurki pozik bertuko ditugu gure orduko oroitzapenak, eta, seguru naiz, baita Joxe Anjelek berak ere. Besteak beste, aukera hartan giza eta gizarte-balio bereziak bizi izan genituelako.

I. 1980ko urte hura

1980ko maiatzaren 3In, larunbatez, jaialdi handia ospatu zen San Mamesen, futbol-zelai ederrean: J. A. Iribarri bere Athletic-ek agur-omenaldia egiten zion jai hartan.

Jaia ez zen izan Athletic-eko klub eta jarraitzaileena bakarrik; euskal gizartekeo tarte guztietatik bildutako jendea zegoen han: kirolzaleak, noski, baina baita kirolaz gehiegi arduratu gabe beste zereginetan zebilen hainbat lagun ere, Iribar gizona maite zutenak eta euskalgintzan lanean zihardutenak.

37 urte zituen Iribarrek orduan; horietako anitz Athletic taldean emanak. Ikusiko dugun bezala, garai hartako Euskal Herriaren aurpegi posibleetarik maitatuenetakoa zen Iribarrena hemen, eta ezagunenetakoa erbestean.

* J. A. Iribar-en omenaldiko hitzaldia (Zarautz, 2005-05-30). Testu argitaragabea.

Omenaldi hark bere testuinguru sozial eta historikoa izan zuen, eta horixe ekarriko dizuet lehendabizi gogora.

Gogora ditzagun orduko ardura eta bilakaera politikoak: 1980an gaude. Bost urte eskas da *difuntua* hilik dela (1975); hiru eta erdi, Erreforma-Erreferenduma egin zutela (1976, abendua); handik hilabete gutxira onartzen da Alderdien Legea (1977, martxoan), lehen hauteskundeak datoz (1977, ekaina) eta Amnistiaren Legea (urria). Artean, urte t'erdi zen Konstituzioa onartu zela (1978ko abenduaren 6an), eta 1979ko urriaren 25ean egin zen Erkidegoko Estatutuaren Erreferenduma. Azkenik, omenaldi-urte hartako (1980) urtarri-lean jarri zen indarrean Estatutu hori¹.

1980ko urte hartan, apirilaz geroztik K. Garaikoetxea zen Erkidegoko Lehendakaria (1980-1984), J. M. Makua Bizkaiko Ahaldu Nagusia (1979-1987) eta X. Aizarna Gipuzkoakoa (1979-1983). Madrilen A. Suárez da Gobernu-Buru (1976-1981). Laster dator Tejeroren Estatu-kolpea (1981, otsailaren 23an), eta hurrengo hilean (martxoan) LOAPA sonatua (*Ley Orgánica de Armonización del Proceso Autonómico*). Gauzak okertzera zihoazen, bada.

Aldi berean, urte hauetakoak ditugu euskal kirolarien lorpen handietako batzuk: Errealak bi Liga irabazi zituen (1981, 1982) eta Superkopa (1983); Athletic-ek Liga bi (1983, 1984), Kopa bat (1984) eta Superkopa (1985). Eta 1980ko maiatzaren 14an, arratsaldeko hiruretan Martin Zabaletak Everest-eko gailurra zapaldu ahal izan zuen, bere ikurrinarekin tontor hartatik “Gora Euskadi Askatuta” oihukatzen zuela.

Eta bien bitartean, zertan zebilen gure euskalgintza urte haietan (1975-1985)?

Euskaltzaindian, gizarteko hainbat eremutan (eskola, hedabide, etab.), politikan eta berehala Euskal Herriko parlamentu eta gobernuetan euskara aztergai eta erabakigai zen; sekula ez bezala, mundu guztiak zekien euskaldungoaren eskubideak nahitaez gizarteko oharmen eta borondate politikoek legetara eta egintzetara eramane beharko zituztela.

Euskararen hori guztiek hobeki ezagutuz, Euskaltzaindiak *Euskararen Liburu Zuria* prestatu eta argitara ematea erabaki zuen (Bilbo, 1978); arazoaren oinarri teorikoak edo jarri nahi izan zituen liburuak. Berehala, gizarterantz urrats berria emanez, *Bai Euskarari* kanpaina bideratu zuen, bere azken ekitaldian San Mamesen dozenaka mila lagun bildu zuena (1978). Ordukoak ditugu

¹ Langer, W. L., 1984, *Enciclopedia de historia universal. Desde la Segunda Guerra Mundial*, Madrid: Alianza Editorial, 2104 eta hurr.

antzeko beste ekimen batzuk ere: AEKren *Korrika* (1980), eta gure Herrialdeetako urteroko *Kilometroak* (1977), *Ibilaldia* (1980), *Nafarroa Oinez* (1981), *Araba Euskaraz* (1981) edo *Herri Urrats* (1984).

Bertsolariak ez daude lozorroan, eta urte haietakoek arrasto luzea utzi zuten gurean: Amurizak, adibidez, bi txapelketa irabazi zituen (1980, 1982), belaun berriaren hastapen gisara ikusi ziren sariak, jakina denez².

Aldizkari, liburu, eta hedabideen munduak ere borborrean ditugu 1975-1985. haietan. 1969an debekatutako *Jakin* aldizkaria 1976an hasten da berriro kaleratzen; argitaletxe gazteak beren lanean ari dira gogor: Lur (1967), Erein (1976), Elkar (Baiona, 1972; Donostia, 1978), *Jakin* bera (1970-1975). Hori baino lehenagotik *Elbuyar* aldizkaria ere abian da (1972)³.

Liburugintzak aldakuntza oparoa biziko du orduantxe: 1974ko 103 liburuak 1985ean 523 izatera iritsiko dira. Jauzi kuantitatiboa ez ezik kualitatiboa ere izan zitekeena hori⁴.

Hedabideetan euskararekiko politika berria sumatzen da: Herri Irratiak *24 Orduak Euskaraz* emanaldia antolatu zuen (1976ko martxoaren 27an). Bi ekimen publiko berriren eraginez aldatu zen hedabideen eremu hau: EITBK *Euskadi Irrati* eta *Euskal Telebista* abiaraztean (1982)⁵.

Irakaskuntzarena historia zaharragoa zen, hamabost-hogei urte lehenagotik zetorrena. 1975ean Ikastolak orduantxe iritsita dira beren heldutasunera, eta zerbait geroxeago, Estatutu aurretik ere hasita (1979) eta Estatutuari jarraikiz 1983an elebitasuna araututa, Herri-Eskolek ere euskara aintzakotzat hartuko dute. Denen artean, abian da sekula izan ez dugun euskal eskolagintza⁶.

² Dorronsoro, J., 1988, *Bertsotan II. 1936-1980*, Donostia: Gipuzkoako Ikastolen Elkarte, 68, 202. Aulestia, G., 1990, *Bertsolarismo*, Bilbao: Diputación Foral de Bizkaia, 141, 213-230.

³ *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*, 1995, Donostia: Harluxet Fundazioa.

⁴ Intxausti, J., 1990, *Euskara, euskaldunon hizkuntza*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 171. Torrealdei, J. M., 1993, *XX. Mendeko euskal liburuaren katalogoa. I (1900-1992)*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, xiv-xv; ikus autore beraren urtez urteko *Jakin*-eko berriemateak.

⁵ *Euskara, euskaldunon hizkuntza* liburutik jasotako datuak.

⁶ Hezkuntza saila, 1990, *Euskal Irakaskuntza: 10 urte*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 9-14. Hemen aipatzen ez ditugun EGA eta IRALE programak ere gogoan hartu behar dira; ikus ondoko bi liburuak: *Euskararen gaitasun agiria. Programa*, 1982, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza eta Irale. *Aurkezpen-txostena*, 1985, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Euskaldunek –herritar xumeek, eta era berean jakitunek– euskara erabilia eta modernitatean erabilia ikusi eta bizi nahi dute. Euskaltzainditik hasitako alfabetatzeak (1968) bere bidea egin zuen, eta AEK eratu zen (1979). Zerbait geroago, Jaurlearitzak ere eskaini zion Erakundeetan bere irtenbidea alfabetatze lanari, eremu honetako EAEko politika HABE erakundearen bidez bideratzean (1981, 1983)⁷.

Hau dena ari da gertatzen hamarkada hartan (1975-1985). Guztiok ere legezko aterpe orokorren bat behar eta 1978ko Konstituzioaren 3. artikulua bidetik eta Estatutuak zioenaz baliaturik (6. art.), EAEan *Euskararen erabilpena arauzkotzeko Legea* onartu zen (1982). Nafarroak, zerbait beranduago, Foru-Hobekuntzaren gain (1982), *Euskararen Legea* onartu zuen (1986)⁸.

Geroago ikusiko ditugunak beren lekuan emateko, egoki da hemen UZEI aipatzea, 1977ko abuztuaren jarri baitzen abian egitasmoa eta 1978an eman baitzitzaion bere nortasun juridiko finkatua. Hortaz, 1980rako ibilaldi bat behintzat burututa zuen.

Hemen ez dagokit guztiaren balioespenak egiten hastea, baina garaiko euskal giroa adierazi eta data haietako gertakari esanahitsuenak ekarri nahi izan ditut hona, ekitaldi honetan bildu garen askok gure heldutasunean bizi izandako gertakariak gogoratzeko. Besterik ez.

2. J. A. Iribarren bizi-zertzeladak

Azaldutako testuinguru horretan ezarri behar da Iribarren kultur keinua, euskararen aldeko omenaldikoa; baina, aurrera baino lehen, gizonari begiratu bat eman behar diogu, Joxe Anjeli berari⁹.

Iribar 1943ko martxoaren Iean jaio zen, Zarauzko Makatza baserrian; gaur egun 62 urte ditu, bada. Hau ere *gaztetu* zaigu! Itxura guztiz, nekazari-tornularitarako zihoan gure mutikoa, baina, gauzak halaxe etorririk, futbol-zelaiak nahiago izan zituen.

⁷ *Euskara, euskaldunon hizkuntza*, 176-179.

⁸ *Euskara, euskaldunon hizkuntza*, 194-198.

⁹ Hemengo albisteen iturriak bi dira: J. A. Iribar bera, eta *Marca* aldizkariaren ale berezia: Linares, M. A. et al., 1994, "Athletic, orgullo de una afición. Iribar, un mito bajo los palos", Madrid: Recoletos Cía. Editorial, [Fascículo 9]. Eskerrak Iñaki Elortza-ri argitalpena eskuratu didalako, eta eskerrak Iribar jaunari eman dizkidan albisteengatik.

Gazte arteko ikasketak Zarautzen bertan egin zituen Joxe Anjelek: lehen ordukoen ondoren, lehenengo La Sallen (1949-1957) eta tornularitarakoak Antoniano Ikastetxean gero (1957-1961).

Horretan zebilela, La Salleko futbol-taldetik Zarautz gazte-taldera pasatzeko aukera izan zuen, hamabost urte zituela (1958). Bidea hasirik zuen, hortaz; baina, artean, etxeko emakumeek futboleko jokatzeko hori ez zuten batere argi ikusten (izan ere, etxeko mutil bakarra zen bera), ezta Baskoniak (Basauri) taldera joateko aukera eman zionean ere (1961eko udazkena). Konfiantzazko urtebeteko proba-epa eman zioten, azkenean, familiako baserrian, eta Basaurira joan zen. Une erabakigarria gertatuko zen berau.

Baskoniarentzat urtealdi miragarria izan zen 1961-1962ko hura: lehenengo, Kopako kanporaketan lehiatik at utzi zuen Cartagena, eta aurreko bi urteetan Kopako txapeldun izaniko Atlético de Madrid ere kanpoan geratu zen, hiru kanporaketa-partida jokatu ondoren. Azkenik, Barçak irabazi egin zion Baskoniari, baina partidez ongi baliatu zen Iribar, bere abilitadeak eta trebezia erakusteko egokiera izan baitzuen. Jada jendearen ahotan zebilen kirolari gaztearen izena (21 urte), eta Athletic-ek txanpon ederrak ordaindu behar izan zituen zarautzitarra Basauritik Bilbora eramateko. Dena dela, familia pozik: 250.000 pezetako urteko fitxa, eta hilero 5.000ko soldata (1962-1963).

Bidea urratuta zegoen, eta luzarorako, gainera: 18 urte emango zituen Athletic-en (1962-1980) eta 12 Espainiako Selekzioan (1964-1976); hau da, Ligako 466 partida, Kopako 93, Kopako Txapeldunen Kopako 6, Ferias Kopako 26 eta UEFAko 23; bestalde, Selekzioan 49 aldiz jokatu zuen. Horien ondoan Joxe Anjelek oroitzapen maitea du San Mamesen jokatuako Euskadi-Irlanda partidarena, hain zuzen *Bai Euskarari* kanpainaren barruan jokatuarena (1978).

Garaipen handien artean daude Europako titulu bat (Madril, 1964), bi Kopa (1969, 1973), eta batez ere une larrietan egindako lan paregabea, partida galdu arren jokaldi gogoangarriak egindakoak: Zaragoza (1966), Ferencvaros (1965) eta Juventus-en (1977) kontra, adibidez.

Real-ak eta Athletic-ek jokaturiko omenaldiak eman zion amaiera jokalarriaren historia honi, betiere gerorako euskal kirolaren zerbitzuan geratuz, noski, Athletic-en bezala Euskal Selekzioan.

3. Euskararen aldeko omenaldi-agurra

Bizitzako bere jokalaria-garaia amaitzean, esan bezala, omenaldia eskaini zion klubak (1980-05-31, larunbata)¹⁰, eta Iribarrek berak eskatuta Realak izan zen Athletic-en partida hartako aurkaria (Athletic-ek 1 eta Realak 3, bukatu zen partida). Joxe Anjelek ez zuen jokatu. Gutxi gorabehera, 30.000 ikusle bildu ziren San Mamesen¹¹.

Adierazita zegoenez, bildutako dirua euskarari laguntzeko izango zen, eta hain zuzen kirol-munduko euskararen erabilera sustatzeko. Omenaldiak bere ikurra esaldi labur batean bildu zuen: “Euskara eta Kirola”. Omenduak berak zelaian esan zuenez, “Euskarak irabazi du. Eskerrik asko”.

Bi zeregin nagusitara zuzenduko zen bildutako dirua:

- Ikastoletarako filma egitera (Bertan Filmak egin zuena), eta
 - Euskararen corpusean kirol-lexikoa garatzera eta berori gizarteratzera.
- Azken honetaz esan behar dut hemen zerbait.

Hiztegigintzarako, tartean zegoen, noski, giza baliabideen arazoa: *nork* landuko zuen hiztegia, eta *nork* zabalduko gizarteko gune erabakigarrietara? Beste gisa batean esanda: hiztegia eta bere erabilpen praktikoa segurtatu nahi izan ziren, aldi berean, eta hori dena egingarri izan zedin, terminologi lanean jardutekoak gai izan beharko zuten gero berorren erabilera segurtatzeko, eta kalitatez segurtatzeko. Oro har, lekurik behinena emango zitzaien kirol alorreko jakitunei, eta lanerako lankideak profesional teknikariak izan beharko zuten batik bat.

¹⁰ Bide batez bada ere, aipatu beharra dago Omenaldirako Batzorde bat egon zela, eta beronen esanetara egin zirela gauzak. Aurman publizitate-etxeak eraman zituen ardura teknikoak, *Bai Euskarari*-rekin egin zuen bezala; beronen jabeetako bat Aurtenetxe jauna zen, gerora Athletic-en lehendakari izango zena. Talde arduradun guztien koordinazioa Bittor Artolak eraman zuen.

¹¹ Ikus 1980-06-01 igandeko kroniketan partida honen albistea: Baños, J. J., “Athlétic y Real le dijeron adiós con goles”, *Deia* 1980-06-01, 32; Alonso, J., “Iribar: No esperaba tanto. Eskerrik asko”, *Deia* 1980-06-01, 40; *Eginek* lehen orrialdean zera zioen: “Iribar recibió en S. Mamés el homenaje de su pueblo. La Real venció 3-1 al Athlétic, que se había adelantado en la primera jugada. El euskara y el deporte vasco recibieron una inyección de 12 millones”; Irazusta, T., “La Real volvió a superar al Athlétic”, *Egin* 1980-06-01, 23.

Eginkizun guztia burutzeko 10.992.963 pta. zeuden mahai gainean¹², lantaldea ordaindu, baliabide bibliografikoak bildu, mota guztietako lanabes teknikoak eskuratu, kirol erakunde eta elkarteekin harremanak mantendu, eta guztiekin batera lankide ikertzaileen eta gizarte-hedatzaileen lana egiteko.

Omenaldiak, beraz, ez zion utzi Iribarri sosik, dena euskararentzat, berau sustatzeko izan zen, eta, zehazkiago oraindik, ahal zen punturaino Euskal Herriko kirol mundua eta jarduerak euskalduntzeko.

Nik ezagutzen ditudanetatik, erabaki eta jokabide hau bakana ez ezik guztiz banakoa izan da, izan ere herritar soil batek, gehienbat inguru oso erdaldunduan jardun behar zuenak, bere ogibidea zuen lan-munduari sakela pertsonaletik hartutako diruz euskalduntzen lagundu nahi izan zion, nahi eta egin.

Zorionez, gaur egun hainbat enpresak ere lantegiaren euskalduntzea bere bizkar hartu du, inoiz ez bezala, baina Iribarrena ez zen enpresa-dirutik egina izan, bere kontu korrontea gizentzeko eskubide osoa albora utziz baizik. Eta orain dela mende-laurden, gainera.

4. UZEIKO lana: hiztegia eta taldegintza

Gauzak eginez joan ziren moduan, Iribarren erabakiak eta kirol hiztegiak abiarazitako egitasmoak hiru une ezberdin izan ditu:

- Corpusa lantzea, tradizioa eta premiak uztartuz.
- Zeregin horren bidez esatari eta idazleak kirol hizkeran gaitzea.
- Kirol hizkera berezitua gizarteratzea.

4.1. Corpusa lantzen

Corpusari buruz lan gaitza egin zen¹³, fitxaketa zabal baten bidez alor horretan egon zitekeen euskarazko tradizioa bilduz (*Herria, Z. Argia*, Basarri-ren kronikak, *Egin* eta *Deiako* artikulua, herri kirolak...). Emaitza: 9.000 fitxa eta ehunka esamolde. Langai hauetatik egindako lexiko-hautapena gaur egun

¹² Athletic-ek 1980ko azaroan 10.055,794 pta. pasatu zion UZEIRI; gainerakoa, kopuru haren interesatzaile izan zen. UZEITIK ordaindu ziren Bertan Filmeak eta Aurman-ek egindako lanak ere (3.550.396 pta.). Ikus UZEIKO artxiboan "Kirol-hiztegia. Lanak, gastuak" txostena, 1982ko apirilaren 20koa.

¹³ UZEIKO Zuzendaria den Imanol Urbietari eskerrak eman behar dizkiot, Erakunde horren artxibotik pasa dizkidan albiste eta paperengatik.

Euskaltermen dago nornahirentzat eskueran: 3.537 termino dira banku terminologiko horretarako berretsi direnak.

Euskarazko tradizioan bilaketa hori egiteko, beste hizkuntzetako hiztegiak begiratu eta aztertu behar izan ziren lexikoaren edukien aldetik eremua mugatu eta gure premietara moldatzeko.

Bestalde, UZEIN bertan ordurako bildutako hiztegietan ere egin zen bilaketa hori, gainerako alorretatik baliagarri eta beharrezko zenaz baliatu ahal izateko: Medikuntza, Zuzenbidea, etab. Hala ere, beste alorretako hitz hauen kopurua oso apala da (108, denetatik %3)¹⁴, hortaz, bereziki kirolerako landutakoak dira gehienak.

Baina, hitzak hitz, corpusaren lanketa ez zen, inondik ere, terminoetara mugatu, eta garrantzizko beste bi eremutan ere egin zen lan: testu idatzieta eta saio mintzatueta. Lehenengo ahalegin horren emaitza da UZEIN dagoen testua, testu idatzi arrunta: orotara 1.200en bat orrialde dituena.

Bere aldetik, mintzatuarenak saio *xelebre* batzuen historiara garamatza. 1978-1982. urteetan, euskarazko kirol hizkera mintzatuak zituen eskasiak, ajeak eta ezinak ikusita, eta hiztegiak, idatzian bezala edo areago, hizkuntza mintzatuan ere bere lekua izan behar zuela jakinik, Iñaki Elortza aparejadorea (1980ko urrian talderatua berau) Atotxako futbol-zelaira joaten hasi zen, bertatik “irratsaio birtualak” edo egitera. Laster lortu zuen, gainera, zinezko kazetarien ondoan jarduteko Realaren baimena. Hortaz, inorentzako ezean zihoazen igandearratsaldetako emanaldiak esan eta grabatu ondoren, astelehenetan bildu ohi zen lantaldea *Gordailun* Iñakik harro-harro zekarrena miatzeko. Halako batean Jaxintok zera esan omen zuen: “Hi, Txapas, honek erdarazkoen parean ez dik, mutil, lotsaizunik!”. Taldea indarra hartzen ari zen... , lagun langileei esker. Eta aparejadorea kazetari bihurtzeko arriskuan zegoen...

4.2. Kirol munduarekin

Corpusaren lana abian jartzean, hasieratik bertatik pentsatu zen kirol munduko jendearekin lan egin behar zela batez ere, ekar zezaketen ezagumendugatik eta gerora ere, langaiak gizarteratzeko eskuak eta buruak beraiek izan behar zutelako. Lantaldeak, bada, gaitasun berria irabazi behar zuen euskaraz kirolari buruz mintzatzeko nahiz idazteko, eta horren gain hasi hizkera berri/berrituaren hedapen soziala.

¹⁴ UZEITik Mila Larreak emandako datuen gainean (eskerrik asko berari), neuk kalkulatu.

Antton Anasagasti jaunari (INEFen lizentziaduna eta kirol-taldean zuzendaria bera) eman zitzaion hiztegiaren zuzendaritza. UZEIN bertan ari zelarik, Gorka Reizabalek lotu zituen bertako egoitzatik kanpo ari ziren lankideen harremanak: lexiko-taldekoak bezala testu-idazleak; lexiko-bilketako taldean, Jaxinto F. Setien izan zen konfiantza beteko bermea eman zuena.

Ondoko hauek osatu zuten euskal tradizioa biltzen lan egingo zuen taldea: Iñaki Elortza, Juan M. Agirre, Lilian Hirigoien, Mikel Albisu, Koro Etxeberria, etab. Laster etorri ziren Jerardo Puente (gaur ETBN ari dena), Andoni Iraola (orain Realeko prentsa-arduraduna), Joxerra Aiartza, Mikel Gereka. UZEIKO ohiko langile aholku-emaileetatik, bakoitzak bere alorretik eta ezagutzetatik hartu zuen parte (J. Agirre medikuak, Joxe Mari Aranburu arkitekto eta errugbilari ohiak, eta abarrek).

Kirol mundutik ere inguratu zen aholku-emailerik, edo idazlerik: Joxe Mari Imaz (Atletismoko Federazioko lehendakaria), Joseba Artzak (Futbol Federazioko lehendakaria), Joxe Antonio Irulegi (entrenatzailea), Xabier Azkargorta (gerora, nazioarteko gure entrenatzailea), Txarles Etxezaharreta (Xarlo, kirol irakaslea), Felix Erdozia (arraunean aditua) edo Ramon Etxezarreta (txirrindularitzan), Andoni Egaña, etab. Guztiek ekarri zuten beren jakitatea, nahiz eta aholkuak emateko, orduko euskararen pendiza oso pikoa izan alor honetan.

Taldeak eta beren arteko lankidetzak eratu ondoren, kasik berez etorri zen lankideen gaikuntza, norberak lehendik zekarren trebakuntzaz gain, taldeko lanak erakutsi ziena gehituz eta gaikuntza hartarako ariketa kritiko-praktikoak eginez.

Gordailun bilduta lanean jardun zuen taldea zinezko *eskola* izan zen han ibili zirenentzat, eta batek baino gehiagok ondoko bizitza profesionalerako hautapena han egin zuen, hori *eskola* haren gizarte-luzapena gertatu zelarik.

Gordailukoa burutzean, UZEIKO egoitzara hurbildu ziren lankideak, bertako irizpideak eta metodoak erabiltzeko: bertatik bertara eta elkarrekin lan egin zuten orduan bilketa-taldeak, Antton Anasagastik, Andoni Sagarnak eta Jabier Agirrek, eta kanpotik deitu genituen kirol kazetari eskarmentatuek (Jose Mari Iriondok, adibidez).

Nire ustez, Mediterraneoan asmatzen ibiltzeke, euskararen modernitatea nola bultzatu zitekeen ere erakutsi zuen hark, lankidea hirugarren urratserako prestatuz.

Lehen ekinaldi haren eta ondoko lanen emaitza bezala hartu behar dira kaleratutako bost liburuak: *Kirolkidea* (1982: 15 kiroletako hiztegia), *Futbola* (1985, 1994), *Pilota* (1994), *Atletismoa* (1994), *Txirrindularitza* (1996), eta bukatuta IVEFEN eskuetan dauden biak: *Eskubaloia* eta *Saskibaloia*. Berrietako termino-multzoko handienak honela banatzen dira:

Kirolak	Terminoak
Kirola, jokoa, aisia	938
Futbola	774
Eskubaloia	510
Txirrindularitza	475
Atletismoa	461
Saskibaloia	421
Pilota	413
Arraunketa	61
Errugbia	40

Libururik gabe ere, nornahik du gaur terminologia honetarako sarrera, Internet-en bidez: <www.euskadi.net/euskalterm>.

4.3. Hiztegiaren hedapen soziala

Kirol-hizkeraren hedapen soziala. Egindako lan horren ondoren, hirugarren egiteko hau izan da, zalantzarik gabe, Hiztegi Egitasmo honen lorpenik harrigarriena. Hogeita bost urte eskasetan, euskarari kirol hizkera berria eman zaio (lehenagotik egon ez zegoena); jakitun zirenek sormen egokia erakutsi zuten, eta euskal hiztunek (oro har eta eremu berezitutik kanpo ere bai) proposatua bereganatzeko irekitasun bizia. Gizarteratzearen segida horretan, berriz, gizon-ema-kume anitz egon da, noski. Denak aipatu ezinda, batzuk bederen aipatzen ausartuko naiz (ezinbestean ahantziko ditudanei alde zurririk barkamena eskatuz).

Guztiok ezagutzen duguna da, noski, hedapen sozialean kazetari jakin batek egin duen ekarria, berak pertsonalki lan ederra eta oso duina eskainiz eta bere inguruan lagun eta lankideei lagunduz: Iñaki Elortza jaunari buruz ari naiz.

Izan ere, historia honetan gertatutakoen erantzuleak hiru izan dira bereziki: hasieran eta beti Joxe Anjel Iribar, iker-taldea eramaten Jaxinto Fz. Setien, eta geroko lanean, egunero eta eskuzabal, “Txapas”, Iñaki.

Euskal kazetaritzako unerik behinenetakoa izan zela uste dut 1980-1985eko hura, aurreko Irratietatik jasotako eskarmentua irrati-telebista publikoetara bildu zena, eta, hain zuzen, kirol munduan euskararen premiak eta ahalmenak bat etorri ziren unea. Beharbada zehazkiegi mugatuz, baina esan dezagun Iribarren borondateak, Elortza eta hainbat kazetariren profesionaltasunak eta komunikabideen baliabideek eman diotela euskarari 1980a arte ez zuen kirol hizkera.

1981eko neguan Donostiako Herri Irratiak egunero sei ordu euskaraz emateko hitzarmena sinatu zuen Eusko Jaurlaritzarekin, 1982ko apiriletik

aitzina indarrean jarritako egitaraua; orduan ikusi ahal izan zen (Joxe Mari Otermin horren lekuko) zein eskasa zen euskara ur handi haietan zernahi eremutan ibiltzeko, eta zein apala zen profesional euskaldunen trebakuntza.

Ordura arte ezinezkoa gertatu zena, sortu, erabili eta hedatu egin dute belaun honetako kazetariak eta kirol hezitzaileak. Gipuzkoako Aldundiak berak <gipuzkoeuskara.com> orrian du “Kirola Euskaraz” programa ere, kirolarekin zerikusia duen oro euskaraz bizitzen laguntzeko.

1981eko hasiera hartantxe zebilen bereak egiten Iñaki Elortza Atotxako zelaian: berak dioen bezala, “Fruta-Merkatuko atearen ondotik partidak neure buruari UZEIRENTZAT ematen”. Herri Irratira joan zen berehala Iñaki, Oterminen deituta, eta gerotxoago Euskadi Irratira, eta luzaro gabe katebegiak gehituz joan ziren, kazetari berriekin, emanaldi berrien bidez, baliabide handiagoekin.

5. Ondorioztatuz

Hogeita bost urte joan dira, azkar joan ere, baina berez ezer gutxi (edo asko) da denbora-epe hori hizkuntza baten historian eta baita euskararenean ere.

Eta gatozen Iribarrengana.

Bihotz-zabaltasunez eta gizartean ongi txertaturik doan gizabanako herri-tarrak une pribilegiatu batean norainoko kolpea jo dezakeen ikusten dugu kasu honetan. Agerian dago, ez dela dena egin, urrats berri asko eman behar dela kirol mundua osorik euskalduntzeko, baina baliabide teknikoak, borondatea eta ondoko ahaleginen oinarriak jarri dira.

Joxe Anjelen lehen ekimen hark abiarazi zuen hori, eta eskerrak zor dizkio-gu, berari eta asmo hari leial erantzun diozuenoi, kazetarioi batez ere.

Emaitzak hor daude.

Hasi eta urte gutxi pasatu orduko, Iñaki Elortzak Lazkaon entzun omen zien futbolearen erdaraz ari ziren mutiko goierritarrei: “Nooo, que eso es un *alboko sake*”. Esaldiaren erdia irabazita genuen, ikusten denez.

Falta denari heldu behar zaio oraindik ere, “Ezetz, hori *barruko sakea* dela” esateraino: alegia, osorik geurean geu izateraino.

Zarautz, 2005eko maiatzaren 30ean

AURKIBIDE OROKORRA

<i>Hitzaurrea</i>	11
EUSKARA, IALGI HADI PLAZARA	
<hr/>	
<i>Oharra</i>	17
Talde euskaltzaleen garapen historikoaz (XVI-XX. mendeak) [1998]	19
0. Sarrera-oharra	19
1. Lantalde euskaltzaleak	20
1.1. Lantaldeen iratzartze berantiarra	21
1.2. Lantaldeen historiaurreaz oharra	23
1.3. Etxepareren historia <i>isolatua</i> (1545)	24
1.4. Leizarraga eta leizarragatarrak (1563-1571)	26
1.5. Donibane-Sarako Eskola (1617-1643)	31
1.5.1. Axular, “konpainia onean”	33
1.5.2. Gidari eta ereduak	34
1.5.3. Talde-lagunen ideia eta jarrera linguistikoak	36
1.6. Euskal Herriaren Adiskideak (1764-1794)	42
1.7. Eusko Pizkundeko taldeak (1876-1936)	52
1.7.1. Hizkuntzaren aldeko elkarteak	54
1.7.2. Aldizkari-inguruko taldeak	56
1.7.3. Elkarte erlijioso, kultural eta politikoetakoak	57
1.7.4. Ikertzaileen lantaldeak	59
1.7.5. Iker-harreman sareak	60
2. Oharrak lan honen mugez	61
2.1. Aro Modernoaz	61
2.2. Eusko Pizkundez	62
BIBLIOGRAFIA	63

Euskararen kontzientzia eta eskea, XVI-XIX. mendeetan [1985] . . .	71
1. Errenazimentuko egokiera	71
1.1. Latina ala herri-hizkuntzak?	71
1.2. Gramatikari eta apologistak	72
1.3. Estatuaren hizkuntza <i>nazionalak</i>	74
1.4. Literatoen kontzientzia	76
2. Pizkunde eta Erreformaren ildotik	77
2.1. Etxepare, lehena eta argiena (1545)	77
2.2. Protestantismoaren aukera: Leizarraga	79
2.2.1. Erreformaren egitaraua	79
2.2.2. Joanes Leizarraga (1571)	81
3. Bigarren jaiotza (XVII. mendea)	82
3.1. Euskal idazleen kontzientzia hartzea	82
3.1.1. Etxeberri Ziburukoa	83
3.1.2. Pedro Agerre <i>Axular</i> (1643)	85
3.1.3. Sylvain Pouvreau	88
3.1.4. Arnaut Oihenart (1638, 1657)	89
3.2. Erakundeak hizkuntzen aurrean	91
3.2.1. Eliza katolikoa	91
3.2.1.1. Hierarkia eta elizgizonak	91
3.2.1.2. Erakundea	92
3.2.2. Euskal Herri-Erakundeak	95
4. Hegoaldea ere hizkuntzaren bila (1700-1839)	97
4.1. Etxeberri Sarakoa, mendearen atarian	99
4.2. Larramendi, kontzientzia berriaren gidaria	104
4.3. Aita Agustin Kardaberaz (1703-1770)	107
4.4. Euskal Herriaren Adiskideak	108
4.5. Aldi berrien bidegurutzean	110
5. XIX. mendeko euskararen kontzientzia	111
5.1. Krisiaurreko kontzientzia (1800-1833)	111
5.1.1. Juan Antonio Mogel (1745-1804)	112
5.1.2. Jose Paulo Ulibarri (1775-1847)	115
5.2. Krisialdia (1833-1876)	116
5.2.1. Juan Ignazio Iztueta (1767-1845)	117
5.2.2. A. Pascual Iturriaga (1778-1851)	118
5.2.3. Poesia, jakitatearen bila	122
5.2.3.1. Hizkuntza, olertian	122
5.2.3.2. M. Hiribarren (1810-1866)	122

5.2.3.3. J. M. Iparragirre (1820-1881)	124
5.2.4. Jakitunen inguruan	125
5.3. Eusko Pizkundearen lehen pausoak (1876-1900)	127
5.3.1. Taldeak. Ekintzak	127
5.3.2. Arturo Campi3n (1854-1937)	128
5.3.3. Sabin Arana Goiri (1865-1903)	131
5.4. Ehun urte berri	133
6. Azken begiratuan	134
Un siglo de historia socio-literaria vasca. A prop3sito de <i>Orixe eta bere garaia</i> (c. 1860-1960) [1993]	137
1. <i>Idazlan Guztiak</i>	138
1.1. Los tres vol3menes de escritos	138
1.2. Estudios sobre la obra de N. Ormaetxea, <i>Orixe</i>	140
2. Rasgos y contenidos del volumen <i>Orixe eta bere garaia</i>	141
2.1. Ordenamiento de materiales	143
2.2. Contenidos m3s destacables	144
2.3. Criterios metodol3gicos	147
2.4. Los logros	150
Euskararen ofizialtasuna. Aurrekari historikoak [2007]	153
0. Iraganeko zenbait egokiera	153
1. Ofizialtasunen gaurkotasuna	154
2. Euskaldungoa botere ezberdinen artean	155
3. Gure une historiko gomutagarriak	155
3.1. XIII. mendeko Administrazioan	156
3.2. Errenazimentua eta Erreforma erlijiosoak	157
3.3. Hamazazpigarren mendean	158
3.4. Hegoaldeko XVIII. mendea	161
3.5. Frantziako Iraultza eta Liberalismoa	162
3.6. Karlismoa eta euskara	164
3.7. Eusko Pizkundera	165
3.8. Gerraostean (1937-1975)	168
4. Begiratu orokor batean	170
BIBLIOGRAFIA	171
Euskal almanaka eta egutegiak (1815-2007) [2008]	173
1. Urtealdi oroko aldizkariak (1848...)	173

1.1. Liburu gisako almanakak (1848-2007)	174
1.2. Egutegi-takoak (1898-2007)	177
1.2.1. Egutegi-tako sabindarrak (1898...)	179
1.2.2. Euskal-Esnalearen asmoa (1909)	180
1.2.3. López-Mendizabalen leialtasuna (1910-1936)	181
1.2.4. Iparraldean ere (...1933...)	183
1.2.5. Azken mende-erdiko egutegi-takoak (c. 1950...)	184
1.2.5.1. <i>Eskualdun Gazteriaren Almanaka</i> (c. 1950...)	184
1.2.5.2. <i>Erri-Egutegia</i> (1974-1976)	185
1.2.5.3. Euskerazaleak Alkartearen Egutegia (1981...)	185
1.2.5.4. <i>Argiaren Egutegia</i> (1992...), eta beste	186
2. <i>Arantzazuko Andre Mariaren Egutegia</i> (1947...)	188
2.1. Zenbait argitaratze-gorabehera	189
2.2. Bizkaierazko Arantzazuko egutegia (1952-1981)	190
2.3. Ingurune soziohistorikoa	192
2.3.1. Gerrate eta gerraondo hutsak (1936-1946)	193
2.3.2. Frantziskotarren Prentsa herritarra (1910-1960)	193
2.3.3. Santutegiaren erakarmen landua	195
2.4. Produktua eta lankidetzak Erakundearen barnean	196
2.4.1. Produktua	196
2.4.2. Lankideak	196
2.4.3. Baldintza instituzionalak	197
2.5. Egutegiaren hedapena	198
2.5.1. Ekarpen zenbakarria	198
2.5.2. Azken urteetako zabalkundea	199
3. Azken oharpenak	200
ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA	202
1. Iturriak (liburutegi eta artxiboak)	202
2. Euskal egutegiei buruzkoa	202
3. Euskal almanaka eta egutegiak (urtez urte)	203
4. Arantzazuko Egutegiari buruzkoa	210
Herrietako euskararen bizibideez: Segurako kasua [2003]	213
1. Euskara, Hiribilduko hizkuntza	214
2. Udaletxearen hizkuntza politika	216
2.1. Medikua hautatzean	217
2.2. Maisuak hautatzean	221
2.3. Euskararekiko jarrera politikoak (...-1910)	222

3. Eusko Pizkundeko bide berrietan	223
3.1. 1910eko estropezua eta aurrerapausoa	223
3.1.1. Lehen Udal Bilera: ezezkoa	224
3.1.2. Herritarren ezusteko jarrera	227
3.1.3. Herritar zergapeko zuzenen bozketa	229
3.2. Segurako Euskal Jaiak (1911)	231
3.3. Zenbait erabaki xume (1915-1930)	234
3.4. <i>Euskal Aur Eguna</i> (1930)	235
4. Gerratea eta frankismoa (1936-1975)	237
5. Bertsolari, idazle eta ikertzaileak	239
5.1. Bertsolari segurarrak	239
5.1.1. Joakin Luzuriaga, <i>Segurako Itxua</i> (1824-????)	239
5.1.2. Jose Insausti (1935-)	241
5.2. Euskal idazleak	243
5.2.1. Jose Ignazio Gerriko (1740-1824)	244
5.2.2. Luis Astigarraga (1767-1840)	249
5.2.3. Jose Antonio Azpiazu (1800 - c.1875/1880)	250
5.2.4. Joan Bautista Aierbe (1859-19??)	252
5.2.5. Jesulagunak: Lardizabal, Zubiaga, Goena	255
5.2.6. Euskal kazetariak: Prentsa, Irratia, Telebista	259
5.3. Ikerkuntza: Pello Agirre	260
6. Atzera begiratu laburra	261
BIBLIOGRAFIA	263

 1950.ETATIK URTEEN HARIAN

<i>Oharra</i>	267
<i>Euzko-Gogoa eta Zaitegi [1979-1980]</i>	269
1. <i>Euzko-Gogoaren lankideak</i>	269
1.1. Jokin Zaitegi bere testuinguruan	271
1.2. Orixe, idazkaria	277
1.3. Andima Ibinagabeitia	279
1.4. Lankideak nonahitik	282
1.5. Lankideak, oro har	284
2. Hamar urteko lana (1950-1959)	285
2.1. Zer nahi zuen <i>Euzko-Gogoak?</i>	285
2.2. Zer izan zen <i>Euzko-Gogoa?</i>	296

2.3. Aldizkariaren zabalkundea	302
3. Tradizioaren eta moderniaeren artean	308
BIBLIOGRAFIA	310
Eranskina: Izenordeen azalpena	312
1956: Urte mugarri bat [1981]	315
1. Euskaltzaindiaren Biltzarra: Arantzazu (1956)	316
2. <i>Euskal Batzar Orokorra</i> : Paris (1956)	323
3. Literatur kritika	328
<i>Jakinen historiaurrea: abertzaletasuna eta euskara [1981]</i>	331
1. Gerraondo politikoaren mugarriak (1937-1953)	331
2. Proiektu politiko berriak? (1954-1956)	333
3. Abertzaletasun berrituaren hizkuntz eskakizuna	335
4. Eliz ikastetxeetako kultur giro hurbila (1950-1956)	340
BIBLIOGRAFIA	349
<i>Jakin (1956), aurreko eta berehalako testuinguruan [2007]</i>	351
1. Bi hamarkada kontrajarri: 1940koa eta 1950ekoa	352
2. 1956ko euskalgintza-ekimenak	359
2.1. Argitalpenak	359
2.2. Hizkuntzaren aldeko ekimen sozialak	362
2.3. <i>Jakin</i> : elkertasunen emaitza	363
3. Ondorioak	366
BIBLIOGRAFIA	369
<hr/> MODERNITATEAREN HALABEHARRAZ <hr/>	
<i>Obarra</i>	373
Terminologiaz [1981]	375
1. UZEIren terminologia lana	376
1.1. Hauxe da UZEI	376
1.1.1. Historiaurrea eta ingurua	376
1.1.2. Asmoa eta proiektua	378
1.1.3. Erakundea	378
2. Zergatik eta zertarako UZEIren hiztegiak?	381
2.1. Premiak hor daude	381

2.2. Hiztegi berezitu eta sailkatuen beharra	382
2.2.1. Honelako hiztegien beharra sozialki justifikaturik da- goela uste dugu	382
2.2.2. UZEIren lankidetzaren profesionalak osatzen dute	382
2.2.3. Oinarrizko hiztegia, teknikoaren aurretik joatea ez da derrigorrezkoa	383
2.3. Hiztegien behin-behinekotasuna	384
3. UZEIren hiztegiek zer balio dute?	385
3.1. Testua eta lexikoa batean	385
3.2. Lexiko teknikoaren berezitasunak	386
3.3. Lexikoaren sorkuntza UZEIn	386
3.4. Lexiko-bilketa	387
3.5. Euskara/Erdarak	388
4. UZEIren giza-kapitala	389
4.1. Talde-lanen koodinazioa	390
4.2. UZEIren profesionaltasuna	391
4.2.1. Jakintza-sail batean gaitua edo espezialista izatea	392
4.2.2. Euskaraz jantzia izatea	392
4.2.3. Taldean lan egin eta euskal kulturaren dinamikan sar- tzeke gogoia edukitzea	392
4.3. Lanen originaltasuna	393
5. UZEI, ala euskararen normalizazioa da arazoa?	394
5.1. Irabazirik gabeko lana	394
5.2. Zer eman du UZEIk euskal kulturari	394
5.3. UZEIren harremanak	395
5.4. Instituzioak	397
6. [N. B.: Hogeita hamar urte geroagoko ondorio bat]	397
Joxe Anjel Iribar edo kirol euskararen lehen pasadizo eta ibilerak [2005] .	399
1. 1980ko urte hura	399
2. J. A. Iribarren bizi-zertzeladak	402
3. Euskararen aldeko omenaldi-agurra	404
4. UZEIko lana: hiztegia eta taldegintza	405
4.1. Corpora lantzen	405
4.2. Kirol munduarekin	406
4.3. Hiztegiaren hedapen soziala	408
5. Ondorioztatuz	409

